E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque

EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

2004, 2
49. liburukia (2. aldia)
BILBO

EUSKALTZAINDIA

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo
Telefonoa: 94 415 81 55
Faxa: 94 415 81 44
e.posta: info@euskaltzaindia.net
web gunea: www.euskaltzaindia.net

Argitalpen batzordea / Comisión de publicaciones:

Burua:	Andres María Urrutia Badiola
Kideak:	Beñat Oihartzabal Xabier Kintana Jose Luis Lizundia Henrike Knörr Andres Iñigo Pello Salaburu
Eragile eta idazkaria:	Ricardo Badiola Uriarte

© Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca/A.L.B.

ISSN. 0210-1564
Euskera
ISBN. 85479
Legezko Gordailua BI-1.244-58

Fotokonposizioa: Rali. Particular de Costa, 8-10, 48010 BILBO

Publimail 2000. Bilbo-Galdakao errepidea, 18, Arzubi etxea, 4. solairua, 48004 BILBO

Aldizkari hau beste agerkariekin trukatzen da. Otoi, idatz Zuzendariari.
Esta **Revista** admite el intercambio con otras publicaciones.
Rogamos dirigirse al Director.

AURKIBIDEA

JOSE LUIS LIZUNDIA ASKONDO, EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Harrera, *Nekane Alonso* 605
Ongi etorri Abadiñora!, *Javier Uriarte* 607
Euskal kulturginza 60ko hamarkadan, *Jose Luis Lizundia Askondo* . . 609
Jose Luis Lizundia euskaltzain berriari erantzuna, *Jean-Louis Davant* . 631
Jose Luis Lizundia-ren sarrera mintzaldian, *Jean Haritschelhar* 641
Gerediagako Salbadoren, *B. Gaztelurrutia* eta *A. M. Aldekoa-Otalora* 643
Akademiaren ekitaldi amaieran, *Jose Mari Iriondo* 647

MAURICE HARRIETEN HERIOTZAREN LEHEN MENDEURRENA: (1814-1904)

Maurice Harrieten (1814-1904) euskara-frantsesa hiztegiaren berezitasunak, *Arantxa Hirigoyen* 653
Maurice Harrieten liburutegia, *Pierre Andiazabal* 661
Larresoroko gaur egungo euskara, *Irantzu Epelde Zendoia* 663
Bernard Maurice Harriet (1814-1904) apezaren mendeurrenean, *Piarres Charritton* 679

IKER SAILA

ONOMASTIKA

Irizpenak, *Mikel Gorratxategi* 701

Olatzagutia, *Andres Iñigo* 703

Laudio, *A. Iñigo - M. Gorrotxategi* 705

Lezamako Toponimia: ekarpen kritikoa, *Patxi Galé García* 709

Eibarko Toponimia, *Patxi Galé García - Mikel Gorrotxategi* 725

JAGON SAILA

VIII. **Jagon** Jardunaldiak: Eliza eta euskara Gasteizko elizbarrutian... 803

Eliza eta euskara Gasteizko elizbarrutian, *Andres Urrutia* 805

Gasteizko Elizaren sortzea eta euskara, *Jose Luis Lizundia Askondo* . 807

Eliza katoliko erromatarra eta euskara, *Joseba Intxausti* 811

Gasteizko apaiztegia eta euskara gerra aurretik / El seminario de Vitoria y el euskera antes de la guerra civil, *Andrés Ibañez* 875

Euskararen egungo egoera Gasteizko elizbarrutiko pastoral jardueran, *Emilio Perez* 885

* * *

Actitud de los habitantes de Villaverde de Trucíos hacia el euskera: 1986-2002, *Mikel Gorrotxategi Nieto* 903

* * *

Euskara eta Euskaltzaindia Europako hizkuntzen mosaikoan, *Jean Haritschelhar* 919

El euskera y su Academia en el mosaico lingüístico europeo, *Jean Haritschelhar* 923

* * *

Euskaltzaindiaren agerraldia Nafarroako Parlamentuak Foru Komunitatean egin eta garatzen den hizkuntza politika aztertzeko eratutako batzordearen aurrean, *Andres Iñigo* 927

Comparecencia de Euskaltzaindia ante la ponencia constituida en el Parlamento Foral de Navarra, para el análisis del desarrollo de la política lingüística de la Comunidad Foral de Navarra, *Andres Iñigo* 939

* * *

JAGONET, *Jose Ramon Zubimendi* 951

EUSKALTZAINDIAREN BARNE-HISTORIA (VI)

Euskaltzaindiaren barne-historiaz, *Xabier Kintana* 955

Pierre Lafitten Gutundegia, *P. Charriton - P. Andiazabal - J. A. Irigaray* 957

P. Lafitte - A. Irigaray (1955-1970) 959

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

BATZAR-AGIRIAK

Larresoron, 2004.eko ekainaren 25ean 989

Bilkura irekia Euskaltzaindia Haltsun eta Larresoron 991

Abadiñon, 2004.eko uztailaren 23an 995

Ageriko bilkura bereziko batzar-agiria, Abadiñon... 998

Lizarran, 2004.eko irailaren 17an 1000

Donostian, 2004.eko urriaren 29an 1003

Gasteizen, 2004.eko azaroaren 26an 1006

EUSKALTZAINDIAREN *ARAUAK*

140.–*Gipuzkoako herri izendegia* 1011

141.–*Herri-izenak: hurrenkera eta zeinu grafikoen erabilera* 1021

142.–*Antzinateko eskualdeen euskarazko izenak* 1029

ADIERAZPENAK, HITZARMENAK...

Batetik, Eusko Jaurlaritza, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien, eta, bestetik, Euskaltzaindiaren arteko 2004. urterako *Hitzarmen* erantsia 1037

Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) eta Euskaltzaindiaren arteko *Hitzarmenaren* garapena 2004rako 1041

Lankidetza-Hitzarmena, Iruñeko Udalaren eta Euskaltzaindia/Euskararen Erret Akademiaren artean 1043

Tolosako Udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko *Lankidetza-Hitzarmena* 1047

Tolosako Udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko *Hitzarmena*, «Tolosako leku izenak» deituriko lana sistematizatzeko eta maketatzeko 1049

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren eta Euskaltzaindiaren arteko *Lankidetza-Hitzarmena* 1053

BERRIAK

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa eta Euskaltzaindiaren arteko ekitaldia 1059

Euskaltzaindia – Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioarekin **Hitzarmena**ren sinatzea, *Jean Haritschelhar* 1061

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazio eta Euskaltzaindiaren arteko **Hitzarmena**, *Pedro Aranburu* 1063

Ikastolen Konfederazioa eta Euskaltzaindia, *Andres Urrutia* 1065

Euskaltzaindia, *J. I. Etxezarreta* 1067

* * *

Idazle eta ikertzaile bat liburu artean beti. Jose Antonio Arana jaunaren goraipamenez, *Henrike Knörr* 1071

AURKEZPENAK, LITERATURA SARIKETAK ETA BESTE

BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA: LITERATURA SARIAK

BBK literatura sariak, *Jean Haritschelhar* 1077

Halako batean, heldu da *Manikien galeria* Blunderbuss-eko geltokira, *Mikel Zubeldia:* ***Txomin Agirre saria*** 1079

BBK-Euskaltziandia: Literatura sariak: Poesia, *Luis Miguel Garde* . . . 1081

Mikel Zarate saio saria 2004, *Antton Aranburu* 1083

Bilbao Bizkaia Kutxa-Euskaltzaindia literatura sariak, **Mikel Zarate** saria, *Patxiku Perurena* 1085

Ama, hor al zaude?, **Toribio Altzaga** saria, *Pablo Barrio* 1087

BBK-Euskaltzaindia literatur sariak, *Joserra Bilbao* 1091

* * *

R. M. Azkue literatura sariak 2003 1095

Premios literarios: ***R. M. Azkue*** 2003 1099

Azkue sariak, *Jean Haritschelhar* 1103

Azkue sariak, *Jabier Kaltzakorta* 1105

R. M. Azkue literatur sariak, *Joserra Bilbao* 1107

EUSKALTZAINDIA LIZARRAN

Nafarroa Oinez 2004 dela eta, Euskaltzaindiak Lizarran antolatutako ekitaldiak, *Andres Iñigo* 1111

Actos organizados por la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia en Estella con motivo del **Nafarroa Oinez** 2004, *Andres Iñigo* 1113

Euskaltzaindiko ekitaldietarako aurkezpena, *Josu Reparaz* 1115

Presentación para los actos de Euskaltzaindia, *Josu Reparaz* 1117

Estella/Lizarra - Euskaltzaindia, *Maria Jose Fernandez* 1119

Euskara Estellerrian, *Andres Iñigo* 1121

Toponimia, Estellerriko euskararen argigarri, *Patxi Salaberri* 1127

Estellerriko euskara Arabako eta Nafarroa Garaiko hizkeren bidegurutzean, *Iñaki Camino* 1137

Lizarran argitaratu zen Eltsoko Santxoren **Dotrina**, *Patxi Zabaleta* . . . 1149

Euskaltzaindia, *Iñaki Astarriaga* 1153

* * *

Liber 2004 Azoka, *J. J. Zearreta, J. Artza, R. Badiola Uriarte* 1155

* * *

Gema Insausti eta Itziar Rekalde-ri zilarrezko domina ematea, *Jean Haritschelhar* 1157

* * *

HIZKUNTZA GAITASUNA IPARRALDEAN

EGA Iparraldean, *Piarres Xarritton* 1161

D Mailako hizkuntza gaitasun agiria 1163

* * *

Txile, Argentina eta Uruguaiko bidaiaren berri, *Henrike Knörr* 1167

HIL BERRIAK

Manex Goyhenetche zenaren oroitzapena, *Jean-Louis Davant* 1173

Martin Ugalderen bizitzan zehar, *Joan Mari Torrealdai* 1177

Augustin Zubikarai Bedialauneta (1914-2004), *Andres Urrutia* 1185

* * *

Aurkibidea / Índice / Index, **2004** 1193

JOSE LUIS LIZUNDIA ASKONDO, EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Abadiñon, Gerediagako Salbadore batzar-etxean 2004-VII-23

HARRERA

Abadiño, 2004-VII-23

Nekane Alonso,
Bizkaiko Batzar Nagusietako ordezkaria

Alkate jauna.

Bizkaiko Ahaldun Nagusia, Gipuzkoako Ahaldun Nagusia.

Euskaltzainburu eta euskaltzainak.

Jaun-andreok!

Arratsaldeon eta ongietorriak etxe honetara, bizkaitar guztion etxea den honetara.

Pozgarria dut oso, gaur hemen, Gerediagako Batzar Etxean berba egitea Bizkaiko Batzar Nagusien lehendakariaren izenean, zorionak emateko Bizkaiko Batzar Nagusietako ahalduna hainbat urtetan zehar izandako kide bati, bera euskaltzain oso bihurtu denez gero.

Guztiok nahi dugu geure etxean onetsiak izatea eta sentitzea, eta horretara nahi izan du Jose Luis Lizundiak ere. Merezi ere bai, jakina! Berak dioenez, 'abadiñarra' izateak badakar ezaugarri berezi bat, Bizkaiko erdialdean bizi izatea, eta gure Lurraldearen jakite eta sentitze-maila izugarriak izatea.

Hori dela eta, Bizkaiko Batzar Nagusiak eta beraien kideok harro sentitzen gara, gure arteko bat badelako daborduko Euskadiko hizkuntza erakunde goreneko kide osoa. Zorionak, Jose Luis, bihotz-bihotzez, bizkaitar guztion izenean.

ONGI ETORRI ABADIÑORA!

Abadiño, 2004-VII-23

Javier Uriarte, Abadiñoko alkatea

Euskaltzainburu jauna,
euskaltzain andre eta jaunok,
herri ordezkari,
euskaltzale,
jaun-andre guztioi:
arratsalde on, eta
ongi etorririk beroena Euskaltzaindiari.

Zazpi lurraldeetatik etorri zarie euskaltzainok gure herrira, «Zazpiak Bat» egiten dabelako zuon Erakundeak, Euskeraren Akademiak.

Batzuk, lehenagotik ezagutuko zenduen Abadiño. Ez da nik neuk esatearren, baina harro gagoz gure herriagaz. Euskal historian 1.051garren urtean agertzen ei da, Errioxako San Millan de la Cogollako agiri batean.

Zuk zeuk, Jose Luis, *Txile* bezalakoa deritxozun herri honetan, iparraldean dagoen auzo honetatik eta hegoaldera dagoen auzora, Araba eta Otxandiogaz muga egiten daben Amaitermiñera, badozue zer ikusi eta gozatu.

Gerediagako leku hau, Durangaldeko Batzar Nagusien kokaleku izan zen ehundakak urteetan, 1876an Canovasek euskal foruak kendu arte.

Eta eraikin honen azpian, autopista azpian, hobeto esanda, Traña-Matiena, auzo populatua eta industriagunegaz betea dogu.

Goizeon izan dozue euskaltzainok, gure Udaletxean egin baidozue zuon osoko bilkura, *Abadiño-Zelaieta*ren erdiko gunea ezagutzeko aukera. Hegoekialderago joan da, *Muntsaratz* auzoa, bertan dagoelarik seguru asko Erdiaroko Bizkaiko dorretxerik ederrena, «Eusko Label»-en egoitza nagusia.

Hegoalderago *Alluitz*, *Asiki* eta *Untzillatx* barrenetan *Sagasta* eta *Mendiola* auzo xarmangarriak. Haruntzago Urkiolako Santuarioa, «Euskal Herriko Padua» deitutakoa.

Hurrengoan lasaiago etortera gonbidatzen zaituet, zeren Abadiño ez dago pasealeku, dorretxe eta baserri ederrez hornitua eta, ez eta, hotel eta jatetxe onez ere.

Ohorea da guretzat gure Hizkuntza propioaren Akademia eta bere kideak guregana etortea, hare gehiago, *Traña-Matienako Etxenagusia* baserrian hasi eta hezitako Jose Luis Lizundiaren sarrera ospakizuna hemen, Abadiñoko lurretan egiteagaitik.

Ni beste auzo batekoa banaz be, *Muntsaratzekoa*, gazte-gaztetatik ezagutzen dogu alkar, orain hogeitaka urte *San Blas Feria* famatuaren barriztatze egitarau eta lanetan, lankide izan ginan.

Jose Luis, hire sekretario postuaz ondo baliatu hintzen, haraz «vespa» zaharraz edo otxocientoscincuentagaz papelak haruntz-honuntz, *La Gaceta del Norten* artikulutxoren bat, alkate karlistakaz ardau zuria edan ta Partiduko klandestinidadien... Gerediaga elkartearen sortzaileetarikoa, euskara irakasten aintzindari, ezpatadantzaren suspertzaile, nahiz eta Santi Ixundik herriko talderako aukeratu, ez beste batzuen mesederako.

Durangoko Azokaren eragile, 60garren hamarkadatik aurrerako euskal kultur mugimenduaren saltza askotako... *Beittik*, Argiñanok esaten jok, janari tipo guztiek onartzen dabiela perejilla, eta hemen, gure inguruan, joan den berrogei urtean, inor izan badok «ekiña», hasi Garaiko prozesiñotik, Gasteizko Parlamentutik eta Batzar Nagusietatik bueltan Euskaltzaindira bitarte, hori heu haz.

Eskerrik asko eta zorionak Jose Luis adiskide eta lagun... eta laguntzeko prest.

EUSKAL KULTURGINTZA 60KO HAMARKADAN

Gerediaga-Abadiñon,
2004.eko uztailaren 23an

Jose Luis Lizundia Askondo

Arratsaldeon senide, euskaltzainkide eta adiskide guztioi. Ongi etorria jaso duzue, Euskaltzaindiaren ageriko batzarretan ohi bezala, tokian tokiko herriko alkate jaunarengandik, gaurkoan eta hemen, Abadiñon, nire adiskide Bentabarriko Javier Uriartegandik. Hasierako agurra, Jean Haritschelhar euskaltzainburuarengandik. Bi horiez gain, hemen mahaiburuko dudan Nekane Alonso, Bizkaiko Batzar Nagusien ordezkariarengandik, hirurok agurtu nahi ditut.

Gainontzeko agur-aipamenen hasiera, hor aurrean dituzuen hiru emakume izendatzea zilegi bekit: Lourdes, nire emaztea; Leiore, gure alaba eta, Guadalupe, nire ama. Hirurok osatzen baitute nire bizitzako «Trinitate» bedeinkatua.

Segidan, egoitza eta ordezkaritzetako langile-lankide guztiok eta aldemenetan jarri zaituzten euskaltzain osook.

Agurtu nahi zaituztet, baita ere, aurrenengo lerrokadan zaudeten agintariok: Jose Luis Bilbao eta Joxe Juan Gonzalez Txabarri, Bizkaiko eta Gipuzkoako diputatu nagusiok; Miren Azkarate, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburu, euskaltzainkidea; eskualdeko alkate, Abadiñoko zinegotzi, eta enparau herri ordezkariok. Nola ez hona etorri zareten euskaltzain ohorezko, urgazle eta batzordekideok, kultura eta politika lagunok, adiskide eta lagun oro. Agur!

* * *

Akademiaren Erregelek diotena entzun duzue. Lege Azpibatzordekide legez niri neuri tokatu zitzaidan horren lehen idazketa egitea, testua berritu zenean, euskaltzain osoen sarrera kokalekuen tradizioa kontuan izanik, horretan erakundeekiko tradiziozale bainaiz. Ezin igar diezaiokezue zer-nolako ohorea den niretzat, hemen, XIII. Mendearen hasierarte Iruñeko Erresumako izan zen Durangoko konderri, Bizkaiko merindade autonomo, gero, hots, Batzar Nagusien propioen egoitza honetan sarrera hitzaldia egitea. Tamalez, ondoko berriztatze lanak amaitu barik daude, inguruaren edertasunaz gozatzeko.

Jakin ezazue, Akademia erakundeko ez zaretenok, Euskaltzaindia, zazpi Euskalerrietako instituzio amankomun bakarrean sarrera mintzaldiak ez direla

Bilboko Plaza Barriko egoitzan bakarrik egiten, are gehiago, 1921eko otsailaren 27an Baztango Udaletxean, Damaso Intzakoak hasiera emandakoari ohitura jarraiki, zazpi herrialdeetako udaletxe eta eraikuntza publiko askotan burutu direla. Hain zuzen ere, eskualde historiko honetako Batzar Nagusien egoitzan sarrera egitea, Henrike Knörrek 1978an eta Patxi Goenagak,1995ean, Abadiñoren mugakide dugun probintziako Arabako Batzar Nagusien aretoan egiteak eman zidan ideia.

Jose Mari Satrustegiri aipamen eta ohore

Entzun diozue, Xabier Kintana idazkari akademikoari, 57.7. artikulua. Berorrek aginduko ez balu ere, zor diot aipamen hori Jose Mari Satrustegi zenari. Euskal Herri osoan haren lanengatik ezagutua, Nafarroan instituzioa, euskararentzat ikerlerik onenetarikoa, Euskaltzaindiarentzat zutabe historikoa. Ohorea da niretzat haren ondoko sartze-izatea, gehiegizko, lar, agian, 2. zenbakidun domina eramatea, nire euskalkiko Koldo Eleizalde Debarrokoaren, Urolaldeko Etxegarai anaia bien, Karmelo eta Bonifacio eta Toloserriko Nikolas Ormaetxea «Orixe»ren segidakoa baitzen Sakanako semea.

Satrustegiren euskalgintza, bereziki Euskaltzaindikoa, oso hurbiletik ezagutu eta jarraitu izan dut, bestalde, lankide ere izan ginen urte askotan. Hamalau urtez hura Erakunde-idazkari eta ni idazkariorde. Pentsa dezakezue norainoko lokarria izan dugun bion artean. Genio-izate biziduna, Haren arrebak aitortzen zidan hori joan den martxoan, Arruazun. Bestalde, «nafar zezena» esaten zuen euskaltzain batek, behin baino gehiagotan «toreatzea» tokatu zitzaidan, baina inoiz ere ez ginen zeharo haserretu, besteak beste, argi geneukelako, gure izamoldeak gorabehera, Erakunde amankomunarekiko interesak zeudela gainetik; baina, ezer bazen Jose Mari, Euskaltzaindiarekiko leiala izan zen.

Andres Iñigo, Nafarroako ordezkari eta euskaltzainkideak, oraintsu *euskera* agerkarian Satrustegiz idatzitako lau kapituluak dakarzkizuet, alegia:

I.–Euskararen defendatzaile Nafarroan;
II.–Euskararen lekukoen biltzaile eta ikertzaile;
III.–euskaltzain eta,
IV.–Jose Mari Satrustegiri buruz erran eta idatzitakoak.

Gehienok entzunak edo irakurriak dituzue, eta hemen ez ditut errepikatuko. Bakarrik **euskaltzain** lerrokadara mugatuko naiz, hots:

> «1963ko maiatzaren 18an 'Orixek' utzitako aulkia hartu eta ia berrogei urtez euskaltzain oso izan zen. Aldez aurretik, bertze sei urtez ere urgazle izan zen. Berriki gogorazi digun bezala, hurbiletik hartu zuen parte Erakundearen erabaki garrantzitsueen bilakabidean, euskara batuarenean, alegia. Halaber, Erakundearen barne egituran kargu garrantzitsuak izan zituen, hala nola, 14 urtez idazkari eta 18 urtez Nafarroako ordezkari. Jarduera akademikoetan Haren emaitzarik oparoenak **Onomastika** batzordean eta **Jagon** Sailean eman zituen, ahantzi gabe hain berea zuen Nafarroako euskaratik hiztegi batuari egin zizkion ekarpenak.
>
> Akademia hurbiletik edo, hobeki erranda, barru-barrutik ezagutu eta bizi izan zuen, eta Hura, adierazpen publiko guztietan, Instituzioaren defendatzaile sutsua agertu izan zen beti. Esaldi batean laburbiltzeko, Haren senideetako batek, urte honetako martxoaren 27an, hil zen egun berberean, esandakoa aipatuko dut: «*Euskaltzaindia Jose Mariren bigarren familia izan da*».

Egia galanta. Eta hemen, nire aurrean dauden hiru emakume-familiakoek, nahiz lankide zein Zuzendaritzakideek, nitaz ere, gauza berbera errepikatuko lukete, seguru asko.

Une batez, nire aitaponteko-erantzule hautatu nuena, Andolin Eguzkitza ere oroitzea nahiko nuke. Galera izugarria euskararentzat eta gure Akademiarentzat; baita lagun eta adiskideontzat ere.

* * *

Gaurko sarrera hitzaldiaren gai nagusia hautatu eta gero, ohartu nintzen ur sakonegietan sartu nintzela, ozeanoan, seguru asko. Dena dela, gaiak badu

zerrikusirik, behinola gure Euskaltzainburuak, Donostian, Zuzendaritzako bilera baten ondoren egindako proposamenarekin, alegia, Euskaltzaindiaren azken hogeita hamabost urteotako barne-historia, hots, Miguel Unamunok esaten zuen intrahistoria idatzi behar nuela. Albotik, garai hartan idazkari akademiko zen Patxi Goenagak, aspaldiko adiskideak, animatu ninduen berandutu baino lehen «memoriak» idazten hasteko, berak ohi duen adarjotze eran, esaldi batekin. Esan nien, jubilatu ondoren. Behinolako Georges Lacombe euskaltzainaren liburutegi sailkapenaren antzera, hiru liburukitan idatziko nituela nire memoriak, hots: bata, *kulturgintza-euskalgintzakoa*; bigarrena, *politikoa* eta, hirugarrena, *orotarikoa*.

Geroztik, uste gabe, jubilazioarekin batera, lehenago gure Arautegi zuhurraren arabera, ezinezkoa baizitzaion idazkariorde-kudeatzaileari (hori, herri agintariok uler dezazuen, udal idazkari-artekaria ezin dela, legez, zinegotzi ezin litekeela izan), euskaltzain oso izendatzean pentsatu nuen, lehen tomo horren, lehen zatiaren laburpen gisa, izan zitekeela hitzaldi hau, hots, «1960ko hamarkadaren kulturgintzaz» eta, bereziki, *euskalgintzaz*. Astia hartzen baldin badut eta osasuna izan, egingo dut, hots, 70ko hamarkada, bi azpizatitan: bata lehen bost urteetakoa, alegia, Francoren diktadurapekoa eta, bigarren «kinke-

nioa», transiziokoa, gure denon sektariokeria eta banderizokeriak barne delarik. Hirugarren zatia, 80-90 hamarkada, biona batera.

* * *

1. 1961eko Euskaltzaindiaren Biltzarra Donostian

Gipuzkoako hiriburuan egin zuen Euskaltzaindiak bere gerra osteko bigarren Biltzarra, hain zuzen, urte horretako abenduan, *Euskera* agerkarian, biltzar agirien artean, jarraiko hau irakur daiteke:

> «Abadiño-n,1961´gko urrillaren 20-an. –Euskaltzaindiko Buruzagi jauna. –BILBO. –Jaun agurgarria: Euskerari buruz oar asko egin litezke eta danak gitxi dira gure izkuntza maitearen alde. Nik ere nere zorrotxoa eraman nai dut errotara: EGUTEGIAK. Gaztea naiz (23 urte nituen orduan) eta orregatik ez dakit asko lengo berri, baiña urte auetan agertzen asi dira egutegi batzuk euskeraz:.... Baiña au tamalgarria, danak desberdiñ, eta desberditasun au arritzekoa da arrotz batentzat eta lotsatzekoa euskaldunontzat. Ayentzat: Nolako izkuntza duk au? Bertakoontzat: Bueno, bueno, etxakiat zein erabili ba, ta obe duk enerua, febrerua... esatea,, ze onekin ziurrago nejabik.... Besterik gabe, barka eskatuaz, agurtzen zaitu biotzez. Jose Luis Lizundia Askondo».

Horixe izan zen, duela 42 urte pasa, nire euskalgintza mundurako «suzko bateoa». Nire gutuna irakurri ondoren Aita Luis Villasantek bere txosten-hitzaldia irakurri zuen, hain zuzen, nire eskaerari lotuta. Eta Hark, bigarren lerrokadan, zera dio:

> «Abadiñotik Lizundia jaunak idatzi zigun, batasunaren alde egiten dan baiño lan gehiago egin bear dala esanaz....».

Eta gero, hilabete guztien izenei buruzko azterketa zehatza egin zuen, *Euskera* agerkarian ikus daitekeenez. Idatzi banuen idatzi nuen, zeren eta elkarrizketan izugarrizko zalaparta sortu zen eta Koldo Mitxelena mahaiburuak esan zuen:

> «Ezkaitezen sesiotan asi orren gauza gutxigatik. Alegia, Aita Villasantek, ez Euskaltzaindiak, eztute gauza ontan errurik. Erruduna, erruduna baldin bada, karta orren egillea da, eta karta orren egilleak ere eztu errurik. Berak aurkitu du desberdintasun aundiak daudela eta galdera bat egin du. Zerbaitetaz auzia bear badugu izan irizpide oietaz da. Eta nik ontan askotan egin dan duda eskera egingo nuke berriz ere, ia noiz zentzatzen geran, ia noiz begiratzen dugun ingurura eta beste gaiñerako izkuntzetan zer gertatzen dan ikusten dugun».... «Biaramonerako utzi dira batzarrak...»

Eta hurrengo egunean beste gai batekin hasi zen Biltzarra.

Hamar urte igaro behar izan zen Euskaltzaindiak hilabeteen izenez Araua emateko. Orain hogeita hamar urte, hain erraz soluzionatutako arazo hau, eskoletan eta ikastoletan, administrazioetan eta komunikabideetan; hamabi izenok finkatu eta errotu ondoren, berriz ere sakabanatze-ahaleginak egiten dihardute zenbaitzuk. Ernegua sorrarazten zait. Eta hau da itauna: berriz ere tribuetara goaz? Ez ote gara gai egutegi nazional bati eusteko ere? Badirudi batzuen irresponsabilitatez, ezetz.

Bateo data hau hartzen dut hasiera erreferentziatzat gaurko hitzaldirako. Amaierakoa, 1970 urteko iraila, Zuberoako hiriburuan A. Luis Villasante euskaltzainburuaren kargu hartzearena. Garai berri bat hasten zuen hizkuntzaren Akademiak eta euskarak berak ere bai.

2. 1963koa Arantzazun eta, Loiolan, 1966an

Oñatiko Arantzazun, bigarren Biltzarra, oso adierazgarria izan zen garai hartako kultura munduarentzat eta, bereziki, euskaltzalegoarentzat. Hain zuzen ere «Euskaltzaleen Biltzarra» deitu zen, titulua berea ere esanguretsua zelarik: «Hiztegi iturburuak eta kultura hitzak». Beronek, irailaren 30tik urriaren 2rarte iraun zuen. Egun bitan joateko aukera izan nuen. Orain hizlarien izenetara mugatuko naiz: Sebero Altube, Luis Villasante, Julene Azpeitia, Jose Maria Azpiroz, Jose Azurmendi, Jose Migel Barandiaran, Jose Basterretxea «Oskillaso», Imanol Berriatua, Nikolas Altzola Gerediaga «Anaia Berriotxoa», Andoni Urrestarazu «Umandi», Joseba Intxausti eta Eugenio Agirretxe. Hauek guztiok garaiko euskalaririk bikainenak. Orduko kontestuan jarri behar da Biltzar hori, ordenaren babespean bakarrik posible zena, entzundako hitzaldi, txosten eta eztabaidek sortu ziguten zirarra ulertu ahal izateko.

Ordutik urte bitara, oraingoan, Jesusen Konpainiaren babespean eta beraren semerik famatuetarikoa omentzeko, hots, *Manuel Larramendi*, antolatu zuen Euskaltzaindiak beste biltzar bat Loiolako santutegian, alegia, 1964ko irailean, gerra osteko seigarrenean, hain zuzen. A. Luis Villasantek zioenez, guztiz apala suertatu omen zen, arrakasta gutxikoa. Zehatzago aztertu beharko litzateke, bai Azkue Bilbiotekako artxiboan eta, baita Loiolakoan ere. Zergatik gertatu zen hau, kontuan izanik euskaltzale zahar eta gazteok, zer nolako egarria geneukan !!! Gai nagusia ere interesgarria zen:»Euskarak irakurleak gehitzeaz». Eta ni, bertara, bakarrik, azken egunean joan ahal izan nuen.

3. Euskal kantagintza berria

Gure belaunaldiko edonork daki euskal kangagintza berria, Kataluniako «nova cançó» fenomenoan oinarritua dagoela. Principateko bibliografia uga-

riz hornitua dagoen neurrian, ez dago hemengoa, horrenbeste ez gutxiagorik ere. Balen Oronoz Antxordokik, Juan Mari Lekuona euskaltzainkidea aitaponteko duela, liburuki polita egin du, titulu luzetik hasita: G*azteri berria, kantagintza berria. Euskal Kantagintza Berriaren («Ez dok Amairu) eta Nova Canço Catalana-ren (Els Setze Jutges») arteko Azterketa konparatiboa.*

Manuel Vázquez Montalbanentzat, kantagintzak izan dezakeen eragina zeintzu faktoreei zor zaien azaltzen du, labur bilduz:

> «testua laburra eta oroiterraza izatea; musikaren bitartez giza sentsibilitatera, emotibitatera heltzea; komunikazio erraza izatea; kantariaren beraren izaerak «karismak», eman dezaiokeen babesa».

Munduan zehar ereinda zegoen hazia ere aipatzen du, hala nola Atahualpa Yupanqui, Bob Dylan, Beatles taldea, George Brassens. Doménico Modugno eta abar.

Lehen kapitulua amaitzeko Juan Mari Lekuonak, 1978.eko *Jakin* aldizkarian egindako definizioaz gelditzen da, nahiko osatua iruditzen zaiolarik Oronoz andreari. Gaurkoz pasarte bat aski da, nahiz eta gero hitzaldi hau argitaratzen denean osoa irakurtzeko aukera izango baduzue ere. Honela dio Juan Mari Lekuonak:

> «Kantautoreari eskatzen zaizkion baldintzak hiru eratakoak dira: poetaren arikoak, musikalariaren alorrekoak eta kantariaren mailakoak».

«Ez dok Amairu» taldea da euskal kantagintza berria nagusiki denifitzen duena. 1965ean biltzen hasi zen taldea eta Barandiaranek Bizkaian bildutako ipuin baten oinarritua, Oteizak eman zion izena, gehienok jakingo duzuen legez. 1966ko urte hasieran, Jarrai antzerki taldearen eskutik egingo zuen, urtarrilaren 9an, Hernanin eta Donostiako Victoria Eugenian, hil horren 23an. Astia banu, martxoaren 20an , Irunen taldeak eman zuen errezitalaren erreseina ekarriko nuke, liburugilea ohartu ez bada ere, badakidalako nor den, Nikolas Altzola Gerediaga izurtzarra, Anaia 'Berrio-Otxoa', alegia. Bizkaira urte berean etorri ziren lehendabizikoz, hain zuzen, Gerediagak ekarritako Durangoko *II. Euskal Liburu eta Disko Azokara*, Domusantuetan. Izugarrizko onarpen eta zabalkundea lortu zuen Uribarriko Andra Mariako elizpe handia jendez gainezka «Ez dok Amairu»-k, Euskal Herriko eskualde orotarik etorritakoak. Bertan kantari jarraikook izan ziren, alegia: Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Xabier Lete, Lourdes Iriondo, Julen Lekuona, Jose Anjel Irigarai izan ziren, baita Artze txalapartariak ere. Baina esan behar da, lehentxoagotik hasi zela Mikel Laboa kantagintzan, katalanekin zituen harremanak medio, 1964an, Lapurdiko «Goiztiri» argitaletxean argitaratutako lau kanta herrikoiekin. Eta hemen ez naiz talde honekin gehiago luzatuko, 1965-72 urteetan iraun zuen eta ongi estudiatuta / ikerturik dagoela, uste dut.

Gutxiago, ordea, beste kantari batzuk, hala nola Mixel Labegerie, lapurtarra. Beronek, 1963an, lehen diskoa plazaratu zuena, besteak beste, «Gaz-

teri berria» kantu famatuarekin, Piarres Lartzabal euskaltzaina letragile izan zelarik. Maite Idirin eta Estitxu Robles bizkaitar bion kantagintza ere historiatzeko dagoela, esan daiteke. Jose Antonio Villar oñatiarraren *basque party* edo eta *euskal ye-ye* motako kantagintza modernoa, alegia, dantzalekuetarakoak ere aipamen garatuagoa mereziko luke. Honela, Bergarako Arizona hotelak saioak antolatzen zituen eta nobedade erakargarria zen dantzazaleontzat. Orobat, *Soroak* eta Azkoitiko *Los contrapuntos* boskotearenak, Luis Iriondo tartean. Ondarroako Argoitia neba-arrebak, 1969, Abrako Jaialdian sarituak. Lerrokada honek Imanolekin amaitzea merezi du, zeren eta egunotan zendu berri zaigunez gero, 60.hamarkadaren amaieran hasi baitzen kantatzen, Hark esandako arrazoibideekin, alegia:

> «Jendearen kontzientzia esnatzeko kantuak behar ziren. Horregatik hasi nintzen, beharrizan politiko batengatik».

4. Euskal artisten lau taldeak

1966.eko uztailaren 25etik 31ra, Garaiko Zubiaurre anaien, Valentin eta Ramonen omenetan antolatu zuen Gerediaga Elkarteak erakusketa bat, he-

mendik hiru kilometrora dagoen udalerrian. Baimenak lortzeko, Santiago-Santa Ana herriko jaien egitarauan sartzea izan zen lehen prozedura, Udalaren babesa lortuz, orduko Juan Oarbeaskoa alkatearen laguntzarekin, eta Diputazioarena, Durango eta Markinako diputatu probintzialenagaz. Omenaldiaren kanpoko jaia, ofiziala, lehen eguna izan zen; eta, bigarrena, ordea, Santa Ana egunekoa, itxuraz apalagoa, garaitarrena bakarrik izaten dena, artisten omenaldirako aprobetxatu zen hiru hilabete lehenago, Gipuzkoako *Gaur* taldea sortua zen eta *Hemen* izendun Bizkaiko artista taldearen kanporatzeko igararri bazen ere, prekauzio guztiekin, Arabako *Orain* eta Nafarroako *Danok* taldeak osatzeko ere baliatu zen Zubiaurretarren omenaldi hau, zeren eta lau herrialdeetako artistak hurbildu baitziren Garaira, Artze anaien txalaparta deialdi eta guzti. Hona hemen adierazpenaren lerrokada zenbait, gaztelaniaz, noski:

> «El grupo EMEN de Vizcaya, al nacer con el grupo GAUR en Guipúzcoa, el grupo ORAIN en Alava, el grupo DANOK en Navarra, con la voluntad de unir a los artistas respetando sus diferentes tendencias dentro de la ESCUELA VASCA .... su identificación con el manifiesto del grupo EMEN en abril; estableciendo dentro de este espíritu sus directrices generales en común con los otros grupos, sobre la base de igualdad y respeto al carácter y autonomía de cada uno de ellos...».

Nazio Batuetako giza eskubideen karta, *Pacem in Terris* entziklika famatua eta askatasun espresioa agertzeaz gain, zenbait erreibindikazio egiten ziren. Hauetatik bakarra dakargu hona:

> «a) Reivindicamos la elemental y urgente necesidad de la creación del Instituto de Investigaciones estéticas como culminación y actualización de las Escuelas de Bellas Artes, con la proyección actual de enriquecimientos e investigación de nuestra cultura, en cada uno de los diferentes niveles que se le vienen planteando al artista; así como de una Universidad Vasca sin carencia ni dispersión de Facultades Técnicas y Humanísticas a nivel de nuestra sociedad».

Pentsa dezagun zer datarekin amaitzen den «Garay, 26 de julio de 1966». Hau da diktadorea, alegia, Francisco Franco hil baino bederatzi urte lehenago! Prentsak, *La Gaceta del Norte*ko Miguel Angel Astiz, kazetari euskaltzale nafarraren kronikaz landa, ez zuen ohiartzunik txikienik ere eman. GEREDIAGA elkartearen aldizkariak, zeinen zuzendari legala zen Astiz berbera, ekarri zuen adierazpen hura.

Omenaldiaren bazkalostean kamuflatutako bileran artista ezagun ugari agertu ziren, alegia: Oteiza, Zumeta, Ruiz Balerdi, Basterretxea, Larrea, Ibarrola, Elgea eta abar (antolatzaile elkartearen idazkari gisa hartu nituen oharrak ez ditut aurkitu). Herriko Etxean, argitaldari, idazle, kantari eta beste mahaikideek lekukotu zuten kasu honetan ere euskal kulturgintzako transbersalitatea. Noizbait garatuko ote da, hots, euskal artiston 60ko hamarkadaren mugimendua, noski, kulturgintzaren kontestu osoan?

* * *

5. *Ama Lur* filma

Euskal kulturgintzan, film honek zer suposatu zuen hamarkada honetan jakiteko ez dago gauza hoberik Gurutz Jauregi, Félix Maraña eta Juan Manuel Gutierrezek paratutako liburukotea irakurtzea baino, hots, *Haritzaren Negua AMA LUR y el País Vasco de los años 60* izenekoa. Aipaturiko lehen bien artikuluetatik pare bana aipamenekin aski duzue, gaurkoz, baina, dena irakurtzea biziro erregutuz.

Gurutzek «Nuestro mayo del 68» titulupean:

> «Durante la década de los sesenta Euskadi vivió tiempos de grandes protestas sociales y políticas... Estos y otros acontecimientos constituían en definitiva el reflejo, la parte más visible de la extraordinaria vitalidad y efervescencia de la sociedad vasca del momento, en todos sus ámbitos, cultural, económico, social, político, etc...» .

Félix Marañak, ordea, «La década creadora» izenpean hausnarketa sakonak egin zituen, besteak beste:

> «Existe una tendencia generalizada a explicar la historia reciente de Euskadi reduciendo su pasado a la significación más o menos mediata o inmediata, de lo que la política determina, informa o conforma. Este modo de historiar, que presta relevancia, de manera sectaria, al pasado de los agentes y grupos políticos y centra su ejecución en su ejecutoria, falsea por reducción el valor de la historia «total» y desoye y cercena la ejecutoria civil del conjunto de actividades sociales y culturales en un tiempo determinado.... la sociedad civil y buena parte de sus agentes culturales conformaron una tarea de mayor significación y mejor crédito. Esto, sin más, ha sucedido a la hora de tratar de un período, como es la década 1960-1970...»

78 artikulugile biltzen ditu liburu aberats horrek, kultura eta politikako andana oparoa agertuz. Orain zerrendatzea luzeegi aterako litzateke, baina bai, agian, argitaratzean ezarriko. Besteak beste, nireak honela zuen izenburua: «67-68 urteak eta euskal kultur testuingua». «Ama Lur» egitasmoaren inguruan, ez baitzen film soila izan, Fernando Larrukert, Nestor Basterretxea eta beste batzuren artean, Jose Luis Etxegarai zenaren izena nabarmendu zen, hura izan baitzen taldearen kudeatzaile eta arima.

6. Kultur elkarteen sorrera, *Gerediaga* eta beste

Gerediaga, Durango Merinaldeko Adiskideen Elkartea sortzea, 1965ko urtarrilaren 22an, San Bizenti auzoko santuaren egunean, beraz, Astolako orduko gure etxean, jaia ospatzeko afarian, talde batek asmatu genuen. Handik hilabete gutxira, ekainaren 7an, berriz ere beste afari batean, bestela legezko bilerak egitea zaila baitzen, Abadiñoko Soloeneko jatetxean, hamaika lagunek sortu genuen kultura elkarte hori. Legezko egoitza gure etxea, Bizkaiko Go-

bernu Zibilaren onartze agirian ikus daitekeenez. Horregatik nengoen ni honen zaindua!

Elkartea legeztatzeko, aurreko urtean, 1964.ko abenduaren 24ko «Ley de Asociaciones» lege berriaren arabera egin behar zen. Eta Lege horren garapen dekretua, 1965.ko maiatzaren 20koa zen. Frankismoaren lege berri horrek zirrikitu bat ematen zuen eta indarrean ezarri bezain pronto mugitu ginen. Hala eta guztiz ere, 1966ko ekainaren 1ean, onartu zigun elkartea orduko Gobernadore Zibilak, bizkitartean, ikerketa, informe eta beste buruturik, noski.

Interesgarria litzateke, 1965-1975 tartean, zirrikitu horren bidez, Euskal Herrian zehar zenbat elkarte sortu ziren jakizaraztea, kulturgintzakoak, bereziki.

* * *

Asmo ugari sortu ziren bazterretan, nahiz eta kasu batzuetan gauzatzerik ez izan. Honetaz, ni baino hobeto oroituko da gure euskaltzainkide eta adiskide, Jose Antonio Arana Martija, gugana etorri baitzen elkartearen sorreraren berri jakinguran, bera zebilelako Gernikan, Busturiko Merindadeko Adiskiden elkarte bat sortzeko asmotan. Jose Antoniori ezinezkoa suertatu zitzaion.

Gure elkartearen zilegitasuna lortzeko «eskualdearen kultura altxorra, zaintzea eta jasotzea « zen helburu nagusia, «interes amankomun baten, bata-

sun kontzientzia berloratuz». Beraz, argi geneukan, gure eskualdea, euskal eskualdea zela eta aipatu «batasun kontzientzia» ez zela bakarrik hamabi udalerrien artekoa, baizik eta Euskal Herrikoa ere. Esan ez genuen egiten, ez eta Bizkaikoa ere, badaezpada. Lehen ekintza, onuragarria zelako, baita despistatzeko ere, eskualdeko lau urietan, Elorrio, Ermua, Otxandio eta Durangon, pintura erakusketa ibiltaria antolatu genuen. Ez gara hasiko, hemen eta orain, elkarte honek 39 urtetan egin dituen ekintzak aipatzen, behinenak ere ez, ez eta kultura alorrekoak ere, zeren eta Elkartea nekazaritza eta beste ekonomia sektoreetan ere aritu baita. Tokiko administrazioko egitasmo bat aipa daiteke, hementxe bertan bildu baizituen, 1966ko abuztuaren 6an, *Salbatore* egunean, eskualdeko alkate gehienak, Mankomunite bat sortzea bultzatzeko asmoarekin. Honela ba, gaurko Euskal Autonomia Erkidego eremuko 36ko gerraostean, lehen mankomunitatea, eskualde honetakoa izan zen eta, bigarrena, Debagoienekoa. Eremu asko ikutzen zituen. Onuragarria litzateke eta, onartuko didazu atrebentzia, Gerediaga Elkarteko, Nerea Mujika lehendakari / buru andrea, datorren ekainerako, 40. urtemugarako, norbaiti Elkartearen barne-historia burutzeko agintzea. Onuragarria litzatekeen moduan, gainontzeko Hego Euskal Herrian, garai horretan, 1965-1975, loratu ziren kultur elkarteen historiak burutzea ere.

7. Euskal Liburu eta Disko Azoka

Gerediaga Elkartearen lehen urteko ekintzetariko bat *Euskal Liburu eta Disko Azoka* izan zen. Behin baino gehiagotan esan bezala, adibidez, Joan Marti Torrealdai zuzendariaren eskariz, 1975.ko urriaren 31ko *Anaitasuna* aldizkarian, «Hamar urtetako kronikan» idatzi nituen pasarte batzuetara mugatuko naiz, alegia:

> «...Azoka hau egitea, elkartearen sortzaileetariko baten ideia izan zen, Leopoldo Zugazarena. Gerla aurretik euskal liburu azoka bat Gasteizen izan zela entzuna zuen nonbait. Behin egindako feria horrek jarraipena behar zuen, egun jakin batetan egina, eraberritua, gaurkotua. Domusainduetarako prestakizunak egiten hasi ginen, beldur ere. Argitaldariak gauza ezezagun baten aurrean aurkituko ziren. Agintarien erantzuna ere ez zen segurua. Hemen emakume bi aipatu behar ditugu: Conchita Astola, elkartearen lehen presidentea eta beroren ahizpa Charines, Durangoko Udaletxeko bulegaria, mugitu behar ziren hari batzuk mugitzen saiatu zirelako. 1965ko urriaren 30etik azaroaren 1 bitartean antolatu zen Azoka, 25 argitaletxe etorri ziren, Katalogoak 28 orrrialde izan zituelarik.... Lehen Azoka honek Euskal Herriko kultura munduko zenbaituk harriturik utzi zituen. Gauza berri baten aurrean jarri zuen.: «Jai au ez da izan gure errietan antolatuten direan beste Euskal Jaien antzekoa, folkloreko gauzetan geldituten gara beti: dantza, bertso, kantu... Beti azaleko gauzak. Azoka onek sakonago jokatu gura izan dau. Folklore gauzak ezetsi gura barik, euskal kultura adierazo, indartu ta zabaldu gura izan dau».

Hau guztiau zioen *Anaitasunak*, 1965.eko azaroko zenbakian:

> «Beste euskal aldizkari eta erdal egunkarietan ere holako zerbait agertu zen, Durangoko Azokak ordurarteko jaialdien eraketaren muina gainditzen zuelako, hain zuzen ere».

Bigarren Azoka, arestian aipaturiko «Ez dok Amairu»-ren Bizkaiko lehen agerraldiaz gain, beste bi gertakizun bildu zituen, bata ondoko herrian, Mañarian, Kirikiñoren mendeurrena, Euskaltzaindiarekin batera, berau Bilboko egoitza eta Gipuzkoako Diputaziotik atereaz eta, bestea:

> «Andra Mariako elizpean bertan egin zen, halaber, azkenengoz egin den Bizkaiko bertsolarien txapelketa. Harez gero ez dute horretarako baimenik eman. Lau bertsolari hauk geratu ziren lehenengo: Lopategi, Mugartegi, Arregi eta Muniategi».

Eta hara non norbaitek zera esan zidan:

> – «Zer, EGIkoak dituk danak ala?».

Hurrengo urtean, 1967an, ezin egin ahal izan zen Azoka, Andra Mariako elizpea eta teilatua konpondu behar zelako. Geroztik, urterik urte, lehen zortziak elizpe zabal horretan antolatu ziren, l974koa, ordea, Merkatu Plazara, Gobernadore Zibilaren eraginez. Hura militarra baitzen, beraz, nekez zibila, baina kaltetu nahian mesedea egin zion Azokari. Geroztik, 2003.urte arte, 38 Euskal Liburu eta Disko Azoka antolatu ditu Gerediagak, Diputazioen, Jaurlaritzaren –1980 ondoren– eta Durangoko Udalaren babesekin. Argitaletxeen partaidetza urtetik urtera ugaritzen joan den uka ezinekoa dugu. Ea datorren urtean, beste 30 urtetako kronika norbaitek idazten duzuen, hots: Anton Mari Aldekoa? Jon Irazola? Seguru askoz ere aberatsagoa izango dela... Hemeroteka ere galanta izango litzateke eta *Index Onomasticon* delakoa ere, elkarteko langile trebe eta apal asko ere agertu beharko lirateke eta Euskal Herriko argitaldari, kantari, idazle, euskaltzale eta agintari ere. Bego horretan, gaurkoz, kronika orokor horren zain.

* * *

8. Antzerkia eta folkloregintza: dantza, txistu eta beste

Euskal antzerkia ere hamarkada honetan hasi zen mugitzen, gerraosteari dagokionez, noski, hitzaldi honetan errepikatuko den izen baten eskutik hain zuzen, Iñaki Beobiderengandik eta berak zuzentzen zuen Donostiako *Jarrai* taldearen inguruko *Antzerti*-ren bidez. Talde honek euskal antzerki tradizionalen ildotik aldendu eta korronte modernoetara eraman zuen hemengo antzerkia, Kataluniako antzerkigileekin harreman hestuak sortuz. Hain zuzen ere, Gipuzkoako egoera politikoa baino hobeagoa zegoelako hemen eta Gerediaga

Elkartea legeztatua, Zaldibarren antolatu ziren, Iñaki Beobide eta Ricard Salvaten zuzendaritzapean Euskal Antzerki Jardunaldiak, 1967.ko uztailaren 16, 17 eta 18an, herriko jaien egitarau babespean. Bartzelonako *Adriá Gual* antzerki eskolaren Salvat izan zen jardunaldion gidari, Antonio Labaien, Jone Forkada, Pierre Larzabal, Jorge Oteiza, Iñaki Barriola, Iñaki Beobide eta Salvat bera, besteak beste, izan zirelarik hizlari edo txostengile. Jardunaldiok probetxugarri izan ziren, ordurarte, bakoitzaren isolamendutik irten eta elkarren arteko loturak finkatzeko. Iñaki Beobide berak, amaieran adierazi zuenez, euskal antzerkiaz mintzatukeran, «Zaldibar aurretik eta geroztik» esan beharko dela. Gerediaga Elkarteak ere eskualde honetarako saila sortu zuen *Garitaonandia* izenekoa, zeinen babespean martxan hasi baitzen Durangoko *Geroa* izeneko taldea, hain zuzen, hamarkada honen amaieran.

Folkloregintza gerra aurretik abertzaletasun berbizkunde zentzutik aritu zen gehienbat. Hamarkada honetan beste gurpil bat hartu zuen, dantza autoktonoei buruzko ikerketa zentzua emateko. Herrietan, batzuetan hilzorian gainera, gordetzen ziren dantzak, hiriburu eta hiri ertainetan sortzen ari ziren dantza taldeen bidez indarberritzen hasi ziren. Gehiago oraindik, zenbait zuzendari lekukotasunak bildu, artxiboak arakatu, dantzari eta soinujoleei grabatu eta foklore ikerketan murgildu ziren. Izen batzuk aipatzearren Donostiako Juan Antonio Urbeltz, Bilboko Iñaki Irigoien eta Sabin Egiguren azpimarratuko nituzke. Durangaldean Ihurretako Jose Javier Abasolo «Tiliño»ren izena ezin dut ahantzi. Hain zuzen, 1967ko irailaren 27an, «Aita San Migel Ijorretako...», elizate horretan, Gerediaga Elkarteak antolatu zuen I. Ezpatadantzari Eguna, hasi berri ziren «Euskal Jaien» zentzuz kanpo, gure folkloreari eraberritze bat emateko asmoarekin. Han ziren aipaturiko ikerle eta beste. Data jakingarria gai honetaz 1969.ko azaroaren 29an, zeinetan lortu baitzen, urte eta erdiko kudeaketa zailen ondoren, Euskal Dantzarien Biltzarra legeztatzea. Jesus Mari Arotzarena, Manuel Olaitzola, Elena Arizmendi, Francisco Escudero, Antonio Valverde eta Javier Aranburu, azken biok euskaltzain urgazleak, izan zirelarik elkartea sortzeko sinatzaile, gibelean beste batzuk baziren ere. Elkarte horren emaitza, hurrengo urtean sortuko zen *Dantzariak* izeneko aldizkaria izango zen, guztiz irakurgarria gure folkloregintza eta beronen ikerkuntzaz zerbait jakin nahi baldin badu norbaitek. Ni neu ere, hasieran, kolaboratzailea izan nintzen.

Txistularitza Gerra Zibilaren ondorioz Diktadurak zeharo ez zuen baztertu, Lizarrako alkateak txistua jotzea galarazi arren. Askoz hobeki ezagutzen da elkartea 1964ko Legea baino lehenago legeztatu zen bakarretarikoa zelako eta, berarekin batera, *Txistulari* aldizkaria. Berau ez zen eta, ez da, txistulari munduaren harreman eta informazio iturri, bakarrik, baita ere melodia bilgune eta ikerketa leiho aparta ere, 60.hamarkadako bilduma delarik alor honen lekukorik hoberena. Aipaturiko aldizkari bion aurkibide komentatu batek asko lagunduko luke urte horietako folkloregintza ezagutarazteko.

* * *

9. Euskarazko klaseak eta Alfabetatze Kanpainen sorrera

Euskaraz ikasteko gerra osteko klaseak non, nork eta nola hasi ziren historiatzea ere onuragarria litzake. Bilbori dagokionez aurreko hamarkadaren amaieran, Xabier Peñaren ardurapean, Erribera kaleko Euskaltzaindiaren egoitza zaharrean hasiak ziren, gero Jaime Goenagak jarraituko zituenak. Eskualde honi dagokionez, aurtengo abenduaren 3an beteko dira berrogei urte hasi nituela uriko Santa Ana parrokiako «Escuela Dominical» deritzanean, bi talde 39 lagun apuntatu zirelarik.

Ricardo Arregik, euskal kulturaren historia aipatzerakoan, 1960. urtea hartzen du mugarri:

> «Eta ez da kasualitate hutsa gizartean horrelako aldakuntzak gertatzea (Estatuko aldaketa ekonomikoak ditu gogoan, teknokratenak batipat) eta euskal kulturara –hau da, euskal literaturara, euskal pinturara, euskal abestira, euskal antzerkira etab. –belaunaldi berri batera iristea».

Rikardok, 1966ko urtarrilaren 14an, Euskaltzaindira igorritako gutunaren zati esanguretsuenek hau diote:

> «Bi orri bidaltzen dizkizut nire adiskideen izenean ikus dezazun zer nai den nai duguna ta Euskaltzaindian datorren batzarerako.... gai au erabiliko den abisua, jarri dezazun (gure artxiboan dagoen gutun hau ez dago inori zuzendua, baina nori zegokion bistan dago, orduko idazkariordeari, Alfonso Irigoieni, alegia). Bakazioetan Koldo Mitxelenarekin egon giñan eta gure asmoekin ados zegon.... Uste dugu proposatzen duguna oso garrantzi gauza dela ta gu beiñepein Euskaltzaindiak onartzen baldin bagaitu lanerako gertu gaude ta....»

Arregik eta *Zeruko Argiako* Jarrai sailkide bik, Iñaki Beobide eta Mikel Lasak sinatzen zuten, gero, hil bereko 28ko Batzar-Agiriari, eskaria onartu zenekoari begiratzen badiogu, sinatzaileen artean Juan San Martin ere agertzen da. Beronekin, beste hirurekin eta Patxi Altunarekin osatu zen lehendabiziko Alfabetatze Batzordea. 1967an gure etxera etorri zen Bizkaian Alfabetatzeko Kanpainei hasiera emateko gogoz eta, handik lasterrera, Bilbon hitzordua jarri genuen, Xabier Kintanarekin, Udaletxe ondoko ostatu batean, honek hiriburuan eta nik eskualdeetan kanpainok atontzeko. *Alfabetatzea Euskal Herrian* liburukian honako hau irakur daiteke:

> «Herri Gaztedi izan zen eskualde honetan eragile, Abadiñoko **Gerediaga** auzoko **Salbadore** ermitan, Durangon eta Berrizen 1968 eta 69an alfabetatze ikastaroak martxan jarriaz. Ricardo Arregi berbera gure artean hizlari izan genuen».

Zilegi bekit, bertan gaudelako, pasarte hau zuoi irakurtzea.

Rikardoren heriotzak, 1969ko uztailean, gertatuak Alfabetatze Batzordea berriztatzea ekarri zuen, abuztuko Batzar-Agiriak dioenez:

> «Zuzendari, A. Irigarai jauna, eta Rikardo zenaren ordezko J. L. Lizundia eta Begoña Arregi. Ontzat hartu da».

Azaroan Kepa Enbeita eta Serafin Basauri sartzen dira eta hurrengo urtean, batzordea berriztatzen denean, Xabier Kintana, Bizkaitik, Manu Ruiz Urrestarazu, Arabatik eta Jean Haritschelhar eta Piarres Xarriton, Iparraldetik gehitzen dira. 1970era iritsiz gero, hamarkada honetan alfabetatzeari, euskalduntzea gehitzen zaio eta, nola eskualde bakoitza bere kontutik zebilen eta koordinatu beharra, Alfabetatze-Euskalduntze Koordinakundea sortu zen, AEK, alegia. Honen eragileetako bat izan zen Juanjo Zearreta lankidea, beraz, berari pilota pasatzera hobe, hasi «Colegio Vasco-Navarro de Arquitectos» delakoaren egoitzako bataio agiritik eta segi, hamarkada hori historia dezan.

* * *

10. Ikastolen loratzea

Oraindik ez da ziurtatu, noiz eta nork asmatu zuen *ikastola* hitza, zeren eta Larramendik *ikasola* erabili zuelako. Lekukotuta dagoena da *ikastola* hitzaren hedadura, 1921ean, Euskaltzaindiaren lehen biltzarrean, Durangon, Federico Belaustegigoitia euskaltzain urgazleak eman ziola. Haren hitzaldiko izenburu eta kapituluek hau diote:

> «Euskerazko eskolak: ume ikastolak eta beste ikastolak, nai dogun ikastola, *ikastola* barriak Diputaziño ta udalen egitekoa, eskola liburuak eta Euskaltzaindia, auzo *ikastolak*».

Gerra aurreko ikastolen «Escuelas Vascas» eta bestez, ez dira gaurko gaiak ez eta, gerrostean, 50 hamarkadan, etxerik etxe, Donostian (1945-1969), Elvira Zipitria eta beronen lankideek egindako lanez, orobat, Bilbon, San Nikolas elizako lokaletan egin ahaleginak, agintariek zapuztutakoak (1957). Gaurkoz aipa daiteke 60ko hamarkadan sortu zen *ikastola* mugimendua, uholde biurtuko zena, frankismoaren amorrurako. Uholde horren hasieraz zertzelada batzuk egitea aski da. Gainera lan interesgarriak argitaratuak daude.

1963an, Donostiako Santo Tomas Lizeoan egindako urratsak garrantzitsuak izan zirela, dudarik ez dago. 1966. eko ekainean egin zen, ordea, lehen *ikastola* legalaren inaugurazioa, Euskaltzaindiaren izenean eta babespean, Alfonso Irigoien, erakunde akademikoaren idazkariordeak egindako tramitazioari esker, Julita Berrojalbiz maistraren zuzendaritzapea. *Resurrección Maria Azkue* izena eraman zuen, Bilboko Elkano kalean. Baionan, 1969an, Argitxu Noblia, Ramuntxo Camblong, Manex Pagola eta bestek sortuko zuten *Seaska* elkartea eta ikastola. Hamarkada honen amaieran sortu zen Iruñeko ikastola hedatzea, jaio eta berehala zatiketa etorri bazen ere *San Fermin* eta *Paz de Ziganda* ikastolak eraikiz. Gasteizko *Olabide* ikastola, 1967/68 ikasturtekoa dela, uste dut. Ikus daitekeenez eta, hau bada interesgarria, ikastolen mugimendua hiriburuetakoa da, gero, maila ertaineko hirietara hedatzen dena. 20ko hamarkadan, Bizkaiko Diputazioak *Auzo ikastolen* erakundetze hori, Primo de Ri-

Goizeko hileroko batzarraren ondoren, Abadiñoko Udaletxe aurrean.

veraren diktadurak desbideratu zuena, baserri gizartera zuzendua zen. 60ko hamarkadakoa, ordea, urbanoa, hirikoa zen. Horiez gain, beste kultura mugimenduekin, batez ere, euskalgintzakoekin harreman ugariekin: euskara batuaren premiarekin eta Euskaltzaindiarekin, alfabetatze-euskalduntzekoarekin, artistekin, liburugileekin eta argitaletxeekin eta abar. Euskalgintza horren transbersalitate hori nabarmendu nahi nuke eta. Behar bada, 60ko hamarkadako *zeharkaletasun* hori gutxi ikertua baitago.

Karlos Santamaria, Jose Migel Zumalabe, Pakita Arregi, Jaxinto Fernández Setien, Jose Lasa, Julita Berrojalbiz, Gereño neba-arrebak, Jesus Atxa, Joseba Arrieta, Arantxa Santamaria, Uri Ruiz Bikandi eta Zabaleta nebarrebak, Iparraldeko aipatutakoak eta beste asko, *ikastola* mugimendutik kanpo genbiltzanontzat ez ziren ezezagunak, baizik eta lagun, batzuentzat «bidaia lagun», gainera.

Kataluniako *Rosa Sensat*-ekokin ikastola munduak izan zituzten harremanak ere jakingarri lirateke, kantariekin, artistekin eta Akademia bietakoekin zeuden bezalaxe. Urteak pasa eta gero 1981ean, hara hor, non berriz topo egiten dugun beraien Parlament jauregian Marta Mata eta Maria Aurèlia Capmanyrekin, hango eta hemengo hizkuntza erabileraren normalizazio legeen prestaketa-trukaketa zirela medio. Non ezagutu genuen, ordea?: ikastoletako andereñoen ikastaroetan.

Ikastoletako irakasleek euskararen ezagupen eta gaitasun maila frogatzeko Euskaltzaindira jo zuten arduradunek, alfabetatzekoek bezalaxe, horrexetarako sortu zuelarik gure Akademiak *D* titulua. Harreman hauek ere historiatzeko daude, orobat, gure Erribera kaleko egoitza zaharra ordu eta egun askotan nola izan zuten aipaturiko Arantxa, Uri, Amaia Gorroño, Gaztantxo eta beste askok. Eta Gipuzkoan, Donostiako elizbarrutia babesle izan zen bezalaxe, Lazkao, Zornotzako Euban, pasiotarren ikastetxea eta beste aterbe asko izan ziren. Hemen dauden Gerediaga Elkarteko bigarren eta hirugarren lehendakariak Balendin Lasuen eta Jose Ignazio Alberdik zer azpiegitura eskaini zuen Elkarteak, bere Kirikiño Sailaren bidez, aitor dezakete. Euskal Herriko beste eskualde askotako elkarte ugari busti ziren orduan, ez ordea, erakunde publikoak, trabajartzaile baitziren, salbuespen pertsonal batzuk salbu.

Hau guztia garatuz ikusiko litzateke nolako «transbersalitatea» zegoen 60. hamarkada ilun hartan, nola zirkulartzen zuten euskalgintzako lagunek, «Zeharkalean» zehar, eginkizun batetik bestera. Kasu honetan, ikastola mugimenduaren mesedetan, zeren eta hamarkadaren bukaeran, ia ehun bat ikastola loratuta baitzeuden Euskal Herrian, lehendabizi 1967-02-02ko «Texto refundido de la Ley de Enseñanza Primaria» zirrikitu hestuek uzten zuten heinean eta, hurrengo hamarkadan, 1970-08-04ko Villar Palasi ministroaren «Ley General de Educación» delakoaz baliaturik.

* * *

11. Euskara Batua: Baiona, Ermua eta Arantzazuko Biltzarra

Euskara Batuaren premia aspaldidanik bazetorren ere, Euskaltzaindia 1919an sortu eta laster, gehienok dakizuen legez, erakunde akademikoak Arturo Campion nafarrari eta Broussain lapurtarrari eman zien gaia jorratzeko. Mila arazo eta arrazoik, ez bakarrik garbizalekeriak, ez eta Diktadura biak, Dictablandak, edota, Errepublikaren inestabiliteteak, atzeratu zuten premia horren irtenbidea. Aztertzeko gaia litzateke. Federico Krutwigek planteatu zuen arazoa lapurtar klasikoa eredutzat hartuz. Hamarkada honetan hasi zen hedatzen euskara batuaren aldeko mugimendua, hain zuzen 1964an, Baionan, idazle talde batek, 'Txillardegi' ezagunena, Euskal Idazkaritza izenarekin ezagutzen dena. Zenbatek dakite talde horren ahaleginez?

1968.urteko lehen bilkura akademikoan, urtarrilekoan, Euskaltzaindiaren Urre Eztaiak ospatu behar zirela eta, Gabriel Arestiren proposamenaz, urriaren hasieran egingo zen biltzarra euskara batuari eskaintzea onartu zen, bi parte izango zituelarik, Oñatiko Arantzazun biltzarra bera eta Unibertsitatean ospakizun irekia. Hizlari nagusia Koldo Mitxelena izan zen, baina Aita Villasante, Salbador Garmendia eta beste zenbaitegandik hitzaldi eta txosten mamitsuak entzun genituen. Denak ez ordea, zeren eta Juan San Martin idazka-

riaren eskariz, Iñaki Beobide eta biok antolakizun laguntzaile izan baikinen. Hango adierazpen erabaki famatua, hainbeste eztabaida sortuko zuena, ezin izan zen laugarren egunean Unibertsitatean agiriko ospakizunean aldakarrikatu, Gipuzkoa «Salbuespen Legepean» zegoelako eta Oñatino urteko herri-jai nagusiak ere ezabatuak zirelako. Aldarrikapen hori ez egitea norbaitek prozedura huts legez hartu zuen euskara batuaren erabakiari balioa kentzeko. Norbait horrek ez zekiena zen eta Juan San Martinek argitu zion. Hain zuzen hileroko ohiko bilkura akademikoan irakurri eta Batzar-Agiriarekin batera birretsi zen eta, agian, zuok, gehienok ez dakizuena beste hau da: Gerediaga Elkartearen gomita onartuz, III. Euskal Liburu eta Disko Azokaren karira, Merindadeko Auzitegi zaharrean, Astola-Abadiñon egin zuela Euskaltzaindiak bilkura hori. Badugu, alkate jauna eta abadiñarrok, gure herriak euskararen historian bere lekutxoa. Oñatiko Arantzazuko Biltzarraren eduki, testu, agiri eta gainontzeko xehetasunez ez da zertan luzatu, askok ezagutzen dituzuelako eta bibliografia ugari dagoelako.

Aurretiaz, urte honen erdian, eskualde honen lau urietarik baten, Ermuan, hain zuzen, gertakizun garrantzitsua antolatu zuen Gerediaga Elkarteak, gerra osteko euskal idazleen lehen Biltzarra. Ideia Juan San Martin eibartar, Euskaltzaindiaren idazkari eta elkartearen bazkidearena izan zen, helburu argi batekin, hots, udazkenean Arantzazu-Oñatin egiteko zen Biltzarra girotzeko eta idazleen iritziak entzuteko. Oso arrakastatsua atera zen Eskola Profesionalean antolatu zena, azpiegituran primeran portatu zirelarik ermuar bazkideak eta, aurrenengo, Agustin Aranberria, ordezkaria. Ekainaren 28, 29 eta 30ean izan ziren biltzar-jardunaldiok, hizlari eta txostengileen artean, Juan San Martinez landa, Aingeru Irigarai, Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegi» (exiliotik bidali zuen lana), Gabriel Aresti, Juan Antonio Letamendia, Salbador Garmendia eta Pierre Lafitte. Prentsa oharrak hau zioen, euskarazko egunkaririk ez baitzen orduan:

> «Al final cerró dando realce a las reuniones, uno de los miembros más destacados de la Academia, el canónigo de Bayona y director-fundador de la revista *Herria* de Bayona, Pierre Lafitte. Se tomaron nueve acuerdos relacionados con la unificación literaria del idioma».

* * *

12. Hamarkadako euskal prentsari begirada

Frantses Errepublikaren askatasun mugatua baino askoz okerrago geunden Hegoaldean, oso zaila baitzen euskara hutsezko prentsa ateratzea. Baionan, Pierre Lafitte kalonje euskaltzainaren zuzendaritzapean *Herria* astekaria kaleratzen zen eta, oraindik, Dirassar euskaltzain urgazlearenpean jarraitzen du. Bazegoen bai *Egan* 1952ean euskaraz soilik ateratzen zena, baina *Boletín*

de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País-en literatura sormen eta kritika gehigarri gisako hiruhilabetekaria. Bestelako biak Aita San Frantziskoren ordena biri esker ateratzen ziren, kaputxinoei esker, *Zeruko Argia* Gipuzkoan eta *Anaitasuna*, O. F. M.ri (*Ordinis Fratrorum Minorum*) esker. 1966ko «Ley Fraga» zeritzanak eman zuen zirrikitu bat, Katalunian eta hemen onura apur guztiekin baliatu zena.

Zeruko Argia 1919an, Euskaltzaindia martxan hasi zen urte berberean, sortu zuten kaputxinoek A. Damaso Intzako euskaltzain nafarraren ekimenez. Gerra Zibilean desagertarazia, 1954ean berriz argitaratzen da Aita Oieregikoaren zuzendaritzapean, 1960ean, debekatu arte. Hamarkada honetan, 1963an hasten da hirugarrenez, informazio orokorreko astekari legez. Kaputxinoen esku egon arren, eskuzabal jokatuz, idazle laikoak ere sartzen dira, adibidez, bazegoen gazte talde bat, zeinek «Gazte naiz» izeneko saila osatzen zuten, oker ez banago Ricardo Arregi, Ramon Saizarbitoria, Ibon Sarasola eta Mikel Lasak. Nik 1965tik 1968ra zenbait artikulu argitaratu nituen eta une batez Erredakzio Kontseiluko ere izan nintzen. Ez dago dudarik, hamarkada honen euskalgintzaren berri zehatza jakiteko astekari honen hemeroteka ezinbestekoa dela, euskal prentsaren historian urrezko zerrendan agertu beharko litzatekeena.

Anaitasuna aldizkaria Imanol Berriatuak, Foruan, sortu zuen 1953an; 1955-57 tartean, Alfonso Irigoienen ardurapean; «Jakin» teologo taldeak, Arantzazu-Oñatin, 1957-1966an eta, Bermeon, J. Azurmendiren zuzendaritzapean, 1967-68ko epean. 1969an hasi zuen martxa berria. Hara hor horretaz oraintsu zer idatzi berri duen Anjel Zelaietak:

> «*Anaitasuna*ren Zuzendaritzak (frantziskotarrak) eta zenbait laguntzailek hala eskaturik, 1968ko martxoan, Bilbo Zaharreko Torre, 3an, bildu ginen zenbait euskaltzale gazte. Josu Naberanek Anjel Zelaieta izena proposatzen du Zuzendari izateko, eta halaxe onartzen. …. azaroan, 60 apaiz (Zelaieta barne) Derioko Seminarioan hersten dira. Bizkitartean, Jose Luis Lizundia egunero dator Bilbora lanera (egun birik bat, egia esan), eta noizbehinka Galdakaoko Bengoetxen (zeinetan baitzen apaiz Zelaieta) gelditzen da, Zelaietari *Anaitasuna* argitaratzen ahalegin dadin eskatzeko».

Akulari lanean, beraz. 1969ko irailaren 15ean hasten du hamabostekari legez martxa berria, astiro-astiro, Bizkaitik Euskal Herri osora hedatzen hasten dena, euskara batuaren aldeko apustu argi eta garbia, zuzendari Zelaieta, zuzentzaile zorrotz eta zehatza Imanolo Berriatua eta Erredazio Batzordea, zeinetan izan bainintzen luzaro eta jarduneko zuzendari ere hilabete bat inguru, Zelaietak izkutatu beharra izan zuelako. Jabegoa, ostera, frantziskotarrena zen, egoitza Durangoko Intxaurrondo kalean zuelarik. Xabier Gereño batzordekideak egindako txostenaren arabera: «Gure harpidedunak 1969 amaitu denean, 3.531 dira». Ezin da, orain, aldizkari honetaz luzatu zeren, laster, Zelaieta berak lan bat argitaratuko baitu: *Bilboaldeko euskarazko prentsa idatzia: 1940-1980*-ren barruan «*Anaitasuna* (1969-1972) Barriro Lanean» izeneko kapitu-

luan. Bertan irakurri daitezke zeintzuk idazlek parte hartzen zuten eta zeintzuk ziren sailkatzen diren hogei gaiak.

13. Hamarkadaren amaiera eta berriaren hasiera. «*Ba dok amairu*»

Ondorio gisa, 60.hamarkada honek baditu, ene ustez, ezaugarri zenbait:

1. **Posibletasuna.** Diktadura zaharkitu eta usteldu batek, diktadore aguretu bat aurrean zuelarik, ezinbestean, zirrikitu batzuk ireki zituen, hala nola, prentsan, 1964ko legea; elkarteak legeztatzeko urte berekoa; irakaskuntzan, «Texto refundido» delakoa. Euskal kulturgintzaren dinamika bete-betean baliatu zen, «la política del posibilisme», Prat de la Riba katalan politikari handiaren hitzekin esan daiteken «la política del posibilisme», zirrikituotatik, uholde bezala gainezka jarri zuten Katalunia eta Euskal Herriko kulturgintzek, Administrazio bat eta bakarra.

2. **Hiritartasuna.** Gerra aurreko kulturgintza baserri gizarte bukoliko euskaldun baten oinarritzen zen, gehienbat. Oraingoa, ikastola nahiz alfabetatze, literatura nahiz hizkuntzalaritza, folklore nahiz kantagintza berri, prentsa nahiz elkarte mundua, hiriburuetatik edo hiri ertainetatik gauzatzen da.

3. **Zeharkitasuna.** Inoiz aipatu dudan gure hiri historikoetan Zeharkaleek hirigintzan jokatu izan duten interkomunikazioaren antzera, 60. hamarkadan atzeman dut uste izan den baino «transbersalitate» handiagoa. Kulturgizon/andre eta euskaltzale orok bakoitza bere «kaletik» soilik zirkulatu beharrean, maiz igarotzen ziren «Euskal Zeharkaletik». *Index Onomasticon* bat egiten denean argi ikusiko litzateke hori, nola Juan San Martin, Xabier Gereño, Alfonso Irigoien, Jose Mari Satrustegi, Gabriel Aresti, Carlos Santamaria, Pierre Xarritton, Jose Antonio Arana Martija, Iñaki Beobide, Joseba Intxausti eta beste asko ageri direla.

4. **Batasuna.** Bai kulturgintzan, orohar eta, bereziki, euskalgintzan ideia guztien gainetik bazegoen batasun handia, frente bat. Agian, errazagoa zen Diktadura baten kontra, «orkestra zuzendaririk» gabe, bazegoen estrategia amankomuna. Hurrengo hamarkadan, batez ere ferroldarra ohean hil eta gero, sektariokerian erori ginen gehienok, noizbait, transizioaz autokritika sakona egin beharko dugu.

5.- **Naziotasuna.** Kulturgintzak, «kultur frenteak» esango zukeen F. Krutwigek, aurrelari, teoria politikoak eta politikakeriak baino lehenago eta haratago, hamarkada honetan gure naziotasunaren oinarri modernoak jarri zituela uste dut, aipatu alorretan nahiz bestetan.

Gai hauetaz baina, ez soilik 60ko hamarkadaz, saio interesgarriak eta txalogarriak egin dira –egile bi azpimarratzekotan Joseba Intxausti eta Joan Mari Torrealdai aipatuko nituzke– bai arloka eta baita bakarlanean. Gaur, hemen nik

esandakoak, hamarkadaren laburpena besterik ez dira. Ildo horetatik, hemen zaudetenoi, ez bakarrik euskaltzain oso, ohorezko eta urgazleoi, baita ere, ikastoletako irakasle eta eragile, alfabetatze-euskalduntze alorreko kanpainagile eta koordinatzaile, artista, idazle, bertsolari, unibertsitateetako ikerle eta argitaletxe arduradun eta gainontzeko euskal kulturgintzako lankideoi, dei berezi bat egin nahi dizuet elkarlanera gonbidatuz, honako gai orokorrarekin:

Hasi 60.hamarkadan, lehendabizi eta 70koan segi, gure kulturgintza eta, bereziki, euskalgintzaren barne-historia orokorra egitea, «zeharkitasun» baldintza ezinbestekoarekin.

Euskal Herriaren historiarako eta belaunaldi berrien probetxurako mesedegarri izango litzatekeela, uste dut.

Ideia hor dago eta, *hordago* horrekin, amaitu.

Eskerrik asko!

Esan dut.

JOSE LUIS LIZUNDIA EUSKALTZAIN BERRIARI ERANTZUNA

Jean-Louis Davant

Abadiñon, Gerediagako Salbadore batzar-etxean, 2004-VII-23an.

Agur jaunak et(a) andreak, agur (e)t(a) erdi!

Oso despare daude Euskal Herriko bi hegalak. Iparrari begira zinez ezkerra, ezkertia, ezkerreta da gure lurra edo herria, halaber gure hizkuntza. Eskuinetik Zuberoako lurralde historiko txikia, «Zuberoa Herria» Athanase de Belapeire apez idazlearen hitzetan; bestetik Bizkaiko jaurreri erraldoia, gure metropoli nagusiarekin; Erkidego Autonomoko jendetzaren erdia, Euskal Herri osoko biztanleetan bostetarik bi...

Euskalkian askazi hurbilak ditu Gipuzkoa mendebaldeko zati zabala eta Arabako euskara. Bergarako Biltzarrean, duela hogeita sei urte, agertu zen euskaraz egin zezaketenen erdia pasa, mendebalde horretakoa zela. Argi dago euskara batua ez zela haziko eta hedatuko, bizkaitarren eta kidekoen baimen eta oniritzia barik.

Ezen asko izateaz beste aitzakiarik balukete bizkaieraz edo horren hurbileko euskara batean elakatzen eta elestatzen diren hiztunek, elerraten dutenek: erdiko eta ekialdekoetatik oso urruti daudela hizkeraz. Horretan ere amore eman behar du zuberotarron harrotasunak: gu baino askoz ere diferenteagoak zarete mintzairaz bizkaitarrak.

Segurki besteetarik urruntzen da zuberera, bere azentu tonikoaz eta fonetika bereziaz. Baina idatziz gero, gainera grafia batuan, nafar kutsuko euskalkietarik hurbil agertzen da, bai Iparraldekoekin, bai Nafarroa Garai hurbileko eta ertainekoekin, Baztan eta Ultzamakoekin.

Urrunago gelditzen zaio gipuzkera, bereziki Basabürüko jendeari, beste euskalkietako euskaldunekin hitz egiteko usaia guti baitu (Arbailan eta Pettarrean ohitura gehiago dugu), eta duela guti hango nire askazi batek erraten zidan kasik beste hizkuntza bat zitzaiola gipuzkera, hiztegiz bederen. Zer erran lezake beraz bizkaierari buruz?

Balkanetan bagina, lau euskal hizkuntza bagenituzke gutienez. Baina, Jainkoari eskerrak, Pirinio mendien altzo eta magalean gaude. Batetik ez daude gure bi lurraldeen artean, iparraldetik dago Bizkaia, jende askok ez jakin arren Euskal Herrian ere.

Bestetik ez dira uste den bezain bereizle. Horren adierazle dira Nafarroako bi zatien arteko loturak, Zuberoak Iruñeko erregeekin Erdi Aroan atxiki zituen harremanak, eta urrunago Euskal Herriak eta Kataluniak duten elkarrekiko adiskidantza iraunkorra.

Aldiz bereizle ditugu Frantzia eta Espainiako Estatuak, beren joera eta pretentzione jakobinoekin. Zorionez Europar Batasunak abantaila bat bederen ekartzen digu, muga hori murrizten digula, eta balia gaitezen, gure arbasoek egin ohi zuten bezala.

Zinez despare izanagatik, elkarrenganako deia badute bi hegalek, eta diferentzia horien gainetik, hizkuntzan ere halako kidetasun batzuk agertzen zaizkigu, iduriz bitxiak, adibidez hiztegian, *arrasti(ri)*, *natibitate*, eta beste mordo bat. Zelan esplika daitezke? Arkaismoari zor ote dizkiogu? Erdikoak diren gipuzkera, lapurtera eta nafarrera mota nagusien ingurutik, idazleek gutiago landu dituzten periferiako euskalkien katea egon ote da, Bizkaitik Beskoitzerainokoa, Araba, Nafarroako erdigunea, Zuberoa eta Garazi, Oztibarre-Amikuzeko eskualdeen gaindi? Haatik arrazoi sakonena izan daiteke aita Villasantek errepikatzen zuen hau: «edonon eta beti, euskara da euskara».

Dena dela, hor dago bi hegalen elkarrenganako tirria, irrika, eta pentsu dut horren izenean hautatu ninduela Jose Luis Lizundia bizkaitar euskaltzain berriak, gaur berari errefera emailetzat, euskalgintzan aspaldiko lagunak izanez gainera. Ohore handia zait, eta plazera ere bai.

Bi hegalen arteko kidetasun horrek ez du baztertzen, jakina, erdigunearen garrantzia; zubi bezala ere hor dago, beharrik. Bidasoan topo egiten baitute gaurko Euskal Herriak dituen hiru eskualdeek, hizkuntzan ere hor dago batasunerako bilgunea, Koldo Mitxelenak erakutsi zigun bidetik: hortik datorkigu gaurko euskara idatziaren hamarretarik zortzia bederen. Baina beharrezkoa zaio inguruko euskalkien ekarpen osatzaile, kualitatibo eta katalizatzailea.

Beraz euskal hizkuntza bakarra dugu, eta hori dela eta, euskara batua ere badugu, bizkaitarrei esker parte handi batean.

Baimen eta oniritziaz besterik ekarri digute: beren laguntza osoa, elkarlan handi batean. Gainera, ene ustetan behintzat, bizkaitar idazle batzuk dira euskara batutik hurbilen dabiltzanak lapurterari aski leku emanez. Horretan aitzindaria zuten, eta genuen aita Villasante, Arantzazuko fraidea naski, baina gernikarra, euskara batuaren eraikuntzan gure gidaria hamazortzi urtez.

Villasanteren ganik hurbil egon zen beti Lizundia, haren aholkuen obratzale. Bisirra behar du kalifak, eta Bisir fidela izan zinen Jose Luis, beti Eus-

kaltzainburuaren laguntzaile, Erakundearen eta euskararen zerbitzuko, euskara batuaren langile sutsu eta iraunkorra. Euskaltzainditik at ere hizkuntza zerbitzatu zenuen pizle, antolatzaile, sustatzaile, ikertzaile, baita idazle bezala, ikusiko dugunez. Baina hastetik has gaitezen.

ABADIÑOKOA

Iruñean sortu zen Jose Luis, kasualitatez, amak momentuko lana han edukiz. Gaur nafar baten ondoko dago euskaltzain oso. Berak badaki, eta maiz oroitarazten du, Nafarroako erresuman egon zela Durango alde hau, Gaztelako erregeak Antso Azkarrari hartu arte 1200 urte inguruan eta geroxeago Bizkaiko jaunari eman, Las Navas de Tolosako guduan ekarri zion laguntzagatik.

Predestinazioan ez dut sinesten, baina zorteak badu batzuetan halako umore bat, ironia ez delarik. Haatik kasu honetan «umore» hitza hobetsiko dut, baikorra delako naski gaurko biltzarra bezala. Ez zinen Iruñean zahartu, lau hilabeteetan herri honetara itzuli zinen amarekin, eta geroztik ez zara hainbat hemendik urrundu.

Egia da gaur Durangon bizi zarela, amaren etxetik bizpahiru kilometrotan. Ez da bide luzea, eta ez zait iduri autobidearen zeharkatzea gaizkitzat jo dizuenik Abadiñoko herriak, itxura guzien arabera, eta beraz arrisku handirik gabe oihusta dezaket, aldarrika dirot, abadiñar peto-petoa zarela, baserri mundukoa gainera, hori baitzen zure haurtzaroan hemengo mundua, etxalde txikiz osatua.

Langilea zen ber denboran mundu hori. Etxalde xume horietan, eremu eskasak eman zezakeen mozkin mugatua, bazterretiko emendio baten behar eta premian zegoen. Aukera hori ekarri zuen Eibarko industriak. Batetik fabrika bat eraiki zuen Durangon, eta horretan behargin eta langile sartu ziren zure hiru osaba. Bestetik Eibarrerako treina egunero hartzen zuten zure bi lehengusuk. Ez ziren bakarrak naski, eta horrela honaraino iritsi zen Eibarko sozialismoaren arnasa, bide laburrez naski, hamasei bat kilometrotan osta-osta, doi-doia. Hats hori ere hemengo kulturan dago, eta bereiziki zurean, Jose Luis.

Ikasketak Abadiñoko eskolan hasi zenituen, bederatzi urteetan, Durangon jarraitu fraide maristen ikastetxean, gero merkataritzan ikasi hor, azkenik batxiller osoa lortu Bilbon, lan eginez bestalde.

EUSKALTZAINDIKO «MAKINISTA»

Lanbidean ere, herritik ez zinen gehiegi urrundu. Udal idazkari lanetan ari izan zara zortzi urtez (1963-1971), lehenik Durangon, gero Garain eta Mañaria-Izurtzan, azkenik udal elkartean.

Ez dakit horri esker ote den, baina beti errespetu handia diezu instituzioei, bereziki demokraziaren oinarriak eta zutabeak diren udalei. Halaber zorroztasun handia ikusi dizut beti legeari dagokiola; zehaztasunaren kezka zuzenbide, eskubide, eginbide sailetan; eta formen ardura nabaria. Beraz legegizon bat bezala ikusten zaitut orokorki, baita Euskaltzaindian, gai akademikoetan eta euskarari begira ere.

Duela hogeita hamabost urte sartu zinen Euskaltzaindiko idazkariorde, eta kargu horri gehitu zizun Akademia honek bere kudeatzailegoa, duela bederatzi urte. Xehetasunetan sartu gabe, luzeegi bailitzateke, zer izan da hor zure lana?

Kalifaren bisirrari konparatu zaitut oixtion, baina errazkeria horretan ezin naiz gelditu. Villasante «gure kapitaina» zela erran zenuen behin, «buru oso instituzionala zuela», baita «izan zuela urte txarrenetan pilotu bat: *Iker* sailburua, Mitxelena. Hor norbaitek galdetu zizun:» «Eta hi?». Zu isilik egon zinen. Laster galderaren egileak berak eman zizun erantzuna: «Hi makinista!».

Beraz gure makinista izan zara denbora luzean, eta zuk zeuk erranik, botileroa ere behin bederen, Bitoriano Gandiaga zenarekin, 1972an Arantzazun aditz batuaz egin ziren Jardunaldietan, eta badakigu pelotan botileroak izan dezakeen garrantzia, bereziki momentu txarretan.

Eta nola ikusten zaituzte euskaltzainek? Erantzunik onena da gaurko sarrera hau. Ez zaitu Akademiak ustekabean deitu ispiluaren beste alde honetara.

Nik ene alde xumetik nola ikusten zaitudan, ez lagun bezala, baina Euskaltzaindiko kargudun bezala? Erantzun baten bidera, irudi pare bat ekartzen dit frantses literaturak: batetik «la statue du Commandeur», bestetik «l´oeil de Cain». Lehena Molière-ren *Don Juan* komedian agertzen da, bigarrena Victor Hugo-ren *La légende des siècles* epopeian. Begi hori ez da batere Kain-ena, oso aitzitik Kain-i begira dagoena da. Hots Euskaltzaindiaren kontzientzia bezala ikusten zaitut nolabait. Kontzientzia ez da beti gauza goxoa, baina beharrezkoa bai.

Kontzientziarekin dabil oroimena: hori ere adierazten dute aipatu berri ditudan bi figurek, gure hutsez oroitzea, haien ez berritzeko. Euskaltzaindiaren memorioa zara, eta zerbitzu handia ekar dezakezu geroari begira. Oso guti gaude gaur Akademian Koldo Mitxelena zenarekin lan egin dugun euskaltzain osoak. Izendapen urtez ni neu seigarrena naiz, beraz oso gazteak dira besteak, iraganaren berri eman behar diegu, eta zuk gehienik, dena barnetik, luzaz, etengabe bizi izan baituzu.

EUSKALGINTZAN

Euskaltzaindian egin duzun «makinista» lan horrek ez du baztertzen aurretik eta ber denboran ere pertsonalki euskalgintzan bete duzun lekua. Goi-

zik hasi zinen, horren lekuko dugula 1961ean Euskaltzaindiari helarazi zenion gutuna. Euskararen batasunaz zenuen kezka, egutegian 12 hilabetentzat 39 izen aurkitzen baitzenituen!

1964an gerra osteko lehen irakaslea izan zinen euskaraz Durangon, Euskaltzaindiaren oniritziaz, Santa Anako parrokian, gero Uriko Eskolan.

1966an euskaltzain urgazle izendatua zinen, eta 1967an euskaraz irakasten hasi zinen alfabetatze kanpainan, Euskaltzaindiaren babesean, Rikardo Arregik 1966an Gipuzkoan ideki zuen bidetik. Zuhaurek diozun bezala:

> Rikardo Arregiren bidez Donostia aldeko jendearekin jarri» zinen harremanetan. Beste dimentsio bat eman zizun: jende harekin izan zenituen harremanak, garai hartan isolamendua handia zen eta.(...) Euskalgintzan, zaila zen Donostiakoak eta Bilbokoak elkarren berri izatea. Euskaltzaindiko biltzarrak, esaterako, oso gertakizun bakanak ziren. Leku batetik bestera mugitzea zaila zen. Ez zegoen erakundetzerik. (...) Harremanak zailak ziren 60ko hamarkadan. Frankismoa batetik, eta harreman instituzionalik ez, bestetik.

Bai, egoera gogorra zen Hegoaldean. Iparraldean berriz ezazolkeria, hotza, etsaigoa ere maiz, oso maltzurra.

Euskalgintzan egin dituzun guztiak, ukan dituzun karguak ez ditut aipatuko banan-banan, luzeegi litzateke, *curriculumean* agertuko dira.

Haatik ezin dut isilpean utzi Gerediagaren inguruan egina. *Gerediaga* Elkartearen guraso bat izan zinen, aldizkariaren zuzendariordea, eta geroztik instituzio erraldoia bilakatu den Durangoko Euskal Azokaren sortzaile.

Halaber *Anaitasuna* astekarian hartu zenuen parteaz, bai erredakzioko batzordekide bezala, bai zuzendariorde bezala, hor agertu zituen idazlanak eta mapak bestalde, idazleari dagokion zatian aipatuko baitut.

Hirugarren obra handi bat ezin dut ahantzi, Euskal Idazleen Elkartea:1982ko uztailaren 30ean sortu zen, Euskaltzaindiaren babesean. Lehen egoitza Euskaltzaindiak ordu hartan zuena, Ribera kalean. Eragile nagusia, Juan San Martin euskaltzaina, *Jagon* sailburua. Idazkaria zu, Lizundia. Beste zutabeak, Arana Martija eta Jose Mari Velez de Mendizabal.

Udako Euskal Unibertsitatearen sorreran ere parte hartu zenuen Euskaltzaindiarekin. Honek lehen urtean, uztaileko biltzarra karia horretara Donibane Lohizunen egin zuen, eta hirugarren urtean Uztaritzeko Landagoien biletxean. Gero Hegoaldera pasa zen UEU Euskaltzaindiaren babesean: antolakuntza egin zenuen Juan Jose Zearretarekin.

Arrate irratian parte hartu zenuen 1964an, astean hiru bider, Madrilek isilarazi arte. *Zeruko Argia*n ere partaide izan zinen, bereziki Rikardo Arregi, Ibon Sarasola eta Ramon Saizarbitoriarekin.

Bizkaiko «zona pastoralen» mapagintzan eskua sartu zenuen. Zure ezkontza egunean ofizial egin zuen Jose Mari Cirarda gotzainak, eta zu bi lekuetan ezin izan: hitz bat igorri zizuen esposo berriei, 1969ko urriaren hameka horretan.

Ezkontzeko ere ez zinen gehiegi desterratu, eta nik uste ondo egin zenuela, itxura guzien arabera. Zergatik urrun joan, ez dakit nondik, eta noren bila, hortxe berton zegoelarik, Garai herrian, Lourdes Etxeita andrea, Leiore bion alaba ekarriko zizuna? Ez nintzateke harrituko zuhurtzia balego zure bertute handiena, eta baliatzen ahal zaigu Euskaltzaindian ere.

IDAZLEA, IKERTZAILEA

Euskara batuaz gain, beren euskalkia lantzen dute, zuberotar eta nafar batzuek bezala, bizkaitar idazleek, horietan Lizundiak. Bizkaiera batuaren aldeko apostua egina du aspaldian, azpi-euskalkiak elkarganatuz eta grafia berritua erabiliz horretan ere.

Begien aurrean dut 1975eko urriaren 31an *Anaitasuna* aldizkarian, Durangoko Azokaz agertu zuen artikulua, «Azokak hamar urte» deitua. Bizkaiera osatuan idatzia dela erran nezake. Begietara heltzen zaidan lehen irudia, grafia batua darabilela, H letra barne, zerbait handirik baitzen hori denbora hartan! Bergarako Biltzarra baino hiru urtez aitzinetik zen, baina Baionakoaren ondoren, 1964ko abuztu bukaeran egin baitzen hura, Lafitte zenaren babesean, besteari bidea irekiz, eta haren aholkuak betetzen ditu Lizundiak bere artikulu horretan.

Egunkari eta aldizkari andana batean idatzi duzu, bai erdaraz bai euskaraz, nagusiki batuan, bereziki *Anaitasuna, Euskera, Jakin, Punto y Hora de Euskal Herria, La Gaceta del Norte, Egin, Deia, Correo, Diario Vasco, El País, Enbata, Herria, Euskaldunon Egunkaria, Eraz, Anboto...*

Ikertu dituzun gaiak: Politika, baina gehienik euskara, Toponimia, Geografia, Historia. Toponimian agertzen duzu jakituria berezia, elkarri lotuz herria eta hizkuntza, lurra eta euskara, hots, garen bezalako egiten gaituzten bi oinarri nagusiak. Horretan aditua zarela erran dezaket, hiztegia batere behartu gabe.

Iparraldeko lurralde txikien ezagutza sakona ikusi dizut askotan, adibidez kantonamenduen mugez, eta haien artean egin behar litezkeen zuzenketez.

Frantzia beherekoez ere jakitun zara, lehengo probintziez eta lau ehun «pays» xumeez, haien izen, hiriburu, historiaz beti kurios eta jakin-minez, askotan ikasia.

Gai horiek usu aipatu dituzu beraz kazetetan, adibidez *Herria* astekarian.

Badut hemen gu bion arteko oroitzapen baten lekuko, *Enbata*n 1965eko udan agerturiko zure artikulu baten fotokopia: Hazparneko ikastetxera etorri zinen hartan eman zenidan kazeta horretara helarazteko. Frantsesez agertu zen. Pentsu dut gaztelaniaz idatzi zenuela eta nik itzulpena egin nizula. Euskal departamentuaz da zure idazlan hori. Geroztik *Herria* astekarian behin baino gehiagotan aipatu duzun gaia da naski.

HIRUROGEIKO HAMARKADA IPARRALDETIK

Hegoaldera begira ginauden Iparraldeko euskalzale gazteok. Han berpizkunde baten hasiera sumatzen genuen. Gainera Francorena laster bukatuko zela uste genuen. Europa batuaren ametsa bagenuen indartsu. Orduan sortu zen Enbata mugitu politikoa, ber izeneko kazetaren ingurutik. Euskal arazoen konpontzeko, konfiantza handia genuen abertzale politikan.

Halere kulturan ere saiatzen ginen, horren lekuko Larzabal eta Montzonen antzerkia, laster Daniel Landart-ena, kantugintzan Soroak taldea, Mikel Labegerie, Eñaut Etxamendiren lehen kantuak, Goiztiri argitaletxea... Lekuona kantariak egonaldi bat egin zuen Iparraldean, Etxamendiren berotegietan lan eginez beste hegoaldiar batzuekin...

Gutartean zegoen ere 'Txillardegi', belaunaldi berriko lehen iheslaria. Haren lehenbiziko eleberriak ezagutzen genituen batzuek, Gabriel Aresti-ren olerki liburuak ere hartu genituen.

Euskara Batuari buruzko bilkurak astero eratu zituen Txillardegik Baionako Euskal Idazkaritzan, Kordelieren karrika sonatuan, *Herria* astekariaren alde gainean, Enbata eta Goiztiriren aldamenean. Batzar horietan parte hartzen zuten iheslari batzuek, dela Jeltzaleek (Solaun, Monzon, Retolazak), dela Etakideek (Txillardegik, Iulen Madariaga, Iñaki Irigaraik), baita Iparraldeko euskalzale batzuek (ni neuk astero, noizean behinka Roger Idiart, Pierre Andiazabal eta Hiriart-Urruty apezek). Sail hori bukatu zuen Baionako Biltzarrak, Euskal Idazkaritzaren egoitza horretan, 1964ko abuztuaren azken bi egunetan, Piarres Lafitte-ren ardurapean. Euskara Batuari buruzko lehen urrats eta pausoak egin ziren hor, bereziki grafian. Gero Euskaltzaindira joan ziren proposamen horiek, eta ondorioa badakigu, bereziki 1968ko udan eratu zen Arantzazuko Biltzar handiarekin.

Gauza xumeago bat ere egin zuen Euskal Idazkaritzak, urtero Lauaxeta sariaren ematea euskal idazle bati: 1964an ukan zuen Juan San Martin-ek (ez zen oraino euskaltzaina uda hartan, 1964ko abenduaren 12an izendatuko zuten), eta Rikardo Arregi gazteak, kazetari lanagatik, 1965ean. Ber urtean Li-

zundia-ren ezagutza egin nuen, Hazparneko ikastegira burutu zuen txango bati esker.

Bai, zinez emankorra izan zen, Iparraldean ere, hirurogeiko hamarkada hori. Orduan esnatzen eta mugitzen hasi zen gaur hain gaztea ez den gure belaunaldi hau, harremanak lotuz euskalgintzan mugaren alde honetakoekin: Mendebaldekoekin jakina, baina Hegoaldekoekin ere, hots Nafarroa garaiko euskalzaleekin. Arras ongi oroitzen gara emaztea eta ni, 1966ko udan Iruñeko parte zaharrean egin genuen bisita batez. Gidari genuen Donapauleko Helene Gueraçague, Iruñean irakasle zena. Horko euskaltzale batzuekin harremanetan ezarri gintuen. Elkarrekin bisitatu genuen, katedral ondoan, barne xahar, hits eta txiro bat. Hor ireki beharra zen ondoko asteetan Nafarroa Garaiko lehen ikastola, hamar bat haurrekin. Han ere egin dute bide, nekezien gainetik.

Beraz hamarkada emankorra Euskal Herriko hiru eskualdeetan. Haatik ez zen erraza izan, horren adibide onena dugu bukatu zuela Burgosko auzi famatuak.

POLITIKAN

Euskal politikan ere sartu zinen zuzenean. Lehenik ez dezaket ahantz E.H.A.S. alderdian parte hartu genuela biok, duela hogeita hamar urte hasirik, oraino bizi zela Franco jeneral eta Caudilloa. Gero zuek Mendebaldean, autonomia lortu zenuten, eta zuk hemengo instituzioetan parte hartu zenuen hautetsi karguetan:

– Bizkaiko Batzar Nagusietan hiru aldiz, hiru legealdi osoz 1979-1980, 1987-1991, eta 1991-1995, hor kargu bereziak betez.

– 1980an Eusko Legebiltzarrean parlamentari, bigarren idazkari, lege gaietan ponente, Gernikako Estatutuaren 6. artikulua zirriborroan idatziz, bi proposamen hauekin: bata Euskaltzaindia erakunde ofiziala izango zela Estatutuan idatzita egon zedin, bestea Nafarroa eta Iparraldearekin harremanak ukaiteko aukera izan zedin Estatutu horren arauetan.

Baina politikari ohia izanarren, kultura lehen dela diozu argi eta garbi, Federico Krutwig zenaren ondotik.

Politikari askoren kultura eskasa ere salatzen duzu, eta nire ustez oso zuzen zaude. Ezjakin bati arma baten ematea, zinez arriskutsua da. Jendarte zibilizatu batean, aginte politikoaren esku egon behar dute armek, horretan legitimitatea legebiltzarrek eta gobernu demokratikoek dute. Hori behar da, haatik ez da nahikoa, legitimoa izatea ez da nahikoa, boterea ez da aski, aha-

la ere behar da, eta egiazko ahala, sakona eta iraunkorra espiritutik badator. Hori errepikatu behar diegu naski gure hautetsiei, behin ere amore eman gabe.

EUSKALDUN FEDEDUN?

Marratxoa behar ote da bi hitz horien artean? Ala koma bat aski da? Ala bi hitzak solte utzi behar dira, beren artean ezer barik? Gai akademikoa izan daiteke hau ere. Haatik ene kaxa, uste dut loturarik ez dela hor, zeren norbait izan daiteke euskaldun eta fededun, beste bat euskaldun eta ez fededun, hirugarren bat fededun eta ez euskaldun, baskoa izanarren.

Haatik ez genuke punta batetik bestera joan behar, eta arrisku hori gaur ikusten dut belaunaldi gazteagoen baitan, batzuetan iduri bailuke fededun izatea oztopo bat dela euskaldun ona izateko. Euskal kazeta batean irakurria dut berriki galdera bat harrigarria: nolaz fededun izan daitekeen, edozein erlisiotan, pertsona jakintsu bat? Horrelakorik ez nuen orain arte sekulan entzun, ateo militanteen ganik ere!

Iduri luke integrismo batetik bestera pasatzen ari dela, ustekabean, Euskal Herriko inteligentziaren zati bat: zuritik gorrira, edo beltzera...

Fededuna den ala ez Jose Luis Lizundia, berak jakingo du, ez da ene afera. Baina gauza bat segurra, ez da integrista, ez da jansenista, pentsakera guztietako pertsonekin lan egiten du arazorik gabe, hori baita beharrena, bereziki Euskaltzaindia bezalako erakunde batean.

Azpimarratu beharra dago, inolako zatiketarik ez dugu euskaltzainon artean erlisioagatik, ez eta politikagatik ere. Euskara dugu hor barnean politika bakarra. Oinarrizko puntu premiatsuen horretan denok bat gaude. Eskerrak zuri bereziki, Lizundia, sail eta maila horretan beti eman duzun etsenplu onagatik.

GEROARI BEGIRA

Oroimena ez da iraganari begira egoteko betaurrekoa, baina geroa haz dezakeen iturria. Oso baliagarria zaigu Lizundiaren esperientzia, eskarmentu sakon eta luzea. Barrenetik bizi izan du Euskaltzaindiaren ibilera, hogeita hamalau urtez. Bukatzen ari zaigu historiako epe bat, garai emankorra, Villasanterekin lehenik, Haritschelharrekin gero. Euskara Batuaren oinarriak ediren eta finkatu ditu lehenak, xinaurri lanez, aitasunez, kemen apalez eta diplomazia zuhurrez. Erakundeari behar zuen ospea eman dio bigarrenak, plazaratuz, plazagizon sutsu eta noble baten eginbidea betez ederki. Biek ekin dute jakina euskaltzainon laguntzarekin, eta bereziki Lizundiaren gain bermatuz.

Orain zer egin behar du Euskaltzaindiak, Euskal Herriko bi legebiltzar eta gobernuek, hiru eskualdeek eta bost probintzia edo departamenduek, gehi Unibertsitate publiko ala pribatuek egin ez dezaketenik? Zer norabide hartu behar du? Nolako Euskaltzaindia, zelango euskaltzainak eta zer kopurutan behar ditu euskarak, biharko Euskal Herriak?

Ni Euskaltzaindiko zaharretarik naiz orain, hogeita hamar urte baituke laster euskaltzain oso izendatu nindutela: beraz ez naiz luzaz egongo. Gazteagoak behar dira, eta bereziki emakumeak. Erreforma sakonen beharra ikusten dut, eta ez naiz bakarra. Horiez gogoeta sakonak egingo ditugu nik uste euskaltzain guztiok elkarrekin. Hor gako eta giltza baliosa izanen zaigu, Lizundia, zure oroimena, ikuspegi seguruekin.

Esker mila zuen arretaz eta pazientziaz. Agur jaunak et(a) andreak, agur (e)t(a) erdi!

JOSE LUIS LIZUNDIA-ren SARRERA MINTZALDIAN

Abadiño, 2004-VII-23

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburuaren hitzak

Jose Luis adiskidea.

Entzunik zure sarrera-mintzaldia eta Jean-Luis Davant-ek eman dizun erantzuna, euskaltzainburu naizenez gero ez zaitut utziko bi hitz erran gabe.

Badu orain, 35 bat urte elgar ezagutzen dugula, elgarrekin lanean ari garela. Orain zor dizut ene lelukotasuna, publikoi, zure ama ohoragarriaren aitzinean eta hemen zure ohoretan bilduak diren agintari eta herritarren aurrean.

Gutartean sartu zinelarik idazkariorde gisa berehala orduko euskaltzainburuak, Aita Luis Villasante-k galdegin zizun txosten bat Euskaltzaindiaren egitura berri bati buruz. Hala egin zenuen. Uzten diot hitza Aita Villasante-ri, Donostian 1970.eko azaroaren 27-an, berau aurkeztu zuen txostenaren zati bat eskainiz:

> Gure idazkari-ordeak, bada, neuk eskaturik, halako planifikazio bat egin dit, eta gure gauzen martxarako prozedura lege batzuk, hots, ibilpide legeak edo arauak ezarri ere bai. Nik uste dut horrelako zerbait behar beharrezkoa dugula (disziplina baten barruan jokatu eta ibiltzea, alegia), gauzak behar den pulamentuz eramateko.
>
> Lizundia jaunak honela sailkatzen du gure Euskaltzaindiaren eremua. Euskaltzaindiak hiru sail ditu: *Lehenbizikoa*: Euskaltzainburugoa (Directiva). *Bigarrena*: Batzordeak (Comisiones). *Hirugarrena*: Ordezkaritzak (Delegaciones). Bigarrena eta hirugarrena Araudiak dion *Iker*-Saila (Sección filológica) eta *Jagon*-Saila (Sección tutelar) izango lirake guti gora behera behintzat. Dakizuten bezala, bi atal hoietaz osatua da gure Euskaltzaindia (1).

Orduan, zure egitasmoari esker sortu zen Euskaltzainburugoa, orain Zuzendaritza deitzen duguna, sortu ziren batzordeak, sortu ere ordezkaritzak: Donostian lehenik, Gasteizen eta Iruñean gero, Baionan azkenik. Azken mende

(1) *Euskera* XVI, 1971, 124.or.

laurdena hartuz, neurt daiteke bost batzorde nagusiek egin duten lana, Hiztegigintzan, Gramatikan, Dialektologian, Onomastikan, Literaturan. Aldi bat baino gehiagotan aldarrikatu dut ez dela sekulan hainbeste lan egin Euskaltzaindian batzordeeri esker egiten den bezala, disziplina baten barruan jokatuz eta ibiliz. Zilegi bekit ere erraitea nola elgarrekin, euskaltzainburu nintzela, asmatu eta aurkeztu genuen organigrama berritua.

Aipatu nahi nituzke ere zu, ez bakarrik idazkari orde, bainan ere geroxeago kudeatzaile gisa Euskaltzaindiak egin dituen Biltzar Nagusi eta kongresuak. Batzu gogora heldu zaizkit: Arantzazuko kongresutik landa Bergarakoa, Munduko euskalarien kongresua Gernikan eta Leioan, A. Campionena Iruñean, Oihenartena Maulen eta Donapaleun, Euskara Batuarena Euskal Herriko Unibertsitateko Leioako Campusean, Anton Abadiarena Hendaian, azkena Bilbon eta Baionan R.M. Azkue, J. Urkixo eta P. Lafitte-ri eskainiak.

Biltzar Nagusi horiek ederki joan dira, halaber bertze jardunaldi eta bereziki Barne-Jardunaldiak zuk, batzorde eragile buru gisa, ongi apailatu baitituzu biltzarkide bakoitzak ukaiten zituela beharrezkoak diren eguneroko erraztasunak hobeki lanean aritzeko.

Ez dezaket ahantz ere parte hartu duzula Euskaltzaindiaren Arautegiaren berritzean, bereziki 70-eko hamarkadan, bai Euskaltzandian eta bai Madrilen 1976-eko otsailaren 26-eko Erret Dekretuak ezagutzen zuelarik Euskaltzaindia Erret Akademia gisa.

Beti leialki, zintzoki, eraman duzu zure lana zerbitzatuz ezagutu dituzun bi euskaltzainburuak, Aita Villasante eta ni, euskaltzain guziak lagunduz beharra senditzen zutelarik. Hainbeste denbora Euskaltzaindiaren zerbitzuan, hainbeste lan eginik, nola egon behar ziren eskergabeak euskaltzainak. Ordua etorri delarik, J.M. Satrustegi euskaltzain zenaren alkian izendatu zaituzte eta gero Arana Martija-k utzi duelarik bere kargua, sartu zara hain ongi ezagutu duzun Zuzendaritzan, diruzain gisa, dakizun bezala hori izan baita enetzat poz haundia.

Eta orain, Araudiak manatzen duen bezala, Euskaltzainburuak eskaintzen dizkizu bai diploma eta bai domina, haiekin doala adiskidantzazko besarkada.

GEREDIAGAKO SALBADOREN

Jose Luis Lizundia Askondo,
euskaltzain osoa

Abadiño, 2004-VII-23

1 Astarloa, Humboldt, Elgezabal
ta gaurkoan **Lizundia**
Durangerrian euskerarentzat
Benetan egun haundia
Durangerrian euskerarentzat
Benetan egun haundia
Astarloa, Humboldt, Elgezabal
ta gaurkoan **Lizundia**.

1 Zortzi jantzari nonbratu dabez
Geredijako zelaian
Traña-Etxenausi, Euskaltzain oso
Guztiok ondratu nahian
Traña-Etxenausi, Euskaltzain oso
Geredijako zelaian.

2 **Garai**jen bizi eta ezkondu
Mikel Etxeita mutille
Makiñatxo bat ibiliko da
Holakoixe baten bille.

1 **Luis Mari Goiti Ormetxekue**
Periko **Mañarija**ko,
Batera ero bestera deittu
Horri bardin-bardin jako.

2 **Jose Antonio Azkarraga** da
Bitaño Ixurtzakue,
Etxera erun gure dabenak
Konpromixorik bakue.



(*) Honek koplok doinu bataz edo besteaz kantatu ziren.

1 **Berriz** aldetik etorri jaku
Narbaiza Jose Alberto
Jantza taldie etaraten be
Nahiko burukomin deko.

2 Hor da **Ramontxu Zarrabeitia**
Jantzari ta jantzazale
Abadiñon be jantzari-jantzan
Badakijien señale.

1 **Javier Etxeita** dator ostien
Gixon taket baltzarana,
Garaiko puntan euzki epela
Hartu bakue eztana.

1 Urkiolako pago-ondue
ta **Atxarte**ko harrije,
Olondokuen besuek baño
Gogorrauek die ije.

1 Santamañako **Gaztañatzatik**
dator **Mikel** Gixon Ona
Ijorretako alkate jaun be
ona ixengo litzona.

1 Zortzi jantzari nonbratu dabez
Geredijako zelaian
Traña-Etxenausi, Euskaltzain oso
Guztiok ondratu nahian
Traña-Etxenausi, Euskaltzain oso
Geredijako zelaian.

Beñat Gaztelurrutiak eta
Antton Mari Aldekoa-Otalorak
paratu eta kantaturiko koplak

AKADEMIAREN EKITALDI AMAIERAN

Jose Mari Iriondo,
aurkezlea

Banango zaharra

Angel Arkarazo
Jose Antonio Azkorbe

Durangerrian hain ezaguna den Dantzari Dantza edo Ezpata Dantza osatzen duten 9 dantzetatik aparte bada, ohorezko agurra legez erabiltzen dena: *Banako zarra* deritzona. Herriko jende xeheak –ez agintariek– egiten zituzten ospakizunetan dantzatzen zena (dantza zibila).

Auzoko jaietan eta Meza ondoren ohi zenez, bertako mutil talde batek *Soka Dantza* egiten zuen bertara neskatilak gonbidatuz. *Aurreskuak* eta *Atzeskuak* aukeratzen zituzten neskatilei ohorezko agurra egiteko eta orduan dantzatzen zuten *Banako zarra*.

Beraz, herritar arruntei eskainitako ohorezko *Agur Dantza* bat. Horregatik dantzatu nahi izan diogu Jose Luisi, bere lagunok, herritar xumetzat daukagulako.

* * *

Instituzioen opariak:

1. Abadiñoko Udalaren izenean, Javier Uriarte, alkate jaunak, herriko ezaugarririk esanguratsuenetako bat den *Muntsaratz* dorretxearen irudia eskaintzen dizu.

* * *

2. Garai, Izurtza eta Mañariko udalen oparia.

Kontuan izanik Jose Luis Lizundia Askondo jauna, Garai, Izurtza eta Mañaria udaletako idazkaria izan zela 1961-1971 urte bitartean, ohorea da, herri horien izenean, oroigarri hau ematea, udalotan eginiko lanagatik:

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako baseliza askotan, Durangerrian, Argiñetan, adibidez, ohitura dute jaietan *kofradia bazkaria* egitea. Horrelako bazkarietarako ontzi edo bajilla bereziak izaten dira irudi eta izenak daramatzatelako. Gaur egun horrelako ontziak. Legutiano-Ollerietako Euskal Zeramikaren museoan ikusi ahal dira.

Pitxar berri hauetariko bat da Garai, Izurtza eta Mañaria udalek eskaintzen dizuten oparia. Hala irakur daiteke: «Jose Luis Lizundiari iturri zaharretik ur berriak zabaltzeagatik gure herrietan».

Jose Loizate, *Garaiko* alkate jaunak,

Iker Ajuria, *Izurtzako* alkateorde jaunak,

Javier Arteaga, *Mañariko* alkate jaunak.

3. Gerediaga elkartea

Larrea bere aitarekin hasi zen lanean santugile bezala, aitonak Bilbon sortutako lantegian. 1967an, aitaren lantegia utzi eta bere kabuz hasi zen lanean eta hartu zuen lehenengotako lana Gerediaga elkartearen enkargu bat izan zen: urte hartan, 1967an, Mañaria herrian *Kirikiño*ren omenez Gerediagak jarriko zuen eskultura.

Urte hartan, Valentin Lasuen zen Gerediaga elkartearen burua eta Jose Luis Lizundia, idazkaria. Horregatik, elkartearen ohorezko lehendakaria den Valentin Lasuen jaunak, Vicente Larreak, ospakizun honetarako beren beregi egindako eta, dakigunez, moldea deseginda dagoelako, errepika ezinezko izango den irudia emango dizu.

* * *

Dantza emanaldia (Salbadoreko zelaian)

Irteeran txistulariek *Alkate soñua* joko dute.

1. Agurra

Dantza hau, Kriskitin taldekoek, biolinez lagundurik dantzatuko dute.

2. Dantzari dantza

Euskal Herri osoan hain errotua den *Ezpata Dantza* edo *Dantzari Dantza*, badakigu jatorriz Durangerrikoa dela. Bederatzi dantza desberdinez osatutako dantza sorta da: *Agintariena, Zortzinakoa, Ezpata txikiak, Banangoa, Binangoa, Ezpata nagusiak, Launangoa, Palu jokoa* eta *Txontxongiloa*.

Herriko jai nagusietan eta ospakizun garrantzitsuetan agintarien aurrean dantzatu ohi ziren, herriko bandera ere eramaten zutelarik.

Gaurko hau ere, ospakizun historikoa da, Durangerriko lehen Euskaltzainaren izendapen eguna ospatzen dugulako Merinaldeko Alkate eta gainontzeko agintariekin batera.

Abadiño, Garai, Iurreta, Izurtza eta Mañariko dantzariez osatutako dantza taldeak eskainiko dizkigu: *Agintariena, Ezpata joku txikia, Banangoa*.

Banangoa, antzina egiten zutenez, kopla doinuz (lagunduta) dantzatuko dute.

3. Platillu soñua

Karl Wilhmen von Humboldt, Lizundiaren esanetan «vascología» edo euskalaritzan, nazioarte mailan, lehen maisua izan zena, 1801.ean izan zen bigarrenez Euskal Herrian. Bigarren bidaia hartan, Durangoko dantzariek, *Gorpusti* jaietan (Durangoko jai nagusiak sasoi hartan) dantzatzen zuten *brokel* edo *ezkutu dantza* ikusi eta deskribatu zuen besteak beste.

Kriskitin taldekoek, 1999.ean berreskuratu zuten *platillu* dantza hau. Humboldt-en deskribapena jarraituz eta berak batutako musikagaz, 200 urtez ahaztuta egon den arren, Iñaki Irigoienen laguntzagaz eta Jose Luis Lizundiaren ekarpenari esker, gaur, posible izango dugu *platilluen* soinuagaz gozatzea, Euskaltzaindiaren eta Diputazioaren artxibategian aurki daiteke.

Egun handi honetan esker onez gatozkizu Kriskitin taldekook.

MAURICE HARRIETEN HERIOTZAREN LEHEN MENDEURRENA: (1814-1904)

MAURICE HARRIETEN (1814-1904) *EUSKARA-FRANTSESA* HIZTEGIAREN BEREZITASUNAK

Larresoro, 2004-VI-24

Arantxa Hirigoyen

Aurkezpena hasi aitzin eskerrak eman nahi nituzke Euskatzaindiari, gaurko egunez M. Harrieten izena eta haren lana berpiztu baititu; eta bide batez erran behar dut ere, plazer bat dela enetzat, hemen berean Larresoron Harrieti buruz mintzatzea.

Molde labur eta argi batez beraz, M. Harrieten hiztegiaren aurkezpen orokorra eginen dut. Horretarako, bi partetan zatitu dut saioa, lehenik hiztegiaren egitura nagusia edo makroegituraz solas eginen dut eta bigarrenik egitura xeheaz edo mikroegituraz.

Bainan lehenik bi hitz sarrera gisa.

I. HIZTEGIAREN AURKEZPEN OROKORRA: EZAUGARRI NAGUSIAK

Oroitaraz dezagun, Harrieten hiztegiaren ezaugarri nagusiena eskuizkribua dela da, hau da sekulan argitaratua izan ez den obra bat da Orotarat 3536 hosto ditu, alfabetikoki sailkatuak *A*tik *Z*raino. Hizki guziak zenbakituak dira eta karpeta desberdinetan sailkatuak.

Bertzalde, erraten ahal da hiztegi elebiduna dela, hau da euskara-frantsesa hiztegia. Sarrera-hitzak euskaraz agertzen dira eta mugabideak frantsesez; hots, frantsesez esplikatzen ditu euskal hitzak. Elebiduna da ez bakarrik mugabideetan, Harrietek erabiltzen dituen etsenplu eta aipu oro frantseserat itzultzen baititu.

Hemen aipatu beharreko beste ezaugarri nagusi bat, nahiz gero egitura nagusian edo makroegituran aipatuko dugun berriz, euskalki guziak konduan hartzen dituela da. Harrieten hiztegian ez dira bakarrik lapurtera, behenafarrera edo zubererazko hitzak agertzen, baizik eta euskalki guzietakoak. Gisa horretan euskal lexikoaren erakusgai zabala eskaintzen digu:

Achiruina: l. id. achiroina, achoina Sy. zango cabila l., zango-aztala-aztal-beharria: BN, S. cheville du pied: id. g.b. isuriña-churminoa, orgatilla, oindagora, izuriña. [...]

Aguia: [...] 3. Aguian [...] Sy. l.g. behar bada, menturaz, BN, S. heldu, heltu bada, b. ausaz, ausa, aiyaz, apercon bai, b. beharbada bai l.g.BN.S. – nasqui, nabasqui g. noasqui g.b. [...].

Ainhara: l., ainhera BN, S., inhara l., enada, elaia, ainada g.b. [...]

Beraz dudarik ez da, euskalkien aipamena hiztegiaren aberastasunetariko bat dela; eta xehetasun interesgarriak eskaintzen ditu hiztegigileak alde horretatik. Horrek frogatzen digu Harrietek bere ezagutza eta jakitateaz aparte iturri anitz eta desberdinak erabili zituela bere hiztegiaren osatzeko.

II. MAKROEGITURA EDO EGITURA NAGUSIA

Tesi-lanerako hautatu ditudan hiru hizkien (*A, K, T*) egitura nagusia ikertu ondoan, argi gelditzen da ez dela sailkatze molde bera nagusitzen. Hau da Harrietek ez ditu molde berean aurkezten *A* hizkiko sarrerak eta *K/T* hizkikoak. *A* hizkian, sarrera nagusiaren pean sailkatzen ditu erro edo jatorri bereko beste sarrerak:

— **Aberea, abrea**

– Aberechea
– Abereteguia
– Aberetasuna
– Aberezcoa, abrezcoa (Oyhenart)
– Abrildea, abrilcea (Larramendi)

— **Abiatcea**

– Abian
– Abiadura
– Abiaduraz, abiaduran

— **Achola**

– Acholatia, acholduria
– Acholduritcea
– Ez acholatua, ez acholduria
– Ez acholatcea, ez acholtcea
– Ez acholduritcea
– Acholatsua
– Ez acholatasuna

K eta *T* hizkietan aldiz, hitz bakoitzari sarrera bat eskaintzen dio:

— KHAMUTSA
— KHAMUSTEA
— KHAMUSCORRA
— KHAMUSDURA
— KHAMUSTASUNA

— KHARATSA
— KHARASDUNA
— KHARASDURA
— KHARASGARRIA
— KHARASTASUN
— KHARASTEA

Adibide zerrenda honi so, hitzak ez dira gehiago erroaren edo jatorrizko sarrera-hitzaren inguruan kokatuak, baizik eta denak sarrera-buru gisa aurkeztuak dira.

Sarrera-hitzen sailkapenak ezaugarri nagusi bat badu: izen arrunta eta adjektibo guziak forma mugatuan emanak dira. Aditzak, aldiz, partizipiotik abiatuz denak aditzizen moldean aurkeztuak dira; *K* eta *T* hizkietan, gainera, aditzaren hiru formak ageri dira:

A hizkia:

— **Abiatcea**: “se mettre en voie de..., se préparer, s’acheminer, commencer”

— **Afaltcea**: “souper”

— **Aguertcea**: “1- verbe transitif, découvrir, montrer, manifester – 2- verbe intransitif, apparaître, être clair, visible

— **Aguitcea**: “1- arriver, contingere – 2 Devenir, fieri”

K eta *T* hizkiak:

— **KHALDATCEA**, **khalda**, **khaldatu**, **khaldatcen**: “1- v.act. Donner une chaude, une chauffe au feu de forge – 2- Souder un métal à lui même ou à un autre métal, après les avoir amollis au feu”

— **KHAMUSTEA**, **khamuts**, **khamustu**, **khamusten**: “1- v.act. Emousser le tranchant, le fil, la pointe – 2- v.intransitif. S’émousser – 3- au fig. émousser, ou s’émousser, en parlant des sentiments, de facultés”

— **TALASTATCEA**, **talasta**, **talastau** (sic), **talastacen**: “agiter un liquide, le remuer avec plus ou moins du bruit, en un vase non plein entièrement // s’agiter, se remuer, en parlant d’un liquide en un vase”

III. MIKROEGITURA EDO EGITURA XEHEA

Makroegitura finkatu ondoan, hiztegigileak hiztegi-artikuluak osatu behar ditu hots mikroegitura edo egitura xehea deituko duguna. Harrieten hiztegian, lehen behakoan argi da hiztegi artikuluek ez dutela denek egitura bera. Halaber, hona hemen sarrera-hitz nagusiaren ondotik maiz agertzen diren osagaiak:

— Sarrera-hitza:

– Mugabidea edo definizioa
– Adibidea edo aipua
– Sinonimoa
– Etimologia edo hitz-iturburua
– Oharrak

Ezaugarri bakoitza banaka ikertzea luze izanen delakoan, aipamen berezia egin nahi nuke adibide edo aipuei buruz. Harrieten euskara-frantsesa hiztegia idazleen aipuz josia da; eta preseski hori hiztegiaren berezitasun handi bat da. Lau mende baino gehiago estaltzen duten liburu eta obrak dira, baita eskuizkribuak ere, literatura, erlijio, historia nahiz beste gairi buruzkoak. XIX. mende hondarrean hasi ziren hiztegigileak aipuen sartzen eta bereziki aitzinako literaturan sustraituak ziren etsenpluak. Eginmolde honek frogatzen du hain segur ere,hiztegigilea biltzaile izan zela eta ez asmatzaile. Harrietek ez baitu hitz bakar bat ere asmatu; izendegian aurkeztu dituen sarrera kasik guziak idazle baten adibide batekin uztartuak dira. Gure kasuan, Euskara-frantsesa hiztegiak informazio iturri aberatsa eskaintzen digu ikuspegi horretatik.

IV. ZER HIZTEGI MOTA OTE DA?

Hiztegiaren makroegitura eta mikroegituraren arabera eta hemen labur-bilduz aipatu ditugun ezaugarrien arabera, Harrieten hiztegiko 3536 orriek izaera desberdinak bereganatzen dituzte.

Hiztegi orokorra edo orotarikoa dela, dudarik ez da. Orokorra da, ez baitu preseski gai edo alor berezi bateko hiztegia oinarritzat hartzen, hizkuntza bere osotasunean baizik. Makroegitura zabala eta anitza eskaintzen dute Harrieten hiztegiko 3.536 hostoek. Oroitarazi behar dugu, erakusgai gisa landu

ditugun hiru hizkiak (1) sarrera-hitz zerrenda luzeaz osatuak direla: *A*: 1512, *K*: 490 eta *T*: 855 sarrera. Hots orotarat, 2855 hitz atzematen ahal dira hiru hizki horietan barna. Harrietek bere garaiko joera islatzen du, izendegiari eta hiztegi antolakuntzari begira bederen.

Hizkuntza bere osotasunean kondutan hartzen duela erran dugu, hortaz *hizkuntza hiztegia* badela ezin uka. Hizkuntzari buruzko hiztegia izanik, euskara eta euskalki guziak aipatzen ditu; ezaugarri horrek hiztegiari aberastasun handi bat ematen dio, eta irakurlearentzat euskarari buruzko informazio iturri nagusia bilakatzen da hiztegia.

Mugabideetan oinarrituz, *hiztegi entziklopediko* baten itxura ere hartzen diogu batzuetan. Definizio gramatikalaz gain, definizio entziklopedikoak kausitu ditugu. Baina izaera entziklopediko hori ez da bakarrik definizioetan nagusitzen, makroegituran ere agertzen da. Hainbat gai bereziren inguruan kausitzen ahal dira sarrerak: lan-tresna, txori, landare eta lore izenez apaindua da hiztegia.

Euskalki guzietarat hedatzen den hiztegi honek, badu beste osagailu adierazgarri bat: euskal literaturari buruzko lekukotasunak. Lekukotasunak, hiztegian barna aho nahiz luma hizkuntzakoak dira. Eta ez badira beti ere behar den bezala aurkeztuak (erreferentzia eskasak), Harrietek aipuen bidez euskal literaturaren erakusgai luze-zabala eskaintzen du. Edizio berriak nahiz zaharrak, eskuizkribuak ere ez ditu bazter utzi. Hortaz, ikuspegi hortatik bederen *hiztegi historikoa* dela erraten ahal da. Mendez mende aipatzen dituen idazle eta obren bitartez, hizkuntzaren bilakaeraren berri ematen digu. Zer erranik ez *hiztegi elebiduna* dela, euskara-frantsesa. Frantsesez esplikatzen ditu euskal hitzak. Ezaugarri honek, hiztegiaren erabiltzailea edo irakurle mota finkatzen du. Harrieten hiztegiak publiko desberdinak erakartzen ahal ditu: euskara ez dakiena, euskara ikasten ari dena edo euskalduna dena. Hautu horrek, itzultzaile lanetan aritzea eragin dio. Adibide eta aipu guziak frantseserat itzuli baititu, hortaz lan bikoitza bete du Harrietek: lexikografo lana eta itzultzaile lana.

Azkenik haltsuarraren hiztegia, *hiztegi arauemailea* izendatzea egokia iduritzen zaigu. Hiztegi-artikuluetan usu irakurri dugun bezala, irakurleari sarrera-hitzari buruzko gomendioak edo aholkuak luzatzen dizkio. Forma hau hobesten duela bestea baino, hitza ez dela gehiago erabiltzen (*inusité*), asmatua dela (*inventé)* eta bestelako oharrak agertzen dira hainbat aldiz. Hiztegiaren xede nagusia informatzea izanik, Harrietek beste funtzio bat betetzen du, hizkuntzaren erabilpen ona bermatuz.

---

(1) Hiztegi osoa mikrofilmetan grabatua denez, hiru hizkien berridazketa lanerako mikrofilma horietaz baliatu naiz.

IV.1. Harriet XIX. mendean

Ez bada xuxen jakiterik noiz hasi zen hiztegiaren idazten, oro har erraten ahal dugu Harriet eta Azkue noizbait bederen, denbora berean ibili zirela bakoitza bere obraren apailatzen. R.M. Azkuek 1905-1906 urte bitartean plazaratu baitzuen hiztegia. Halere, Harriet lehenagotik hasi zen lan horretan eta kasik 30 urte luzez ihardun zuen xede horretan. 30 urte anitz da; bereziki gisa bereko obra baten gauzatzeko. Urteen joan-jinean, ohiturak, bizimoldea, pentsamoldea eta hizkuntza bera aldatzen eta berritzen dira beti eta beti:

> Hiztegi aberatsa, bada, eta, erabat harturik, informazio fidagarria eskaintzen duena. Garbizalea izanik ere, Harrietek hitz guztiak jasotzen ditu, ezein ere kanpoan utzi gabe. Azkueren hiztegiaren aldean, iduritzen zaigu Harrietenak menturaz hobeki isladatzen duela 19.mendeko euskal gizartea bere osotasunean eta bizitza-sail guztietan. (Henrike Knörr 1986: 416)

Hutsegite eta akatsak alde baterat utziz, Harrietek, euskara bere osotasunean kondutan harturik eta hiztegi elebidun batean oinarriturik, gaur egun oraino argitaratua ez den altxor bat utzi digu:

> [...] ce dictionnaire reste une mine des plus précieuses pour les chercheurs et une oeuvre de haute valeur, le plus important des dictionnaires basques assurément après celui d'Azkué. (Pierre Lhande 1926: 18)

Baina zer bilakatu ote dira gaur egun hiztegiko 3536 hostoak? Hainbeste merezimendu izan ondoan, gaur egun oraino argitarat eman gabe kausitzen da. Badakigu Harrietek berak argitaratzeko eskaintzak izan zituela: D'Abbadie adiskide handiak ihardespen ezezkorra ukan zuen eskuizkribuko lehen lau letren argitaratzeko eskaintza egin ziolarik, Daranatzek ere erantzun bera ukan zuen (Knörr 1987: 26). 1923. urteko artikulu batean (Harriet zendua zen orduko), Daranatzek Azkue eta Euskaltzaindiari dei bat luzatu zien:

> [...], je voudrais appeler l'attention de l'abbé Resurrección-María de Azkue et des membres si éclairés de l'Académie Basque, dont il est le Président autorisé, sur le *Dictionnaire basque-français* de l'abbé Maurice Harriet. [...] je voudrais prier l'Académie Basque de bien vouloir envisager la possibilité de publication du *Dictionnaire basque-français* de l'abbé Maurice Harriet (Jean-Baptiste Daranatz 1923: 461).

> [...] elle demeure une mine extrêmement riche de remarques, d'études, de précisions. Elle ne saurait être un *manuel pratique*, mais les chercheurs et les savants y trouveront une foule de suggestions des plus précieuses. Nous souhaitons vivement qu'il se trouve un Mécène pour fournir la forte somme qu'exigerait à l'heure actuelle l'impression de ce magistral et monumental travail. (Pierre Lhande 1926: 18)

Baina dei eta galde horiek guziak ihardespenik gabe dira gaur egun oraino. Egia da den bezala ez dela plazaratzen ahal haltsuarraren lana; eta hortaz ohartua zen hain segur egilea bera. Guhaur ohartu garen bezala, hiztegian barna bilakaera bat bada. Ageri da hiztegigileak, hiztegia egiten ari zen heinean lan egiteko moldea aldatu duela, aski da ikustea jadanik aipatu ditugun *A* eta *K/T* hizkien arteko desberdintasunak. Hori gertatzen da 30 urtez egiten den lan batekin.

Argitaratua ez izateaz gain, beste arrengura batetaz solas egin behar dugu, ildo beretik doana hain segur. Euskal lexikografian eta oro har euskalaritzan Maurice Harrieten izena ez da ezagutua. Hiztegigintzaz mintzo delarik, bekan entzuten dugu Harrieten izena. Zergatik ote? Alta jakina da, iturri gisa erabilia izan dela, Lhandek bereziki; Harrieten lanari esker osatu baitu bere hiztegia. Bestalde kondutan hartu behar da, XX. mende hastapenean Azkueren hiztegiak bereganatu zituela bazter guziak, bereziki hiztegigintza munduan. Haltsuar hiztegigileak bazakien lekeitiarra hiztegi baten prestatzen ari zela. Daranatzen erranetan (Daranatz 1923), Harrietek ez zuen bere lana argitaratzerik nahi, ez bera bizi zeno ez eta bere heriotzaren ondotik ere. Egilearen nahia hori izanik ere, 3536 orriko gaitzeko lan honek argia ikustea merezi du. Isilpean airatu diren hostoak, higatzen eta xahartzen ari dira Baionako apezpikutegian gaur egun. Oroitaraz dezagun ere, gure ikerketa lan honetan dokumentu eta idazki berriak kausitu ditugula, orain arte ezezagunak zirenak. *Cahier de Notes* izenburupean atzeman dugun Harrieten oharren liburuxka eta bere liburutegiko obra guzien zerrenda.

Aurten, Maurice Harrieten (1814-1904) heriotzaren mendeurrena ospatzen dugu. Denbora gehiago galdu gabe eta behar diren baldintza eta baliabideak ardietsiz itzaletik atera behar dugu euskara-frantsesa hiztegia, argia ikus dezan. Egia da, hala ere irakurketa eta berridazketa lanetan zailtasunak eta trabak kausitu ditudala, hainbat urteetako orriek ikerketa lana zaildu baitute zenbait aldiz. Funtsean 30 urtez buruturiko lan bat ez da hain aise berreskuratzen. Baina hala ere, hiztegiak egin dira eta eginen dira oraino, baina zer hizkuntzek utziko luke XIX. mendeko 3536 orri dituen hiztegi elebidun bat itzalean? Hizkuntza baten iraganak geroari buruz bultzatzen gaitu dudarik gabe. Hiztegi honek gure ezagutza eta jakinduria noraino mugatua eta zuzena den islatzen digu. Euskararendako altxor eta ondare ikaragarria izateaz gain, euskal hiztegigintzaren historian badu bere lekua, ongi merezia gainera.

Bururatzeko, duela 100 urte Harriet zendu zelarik, hona zer agertu zen Eskualdun Ona aldizkarian, haltsuarrak utzitako lanari buruz:

Den bezala noizpeit agian argitarat ikhusiko du... bizi denak (2)

Hala izan bedi.

(2) *Eskualdun Ona*, 8.zenb., 1904.urtea.

Bibliografía

Dibildos, 1926, L'Abbe Maurice Harriet et sa Soeur Mademoiselle Agathe», *Gure Herria*, 598-680.

Daranatz, 1923, «Le dictionnaire Basque Espagnol Français de l'abbé R.M. de Azkue», *RIEV XIV*, 457-462.

——, 1931, «Correspondance du Capitaine Duvoisin», *RIEV*, 57.

HIRIGOYEN Arantxa, 2003, *Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikasketak XXI. mendearen atarian: literatura gaiak* «Maurice Harriet eta euskal idazleak», Iker-14 (II), 125-156.

Knörr Henrike., 1986, «Maurice Harriet-en hiztegiaz», *ASJU*, 413-417.

——, 1987, *Para una edición crítica del diccionario de Maurice Harriet*. UPV/EHU Euskal Herriko Unibertsitatea / Université du Pays-Basque, Vitoria/Gasteiz (tesi argitaragabea).

Lhande, 1926, *Dictionnaire Basque-Français*, Gabriel Beauchesne; Paris.

MAURICE HARRIETEN LIBURUTEGIA

Larresoro, 2004-VI-24

Pierre Andiazabal, kalonjea

Titulu hori eman diote nire hitzalditxoari. Baina gauza guti dut nik erateko liburutegi horretaz, ez dut ez astirik, ez horretarako gaitasunik ere. Arantxa Hirigoyenek lan bikaina badu agertua (1).

Beraz liburutegi horren inguruaz mintzatuko natzaizue.

Harriet 1904en hil zen, eta euskarazko haren liburuak Larresoroko Semenarioari utzi zituen. Baina ez da ahantzi behar l906ean gobernamendua Larresoroko seminarioaz jabetu zela, eta nik beti entzun dudanaren arabera, hango liburutegia ere Pauerat eramana izan zela. Nire ustez ez zitazken oraindik Harrieten liburuak Semenariorat eremanak. Bestalde liburu horiek guziek marka edo zigilu berezia dute: *Institution Notre Dame de Belloc*. Urt (B.P.), izan ere, beneditarrek utzia zuten etxean sartu ziren Larresoroko ikasle eta irakasleak. Eta liburu horiei han sartu zirenean eman zioten marka. Eta nire iritziz, orduan ezarria izan da Liburutegiaren liburu guzien zerrenda, delako Laurent Hirigoyen apezak. Gero aipatuko dut apez hori.

1926an Seminario ttipiak Beloke uzten du eta Uztaritzeko bidea hartzen. Liburuek ere bixtan da. 1928an, Mathieu jaun apeza (geroxago Akizeko apezpiku izendatua izanen dena) sartzen da Uztaritzeko seminarioan nagusi bezala. Hark Piarres Lafitte-n eskuetan ezartzen ditu Harrieten liburu guziak, eta gainera bere sakelatik ematen dio diruketa bat, liburutegi horren emendatzeko. Zenbat? Guri Lafittek erraten zaukun bi mila libera, (bazen zerbait orduan). Bestela ere erran izan du: hogei mila libera eman ziozkala. Bai eta gela berezi bat ere horien gordetzeko, eta han zen armairua orduan eginarazi zuela, erran dauku Lafittek. Ordukoz Lafitte euskal lanetan murgildua zen, eta ez da dudarik altxor hori ederki baliatu zuela. Ez ote zituen hortik atera *Eskualdunen Loretegia*ren gaiak. Liburu horren lehen liburukia bakarrik agertu zuen, uste zuen baino arrakasta gutiago izan baitzuen.

---

(1) *Euskal Gramatika eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian. Literatura gaiak.* Iker-14 (II), Euskaltzaindia / R.A.L.V. / A.L.B., Bilbao, 2003.

Non dira liburu horiek orain? Lafittek bere liburu guziak Baionako diosesari utziak ditu, Jean Hiriart-Urruty eta ni, haren ordenuaren betetzaile bezala izendatzen gintuela. Guk gehienak (lau mila titulu hurbil) Baionako herriaren liburutegian (Bibliothèque Municipale; *Fonds Lafitte* izenarekin) ezarriak ditugu. Ez denak haatik, zenbait oraindik apezpikutegian dira, batez ere Harrieten Hiztegia, zenbait liburu 17. mendekoak, eta eskuizkribu batzu, hala nola *Birjina* edo *Donceil* christiba, hiru pastoral, eta abar. Horiek, Euskaltzaindiak microfilmetan ezarriak ditu, Hiztegia ere nire ustez. Haranederren *Testament Berria*, aldiz aita Patxi Altunak, zorionez, agertu duena Baionako liburutegian da. Ez ote liteke berdin egin behar beste eskuizkribu horiekin ere, batez ere Robinen *Birjina*-rentzat?

Arantxa Hirigoyenek bere artikuluan eman dauku liburu horien guzien zerrenda, Egia erran bi zerrenda. Bigarrena hau da: *Copie d'une liste dressée par M. Harriet lui-même et qui se trouve dans le carton A du Dictionnaire Basque*. Kopia beraz, eta aitortu behar da Harrieten jatorrizko zerrenda galdua dela. Nork kopiatua? Laurent Hirigoyen apezak. Hau uztariztarra zen, Zokorrondo auzoko *Mentaberria* baserrian sortua, 1860ean. 1885ean apeztua, bikario Senperen eta Hazparnen, gero irakasle Larresoron 1889tik 1912raino. Gero Uharte-Garaziko erretore (1912-1923), Hazparneko misionest (1923-1930), eta berriz irakasle Uztaritzen, hil arte, 1935. Eskuan ditugu haren prediku eta sermoiak, idazkera eder eta garbian idatziak. Idazkera berbera Harrieten liburutegiko zerrendan. Kopia oso fidagarria, badugu 18. gizaldiko apezen zerrenda bat hark kopiatua: jatorrizkoaren zirimarrak ere ekartzen zituen, ziren bezala. Zerrenda hori Harrietek egina eta haren hiztegiaren hasieran ezarria: ez ote da orduan eskupean zituen liburuen zerrenda? Baina gero, urteak joan urteak jin, ez ote zituen beste liburu asko eskuratu, bere liburutegia aberastu?

Beste zerrenda bat bada L. Hirigoyenek ezarria, bestea baino luzeagoa, askoz liburu gehiago daukana. Nago ez ote den hori Hirigoyenek egin duen zerrenda, Harrieten liburutegia Belokerat, Seminario ttipirat ekarri zutenean. Hain xuxen, ordu hartan Beloken irakasle zen apez hau. Liburu gehiago badela erran dut, 19. mendeko azken urteetarainokoak.

Hitz bat erran nahi nuke ere Laurent Hirigoyen horrek Dubarat eta Daranatz apezekin Louis Colas irakaslearekin, eta Boissel 'Musée Basque', Euskal Erakustokiaren lehen zuzendariarekin izan dituen harremanetaz. Gutun asko badira, Uharte Garazin zeneko denborakoak. Azterketak egitea eskatzen diote Orreagako aldean (Dubarat) edo Garaziko hilerrietan (Colas), bai eta deseinu edo marrazkiak igortzea gizonarri edo beste harri landu batzuez. Marrazkilari trebea zen alabaina: hor dugu haren sortetxe ondoan eraikiarazi zuen gurutze ederra.

LARRESOROKO GAUR EGUNGO EUSKARA

Larresoro, 2004-VI-24

Irantzu Epelde Zendoia, EHU
(iepeldezen@euskalnet.net)

Maurice Harriet (1814-1904)
hiztegigilearen heriotzaren mendemuga

I. SARRERA

Historian zehar ikerle gutxik eskaini dio arreta Lapurdiko eremu honetako euskalkia aztertzeari, eta, hori dela eta, ez dugu hizkera honen gaineko nahi hainbeste berri.

Hala ere, datu biltze batzuk egin dira hemeretzi eta hogeigarren mendeetan. Adibidez, joan den mendekoak dira *EI*, *EAEL* eta *EHHA*-ren inkestak, eta hemeretzigarrenekoak Bonaparteren bitartez bildutakoak. Hemeretzigarren mendearen bigarren partean, Bonaparte printzeak Euskal Herriko hizkera guztietako informazioa bildu zuen, eta hala osatu zuen euskalkien eta hauen barneko azpieuskalkien eta hizkeren banaketa ezaguna (1863, 1869).

Larresoroko hizkera, Harriet omenduaren sorterrikoarekin batera, Uztaritzeko hizkeraren barnean sailkatu zuen Bonapartek, mendebaleko behe-nafarreraren Lapurdiko azpieuskalkiaren barnean. Euskalki honek eremu zabalagoa hartzen du, hiru azpieuskalki biltzen ditu —Lapurdikoa, Baigorrikoa eta aezkera—, eta horietan iparraldekoena da Lapurdiko azpieuskalkia, bere barnean bi hizkera biltzen dituena: Uztaritzekoa eta Lekornekoa.

Bederatzi herri sailkatu zituen guztira Uztaritzeko barietatean: Larresoro, Uztaritze, Jatsu, Haltsu, Kanbo, Itsasu, Ezpeleta, Zuraide eta Milafranga. Eredu edo hizkera nagusia Uztaritzekoa hartu zuenez gero, ditugun aipamenak Uztaritzeko hizkeraz dira gehienbat, Larresoro, Haltsu-eta bakan agertzen dira, datu puntual batzuetan besterik ez (1). Uztaritzekoaz lekukotasun gehiago dugu; adibidez, berriki argitaratu da Uztaritzeko dotrina (Pagola, Iribar & Iri-

(1) Adibidez, Bonaparteren galdeketa batean Larresoron eta Haltsun jasotako erantzunetan *erraiteunt, erraiteunte, yateunt, yateunte* forma metatesidunak ageri dira, eta baita beste segida hau ere: *yaneunt = yaneut = yanen dut* (Arana Martija eta Gonzalez Etxegarairen katalogoan 30. esk., 152-3. orr.).

bar 1999: 185-212), Bonaparteren ondareko 30 orrialdeko eskuizkribua, Uztaritzeko apez batek bertako euskaran itzulia.

Bonaparteren ekarpena garrantzi handikoa izan da, hari esker ditugu hainbat hizkeratako hainbat datu, baina, egin zuen lanari ezer kendu gabe, dialektologia aldetik badira haren lanean gaurko ikuspegitik bitxi irudituko litzaizkigukeen irizpide batzuk, adibidez literatura euskalkiei eman zien lehentasuna eta euskalki garbiak eta nahasiak bazirelako ustea.

Bonaparteren garaitik, luzaz, Euskal Dialektologian ez da aurrerapen handirik izan oraintsu arte, egile gehienak jarraitu zaizkio haren sailkapenari. Berak erabilitako irizpideak ez dira askorik eztabaidatu, eta besterik gabe ontzat eman izan dira.

Edozein hizkera aztertzeko nahitaezkoa da hizkuntza ezaugarriak hautatzea, baina aukera egin beharrak arazoak sortzen ditu. Hizkera bat besteetatik bereizteko eta euskalkien artean kokatzeko ezaugarri guztiek ez dute garrantzi bera. Bonapartez ari garela, Uztaritzeko hizkera Hazparnekotik bereizteko, bi ezaugarritan oinarritu zen: *ukan*-en erabilera eta *-a* galdera atzizkia (1866: 29). Lehenaz esan behar da Uztaritze aldean *izan* besterik ez dela erabiltzen aditz perifrasietan (2) (ad. *beti uste izan dut*); Hazparne aldean, berriz, *izan* eta *ukan* erabiltzen dira (ad. *beti uste izan dut* & *beti uste ukan dut*). Bigarren ezaugarria, galde-perpausetako *-a* morfema, ez da Uztaritze aldeko ezaugarria; Hazparne aldean, ordea, ohikoa da.

Egia da Uztaritzeko eta Hazparneko hizkerek jokabide desberdina dutela bi ezaugarri hauei dagokienez, baina, gaurko ikuspegitik, galda dezakegu ea bi hizkuntza ezaugarri aski ote diren, eta, bestalde, berak eman zituen bi horiek egokienak ote diren.

Honekin lotuta, azken denboretan egin dira aurrerapausoak eta Euskal Dialektologia gaurkotzeko saioak (Ibarra 1995, Zuazo 1998, Camino 1997), eta hautatu beharreko hizkuntza ezaugarrien inguruko irizpide teoriko-metodologikoak ere zehaztu dira. Iñaki Caminoren arabera (2004: 59), hizkera bat ongien ordezkatzen duten hizkuntza ezaugarriak «esklusiboak, bateratzaileak, sistematikoak eta garaikideak diren berrikuntzak» dira. Aztergai dugun hizkerako adibide bat jartzearren, II.2. azpiataleko *ue* > *ui, üi* bilakaerak beteko lituzke baldintzok: gertakari honek ez ditu hizkera honen mugak gainditzen, aldi berean hizkeraren eremu osoa hartzen du eta esan dezakegu *u + e* inguruneko kasu guztietan ia aldioro betetzen dela.

Gisa horretakoak izango lirateke hizkuntza ezaugarri idealak, baina hau bezalako erdiguneko hizkeretan ez da erraza honelako baldintza estuak betetzen dituzten ezaugarriak aurkitzea. Bidenabar, Bonapartek erabili zituen bi ezaugarriak ere ez dira hizkera honen bereizgarriak: ukan Ipar Euskal Herri

(2) Aditz nagusi bezala, berriz, biak erabiltzen dira: *haurra ukan du* & *haurra izan du*.

osoan barrena erabiltzen da (Zuazo 2003: 208), eta -a galde atzizkia ekialde osoan (Zuberoan, Nafarroa Beherean, Lapurdiko ekialdean, Erronkarin eta Zaraitzun behintzat bai; Zuazo 2003: 199).

II. LARRESOROKO HIZKERAREN BEREIZGARRIAK

Atal honetan bilduko ditut Larresoroko hizkera ondoko herrietakotik bereizten duten ezaugarrietako batzuk, nahiz eta gehienak ez diren hizkera honen esklusiboak edo beste inongo hizkeratan aurkitzen ez direnak.

II.1. *u + a > uia*

Larresoron eta ezkerretara dituen herrietan (Arrangoitzen, Uztaritzen eta Ezpeletan) *uia* nagusitzen da (eta baita Haltsun ere). Antzina ekialde osoan egin zen *i*-ren epentesi hau, baina gero beste urrats bat egin zen Zuberoan, Erronkariko iparraldean, Nafarroa Beherean eta Lapurdiko ekialdean (Zuazo 2003: 196): *buruia > buria.* Lapurdiko erdigunean oraindik gordetzen da tarteko pausoa (*uia*), baina, zenbat eta ekialderago jo, orduan eta palatalizatuago ahoskatzen da (Hazparne aldean *üa*). Nabarmentzekoa da Jatsu, Kanbo eta Itsasu Hazparneko eskualdearekin batera doazela ezaugarri honetan.

Beste bi aukera ere badira, nire datuen arabera: batetik, Ainhoa eta Senpere auzo herrietako eraginez, *ua* dugu Zuraiden (eta are Larresoron inoiz). Bestetik, ekialderagoko hizkeren eraginez, *üa* nagusitzen da Jatsun, Kanbon eta Itsasun.

II.2. *u + e > ui, üi*

Zuek pertsona izenordainean (vs. Hazparnen *zíik*) eta adizkera jokatuetan bakarrik betetzen da bilakaera hau: *duzui* ‘duzue’, *nuzui* ‘nauzue’, *nintuin* ‘ninduen’, *zinuin* ‘zenuen’, *zintuin* ‘zintuen’... Palatalizazio kasu hauetan *üi* ez da bi silabatan ematen, diptongo bihurturik baizik /wi/.

Hizkera honek bere-berea duen ezaugarri bereizle bakarrenetakoa da hau, uztariztar, larresoroar, itsasuar (...) baten mintzoa salatzen duen ezaugarrietan nabarmenena. Bonapartek ere «exception toute locale et des plus curieuses» dela dio (1991 [1869]: 248), eta lapurteraz *-ue-* gelditzen dela (3).

(3) «À Ustarits l’*ü* se trouve dans la combinaison *üi*, qui correspond à *ue* labourdin: *nüin* ‘je l’avais’; *züik* ‘vous’, et en labourdin: *nuen, zuek*» (1991 [1869]: 242, 2. oin-oharra).

Bederatzi herrietan betetzen da, baina Larresoron, Ezpeletan eta batez ere Zuraiden ez da ezinezkoa bilakaerarik gauzatu gabeko formak (ue dutenak) aditzea, Senpere-Ainhoako hizkeraren eraginez.

II.3. *ai* diptongoa > *ei* bilakatzea

Larresoroko hizkeran nahiko sistematikoa da: *zombeit* 'zenbait', *nunbeit* 'nonbait', *aneia* 'anaia', *beita* 'baita', *-gei* '-gai'... (vs. Hazparnen, *bita* 'baita', *zombit* 'zenbait', *nunbit* 'nonbait', *ez bitakit* 'ez baitakit', *eierazina* 'eiherazaina'...).

Bilakaera honen eremuaz, Gavel-ek dio mendebaleko behe-nafarreraz betetzen dela (1921: 17). Ipar Euskal Herritik kanpo, Sakanan behintzat bada.

II.4. Datibo plurala

Datibo pluraleko atzizkia -eri da Larresoron, Uztaritzen, Jatsun, Haltsun, Kanbon, Ezpeletan eta Zuraiden: alaberi 'alabei', haurreri 'haurrei', deneri 'denei'... Itsasun, ekialdera dituen herrietan bezala, -er nagusitzen da. Bestalde, Arrangoitzen -ei ere bada -eri-ren ondoan (Senperen eta Ainhoan -ei baita).

II.5. Genitibo singularra

Genitibo singularrean, genitiboaren eratorrietan eta geroaldiko morfeman *-ain* da nagusi Larresoron eta honen hegoaldera dauden herrietan (Itsasun, Ezpeletan eta Zuraiden): *haurrain* 'haurraren', *haurrainganat* 'haurrarengana', *joain* 'joanen'... Gainerako herrietan (Uztaritzen, Milafrangan, Jatsun eta Haltsun) *-aan* da nagusi (*haurraan, haurraakin, joaan*), eta Kanbon biak erabiltzen dira. *EHHA*-ren Arrangoitzeko lekukoak *-aren* & *-ain* & *-an* erabiltzen ditu, eta Senperekoak *-ain*.

-Aren > -ain bilakatzea nafar-lapurtarraren eta euskara nafarraren eremu osoan da ezaguna.

II.6. N-N-N saileko **-i-* eta **eradun* erroak

NOR-NORI-NORK saileko adizkietan, datiboa hirugarren pertsonakoa denean ('hari' eta 'haiei'), bi aditz erro erabiltzen dira bederatzi herrietan: **-i-* eta **eradun* (*dio* eta *dako*). Diferentzia maiztasunean dago: Larresoron,

Uztaritzen, Jatsun, Haltsun, Ezpeletan eta Zuraiden ohikoagoa da *-*i*- **eradun* baino; Milafrangan, Kanbon eta Itsasun, berriz, bien arteko lehia dago.

Kanbo eta Itsasu eremuaren hego-ekialdean daude, eta ezaugarri honetan Hazparne-Makea-Luhuso-Lekorne aldeko eragina sumatzen da, alderdi horretan **eradun* erabiltzen baita erabat. Eragin hori ez da oso aspaldikoa izango, hemeretzigarren mendearen erdialdean *dio* moduko adizkiak besterik ez baitziren erabiltzen hiru herri horietan, Bonaparteren arabera (Irizar 1999: 235).

Mendebalerago, Arrangoitzen (Irizar 1997: 467) eta Senperen (Irizar 1997: 92), *-i- da aukera bakarra, bai orain eta bai Bonaparteren garaian.

II.7. «La faute de *nau*»

NOR-NORI-NORK saileko adizkiak erabili beharrean NOR-NORK-ekoak erabiltzea akats gisa ikusi izan dute ikertzaileek: Bonapartek (1869) *la faute de «nau»* esan zion, eta Lafittek *le solécisme de la Côte*. Baina kostatarraren ezaugarritzat jo izan den gertakari hau ez omen da horren kostaldekoa (4), ezta horren solezismoa (5) ere. Hala azaldu dute berriki Beatriz Fernández ek eta Marijose Ezeizabarrenak gertakari honen inguruan egin duten lan batean (2001). Erakutsi dute erabili duten Sarako berriemailearen arabera oso gertakari sistematikoa dela, eta oso erabilera zehatzekoa. Ezinbestekoa da bi baldintza sintaktiko hauek betetzea: absolutiboko argumentuak hirugarren pertsonakoa izan behar du eta datibokoak lehen edo bigarren pertsonakoa (ik. hurrengo paragrafoko adibideak).

Bestalde, ematen du hedadura zabalagoa duela Lapurdiko kostaldeaz beste: Lapurdin bertan Basusarri-Arrangoitze-Arbona-Senpere-Ainhoa lerrotik kosta bitartean betetzen da (Irizar 1997 eta 1999). Adibideak Arrangoitzekoak dira (*EHHA*): *ze erran hau aitak?*; *nok saldu hau bei ori?*; *saldu nauzu arrain ustel ori...* Lerro horretatik ekialdera ere badira aztarnak: Zuraiden nahiko gertakari indartsua da, eta Larresoron eta Ezpeletan ere sumatzen da eragin pixka bat.

Nafarroan, Zugarramurdin, Urdazubin, Baztanen, Bertizaranan eta Bortzirietan gertatzen da, eta Gipuzkoan Donostia eta Irun bitartean (Irizar 1981, 1991 eta 1992).

---

(4) "Una de las principales faltas de que se acusa al vascuence de San Juan de Luz es la confusión de formas verbales (*emaiten zaitut* por *emaiten dautzut*, etc.), a lo que contestaba Duvoisin, con razón, que esas confusiones se cometen «un peu partout»" (Urkixo 1922: 244).

(5) 'Hitz egitean egiten den akatsa'.

II.8. Zuketarik eta xuketarik eza

Zuketa eta xuketa tratamenduak dira ekialdeko hizkeren bereizgarri nagusia, nahiz eta ez diren ekialde osoan erabiltzen. Zuketa bai, eremu gehienean erabiltzen da, Aturrialdea barne, baina Lapurdiko erdigunera ez da iritsi. Koldo Artolak zuka alokutiboaren aztarnaren bat (ad. *mintzo zezien* 'zuten' adizkiaren zukako alokutiboa; Irizar 1999: 381) bildu zuen Milafrangako auzo batean, Behereko Kartieran (Hiribururekin egiten du muga, eta hortik barneratua izango dela dio Artolak), baina gainerako herrietan ez dago arrastorik.

Xuka berezi bat erabiltzen da Hazparnen, Lekornen, Makean eta Lekuinen. Ez da alokutiboa, erran nahi baita, hitanoko eta eztabadako formez gain *xu xira* bezalakoak ohikoak direla (baina hirugarren pertsonan *hura da*, eta ez ekialderago bezala –xuka alokutiboa mintzo den lekuetan–, *hura duxu*). Alberdik (1996: 318) «*xu* eztabadakakoa» deitzen du, eta esaten du tratamendu berezia dela, ez delako erabiltzen haurrekiko hizkeran bakarrik edo bakanka, baliabide adierazkor gisara (bide batez, aezkeraz ere erabiltzen da).

Hori da nik aztergai dudan hizkerarekin ikusten dudan alde nagusia, zeren, Larresoron behintzat, hurbileko haurrekin aritzeko bakarrik entzun dut (adibidez, amatxik iloba txikiari...), betiere baliabide adierazkor gisara. Hazparnetik hegoaldera, Luhuson eta Makeako hegoaldean ere ez bide da erabiltzen Hazparneko xuka berezi hori, eta, beraz, bat egingo lukete nik aztertu dudan hizkerarekin.

II. 9. Galde perpausetako -a atzizkia

Bederatzi herriotatik zazpik eremu uniformea osatzen dute ezaugarri honi dagokionez: galde perpaus arruntetan ez da *-a*-rik erabiltzen Larresoron, Uztaritzen, Milafrangan, Jatsun, Haltsun, Zuraiden eta Ezpeletan, *nik takita?* eta horrelako esamolde fosildu batzuez beste. Salbuespenak dira Kanbo eta batez ere Itsasu. Azken honek ekialdera duen eskualdearekin bat egiten du nabarmen (berriemaileak aise erabiltzen du).

Bonaparteren (1866: 29) datuen arabera, berriz, bederatzi herriak bat datoz *-a*-ren faltan, eta isoglosa garbia zegoen eremu honen eta Hazparne aldearen artean (Nafarroa Behereko Aiherra barne). Hor dugu hemeretzigarren mendeko lekukotasuna. Gaur egun eskuinera dituen herriekin batera sartu beharko genuke Itsasu (eta agian Kanbo) ezaugarri honi dagokionez.

III. LARRESOROKO MINTZOAK ONDOKO HIZKEREKIN BATERA DITUEN EZAUGARRIAK

Dialektologian komenigarria da hizkuntza ezaugarrien sailak bereiztea ezaugarriok hartzen duten geografia hedaduraren arabera; aztertzen den hizkerak izan dituen eraginen hainbat aldi eta hainbat eremu argitzen lagun diezagukete sailok. Eta, eremu txiki batean dauden isoglosek ez ezik, eremu hedatuagoak eta hizkera edo dialekto talde bat baino gehiago biltzen dituztenek ere garrantzia dute. Gisa horretakoak dira segidan azalduko ditugun ezaugarri hauek (6):

III.1. Nafar-lapurtarraren eremuko ezaugarriak

Koldo Zuazok *nafar-lapurtarra* esaten dio (Lafitteren «navarro-labourdin» izendatzean oinarrituta) gaur egun Lapurdin eta Nafarroa Behere osoan erabiltzen den euskarari. Nortasun handiko hizkera bana ikusten du horietan: Lapurdiko kostaldekoa eta amikuzera. Esaten du kostaldekoak erdialdeko euskararekin eta nafarrarekin duela lotura; Amikuzekoa, berriz, zubereraren jarraipena dela dio (2003: 148). Horietaz gain, nafar-lapurtarraren barnean ikusten ditu bi probintzia horien mugetatik kanpo diren zazpi herri: Zuberoako lau (Lohitzüne, Arüe-Ithorrotze-Olhaibi, Domintxaine-Berroeta eta Etxarri) eta Nafarroako hiru (Urdazubi, Zugarramurdi eta Luzaide).

Bistan denez, aztergai dudan hizkerak eremu honetakoekin batera ditu hainbat ezaugarri, besteren artean ondorengo hauek:

III.1.1. *i* bokalak eragindako bustidurarik eza eta despalatalizazioa: *i* bokalaren ondoren ez dago *n* eta *l* kontsonanteen palatalizaziorik: *artzaina, kokina, makila, mila...* Bestalde, soinu sabaikaria zuten zenbait mailegu despalatalizatu egin da: *máinu* ‘bainua’, *botóila* (fr. *bouteille*), *táilu* ‘dailua, sega’ (fr. *taille*), *koinát, batáila* (fr. *bataille*), *gazténa* (fr. *châtaigne*)... Dena dela, mailegu berriagoak despalatalizatu gabe hartu dira Larresoron: *xiñóna* ‘mototsa’ (fr. *chignon*), *kanpáña* ‘landa’ (fr. *campagne*), *suañátu* ‘zaindu’ (fr. *soigner*), *makiñuna* ‘tratularia’ (fr. *maquignon*), *konpañia* ‘konpainia’ (fr. *compagnie*), *papilluna* ‘tximeleta’ (fr. *papillon*), *kallátu* ‘gatzatu, mamitu’ (fr. *cailler*)…

III.1.2. Hitz hasieran *x-* dugu eremu osoan: *xapél* ‘txapela’, *xaál* ‘txahala’, *xakúr* ‘txakurra’, *xeé* ‘xehe’, *xíto* ‘txitoa’, *Xomin, xorí* ‘txoria’, *xurí* ‘zuria’...

(6) Koldo Zuazoren *Euskalkiak. Herriaren lekukoak* (2003) liburua hartuko dut oinarri, zehaztasunez azaltzen duelako zein hedadura duten gaur egungo euskalkiek eta hauen eremua gainditzen duten ezaugarri markatzaileek.

III.1.3. Erdal *-on* eta *-age* bukaeren emaitzak *-oin* eta *-aia* dira eremu osoan: *botóin* ‘botoia’ (fr. *bouton*), *kartóin* ‘kartoia’ (fr. *carton*), *buxóin* ‘1. tapoia. 2. kortxoa’ (fr. *bouchon*), *bisáia* ‘aurpegia’ (fr. *visage*), *domáia* ‘pena’ (fr. *dommage*), *ziráia* ‘oinetakoak garbitzeko gaia’ (fr. *cirage*), *piaia* ‘bidaia’ (fr. *voyage*), *salbáia* ‘basatia’ (fr. *sauvage*)...

III.1.4. ‘Inor’ adierako izenordainak *neh-* formatik abiatuz sortzen dira: *neor* ‘nehor, inor’, *neori* ‘inori’, *niun* ‘inon’, *niundik* & *niundanik* ‘inondik’, *neorat* ‘inora’...

III.1.5. Item lexiko multzo bat eremu honetan barrena erabiltzen da: *fítsik* & *pítsik* ‘ezer’, *gako* ‘giltza’, *guri* ‘biguna’, *sehi* ‘neskamea’, *xingár* ‘urdaia’...

III.2. Eremu zabalagokoak

III.2.1. Nafar-lapurtarraren eta euskara nafarrarenak

Zenbait ezaugarri, *nafar-lapurtarra* delakoan ez ezik, euskara nafarrean ere betetzen dira. Hauek dira nabarienak:

III.2.1.1. Singularra eta plurala bereizten dituen azenturik eza. Ordea, Zuberoan eta Erronkarin azentuak bereizten du hitzen singularra eta plurala: *gizónak* (sing.) vs. *gizonék* (plur.).

III.2.1.2. Genitibo singularreko *-aren* > *-ain* bilakatzen da Larresoron, II.5. azpiatalean azaldu bezala: *nausiain* ‘nagusiaren’, *gizonain* ‘gizonaren’, *zernain* ‘zernahiren’, *esniain* ‘esnearen’, *nai dutenain egiten* ‘nahi dutenaren egiten’, *Ñañainborda*, *haurraingatik* ‘haurrarengatik’, *izain* ‘izanen’...

III.2.1.3. Aditz trinkoetako *-ki* atzizkia eremu honetako ezaugarritzat hartzen da: *ilki* ‘ibilki’, *erabilki*, *eoki* ‘egoki’...

III.2.1.4. Item lexiko multzo bat batera dute bi eremu hauek: *aitátxi* ‘aitona’, *amátxi* ‘amona’, *arrás* ‘erabat, oso’, *milesker*, *hurbíl*, *gísu* ‘karea’, *pentze* ‘larrea’, *xílko* ‘zilborra’, *primadera* ‘udaberria’...

III.2.2. Ipar euskal herrikoak

Zerrenda luzea osatzen dute Ipar Euskal Herriko mintzoa Hego Euskal Herrikotik bereizten duten ezaugarriek. Hauek dira nabarmenenak:

III.2.2.1. Sudurkari aurrean *o* > *u* egitea: *úntsa*, *undár* ‘hondar’, *húntan* ‘honetan’, *makiñuna* (fr. maquignon) ‘tratularia’...

III.2.2.2. Frantsesez *-e* mutuan bukatutako hitzak *-a* itsatsidunak bezala jokatzea: *fléxa* ‘gezia’ (fr. *flèche*), *gráma* (fr. *gramme*), *trántxa’at tomate* ‘tomate xerra bat’ (fr. *tranche*), [autoko] *fárak* ‘argiak’ (fr. *phare*), *xéka* ‘txekea’ (fr. *chèque*)... Eta frantsesez kontsonantez bukatzen diren hitzak ere bide beretik jokatzen dira gehienetan: *brazeleta* (fr. *bracelet*), *mefianta* (fr. *méfiant*), *estomaka* (fr. *estomac*), *difeenta* (fr. *différent*), *trikóta* (fr. *tricot*), *blónda* ‘ilehoria’ (fr. *blond*)...

III.2.2.3. *r* ebakera ubulareaz ahoskatzea.

III.2.2.4. Hasperena.

III.2.2.5. Adlatiboko *-rat* eta hurbiltze adlatiboko *-(r)at / -(r)i* buruz morfemak.

III.2.2.6. Soziatiboko *-kilan* atzizkia.

III.2.2.7. *-ño* atzizki txikigarria*: irríño, paperño, xoríño, kafeño...*

III.2.2.8. *Nihaur* egiturako izenordain indartuak.

III.2.2.9. Iraganeko adizki laguntzaileak orainaldikoek ordezkatzea: *mainuetan asi niz atzo* ‘bainuetan hasi nintzen atzo’; *joan den astian ikusi duu elgar* ‘joan den astean ikusi genuen elkar’...

III.2.2.10. Indikatiboan *-ke* erabiltzea, ustea edo ziurtasun eza adierazteko: *kanpoan ditake* ‘kanpoan dateke; kanpoan da, nonbait’, *otita in duke* ‘otitisa egin duke; otitisa bildu du, nonbait’...

III.2.2.11. *-n* bukaerako adizkietan *-iten* eranstea: *egoiten, izaiten, emaiten...*

III.2.2.12. *Afaldu* eta *bazkaldu* aditzak iragangaitzat hartzea (*afaldu niz* ‘afaldu naiz’, *bazkaiten gia* ‘bazkaltzen gara’) eta *ari* eta *nahi* aditz nagusiaren arabera jokatzea (*uzten ai dute* ‘uzten ari dira’, *esposatu nai zen* ‘ezkondu nahi zuen’).

III.2.2.13. Erlatiboetan partizipio hutsa erabiltzea: *errientak pausatu kestionia* ‘maisuak egindako galdera’, *erran tenoreko jin tzen* ‘esandako ordurako etorri zen’...

III.2.2.14. Denborazkoetan *-(e)no* erabiltzea*: on deno* ‘ona dagoen bitartean’, *ordu deno* ‘garaiz den bitartean’, *ama duino* ‘ama duen bitartean’...

III.2.2.15. Zehargalderetan *-(e)ne(t)z* erabiltzea: *eztakit bautanetz e* ‘ez dakit badaukadan ere’.

III.2.2.16. Baldintzazkoetan *ber* erabiltzea: *tenorez hor den ber, futitzen nuk* ‘garaiz hor baldin bada, futitzen nauk’ (*EHHA*, Uztaritze).

III.2.2.17. Perpaus neutroetan *ba-* erabiltzea: *ze etxe ederrak baziren han!* ‘zein etxe ederrak zeuden han!’; *amabi urteen difentzia baduu* ‘hamabi urteren diferentzia dugu’...

III.2.2.18. [Adizki laguntzailea + aditz nagusia] hurrenkera erabiltzea: *hor da nunbeit bizi* ‘hor nonbait bizi da’, *oai semia da geien ibilki* ‘orain semea ibiltzen da gehien’, *ni ordüan nitzen geienik trebatu* ‘ni orduan trebatu nintzen gehienik’...

III.2.2.19. Item lexiko multzo handiak bereizten du Ipar Euskal Herriko hizkera gainerakoetatik, bai euskaratikako hitzek eta bai gaskoitik eta, azken urte hauetan, frantsesetik sartu diren maileguek. Zerrenda luzeegia litzateke hemen aipatzeko, baina adibideetarako ikus daitezke Zuazoren (2003: 208) eta Peillenen (1998) bildumak.

III.2.3. Iparraldea eta euskara nafarra *vs* mendebala eta erdialdea

Euskararen baitan dagoen banaketarik argienetakoa osatzen du, Zuazoren arabera, honako honek (2003: 179): alde batean ikusten ditu mendebala eta erdialdea, eta bestean Ipar Euskal Herria eta euskara nafarra. Guri dagokigunez, nabarmentzekoa da Lapurdiko kostaldeko mintzoa Iparraldeko gainerakoetatik urruntzen dela hainbat ezaugarritan, eta erdialdekoetara hurbiltzen. Hauek dira ezaugarri nagusiak:

III.2.3.1. Goranzko diptongoak izatea: *sémja* ‘semea’, *pérdja* ‘berdea’ eta *máltswa* ‘otzana, barea’, *móltxwa* ‘multzoa, sorta’ bezalako ahoskerak ohikoak dira Larresoron, nahiz ez den gertakari sistematikoa.

III.2.3.2. Adberbioak eta predikatuak mugatu singularrean jokatzen dira: *goxo-goxoa ginen otobüzian* ‘goxo-goxo ginen autobusean’, *behiak han tzien, garbi-garbia* ‘behiak han ziren, garbi-garbi’...

III.2.3.3. [*Eman, utzi*... + aditz izenak adlatiboan] jokatzen dira: *biper mina, ua da gorritzeat uzten dena* ‘piper mina, hura da gorritzera uzten dena’, *ez gia mentuatzen joaiteat* ‘ez gara menturatzen joatera’...

III.2.3.4. *Norbait* (*norbeit* ahoskatuz) saileko izenordainak erabiltzen dira.

III.2.3.5. Erdal *-(t)ion* atzizkiak *-(z)ione* eman du: *okupazione* ‘zeregina’ (fr. *occupation*), *jeneazione* ‘belaunaldia’ (fr. *génération*), *enfekzione* ‘infekzioa’ (fr. *infection*), *prekozione* ‘arreta, kontua’ (fr. *précaution*), *punizione* ‘zigorra’ (fr. *punition*), *operazione* ‘ebakuntza’ (fr. *opération*)...

III.2.3.6. **edun*-en orainaldian *-u-* erroa erabiltzen da ekialde osoan: *dut* (vs. mendebalerago, *det, dot*).

III.2.3.7. *Izan*-en 3. pertsona singularrean *-e-* dugu ekialdean: *den, zen, zela...* (vs. mendebalerago, *dan, zan, zala...*).

III.2.3.8. Aditz trinkoen iraganean *-a-* dugu ekialdean: *zakin, zagon* (vs. *zekien, zegoen...*).

III.2.3.9. Geroaldiko *-en* ekialde osoan erabiltzen da (*emanen, joanen...*), baina badirudi azken aldian gero eta gehiago zabaltzen ari dela mendebaleko eta erdialdeko *-go* (*emango, joango...*).

III.2.3.10. Ahalerako adizkiak *-ten / -tzen* + AHAL perifrasiak ordezkatzen ditu maizenik: *eztut suportatzen aal* 'ezin dut jasan', *eritzen aal dia* 'gaixotzen ahal dira', *etzuen uzten aal pipatzia* 'ezin zion utzi erretzeari'...

III.2.3.11. Perpaus osagarrietan *-(e)la* erabiltzen da (vs. *-(e)nik*, mendebalean eta erdialdean): *eztu iduri eri dela* 'ez du ematen gaixo dagoenik', *eztu erran jinen dela* 'ez du esan etorriko denik'...

III.2.3.12. *Uste izan, beldur izan* eta *badaiteke* aditzekin *-(e)n* menderagailua erabiltzen da: *eztut uste erraiten den oi* 'ez dut uste esaten denik hori'; *baditake ezten hain gaztia* 'badaiteke ez izatea hain gaztea'...

III.2.3.13. Modu eta denborazko perpausetan *-(e)larik* erabiltzen da.

III.2.3.14. Kausazkoetan *-(e)lakotz* erabiltzen da.

III.2.3.15. *Egin* indargarria izatea edo ez izatea da bi eremuen artean dagoen sintaxiko alde bakarrenetakoa. Aditz nagusiaren eta laguntzailearen artean *egin* sartzea mendebaleko eta erdialdeko berrikuntza da, eta aditzak adierazten duen ekintza nabarmendu nahi denean erabiltzen da: *Joanak, jan egin du* (vs. ekialdean, *Joanak jan du*, nahiz eta *jan* izan galdegaia).

III.2.4. Ipar Euskal Herriko eta Nafarroako Ekialdekoak

Ezaugarri batzuetan batera doaz Nafarroako Ekialdeko hizkerak (gehienbat Esteribar eta Erronkari bitarteko alderdia, baina batzuetan baita Baztan ere) eta Ipar Euskal Herriko zati handiena (kostaldea ez beste guztia). Ezaugarri hauetan gertatzen da hori:

III.2.4.1. Ergatibo singularra eta plurala (*-ak / -ek*) bereizten dira eremu oso horretan.

III.2.4.2. Ablatiboan *-etarik* eta *-ganik* atzizkiak ditugu (*vs. -etatik, -gandik*).

III.2.4.3. Aditz izenarekin, genitiboaren araua betetzen da, Larresoroko adibide hauetan bezala: *haurren azten* 'haurrak hazten', *beien deizten*

'behiak jezten', *diruain unkitzeko* 'dirua jasotzeko'... Ez da nahitaezkoa genitiboa daraman izena aditzaren aurrean joatea, batzuetan ondoan agertzen da. Adibideak Larresoroko laborari batenak dira: *ez ginuen dretxoik atxikitzeko bei oien* 'ez genuen eskubiderik behi horiek edukitzeko'; *eman bear dazko bi egunez gutak* (fr. *goutte* 'tanta'), *bi guta bi egunez, eta geo joan bear da kentzeat buxon aren* 'eman behar dizkio bi egunez tantak, bi tanta bi egunetan, eta gero joan behar du kentzera tapoi haren (tapoi hura) [belarriko tapoiaz ari zen]'...

III.2.4.4. Partizipioaren eta aditzoinaren arteko bereizketa gorde da ekialdean. Aditzoina ahaleran, aginteran eta subjuntiboan erabiltzen da (*sar daiteke, sar hadi, sar dadin*). Bizkaian, Araban eta Gipuzkoako mendebalean, berriz, erabat galdu da bereizketa, *hor konpon!* bezalako esamolderen batean izan ezik.

III.2.4.5. Datibo komunztadura aukerakoa da ekialde osoan: *erreintsari oldartzen dia* 'maistrari oldartzen zaizkio [ikasleak]', *aurreri ta deneri inaazten dut* 'haurrei eta denei eginarazten diet', *kutsatzen tzuten elgarri* 'kutsatzen zioten elkarri', *guk frantsesari erraten du* 'dugu' «*kaskoina*» 'guk frantsesari esaten diogu *kaskoina*'...

III.2.4.6. Item lexiko multzo bat dute batera eremu hauetako hizkerek: *ahalge* 'lotsa', *bilo* 'ilea', *egun* 'gaur', *ele* 'hitza; hizketa', *emazteki* 'emakumea', *ene* 'nire', *eri* 'hatza', *gora* 'altua', *haurride* 'senidea', *kario* 'garesti', *larrazken* 'udazkena', *lotsa* 'beldurra', *oren* 'ordua', *xahutu* 'garbitu'...

III.2.5. EKIALDE OSOKOAK:

«Ekialdeko hizkerak» esan ohi zaie Zuberoako, Nafarroa Behereko, Lapurdiko ekialdeko, Erronkariko eta Zaraitzuko mintzoei, eta aezkera ere multzo honetako hizkerekin batera doa ezaugarri batzuetan. Hauek dira elkarrekin dituzten ezaugarriak:

III.2.5.1. *ai* > *i* soiltzea *izan*-en, **edin*-en eta NOR-NORK saileko adizkietan: *naiz* > *niz, zaitez* > *zite, gaitu* > *gitu*... Lapurdin bertan, mendebalerago, *ai* ere bada: Arrangoitzen, Zuraiden eta are Larresoron.

III.2.5.2. *au* > *u* soiltzea gertatzen da NOR-NORK sailean: *nauzu* > *nuzu, naute* > *nute* daukagu aztertu dudan eremu osoan, Arrangoitzen eta Zuraiden izan ezik.

III.2.5.3. *IRON erroa erabiltzen da, nahiz eta gaur egun adineko jendearen ahotan bakarrik entzun daitezkeen honelako ahalezko adizkiak: *dirot* '*dezaket*-en parekoa', *lio* 'liro; *lezake*-ren parekoa'...

III.2.5.4. Konparazio perpausetako *-ago… ezin* ‘ezen’ *ez eta…* egitura ekialdeko hizkeretan erabiltzen da. Adibide hau Uztaritzekoa da: *naio tu baxerak garbitu, ezin ez eta xukatu* ‘nahiago ditu baxerak (ontziak) garbitu, ezen ez eta xukatu (lehortu)’.

III.2.5.5. Izenordain indartuak, euskalki guztietan orokorra den enfasi balioarekin ez ezik, ‘bakarrik, inork lagundu edo eraman gabe’ adierarekin ere erabiltzen dira: *bera bizi da* ‘bakarrik bizi da’, *nionik iten dut* ‘neuk bakarrik egiten dut’...

IV. ZENBAIT ONDORIO

Ikus daitekeenez, era askotako hainbat hizkuntza ezaugarri gurutzatzen da Larresororekin batera dagoen eremu osoan, eta hasiera batean pentsatu baino egoera konplexuagoa agertzen zaigu begien aurrean.

Alde batetik, II. ataleko ezaugarri urriek erakusten dute Larresoroko hizkera aldamenekoetatik banatzen duten ezaugarri markatzaile gutxi direla (erdiguneko hizkeretan ohi denez), eta daudenetan gehienak ez direla hizkera honen bereizgarriak, eremu zabalagoa hartzen baitute. Haatik, auzo herrietako mintzotik bereizteko balio dute, eta hiztunen kontzientzia ere bat dator isoglosa hauen kokapenarekin.

Bestetik, hartzen duten eremuaren hedaduraren arabera sailkatu ditugu eremu zabalagoko hainbat ezaugarri III. atalean. Jakina, horiei erantsi beharko genizkieke euskararen eremu osoan betetzen diren ezaugarriak (hau da, euskararen oinarri komunari dagozkionak) eta Euskal Herriko erdiguneko eremu zabalean betetzen diren beste zenbait (bazterreko hizkerek ez beste guztiek batera dituztenak).

Askotan aipatu izan da Bonaparte printzeak proposatu zuen dialekto banaketan bloke absolutuak balira bezala hartuta daudela euskalkiak, azpieuskalkiak eta hizkerak. Saio honetan erakutsi nahi izan da Larresoroko eta ondoko herrietako mintzoaren kasuan ere hizkuntza ezaugarrien etenak ez direla beti bat-batekoak, isoglosak, gehienetan, hori baino modu konplexuagoan daudelako antolatuta.

Bibliografia

Alberdi, J., 1996, *Euskararen tratamenduak: erabilera*, Euskaltzaindia, Bilbo, Iker-9.

Arana Martija, J. A. & Gonzalez Etxegarai, C., 1989, *L. L. Bonaparte. Eskuizkribuak-Argitarapenak*, Euskaltzaindia, Bilbo.

Aranzadi Zientzia Elkartea, 1984, 1990, *Euskalerriko atlas etnolinguistikoa* [*EAEL*], Donostia.

Bonaparte, L.L., 1863, *Carte des sept provinces basques, montrant la délimitation actuelle de l'euscara*, Londres.

——, 1866, *Formulaire de prône en langue basque, conservé naguère dans l'église d'Arbonne; réédité sans aucun changement et suivi de quelques observations linguistiques sur les sous-dialectes bas-navarrais et navarro-souletins de France et d'Espagne*, Londres.

——, 1869, *Le verbe basque en tableaux*…, Londres.

——, 1991, *Opera Omnia Vasconice*, [J. A. Aranak prestatua], Euskaltzaindia, Bilbo.

Camino, I., 1997, *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

——, 2004, *Hego-nafarrera*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

Euskaltzaindia, 1928, «Erizkizundia Lapurdin», *Euskera* 9, 319-336.

——, 1928, «Erizkizundia Naparroa Barrenen», *Euskera* 9, 237-257.

——, 1984, *Erizkizundi Irukoitza* [*EI*], 2 ale, Euskaltzaindia, Bilbo, Iker-3, [Ana Maria Echaidek paratua].

——, *Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa* [*EHHA*]. Argitaragabea.

Fernández, B. & Ezeizabarrena M. J., 2001, «Itsasaldeko solezismoa, datiboaren lekualdatzearen argipean», Baionako Fakultatean aurkeztutako txosten argitaragabea.

Gavel, H., 1921, *Eléments de phonétique basque*, *RIEV* 12, Paris.

Ibarra, O., 1995, *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

Pagola, R. M., Iribar, I. & Iribar J. J., 1999, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak: mendebaldeko behe-nafarrera*, DEIKER & Euskal Ikaskuntzen Institutua, Bilbo.

Peillen, T., 1998, *Les emprunts de la langue Basque à L'occitan de Gascogne*, UNED, Madril.

Urkixo, J., 1922, «El vascuence de Sara. Otro trabajo de Hugo Schuchardt», *Euskalerriaren alde* 12, 241-245.

Yrizar, P., 1981, *Contribución a la dialectología de la lengua vasca* (2 liburuki), Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, Donostia.

——, 1991, *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano* (2 liburuki), Euskaltzaindia, Bilbo.

——, 1992, *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional* (2 liburuki), Euskaltzaindia & Nafarroako Gobernua, Bilbo.

——, 1997, *Morfología del verbo auxiliar labortano (estudio dialectológico)*, Euskaltzaindia & EHU, Bilbo.

——, 1999, *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental (estudio dialectológico)*, Euskaltzaindia & EHU, Bilbo.

Zuazo, K., 1998, «Euskalkiak, gaur», *FLV* 30, 191-233.

——, 2003, *Euskalkiak. Herriaren lekukoak*, Elkar, Donostia.

BERNARD MAURICE HARRIET (1814-1904) APEZAREN MENDEURRENEAN

Haren askazgoa aberatsaren zenbait berri

Larresoro, 2004-VI-24

Piarres Charritton,
euskaltzain osoa eta
Iparraldeko ordezkaria

Larresoroko herri ezagunean garenaz geroz bilduak, ekaineko 24aren arratsalde goxo honetan, Bernard Maurice Harriet apezaren mendeurrenkari, euskaltzain eta euskaltzale multzo ederra, behin Haltsuko sorterrian, herriko seme handiaren izena emanik berak sortu zuen eskola giristinoari eta gero Eus-

Maurice HARRIET (1814-1904)

kaltzaindiaren oroitarria ezarririk gure euskalaria sortu eta hil zen Etxeberriko aitzinaldean, gogoratzen zaigu menturaz orai hemen Larresoro Lokate-Hiriarteko teilagin nagusi Joanes Harrieten semeak, Martin Harriet notarioak argitaratu zuela euskarazko lehen gramatika, egileak honela deitu zuena: *Gramatica escuaraz eta francecez composatua, francez hitzcunça ikhasi nahi dutenen faboretan* M.M. Harriet Notari Erreialac, Bayonan Fauvet, 1741, 512 pp.

> Martin Harriet honetaz alabaina, Pierre Haristoyek idatzi zuen, César Duvoisini jarraikiz, Pierre Haramboure Haltsuko erretoraren arreba Graxianarekin ezkondua zela eta izan zituztela sei seme alaba, hauetarik bat Pierre Harriet abokata eta Lapurdiko prokuradorea, Fabien eta Maurice Harriet Haltsu Etxeberriko bi anaia apezen aita.

Eta geroztik, gure «jakintsun» gehienek kantu bera errepikatu digute, ohartu gabe ere Pierre Yturbide izeneko beste historialari batek, Harriet familiaren paperak hurbilagotik ikertu ondoan, *Gure Herria* aldizkarian argitaratu zuela, (1921-l) (99-108. orr.) «Les deux Harriet Procureurs du Roy au Bailliage de Labourd» *(1760-1790)* artikulua, hor agertzen baita, Larresoroko Martin Harriet notarioaz bestalde, Haltsun berean izan zela beste Martin Harriet bat: hau bai, delako Graxiana Haramboure zenaren senarra baitzen, baina ofizioz ez notarioa, mirikuia baizik.



Horra zergatik onartu behar den azkenean Maurice Bernard Harriet apezaren burasoak Haltsuarrak zirela eta ez Larresoarrak.

> Eta izatez, Haltsuko herrikoetxean dauden paperen arabera, frantsesez errana da: 1814eko irailaren 23an, Jean Dornaletche, Haltsuko auzapezaren aitzinean, Pierre Labihirigoyen (sic) 63 urteko larruapaintzaleak eta Pierre Dupouy 30 urteko laborariak aurkeztu dute, bezperan Etxeberrian sortua den mutil jaio berria, etxe horretako Pierre Harriet eta Haurramari Gorostarzu nagusi etxekandereen seme legezkoa, burasoek Bernard Maurice izendatu dutena.

Hortik abiatuz, ikus dezakegu non ziren buraso horien sustraiak, eta alde batetik zer zen Pierre Harriet aitaren etorkia eta bestetik zer zen Haurramari Gorostarzu amarena.

Haltsuko Pierre Harrieten etorkia

Harriet izeneko ikaskide eta irakasle zenbait izanik, badakigu aspaldian izen hori barraiatua dela Euskal Herrietan eta beraz ez direla nahasi behar, lehengo Harriet militar urkuraitarrak eta Arnegiko Harriet apez pilotari aipatua, Harriet teilagin, notario, gramatikari larresoarrak edo Harriet miriku abokat eta prokuradore haltsuarrak eta berdin auzo-herrietako beste Harriet guztiak.

Haltsun berean, egungo egunean Harriet izena agertzen zaigu, bai Karrika Etxeberri, Etxeberrizahar, eta Etxexuri-ko paperetan, bai Saint-Jean sendiak bosgarren belaunaldikotz bere esku daukan Xerrenda Olhagaraiko atalburuan zizelkaturik honela: *JOANNES DE HARRIET 1744*.

Bernard Maurice Harriet ordea, erran dugun bezala, Haltsuko Etxeberrian sortu zen 1814eko irailaren 22an eta haurraren aita, *Pierre Harriet* abokata, herri berean jaioa 1757ko ekainaren 15ean, Martin Harriet mirikuiaren

eta Graxiana Harambouren semea izan zen. Haurraren aitaso aldiz, *Martin Harriet* mirikuia, *Michel Harriet* eta *Madeleine Lascorret* haltsuarren semea, ez besterik.

Pierre Yturbideren emaitzei eratxikiz Haltsuko herriko etxean aurkitu ditugun XVIII. eta XIX. mendeetako harriet-tarren sortze-heriotze aipamenak, ohartzen gara Harriet-Haramboure senar-emazteek izan zituztela sei seme-alaba, berenak zituzten Etxeberrizaharrean eta Etxeberrian jaio eta zendu zitezkeenak, hots, Maurice Bernard Harrieten aitaren aldeko izeba eta osaba guztiak:

Hona, andreetarik hasteko, zein ziren XVIII. mende erditsutan sortu eta XIX.ean zendu Harriet-Haramboure Etxeberrizahar eta Etxeberriko izeba horiek:

1.-ik, *Janamari Harriet*, 1821eko urriaren 23an hil zen, Etxeberrizaharrean, 78urtetan, Dominique Dupouy-ren alarguna; 1743 sortu izanik etxeko andregaia zitekeen.

2.-ik, *Haurramari Harriet*, 1831ko martxoaren 14ean hil zen Etxeberrizaharrean, 86urtetan; 1745ean sorturik, ezkongabe zendua.

3.-ik, *Marihaurra Harriet*, 1827ko martxoaren 24ean hil zen Etxeberrian, 78 urtetan, 1749an sorturik, ezkongabe zendua.

Hona gero hiru anaiak:

1.-ik, *Bernard Harriet*, 1805ean, hil zen, nahiz guk ez jakin zuzen zein egunetan. Montpellieren eskolaturik, Uztaritzeko miriku ofizioa bete zuen 1789ko Iraultza etorri arte bederen, eta gero 1799-tik aitzina Haltsuko auzapez gisa sinatzen zuen. Ezkongabea zen omen, itzali zelarik, ixil-ixila.

2.-ik, *Joannes Harriet*, 1740an jaioa, 1775eko abuztuaren 17an hil zen. Bordeleko Parlamentuan abokat egin zen behin eta gero aitak, 1760an, 6500 libera ordaindurik, Lapurdiko Biltzarraren prokuradore karguaz jabetu zen. Kargu horrekin, Parisera joan zen 1773an lapurtarren eskubideen mendekatzera Prokuradore gaztea; baina 1775an, lan ona eginik, etxera itzuli orduko, oihanean ehizan zebilela, istripuz hil zen, oraino gazterik.

3.-ik, *Pierre Harriet* aldiz, 1757eko ekainaren 15ean Haltsun jaioa, Etxeberrian hil zen 1833ko abenduaren 8an, 76 urtetan. Anaia Joannesen urratsei jarraiki zitzaien hastetik eta ofizioz abokat baitzen bera ere, anaia hil zelarik, haren ondotik, Lapurdiko Prokuradore kargua hartu zuen 1775ean. Iraultza aitzineko urte ilun haietan, Lapurdiko Biltzarraren eskubideen zaintzale tematua agertu zen bururaino. Hala nola, 1786an, Hazparneko emazteen jazarraldi famatuaren kariala, Laurent Urtubia Garro Lapurdiko bailearekin de Neuville Baionako Intendente jaunari gogor egin ziotelarik eta amore emanarazi ere.

Ohiko legearen arabera, 1789ko irailaren 22an Uztaritzen Pierre Harrietek egin zuen azken epaiketa kriminala, 1790eko irailaren 30ean berriz azken epaiketa zibila; baina zorigaitzez, 1791eko urtarrilaren 15ean, Frantziako lege berria onartu behar izan zuen: Pierre Dassance idazkaria eta Martin Dibabe presozaina zirela lekuko, berak giltzatu zuen behin betiko, Prokuradore bezala, herriko gazteluan, Lapurdiko Biltzarraren Auzitegi Goihena.

Hortik lekora, baitzekien Piarres Harrietek berari ere laster etorriko zitzaiola preso sartzeko ordua, beste herritar askok bezala, mugaz bestaldera ihes egin zuen. Oiartzun eta Hernaniko alde horietan, Larresoroko irakasle eta ikasle lagun ohi zenbaitekin elkartasunean bizi izan zen bizpalau urtez. Gero, erauntsia urruntzera zoala entzutearekin eta, menturaz Bernard Harriet anaia mirikuia herriko auzapez hartzen zutela jakitearekin, Haltsura itzuli zen.

Eta hona non, 47 urtetara heltzearekin *Pierre Harriet* jaun abokata ezkontzen den *Haurramari Gorostarzu* Lekorne Urrutiako andregai gaztearekin. Ezkontza hau ordea, Hazparnen diogun bezala Landesetako «Sen Bisentsen» edo *Saint Vincent de Tyrosse* herrian ospatu zen, 1804eko apirilaren 12an, zeren eta 1791an, elizaren gibeleko Northon jauretxea erosirik, hor bizi baitziren geroztik Haurramari Gorostarzu andregaia eta haren buraso eta haurrideak

Ezpeletako Gorostarzutarren etorkia

XXI. mende hastapen honetan aitzineko hiruzpalau mendeetako euskal historia ikertu nahiko duen edozeinek aurki dezake Gorostarzu bat, herriko, auzoko edo urrungo politikaren, armadaren, elizaren, ekonomiaren, nahiz literaturaren gorabehera zerbaitetan sarturik.

Nihonek ezagutu nuen Duvoisin-Gorostarzutarren aztarnak bilatzen nituelarik *Bertrand de Gorostarzu*, Northon-eko nagusia, geroztik zendua. Jaun horrek, 1980eko hamarraldira heltzearekin, familiako paperetan lau liburu betetzeko doia xehetasun bildua zuen gorostarzutarren askazgoaz. Haren lanari esker erran dezakegu orain nondik eta nola zetorren Bernard Maurice Harriet–Gorostarzuren ama, Haurramari Gorostarzu Lekornekoaren etorkia.

Baionatik Iruñera Dantxarian gaindi doan egundainoko bide bazterrean, mugatik hara 17. kilometroan eta, Arizkun herriko lurretan zutik dagoen etxe zahar huts batek gaurdaino *G(or)ostarzua* du izena.

Nahiz *Gorostarzu, Gostarzu, Gorostarrazu*, edo *Gorostarce* deitura agertzen den XVI. mende hondarrean eta XVII. mende hatsarrean bai Zuraiden, bai Seguran bai Bordelen, bai Ezpeletako elizaren barneko apezen hilobian, iduri luke, geroago Segura, eta Bordele baino urrunago, La Platako ibaial-

dean kokatu diren Gorostarzu guzientzat bezala, egundainotik Gorostarzutarren etxondoa *Arizkuneko Gostarzua* izan dela.

Ezen Gorostarzu izena galdu baldin bada ere etxondoan berean, *Gorostarrazu-Errazuriz* belaunaldiarekin, Migel Gorostarrazu nagusia bapatean hiltzen delarik 1675eko abenduaren 31an, ohartzen gara, galtze hori gertatu baino lehen, Arizkuneko Gostarzuan, 1609an, jaio zela *I. Joannes Gorostarzu* I. Martin Gorostarzu-ren semea, eta seme hori 1640ean joan omen zela Ezpeleta *Harriagako Maria*-rekin ezkontzera.

Eta horrela, XVII. mende hondarrez geroz, Gorostarzu etxekoen esku izan da Ezpeletan Harriaga XX. mende arte bederen, nahiz zuhaitz horrek urrun hedatu dituen aspaldian bere adarrak Ezpeletatik, Larresoro, Sara, Heleta, Orzaize, Lekorne eta Baionan gaindi Landesetaraino eta gero urrunago oraino.

Xehetasun guztietan sartu gabe, ikus dezagun behin Ezpeletan berean *II. Joanes Gorostarzu* bat badugula, II. Martin Gorostarzu eta Kattalin Berindoagaren semea, 1696an Annaeneko eta Martinoreneko nagusi bezala agertzen zaiguna.

Geroxeago ez genuke ahantzi behar *III. Joanes Gorostarzu* deitzen ohi den Martin Gorostarzu eta Graxiana Loste Otsabidekoen semea, 1750eko otsailaren 10ean ezkondu baitzen Gratianne Olhagaray Basaburu Alhurreko andregaiarekin eta sei haur izan ondoan 1770/1771 hirian zendu. Haren alarguna berriz, 1786ean bizi zen oraino eta orduan Alhurreko Gorostarzutarren etxean sartu zen Jean Etchegaray nagusi berria.

Aitaren ondotik, 1840ean aurkitzen dugu Pierre Etchegaray Alhurreko nagusi gaztea eta heltzen gara XIX. mendean, Guillaume Etchegarayekin elizadorre anitzetan *Etchegaray Espelette* sinatzen zuen erlojugileraino eta azkenean haren seme Jean Baptiste Etchegaray (1881-1961) «Choko Maiteko» nagusiaren bitartez, XX. mendean, 1943an, II. Aintzina-n *Alhur* sinatzen zuen Roger Etchegaray (1922an jaio) kardinalaren, Jean Etchegaray (1925-1982) anaia apez zenaren eta Maite Etchegaray (1931n jaio) arrebaren, hots hiru haurrideen familiaraino.

Aintzineko mendeetara itzuliz ordea erran dezagun bada, III. Joanes Gorostarzuren anaia bat, hura baino lehen jaioa, 1705ean, eta Migel Gorostarzu deitzen zena, Harriagako Graxiana Otsabiderekin ezkondurik, arbasoen etxera itzuli zela. Harriagako nagusi berriak familia ederra hazi zuen, bai eta Ezpeletako auzapez kargua izan ere, 1764ean zendu aitzin.

Sasoi beretsuan ordea bizi zen beste Migel Gorostarzu baten eta Estebeni Ithurrartekoaren semea, *IV. Joanes Gorostarzu*, 1723an jaioa, 1740an ezkondu zena Kattalin Berindoaga Annaeneko alabarekin. Gero, Florentxaenean bizi zelarik ostaler eta tratulari gisa, hau ere 1769an auzapez egin zuten eta 1791an hil zen.

Anartean, Harriagako Migel eta Graxianaren seme gehiena, 1739an sortua, *V. Joanes Gorostarzu* dukeguna, kirurgilari edo, orduan erraiten zen bezala, *barber* egin zen eta, Elizaldeko Anamari Zubiburu andregaiarekin ezkondu 1769an. Zorigaitzez, 44 urtetan hil zen, 1783an, lau haur tipi uzten zizkiola bere alargunari.

Frantziako Iraultza etorri zelarik, ordea, eta bereziki 1794ean, Elizaldeko ama, alabek mugaz bestaldera ihesi joan aitzin, harrigarriko fede aitormena egin zuten herriko eliza betean, jadanik amore emana zuen Diharasarri apezari jazarri zitzaiolarik Gorostarzu anderea: «Malurusa!» oihuka oldartuz jaun Bikarioari.

Geroago Hegoaldetik itzuli-eta, *Mariana Gorostarzu*, Hazparneko komentuan egon serora ohia, sortetxean berean bere aitzineko ohituretara bildu omen zen.

Bigarren alaba *Janamari Gorostarzu*, 1803an ezkondu zen Jean-Pierre Duvoisin Ainhoako mugazainarekin eta haien sei haurretarik bi ezagunenak aipatuko ditugu bakarrik: *César Duvoisin* kalonjea (1805-1869) eta *Janpiarre Duvoisin* euskalzale eta idazle handia(1810-1891).

César DUVOISIN (1805-1869)

Hirugarrena *Martina Gorostarzu*, 1802an ezkondu zen Jean Darancettekin.

Laugarrena *Joana Gorostarzu*, 1808an ezkondu zen Janpiarre Duhalde notarioarekin eta haien alaba Mariana Duhalde eta Josep Agorrekaren semea, *Janbatista Agorreca* apeza, 1840ean sortua, Laurent Diharasarri Kanboko erretorearen eta haren kideko apez erregezaleen Erromako auzi ezagunaren akulatzaile sutsua agertu zen 1890ean.

* * *

Horretan uzten dugu XVIII. mendeko Harriagako eta Elizaldeko V. Joanes Gorostarzuren ildoa, ondotik baitatozkigu izen bereko haren beste bi anaia: lehena *VI. Joanes Gorostarzu* (1741-1809) dugu, hain zuzen, gure azterketaren helburu nagusia, hau izan baitzen alabaina Lekorneko Haurramari Gorostarzuren aita eta beraz besteei baino zenbait xehetasun gehiago zor baitizkiogu; bigarrena aldiz *VII. Joanes Gorostarzu* (1743-1791), Sarako Bikario higatu ondoan, Frantziako Iraultza denboran Landesetako bere anaiaren etxean aterbetu baitzen eta, laster han berean hil eta ehortzi ixil-ixila.

Anartean behar dugu oroitarazi zer gertatu zitzaion Ezpeletako IV. Joanes Gorostarzu auzapez ohia 1791n hil ondoan, haren seme *VIII. Joanes Gorostarzuri*, Frantziako Iraultza etortzearekin. Jaun hau alabaina, 1759an jaioa, 1784ean Haroztegiko Dominika Etxeberrirekin ezkondua zen eta bizpahiru seme alaba izan zituzten. Bestalde notario eta baroiniako epaile kargutan sartua zen, baina 1789ko maiatzaren 31n Dominika bere laguna galdua zuen.

1793an ordea, jadanik alargundua zelarik eta bere hiru haur tipiekin gelditua, hona non preso ezartzen duten Haroztegiko nagusia, etxean hatzeman dizkioten serora batzuen gutun eta Nazionearen kontrako kantu batzuengatik. Gero Baionako Auzitegi iraultzaileak ontasun eta kargu guztiak kentzen dizkio, hiltzera kondenatzen du, eta 1794eko martxoaren 17an, «Libertatearen» plaza erdian, Duhalde Ezpeletako auzapezari eta beste bospasei gizon eta emazte lapurtarrei bezala, lepoa mozten diote Frantziako Errepublikaren izenean.

Baina horrela «gillotinaturik» hil zen *VIII. Joanes Gorostarzu* aipatu eta, ez gaude haren seme Batista Gorostarzu eskalapoigileaz, Margarita Etxenike honen andreaz eta haien seme *IX. Joanes Gorostarzu* apezaz bi hitz erran gabe:

1829an Ezpeletan sortua, Larresoron eskolatua, 1854ean Bardozen eta gero Bikario, Donapaulen Bikario egonik, Erroman gaindi ikasten ibili zen, Pariseko Grenelle auzoan sei zazpi urtez apezlanetan higatu eta Senpere Azpeltzeko osaba-izeben etxera etorri eri handi. Laster, 1868ko martxoaren 20ean, 38 urtetan, hil zen.

Bizkitartean euskal literaturaren alorretan apur bat alhatu baldin bagara aitortuko dugu, delako Jean Gorostarzu Etxenike hau ez zela bakarrik izan bere

etxeko etorkiaren lehen ikertzaile tematsua, baina «Egun Eliza besta» (1856), «Orhiko txoria» (1859) eta azkenik «Desesperantza», hiru olerki hunkigarriak «Haroztegi» eta «Duhalde» sinatzen zituen poeta bikaina eta beraz, behar genukeela, menturaz jarri, bere askazi Ainhoako Duvoisin «Elizalde» edo «Gazteluberri»-ren konpainian eta belaunaldi bereko Joanes Kamusarri (1815-1842) Ziburuko apez gazte erromantikoaren parean.

Eta azkenean, Ezpeleta Harriagatik herrian berean hedatu ziren Alhurreko, Annaeneko, Elizaldeko edo Haroztegiko Gorostarzutarren erroak apur bat harrotu eta. Goazen orain, Ezpeletatik Lekornera.

Lekorne Urrutia-ko jendakia

Gorostarzutarren etxeko paperei behatuz, ohartzen gara Migel Gorostarzu Harriagako tratulariaren seme gazteenak, *VI. Joanes Gorostarzu*, 1741ean jaioak utzi zuela kontu liburu arraro bat berak 23 urtetan (hots aita hil-eta) (1764) idazten hasi zuena eta 31urtetan hetsi (1772). Hortik ikus dezakegu gure gizonak bazituela gaztedanik, aita jaunaren bidetik, egur, ikatz, taula, arraxina, mundrun eta galipot tratulari gisa, harreman handiak Baionako judu ala kristau burges askorekin, bai eta Bardozen edo Bilbaon eta Landesetan herri anitzetako merkatari, itsasgizon, etxekojaun, kalonje eta erretor duntu batzuekin.

> Ez zen beraz nehor harritu, 1772ko otsailaren 19an, Baionako katedralean, ospe handitan, ezkondu zelarik Joanes Gorostarzu, Ezpeleta Harriagako Migel Gorostarzu nagusi zenaren eta Graxiana Otsabide etxekandearen semea, Joanes Lahirigoyen eta Maria Ondikola Lekorne Urrutiako nausi etxekanderen alaba Maria Lahirigoyen-ekin, lekuko zituztela, jaunaren aldetik, anaia bi: Joanes Gorostarzu apeza eta Joanes Gorostarzu kirurgilaria eta, andrearen aldetik, haren aita Joanes Lahirigoyen eta anaia Joanes Lahirigoyen apezgaia.

Zenbait egun lehenago, 1772ko urtarrilaren 28an, Lekornen berean, Urrutiako Maria Lahirigoyen andregaiaren, Baionako (sic) Joanes Gorostarzu honen gizongaiaren eta bi horien ondokoen faboretan, Urrutiako Lahirigoyen--Ondikola nagusi-etxekanderek sinatua zuten Duhalde erret notarioaren aitzinean, beren alabaren ezkont aitzineko kontratua, Hazparnetik, Ezpeletatik, Aiherratik eta Heletatik etorri familiako jauneria ederra zelarik lekuko.

Landesetako Gorostarzu familiak berrehun urtez geroz bere esku daukan kontratu horretan agertzen diren Lekorne Urrutiako paper zaharrek erakusten dute Nafarroako erreinuaren historian zehar biziki usu aipatzen diren Garro, Irone, Artagieta, Salaberri, Irunberri, Mendilahartsu, Santamaria edo Harrieta izenen erdian aurkitzen dela Iparraldeko Urrutia edo Durruti-tarren etxondoa.

Hortik landa, Baionako katedralaren itzalean daukagun *La Monnaie* karrikako 9. Dibusty etxean jartzen badira ere behin batean, 31 eta 22 urteko ezkonberriak, ez da dudarik Urrutiako alabak ez dituela berehala ahantzi ez bere sortetxea ez bere burasoak, ezen haren jaun ezpeletarra hilen zaiolarik Landesetan, bizirik gelditzen diren 9 haurretarik seme bakarra eta 8 alabetarik 6 edo 7 bederen Lekorne Urrutian sortuak izanen dira, nahiz ez den gero hauetarik bihi bat Lekornen hilen ez ehortziren.

Hona bada zein ziren *Gorostarzu-Lahirigoyen* senar-emazteen haurrak, aita hil zitzaien urtean, 1809an, oraino bizirik zeudenak:

– 1.-ik, 1775eko apirilaren 26an Lekornen bataiatua, *Haurramari Gorostarzu:* Haltsuko Pierre Harrietekin 1804ean ezkondurik eta 8 haur izanik, 1834ean zendua.

– 2.-ik, 1777ko apirilaren 26an Lekornen bataiatua, *Janamari Gorostarzu:* Hiriburuko Vincent Lacoinekin 1795ean ezkondurik eta 14 haur izanik, 1845ean zendua.

– 3.-ik, 1780eko martxoaren 30ean Lekornen bataiatua, *Mariana Gorostarzu,* Landesetako Sen Bisentsen Jean Darricau-rekin 1810ean ezkondurik eta hiru haur izanik, Saint-Geours de Maremnen, 1838an zendua.

– 4.-ik, 1781eko uztailaren 30ean Lekornen bataiatua, *Marixume Gorostarzu,* Sen Bisentsen François Lagroletekin 1807an ezkondurik eta 9 haur ukanik eta Saubioneko La Graulhet jauregian bizi izanik, 1853an Akizen zendua.

– 5.-ik, 1785eko uztailaren 1ean Lekornen bataiatua, *Marihaurra Gorostarzu*, Sen Bisentsen Jean Dihursubehere Saratarrarekin 1817an ezkondurik eta hiru haur ukanik 1823an Saran zendua.

– 6.-ik, 1787ko otsailaren 6an Lekornen bataiatua, *Maia Gorostarzu*, Sen Bisentsen Pouilloneko Adrien Dutournierekin 1823an ezkondurik eta hiru haur ukanik, 1872an Baionan zendua.

– 7.-ik, 1790eko irailaren 24ean Lekornen bataiatua, *Joana Gorostarzu*, Ahurtiko Joseph Lamagdelainekin 1790ean ezkondurik eta 8 haur ukanik, 1820ean zendua.

– 8.-ik, 1792ko urriaren 21ean Lekornen bataiatua, *Janbatista Gorostarzu*, etxeko seme bakarra, Landesetako bere etxera ezkondu zena 26 urtetan, 1818an, Marie-Marceline Marithourry, Saint Martin de Hinx-eko medikuaren alaba eder eta gaztearekin. Haur andana izan zuten eta senarra 47 urtetara heltzearekin hil zen 1839an, andrea berriz 40 urtetara heltzearekin 1843an.

– 9.-ik, eta azkenik, *Julie Gorostarzu* 1799ko urtarrilaren 1ean Sen Bisentsen sortu eta bataiatu bakarra, gero Pauleko San Bixintxoren serora izanik, 1857an Lyonen zendua.

Zerrenda horrek berak erakusten digu zer aldaira handia egin zukeen, Lekorne Urrutiatik Landesetako Sen Bisentsera, Gorostarzu-Lahirigoyhen familiak, XVIII. mende hondarretik XIX. mende hatsarrera gertatu zen bihurgunean.

Errana dugu bada Joanes Gorostarzu Urrutiako nagusi gazteak bazuela ezkondu aitzin, Baionako portutik negozio handia, 1789ko Iraultza etortzean azkarki finkatua. Landesetako Sen Bisentse herrian begiztatua zuen ere ondasun ederra, Northoneko etxaua deitua. Urrutiako jendakien d'Artaguiet-etarik zetorren eta Ameriketako gerlan itsasontzietako aitzindari ibilia zen Jean-Baptiste Moisset adiskide alargunaren eskuetara eroria baitzen delako ondasuna, 1791ko apirilaren 28an, kontratuz erosi zioten bere jabeari delako etxaldea Joanesek Gorostarzuk eta nolazpait askazi zuen Haurramari Lahirigoyenek.

Ondoko urte ilunetan, Ezpeletan, odola ixurtzeraino pairatu zuten Frantziako Iraultza, Gorostarzutarrek. Bizkitartean, Sen Bisentsen, nagusi-etxekandere berriek, Northoneko atalaiatik aski zuhurki kudeatu zituzten beren familia eta ondasunak.

1991ean berean, adibidez, VI. Joanes-ek Harriagako anaia apeza VII. Joanes bere etxean aterbetu zuela Sen Bisentsen eta hor berean hil zitzaiela errana dugu.

1794ean aldiz, Elizaldeko koinat alarguna eta ilobak mendiz bestaldera iragan zirela jakin zuketen Landesetan bai eta ere, nolaz ez, Haroztegiko VIII. Joanes Gorostarzu Baionan *gillotinatua* izan zela. Frantziako *Terrore* edo *Bel-*

dur ikara sasoi hartan berean, hots, martxo- maiatz irian, Northoneko nagusia ere VI. Joanes preso eramana izan zen Akizera. Beharrik, hiru hilabeteren buruko, askatu baitzuten nolazpait!

Baina, urte berean, Iraultzaileek desherriratu zituztelarik mugako euskaldunak ehunka eta milaka Gaskoinia aldera eta, Sen Bisentseko elizan berean 300 emazte preso zeuzkatelarik, 38 urteko Michel Gorostarzu potikarioak, Capbretoneko elizan preso egon ondoan, bera ere preso zegoen Northoneko nagusiaren anaia gazteenak, Tosseko presondegian aurkitu behar zuen 33 urteko Maria Berterretxe bere andrea.

Azkenean, udaminean etorri baitzen Parisen *Thermidor*-eko 9., hots, Robespierren heriotza eta orduan Landesetako presoak askatzen hasi zitezkeen –ez ahantz Baionako Teresa Cabarrus-en eragina gertakari horretan– zeren eta askatu berri duten Sen Bisentseko herri gizonek gomendatzen diote orduan Joanes Gorostarzuri berari:

> 33 euskaldun aizkolari eta ikazkin har ditzan berekin behar den egurra eta ikatza ekartzeko gisan Errepublikari.

Ondoko hilabetean, ehun bat langile ba omen zituen bere kontu Northoneko nagusiak *Errepublikaren artaldeen zaintzeko.* Eta zergatik ez dugu susmatuko artalde horiek ere, aitzineko aizkolari, ikazkin eta artzainak bezala, mugako euskal deserriratuak zirela?

Dena den aldaketa askoren ondotik, ohartzen gara 1800ean, Landesetako prefetak Joanes Gorostarzu Northoneko nagusia izendatzen duela Saint Vincent de Tyrosseko auzapez, ez baita familiako azkena izanen ondoko bi mendeetan, edozein izanik ere Pariseko gobernua.

Dena den, 1809 urtarrilaren 8an zendu arte atxiki zuen kargua Northoneko nagusiak eta ordukotzat bere 9 haurretarik bizpahiru alaba ezkondurik eta familiaturik baldin baziren ere, oraino luzaz Mari Lahirigoyen ama alargunak, «Amatxi» deitzen zutenak, gobernatu zuen etxondoa, bera 84 urtetan, 1834eko martxoaren 31n hil arte.

Hortik hara, sei belaunalditan barrena nola garatu diren Landeseteko Gorostarzu-tarren erroak luzeegi liteke kontatzea, soil-soilik erranen dugu laburzki jadanik aipatu eta, ez aski ezagutu dugun Bertrand de Gorostarzu (1927-1982) zenaz bestalde, zein izan diren gaur arte nihonek ene bizian nolazpait ezagutu ditudan izen bereko bizpahiru landestar-euskaldun pertsona aipagarriak:

– 1.-ik, *Mgr Charles de Gorostarzu* (1860-1933) aipatu ziguten Uztaritzeko apezgaitegian, haren ondotik Chinako Yunnam aldean haren kargu bera hartua zuen Mgr Larregain senpertar ikasle ohia etorri zitzaigularik ikustera 1939an.

– 2.-ik, *Aita Bernard de Gorostarzu* (1890-1970) ezagutu nuen aski ongi 1946-1948 arteko ikasturteetan Erroman, hura ere han bizi izan baitzen orduan, eta 17 urtez Jesusen Lagundiko buru-lehenaren aholkulari handi izanagatik, laket baitzitzaion tarteka Baionako bi euskaldun apez ikasle gazteekin solas egitea, bereziki Akizeko Clément Mathieu apezpiku hazpandarra han gaindi zebilelarik.

– 3.-ik, *Migel de Gorostarzu* (1883-1928) aitzinekoaren anaia: aspaldiko *Gure Herria*-ren zenbakietan haren artikulu sakon eta ausartak asko miretsiak nituelarik, anaia Bernard jesuitak berak salaturik jakin nuen zer bihozmina izan zen etxekoentzat eta beretzat, Migel ustegabetarik hil zitzaielarik bapatean, Pauen, haren zibilean ehorztea, *Action Française Française*-n barne izanez, eskumikatua zelakotz.

Eta oraingoan bagoaz Haltsuko Harriet-Gorostarzu sendiaren ondareaz hitz egitera.

Haltsuko Harriet-Gorostarzu ondarea

Badakigu engoitik, 1804eko apirilaren 12an ezkondu zirela Landesetan, San Bisentseko Northon etxaldean Lekorne Urrutiako andregaia *Haurramari Gorostarzu* eta Haltsu Etxeberriko nagusia *Pierre Harriet* eta orduz geroz, Haltsuko Etxeberrian finkaturik, Pierre Harriet – Haurramari Gorostarzu senar-emazteek 8 haur izan eta hazi zituztela. Hona haien sail osoa:

> – 1.–ik, *Marie-Agathe Harriet*, 1805eko otsailaren 3an jaioa, etxeko andregaia. Sortetxean bizi izanik, berak zituen gaztetan artatu etxeko xaharrak jadanik aipatu ditugunak, hala nola, bere izeba *Marihaurra Harriet*, *Janamari Harriet* eta *Haurramari Harriet*; gero berriz bere aita *Pierre Harriet*, 1833ko abenduaren 8an, 76 urtetan hila; 1842ko irailaren 26an aldiz, auzoko Etxexurian, 90 urtetan, hil zen *Gaxuxa Harriet*, Bernard Saint Jean-en alarguna eta, azkenik, 1863eko azaroaren 16an, 88urtetara heldurik, hil zitzaion bere ama *Haurramari Gorostarzu*, Pierre Harriet zenaren alarguna.

Dena den, andere Agathek jakinen zuen familiako berri, baina bestalde emazte argia eta eskolatua baitzen, Eduardo Dibildos iloba apezak salatzen digun bezala, Bossuet eta Fénélonen arteko eztabaidek kezkatzen zuten eta Félicité de Lamennais-ren liburuek guztiz interesatzen, nahiz bere zerbitzuko bi sehiek, Ana sukaldariak eta Fermina anderauren edo gelari gazteagoak, uzten zioketen baratzeko, solaseko eta liburutako astia.

Adinean han harat joan ondoan bada 1878an, ez zen lotsa izan bere anaia, Maurice Harriet apeza berekin hartzeko. Ordainez honek lagundu zuen azken egunetan eta bien hilobia egin zuen ere, elizako apiriko azpian, 1890eko eta 1904eko behar orduan.

– 2.–ik, *Jeanne Harriet*, 1806ko azaroaren 11an jaio eta, laster zendu zen.

– 3.–ik, *Bernard-Fabien Harriet*, 1808ko urtarrilaren 24ean jaioa, 1832 apeztua, lehenik Larresoron eta gero Oloronen irakasle izan ondoan, Parise Juillyko ikastegian ibilirik, 1842an Baionara itzuli zen, Saint Léon ikastegiko zuzendari izaiteko. 1844ean ohorezko kalonje egin zuten eta 1869ean kalonje tituludun, baina bi urteen buruko, 1871ko irailaren 3an, hil zen.

– 4.–ik, *François-Auguste Harriet*, 1809ko abuztuaren 24ean jaioa, Hazparnen bakezko juje izanik eta 1840ean Paulina Berhorekin ezkondurik, Garat-Pikasarriko Harriet–Berho familia finkatu zuen. Eta horrela haien 5 haurretarik bi bakarrik aipatzeko hona lehenik, *Marie-Justine Harriet* 1843ko irailaren 9an Hazparnen sortua, ezkondu zen Jean-Baptiste Durruty bastidar medikuarekin, baina senarra bapatean hilik 1898ko uztailaren 13an, honen ordezkoa etorri zen Parisetik Pierre Broussain (1859-1920) mediku berria, euskaltzainek aski ongi ezagutu behar genukeena (1):

Pikasarriko Justine Harriet Durruty-ren alaba *Paula Durruty*, Hazparnen jaioa, 1881eko abenduaren 8an, ezkondu zen Kanbo Haltienera eta han bere ama Marie Justine 1915eko urtarrilaren 6an galdu baino lehen, Paula Durruty Halty-ri sortu zitzaion, 1910ko otsailaren 8an, bere alaba *Mayi Alice Halty*, guhonek ezagutuko dugun Harriet-Berho familiako azken abarra, 1984eko ekainaren 30ean, Hazparneko klinikan hil zitzaiguna.

Eta *Harriet-Berho* familiaren beste ondare bat aipatzeko, hona orain *Xabier Harriet*, 1846eko abenduaren 24ean Pikasarrian sortua. 1870ean apeztu rik, Senperen bikario izan zen behin, gero 1880ean erretor Basusarrin, 1885ean Dohoztirin, 1890ean berriz Aiherran eta dirudienez zuhurtzia handia erakutsi zuen orotan, baina 1907an, Jose Mendiague bertsolariaren kantu gaizto zenbait ukanik Montevideotik, bere Hazparneko sortetxera erretiratu behar izan zuen eta hor hil zen 1916ko apirilaren 8an (2):

– 5.-ik, *Marie-Pauline Harriet*, 1812ko ekainaren 18an jaioa eta 1842an Hazparne Senboseneko Jean Dibildos (+1874) larruapaintzalearekin ezkondurik Valladolid-en finkatu zen, 5 haur izan zituen eta haien artean *Mgr Eduardo Dibildos* (1856-1939) Hazparne eta Lekornen gaindi ahantzi ez dena, haren etxeko ondasunak «obra onetan», hots, apezetxe, gaztetxe eta ikastola eraikitzeko hazpandarrek ongi baliatu dituztelako eta Parisen gaindi apez ezaguna zelarik, Gerson eta Bossuet deitu bere gobernuko eskoletan, oroitzapen ona utzi baitzien asko gisatako jendeari, hala nola, Azkue eta Broussain-i (3):

(1) Ikus, P. Charritton, *Pierre Broussain sa contribution aux études basques*, C.N.R.S., 1985.

(2) ikus, P. Charritton J*ose Mendiague, haren bizia eta haren kantuak*, Etor, 1992.

(3) Ikus, *Resurrección María de Azkue eta Pierre Broussain-en arteko elkarridazketa*, Iker 4, Bilbo, 1986.

Mgr Eduardo DIBILDOS (1856-1939)

ikus, Iker-4, haien bien Elkarridazketa bai eta ere berak aitortzen duenaren arabera, Jean-Paul Sartre (1905-1980) ikasle agnostiko gazte erneari (4):

Paulina Harriet bera 1891ko azaroaren 16an zendu zen, baina haren izena darama 1912az geroz Valladolideko karrika batek, zeren eta 1884ean Paulina Harriet-ek berak hiri horretan eraiki baitzuen auzoko haurrentzat *Lurdeko Ama Birjinaren Ikastegia*, geroztik asko hazi dena.

Baina Dibildos industria eta negozioaren izena ere ez omen da oraino galdua Valladolid-en gaindi, egiaztatu izan dugun bezala, Amaia Okariz, Euskaltzaindiko prentsa arduradunari esker.

– 6.-ik, *Bernard-Maurice Harriet* (1814-1904): Larresoroko seminarioan eta gero Pasaiako jesuitetan eskolatu ondoan irakasle egon zen behin Parisen berean eta gero 28urtetan 1842an apeztu anaia Fabien bezala. Gero Baionako san Leonen zuzendari izanik, Seminarioko irakasle izendatu zuten eta hortik landa Madrileko Frantsesen san Luis etxeko buru izan zen 1854tik 1878ra. Azkenean Haltsuko sortetxean 26 urte iraun zuen oraino bere hiztegi aipatua beti

(4) Ikus, J.P. Sartre, *Les Mots*, 1954.

Paulina HARRIET (1812-1891)

landuz eta landuz 1904ean zendu zenaz geroz. Bizkitartean hil aitzin eskola giristino bat eskaini zion Haltsuko herriari eta oixtion ikusi dugu Haltsuko herriak ez duela ahantzi, haren izena eman diotenaz geroz egun eskola horri. Euskaltzaindiak bere aldetik haren sortetxea markatu eta hilobia agurtu ondoan, hemen orain Larresoron Maurice Harriet euskalari handiaren obra goraipatzen du.

– 7.-ik, *Marie-Amélie Harriet*, 1816ko ekainaren 14ean jaioa, Martin Hardoy Kanboko notarioarekin 1872an ezkondu zen eta gero, 91 urtetan, ondokorik izan gabe zendu 1907ko abuztuaren 13an.

– 8.-ik, *Félicité Harriet*, 1820eko abuztuaren 24ean jaioa, geroago, bere ahizpa Paulinaren ondoan ezkongabe bizi izanik, Valladoliden hil zen.

* * *

Iturriak

• *La vie de M. Daguerre fondateur du Séminaire de Larressore*, César Duvoisin, Bayonne, 1863.

• *Recherches historiques sur le Pays Basque, I. & II*. P. Haristoy, Bayonne, E. Lassserre, 1883-1884.

• *Les paroisses du Pays Basque au XVIII*e *siècle et pendant la période révolutionnaire*, I & II. P. Haristoy, Pau, Vignancour, 1895-1901.

• *Gramatica escuaraz eta francecez, composatua francez hitzcunça ikhasi nahi dutenen faboretan.* M.M. Harriet, Notari Erreialac, Bayonan: Fauvet, 1741, 512 pp.

• Harriet, Etienne (1714-), *Jésuites diocésains en 1762*, P. Couteault, RHAB,194.23,VI 1.

• *Gure Herria* 1921, 1925, 1926, 1927 eta 1931ko zenbakietan, Migel Gorostarzu, P. Yturbide, Edouard Dibildos, Michel Etcheverry eta Louis Dassancen artikuluak.

• *Archives diocésaines, place Mgr Vansteenberghe*, 64100 Bayonne.

• *Archives des Missions Etrangères*, rue du Bac Paris: (Mgr Charles de Gorostarzu (1860-1933).

• *Archives Jésuites*, 15 rue Raymond Marcheron, 92 170 Vanves: R.P. Bernard de Gorostarzu (1890-1970).

• Haltsuko eta Ezpeletako herri artxiboak.

• Landesetako Sen Bisentsen (Saint Vincent de Tyrosse) gorostarzutarren Northoneko etxondoan, 1927, sortu eta 1982an hil Bertrand de Gorostarzu zenak, duela 30 bat urte (1974-1979) etxekoentzat bildu zituen eta berak, hil baino lehen ezagutarazi zizkidan Gorostarzu familiako 4 liburukien agiri, paper eta argazkiak.

IKER SAILA

ONOMASTIKA

IRIZPENAK

Atal honetan udalek eta administrazio batzordeek, baita beste administrazio desberdinek Onomastika batzordeari egindako irizpen eskaerak biltzen dira. Gogoan izan behar dugu EAEn herri edo kontzejuaren izena aldatzeko irizpena eskatu behar zaiola Euskaltzaindiari. Irizpenak eskatutako hizkuntza edo hizkuntzetan ematen dira.

Mikel Gorratxategi,
Onomastika batzordeko idazkaria

OLATZAGUTIA

Sakanako *Guaixe* aldizkaritik galdegin dute herriaren izena *Olazagutia* ala *Olatzagutia* den eta Euskaltzaindiak izan dituen arrazoiak bata ala bestea hobesteko. Aldi berean, jakin nahi dute Euskaltzaindiaren erabakiak duen eragina izen ofizialean.

Erantzuna:

Euskaltzaindiak, Nafarroako Gobernuak hala eskatuta, Nafarroako herri izendegiaren proposamena egin zuenean, honako bi aldaera hauek proposatu zituen eta hurrenkera honetan: 1. Olatzagutia, 2. Olazti. (Ikus *Nafarroako herri izendegia / Nomenclátor euskérico de Navarra*, Euskaltzaindia-Gobierno de Navarra, 1990).

Olatzagutia-ren esanahia honako hau da: *Olatza* ‘saroi’ (Burundan) + *guti* ‘txiki’ + *-a* artikulua. *Guti* hitza ezaguna da toponimian esanahi horrekin, adibidez, *Gamarragutxia* ‘Gamarra Menor’ eta *Miñaogutxi* ‘Miñano Menor’ (biak Araban).

Dokumentazio zaharra *Olatzagutia* forma osoaren alde mintzo da: *Holaçagutia* 1268, *Olaçagutia* 1350, *Olacegutia* 1366, *Olaçagoytia* 1575-1751. (Ikus J. M. Jimeno Juríoren lekukoak goian aipatutako *Nafarroako herri izendegia / Nomenclátor euskérico de Navarra* eta *Diccionario histórico de los municipios de Navarra II*, Pamiela, 2004 liburuetan).

Olazti aldaera *Olatzagutia* forma osoaren ahoskera herrikoiaren ondorioa da, XIX. mendean ageri dena: *Olaztisaroy*, 1847. Bilakaera hori bokal arteko *–g–* ezabatzearen ondorioa da eta gertakari hori erabat arrunta da euskaraz, oraindik gehiago hitz konposatuetan –dagokigun kasuan gertatzen den bezala–, (*Olatza* + *guti*).

Kontuan izatekoa da antzeko bilakaerak edo izen laburtuak oraindik arruntagoak direla euskararen kasuan, esaterako: *Larrasoaña* > *Lasuin, Lizarragabengoa* > *Lixarrango, Mugiro* > *Muiro, Otsagabia* > *Otsagi, Saragueta* > *Sauta*, etab. Soziolinguistikoki esplikazio errazekoak dira, gure hizkuntza duela gutxi arte ez delako ofiziala izan, kultura bideetatik kanpo egon delako, eskoletan irakatsi ez delako, hedabideetan present izan ez delako, etab.

Euskaltzaindiak forma osoen alde egin du eta, kasuren batean, bigarren aldaera ere eman izan du, soziolinguistikoki (izan) duen presentziagatik. Hori dela eta, eman zituen 1990eko argitalpenean 1. *Olatzagutia*, 2. *Olazti*; 1. *Orbaitzeta*, 2. *Orbaizta*; 1. *Otsagabia*, 2. *Otsagi*.

Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak etengabe segitzen du ikerketa lanetan eta gero eta argiago ikusten ari da forma osoen alde egin behar dela, forma horiek ez baldin badira oso zaharkituak, behintzat. Hori gertazten da, adibidez, *Jaurrieta* herriaren *Eiaurrieta*, 1068 edo *Ihaurrieta*, 1268 formekin. Baztertu dira hain aspaldikoak izateagatik.

Horrengatik guztiarengatik, Onomastika batzordeak 2001ean Nafarroako herri izendegia berrikusi zuenean, *Olatzagutia* forma osoa berretsi zuen (*Orbaizeta* eta *Otsagabia* bezalaxe). Horren ondorioz ageri dira forma oso horiek Euskaltzaindiaren web orrian.

Dena dela, kontuan izan behar da gauza bat dela izen jasoa, kartel, agiri, eta dokumentazioan idatziz erabili behar dena, eta bertzea izen horren ahozko erabilera. Zentzu honetan, *Olazti* erabiltzea erabat normala litzateke, beste hainbat lekutan bertako izen laburtua erabiltzen duten bezalaxe, hala nola, *Doneztun* (Donezteben) bizi da; *Elgorrikoa* (Elgorriagakoa) da; *Goizutan* (Goizuetan) dago; *Ittundik* (Iturendik) dator; *Urdinera* (Urdiainera) doa, etab. Gertakari hau, bestalde, oso arrunta da hizkuntza guztietan: *Granada > Granáa, Portugalete > Portu, San Francisco > Frisco*...

Azkenik, argitu beharrekoa da Euskaltzaindia Nafarroan euskara gaietarako aholkulari ofiziala dela eta, hortaz, proposamenak egiteko erakunde ofiziala (Ikus 18/1986 Euskararen Foru Legearen 8. artikulua). Proposatzen dituen izenak ofizial bihurtzea, ordea, ez dago Euskaltzaindiaren esku, horretarako eskumenik ez duelako. Ofizialtasuna legeztapenen bitartez lortzen da. Legeak egitea Parlamentuari dagokio eta Gobernuari eta Udalei lege horiek garatzea, betetzea eta betearaztea.

Zuen galderaren erantzun argigarri delakoan, har ezazu, honekin batera nire agurrik zintzoena.

Iruñean, 2004ko irailaren 14an.

Andres Iñigo,
Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkaria

D. Mikel Gorrotxategi Nieto, licenciado en Filología Vasca y secretario de la Comisión de Onomástica de esta Real Academia de la Lengua Vasca/ EUSKALTZAINDIA,

CERTIFICA:

Que el nombre eusquérico del municipio que figura con el numero 410 en el Nomenclátor de los Municipios del País Vasco realizado y editado por esta Real Academia, y conocido en su forma oficial romance como *Llodio*, en su forma eusquérica académica es: **Laudio**. Asimismo, el gentilicio de dicha localidad es *laudioar*.

La forma ***Laudio*** –con acento en la *i*–, viva hoy en día no solamente en el mismo valle, sino también en el vecino valle de Orozko así como en las localidades vascófonas de la cuenca media del Nervión (1), era la forma común, y única, para denominar a dicha localidad por los vasco-hablantes. A tal efecto hay que recordar que en dicho lugar el euskera ha sido la lengua mayoritaria, y en muchos casos única, hasta este siglo. Se pueden citar los testimonios del archivo de la diócesis de Vitoria en el que se puede leer en 1828:

> *... que en lo succesivo no confiera Beneficio alguno de los correspondientes a la citada iglesia á no ser á patrimonial que posea el Idioma Bascongado por ser indispensable para el buen desempeño de su destino pastoral en este Valle donde muchos de los Feligreses ignoran el idioma castellano* (2).

Aunque el más apropiado puede ser la carta que envió el propio ayuntamiento a el pueblo de Santa Clara de Cuba en la que manifiesta:

> *... que es constante por publico y notorio que en este valle de Llodio se ha havlado y habla aun generalmente la Lengua Bascongada...*

---

(1) Leonor Ayesta Goikoetxea, Uriondo en Zeberio, 81 años. Roke Abrisketa Añibarro, Miraballes, 73 años. Información facilitada por Juan Manuel Etxebarria de Zeberio. *Gorbeia Inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak*, Labayru Ikastegia, Bilbo, 1995.

Hilari Ellakuria, nacida en Zeberio, Iragorri auzoa, Zaratamo, 88 años. Rufino Elezkano 84 años, Iragorri auzoa, Zaratamo. Jose Ellakuria 75 años, Iragorri, Zaratamo: *Laudío*, *Laudíora*, *Laudíon*, *Laudiókoa* y *laudioarra*. Información recogida por Jon Ajuria Fisure.

(2) Mugurutza, F., Rekalde, A. y Urkijo, N.: *El Euskera en Llodio / Euskera Laudion*, Programa de Fiestas de Llodio / Laudioko jaien egitaraua 1989 y posteriormente Urkijo, N.: *Zenbait Apunte Laudioko Euskaraz*, UEU, pág. 10.

Más adelante nos indica además cuál es el nombre eusquérico del pueblo:

> *...Al quarto dijo que tambien es cierto que este Valle de Llodio en Basquenze se llama Laudyo.. y que dho Valle de Llodio o Laudyo dista tres leguas de la Villa de Bilbao* (3).

Es una realidad que en la documentación prevalece la forma monoptongada en sus distintas variantes: *Lodio* (1342) y *Llodio* (1375); pero sin desaparecer la forma original *Laudio*, escrita igualmente de diferentes formas: *Flaudio* (1095), *Lhaudio* (1124). Esta situación es una consecuencia de la diglosia, que hace que los nombres oficiales y reales no coincidan en muchos casos, por la secular marginación del euskera como lengua de la administración. Baste recordar que *San Juan de Gaztelugatxe* aparece originalmente traducido como *Sancti Ihoannis de Castiello* (4) en 1053, por citar un ejemplo.

La primera cita conocida de dicho lugar es del año 1095 en la que aparece en el monasterio de San Millán de la Cogolla con el diptongo –au–: «*ecclesi S. Petri de Flaudio... Lope Sanxoz de Flaudio.* En la segunda, de 1124, aparece la forma monoptongada: «*ego igitur senior Enneco Lopez de Lhodio*» (5). Obvia decir que tanto la *Fl* como la *Lh* inicial hay que leerlas ya como *L* fuerte vasca (6), sonido similar al lat. *ll*, origen de la *ll* en romance (7), ya como *ll* (8). La viveza y su uso habitual por el pueblo llano se observa al leer las actas de las Juntas Generales de Álava, donde junto a la forma romance oficial aparece tímidamente la común de uso *Laudio* en los años 1513 y 1588. Igualmente figura como apellido en las de 9 de enero de 1503 donde se cita a Pedro de Laudio. Finalmente, aparece *Laudio* en varias partidas de nacimiento (9) del siglo XVIII, en los concejos de Lekamaña (1758, 1769) y Baranbio (1798), de la misma cuadrilla alavesa.

También aparece en los textos en euskera la forma *Laudio*. El testimonio más esclarecedor es del conocido catecismo en el habla del lugar, y cuya edición más antigua es de 1828. En la portada de las sucesivas ediciones se lee claramente «Laudiyoco abade jaunen encarguz eta costuz» (es decir, «por encargo y costeado por los curas de Llodio»).

---

(3) Mugurutza (1989) *op.cit.*

(4) Libano, M.A. *Toponimia Medieval del País Vasco, B-G*, Onomasticon Vasconiae tomo 16, Bilbao, 1996, pág. 251.

(5) Libano, M.A.: *Toponimia Medieval del País Vasco, H-O*, Onomasticon Vasconiae tomo 19, Bilbao, 1999, pág. 295.

(6) Irigoyen, A.: *En Torno a la Toponimia Vasca y Circumpirenaica*, Bilbao, 1986. pág. 15.

(7) Mitxelena. K.: *Fonética Histórica Vasca*, Donostia,1990. pág. 320-326.

(8) Mugurutza, F.: *Laudioko 200 izen. Luces y sombras de nuestra toponimia (1997).* «Este sonido, el de la *ll*-, nace en la Edad Media, no había existido antes. Por ello los escribas tienen grandes problemas de cómo escribirlo, con qué grafías. Y este es el origen de *Flaudio* (1095), primera forma documentada, pero que debemos leer *Llaudio*.»

(9) Barrenengoa, F.: *Onomástica de la Tierra de Ayala*, tomo 2, pág. 76.

La razón de esta doble designación hay que buscarla en un étimo común, un nombre propio de persona, muy probablemente sea *Claudius* (10) o de *Claudianus*, con pérdida de –n– intervocálica propia del euskera (11). También se podría aventurar la forma *Laudius* documentada fuera de nuestras fronteras (12). En cualquier caso la voz eusquérica es anterior a la romance puesto que dicha forma, *Laudio*, no puede originarse a partir de la romance como se ve en la pervivencia del diptongo latino *–au–* del que carece *Llodio*. Baste recordar que el castellano monoptonga el diptongo antes citado y la tendencia a palatalizar la *L* como se ve en la toponimia del valle de Ayala. De esta forma tenemos: *Llago* (Sojo), *Llubiarte* (Maroño), *Llarrinzar* (Okondo), *Lledo* (Llanteno, frente a *Ledo* en Galdames). Hay que recordar que tanto en Orduña como en Orozko se documenta *Zaballa*, del euskera *Zabala*. Finalmente, es obvio que el romance es posterior ya que la aparición de este idioma se da en torno al siglo X, frente al euskera que es la lengua original de la zona.

En lo que respecta al gentilicio de la localidad éste es *laudioar*, tal y como recoge Jose Paulo Ulibarri en su *Gutun Liburua* y sigue vivo en los pueblos todavía vascófonos de la cuenca del Nervión.

Y para que conste y surta efectos, expide la presente en Bilbao a veinte de septiembre de dos mil (13).

VºBº



Andres Iñigo Ariztegi,
Presidente de la Comisión
de Onomástica

Mikel Gorrotxategi,
Secretario de la Comisión
de Onomástica

(10) Meyer-Lubke, W. In «Romanobaskisches» *RIEV*, XIV (1923).

(11) Mitxelena, L: *Apellidos Vascos*, Donostia, 1973, pág. 134.

(12) Mugurutza, F. *Laudioko 200 izen* op.cit: «...Tampoco está exento de polémica el nombre de nuestro pueblo. En líneas generales, puede decirse que la teoría oficial de Euskaltzaindia –propuesta por primera vez por Meyer-Lübke y continuada por Mitxelena e Irigoien– defiende el origen de este nombre a partir del nombre de persona latino *Claudius*. Por otra parte, erróneamente, Caro Baroja decía provenir de *Flaudio*, nombre de persona medieval que, con el tiempo, se ha demostrado no existe».

(13) La denominación *Laudio/Llodio* es oficial desde el 11 de enero de 2005.

LEZAMAKO TOPONIMIA
LANAREN GAINEKO

EKARPEN KRITIKOA

ASIER BIDART MEABE
AINTZANE ETXEBARRIA LEJARRETA
(Labayru ikastegia-Lezamako udala)

Gorliz, 2004ko irailaren 7a.

Patxi Galé García,
Euskaltzaindiko Onomastika batzordekidea

Benetan pozgarria da Lezamako Udalak eta Labayru Ikastegiak Lezamako Toponimia biltzen duen lan hau plazaratu izana. Bistan da Asier Bidartek eta Aintzane Etxebarriak egin duten bilketa-lana izugarri kalitate onekoa dela eta aurrerantzean egingo diren antzekoen eredu bilakatuko dela dudarik gabe. Lanari eman zaion itxura, auzokako antolamendu arrazoitua eta argazkien laguntza aringarria ere jarraitu beharreko bide zuzenaren iradokizun dira, lan esparru honetan zer-edo-zer egin nahi duen edozein ikertzailerentzat, zientziaren zurruntasuna nahiz datu-aberastasuna ahaztu barik, itxura erakargarria eta kontsultabide erraza uztartzen ditueta.

Zorionak, beraz, guztiontzat eta eskerrik asko liburua eskuartean eduki dezagun posible egin duten guztiei, bereziki, noski, egileei eta erakunde argitaldariei.

Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordearen eginbeharra denez gero, zenbait ekarpen egin nahi genuke, hala ere, Lezamako toponimoen bilduma eder horretan, arautze fasean hartutako zenbait erabakiren gainean. Gauza jakina da, toponimiaren arautze prozesuan, lexikogintzaren enparauko ataletan legeztxe, euskara estandarrean erabili beharreko erak hautetsi aurretik, gauza biri behatu behar zaiela arretaz, hots, dokumentazioari eta erabilerari. Lanari azaleko begiratu soil bat ematea besterik ez da behar, egileek guztiz metodologia zuzena jarraitu dutela ildo horretan, toponimo bakoitzaren sarreran ahozko eta idatzizko bilketa ematen baita aurrenik, sarrera-buruan doan lema erabakitzeko oinarri izan direnak. Esan gabe doa, bestalde, gainerako oharrek, dokumentaziotik ateratako zatiek, lekukotza etnografikoek eta abarrek, izugarri aberasten dutela, era berean, liburuak egiten duen ekarpena, baita bere erakargarritasuna handiagotzen ere.

Arautze faserako oinarria, egileek berek adierazten duten eran (19. or.), Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeak emandako irizpideak izan dira. Eta lanaren emaitzetan ageriko gauza da zuzen erabili dituztela irizpide horiek. Hala ere, onartu behar dugu Euskaltzaindiaren irizpide horiek berak, zenbaitetan ez direla behar bezain zehatzak. Gainera, jatorriz irizpide haiek balio orokorra izan nahi bazuten ere, Mendebalde honetatik urruneko toponimia-korpus batean izan zuten oinarri, Nafarroa Garaikoa alegia, ondorioz, Bizkai aldeko hizkuntza-fenomeno asko islatzen ez zirelarik. Honegatik, beti ere gure uste apalean, bestelako erabakiak har zitezkeen zenbait kasutan, sarrera batzuetako lema nagusia (nola edo hala, normalizaziorako proposamena) aukeratzerakoan. Hurrengo lerrootan kasu horiek azaldu nahi genituzke ekarpen eraikigarri gisa, inola ere kritika latz hondagarri legez ulertuak izango ez direlako esperantzatan.

- Aretxaldeko *Agarrebekoa* eta *Agarregoikoa* (44): Harmonia bokaliko horiek (*a-i-e* > *a-a-e*) oso automatikoak dira Mendebalde osoan, baina ez dira arautzeko bezain tradiziozkoak. Dokumentazioak argi erakusten duenez XX. mendeko lehen herenetik hona gertatutako aldaketak dira eta, ondorioz, *Agirrebekoa* eta *Agirregoikoa* arautzea litzateke zuzenago. Ez da hau nahastu behar bokalaren ondoko dardarkari anitzak eragindako irekierarekin (*berri* > *barri*, *gerri* > *garri*, *aker-* > *akar-*…), azken hauek askoz ere tradizio handiagokoak baitira, tradizio onomastikoa barne.

  Beste horrenbeste esan daiteke honako arautze-proposamen hauetaz: Aretxalde auzuneko *Antonagarrena* (57), *Baztarreko soloa* (82), *Irula / Kantaratrokako errekea* (131), *Kantarabarri*, *Kantaraburu*, *Kantaratroka* eta *Kantarazarra / Abarosakoneta* (145), Basabiloltza auzuneko *Iturtxuetako kantarea* (252), eta Garaioltzako *Baztarreko soloa* (292) eta *Kantaraburu* (356), *kantera* > *kantara* eta *bazter* > *baztar* aldakiak modernoegiak baitira arautzean aintzat hartuak izateko. *Kantarazarra / Abarosakoneta* izen bikoitzean, gainera, guk lehentasuna *Abarosakoneta* erari emango genioke, alderantzizko ordenean agertaraziz, benetako izena, izen «serioa», *Abarosakoneta* baita, bestea generiko adjektibatu hutsa den bitartean.

- Garaioltzako *Alkerrialde* eta *Alkirri* (277): Biak irizpide berberari jarraituz arautzea komeniko litzateke, pentsatzekoa denez, jatorri bera dute-eta. Bigarrenaren oharrean ematen den etimoa kontuan izanik (*harri-kirri*), badirudi *Alkirrialde* eta *Alkirri* liratekeela egokienak, baina testuinguru horretan irekiera bokalikoa (*-i-* > *-e-*) azaltzea zailagoa litzateke kontrakoa esplikatzea baino (*a-e-i* > *a-i-i*).

- Aretxaldeko *Amezelaieta / Agarrebarrena* (49): Leku bat izendatzeko era bi arautzea ez dugu kritikatu behar, bereziki dokumentazioak biak «maila berekoak» direla erakusten duenean. Baserri honen bigarren ize-

na, ordea, zalantzazkoa dugu, zaila baita dokumentazioan behin eta berriz agertzen den sudurkariaren esanahia eta amaiera erabakitzea (*Agarrenbarrena*). Guretzat *Agarrenbarrena* > *Agarrebarrena* bilakaera esplikatzea kontrakoa baino samurragoa litzateke (*-nb-* > *-mb-* > *-b-*) eta, beraz, jatorrizkoa arautzea zuzenago joko genuke, hau da, *Agarrenbarrena*. Gainera izen honen lehenengo lekukotza 1892koa da eta ez dago *Agirre-* hasiera iradoki lezakeen erarik. Bigarren era hori beraz oso zalantzazkoa da-eta, kasu honetan bigarren izenik eman gabe utz zitekeen.

- Aretxaldeko *Anen etxea / Mendialai* (53): Izen bi horiek ez dira inola ere «maila» berekoak. Nolabait esatearren, bata etxearen benetako izena eta bestea «hipokoristikoa» lirateke. Halako kasuetan lehentasuna ordenaren arabera adieraztea izan daiteke zuzenena, irakurleak *de facto* aurrenekoari emango baitio. Bigarren mailako izenak daudenean (goitizenak, hipokoristikoak…), guk maiz parentesia erabili ohi dugu, kasu honetan *Mendialai (Aneren etxea)* agertuko genukeela. Bistan da bestalde, *Ane* + genitiboa elkarketari eman nahi izan zaion soluzioa ez dela izan batere ortodoxoa, eta ahozko era islatu beharrean deklinabide arautua adierazi behar dela.

  Gauza berbera esan daiteke Garaioltzako *Monteron etxea / Pasteleruen etxea* (393) izenaz, gure ustez *Monteroren etxea / Pasteleroaren etxea* arautu beharrekoa, azken hau plurala ez bada behintzat, duda egiten dugula benetan toponimoak ote diren.

- Aretxaldeko *Anginaburu zubia* (55): Generiko hori ez da toponimoaren parte eta ez litzateke eman behar. Leku-izena *Anginaburu* da eta aski da, egin den bezala, ondoren parentesi artean zer den esatea, *(zubia)* alegia.

- Aretxaldeko *Ankena* (56): Dokumentazioak argi erakusten duenez, oikonimo zaharra *Goikoetxe(a)* da. Haren azken lekukotza 1954koa da-eta bigarren tokian agertzea ontzat eman daiteke, baina beste barik ezabatzea, behin betiko ehortzea da. Gure ustez, hemen ere izen bikoitza eman zitekeen, *Ankena / Goikoetxe*.

- Aretxaldeko *Antepara-azpi* (57): Toponimoetan marratxoa idazteak bestelako esanahiak izan ditzake (lekuen elkarketa da hedatuena: *Gamiz-Fika* kasu) eta horregatik, konposaketa hauetan ekidin beharreko bidea dela uste dugu. Bokal geminatuak idatzi behar diren ala ez, gaurko ahozko erabileran bilatu behar da, baina kasu honetan ez dago ahozko lekukotzarik. Guk *Anteparaazpi* arautuko genukeen, baina ahozkoan beti *Anteparazpi* jasoko balitz, *a+a=a* egitea ontzat jo daiteke.

  Beste horrenbeste esan daiteke honako izen hauetaz: Aretxaldeko *Aresmotroeta-aurre* (59) eta *Astobitza-aurrekoa* (72), Garaioltzako

Gandarotza-alde (328), *Goikosolo-ondoa* (341) eta *Larrabe-erdikoa* (363), eta Goitioltzako *Beresi-igerra* (453), *Beresi-igerralde* (454), *Goitia-aurre* (475) eta *Kaltzada-alde* (448).

- Aretxaldeko *Aretxbil* (67): Zaila da *-tx-b-* elkarketa horretan kontsonante guztiak jatorrizko eran ahoskatzea. Lekukoarengandik toponimoak jasotzean ahoz hala biltzea posible bada ere, erabilera erlaxatu arruntean ez dugu uste hala gauzatuko dutenik. *Aresbil* edo *Arespil* espero liteke.

  Halaber Aretxaldeko *Aritxbarri* (67), zeinetan *Aritx* erak ekialderagoko usaina ekartzen baitigu. Kasu honetan, ahozko lekukotza bat dago-eta, *Gerreroena* era ere gainera liteke bigarren aukera gisa, edo parentesi artean goitizen bezala, forma aldetik ondo eratutako oikonimoa delako.

- Aretxalde auzuneko *Arrizurietagane* (71): Bizkaiko *-gana* gehienak *-gane* bihurtu dira azken urteetan (eta dagoeneko *-ganea* > *-ganie* bezalako eragabekeriak ere entzuten hasi dira). Ez da bokalismo huts bat, itxitura bezala esplika litekeena, Mendebalde honetan gertatzen ari den fenomeno zabalago baten isla baizik. Deklinabidea jartzearen ondorioz, kontsonante+artikulua amaiera duten toponimo gehienetan gertatzen da. Arautzeko era *Arrizurietagana, -a* (artikulu kengarria, beraz) behar genuke proposatu, eta ondorioz, *Arrizurietagana, Arrizurietaganarekin, Arrizurietaganaz…* baina *Arrizurietaganean, Arrizurietaganeko, Arrizurietaganetik, Arrizurietaganera…* erabili behar da. Bada, leku-denborazko kasuetan (non, nongo, nondik, nora…), erabilera zuzen horietan *-e-* epentetikoa jarri beharrak ekarri du ondorioz, absolutuan ere *-e* paragogikoen eransketa. Bitxia bada ere, *-gana* era oraindik ez da guztiz hil Bizkaian. Ez dezagun behar baino arinago ehortz.

  Gertakari hedatu samarra da-eta, Lezamako beste izen hauetan ere aurkitu dugu: Aretxaldeko *Errekagane* (104), Garaioltzako *Bidegane* (299), *Errotagane* (311), *Gandarozgane* (329), *Larragane* eta *Larraganegoikoa* (371), eta Goitioltzako *Gandortagane* (469) eta *Igartugane* (482). Halaber, Goitioltzako *Errekagatxe* (463) izenaren amaierako bokalak, aurrekoen moduko *-e* paragogikoa dirudi. Dokumentazioak beti hala dakarren arren, gure ustez, *Errekagatxa* arautu beharko litzatekeena (toponimian *gatxa* = handia).

- Garaioltzako *Barberosolo* (289): *Barberu* hitza Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan ere badator amaiera horrekin, beraz, *Barberusolo* beharko zen arautu, herri-erabilerarekin bat gainera.

- Goitioltzako *Basobaltzako errekea* (445): Ahoz beti honelaxe batu den arren, deklinabidea jasotzeko era ez da zuzena, *baltz* adjektiboak ez duelako inola ere *-a* organikorik justifika lezakeen historiarik. Ondorioz *Basobaltzeko* errekea espero zitekeen. Arazoa ekidin nahi ba-

litz, *Basobaltza* hutsa ere arautu zitekeen, dokumentazioan hala datoreta (-a, noski).

- Garaioltzako *Batxurrune / Gangoitiena* (291): Baserri horren izenik dokumentatuena *Gangoitiena* dela ematen du, bestea goitizena den artean. Sarreraren lekukotzetan esaten dena egia bada, *Patxi-erreruena* eraren laburdura desitxuratua litzateke *Batxurrune* hori, arautzekotan, jatorrizko eran agertarazi beharko zena gure ustez, hau da *Gangoitiena* hutsa edo *Gangoitiena (Patxierreruena)* lematizatu beharko zen. Hala ere, XIX. mendeko lekukotza dokumental batzuetan *Bachiena*, *Bachiemona* eta *Errementariena* ere jasotzen dira-eta agian *Batxi-* izan liteke pertsona-izenaren era egokia.

- Aretxaldeko *Bekoguardeane* (83): Etxeetan eta beste askotan berauei atxikitako jabegoetan, Bizkaiko tradizioak *-ena* atzizkia eskaintzen digu baliabide aberats legez. Jatorriz genitiboa den arren, behiala aurreko hitzari lotzean ez zituen deklinabide arruntak eragin ohi dituen fonetismoak eragiten. Horren lekuko dira *Osabaena* (*-a* organikoa + *-ena* atzizkia epentesi barik), *Aldekoaena* (*-a* artikulua gordetzen da baina ez dago *-r-* epentetikorik) eta honelakoak, Bizkaiko Mendebaldeko tradizio dokumentalean oso ugariak. XX. mendean zehar, ordea, era guztietako fonetismo-modak hedatu dira eta jatorrizko atzizkia izkutatzera eraman gaituzte: *a+ena=ane, e+ena=ene, i+ena=iñe, o+ena=one, u+ena=une*. Kasu gehienetan amaierako *-e* agertzea, gorago aipatutako epentesiaren (nahiz paragogearen) ondorioa da (ikus *Arrizurietagane*), deklinabidea jartzean *-ena* atzizkiak artikulua galdu eta *-e-* epentetikoa jaso dezakeelako (*Bekoguardaena, Bekoguardaenagaz, Bekoguardaenaren…*, baina *Bekoguardaenean, Bekoguardaeneko, Bekoguardaenetik, Bekoguardaenera…*). Arautzerakoan, hitza eta atzizkiaren kontaktu aldean, deklinabidean bezalaxe, *a+e=e* egitea zilegi dela ematen du, baina gainerakoak desegin behar dira. Ondorioz, gure ustez *Bekoguardaena* litzateke formarik arauzkoena. Bizkaiko *a*+artikulua=*ea* legea errespetatu nahi bada, *Bekoguardeaena* ere zilegi litzateke, ahozko eraren ostean horixe dagoela baitirudi (gure ustez, bokal larregi, hala ere). Kontrara, zilegi litzateke halaber bokalak sinpletzea eta *Bekoguardena* arautu (*a+e=e* zuzena).

  Etxe-izenen atzizkia izkutatua agerrarazi behar litzateke honako kasu hauetan ere: Aretxaldeko *Etxebarri / Zapatariñebekoa* (113) *Zapatarienabekoa* arautu beharrekoa eta *Felipanekoa / Villarribera* (117), *Villarribera (Felipaenekoa)* edo *Villarribera (Felipaena)* arautu beharrekoa, dokumentazioak erakusten duenez, etxearen izena *Villarribera* baita, bestea ezizena den bitartean. Era berean jokatu behar litzateke auzo bereko *Guardeane* (125) eta *Olanone* (179) izenekin, *Guard(e)aena* eta *Olanoena* arautuz. Basabiloltzako *Meabene / Urzallena* (257) eretako lehenarekin ere, *Meabena* arautuko genuke, eta do-

kumentazioa begiratuta, lehentasuna bigarrenari eman behar litzaioke gainera, hau da *Urzallena / Meabena* edo *Urzallena (Meabena)*. Garaioltzako *Alejandritone / Bideondo* eta *Alejandrone / Zubikoetxe* (274) izenekin gauza bera gertatzen da eta guk *Bideondo (Alejandritoena)* eta *Zubikoetxe (Alejandroena)* arautuko genituzke. Azkenik auzo bereko *Olazene* (403) ere *Olazena* arautuko genuke, nahiz eta etxe berria izan.

- Aretxalde auzuneko *Bekolanda* (83): Kasu honetan genitibo-egitura bat eginik arautu da. Irizpide orokorrek kontrakoa ei dioten arren, gure ustez zuzena da erabaki hori, tradizio idatziak hala adierazteaz gainera, *Beko-* ez delako toponimoaren «espezifikoa», kokatzaile huts bat baizik. Genitibozko egiturak bereiz idaztearen aukera, espezifiko+genitibo+generiko egituretarako dago pentsatua (*Astobitza+ko+errekea*, kasu). Maiz gertatzen zaigu espezifikoaren ordez, posposizioetan erabili ohi diren izenak (*azpi, gan, oste, aurre*…) edo antzekoak agertzen zaizkigula toponimoetan, kokatzaile arrunt gisa, alegia. Kasu horietan bat eginda idaztea zilegi izan daiteke (etxe baten izena izan ez arren, esan nahi da, etxe-izenak beti idazten baitira bat eginik). Ohar orokorra da eta askoz toponimo gehiago aurki daitezke egoera horretan (*Atzeko soloa, Aurreko zelaia*…) Lezamako lan honetan. Bat eginda arautzera deliberatu aurretik, alde batetik, lekukotza idatziak ikusi behar dira eta, beste aldetik, generikoa mugatzailedun ala mugagabe erabiltzen ote den, mugagabez jokatzea toponimoaren eta beronen «osotasunaren» seinale izan daitekeelako. Guk kasu honetan bat eginik idatziko genuke, Lezamako lanaren egileek proposatu duten bezala, baina lekukotzak ikusita kontsideratuko genuke mugatzailea birjasotzea: *Bekolandea*.

  Bereiz arautzeko aukera egin den arren, kontsidera liteke honako izen hauek bat eginda idaztea: Aretxalde auzoko *Andiko soloa* (51), *Atzeko soloa*, *Aurreko zelaia* (toponimoa ote da?), *Azpiko soloa* (77), *Baztarreko soloa, Bazterreko beresia, Beko beresia* (82), *Beko soloa* (83), *Beko zarratua, Beko zelaia* (84), *Emetiko soloa, Erdiko soloa* (99), *Goiko beresia, Goiko soloa* (122), *Goiko zarratua* (123) eta *Goiko zelaia* (124), Basabiloltza auzuneko *Alboko soloa* (218) (beti hala agertzen da eta, hobeto legoke mugatzailerik gabe), *Andiko soloa* (219), *Beko beresia* (231), *Beko soloa* (232), *Erdiko soloa* (237) (dokumentazioak hala dakar-eta, agian hobeto mugatzailerik gabe) eta *Goiko beresia* (248) (id.), Garaioltzako *Alboko soloa* (273), *Andiko soloa* (280), *Atzeko soloa* (286), *Aurreko beresia, Aurreko soloa, Aurreko zelaia* (287), *Azpiko soloa* (289), *Beko beresia, Beko soloa* (295), *Beko zarratua, Beko zelaia* (296), *Erdiko soloa* (305), *Goiko beresia* (338), *Goiko soloa* eta *Goiko zelaia* (339), eta, azkenik, Goitioltzako *Aldeko basoa, Andiko soloa* (438), *Azpiko soloa* (441), *Beko soloa, Beko zarratua, Beko basoa* (446), *Erdiko soloa* (463) eta *Goiko soloa* (470).

- Aretxaldeko *Bidazpi* (87): Guk *Bideazpi* arautuko genukeen, *e+a=a* elkarketa ez delako beste batzuk bezain ohikoa ez arauzkoa. Dokumentazio gehienak ere hala erakusten digu. Gainera izen horretako etxea egon zen aurkintzari *Bideazpi* izena arautu zaio (!!) eta desadostasun horiek ez dira komenigarriak inguru geografiko (ezta ikerketa-lan) berberean.

- Aretxalde auzuneko *Bidegane / Oleagana* (89): *-gane* amaieraz ikus gorago (*Arrizurietagane*) esandakoa, hau da, arauzko era *Bidegana* litzateke. Bestalde, *Oleagana* era, susmagarri egiten zaigu, zeren hitz konposaketa baten lehenengo osagarriak, nekez eraman baitezake mugatzailea. Hortaz, *Olagana* espero liteke. Ordea, ahoz *-ea-* hori jaso denez gero, kasik gauza segurutzat eman daiteke, bokale temati horren atzean *-aga* atzizkia dagoela, hau da, *Oleagagana*. Silaba errepikapena *(-gaga-*) ekiditeko, ahoz normalean bietako bat galtzen da eta beraz logikoa da *Oleagana* jaso izana. Ez dago argi *-ga-* bakarra ala biak idatzi behar ote diren (id. *Aretxabala(ga)gana, Lapu(rre)rreketa* etab.), baina guk biak ematea hobetsi ohi dugu.

  Era berean, silaba errepikapena aurkitzen dugu Goitioltzako *Basabalalde* (441), *Basozabalandikoa* (442), *Basabalbarrena* eta *Basabaletxikia / Basozabalemetikoa* (443) izenetan. Familia bereko leku-izen hauetan *Basazabal* era dugu gakoa. Errepikapena *sa-za* elkarketa horretan gertatzen da eta irteera modu desberdinetan bilatu da. Hala ere, badirudi guztietarako berbera beharko litzatekeela izan. Herri-etimologiak bultzatuta *Basozabal-* era sortu da, esanahiz argia, baina ez dokumentazioan sustatuena. Beste aldetik *Basabal-* sinpletze logikoa dokumentatua eta bizirik aurki daiteke. Guk bere osotasunean emango genuke toponimoa *-o>-a* bokalismo zaharra errespetatuz: *Basazabalalde, Basazabalandikoa, Basazabalbarrena* eta *Basazabalemetikoa / Basazabaltxikia*, azkeneko izenaren azken aldaera (lehentasuna besteari emanik, noski) ken litekeelarik. Silaba errepikapena ekiditea erabakiz gero, guztietan egin behar genuke: *Basabalalde, Basabalandikoa, Basabalbarrena, Basabalemetikoa / Basabaltxikia* alegia.

- Aretxaldeko *Bixentekoane / Ibarragoikoa* (91): Dokumentazioa begiratuta, nahiko gauza argia da guretzat etxe horren izena *Ibarragoikoa* dela. Lehen lekuan agertzen den *Bixentekoane*, ordea, lagunarteko deizioa izango litzateke eta beraz, ez lirateke biak «maila» berekoak bezala eman behar. Etxearen eraikitzaileari erreferentzia egiten diona, ematekotan, parentesi artean emango genuke soilik. Gainera *Bixentekoane* eraren arautzea ez dago batere argi. Alde batetik, *-ena* atzizkiaren trataera legoke (ikus *Bekoguardeane*), eta bestetik zein ote den horren azpian dagoen pertsona-izena, gure ustez *Bizentiko*, bustidurarik gabe. Hala balitz, «goitizenerako» *Bizentikoena* litzateke arauzko era.

Orobat esan daiteke Garaioltzako *Bixentiena / Oxangoitibekoa* (300) izenaz, guk *Oxangoitibekoa (Bizentiena)* arautuko genukeena. Eta ondorioz *Bixentinebarri* (302) ere *Bizentienabarri* emango genuke, zer den adierazten ez bada ere, etxea dela pentsatzen dugu-eta.

- Aretxaldeko *Bixentekogane* (91): Lehen osagarria *Bizentiko* pertsona izena dela pentsa daiteke (ikus *Bixentekoane / Ibarragoikoa*) eta bigarrena *-gana* (ikus *Arrizurietagane*). Hortaz *Bizentikogana* izango litzateke arauzko era.

- Aretxaldeko *Bustinzan zerrea* (92): Genitibo arruntaren ahoskera horren ostean, ohi legeztxe, *Bustintzaren zerrea* dago, eta hala egingo luke Bizkaiko (eta ez bakarrik Bizkaiko) edozein euskaldunek. Afrikazioaren galera (*Bustintza* > *Bustinza*), ordea, gaztelaniaren eragin hutsa da gure ustetan, deitura erderaz erabiltzea derrigorra delako edo izan delako duela gutxira arte.

  Halaber, genitibo arrunt osoa arautu behar litzateke Aretxaldeko *Kurtzeko kantinea / Kristinan kantinea* (148) izenean, bigarren aldaera *Kristinaren kantinea* izanik, noski, eta *Loroñon txaleta* (162) orobat, *Loroñoren txaleta*.

- Goitioltzako *Diegone / Goitiagoikoa* (457): Etxearen izena *Goitiagoikoa* da dokumentazioak argi erakusten duenez. Jabe bati erreferentzia egiten dion ezizena, dagokion mailan adierazi behar da, nahi bada, parentesi artean agertaraziz (edo ezabatuz). Nolanahi ere, *-ena* atzizkia bere osoan eraman behar luke: *Goitiagoikoa (Diegoena)* (ikus *Bekoguardeane*).

  Gauza bera gertatzen da auzune bereko *Eliasene / Iragorri* (458) lemarekin, *Iragorri (Eliasena)* arautu litekeena.

- Aretxaldeko *Donitxena* (93), *Dontxinebekoa*, *Dontxinegoikoa / Martana* (94): *Donitxena* era arautzeko arrazoi larregi ez dugu ikusten dokumentazioan, baina hala erabakiz gero, ezin dira inola ere beste biak era «herrikoi» gaurkotuan arautu. Hortaz *Donitxenabekoa* eta *Donitxenagoikoa* lematizatu behar lirateke. Azkenaren bigarren deizioa goitizen hutsa da eta ez litzateke eman behar. Hala nahi balitz, ordea, parentesi artean nahikoa, eta *-ena* atzizkia bere osotasunean gordez, agertu behar litzatekeena hau da, *Martaena* edo *Martena*. Dena dela, egiazko oikonimoa ez izatea ere posible da (ia segurua) eta kasu horretan deklinabide arrunteko genitiboa baizik ez genuke izango, *Martarena* (ahoz *Mártana*) alegia. Hau guztia, izen hori ez agertzeko arrazoi bat gehiago litzateke.

- Goitioltzako *Elorreako iturria* (458): Seguraski *Elorrea* horren atzetik *Elorriaga* egongo da, baina kokaera eta izen honetako beste objektue-

kiko erlazio posiblea konprobatu behar lirateke lehenik. Hala izatekotan, *Elorriagako iturria* era gardena izango genuke.

- Aretxalde auzuneko *Ereñotzeko soloa* (99): *Ereñotz* hitza ez baina *-etxe-* dagoela iradokitzen du dokumentazioak eta *Ereño(e)txeko soloa* era kontsidera liteke, horrenbestez.

- Aretxaldeko *Ermitoste* (103): Etxearen izenerako dokumentatzen diren erak ikusita, seguraski zuzenago litzateke *Serorena* edo *Serorak* izena arautzea, are gehiago kontuan izanez gero, *Ermitoste* toponimoa beste zerbait izendatzeko ere bizirik dagoela.

- Goitioltzako *Errekalde* (463): Informazio gehiago emango genuke, hain ondo dokumentatzen den *Orbe(e)rrekalde* era osoagoa arautuko bagenu.

  Beste horrenbeste gertatzen da Goitioltzako *Kukutza* (485) izenarekin, dokumentazioan maiz agertzen baitira *Orbekukutza* era konposatua sustatuko luketen datuak.

- Garaioltzako *Errokene / Esperantza* (306): Maila bereko bezala agertzen diren arren, ez dira halakoak. Dokumentazioa begiratuta, *Sasienabarri / Esperantza (Errokena)* arautuko genuke guk, hau da, *Sasienabarri* izen zaharra, *Esperantza* modernoa eta *Errokena* ezizena direlarik.

- Garaioltzako *Errota* (309): Arautzeko proposamena ez da berezko izena, generikoa baizik. Etxe horrek, dokumentazioan argi agertzen den legez, *Gallartza* du izena. Nahi balitz, *Gallartzaerrota* era konposatua ere osa liteke. Bestalde, badago *Gallartza* izenarekin erlazioa dukeen *Errotaurre* izeneko etxea ere, antzeko soluzioa ere onar zezakeena.

- Aretxaldeko *Erzilurruti* (109): Irizpideetan, informaziorik gehien ematen duen era arautzearen aldeko joera erakutsi nahi da. Kasu honetan pena bat litzateke *Elexalde* era dokumentatua galtzen uztea eta salbuespen gisa marratxodun konposaketa erabil liteke, dokumentazioan agertzen den bezala, nahiz oso ortodoxoa ez den (ikus *Antepara-azpi*). Hortaz *Erzilurruti-Elexalde* osoagoa litzateke. Zalantza dugu ez ote den afrikatua arautu behar, hau da, *Ertzilurruti*, baina Bizkaian afrikatze horiek ez dira beste euskalkietan bezain automatikoak.

  Orobat, auzo bereko *Gerrena* (121) izena *Aretxabaletagerrena* arautu liteke, honela informazio gehiago emanik.

- Garaioltzako *Etxeberri* (319): Neotoponimoa den arren, propioena *Etxebarri* izango litzateke. Hala ere, ikus *Ibergain* sarreran neotoponimoez esandakoa.

- Garaioltzako *Etxetxikerra* (323): Informazio gehiago emango genuke *Etxealtutxikerra* izena araututa, dokumentazioak ematen dizkigun aztarnei kasu eginez.

- Garaioltzako *Garaiondo* (337): Lekukotzak begiratuta, badirudi mugatzailea ezin gal dezakeela, hau da, *Garaiondoa* arautu behar litzatekeela ezinbestez.

- Garaioltza auzuneko *Garioetxebarri / Txikitonebarri* (337): Izenok ez dira inola ere maila berekoak. Etxearen izena *Garioetxebarri* da eta *Txikitoenabarri* goitizena izango litzateke (ikus *Bekoguardeane*), hots, arauzkoa *Garioetxebarri (Txikitoenabarri)* izango litzateke gure ustez.

- Garaioltzako *Gaztañeta* (338): Ahozko lekukotzak ez datoz bat eta dokumentazioak erdarazko erak baizik ez du ematen. Nolanahi ere, agian *Gaztañadia* izango litzateke logikoena.

- Basabiloltzako *Gaztañetako soloa* (248): Ez dakigu *-eta* atzizkia nondik heldu den. Guk, datuak ikusirik, *Gaztañako soloa* arautuko genuke.

- Basabiloltzako *Goikaldeberesi* (248): Ez dago *-oa-* talde bokalikoa sinpletzeko arrazoirik, lekukotza guztiek mantentzen baitute osorik. Ondorioz, *Goikoaldeberesi* arautzea liteke zuzenago.

- Goitioltzako *Goiri* (470, 471): Bi baserri daude izen honetakoak, dokumentazioan inoiz bati «*mayor*» eta besteari «*menor*» eransten zaiela. Izen arautuak benetan bereizgarriak izango lirateke *Goirinagusia* eta *Goiritxikerra* emango bagenitu, ahozko lekukotzetan ondo oinarrituta gainera.

- Basabiloltzako *Gurtibi, Gurtibialde* (250), *Gurtibiko zubia* (251): Lekukotza gehienek eta Mendebaldeko tradizioak *ubi* aldakiaren alde egiten dutela uste dugu, kasu horretan *ibi* era, harmonia bokalikoaren ondorioa litzateke gehiago, afera lexiko-dialektal bat baino. Hortaz, *Gurtubi, Gurtubialde* eta *Gurtubiko zubia* lirateke, gure ustez, egokiago.

  Halaber Garaioltzako *Gurtibiko trokea* (343), dirudienez mugatzailerik beharko ez lukeena gainera, hau da, *Gurtubiko troka*.

- Aretxaldeko *Ibergain* (127): Oikonimo berri samarra dela ematen du eta alde batetik joera populista igartzen zaio lehenengo osagarrian (*ibar > iber*) eta joera estandarizatzailea (euskalkiaren kaltetan) bigarrenean (*-gain* eta ez *-gan*), kontraesaneko joerak izanik. Neotoponimian noraino sartu behar den eta noraino gauzak jabeen ardurapean utzi, ez dago argi, baina toponimo hori, Lezaman jator bizi izatekotan eta tradizioari begiratuta, *Ibargan* arautu behar litzateke.

- Aretxaldeko *Ibergunebarri* (130): Antzeko beste zenbaitekin bezala, *ibar > iber* bokalismo normala (*i-* horrek eragindako itxitura automa-

tiko baina berri samarra), desegin behar du araututako formak. Bestalde, bigarren osagarria den *-gune* horrek *-e* paragogikoa du eta ez da jaso behar (Ikus *Arrizurietagane*). Azkenik, *-gun-* horren ostean *-guen-*dagoela erakusten digu dokumentazio urriak, eta hala arautu behar da. Beraz: *Ibarguenbarri* (edo *Ibargurenbarri*, argi baldin balego *Ibarguren* bezala arautu den beste baserriari egiten diola erreferentzia).

Aurrekoa legeztxe auzune bereko *Iberguneko errekea* (130) izena *Ibargu(r)eneko errekea* arautu behar da, kasu honetan *-e-* hori deklinabidearen epentesi arauzkoa izanik (ez paragoge fosildua).

- Aretxaldeko *Iberrebarri / Altzaibarra* (130): Dokumentazioan argi ikusten denez, etxearen izena *Altzaibarra* da eta bestea parentesi artean (bigarren maila batean) eman behar litzatekeen goitizena. Gainera, argi dago *Ibarbarri* edo *Ibarrabarri* arautu behar litzatekeela (baina *Ibarretxe* izenekoari egiten ote dio erreferentzia?).

- Aretxaldeko *Ibertxularra* (130): *Ibartxularra* arautu behar litzateke, *ibar* > *iber* bokalismoa deseginik (ikus *Ibergunebarri*).

  Halaber, aurreko *-i-* batek eragindako itxitura bokaliko arrunta dago Aretxaldeko *Laugizelan* (153) izenean, etimo eta esangura ezagunekoa, *Laugizalan* arautu beharrekoa, lekukotzek kontrakoa erakutsi arren (urriak eta denak XX. mendekoak, ordea). Berdin auzune bereko *Zortzigizelan* (216), Garaioltzako *Amabigizelaneko soloa* (279), *Ibertxualde* (345), *Ibertxubaso* (biak *Ibar-* arautu beharrekoak), *Irugizelaneko soloa* eta *Irupunteko soloa* (346) (*Irupuntako soloa* beharko luke), eta Goitioltzako *Seigizelan* (492).

- Aretxalde auzuneko *Irugaztañetxueta* (131): *-gaztañe-* hitzaren amaierako bokala hurrengo hots bokalikoak (*-u)* eragindako itxitura izan daitekeela bururatzen zaigu bakarrik, nolanahi ere, desegin beharrekoa. Hau da *Irugaztañatxueta* izango litzateke arauzko era.

- Aretxaldeko *Iturrikoerreka* (138): Irizpideak eskuan, bereiz idatzi behar litzateke, genitibo egitura arrunta du-eta. Agian, mugatzailerik eza aipa liteke lexikalizazio maila altuaren seinale, kasu horretan bat eginik idatziz, baina tradizio dokumentalak besterik erakusten duela dirudi.

- Aretxaldeko *Juantxoena* (138), *Juantxuneburu / Juantxuenalde*, *Juantxuneko minea* (140): Gure ustez, Mendebaldeko aldaerari dagokion atzizki txikigarri ohikoa *-txu* da, era guztietako lekukotzek ondo sustatuta. Asmo estandarizatzaileengatik bakarrik esplika liteke *-txo* arautu nahi izatea. Behin lehenengo izena *Juantxuena* araututa, bere eratorriak ere bide beretik eman behar lirateke, irizpide-batasuna ezin delako ezbaian jarri (are gutxiago, lan berean). Hortaz, besteak *Juantxuenburu / Juantxuenalde* eta *Juantxueneko minea* arautu behar liratekeela pentsatzen dugu.

Gauza bera gertatzen da Aretxaldeko *Markonealde, Markoena / Markonebekoa* (167) eta *Markonegoikoa / Tangerre* (168) izenekin. Bistan da, jarraitu beharreko eredua *Markoena* hori dela, beste guztien sortzaile. Hortaz, *-e* paragogikoak kendu eta *-ena* atzizkia lotzean gertaturiko fenomenoak deseginik, *Markoenalde, Markoena(bekoa) eta Markoenagoikoa / Tanger*, arautuko genituzke guk. Azkenaren ezizen moderno hori parentesi artean ematea ere kontsidera liteke, edo ez agertzea. Nolanahi ere, Marokoko hiri ezagunaren izena dela dirudi, *-e* paragogiko ohikoa gaineratuta (sobran, beraz). Orobat gertatzen da Garaioltzako *Zugastiena* (433) etxe izenarekin. Modu zuzen horretan arautu den aldetik, ez da onartzekoa *Zugastinealde* (434) aurkintzaren izena, *Zugastienalde* beharko bailitzateke.

- Aretxaldeko *Justona / Mitxelena* (141): Datu dokumental urriak ditu etxe honek. Hala ere, izenek ez dute maila bera izatearen itxurarik. Segur aski etxearen izen «ofiziala» *Mitxelena* izango da eta bestea ezizena, jabearen ponte-izen ezaguna baliatzen duena. Nolanahi ere, bigarren hau bere osotasunean eman behar litzateke, *Justoena* alegia: *Mitxelena (Justoena)* beraz.

- Aretxalde auzuneko *Kanposantoa / Ortusantua* (144): Ez dakigu zer dela-eta arautu den *-santoa* adjektiboa lehenengo aldaeran. *Kanposantua* behar litzateke.

- Goitioltzako *Kukutzebarrena* (486): Jatorri duen izenari *Orbekukutza* proposatu diogun legez, sarrera honetako datuak ikusita, *Kukutzabarrena / Orbeko trokea* arautuko genuke guk, ordena edozein izanik ere.

- Garaioltzako *Labekoetxe* (357, 359): Bizkaiko usadioari jarraituz, *Labakoetxe* arautu beharko genuke, *Labakoetxesolobarrena* (357) izen eratorrian egin den legeztxe. Gainera, bi etxe dira eta agian bereizteko *-nagusia* / *-txikerra* adjektiboak erantsita osatuago geratuko lirateke.

- Garaioltzako *Landetane / Oxanguren* (360): Etxearen izena *Oxanguren* da, *Landetaena* (ikus *Bekoguardeane*) goitizena, den bitartean. Ondorioz, bigarren maila batean utzi beharko litzateke. Gure ustez, arauzkoa *Oxanguren (Landetaena)* izango litzateke.

- Aretxaldeko *Larrabeitiko errekea / Adikondo* (149): Dokumentazioak *Ariko-* hasiera ematen du. Kontsonanteen nahaste hori (*r-d*) oso ohikoa da Mendebaldean behinik behin. Beraz, bigarren aldaera *Arikondo* arautu behar litzateke, *-d-* duen lekukotzarik bat ere ez baitago.

- Garaioltzako *Larrabeko kaskoa / Larrabeburu* (367): Gure uste, izen «serioa» *Larrabeburu* litzateke, beste lekukotzek edozein euskaldunek osa ditzakeen esamoldeak baizik ez dirudite-eta.

- Garaioltzako *Lejarrene / Usategibekoa* (378): Lekukotza dokumentalak ikusita, uste dugu lehentasuna *Usategibekoa* izenari eman behar litzaiokeela. Bigarrena, gainera, *Lexarrena* arautuko genuke guk, parentesi artean nahiz zehar-marraz bereizturik (/). Deiturak erdaraz erabiltzearen ohituraz, ikus *Bustinzan zerrea* izeneko gure oharretan esandakoa.

- Garaioltzako *Madariagane / Lekuona* (383): Dokumentazioak argi erakusten duen legez, etxe honen izen «ofiziala» *Lekuona* da, bestea goitizena den bitartean. Ondorioz, bakoitzari dagokion maila eta lehentasuna eman beharko zitzaiokeen. Gainera bigarren mailako izen hori *-gaga-* silaba errepikatua eta guzti arautu liteke, bigarren aukera legez eta parentesi artean emanda: *Lekuona (Madariagagana)*. Silaba errepikapenaren kontuaz, ikus *Bidegane / Oleagana* sarreraz idatzitakoa.

- Garaioltzako *Maitonsolo* (383): Gutxi badira ere, lekukotza guztiek *-n-*bat erakusten dute tartean (*Maintonsolo*) eta horrek arauzko izen osoa *Mariantonsolo* izan litekeelako hipotesira eramaten gaitu. Besterik ezean, *-n-* hori behintzat jaso beharko litzateke.

- Basabiloltzako *Malatza, Malatzaga* (256), *Malatzagoikoa* (257): Gure ustetan hirurek eraman beharko lukete *-aga* atzizkia, lekukotza dokumentalak banatuta egon arren, antza denez, jatorri bat-bera baitute. Atzizkiaren galera XX. mendekoa dela dirudi eta, beraz, ez litzateke arauzko eran ahaztu behar, hau da, *Malatzaga* (baserria eta soroa) eta *Malatzagagoikoa* arautu behar lirateke. Bistan da, bokalarteko *-g-* hotsaren erorketa arrunta eta *-aa-* geminatuaren sinpletzea gertatu dela, oso fenomeno ohikoa euskal hizkera gehienetan.

  Gauza bera gertatu da Goitioltzako *Belarrenabekoa* (452) eta *Belarrenagoikoa* (453), arautu den *Belarrenaga* izenaren eratorriak eta, beraz, hau bezala, *-aga* eta guzti arautu behar liratekeenak: *Belarrenagabekoa* eta *Belarrenagagoikoa*. Oso posible da, *-aga* atzizkiaren galera Goitioltzako *Pagoeta / Pagoamendi* (489) lemaren bigarren aldaeran izkutatzea, konposaketa traketsa baita tartean mugatzaile hori gordetzen duena. Beraz, pentsa daiteke kontaktu guneko *-a-* bokala atzizki haren azken aztarna dela. Orduan *Pagoagamendi* litzateke arauzkoa. Bestela, kontsidera liteke *Pagoaga* izen hutsa lagatzea, dokumentatzen diren *Pagoa* guztiak esplikatuko lukeena. Segurtasun handiagoz, Goitioltzako *Zubillako errekea* (494) izena ere araututako *Zubillaga* eraren eratorria dela esan daiteke, ondorioz, *-aga* atzizkia jaso behar lukeena: *Zubillagako errekea*. Atzizki hori berreskuratu behar litzateke ere Garaioltzako *Luzar* (381) izenean eta *Luzarraga* arautu. Ondorioz, auzo berean dauden *Luzarralde* eta *Luzarraldebarrena* (382) izenekin ere orobat egin liteke, beti ere lehenengoarekin erlazioan daudela ziurtatuz gero eta dokumentazioak horren aldeko arrazoi asko ematen ez badigu ere. Azkenik, Garaioltzako *Urzabala*

/ *Oxinabarri* (426) leman, ematen den bigarren aldaeraren forma osoa *Oxinagabarri* litzatekeela erakusten digu dokumentazioak.

- Aretxaldeko *Mandarreta* (167): Metatesia XX. mendearen erdialdean gertatu dela argi erakusten dute lekukotza dokumentalek, honela haren esanahi tradizionala izkutatuz. Arauzko era *Mandarrate* ezarri behar litzateke.

- Goitioltzako *Maruribaso / Belaostegi* (487): Dokumentaturiko izen «serioa» *Belaustegi* izango litzateke (*o>u* itxitura horrek badu tradizio onomastikorik nahikoa, *-o-* arkaikoa izanik). Bestea, nahi bada jarri, parentesi arteko goitizena baino ez litzateke, hau da, *Belaustegi (Maruribaso)* arautzea hobe.

- Garaioltzako *Matxinebaso / Txabolalde* (385): Dokumentazioa begiratuta, izena *Matxinbaso*, *Matxinabaso* edo *Matxinbebaso* arautu beharko litzateke, egiazko aukeren «arteko» irteerak baztertu behar dira-eta. *Txabolalde* hori nondik heldu den ez dakigu eta, beraz, ez genuke jasoko (gehienez ere, parentesi artean).

  Auzune bereko *Matxinebasoalde* (386) izenarekin datorren dokumentazioak *Matxinbaso-* hasiera sinplearen aldeko arrazoiak ematen dizkigu. Den legez dela, kasu honetan goikorako araututakoaz gainera, *Txabolalde* aldakia gainera liteke, goikoan ez bezala. *Matxinebasobarrena* (386) izenarentzat erabaki berbera arautu behar genuke, dokumentazioak berriz ere, tarteko *-e-* bat erakusten digula.

- Aretxaldeko *Mendirantz* (174): Etxe modernoa da-eta bere horretan uztea da logikoena. Hala ere, adibide interesgarria da bataioak nola egin behar ez diren bistaratzeko. *Mendirantz* ezin da onartu izen gisa, berez, adizlaguna baita. Kategoria-nahaste horren ondorioz, euskararen senaren kontra doa izen baten moduan deklinatzen saiatzea: *Mendirantzera noa, Mendirantzetik nator*…

- Garaioltza auzuneko *Montameondo* (391), *Montameoste, Montametxebarri / Iruregibekoa* (392): Hirurak *Montalban* izenaren eratorriak diren aldetik, *Montalbanondo, Montalbanoste* eta *Montalbanetxebarri* arautu behar lirateke. Hala ere, azkenekoaren izen dokumentatuena *Iruregibekoa* litzateke, eta, beraz, lehentasuna emango genioke aldaera bien ordena aldatuta: *Iruregibekoa / Montalbanetxebarri.*

- Goitioltzako *Olanobaso / Basonagusia* (488): Dokumentatzen den bakarra bigarrena denez gero, buelta emanda aurkeztuko genituzke lehentasunak eta parentesia gaineratuko goitizenean, hau da *Basonagusia (Olanobaso)*.

- Aretxaldeko *Sakristuena* (187): Diptongoaren sinpleketa eman dela dirudi, erdaraz *Casa (de) Sacristán* dokumentatzen da-eta, bere osoan *Sakristauena* arautu beharko genukeena.

- Basabiloltzako *Samartinbaso* (265): Ondo dago era horretan ahoskatzea, baina idatzi *Sanmartinbaso* idatzi behar da, hagionimoaren kontsonante guztiekin.

- Basabiloltzako *Sololuzea* (268): Ez dugu mugatzailea jartzeko arrazoirik ikusten, behin ere jasotzen ez da-eta. *Sololuze*, beraz.

- Aretxaldeko *Torre* (197): Dokumentazioa ondo begiratuta, bistan da, dorretxe eder horrek gutxienez izen bi eduki dituela historian zehar (biak oraindio bizirik, gainera). Ulergarria da aukera egin beharraren aurrean beldur apur bat sentitzea, baina «*Torre*» ez da inola ere eraikin horren izena, haren generikoa baizik. Guk *Lezamatorre / Azkuenaga* era bikoitza arautuko genuke.

  Antzeko zerbait gertatzen da Basabiloltzako *Palazio* (264) etxearen kasuan. Etxe horren izena *Basabil* edo *Larragoiti* da, eta jatorriz jauregia izan zen. Izen normalizatutzat generikoa proposatzea, toponimoak baztertzea litzateke eta hori ez da onargarria. Guk *Basabil / Larragoiti (Palazio)* era konplexua proposatuko genuke lema moduan.

- Basabiloltzako *Txabolo* (269): *Artetxuetako etxea* aldakiak «seriotasun» handiagoa erakutsiko luke, gure ustez.

- Garaioltzako *Txikitoena / Etxebarri* (417): Guk lehentasuna bigarrenari emango genioke, agian lekukotza zaharrenean agertzen den konposaketa eta guzti, hots, *Usategietxebarri*. Bestea ezizen legez emango genuke soilik, *Usategietxebarri (Txikitoena)* alegia.

- Basabiloltzako *Txinpune* (269): Amaiera ez da batere arauzkoa. Aurreko *u-* bokalak eragindako itxitura dago seguraski (*Txinpuna*), baina *-ena* atzizkia ere eduki lezake (*Txinpuena*).

- Aretxaldeko *Txupetxalde* (205): Datuak begiratuta, bai ahozkoak eta bai dokumentalak, badirudi *Larretxebekoa* edo *Larretxalde* ere jaso behar litzatekeela, hau da, *Larretxebekoa / Txupetxalde* edo *Larretxalde / Txupetxalde*.

- Aretxaldeko *Ugarte* (208): *Ugartenagusia* aldaera «osoagoa» ere kontsidera zitekeen, proposatzen den *Ugartetxikerra* (210) izenaren kide.

- Garaioltzako *Urrena* (424): Dokumentazio zaharra kontuan izanik, informazio gehiago emango genuke *Gallartzaurrena* araututa, jendeak izenaren azken zatia (kokatzailea) bakarrik erabiltzen duen arren.

- Basabiloltzako *Urrestiko errekea* (271): Lekukotzen arabera, badirudi erreka horren izena *Urresti* hutsa dela, generikorik gabe, alegia.

- Garaioltzako *Ustiako beresia / Mintegi* (428): Lehentasuna dokumentaturiko erari emango genioke eta lema buelta emanda aurkeztuko, hau

da, *Mintegi / Usteiako beresia*. Azken aldaki horrek araututako *Usteialde* (428) izenaren familiakoa da eta, beraz, haren moduan arautu behar da, bokalik galdu barik. Bestalde, baliteke biak lehenago araututako *Usategigoikoa* (427) izenaren familiakoak izatea, kasu horretan ahoz jasotzen den *-a-* esplikatzea zail gertatu arren. Erlazio hori frogatuz gero, *Mintegi / Usategiko beresia* eta *Usategialde* arautu behar lirateke hurrenez hurren.

- Garaioltzako *Zintudi* (433): Dokumentaturiko erak begiratuta, *Zintelduia* arautuko genuke guk, bokalak eurentokian, mugatzailea eta guzti.

Azkenik, ohar hauetan gutxitan agertu dugun arren, gauza jakina da izenek behiala zeramaten mugatzailea galtzeko joera hazi dela XX. mendean aurrera joan ahala. Gaur eguneko ahozko bilketan arruntena izaten da izen asko mugatzailerik gabe jasotzea, dokumentazioan artikuluaz agertzen diren bitartean. Aipatu barik utzi ditugun kasu askotan, komeniko litzateke artikulurik gabeko lekukotza dokumentalak noiztik hasten diren erreparatzea, era arautuetan jarri ala ez erabaki aurretik. Gure ustez, aski litzateke XX. mendeko mugatzailedun lekukotzarik aurkitzea, artikuluari eusteko. Mende horretako lekukotzetan mugatzailerik gabe dokumentatzen diren izenetan, ordea, jada galdutzat emango genuke artikulu hori eta hura gabe arautuko. Azken finean, horretan datza arautze-fasearen eginbeharra, ondare toponimikoaren kontserbazioan alegia.

Beste barik, honekin batera egileei eta argitaldariei, ostera ere eskerrak emateaz gainera, honen moduko lanak egiten, bultzatzen nahiz plazaratzen jarraitzeko animatu nahi ditugu. Toponimiaren munduan nor bere aldetik lanean ibiltzea, irizpide bateraturik gabe buruturiko lanak zabaltzea, edo besteek egindakoa kontuan izan barik jardutea, egiatan kaltegarria izan daiteke eta izaten ari da, gure ondare kulturalaren atal honetarako. Ikerkuntza munduan lehian ibili beharrean, guztien ekarpenen probetxuaz, kritika eraikigarriaz eta aberastasunaz etorri ohi da-eta aurrerakuntza. Hortaz, Onomastika Batzordetik ere, eskertu behar dugu Asier Bidartek eta Aintzane Etxebarriak Lezamako toponimiaz prestaturiko bilketa-lan zabal eta sakon honekin batera, hainbat irizpidez hausnartzeko motiboa eman izana. Hausnarketa horien emaitza dira hemen paratu ditugun ohartxo hauek eta halakotzat hartuak izan zitezen nahi genuke. Guztion artean euskararen normalizazioan eta bereziki gure leku-izenen alorrean, bereizkuntzak errespetaturik, bide bateratuak eraikitzen joango garelako uste osoan eta gurari biziaz eginak izan dira.

EIBARKO TOPONIMIA

Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan,
2004ko uztailaren 7an emana

Patxi Galé García,
Onomastika batzordekidea

Mikel Gorrotxategi,
Onomastika batzordekide-idazkaria

Eibarko Udalak bultzatuta, udalerriko mapa topografiko bat atontzeko egitasmoa jarri zen abian 2003. urtean. Herriko zenbait ikertzailek ahozko lekukotza ugari jaso eta dokumentazio zaharrean miatu ondoren, datutegi mardul bat osatu zen helburu haren oinarri. 2003ko azaroaren 11n Udalak Euskaltzaindira jo zuen, udalerriaren mapa topografiko horretan agertu beharreko toponimo horien arautze ortografikoan aholku eske. Onomastika Batzordeak, halako zereginetarako ohiko giza-baliabideekin aski ez eta Mikel Gorrotxategi eta Patxi Galé batzordekideei eman zien eginbehar horretan aritzeko mandatua.

Maparen hasierako bertsioa eta bildutako datuak igorri zitzaizkien lanean hasteko. Toponimoen dokumentazio horretan nahiz beste zenbait materialetan oinarri hartuta, zalantzazkoak izan zitezkeen leku-izenen lehen zerrenda bat egin zen. Ondoren, lanaren ikertzaileekin eta Udaleko zenbait arduradunekin bilera batzuk eginik, zalantza gehiago agertu dira, datu berriak eskuratu ditugu, irizpideen gaineko eztabaidak piztu dira eta horren guztiaren ondorio da, jarraian ematen dugun zuzenketa-zerrenda.

Bistan da, egitasmoa aurrera ateratzeko jarraitu den metodologian zuzen jokatu dela. Zeren gauza jakina baita, lehenagoko ikerketa lanak ematen dizkiola arautze urratsari, izenen grafia zuzena zehaztu ahal izateko datuak. Horrela, ahozko bilketak bizirik dirauten leku-izenen berri ematen digun legeztxe, dokumentazio zaharrak, duela gutxi arte arautu gabe ibili den euskal hizkuntzako izenen forma jator osoen albiste ekartzen digu. Tamalez, dokumentaziorik gehienak gaztelaniazko grafietan jasotzen ditu euskal toponimoak eta horrek nabarmen zailtzen du arautze lan hau. Era berean, ahozko datuen bilketak herrian eta haren inguruetan ibiltzen diren ahoskaera, fonetismo, moda eta abarren berri ematen digu. Dialektologiaren lagungarri dira datu hauek, dudarik ere gabe balio handikoak, baina araututako grafietan, lexikologia arruntean gertatzen den modu berean, pisu gehiago eduki behar du dokumentazioak

erabilerak baino. Eta hori, berez, gure zeregina kontserbatzailea delako. Ondorioz, inguruari dagozkion euskalki eta barietatearen ezaugarri tradizionalak babestearen alde egin behar du arautze lanak. Jakina da, lekuan lekuko fonetismoek gure toponimia itxuraldatu dutela, hein bortitzago batean XX. mendearen hasieratik hona. Zenbaitek hori hizkuntzaren eboluzio naturalaren ondorio gisa irudikatu nahi duen arren, euskara hizkuntza gutxietsia izatearen erakusgarri da batez ere: idatzi ez den hizkuntza, herritik kanpo balio ez duen komunikazio tresna, bizigiro pribaturako soilik erabilgarria den aztarna «erromantikoa»… Akademiaren borondatean ez dago hiperlokalismo moderno horien babesle izatea. Euskara hizkuntza duina izango bada, euskalkien aberastasuna baztertu barik, Euskal Herri osorako baliagarri den kode bateratuan ibili beharra dago, hala lexikografia arruntean nola hiztegi onomastikoan. Eta toponimia ere ondare horren parte da. Norbaitek argudia lezake, toponimiak duen ezaugarri berezkoa dela zuzenean lurrari lotuta egotea, eta bereago dituela, beraz, ezaugarri lokalak. Horrek, ordea, eraman behar gintuzke, ez gorago aipatutako hiperlokalismo horretara, baizik ere dugun ondare lexiko hori bere horretan kontserbatzera, ez aldatzera alegia.

Euskaltzaindiaren zeregina, beraz, toponimia kontserbatzea eta erabilgarri izan dadin arautzea litzateke. Norabide horretan aurrera egin dezagun, garrantzi handikoa da herri-erabiltzaile arrunta ere, zeregin guztietarako baliagarri izango den kultura-hizkuntza normalizatu horrekin batera bizitzen ohitzea. Eta ez ditzagun gauzak nahas: herri hizkerak ez du ezer aldatu edo zuzendu beharrik, baina «normal» bihurtu behar zaigu «Abauntzaga» idazten den leku-izena «Abontza» esan ohi dela. Ordea, herri-giroan «Abauntzaga» esatea dotorekeria larregia izango den modu berean, «Abontza» idaztea, hizkuntza normalizatuetan lekurik ez duen analfabetismoaren apologia izango litzateke, azken finean hizkuntzaren duintasunaren kontrakoa. Egoera normalizatu hori helburu duela, Onomastika Batzordeak ez du inola ere gomendatzen, beraz, seinaleztapen publikoetan heterografia horiek agertzerik. Eta hori, ahoskaerak era horretan idatzirik ikusteak, horrela idaztea zilegi dela pentsatzera bultza dezakeelako jendea, bere lana egiten duen inongo akademiak onartuko ez lukeena, alegia.

Irizpide orokor horiei jarraituz burutu da gure arautze lan hau. Eibarko berezko nortasuna, gainerakoetatik bereizteko bultzada eman ordez, nahiago genuke euskara den itsaso zabal horretan, Eibarrek egin dezakeen ekarpenari garrantzia emango balitzaio nabarmenago. Eginean dagoen zeregin hau guztiona da eta egite horretan, elkartzen ala bereizten gaituzten bideak har daitezke. Eskerrak eman nahi dizkiogu Eibarko Udalari, Euskaltzaindiak aspaldian hizkuntzaren birgaitzerantz abian jarri zuen bidean, bere ekarpen hau egiteagatik.

Lan taldea honako hau izan da:

Ikertzaileak: Itziar Alberdi, Asier Sarasua.

Laguntzaileak: Nerea Areta, Serafin Basauri, Antxon Narbaiza, Eibarko Klub Deportiboko menditaldea.

Euskaltzaindia: Patxi Galé (Onomastika batzordekoa), Mikel Gorrotxategi (Onomastika batzordeko idazkaria).

Parrokia: Iñaki Zabaleta (San Andresko parrokoa).

Eibarko Udala: Begoña Azpiri (*Ego Ibarra* batzordearen idazkaria), Carmen Retenaga (*Ego Ibarra* batzordeburua), Yolanda Ruiz (Artxibozaina).

EIBARKO TOPONIMOEN ZERRENDA
Araututako izenen txostena

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
– (kendu)	Akondia	Aurkintza	C-4	2004/06/29

Baserria ondo dago, baina Akondia «oronimoa» bi aldiz dago errotulatuta bata bestearen ondoan. Tontorra ez dena kentzea erabaki da, baita gailurra Arrikurutz izeneko puntuarekin batzea ere, Federazioko katalogoan (Gipuzkoa, 22) datorren legez, alegia.

– (kendu)	Topinburu	Aurkintza	H-5	2004/02/05

Izena ondo dagoen arren, Euskal Mendizale Federazioko katalogoko Gipuzkoako 91. gailurra, uste dugu larregi dela birritan errotulatzea, eta tontorra ez bestea ezabatuko genuke. Dirudienez, maparen azkeneko bertsioan ba omen zegoen jadanik ezabatuta.

Aasua (-a)	*Asua*	Baserria	E-4	2004/05/27

Basarrixen liburuan *Asua* hutsa agertzen da. Guk, ordea, *Aasua* eta *Aasubia* arautzea proposatu dugu, nahiz eta agian 1846an dokumentaturiko Arasu- eratik helduak diren. Datu gehiago ikusteko, kontsultatu Aasubia izena.

Aasubia (-a)	*Aasubixa*	Aurkintza	E-4	2004/02/27

1585eko dokumentazioan *Aasua* agertzen da, 1846an *Arasu-alde* eta *Arasu-errequia*, 1508an eta 1810ean *Asua*. Bokal geminatu horrek irauten du gaur egun ere, beraz, ezin ken liteke besterik gabe. Baina, bestalde, -r- bokalartekoa birjasotzea atzeregi joatea kontsidera daiteke. Juan San Martinek (*Eibar eta Elgetako Toponomastika*, Onomasticon Vasconiae, 21) *Asuburu* dokumentatzen du 1799an eta *Azua* 1857an, *Azua* eta *Azuaerreka* erak proposatzen dituela. Hala ere, proposatzen dituen -z- horiek 1857ko lekukotzan dute oinarri bakarra. Badirudi, -r- bokalartekoaren erorketa zaharra dela eta hura barik onartzen da.

Aasuerreka	*Asua*	Erreka	E-4	2004/05/27

Errekaren izena ez zetorren toponimia aurkibidean eta gaineratzea erabaki da, kontraesanik ez dagoela ondo konprobatuta.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Abarkola	id.	Aurkintza	A-2	2004/05/24

Oharrik ez.

Abauntzaga	*Abontza*	Erreka	E-3	2004/07/19

Erreka honek gorago *Karabi(x)a* du izena. Horregatik, ez errotulatzea pentsatu zen, baina azkenik uztea erabaki da. Hala ere, goiko aldean dagoen baserri-izenaren moduan, era osoa arautzea jo da ontzat. 1783 eta 1796 era osoa dokumentatzen da. Gaurko ahozko Abontza, au>o diptongoaren sinpletzea eta aga>a aldaketa arruntaren ondorioa da.

Abauntzaga	*Abontza*	Baserria	E-3	2004/02/27

1783 eta 1796 era osoa dokumentatzen da. Gaurko ahozko *Abontza*, au>o diptongoaren sinpletzea eta aga>a aldaketa arruntaren ondorioa da. Hala ere, San Martinek *Abaurizaga* era dokumentatu omen du 1799ko udal-agirietan, eta hala proposatu du era arautua. Dena dela, gure ustez, irakurketa akatsa izango litzateke.

Aboagaazpikoa (-a)	*Abuaga Azpikua*	Baserria	B-2	2004/06/29

1786an *Aboaga* era agertzen da, oa>ua hori oso fonetismo arrunta izanik. Gainera, toponimo konposatuak, eta bereziki oikonimoak, bat eginda idatzi behar dira.

Aboagagainekoa (-a)	*Abuaga Gainekua*	Baserria	B-2	2004/02/05

1786an *Aboaga* era agertzen da, oa>ua hori oso fonetismo arrunta izanik. Gainera, toponimo konposatuak, eta bereziki oikonimoak, bat eginda idatzi behar dira.

Aboagazabala (-a)	*Abuazabala*	Aurkintza	B-3	2004/02/05

1786an *Aboaga* era agertzen da, oa>ua hori oso fonetismo arrunta izanik. Kasu honetan gainera, aga>aa>a bokalarteko kontsonantearen galera eta bokal geminatuaren sinpletzea gertatzen da, ahoz normala, baina idazkeran jaso behar ez dena.

Adarratza	id.	Aurkintza	D-4	2004/05/24

Oharrik ez.

Adarratzabekoa (-a)	–	Baserri zaharra (Txabola)	D-4	2004/05/27

Adarratza toponimoa aurkintza legez dago errotulatuta. *Basarrixen* liburuan txabola bihurtutako *Adarratza Behekoa* baserria agertzen da eta gaineratzea erabaki da. *Adarratza Goikoa* (*Adarratzagoikoa*) ordea desagertutzat ematen da.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Agiñaga	*Aginaga*	Auzunea	B-2	2004/05/27

Ñ grafia arautzea erabaki da.

Agiñaga	*Aginaga*	Erreka	B-2	2004/05/27

Hidronimo honen grafia *Agiñaga*- guztien eran arautu da, -ñ- grafia bustiaz, alegia.

Agiñagaagirre	–	Baserria	B-2	2004/06/29

Basarrixen liburuan agertzen da eta mapan ez dator, baina errotula liteke. Gainerako *Agiñaga* guztiekin batera arautu behar da, -ñ- grafiaz, alegia.

Agiñagagainekoa (-a)	*Aginaga Gainekua*	Baserria	B-2	2004/05/27

1783tik aurrera ere (1857ko *Nomenclátor* delakora arte) *Aginaga* era agertzen da, ahoskera arruntean bokalarteko g hotsa galtzen duena. Toponimo konposatuak elkarrekin idazten dira, bereziki oikonimoak. Amaierako oa>ua hiatoa ixtea ahoskera arruntaren ondorio da, baina ez da idatzi behar. Gainerako *Agiñaga*- guztietan bezala, -ñ- grafia hobetsi da.

Agiñagako eskola	*Aginagako Eskola*	Eskola	B-2	2004/05/27

Generikoak euskaraz atzean doaz-eta, banatuta doazela, minuskulaz idazten dira. Gainerako *Agiñaga*- guztietan bezala, -ñ- grafia hobetsi da.

Agiñagako San Migel (Done Mikel Goiaingerua)	*Mikel Arkangeluaren* parrokia	*Parrokia*	B-2	2004/06/29

Parrokia generikoa ez jartzea erabaki da, mapan ikurra agertuko da-eta. Jarri nahi izatekotan, «Aginagako San Migel parrokia (Done Mikel Goiaingerua)» litzateke hurrenkerarik egokiena. Ofiziala «San Mikel Goiaingerua parrokia» den arren, tradizio zaharreko santu horren adbokaziorako, Euskaltzaindiaren arauak «done» hobesten du-eta hala arautzea erabaki da.

Agiñagazpikoa (-a)	*Aginaga Azpikua*	Baserria	B-2	2004/06/29

1783tik aurrera ere (1857ko *Nomenclátor* delakora arte) Aginaga era agertzen da, ahoskera arruntean bokalarteko g hotsa galtzen duena. Toponimo konposatuak elkarrekin idazten dira, bereziki oikonimoak. Elkarketaren ondoriozko bokal berdinen elkarketa a+a>a egitea zilegi da, ahoskera lokalaren arabera. Amaierako oa>ua hiatoa ixtea ahoskera arruntaren ondorio da, baina ez da idatzi behar. Gainerako *Agiñaga*- guztietan bezala, -ñ- grafia hobetsi da.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Agiñaldapa	id.	Aurkintza	G-5	2004/05/24

Oharrik ez.

Agirre	*Agarre*	Aurkintza	B-2	2004/05/27

Harmonia bokalikoa (a-i > a-a) desegitea erabaki da.

Agirreazpikoa (-a)	*Agarre Azpikua*	Baserria	E-5	2004/02/05

1810ean eta 1857ko *Nomenclátor* delakoan *Agirre* izenaz agertzen dira etxe hauek. *Agarre* erak, harmonia bokaliko huts eta automatikoaz sortutako era berriak dira. Gertakari hau gutxienez Bizkai osoan gertatzen da ere. Bestalde, toponimo konposatuak elkarrekin idazten dira, bereziki oikonimoak. Amaierako oa>ua ere oso ohikoa da mintzairan, baina ez da idazkeran arautu behar.

Agirregainekoa (-a)	*Agarre Gainekua*	Baserria	E-5	2004/02/05

1810ean eta 1857ko *Nomenclátor* delakoan *Agirre* izenaz agertzen dira etxe hauek. *Agarre* erak, harmonia bokaliko huts eta automatikoaz sortutako era berriak dira. Gertakari hau gutxienez Bizkai osoan gertatzen da ere. Bestalde, toponimo konposatuak elkarrekin idazten dira, bereziki oikonimoak. Amaierako oa>ua ere oso ohikoa da mintzairan, baina ez da idazkeran arautu behar.

Agorriaga	*Agorrixa*	Alderdia	D-4	2004/02/05

Bokalarteko -g- baten galera pairatu du segur aski, eta dokumentatzen ez badugu ere, galdutako hotsak jasotzea erabaki da. Hiatoetako txistukari epentetikoak, ia>ixa alegia, ez dira idatzi behar, ahoskatzea ondo dagoen arren.

Aiaga	*Aixa*	Aurkintza	E-5	2004/02/05

1810ean oraindik izena bere horretan gordetzen zen. Oso arrunta da hizkera arruntean bokalarteko -g- hotsaren galera eta aa>a sinpletzea. Hiatoetako txistukari epentetikoa ahoskatzea oso jatorra da, ia>ixa, baina era arautuan ez da idatzi behar.

Aiagaerreka	*Aixa erreka*	Erreka	F-5	2004/02/27

1810ean oraindik Aiaga era bizirik zegoen. Generikoa «lexikalizatutzat» hartu eta bat eginik idaztea erabaki da.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Aillora	*Aillora*	Aurkintza	C-6	2004/02/27

Ez dugu Allorraga era baizik dokumentatzen 1784an, baina ez dakigu leku honi ote dagokion. Bokalarteko -g- hotsa erori eta aa>a sinpletzea oso fenomeno arruntak dira, baina rr>r bihurtzea ez da batere ohikoa. Bustiduraren aurreko -i- bokala bere horretan uztea erabaki da.

Aingeruguarda	*Aingeruguarda*	Mendia	H-6	2004/04/29

Bergarako udalerrian dago eta aurkibideko erreferentziak H-7an kokatzen zuen oker. H-6 kokaera jartzea erabaki da.

Aitorbe	*Aittorbe*	Iturria	C-3	2004/02/05

Bustidura automatiko hori ez da ez tradizionala, ez idazkeran arautzekoa. Hortaz, kentzea erabaki da, hizkeran bakoitzak nahi duen eran egingo duen arren.

Aitxustun	*Aitxustun*	Alderdia	E-2 E-3	2004/02/27

Ez dugu dokumentaziorik aurkitzen, baina *Aitxustun* era arraro samarra da. Agian aritz-uts-un(e) elkarketatik letorke, baina arriskutsua da-eta, beste lekukotza dokumentalik ezean, bere horretan uztea erabaki da.

Aitzorrotz	id.	Aurkintza	D-6	2004/05/24

Oharrik ez.

Aixpuru	id.	Aurkintza	B-2 B-3	2004/05/24

Oharrik ez.

Aixpuru	id.	Aurkintza	D-6 D-7	2004/05/24

Oharrik ez.

Aizketa	*Aizketa*	Mendia	B-5	2004/02/27

Oharrik ez.

Aizketape	*Aizketape*	Aurkintza	C-5	2004/02/27

Oharrik ez.

Akartegieta	*Akarteitta*	Aurkintza	C-5	2004/02/05

1810ean dokumentatzen da osorik. Bokalarteko -g- hotsaren galera, ieta>ita hiatoa sinpletzea eta ita>itta bustidura, hizkuntza mintzatuaren ezaugarri ezagunak eta jatorrak dira, baina ez dira idazkera jasoan onartzekoak.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Akartegieta	*Akarteitta*	Baserria	C-5	2004/02/05

1810ean dokumentatzen da osorik. Bokalarteko -g- hotsaren galera, ieta>ita hiatoa sinpletzea eta ita>itta bustidura, hizkuntza mintzatuaren ezaugarri ezagunak eta jatorrak dira, baina ez dira idazkera jasoan onartzekoak.

Akondia	id.	Baserria	C-4	2004/05/24

Oharrik ez.

Akondiaeretxaga	*Akondietxa*	Aurkintza	C-4	2004/02/27

1600ean halaxe dokumentatzen da. Bokalarteko -r- eta -g- hotsen erorketa arrunta, eta geminazioen desagerketaren ondorio normala da hizkera azkarrean. Hala ere, dokumentazioan *Acondiache* era jasotzen da (monte conzejil), fetxarik ez dakarren arren, zahar-itxuraz.

Akondiako San Pedro (Done Petri Apostolua)	–	Baseliza	C-4	2004/04/29

San Andres parrokiatik bidalitako informazio ofizialaren ondorioz, hagionimoak lotuta eraman ohi zuen toponimoaren berri izan dugu eta hala jasotzea erabaki da.

Albizuri	id.	Aurkintza	G-2	2004/05/24

Oharrik ez.

Albizuri	id.	Alderdia	C-3 G-2	2004/05/24

Oharrik ez.

Albizuriaurre	id.	Aurkintza	C-2 C-3	2004/05/24

Oharrik ez.

Aldabe	id.	Aurkintza	E-6	2004/05/24

Oharrik ez.

Aldabe	id.	Aurkintza	E-3	2004/05/24

Oharrik ez.

Aldaiak	*Aldaixak*	Alderdia	B-2 B-3	2004/02/05

1524an bere horretan, singularrean ordea, dokumentatzen da. Hiato barruko txistukari epentetikoa (ia>ixa) esan bai, baina ez da idatzi behar.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Aldapa	id.	Aurkintza	B-3	2004/05/24

Oharrik ez.

Aldatseko Errege Santuak	–	Baseliza (desagertua)	–	2004/04/29

San Andres parrokiatik bidalitako informazio ofiziala dela-eta izan dugu ermita honen berri, baina jadanik desagertuta dagoenez, ez errotulatzea erabaki da. Hala ere, izen arautu historikoan, «Aldatseko» izenlaguna gaineratzea erabaki da.

Aldazabal	id.	Aurkintza	B-3	2004/05/24

Oharrik ez.

Aldostea (-a)	*Aldostia*	Aurkintza	C-5	2004/02/05

Leku-izen arraroa da bere horretan. Amaieran ea>ia egitea oso fonetismo arrunta eta automatikoa da ia Euskal Herri osoan, baina bokalarteko -g- baten galera ere izkuta lezake, gero ei>i monoptongazio erraza ekarriz. Hala ere, dokumentaziorik gabe, -aga hori barik uztea erabaki da.

Altamirabekoa (-a)	*Altamira Behekua*	Baserria	F-4	2004/02/05

Toponimo konposatuak, bereziki oikonimoak, bat eginik idatzi behar dira. Hatxerik ez da idatzi behar mendebaleko toponimoetan, generiko arrunt-arruntak ez badira behintzat. Amaierako oa>ua bokalismo arrunt automatikoa ez da idatzi behar.

Altamiraerdikoa (-a)	*Altamira Erdikua*	Baserria	F-4 G-4	2004/02/05

Toponimo konposatuak, bereziki oikonimoak, bat eginik idatzi behar dira. Amaierako oa>ua bokalismo arrunt automatikoa ez da idatzi behar.

Altamiragoikoa (-a)	*Altamira Goikua*	Baserria	G-4	2004/02/05

Toponimo konposatuak, bereziki oikonimoak, bat eginik idatzi behar dira. Amaierako oa>ua bokalismo arrunt automatikoa ez da idatzi behar.

Altun	id.	Aurkintza	D-6	2004/05/24

Oharrik ez.

Altzaga	*Altza*	Baserria	C-4	2004/05/27

1793an *Alzaga* dermioa dokumentatzen da. *Basarrixen* liburuan ere *Altzaga* era agertzen da etxe honetarako.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Altzarte	*Haltzarte*	Aurkintza	E-3	2004/02/05

Toponimian, bereziki mendebaldean, ez da normalean h grafema arautzen, oso hitz generiko eta hedadura zabalekoak ez badira behintzat.

Altzerreka	id.	Baserria	B-3	2004/05/24

Oharrik ez.

Altzerreka	id.	Erreka	B-3	2004/05/24

Oharrik ez.

Altzerreka	id.	Aurkintza	B-3	2004/05/24

Oharrik ez.

Altzeta	Haltzeta	Iturria	F-6	Berria

H-rik ez da arautu behar mendebaldeko toponimoetan.

Altzorbe	–	Erreka	A-3	2004/05/27

Hidronimo hau (Markina-Xemein) ez zegoen toponimoen zerrendan eta gaineratzea erabaki da.

Altzu	*Altzu*	Baserria	D-5	2004/05/27

1810ean Alzua era dokumentatzen da. *Basarrixen* liburuan Altzua era agertzen da eta artikulua eta guzti arautzea ere kontsideratu zen. Hala ere, artikulu hori aspalditik galdua dela dirudi eta bera barik uztea erabaki da azkenik.

Altzualde	id.	Aurkintza	D-5	2004/05/24

Oharrik ez.

Altzubarren	*Altzu-Barren*	Baserria	E-5	2004/02/05

1810ean eta 1857ko *Nomenclátor* delakoan *Alzubarren* dator, baita datarik gabe, zaharragoa izan daitekeen *Alçubarren* era ere dokumentatu dugu. Leku-izen konposatuak bat eginik idatzi behar dira.

Amaña	*Amaña*	Alderdia	F-3	2004/02/27

San Martinek, *Amaña* 1857ko *Nomenclátor* delakoan dokumentatzen dela dio, eta hala da. 1810ean hala ere, *Ambeña* era dokumentatu dugu. *Ambeña>Amaña* aldaketa erraz esplika daiteke -mb- ezpainbikoen bat-egiteaz eta harmonia bokaliko arruntaz. Hala ere, alegiazko fenomeno horien emaitza zahar samarra da eta bere horretan uztea erabaki da. *Basarrixen* liburuan, hala ere, *Anbeña* era agertzen da desagertutako baserrirako.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Amañako Salbatore	–	Parrokia	F-3	2004/04/29

San Andres parrokiatik bidalitako informazio ofiziala dela-eta, parrokia hau ere mapan errotulatzea erabaki da.

Ametzaga	*Ametza*	Alderdia	C-4	2004/05/27

Alderdi bezala dator errotulatuta, baina *Basarrixen* liburuaren arabera *Ametzaga* baserria egon zen inguru horretan eta -aga horrekin arautzea erabaki da.

Amezabalegia-beletxea (-a)	*Amezabalegi Abeletxe*	Baserria	E-3	2004/05/27

Abauntza(ga) izenaren eratorria izan daitekeen *Abanzabalegi* erarekin nahas daiteke dokumentazioa begiratuta. 1498an jadanik Amezabalegi dokumentatzen da-eta (Onomasticon Vasconiae, 21), Juan San Martinekin batera, bere horretan uztea hobetsi da. Gainera, oikonimo konposatuak bat eginik idatzi behar dira. *Basarrixen* liburuaren arabera, ahozko erabilerak artikulua darama: «-abeletxia» alegia. Ondorioz, artikuludun *Amezabalegiabeletxea* arautzea erabaki da.

Amezabalegibekoa	*Amezabalegi*	Baserri erdia	E-3	2004/07/19

Abauntza(ga) izenaren eratorria izan daitekeen *Abanzabalegi* erarekin nahas daiteke dokumentazioa begiratuta. 1498an jadanik *Amezabalegi* dokumentatzen da-eta (Onomasticon Vasconiae, 21), Juan San Martinekin batera, bere horretan uztea hobetsi da. *Basarrixen* liburuaren arabera behekoa eta goikoa daude, etxe bereko atal bi izanik.

Amezabalegigoikoa	*Amezabalegi*	Baserri erdia	E-3	2004/07/19

Abauntza(ga) izenaren eratorria izan daitekeen *Abanzabalegi* erarekin nahas daiteke dokumentazioa begiratuta. 1498an jadanik *Amezabalegi* dokumentatzen da-eta (Onomasticon Vasconiae, 21), Juan San Martinekin batera, bere horretan uztea hobetsi da. *Basarrixen* liburuaren arabera behekoa eta goikoa daude, etxe bereko atal bi izanik.

Amezti	id.	Aurkintza	D-3 E-3	2004/05/24

Oharrik ez.

Amezti	id.	Aurkintza	E-2	2004/05/24

Oharrik ez.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Amurutegi	*Amuategi*	Aurkintza	B-2	2004/06/29

Basarrixen liburuaren arabera inguru honetan badago *Amurutegi* (*Amutei*) izeneko etxea, txabola eginik. Beste dokumentaziorik aurkitu ez arren, era osatua onartu da.

Andirao	id.	Baserria	D-5 D-6	2004/05/24

Oharrik ez.

Andirao	id.	Aurkintza	C-5	2004/05/24

Oharrik ez.

Apalategi	id.	Alderdia	E-6	2004/05/24

Oharrik ez.

Apalategiburu	id.	Aurkintza	E-6	2004/05/24

Oharrik ez.

Arana (-a)	Arane	Aurkintza	F-4	2004/02/05

Era jatorra *Arana* da, etimo argikoa. Deklinatzean, ordea *Arana*, *Aran(e)an*, *Aranetik*, *Araneko*, *Aranera* egin behar da, kontsonante+artikulua baititu amaieran eta deklinabide-paradigmek hala eskatzen dutelako. Horren ondorioz, mendebal osoan -e paragogikoak ihartzen hasi dira, baina XX. mende erdialdeko gertakaria da eta ez da idazkera arautuan islatu behar. Beraz, jatorrizko artikuludun era onartu da.

Aranbaltz	*Aranbaltz*	Erreka	G-5	2004/05/27

Hidronimo hau ez zetorren toponimoen zerrendan eta gaineratzea erabaki da.

Arando	id.	Etxe-taldea	C-2	2004/05/24

Oharrik ez.

Arandoaurtena (-a)	*Arando Aurtena*	Baserria	B-2	2004/02/05

Leku-izen konposatuak bat eginik idazten dira, bereziki oikonimoak. Oso ondo dokumentaturik daude etxe hauek.

Arandobarrena (-a)	*Arando Barrena*	Baserria	B-2	2004/02/05

Leku-izen konposatuak bat eginik idazten dira, bereziki oikonimoak. Oso ondo dokumentaturik daude etxe hauek.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua

Arandoetxebarri *Arando Etxaberri* Baserria B-2 2004/02/05

Leku-izen konposatuak bat eginik idazten dira, bereziki oikonimoak. Oso ondo dokumentaturik daude etxe hauek. Pentsatzekoa da, hasieran errotulatu zen *Etxaberri* era akatsa zela, dokumentazioan (baita inguru horretako euskalkian ere) Etxebarri baita normala, ez ekialdeko airea luketen *Etxeberri* edo *Etxaberri*.

Arandoguena (-a) *Arando Guena* Baserria B-2 2004/05/27

Leku-izen konposatuak bat eginik idazten dira, bereziki oikonimoak. Oso ondo dokumentaturik daude etxe hauek. Arau bezala «guena» era arautzea proposatzen dugu, baina «goena» jatorragoa ere kontsidera liteke, oa>ua aldaketa ez ohi delako idatzi behar. Hala ere, kasu honek badu nolabaiteko tradizio onomastikoa (*Bizkarguenaga*, *Guenaga*…). Hartzen den bidea hartzen dela, kasu guztietan berdin egitea ezinbestekoa da. *Basarrixen* liburuan *Arando Goenaga* dator, baina *Goenaga* hori jabearen abizena da eta agian nahastu dira gauza biok. Deitura hori, gainera, ez da Eibarkoa eta *-guena* uztea erabaki da.

Arandoiturralde *Arando Itturralde* Baserria B-2 2004/02/05

Leku-izen konposatuak bat eginik idazten dira, bereziki oikonimoak. Oso ondo dokumentaturik daude etxe hauek. Bustidura hori, ahoz bai, baina ez da idazkeran arautu behar.

Arantzategi id. Erreka C-6 2004/05/24

Oharrik ez.

Arbillaga id. Alderdia A-2 2004/05/24

Oharrik ez.

Ardantza id. Aurkintza E-6 2004/05/24

Desagertutako baserri legez dator *Basarrixen* liburuan, baina aurkintza honetatik askoz mendebalderago.

Arestibaltz id. Aurkintza G-2 G-3 2004/05/24

Oharrik ez.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Arestizabal	id.	Aurkintza	E-3	2004/05/24

Oharrik ez.

Areta	*Areta*	Baserria	G-5	2004/05/27

Basarrixen liburuan *Areeta* era agertzen da, 1508an hala dokumenta daiteke-eta. Hala ere, 1810ean jada *Areta* jasotzen da eta honela uztea erabaki da.

Areta	*Areta*	Etxe-taldea	G-5	2004/05/27

Basarrixen liburuan *Areeta* era agertzen da 1508an hala dokumenta daiteke-eta. Hala ere, 1810ean jada *Areta* jasotzen da eta honela uztea erabaki da.

Aretaabeletxe	*Areta Abeletxe*	Baserria	G-5	2004/05/27

Basarrixen liburuan *Areeta* era agertzen da 1508an hala dokumenta daiteke-eta. Hala ere, 1810ean jada *Areta* era jasotzen da eta geminazio hura ez jasotzea erabaki da. Hala ere, toponimo konposatuak, bereziki oikonimo direnean, bat eginik idatzi behar dira.

Arexitabekoa (-a)	*Arikitxa Behekua*	Baserria	E-6	2004/02/05

Oso ongi dokumentatuta daude baserri hauek, bai 1810ean eta bai 1857ko *Nomenclátor* delakoan. Gaurko ahoskerak toponimoak apur bat izkutatzen dituen arren, oso fenomenu arrunt eta automatikoak dira gertatutakoak. Bokalismoa e>i, hurrengo bokalaren imitazio edo harmoniaz gertatzen da eta oso ohikoa da. Kontsonantismoen artean, lehenengoa j hotsak planteiatzen dituen arazoen ondorio da. Jatorriz, *Arejita* dago atzean, baina mendebaldeko zenbait hizkeratan j hotsarentzako zailtasuna egon da eta ohiko mintzairan k ahoskatzen soluzionatu ohi da (*kilgerua*, *kertsea*, *kepia*…). Hala ere, euskal tradizioan eta, beraz, idazkera arautuan x izaten da soluziorik garbiena. Bestalde, -i- bokalaren ondoko ita>itxa bustidura, fenomenu automatikoa besterik ez da eskualde horretan, baina ez hemen bakarrik, oso bizirik dirauena. Azkenik, -h- letrarik ez da idatzi behar mendebaldeko toponimoetan, oikonimo konposatuak bat eginik idatzi behar dira, eta amaierako oa>ua bokalismo arrunta ez da islatu behar idazkera jasoan.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Arexitagoikoa (-a)	*Arikitxa Goikua*	Baserria	E-6	2004/02/05

Oso ongi dokumentatuta daude baserri hauek, bai 1810ean eta bai 1857ko Nomenclátor delakoan. Gaurko ahoskerak toponimoak apur bat izkutatzen dituen arren, oso fenomenu arrunt eta automatikoak dira gertatutakoak. Bokalismoa e>i, hurrengo bokalaren imitazio edo harmoniaz gertatzen da eta oso ohikoa da. Kontsonantismoen artean, lehenengoa j hotsak planteiatzen dituen arazoen ondorio da. Jatorriz, *Arejita* dago atzean, baina mendebaldeko zenbait hizkeratan j hotsarentzako zailtasuna egon da eta ohiko mintzairan k ahoskatzen soluzionatu ohi da (*kilgerua*, *kertsea*, *kepia*…). Hala ere, euskal tradizioan eta, beraz, idazkera arautuan x izaten da soluziorik garbiena. Azkenik ita>itxa aldaketa, -i- bokalaren ondoko bustidura automatikoa besterik ez da, eskualde horretan, baina ez bakarrik, oso bizirik dirauena. Oikonimo konposatuak bat eginik idatzi behar dira, baina amaierako oa>ua bokalismo arrunta islatu gabe.

Argiñao	id.	Baserria	D-6	2004/05/24

Oharrik ez.

Aritxulueta	id.	Baserria	E-3	2004/05/24

Basarrixen liburuan *Aritxuloeta* era estandarizatzailea agertzen zen arren, dokumentazio guztiak dakar -zulueta amaiera (1846, 1927), tradizio onomastiko ugaria duena (*Zuluaga*, *Zulueta*…).

Aritxuluetabarri	*Aritxulueta Barri*	Baserria	E-3	2004/02/05

Izen hau ondo dokumentatuta dago 1846an eta 1857ko *Nomenclátor* delakoan. Hala ere, toponimo konposatuak, batez ere oikonimoak, bat eginik idatzi behar dira. Amaierako -zuloeta > -zulueta aldaketak badu tradizio onomastiko ugaria (*Zulueta*, *Zuluaga*…).

Aritzaga	id.	Aurkintza	D-6	2004/05/24

Oharrik ez.

Arizbakar	*Haritzbakar*	Aurkintza	F-5	2004/02/27

Toponimian, bereziki mendebaldean, ez da h grafema arautzen, oso hitz generiko eta hedadura zabalekoak ez badira. Elkarketaren ondoriozko talde kontsonantikoa sinpletu beharrekoa da (ezinezkoa da -tzb- ahoskatzea), eta horretarako erarik arruntena lehenengo hotsa desafrikatzea izaten da (v.g. Zarautz > Zarauzkoa). Hala jasotzen da toponimo honen 1537ko bi testigantzetan, gainera -aga atzizkia daramatenak. Hala ere, oso lekukotza zaharra da eta hura bako era arautzea hobetsi da bileran. Ahoz -tzb- taldea jaso zela esan da bileran, baina hori hizkera arruntean sinesgaitz samarra da, hala ere.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Arizmendi	*Arizmendi*	Baserria	D-6	2004/02/27

1525 Arexmendi era jator mendebaldarra dokumentatzen den arren, badirudi azken aldian ekialdeko aireen eragina nabari dela halako eretan. Hala ere, *Arexmendi* hori ez dagokio baserri bati. Kontrara 1810eko *Arimendi* bat dokumentatzen da, eta hala agertzen dira baserri hauek 1857ko *Nomenclátorrean* ere: *Arimendi* eta *Arimendi-goena*. Ahoz ere *Arimendi* ohikoa den arren, txistukaridun forma arautzea hobetsi da.

Arizmendi	*Arizmendi*	Etxe-taldea	D-6	2004/02/27

1525 *Arexmendi* era jator mendebaldarra dokumentatzen den arren, badirudi azken aldian ekialdeko aireen eragina nabari dela halako eretan. Hala ere, *Arexmendi* hori ez dagokio baserri bati. Kontrara 1810eko *Arimendi* bat dokumentatzen da, eta hala agertzen dira baserri hauek 1857ko *Nomenclátorrean* ere: *Arimendi* eta *Arimendi-goena*. Ahoz ere *Arimendi* ohikoa den arren, txistukaridun forma arautzea hobetsi da.

Arizmendiguena (-a)	*Arizmendi Guena*	Baserria	D-6	2004/05/27

1525 *Arexmendi* era jator mendebaldarra dokumentatzen den arren, badirudi azken aldian ekialdeko aireen eragina nabari dela halako eretan. Hala ere, *Arexmendi* hori ez dagokio baserri bati. Kontrara 1810eko *Arimendi* bat dokumentatzen da, eta hala agertzen dira baserri hauek 1857ko *Nomenclátorrean* ere: *Arimendi* eta *Arimendi-goena*. Ahoz ere *Arimendi* ohikoa den arren, txistukaridun forma arautzea hobetsi da. Dena bat eginik idatzi behar da, toponimo konposatu guztiekin egin ohi den moduan. *Basarrixen* liburuan *Arizmendi Goenaga* era agertzen zen, -aga hori inon ere dokumentatzen ez den arren.

Arizpe	*Agina-Aizpe*	Baserria	B-2	2004/02/27

1783tik aurrera ere, eta 1857ko *Nomenclátor* delakora arte, *Aginaga* era agertzen da, ahoskera arruntean bokalarteko -g- hotsa galtzen duena. Juan San Martinek ondo dokumentatzen du *Arizpe* era 1625ean (Isasti) eta deitura moduan 1668an, *Aginaga-Arizpe* era proposatuz. Hala ere, erabilera arruntari kasu eginik, *Aginaga-* hasiera gabeko era onartzen da arautu gisa.

Arizti	id.	Alderdia	F-2	2004/05/24

Oharrik ez.

Ariztizabal	*Aristizabal*	Aurkintza	E-2	2004/05/27

Ariz- hasiera onartuta, -z- txistukaria jartzea erabaki zen. Bestelako aukera Arestizabal era mendebaldarrera itzultzea litzateke, baina ez da onartu.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Ariztizabal	*Aristizabal*	Aurkintza	F-5	2004/05/27

Ariz- hasiera onartuta, -z- txistukaria jartzea erabaki zen. Bestelako aukera *Arestizabal* era mendebaldarrera itzultzea litzateke, baina ez da onartu.

Arkatxa (-a)	*Harkatxa*	Aurkintza	D-3	2004/02/05

Toponimian, bereziki mendebalean, ez da h grafema arautzen, oso hitz generiko eta hedadura zabalekoak ez badira. 1778an dokumentatua eta eratorrien sortzaile kausitzen dugu izen hau (*Arkaspe*…).

Arlaban	id.	Baserria	D-4	2004/05/24

Basarrixen liburuak behekoa eta goikoa bereizten ditu, eraikin bat bakarra osatzen duten arren.

Arlabanburu	*Arlaban-buru*	Aurkintza	D-4	2004/05/27

Gidoirik ez eta elkarrekin idaztea arautzea erabaki da.

Arlasta	*Harlasta*	Aurkintza	F-5 F-6	2004/02/05

Toponimian, bereziki mendebalean, ez da h grafema arautzen, oso hitz generiko eta hedadura zabalekoak ez badira. 1846an dokumentatzen dugu izen hau.

Arpide	*Harpide*	Aurkintza	D-6	2004/02/05

Toponimian, bereziki mendebalean, ez da h grafema arautzen, oso hitz generiko eta hedadura zabalekoak ez badira.

Arraieta	*Arraitta*	Aurkintza	B-2	2004/02/05

Ez dugu dokumentatzen, baina badirudi horren ostean aie>ai sinpletzea eta ondoriozko ohiko bustidura daudela. Idazkeran arautu behar ez diren fenomenuak dira biak eta jatorrizkora jotzea onartu da.

Arrajola	*Arrajola*	Aurkintza	E-3	2004/02/27

San Martinek 1601ean *Ayarrola* era dokumentatzen da, baita 1857ko *Nomenclátorreko Arrajola*. 1810ean *Arrajola* ere badator. San Martinen lehenengo aipua, zaharrena, metatesi edo akatsa izan daiteke. Hala ere, era honek, baita 1928an dokumentaturiko *Arrayola* erak, erakusten digute zein izan behar den ahoskera zuzena. Tradizioa hori izan ez balitz, gaur *Arraxola* izango genuke seguru asko. Ez dugu nahastu behar *Arrazola* aurkintzaren izenarekin (Baserri zaharra, F-5).

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Arrajola	*Arrajola*	Baserria	E-3	2004/02/27

San Martinek 1601ean *Ayarrola* era dokumentatu du, baita 1857ko *Nomenclátorreko Arrajola*. 1810ean *Arrajola* ere badator. San Martinen lehenengo aipua, zaharrena, metatesi edo akatsa izan daiteke. Hala ere, era honek, baita 1928an dokumentaturiko Arrayola erak, erakusten digute zein izan behar den ahoskera zuzena. Tradizioa hori izan ez balitz, gaur *Arraxola* izango genuke seguru asko. Ez dugu nahastu behar *Arrazola* aurkintzaren izenarekin (Baserri zaharra, F-5).

Arramendi	id.	Alderdia	D-5 D-6	2004/05/24

Oharrik ez.

Arraoz	id.	Aurkintza	H-4	2004/05/24

Oharrik ez.

Arraska	id.	Aurkintza	D-4	2004/05/24

Oharrik ez.

Arraskazulo	*Arrazka-zulo*	Aurkintza	H-5	2004/02/05

Toponimo konposatuak bat eginik idatzi behar dira. Leherkari aurreko txistukariak (s-k) beti jo ohi dute s-ra, baina kasu honetan gure ustez, gainera, badaude arrazoi etimologikoak (harri-aska).

Arrate	id.	Mendia	C-6 D-6	2004/05/24

Oharrik ez.

Arrate	id.	Auzunea	D-6	2004/05/24

Oharrik ez.

Arratebekoetxe (Kantabria jatetxea)	*Kantabria jatetxea*	Jatetxea	D-6	2004/05/27

Basarrixen liburuan etxearen jatorrizko izena *Arrate-Bekoetxe* zela esaten da eta jasotzea onartu da, nahiz parentesi artean oraingo jatetxearen izena ere agertarazi.

Arrateko Ama (Andra Maria Sortzez Garbia)	*Arrate Santutegia*	Santutegia	D-6	2004/04/29

Generikoa kentzeaz gainera, herri erabileran bizirik dirauen era jasotzea erabaki da, parentesi artean adbokazio normaldu osoa gaineratuz.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Arrateko kolonia	*Kolonia*	Aterpetxea	D-5 D-6	2004/07/01

Ez da izen toponimikoa, generikoa baizik. Hala ere, izena osatzea erabaki da, tradizio handikoa da-eta.

Arrazola	id.	Aurkintza	F-5	2004/05/24

Basarrixen liburuak jausitako baserri legez dakar.

Arribillaga	id.	Aurkintza	C-5 C-6	2004/05/24

Oharrik ez.

Arrikurutz / Akondiagaina (-a)	*Harrizkurutz*	Mendia	B-4	2004/06/29

Toponimian, bereziki mendebalean, ez da h grafema arautzen, oso hitz generiko eta hedadura zabalekoak ez badira. 1927an *Arricruz* dokumentatzen da eta Arrikurutz arautzea da zuzenena, hala egin zuen-eta Euskal Mendizale Federakundeak, bere katalogoko Gipuzkoako 22 zenbakia daraman *Arrikurutz/Akondia* mendiarekin, Onomastika batzordearen onespenaz . Instituto Geográfico y Catastral delakoaren mapako 63. orrian (1954) *Arriscocurrichea* era desitxuratua agertzen da, atzean *Arrizko kurutzea* egitura dagoela erakusten duena. Horretan oin hartuta, eta gaur egun ere -z- bat behintzat ahoskatzen dela-eta, *Arrizko kurutz* proposamena egin da, baina ez da onartu. *Akondia* eta *Arrikurutz* izenak bereiztea proposatu den arren, harrizko kurutze hori Akondiagaina tontorretik hamar metro eskasetara dago (inola ere ez, mapak aditzera ematen duen distantziara) eta ez dirudi zentzu handia duenik bereizketa hori egiteak. Toponimoa errazagoa (eta ofiziala) dela-eta, *Arrikurutz* grafia onartzea erabaki da. Beste alde batetik, *Akondia* izenak hedadura zabala du eta objektu asko izendatzeko erabili ohi da. Mendi honen izenean, ondo dokumentatzen den-gaina generikoaz arautzea erabaki da.

Arritarte	*Harrittarte*	Aurkintza	F-5 F-6	2004/02/05

Toponimian, bereziki mendebalean, ez da h grafema arautzen, oso hitz generiko eta hedadura zabalekoak ez badira. Erdiko bustidura ere ez da arautu behar.

Arrobia (-a)	*Harrobixa*	Aurkintza	G-4	2004/02/27

Toponimoa baldin bada, hatxerik gabe idatzi behar dela, uste izan dugu. Harrobi baten adierazpen generikoa balitz, ordea, hitz «batua» erabil liteke, bere letra guztiekin. Kontuan izan bedi, toponimo legez XVIII. mendetik dokumentatzen dela Eibarren.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Arroeta	*Arrueta* (Mallabia)	Aurkintza	B-1	2004/02/05

Ez dugu dokumentaziorik aurkitzen, baina etimoa argia dela ematen du eta oe>ue itxitura automatikoa dagoela, normalean arautzen ez dena.

Artaluze	id.	Aurkintza	E-1 E-2	2004/05/24

Oharrik ez.

Artatxueta	id.	Aurkintza	G-3	2004/05/24

Oharrik ez.

Asola	id.	Etxe taldea	E-4	2004/05/24

Oharrik ez.

Asolaazpikoa (-a)	*Asola Azpikua*	Baserria	E-4	2004/06/29

Toponimo konposatuak, bereziki oikonimoak, bat eginik idatzi behar dira. Badirudi *Aize-ola* elkartetik heldu dela, baina mendebaldean *Axen* era ere arautu liteke. 1810, 1846 eta 1854an etxe hauek -s- txistukariaz dokumentatzen diren arren, 1857ko *Nomenclátorrean Azola* era datorrela ohartarazi behar da. Amaierako oa>ua itxitura mintzairan ohikoa izan arren, ez da idazkera arautura eraman behar.

Asolabarri	*Asola Barri*	Baserria	E-4	2004/05/27

Elkarrekin ez idazteko arrazoirik ez dago.

Asolabarri	*Asola-Berri Elkartea*	Etxea	E-5	2004/05/27

Basarrixen liburuak *Asola Berri* izena ematen dion arren, ahoz *Asola* barri jasotzen dela ematen da aditzera. Gainera baserri bezala dator, ez elkarte huts legez. Ez dago bereiz idazteko arrazoirik.

Asolagainekoa (-a)	*Asola Gainekua*	Baserria	D-4 E-4	2004/02/05

Toponimo konposatuak, bereziki oikonimoak, bat eginik idatzi behar dira. Badirudi *Aize-ola* elkartetik heldu dela, baina mendebaldean *Axe* era ere arautu liteke. 1810, 1846 eta 1854an etxe hauek -s- txistukariaz dokumentatzen diren arren, 1857ko *Nomenclátorrean Azola* era datorrela ohartarazi behar da. Amaierako oa>ua itxitura mintzairan ohikoa izan arren, ez da idazkera arautura eraman behar.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Asolaigartza	–	Etxea	E-4 F-4	2004/06/29

Basarrixen liburuan dator baserri hau, gaur egun etxe bihurtua eta kalearten apur bat izkutatua. Hala ere ondo kokatu eta errotula liteke.

Asolaurre	id.	Aurkintza	E-4	2004/05/24

Oharrik ez.

Asolia (-a)	*Asolixa*	Aurkintza	F-6	2004/06/29

Hiatoan tartekaturiko x hori ez da arautu behar. Dena dela, toponimo arraroa da eta ez dugu laguntza dokumentalik aurkitu. Haren atzean *Aize-olea* dagoela pentsa liteke, eta ondorioz *Asolea* arautu, baina ea>ia egiten denean, ez da batere normala ondoren ia>ixa fonetismoa. Biok dira oso automatikoak, baina hiztunek ez dituzte normalki nahasten. Daturik ezean, *Asolia* era arautzea hobetsi da.

Astabizkar	id.	Aurkintza	D-3	2004/05/24

Oharrik ez.

Asurtza	–	Baserria	H-5	2004/07/19

Baserria Eibarko dermiotik kanpo dagoen arren (Bergaran dago) eta hasierako zerrendetan ez zegoen arren, gaineratzea erabaki da.

Asurtza	id.	Iturria	H-4 H-5	2004/05/24

Oharrik ez.

Asurtza	id.	Alderdia	H-4	2004/05/24

Oharrik ez.

Asurtzaburu	id.	Aurkintza	H-4	2004/05/24

Oharrik ez.

Ataiaurre	id.	Aurkintza	C-6	2004/05/24

Oharrik ez.

Atxeko tontorra (-a)	*Hatxeko tontorra*	Aurkintza	D-3	2004/02/27

1810ean *Acha* eta 1808an *Robledal de Achaga* dokumentatzen diren aldetik, pentsa liteke hasierako lexemak bokalarteko -g- hotsa galdu duela. Ondorioz, deklinabidea lotzeko -e- epentetikoa jartzea, herri-etimologiaren ondorio litzateke. Hala ere, ez dago argi leku berberaz ari ote garen, eta *Atxeko tontorra* (Atx-a + ko + tontorra) egitura arrunta bere horretan uztea hobetsi da.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Atxekoa (-a)	*Atxekua*	Baserria	B-2	2004/05/27

Achicúa izeneko etxe bi agertzen dira 1857ko *Nomenclátorrean*. Bokalismoan atzera egin eta i>e (seguraski herri-etimologiak bultzatua), eta oa>ua automatikoa ez arautzea izan da gure proposamena. *Basarrixen* liburuan, hala ere, *Atxa* era hutsa agertzen da.

Auntzarte	id.	Aurkintza	D-2	2004/05/24

Oharrik ez.

Auntzesieta	*Antxusitta*	Aurkintza	F-5	2004/02/05

Datarik gabeko *Auncesieta* erak argitzen digu izen honen etimo izkutua. Bokal metatesia u-e>e-u eta lehenengoaren galera gertatu da alde batetik. Gero, -ieta amaieran hiatoa sinpletu eta bustidura egitea, zeharo automatikoa dugu inguru honetako hizkeran: ieta>ita>itta. Hala ere, ez dira idazkerara eramateko gertakariak eta era etimologikoa onartu da.

Aurreko aldapa	id.	Aurkintza	B-2	2004/05/24

Oharrik ez.

Azaldegiazpikoa (-a)	*Azaldegi Azpikua*	Baserria	E-4 E-5	2004/05/27

Basarrixen liburuan *Azaldegi Azpikoa* era banatua agertzen da, baina lotuta idatzi behar da, batez ere oikonimoa izanik.

Azaldegigainekoa (-a)	*Azaldegi Gainekua*	Baserria	E-4	2004/05/27

Basarrixen liburuan *Azaldegi Gainekoa* era banatua agertzen da, baina lotuta idatzi behar da, batez ere oikonimoa izanik.

Azitain	–	Etxea	E-5	2004/05/27

Basarrixen liburuan, ermita ondoan dagoen eraikina ere seinalatzen da, jatorriz serora-etxea izan zena eta gaur «*Azittain* tabernia» dena.

Azitaingo Andra Mariaren Jasokundea (-a)	*Azitaingo Andra Maria*	Parrokia	E-5	2004/04/29

San Andres parrokiatik bidalitako informazio ofizialaren ondorioz, lehen *Azitaingo Andra Maria* bezala geneukan parrokiaren izena osoagotzea erabaki da.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Azitaintxopenekoa (-a)	–	Etxea	E-5	2004/05/27

Azitain Txoperena (ahoz «Txopenekua») agertzen da *Basarrixen* liburuan inguru honetan, etxe bihurtuta dagoela esanik. Hala ere, mendebaleko euskaran, etxeak izendatzeko atzizkia -ena da, ez -rena, aurreko hizkia bokala denean ere.

Azkonabieta	*Azkonabitta* (Markina-Xemein)	Aurkintza	A-3	2004/02/05

Hiatoaren sinpletzea ie>i eta ondoriozko bustidura, inguru horretako hizkeraren ezaugarriak dira, baina ez dira idazkerara eraman behar. Izen hau, Gipuzkoako 29. tontorra Euskal Mendizale Federakundeko katalogoan, Batzordeak arautu zuen aspaldian eta hala dator bere zerrendetan.

Azpiri	Azpiri	Baserria	D-4	2004/05/27

1810ean *Azpiri* dokumentatzen da, baina *Basarrixen* liburuak *Aizpiri* era dakar eta berau kontsideratu ondoren, bere hartan uztea erabaki da.

Babalapiko	id.	Aurkintza	C-5 C-6	2004/05/24

Oharrik ez.

Baiarao	*Baixora*	Alderdia	C-5	2004/02/05

Oso dokumentaturik dator toponimo hau XVIII. mendean zehar proposatzen dugun moduan. Gainera Baierao bokale itxitura normala duen aldaera ere agertzen da, aurreko i- bokalak eraginik. Hiatoaren sinpletze ohikoa ao>o eta bokal metatesia a-o>o-a gertatu ondoren, -io- hiatoaren erdian epentesi tipikoa egiten da ahoz, io>ixo, baina fenomeno horiek ez dira idazkera jasoan islatu behar.

Barrenetxe	*Barrenetxe*	Baserria	D-6	2004/05/27

Basarrixen liburuan artikulua eta guzti ematen da: *Barrenetxea*. Hala ere, ez dugu beste inon dokumentatzen eta erabileran aspaldi galdua dela ematen duenez gero, bera barik arautzea onartu da.

Barrundi	*Barrundi*	Baserria	E-6	2004/05/27

Basarrixen liburuan *Barrundia* era ematen da, artikulua eta guzti. Hala ere, ez dugu beste inon dokumentatzen eta erabileran aspaldi galdua dela ematen duenez gero, bera barik arautzea onartu da.

Barrutia	id.	Aurkintza	E-2	2004/05/24

Oharrik ez.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Barrutia (-a)	*Barrutixa*	Aurkintza	B-3	2004/02/05

Hiatoan tartekaturiko x epentetiko hori ez da arautu behar.

Basategi	id.	Aurkintza	D-5	2004/05/24

Oharrik ez.

Basausi	*Basauzi*	Aurkintza	C-6	2004/02/05

Haren ostean ausi (hautsi) egon litekeela ematen du. Nolanahi ere, ez dugu z idazteko arrazoirik ikusten, duda barik ez baita hala ahoskatuko.

Basobaltz	id.	Aurkintza	C-5	2004/05/24

Oharrik ez.

Bekoetxea	*Bekotxia*	Aurkintza	B-2	2004/05/27

San Martinek etxe bat dokumentatzen du *Nomenclátor* delakoan (1857) *Bekoeche* izenduna (ahoz *Bekoetxe* bere esanetan), eta hala dokumentatzen dugu laneko bilduman 1810ean. 1871n *Becuechea* era jaso da. Argi dago artikulua ez dagoela oraindik galduta, eta ondorioz eutsi behar zaio. Hala ere, kontsidera liteke mapatik kentzea, *Basarrixen* liburuaren arabera desagertutako etxea da-eta.

Bergara	id.	Udalerria	H-5	2004/05/24

Oharrik ez.

Berretxinagabekoa	*Berretxiña*	Baserri erdia	C-4	2004/07/19

1776an, 1784an (V- hasieraz) eta 1857ko *Nomenclátor* delakoan ondo dokumentatua dago, mintzaira arruntean bokalarteko -g- hotsa galdu eta aa>a sinpletzea pairatu duen izen hau. Bustidura hori (in>iñ) idaztea kontsidera liteke, baina idatzizko lekukotza biek -n- daramate. *Basarrixen* liburuan goikoa eta bekoa bereizten dira, eraikin bat bakarra osatzen duten arren.

Berretxinagagoikoa	*Berretxiña*	Baserri erdia	C-4	2004/07/19

1776an, 1784an (V- hasieraz) eta 1857ko *Nomenclátor* delakoan ondo dokumentatua dago, mintzaira arruntean bokalarteko -g- hotsa galdu eta aa>a sinpletzea pairatu duen izen hau. Bustidura hori (in>iñ) idaztea kontsidera liteke, baina idatzizko lekukotza biek -n- daramate. *Basarrixen* liburuan goikoa eta bekoa bereizten dira, eraikin bat bakarra osatzen duten arren.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Biotzate	*Bihotzete*	Aurkintza	D-6	2004/06/29

Ez dugu dokumentaziorik aurkitzen, baina -ate amaiera nonbait jasotzen dela esan da bileran datua zahaztea posible izan ez dela.

Biriñao	id.	Baserria	D-5	2004/05/24

Oharrik ez.

Bizkaia	id.	Herrialdea	D-2	2004/05/24

Oharrik ez.

Bizkaia	id.	Herrialdea	H-2	2004/05/24

Oharrik ez.

Bizkartegi	id.	Alderdia	D-4	2004/05/24

Izen honetako baserria egon zen paraje honetan, *Basarrixen* liburuaren arabera.

Bolingoa (-a)	*Bolingua*	Baserria	F-4	2004/02/05

Amaierako hiatoaren itxitura, oa>ua alegia, arrunta eta aspaldikoa da euskaraz, ia barietate guztietan. Hala ere, ez da idazkeran jaso behar.

Bolunegi	id.	Aurkintza	B-3	2004/05/24

Oharrik ez.

Burrukaleku	id.	Aurkintza	G-3	2004/05/24

Oharrik ez.

Buztiniturri	*Buztinitturri*	Aurkintza	C-5	2004/02/27

Bustidura hori ahoz egitea ez dago gaizki, baina ez da maila idatzi arautura eraman behar. Kontsidera liteke ere Bustin- hasiera -s- grafiaz ematea, halakoa baita mendebaldeko tradizioa, bereziki onomastikoa (*Bustinza*, *Bustinzuri*…). Hala ere, grafia etimologikoa ere ontzat eman daiteke, eta hala hobetsi da.

Buztinitxi	*Buztinitxi*	Aurkintza	D-3 D-4	2004/02/27

Ez dugu dokumentaziorik aurkitzen. *Buztin-* hasiera duten izenek onomastikan -s- idazkera dute tradizionalki (*Bustinza*, *Bustinzuri*…). Eibarren bertan Bustinzuria izena dokumenta daiteke. Hala ere, idazkera biok izango lirateke arauzkoak *Eibarko Hiri-toponimia*. Onomasticon Vasconiae, 13an hasiera hori duten hiru toponimo datoz eta hirurentzako proposamenak -z- darama. Mapa honetan ere Buztiniturri arautu dugunez gero, onena -z- etimologikoa uztea dela ematen du eta hala onartu da. Amaiera hori beste zerbaiten korrupzioa izan liteke, agian herri-etimologiak bultzaturik (-etxe, -atxu…).

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Egazelai	–	Etxea (Baserri zaharra)	F-4	2004/06/29

Basarrixen liburuak dakarren etxe berria da. Izena Eusebio Urienek jarri zion 1945ean eraiki zuenean. Kontsidera liteke kokatu eta mapan errotulatzea. Jabeak izena ipini ei zion, ondoko zelai batean hegazkin bat jausi zelako.

Egiako San Martin (Done Martie Tourskoa)

San Martin	Baseliza	E-6	2004/04/29

San Andres parrokiatik bidalitako informazio ofizialaren ondorioz, hagionimoak lotuta eraman ohi duen toponimoaren berri izan dugu eta jasotzea erabaki da.

Egiguren	*Eguren*	Baserria	E-6	2004/02/27

Ikus ere, F-6an araututako *Egigurenabeletxe*, zenbait zerrendatan oraindik *Eguren Abeletxe* agertzen dena. 1810ean *Egiguren* dokumentatzen da. 1857ko *Nomenclátorrean Eguren* eta *Eguren-abeleche* datoz. Azkenik San Martinek ondo dokumentatzen du *Egiguren* hau eta bere era osoa jasotzea dirudi zuzenena, *Egigurenabeletxe* izenarekin bikote eginda.

Egigurenabeletxe	*Egiguren Abeletxe*	Baserria	F-6	2004/02/05

Leku izen konposatuak bat eginda idatzi behar dira, bereziki oikonimoak. Ikus *Egiguren*.

Egiluze	*Hegiluze*	Aurkintza	G-5	2004/05/27

Hatxerik ez da jaso behar mendebaldean era arautuetan, betiere baldin toponimoak badira.

Egitxo	*Hegitxo*	Aurkintza	D-5	2004/02/05

Toponimian, bereziki mendebaldean, ez da h grafema arautzen, oso hitz generiko eta hedadura zabalekoak ez badira.

Egizabal	*Hegizabal*	Aurkintza	C-2	2004/02/05

Toponimian, bereziki mendebaldean, ez da h grafema arautzen, oso hitz generiko eta hedadura zabalekoak ez badira.

Egunoak	*Egunuak*	Aurkintza	C-5	2004/04/29

Ez dugu apenas dokumentaziorik aurkitzen. Gaztelaniaz ere «unos» edo «egunos» erabiltzen omen da «herribaso» antzeko zerbait adierazteko eta euskaraz -oak amaiera arautzea erabaki da honenbestez.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua

Egunoak *Egunuak* Alderdia D-4 2004/04/29

Ez dugu apenas dokumentaziorik aurkitzen. Gaztelaniaz ere «unos» edo «egunos» erabiltzen omen da «herribaso» antzeko zerbait adierazteko eta euskaraz -oak amaiera arautzea erabaki da honenbestez.

Egurtzegi *Egurtegi* Aurkintza D-6 2004/05/27

Egurtzegi eta *Egurtzategi* erak dokumentatzen omen dira eta bietarik lehenengoa arautzea erabaki da, erabileratik hurbilago.

Eizkoaga id. Baserria E-5 F-5 2004/05/24

Ahoz *Izkua* jasotzen den hau, *Eizkoaga* legez dator *Basarrixen* liburuan, 1585 eta 1810ean dokumentatua.

Elexoste *Elixoste* Aurkintza B-2 2004/05/27

Elexoste edo *Elizoste* ere posible lirateke eta era mendebaldarrena onartu da.

Elgeta id. Udalerria H-3 2004/05/24

Oharrik ez.

Elorreta id. Alderdia E-2 2004/05/24

Oharrik ez.

Elorretaburu id. Aurkintza E-2 2004/05/24

Oharrik ez.

Elorriaga *Elorrixa* (Markina-Xemein) Aurkintza A-3 2004/02/05

Dokumentaziorik ez dugun arren (*Elorriaga* bat agertzen da, baina Eibarkoa), ia dudarik gabe, bokalarteko -g- hotsaren galera, aa>a sinpletzea eta hiato barruko ia>ixa epentesia ditu ahozko toponimo honek, denak hizkeraren ezaugarri ezagunak, baina araupeko idazkerara jaso behar ez direnak.

Eltzartzaga id. Baserria E-5 2004/05/24

Oharrik ez.

Elusburu id. Aurkintza D-4 2004/05/24

Oharrik ez.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Eluts	*Elutz*	Baserria	D-5	2004/05/27

Ondoan *Elusburu* izena arautu dugu. *Basarrixen* liburuan afrikatu gabeko era zekarren: *Elus*, baina ahoz afrikatua dabilela ematen du eta hala arautzea erabaki da.

Erdiko zabala	id.	Aurkintza	F-5	2004/05/24

Oharrik ez.

Eriano	*Erixono*	Aurkintza	D-5	2004/02/27

Eriano era dokumentatzen da 1793an eta badirudi harmonia bokalikoa (a-o > o-o) eta x epentetikoa daramatzala ahozko lekukotzak. Bokalarteko -n-hori ez da jausi, agian -no atzizki txikigarria datekeelako.

Ermua (-a)	id.	Udalerria	E-2	2004/06/29
Erreaga	*Erria*	Aurkintza	D-6	2004/06/29

Erreaga hori hipotesi hutsa da.

Errekagaizto (Malo)	*Malo*	Alderdia	C-2	2004/04/29

Malo era, dokumentaturiko *Errekagaizto* zaharrago baten itzulpena izan arren, gaur egun euskaraz erabiltzen denez gero, parentesi artean jasotzea erabaki da.

Errekalde	id.	Arukintza	F-5	2004/05/24

Oharrik ez.

Errekalde	id.	Aurkintza	E-3	2004/05/24

Oharrik ez.

Errekalde	id.	Aurkintza	B-2	2004/05/24

Oharrik ez.

Errentziño	id.	Erreka	E-3 E-4	2004/05/24

Oharrik ez.

Errialtzu	*Errialtzu*	Erreka	E-6	2004/02/27

Seguraski *Errealtxu* egon liteke erreka honen izenaren atzean, baina ez dugu dokumentatzen eta bere hartan uztea erabaki da.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Erribaso	*Herribaso*	Aurkintza	E-4	2004/02/27

Toponimoa denez gero, hatxerik gabe idatzi behar da. Herribaso baten adierazpen generikoa balitz ordea (jabetza publikoko basoa, alegia), hitz «batua» erabiliko genuke, bere letra guztiekin.

Errotatxo	id.	Aurkintza	B-2	2004/05/24

Oharrik ez.

Eskaregi	*Ezkaregi*	Baserria	E-5	2004/05/27

Eskaregierrota izenarekin egin bezala, -s- txistukaria onartu da.

Eskaregierrota	*Ezkaregi Errota*	Baserria	D-5	2004/02/27

Hala 1810ean nola 1857ko *Nomenclátor* delakoan, -s- da agertzen den grafia. Ditugun lekukotzen arabera, -z- hura bilketaren ondorio da, baina ez dugu uste Eibarren hala ahoskatuko dutenik. Juan San Martinek (Onomasticon Vasconiae, 21) *Nomenclátor* delakoan *Ezkaregi* eta *Ezkaregi-echeberri* jaso dituela dio eta hala proposatzen du, gainera Ezka ibai erronkariarrarekin erlazioan jarriz. Hala ere, Nomenclátorra zuzenean konprobatuta, hango grafiak -s- direla ziurtatu dugu eta hala arautzea proposatu. Bestalde, toponimo konposatuak elkarrekin idatzi behar dira. Generikoa «lexikalizatutzat» (toponimoaren parte dena, alegia) hartu da eta, ondorioz, idazkera lotua erabaki. *Basarrixen* liburuan -z- eta idazkera bereizia ematen ziren: Ezkaregi Errota.

Esparru	id.	Aurkintza	G-7	2004/05/24

Oharrik ez.

Esparrua	id.	Aurkintza	F-4	2004/05/24

Oharrik ez.

Estiaga	*Eztixa*	Alderdia	E-3	2004/02/27

1846an argi agertzen da oso-osorik, -s- letra daraman era, seguraski modu horretan ahoskatua. Ezti- etimoa oso ezbaizkoa da toponimo batean, eta horrek bakarrik berma lezake -z-dun grafia. Ahoz jasotako erak gainera, bokalarteko -g- hotsa galdu du, eta aa>a sinpletzea gehi ia>ixa epentesia pairatu ditu, denak ohiko fonetismoak. Zerrendetan *Ezteaga* era agertzen zen parentesi artean, baina ez da sinesgarria, horrek ahoz *Eztiaga* emango lukeelako, ez *Eztixa*.

Estil	id.	Aurkintza	B-2	2004/05/24

Oharrik ez.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Etzintza	id.	Aurkintza	C-1 C-2	2004/05/24

Oharrik ez.

Gainbe	*Gainbehe*	Aurkintza	C-6	2004/02/05

Ez dugu dokumentaziorik aurkitu. Hala ere, ustezko «behe» etimologikoa ere, h-rik gabe idatzi behar litzateke. Mendebaldean badago Ganbe izeneko auzorik (Fruiz, Munitibar…).

Galartzeta	*Galarzeta*	Alderdia	E-5	2004/06/29

Galarzeta ere posible litzateke, baina normalena hots afrikatua izaten da.

Galartzeta	–	Etxea	E-5	2004/07/19

Galarzeta ere posible litzateke, baina normalena hots afrikatua izaten da. Etxe berri hau ez zegoen hasierako zerrendetan eta gaineratzea erabaki da.

Galdaramuño	*Galdaramiño* (Elgeta)	Mendia	H-3	2004/06/29

Onomastika Batzordeak aspaldian arautu zuen proposatzen dugun modu honetan, Euskal Mendizale Federazioaren gailurren katalogoan Gipuzkoako 44.zenbakia daraman mendi hau, Euskaltzaindiaren Web orrian ere agertzen dena. Juan San Martinek ere *-miño* amaieraren defentsa sutsua egin omen zuen arren, berak dokumentatzen du 1597an *Galdaramuno* era jatorra, eskuartean eduki dugun korpusean ez zetorrena (Onomasticon Vasconiae, 21, 150. or.). Datu interesgarri eta argigarria da, Eibarren bertan, 1879an *Petramuno* dokumentatzen den izena, 1927an *Petramino* agertzea, gaur egun ahoz Petramu dabilena. Eibar eta inguruko herrietan gaur *Galdaramiño* esan arren, gure ustetan *-muno* edo *-muño* generiko arrunten era jator eta arauzkoak mantendu beharko lirateke kasu bietan. Oso bitxia da dokumentazioan bustidura barik agertzea, seguraski sustantibo horien mendebaldeko era jatorra erakusten dutelarik (ibid. *Plentzian Arimune* «haremuna, duna»). Iztuetak (*Kondaira*, 1847, 35. or.) era honetan aipatzen ditu alde honetako mendiak:

> Bizcaico Jabedearen alderontz dauzca gordetzalle Guipuzcuac, Arno, Bacue, Arrasate, Arranbizcar, Muru, Bedoñalarra, Iturrichipi, Udalacha, Inzorta, Eguaspe, Larrabillburu, Azconobieta, Larraluce, Elejamendi, *Galdaramuño*, eta Murcaicu.

Mendi ofiziala denez gero, Onomastika Batzordeak onartutako izena eta grafia du. Honela uztea erabaki dugu bileran, baina eibartarrak txostena prestatzekotan gelditu dira Onomastika Batzordean aurkezteko eta birraztertzeko.

Garagarrondo	id.	Aurkintza	B-3	2004/05/24

Oharrik ez.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Garagoiti	*Garagoitti*	Mendia	B-4	2004/02/05

1498an *Garaigoiti* era osoa dokumentatzen den arren, ai>a monoptongazioa zaharra dela pentsa daiteke eta gaurko *Gara-goiti* era ahoskaerrazagoan utzi. Nolanahi ere, amaierako bustidura ez da idatzi behar. Proposamen biok onartu dira.

Garro	id.	Aurkintza	D-4	2004/05/24

Oharrik ez.

Gaztañadisakona	*Gaztainadisakona*	Aurkintza	G-3	2004/05/27

Gaztaina- osagarria duten izen guztietan *Gaztaña-* grafia erabiltzea erabaki zen.

Gaztañadisakona	*Gaztainadisakona*	Aurkintza	C-3 C-4	2004/05/27

Gaztaina- osagarria duten izen guztietan *Gaztaña-* grafia erabiltzea erabaki zen.

Gaztañadizulo	*Gaztainadi-zulo*	Aurkintza	C-4	2004/05/27

Gidoia dakar, agian hitza bi lerrotan zatitu ahal izateko (hala egin baitute). Ez da komeni mapa batean halakorik agertzea. Gainera *Gaztaina-* osagarria duten izen guztietan -ñ- grafia arautzea erabaki da.

Gaztañazabaleta	*Gaztainazabaleta*	Aurkintza	C-4	2004/05/27

Gaztaina- osagarria duten izen guztietan *Gaztaña-* grafia erabiltzea erabaki zen.

Gaztelu	id.	Baserria	D-6	2004/05/24

Oharrik ez.

Gipuzkoa	id.	Herrialdea	H-7	2004/05/24

Oharrik ez.

Gipuzkoa	id.	Herrialdea	B-3 B-4	2004/05/24

Oharrik ez.

Gisasola	id.	Baserria	D-3	2004/05/24

Oharrik ez.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua

Gisastu *Gisastu* Baserria F-5 2004/05/27

Basarrixen liburuak artikulua eta guzti dakar eta kontsideratu da era horretan arautzea. 1778an artikuluaz dokumentatzen dira, baina erabilera hori aspaldi galdua dela ematen du eta hori barik arautzea erabaki da.

Gisastuburu id. Aurkintza F-5 2004/05/24

Oharrik ez.

Gisatsa id. Aurkintza D-5 2004/06/29

Egokiena amaierako -a organiko bezala uztea dela ematen du.

Gorosta *Gorosta* Erreka D-5 E-5 2004/05/27

Toponimoen zerrendak ez zekarren hidronimo hau eta gaineratu behar izan da. Hasiera hori duten toponimoen moduan arautu behar da.

Gorosta *Gorosta* Auzunea D-4 2004/05/27

Kontsideratu da *Gorostieta* era, hasiera hori duten baserri guztiekin batera, noski, baina galera aspaldikoa da-eta, ez egitea erabaki da.

Gorostaabeletxe *Gorosta Abeletxe* Baserria C-4 C-5 2004/05/27

Toponimo konposatuak bat eginda idatzi behar dira, bereziki oikonimoak. Gorostieta era osatuagoa kontsideratu da, *Basarrixen* liburuak dakarren legez, baina Gorosta era jadanik 1810ean dokumentatzen da eta azkenik honela onartu da.

Gorostaazpikoa (-a) *Gorosta Azpikua* Baserria C-4 C-5 2004/05/27

Toponimo konposatuak bat eginda idatzi behar dira, bereziki oikonimoak. Elkarketaren ondorio den aa taldea sinpletu ala ez, ahoskeraren arabera erabaki da geminatuaren alde. Amaierako oa>ua hiatoaren itxitura ez da idatzi behar. Gorostieta era osatuagoa kontsideratu da, *Basarrixen* liburuak dakarren legez, baina *Gorosta* era jadanik 1810ean dokumentatzen da-eta, honela onartu da.

Gorostabeña *Gorosta Beña* Baserria C-4 C-5 2004/05/27

Toponimo konposatuak bat eginda idatzi behar dira, bereziki oikonimoak. Badirudi erabilera beti «*Beña*» hutsa dela eta izen bakar hau ere proposatu da. *Gorostieta* era osatuagoa kontsideratu da, *Basarrixen* liburuan agertzen den legez, baina *Gorosta* era jadanik 1810ean dokumentatzen da-eta, honela onartu da.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Gorostagainekoa (-a)	*Gorosta Gainekua*	Baserria	C-4	2004/05/27

Toponimo konposatuak bat eginda idatzi behar dira, bereziki oikonimoak. Amaierako oa>ua hiatoaren itxitura ez da idatzi behar. Gorostieta era osatuagoa kontsideratu da, *Basarrixen* liburuan agertzen den legez, baina Gorosta era jadanik 1810ean dokumentatzen da-eta, honela onartu da.

Gorostiaga	*Gorostixa*	Aurkintza	E-6	2004/02/05

1728an eta 1857ko *Nomenclátor* delakoan aurki daiteke izen hau bere osoan. Bokalarteko -g- galdu eta aa>a sinpletu ondoren, amaierako hiatoan -x- txistukariaren epentesia ematen da, ia>ixa, inguru horretako mintzairan denak ohiko gertakariak, baina idazkeran jaso behar ez direnak.

Gorostiaga	*Gorostixa*	Baserria	B-3	2004/02/05

1728an eta 1857ko *Nomenclátor* delakoan aurki daiteke izen hau bere osoan. Bokalarteko -g- galdu eta aa>a sinpletu ondoren, amaierako hiatoan -x- txistukariaren epentesia ematen da, ia>ixa, inguru horretako mintzairan denak ohiko gertakariak, baina idazkeran jaso behar ez direnak.

Gorostondo	*Gorostondo*	Aurkintza	C-4	2004/05/27

Gorostieta ez arautzea, baina *Gorosta* erabaki denez gero, *Gorostondo* bere horretan uztea erabaki da.

Gorrotzeaga	*Gorrotzia*	Iturria	B-4	2004/06/29

Gorrotziaga erak *Gorrotzixa* emango luke ahoz. *Gurrutzeaga* ere dokumentatzen omen da. 1787an idazkera gaztelaniartzailean jasoa (*Gorrociaga*), toponimo honek -g- bokalartekoaren ohiko galera eta aa>a sinpletzea pairatu du. Fenomeno horiek ahoz onargarriak badira ere, ez dira araupeko idazkerara eraman behar.

Gorrotzeaga	*Gorrotzia*	Alderdia	B-3 B-4	2004/06/29

Gorrotziaga erak *Gorrotzixa* emango luke ahoz. *Gurrutzeaga* ere dokumentatzen omen da. 1787an idazkera gaztelaniartzailean jasoa (*Gorrociaga*), toponimo honek -g- bokalartekoaren ohiko galera eta aa>a sinpletzea pairatu du. Fenomeno horiek ahoz onargarriak badira ere, ez dira araupeko idazkerara eraman behar.

Ibargain	–	Etxea	E-4 F-4	2004/06/29

Basarrixen liburuan dator etxe hau, hiri barruan geratzen den arren errotula daitekeena.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Ibur	id.	Aurkintza	G-2	2004/06/29

Oharrik ez.

Iburrerreka	–	Erreka	H-3	2004/06/29

Ibur aurkintza eta *Iburrerreka* izeneko industrialdetik bereiztu beharra ikusi zen. Hala ere, zerbaiti «*erreka*» generikoa erantsi behar bazaio, egokiena honi eranstea litzateke: Iburrerreka.

Iburrerreka (42-A)	*Ibur*	Industrialdea	G-2	2004/06/29

Ibur aurkintza eta Ibur errekatik bereiztu beharra ikusi zen.

Igartua	id.	Alderdia	F-6	2004/05/24

Oharrik ez.

Igartualde	id.	Aurkintza	D-4	2004/05/24

Oharrik ez.

Igereta	*Ireta*	Aurkintza	D-6 D-7	2004/04/29

Igereta proposatu da eta Elorzak bildutako *Igereta* era dokumentatu denez gero, hala arautzea erabaki da.

Ikaztoi	id.	Aurkintza	D-6	2004/05/24

Oharrik ez.

Ilariaga	*Ilerixa*	Aurkintza	B-1 B-2	2004/02/05

1783an Ylariaga dokumentatzen da toponimo hau, bere osotasunean. Hasierako i- hotsaren ondorioz, hurrengo -a- bokalaren itxitura (a>e, «mendi bet» esatea bezala) gauza arrunta da mendebaldean. Bokalarteko -g- hotsaren galera eta aa>a sinpletzea ere ohikoak dira. Azkenik -ia- hiatoan -x- epentetikoa sartzea ere (ia>ixa) oso ohikoa da Euskal Herriko leku askotan. Gertakari horiek guztiak mintzairan onargarriak diren arren, ez dira idatzi behar.

Illo	*Illo*	Aurkintza	C-4	2004/05/27

Zalantzazko legez jo zen, baina ez dago beste erarik iradokitzen duen daturik.

Illordo	–	Baserria	F-6	2004/07/01

Baserria Soraluzen dago, baina Eibarko muga-mugan. Sartzea erabaki da.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Illordogaina (-a)	*Ilordo*	Mendia	F-6	2004/06/29

1871 eta 1927an dokumentatzen da bustidura eta guzti (Yllordo). Beraz, zilegi litzateke idaztea, beharrezkoa ez den arren. Lekukotza bietarik batek *-gaina* generikoa darama eta gaineratzea onartu da.

Illundegi	*Ilundegi*	Aurkintza	D-7	2004/05/27

Beharrezkoa izan ez arren, grafia bustia arautzea erabaki da.

Indurio	*Indurixo erreka*	Erreka	G-5 G-6	2004/02/27

Ez dugu dokumentaziorik aurkitzen. Amaierako -ixo horrek, antza denez, hiatoetako -x- hotsaren epentesi ohikoa darama, eta ez da idatzi behar. Generikoa ondo lexikaldurik ez dagoela dirudi eta hura bako era arautzea erabaki da.

Indurio	*Indurixo*	Alderdia	G-5 G-6	2004/02/05

Ez dugu dokumentaziorik aurkitzen. Amaierako -ixo horrek, antza denez, hiatoetako -x- hotsaren epentesi ohikoa darama, eta ez da idatzi behar.

Intxaurdieta	id.	Aurkintza	G-5	2004/05/24

Oharrik ez.

Intxaurkorta	id.	Aurkintza	B-4	2004/05/24

Oharrik ez.

Intxaurtxikiondoa (-a)	*Intxaurtxiki ondua*	Aurkintza	G-2 G-3	2004/02/05

Toponimo konposatuak bat eginik idazten dira. Arrazoi gehiagoz, posposizioak, izenekin duten lotura estuagotzat jo daiteke-eta (berdin, azpi, gain, oste, aurre…). Amaierako oa>ua itxitura ahoz automatikoa da, baina ez da idatzi behar.

Intxausti	id.	Aurkintza	E-3	2004/05/24

Oharrik ez.

Intxuspe	*Intxuspe*	Aurkintza	D-4	2004/05/27

1779an Inchauspe era dokumentatzen da, baina XVI. mendean eta 1781ean *Inchuspe* (biak dira «partido de *Inch(a)uspe*») ere agertzen da. *Eibarko Hiri-toponimian*, Onomasticon Vasconiae, 13, *Intxuspe* era ematen da, halaxe dokumentatzen delako 1865ean. San Martinek ez dakar. Diptongoaren galera oso zaharra da eta azkenik, bera barik arautzea erabaki da.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Iñarra (-a)	*Iñarre*	Baserria	E-6	2004/02/05

1810ean Ynarra dokumentatzen da. Amaierako -a hori organiko ez dela jo eta deklinabidea *Iñarra, Iñarr(e)an, Iñarreko, Iñarretik, Iñarrera*… egin behar da. Hortik dator mendebaldean halako -a amaierako toponimoei -e paragogiko batez hornitzeko ohitura modernoa (*Arane, Ibarre, -gane*…).

Iñarra jauregia (Aldatsa)	*Aldatze*	Etxea	F-4	2004/02/27

1501ean Aldasa agertzen da. Amaierako -a hori, organikoa ez delarik behinik behin, mendebalde osoan -e paragogikoen sortzaile bilakatu da. *Aldatsa, Aldats(e)an*, baina *Aldatseko, Aldatsetik, Aldatsera*… deklinatu ohi da, eta horregatik, -e- lotura fosildu eta hitzekoa balitz bezala hasi da kontsideratzen. Ez da hala eta idazkera arautuek jatorrira jo behar dute kasu honetan. *Iñarra* izena agertzea ontzat ematen da, hau delako jauregiaren egiazko izena, eta *Aldatsa* «goitizena» parentesi artean ematea ere onartu da. Azkenik, bai dokumentazioak eta bai hizkuntza batuak hobesten duten *-ts-* (ez *-tz-*) arautzea ere ematen da ontzat. 1685eko Eibarko kopla zahar batzuetan *Aldasetican Vicarioa ta macharirean Ugarte* bertsoa jasotzen da (*ts* > *s* eta *tx* < *ch* idatzirik).

Iñarrasakona (-a)	*Iñarre sakona*	Aurkintza	C-5	2004/02/05

1810ean Ynarra dokumentatzen da.

Iparragirrebarri	*Iparragirre Barri*	Baserria	F-5	2004/02/05

Toponimo konposatuak bat eginik idatzi behar dira, bereziki oikonimoak. 1810ean eta 1857ko *Nomenclátor* delakoan dokumentatzen da izen hau.

Ipurtier	*Ipurtier*	Aurkintza	F-6	2004/02/27

Ez dugu dokumentaziorik aurkitzen, baina bere horretan oso toponimo arraroa iruditzen zaigu, agian aurreko -i- bokalaren eraginez a>e itxitura egin eta bokalarteko -b- hots galdua izkuta daiteke (*Ipurtibar*). Hala ere, hipotesi maila baino harago jotzeko lekukotza dokumentalik ez dagoen bitartean, hobe dugu dagoen bezala lagatzea.

Ipurua	*Ipurua*	Etxea	F-3	2004/05/27

Argi dago, dokumentazioak hala bermatzen duelako, jatorrizko era -aga atzizkiduna dela, baina hasierako era inausia uztea erabaki da. *Basarrixen* liburuak *Ipuruaga* era osoa dakar. Gu ere horren aldekoak ginateke, baina *Ipurua* Eibartik kanpo ere ezagutzen den izena da eta kontsideratu da hobe dugula ez ikutzea. Hiru aldiz errotulatuta agertzen da, baserrirako eta haren ingururako.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Ipurua	*Ipurua*	Kiroldegia	F-3	2004/05/27

Argi dago, dokumentazioak hala bermatzen duelako, jatorrizko era -aga atzizkiduna dela, baina hasierako era inausia uztea erabaki da. *Basarrixen* liburuak *Ipuruaga* era osoa dakar. Gu ere horren aldekoak ginateke, baina Ipurua Eibartik kanpo ere ezagutzen den izena da eta kontsideratu da hobe dugula ez ikutzea. Hiru aldiz errotulatuta agertzen da, baserrirako eta haren ingururako.

Ipurua	*Ipurua*	Alderdia	F-3	2004/05/27

Argi dago, dokumentazioak hala bermatzen duelako, jatorrizko era *-aga* atzizkiduna dela, baina hasierako era inausia uztea erabaki da. *Basarrixen* liburuak *Ipuruaga* era osoa dakar. Gu ere horren aldekoak ginateke, baina Ipurua Eibartik kanpo ere ezagutzen den izena da eta kontsideratu da hobe dugula ez ikutzea. Hiru aldiz errotulatuta agertzen da, baserrirako eta haren ingururako.

Irabazia (-a)	*Idabazixa*	Aurkintza	B-3	2004/05/27

Oso ohikoa da mendebalean, «ira» edo «iratxea» batzeko txantelak edo «bereziak» honela izendatzea. Ohitura galtzeaz batera, izenak ere bere esanahia desitxuratu zuen hiztunen gogoan, zenbait herri-etimologiatan oinarritutako erak sortuz («irabazia» da ohikoena). Ira>ida aldaketa oso arrunta da mendebaldeko mintzairetan. Bokalarteko -r- hotsaren erorketa hizkera erlaxatuaren ondorio ohikoa da halaber, baita ondorioz ee>e sinpletzea ere. Gainera e>a aldaketa, aurreko a bokalaren eragina da, harmonia edo asimilazio arrunta ere (v.g. kantera>kantara ia Bizkai osoan). Azkenik ia>ixa hiatoan txistukaria tartekatzea ere, gertakari automatikoa da hango hizkeran. Bitxia da 1846an jada «Irabazi burua» izena dokumentatu izana, aurreko fenomenuen antzinatasunaren adierazgarri. Horregatik, kontsideratu da herri-etimologia hori jada guztiz lexikalizatua dagoela eta bere horretan arautzea.

Iraegi	id.	Baserria	G-4	2004/05/24

Oharrik ez.

Iraegiabeletxe	–	Baserri zaharra	G-4	2004/05/27

Iraegigoikoa etxearen ondoan zegoen. Gaur egun desagertuta dago eta beraz, ez da mapan errotulatuko, baina izena honela arautzea erabaki da.

Iraegigoikoa (Iraegiaundi)	*Iraegigoitti*	Aurkintza	G-4	2004/05/27

Bustidura hori ez da idatziz jaso behar. 1508 (Y-), 1585 eta 1857an dokumentatzen da. *Basarrixen* liburuak *Iraegi Handikoa* izena dakar, nahiz esaten duen *Irei Haundi*, *Ireizarra* eta *Irei Bazterra* izenez ere ezaguna dela. Izen horietatik bi onartu dira, bat parentesi artean emanik.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Iraegitxikia	*Iraegi Txiki*	Baserria	G-4	2004/05/27

Toponimo konposatuak bat eginik idatzi behar dira, bereziki oikonimoak. 1508 (*Yraeguiondo*), 1585 (*Iraegui*) eta 1857ko *Nomenclátor* delakoan dokumentatzen da toponimoa. *Basarrixen* liburuan *Iraegi Erdikoa* izenaz dator, gainera, *Irei Txiki* izenaz ezagutzen dela esaten badu ere. Erabileran batzuetan hala egiten da-eta, artikulua eta guzti arautu da.

Iraleku	id.	Aurkintza	H-2 H-3	2004/05/24

Oharrik ez.

Iraragorri	*Iragorri*	Baserria	F-5	2004/05/27

1810 eta 1846an Irarragorri dokumentatzen da. *Basarrixen* liburuak *Iraragorri* era dakar eta kontsideratu da bere osoan ematea. 1846an dokumentazen den *Iragorria-Razola* era, *Matxaria* inguruan zegoen eta beraz, ez legokioke etxe honi. Ahoz hala egiten bada ere, idatziz silaba errepikapena ez sinpletzea erabaki da.

Iruatxeta	*Hiruatxeta*	Aurkintza	D-6	2004/02/05

Toponimian, bereziki mendebaldean, ez da h grafema arautzen, oso hitz generiko eta hedadura zabalekoak ez badira.

Iruintxaur	*Hiruintxaur*	Erreka	C-4	2004/02/05

Toponimian, bereziki mendebaldean, ez da h grafema arautzen, oso hitz generiko eta hedadura zabalekoak ez badira.

Iruitz	*Hiruitz*	Erreka	C-5	2004/02/05

Toponimian, bereziki mendebaldean, ez da h grafema arautzen, oso hitz generiko eta hedadura zabalekoak ez badira.

Iruitz	*Hiruitz*	Aurkintza	C-5	2004/02/05

Toponimian, bereziki mendebaldean, ez da h grafema arautzen, oso hitz generiko eta hedadura zabalekoak ez badira.

Iruka	*Hiruka*	Aurkintza	C-5 D-5	2004/02/05

Toponimian, bereziki mendebaldean, ez da h grafema arautzen, oso hitz generiko eta hedadura zabalekoak ez badira.

Irupago	*Hirupago* (Ermua)	Aurkintza	E-2	2004/02/05

Toponimian, bereziki mendebaldean, ez da h grafema arautzen, oso hitz generiko eta hedadura zabalekoak ez badira.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Irupagoeta	*Hirupagoeta*	Aurkintza	D-3	2004/02/05

Toponimian, bereziki mendebaldean, ez da h grafema arautzen, oso hitz generiko eta hedadura zabalekoak ez badira.

Irure	*Irure*	Alderdia	E-6	2004/02/27

1846an *Irura* dokumentatzen da, baina 1776, 1871 eta 1927 urteetako testigantzek (azken hau *Yrure*), amaierako -e hori daramate. Hortaz, aurreko bokalak eragindako itxitura hori idazkeran jasotzeko arrazoirik ere argudia daiteke, -e amaiera hobesteko. Faro de Irure ere jasotzen da 1782. Azkenik, -e amaiera onartzea erabaki da.

Isasitorre (Markeskoa)	*Markeskua*	Etxea	F-3	2004/02/27

Amaierako hiatoa oa>ua itxitura ahoz ondo dago, baina ez da idazten. 1810ean *Maquescoa* eta 1857ko *Nomenclátor* delakoan *Maquizcoa* dokumentatzen dira eta agian herri-etimologiak sortutako era berri baten aurrean egon gintezke, -r- hori soberan lukeena. Nolanahi ere, Serafin Basaurik eginiko proposamena ontzat hartu zen eta izen «ofizial»tzat Isasiko torrea ematea eta parentesi artean *Markeskoa* goitizena errotulatzea onartu zen. Azkenik, udal dokumentazioa begiratu ondoren, genitibo egitura ez jasotzea erabaki da, hau da, *Isasiko* torrea eman ordez, *Isasitorre* agertaraztea.

Iteriaga	*Itterixa*	Baserria	B-3	2004/05/27

Basarrixen liburuan halaxe dator, *Yteriaga* era dokumentatuekin bat. Hemen jasota utzi behar da, hala ere, *Yteria* ere 1763an dokumentatzen dela.

Itolatza	*Ittolatza*	Aurkintza	D-6	2004/06/29

Bustidura hori ez da idatzi behar. Hasieran -a kengarridun bezala jo bazen ere, azkenik ohar hori kentzea (-a) jo da zuzenago.

Itsaso	id.	Baserria	C-5	2004/05/24

Oharrik ez.

Iturburu ikastola	id.	Eskola	E-3	2004/05/24

Oharrik ez.

Iturguen	*Itturguen*	Erreka	B-3	2004/02/05

1728an dokumentatua, arauzko idazkeran ez du bustidura hori eraman behar.

Iturguen	*Itturguen*	Aurkintza	B-3	2004/02/05

1728an dokumentatua, arauzko idazkeran ez du bustidura hori eraman behar.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Iturralde	*Itturralde*	Aurkintza	C-6	2004/02/05

1810 (*Ytur*-) eta 1925 urteetan dokumentatua, arauzko idazkeran ez du bustidura hori eraman behar.

Iturralde	*Itturralde*	Aurkintza	H-4 H-5	2004/02/05

1810 (*Ytur*-) eta 1925 urteetan dokumentatua, arauzko idazkeran ez du bustidura hori eraman behar.

Iturralde	*Itturralde*	Aurkintza	E-4 E-5	2004/02/05

1810 (*Ytur*-) eta 1925 urteetan dokumentatua, arauzko idazkeran ez du bustidura hori eraman behar.

Iturraoabeletxe	*Iturrua Abeletxe*	Baserria	C-4 D-4	2004/02/05

Hala 1810ean nola 1857ko *Nomenclátor* delakoan, *Iturrao* da izen honen era. Bokalismoa (ao>oa>ua) bitxia bada ere, metatesi legez esplika liteke, baina errazago eta ohikoago litzateke lehenik ao>o sinpletzea gertatu izana (*Severiano>Zeberiao>Zeberio*) eta ondoren, artikulua gaineratu izana, azken hau estrainio samarra, joera orokorrak artikulua galtzera egiten baitu. Nolanahi ere, oa>ua itxitura arrunt automatikoa ere ez da idazkeran islatu behar. Gainera, toponimo konposatuak bat eginik idatzi behar dira, bereziki oikonimoak.

Iturraobekoa	*Itturrua*	Baserri erdia	D-4	2004/07/19

Hala 1810ean nola 1857ko Nomenclátor delakoan, Iturrao da izen honen forma osoa. Proposaturiko bustidura ez da idatzi behar. Amaierako bokalismoa bitxia bada ere, metatesi legez esplika liteke, baina errazago eta ohikoago litzateke lehenik ao>o sinpletzea gertatu izana (*Severiano>Zeberiao>Zeberio*) eta ondoren, artikulua gaineratu izana, azken hau estrainio samarra, joera orokorrak artikulua galtzera egiten baitu. Nolanahi ere, oa>ua itxitura arrunt automatikoa ere ez da idazkeran islatu behar. *Basarrixen* liburuak behekoa eta goikoa bereizten ditu, eraikin beraren atal bi diren arren.

Iturraogoikoa	*Itturrua*	Baserri erdia	D-4	2004/07/19

Hala 1810ean nola 1857ko *Nomenclátor* delakoan, *Iturrao* da izen honen forma osoa. Proposaturiko bustidura ez da idatzi behar. Amaierako bokalismoa bitxia bada ere, metatesi legez esplika liteke, baina errazago eta ohikoago litzateke lehenik ao>o sinpletzea gertatu izana (*Severiano>Zeberiao>Zeberio*) eta ondoren, artikulua gaineratu izana, azken hau estrainio samarra, joera orokorrak artikulua galtzera egiten baitu. Nolanahi ere, oa>ua itxitura arrunt automatikoa ere ez da idazkeran islatu behar. *Basarrixen* liburuak behekoa eta goikoa bereizten ditu, eraikin beraren atal bi diren arren.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua

Iturrieta *Itturritta* Aurkintza E-3 2004/02/05

Dokumentaziorik egon ez arren, bistan da bustidurak soberan dituela izen honek bere idazkera jasoan. Gainera, amaierako ie>i sinpletzea, ahoskera arruntaren ondorio da.

Iturripe *Itturripe* Aurkintza D-5 2004/05/27

Bustidura hori ez da idazkera arautuan eman behar.

Itzei – Aurkintza C-4 C-5 2004/02/27

Toponimo hau ez zegoen hasierako zerrendetan baina bai mapan, eta jasotzea erabaki da.

Izua (-a) *Izua* Baserria C-3 2004/05/27

Tarteko -z- hori zalantzan jarri da, baina 1810ean ere Izua dokumentatzen da. *Basarrixen* liburuan *Ixua* era bustia agertzen da.

Izua jatetxea (-a) *Izua jatetxea* Jatetxea C-3 2004/05/27

Tarteko -z- hori zalantzan jarri da, baina *Izua* eta *Izumendi* arautu diren era berean onartu da izen hau ere.

Izumendi *Izumendi* Aurkintza C-3 2004/05/27

Tarteko -z- hori zalantzan jarri da, baina 1498an *Yçumendi* era dokumentatzen da.

Izupe *Izupe* Aurkintza C-3 2004/05/27

Tarteko -z- hori zalantzan jarri da, baina *Izua* eta *Izumendi* arautu diren era berean onartu da izen hau ere.

Kalamua – (kendu) Aurkintza B–4 berria

Gailurra badago errotulatuta eta aurkintzaren izena agertzerik ez da behar.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Kalamua/Maaxa (-a)	*Kalamua* (Elgoibar)	Mendia	A-4	2004/06/29

Euskal Mendizale Federakundeko katalogoak, Onomastika Batzordeak onetsirik, izen bikoitza ematen dio mendi honi: *Kalamua* / *Max* (Gipuzkoako 63. gailurra). Hala ere, *Max* izenak -a- geminatua duela (-aa-) gauza jakina da, eta katalogo horretan zuzendu beharrekoa. Gure mapan agertzen dira *Maaspe*-duten izen bi, jatorria horretan dutenak (-s- hori ondo dago, ondoko -p- hotsaren eraginez). Eibarren amaierako -a hori ez omen dago desagertuta, eta zuzenena jasotzea dela dirudi. Batzordetik pasatuko da proposamen hau, baina oraindik bizirik dirauen artikulua ez galtzearen aldeko ohiko irizpidearekin bat dator-eta, ez dugu uste oztoporik jarriko denik. Antxon Narbaizak egindako zuzeneko entzuketetan, Etxebarrian *Maxa* esan ohi dutela ziurtatu du, geminazio arrastorik gabe. Barinagan ordea, *Maaxa* esan ohi diote oraindik eta hobe dugu beraz, geminatu hori jasotzea zeharo galdu aurretik.

Kalamuako laua	id.	Aurkintza	B-4	2004/05/24

Oharrik ez.

Kaminburu	id.	Aurkintza	G-4	2004/05/24

Oharrik ez.

Kaminpe	id.	Aurkintza	C-4	2004/05/24

Oharrik ez.

Kanterako atxa (-a)	*Kanterako hatxa*	Aurkintza	D-2 D-3	2004/02/05

Orohar, hatxerik ez da idatzi behar mendebaldeko toponimoetan. Amaierako generiko dialektalak (eta ez «batuak») erabiltzeak bere lexikalizazio maila altuaren berri ematen digu. Genitiboaren kasu marka dagoela-eta, toponimo konposatu hauek ez dira bat eginik idazten (oikonimoak balira bai, ordea).

Kanterako bizkarra	id.	Aurkintza	B-1	2004/05/24

Oharrik ez.

Kañondo	*Kaiñondo*	Aurkintza	E-5	2004/05/27

Grafia bustia onartuz gero, aurreko -i- bokala sobran dago eta kentzea erabaki da.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua

Kapelako atxa (-a) *Kapelak(o) hatxa* Aurkintza D-2 2004/02/05

Orohar, hatxerik ez da idatzi behar mendebaldeko toponimoetan. Amaierako generiko dialektalak (eta ez «batuak») erabiltzeak bere lexikalizazio maila altuaren berri ematen digu. Genitiboaren kasu marka dagoela-eta, toponimo konposatu hauek ez dira bat eginik idazten (oikonimoak balira bai, ordea). Mapako toponimia-aurkitegian *Kapelak hatxa* dator eta zuzendu behar dela gogorarazi da, h-a kentzeaz gainera.

Karabia *Karabixa erreka* Erreka E-3 2004/05/27

Idatzizko *Carobi-erreca* era jaso da eta agian *Karabiaerreka* edo *Karabierreka* arautu liteke. Hiato barruko -x- hotsaren epentesia, ordea, ez da arautu behar. Mendebaldeko mila toponimotan gertatu bezalaxe, bokalarteko -g- hotsa galdu eta aa>a sinpletzea pairatu du seguraski izen honek. Hala ere, ez dugu dokumentaturik aurkitu eta Eibarren *Karabia* hitza berezko -a balu bezala erabili ohi da-eta, era honetan uztea erabaki da.

Kareaga *Karia* Aurkintza F-2 2004/02/05

1927an dokumentatzen da *Lindesa o Careaga-gaña* izena. Bokalarteko -g- hotsaren galera tipikoaren ondoren, ea>ia bokalismo arrunta pairatu du izen honek. Biak dira zilegi gertakari fonetiko legez, baina ez dira idazkeran islatu behar.

Karmengo Ama – Parrokia F-4 2004/04/29

San Andres parrokiatik bidalitako informazio ofiziala dela-eta parrokia hau ere mapan errotulatzea erabaki da, baina baztertu da *Karmengo Andra Maria* edo halakorik gaineratzea.

Kaskarrein *Kaskarrain* Aurkintza F-3 2004/07/19

Ahoskera lokala (*Kaskárrein*) eta XX. mende hasierako dokumentazioa bat datoz amaieran: -ein eta ez -ain. Hala arautzea erabaki da.

Katalangoa (-a) *Katalangua* Aurkintz F-4 2004/02/05

1857ko *Nomenclátor* delakoan dator. Amaierako oa>ua bokalismoa ahoskatu bai, baina ez da idatzi behar.

Katamenga *Kataminga* Alderdia G-3 2004/02/27

1846an *Catamenga* dokumentatzen da eta ez dugu ikusten e>i itxiturarako arrazoirik eta -e- arautu da. Toponimo arraroa da, hala ere. San Martinek (Onomasticon Vasconiae, 21, 25. or.) *Akatabenga* era dokumentatu du 1498. urtean, eta seguraski oraingoaren jatorria horretan dago, oraindik ere arraro samarra. Dena dela, oso sinesgarria eta ohikoa da b>m ezpainbikoen nahastea. Pentsatu da *Katabenga* era arautzea, baina lekukotza oso zaharra da eta bere horretan uztea onartu da azkenik.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Katillutxueta	id.	Aurkintza	A-4	2004/05/24

Oharrik ez.

Kindape	*Kinddape*	Aurkintza	E-3	2004/02/05

Ez dugu dokumentaziorik aurkitzen, baina bustidura hori ez da idazkera-ra jasotzeko modukoa, ahoz automatikoa den arren.

Kindeta	*Kinddeta*	Aurkintza	B-2	2004/02/05

Ez dugu dokumentaziorik aurkitzen, baina bustidura hori ez da idazkera-ra jasotzeko modukoa, ahoz automatikoa den arren.

Kiñarra	*Kiñarra erreka*	Erreka	F-6	2004/06/29

Toponimia-aurkibidean *Kiñarra G6-F3* dator, baina bigarren kokaera gaizki dago, F6 da-eta. Amaieran -aga proposatu da, baina lekukotza dokumentalik ezaz, bere horretan uztea erabaki da. Agian hasierako kontsonantea G- etimologikoagoa izan liteke, hitz hasierako gortze horiek, mendebaldean behinik behin, oso normalak baitira ahoz, nahiz arautze-mailara ez diren pasatu. Adib. *Gatika>Katike, Gantzabal>Kantzabale*.

Kiñarra (-a)	*Kiñarra*	Alderdia	G-6	2004/02/27

Amaieran -aga proposatu da, baina lekukotza dokumentalik ezaz, bere horretan uztea erabaki da. Agian hasierako kontsonantea G- etimologikoagoa izan liteke, hitz hasierako gortze horiek, mendebalean behinik behin, oso normalak baitira ahoz, nahiz arautze-mailara ez diren pasatu. Adib. *Gatika>Katike, Gantzabal>Kantzabale*…

Kirua (-a)	*Kirua*	Aurkintza	E-5	2004/02/27

Lekukotza dokumentalik ez dugu. Eta oa>ua itxitura automatikoaren hipotesia aztertu den arren, ikerlariek bileran esan bezala, Azkueren hiztegiak ere badakar «kiru» hitza, besteak beste Eibarkoa dela aditzera emanik, eta gisats (isats) mota bat dela esanik. Hortaz fitonimo arrunt bat dela dirudi, atzean agian -aga atzizkia eduki lezakeena.

Kirua (-a)	*Kirua*	Aurkintza	C-4	2004/02/27

Lekukotza dokumentalik ez dugu. Eta oa>ua itxitura automatikoaren hipotesia aztertu den arren, ikerlariek bileran esan bezala, Azkueren hiztegiak ere badakar *kiru* hitza, besteak beste Eibarkoa dela aditzera emanik, eta *gisats* (*isats*) mota bat dela esanik. Hortaz fitonimo arrunt bat dela dirudi, atzean agian -aga atzizkia eduki lezakeena.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Kirueta	id.	Aurkintza	A-4	2004/05/24

Oharrik ez.

Kortabarri	–	Baserria (desagertua)	E-4	2004/06/29

Jausitako baserri legez dator *Basarrixen* liburuan. Agian kokatu eta errotula liteke, oraindik aztarnarik badago. Hala ere, ez dugu dokumentatu izen hori. Mapan *Kortazar* izena errotulatuta dagoen inguru berean egon zen. *Basarrixen* liburuan aztarnen argazkia ikusten da. *Erreginaren* etxea izenaz ere ezagutu omen zen.

Kortalarrañeta	*Kortalarraiñeta*	Alderdia	D-3 D-4	2004/05/27

Guk -i- kendu eta -ñ- hutsa idaztea proposatu dugu, baina -in- estandarizatzailea ere kontsidera daiteke. Lehenbiziko proposamena hobetsi da.

Kortatxo	Kortatxo	Erreka	E-3	2004/05/27

Erreka honen izena ez da agertzen toponimoen aurkibidean eta gaineratu behar da.

Kortazar	id.	Aurkintza	E-4	2004/05/24

Oharrik ez.

Kortazar	id.	Aurkintza	C-2	2004/05/24

Oharrik ez.

Kortondo	id.	Aurkintza	B-2	2004/05/24

Oharrik ez.

Krabelin	id.	Alderdia	C-5	2004/05/24

Oharrik ez.

Krabelin jatetxea	id.	Jatetxea	C-5	2004/05/24

Oharrik ez.

Kukutegi	id.	Aurkintza	D-4	2004/05/24

Oharrik ez.

Kurutzea (-a)	*Kurutzia*	Aurkintza	B-3	2004/02/05

Hitz arrunt legez ere, amaieran fonetismo hori pairatzen du, baina ez da idazkeran jaso behar.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Kurutzepe	id.	Aurkintza	D-5	2004/05/24

Oharrik ez.

Kutunegieta	*Kutunitta*	Etxe-taldea	D-6	2004/02/05

1516an, 1810ean eta 1857ko *Nomenclátor* delakoan dokumentatu da izen osoa. Bokalarteko -g- hotsaren galera, eie>i sinpletzea eta -t- kontsonantearen bustidura, denak dira ahoskera erlaxatuaren ondorio, eta ez dira arautu behar.

Kutunegietabarrenengoa (Narru)				
	Narru	Baserria	D-6	2004/05/27

Basarrixen liburuan ere *Kutunegieta Barrena* era agertzen da, *Narru* goitizenaz batera. Biok jasotzea onartu da.

Kutunegietaerdikoa (-a)				
	Erdiko	Baserria	D-6	2004/05/27

Basarrixen liburuan *Kutunegieta Erdikoa* izena agertzen da, lotuta idatzi behar dena. Izen osoa ematea onartu da.

Kutunegietaguenengoa (-a) (Guenetxe)				
	Guenetxe	Baserria	D-6	2004/05/27

Basarrixen liburuan *Kutunegieta Goenengoa* izena agertzen da, baina *-guena-* erak badu tradizio onomastikorik nahikoa (*Guenaga*, *Bizkarguenaga*…). Parentesi artean era herrikoia paratzea erabaki da.

Landareta	id.	Aurkintza	A-3	2004/05/24

Oharrik ez.

Landazuri	id.	Aurkintza	E-4	2004/05/24

Oharrik ez.

Larraintxueta	id.	Aurkintza	F-6	2004/05/24

Oharrik ez.

Larrañeta	*Larraiñeta*	Baserria	B-3	2004/05/27

Basarrixen liburuan *Larrañeta* era agertzen zen eta gu ere horren alde gaude. Hala arautzea erabaki da.

Larregiko bizkarra	id.	Aurkintza	D-3	2004/05/24

Oharrik ez.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Laukara	id.	Aurkintza	D-6	2004/05/24
Oharrik ez.				
Laupago	id.	Aurkintza	G-3	2004/05/24
Oharrik ez.				
Laupago	id.	Aurkintza	D-6	2004/05/24
Oharrik ez.				
Lazareto	id.	Etxea	E-5 E-6	2004/05/24
Oharrik ez.				
Lekamendi	id.	Baserria	F-4	2004/05/24
Oharrik ez.				
Lekamendiburu	id.	Aurkintza	F-4	2004/05/24
Oharrik ez.				
Lekondiola	id.	Alderdia	F-6	2004/05/24
Oharrik ez.				
Lekondiola	id.	Iturria	F-5 F-6	2004/05/24
Oharrik ez.				
Lezea (-a)	*Lezia*	Aurkintza	A-2	2004/02/05
Hitz arruntean bezala, amaierako ea>ia aldaketa, fonetismo automatikoa besterik ez da. Ez dugu dokumentatu, hala ere.				
Lezeta	id.	Baserria	E-5 E-6	2004/05/24
Oharrik ez.				
Lezetaabeletxe	*Lezeta Abeletxe*	Baserria	E-5	2004/06/29
1810ean (*Leceta*) eta 1857ko *Nomenclátor* delakoan (*Leceta* eta *Leceta--abeleche*) dokumentatu dugu. Leku-izen konposatuak bat eginik arautu behar dira, bereziki oikonimoak badira.				
Lezetabeitia	id.	Aurkintza	E-5 E-6	2004/05/24
Oharrik ez.				

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Lindari	id.	Alderdia	F-2	2004/05/24
Oharrik ez.				
Liñapozueta	id.	Aurkintza	D-5	2004/05/24
Oharrik ez.				
Liñazelai	id.	Aurkintza	B-3	2004/05/24
Oharrik ez.				
Lixarreta	id.	Aurkintza	D-5	2004/05/24
Oharrik ez.				
Lixiberreketa	id.	Aurkintza	G-3 G-4	2004/05/24
Oharrik ez.				
Lizundia	id.	Aurkintza	D-3	2004/05/24
Oharrik ez.				
Loidi	id.	Alderdia	F-4	2004/05/24
Oharrik ez.				
Loiola	*Loixola*	Baserria	E-5	2004/02/05

1523 (*Loyolabeitia*), 1585, 1846 eta 1857ko *Nomenclátor* delakoan (*Loyola*) dokumentatzen dugu. Hiatoan -x- epentetikoa tartekatzea, gertakari automatiko samarra da (io>ixo), baina ez da arauzko idazkeran jasotzeko modukoa.

Loiolaabeletxe	–	Baserria	E-5	2004/05/27

Loiola baserriaren ikuilua da jatorriz, baina inoiz biztanlerik izan du eta kontsidera liteke errotulatzea, *Basarrixen* liburuak baitakar.

Lubarriak	*Lubarrixak*	Aurkintza	F-5	2004/02/05

Hitz arrunta da, mendiko lur zati basati zena, erabilerarako prestatu dela adierazten duena. Dokumentaturik ez dugu aurkitzen, baina duda gabe, ia>ixa epentesi hiatikoa ez da idatziz eman behar.

Maaldegi	*Maaldegi*	Erreka	C-6	2004/02/27

Bokal geminatu horrek tarteko zerbait galdu dela susmatzeko beta ematen du. Hala ere, ez dugu dokumentaziorik aurkitzen eta ausartegia izan liteke ezer proposatzea (-g-, -d-…). Besterik dokumentatzen ez den bitartean, bere horretan uztea da zuzenena. Generikoa gaineratzeari ez zaio ondo iritzi eta toponimoa besterik ez arautzea erabaki da.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Maaldegi	*Maaldegi*	Alderdia	C-6	2004/02/27

Bokal geminatu horrek tarteko zerbait galdu dela susmatzeko beta ematen du. Hala ere, ez dugu dokumentaziorik aurkitzen eta ausartegia izan liteke ezer proposatzea (-g-, -d-…). Besterik dokumentatzen ez den bitartean, bere horretan uztea da zuzenena. Generikoa gaineratzeari ez zaio ondo iritzi eta toponimoa besterik ez arautzea erabaki da.

Maapilla	*Marapilla*	Baserria	D-5	2004/05/27

Basarrixen liburuan *Marapilaga* era agertzen da. Guk, hala ere, ez dugu aurkitu hori sustatzeko dokumentaziorik eta bere horretan uztea erabaki da.

Maaspe	id.	Alderdia	D-5	2004/05/24

Oharrik ez.

Maaspezabal	id.	Aurkintza	C-5	2004/05/24

Oharrik ez.

Maastia (-a)	*Mahastixa*	Aurkintza	E-4	2004/02/27

Jod epentetikoa ezin da inola ere idatziz arautu. Guk -h- hori ez genuke jarriko, ez gara-eta mahasti batez ari, ondo lexikalizatutako toponimo batez baizik. Bokal geminatua erabileraren arabera arautu daiteke. Plentzian badago *Mastieta* izeneko parajea, -a- bakarraz arautu dena. Hala ere, *-aa-* mantentzea erabaki da.

Madariaga	*Madarixa* (Markina-Xemein)	Aurkintza	A-2	2004/02/05

1924an jadanik *Madarisa* dokumentatu da, baina gauza segurutzat eman daiteke, beste askotan bezala, bokalarteko -g- hotsa galdu, aa>a sinpleketa gertatu eta ia>ixa epentesi hiatiko automatikoa eman dela.

Magdala	*Maala*	Erreka	C-5	2004/02/27

1810ean eta 1857ko *Nomenclátor* delakoan *Ma(g)dalena* ermita eta etxea dokumenta daitezke. Beraz, *Magdala* izena ondo datorkio. *Magdalena* andreizena, *Magdala* herri-izenaren gentilizioa baizik ez da, eta mendebaldeko leku askotan (Meñaka-Larrauri…) erabili ohi da Andra Maria Magdalena adbokazioko ermiten herri-izen gisa. Kasu honetan idazkera arautuan -gd- taldea berreskuratzea proposatzen da, gd>d sinpletu ostean, azken aztarna ere (bokalartean geratu den d hori) galdu duena.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Magdala (Andra Maria Magdalena)				
	–	Baseliza (desagertua)	C-4	2004/04/29

Gaur egun ermita ez dagoen arren, izena gaineratzea erabaki da, bizirik diraueneraz gainera, adbokazio batua parentesi artean daramala. Gaur egun ondoko baserriko aztarnak baizik ez dira geratzen. *Basarrixen* liburuan *Magdalena* izena agertzen zen.

Makatza	id.	Aurkintza	C-4	2004/05/24

Oharrik ez.

Mallabia (-a)	id.	Udalerria	A-1 A-2	2004/06/29

Oharrik ez.

Maltzaga	*Maltzaga*	Alderdia	E-7	2004/02/27

Izen horretako objektu desberdinak izendatzeko, San Martinek pila bat aldiz jasotzen du *Mal(t)zaga* era. Hala ere, 1384an eta XVIII. mendean *Madaltzaga* era osoagoa ere jasotzen du eta horixe proposatzen du araututzat. Lanerako bildutako dokumentazioan 1810ean eta 1846an *Malzaga* erak jasotzen dira. Madozek ere *Malzaga* sarrerak dakartza bere 1850eko hiztegian. Bistan denez, nahiko hedatua dago *Maltzaga* era laburtua aspaldidanik, baina *Madaltzaga>Maltzaga* aldaketa, hau da, bokalarteko -d- hotsaren erorketa eta aa>a sinpletzea, hizkera arrunteko aldaerak dira, normalean arautzen ez direnak. Beste alde batetik, leku hori autobideen elkartze-puntua dela-eta hain ezagun bihurtu da, ezen orain atzera bihurtzeko ahaleginik egitea alferrik dela iritzita, bere horretan uztea erabaki baita.

Maltzagako Arrateko Andra Maria				
	–	Baseliza (desagertua)	–	2004/04/29

San Andres parrokiatik bidalitako informazio ofiziala dela-eta kontsideratu da ermita hau ere mapan errotulatzea. Hala ere, desagertuta dagoenez, ez egitea erabaki da.

Mandaitz	id.	Aurkintza	B-5	2004/05/24

Oharrik ez.

Mandiola	id.	Auzunea	D-3	2004/05/24

Basarrixen liburuak *Mendiola* era dakar, baina *Mandiola* da dokumentatzen den era.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Mandiolaazpikoa (-a)	*Mandiola Azpikua*	Baserria	D-4	2004/06/29

Toponimo konposatuak bat eginda idazten dira, bereziki oikonimoak. Amaierako oa>ua ez da idazkeran arautzeko modukoa. 1810ean eta 1857ko *Nomenclátor* delakoan dokumentatu dugu. *Basarrixen* liburuak *Mendiola-* dakar, baina *Mandiola-* da dokumentatzen den era.

Mandiolaerdikoa (-a)	–	Baserria	D-4	2004/05/27

Basarrixen liburuak dakar. Dirudienez gaur ikuilu moduan erabiltzen da eta uste dugu *Mandiolagainekoari* eutsita dagoela. Kontsidera liteke errotulatzea.

Mandiolagainekoa (-a)	*Mandiola Gainekua*	Baserria	D-4	2004/02/05

Toponimo konposatuak bat eginda idazten dira, bereziki oikonimoak. Amaierako oa>ua ez da idazkeran arautzeko modukoa. 1810ean eta 1857ko *Nomenclátorrean* dokumentatzen dugu. *Basarrixen* liburuak *Mendiola-*dakar, baina *Mandiola-* da dokumentatzen den era.

Mandoiturri	*Mandoitturri*	iturria	B-4	2004/02/05

Bustidura hori ahoskatu arren, ez da idazkeran arautu behar.

Mantziber	*Mantziber* (Ermua)	Aurkintza	F-1 F-2	2004/02/27

Ez dugu dokumentatzen, baina oso posible da aurreko -i- horren eraginez a>e itxitura gertatzea. Dokumentaziorik ezean, zuhurrena bere horretan uztea dela ematen du eta hala erabaki da.

Markiegi	id.	Aurkintza	E-5	2004/05/24

Oharrik ez.

Markina-Xemein	id.	Udalerria	A-4	2004/05/24

Oharrik ez.

Matxaria (-a)	*Matsaria*	Erreka	E-4	2004/05/27

Toponimoen aurkibideak ez dakar hidronimo hau eta gaineratu behar litzateke. *Matsari Gain* izenarekin egiten denarekin bat etorri behar da arauketa. Jatorrian agian *Maatsadi* egon litekeela iradoki da, baina ez dirudi hain urrun joatea komeni dela eta honela uztea erabaki da. 1685eko Eibarko kopla batean *Aldasetican Vicarioa ta macharirean Ugarte* bertsoa jasotzen da, txistukarien transkripziorako argigarri izan daitekeena. *Aldats* arautu dugu leku-izen hori, baina hau *Matxaria*, XVII. mendeko idazlariak *ts>s* eta *tx>ch* transkribatu zituela suposaturik, baina ondorioz txistukari desberdinak izango direla argi edukita.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Matxarigain	*Matsari Gain*	Baserri zaharra	E-4	2004/05/27

Gruak kotxeak bahitzen dituen tokian *Matsaria* baserria omen zegoen *Basarrixen* liburuaren arabera. Jatorrian agian Maatsadi egon litekeela iradokitzen da, baina ez dirudi hain urrun joatea komeni denik. Dokumentazioan beti *-ch-* grafia dator eta gehienetan artikulua eta guzti. 1685eko Eibarko kopla batean *Aldasetican Vicarioa ta macharirean Ugarte* bertsoa jasotzen da, txistukarien transkripziorako argigarri izan daitekeena: *Aldats* arautu dugu leku-izen hori, baina hau *Matxaria*, XVII. mendeko idazlariak *ts>s* eta *tx>ch* transkribatu zituela suposaturik, den legez dela, ondorioz txistukari desberdinak izango direla argi edukita.

Mendibil	id.	Baserria	B-3	2004/05/24

Oharrik ez.

Mendiburu	id.	Aurkintza	H-2	2004/05/24

Oharrik ez.

Mendigoiti	*Mendigoitti*	Baserria	E-6	2004/05/27

1810ean eta 1857ko *Nomenclátor* delakoan -a artikuludun etxe-izena dokumentatzen da. *Basarrixen* liburuan ere artikuludun era zetorren. Hala ere, badirudi -a hori aspaldi galdu dela erabileran eta hura barik arautzea erabaki da. Era berean, bustidura ez da idatziz eman behar.

Mendilaua (-a)	*Mendi laua*	Aurkintza	H-6	2004/02/05

Toponimo konposatuak bat eginik idatzi behar dira.

Mendilubarria (-a)	*Mendi-lubarrixa*	Aurkintza	F-6	2004/02/05

Toponimo konposatuak bat eginda idatzi behar dira. Amaierako hiatoan *ia>ixa* epentesia egitea ahoz ondo dago, baina ez da idazkeran islatu behar.

Mendizuloa (-a)	*Mendi Zuloa* (Soraluze)	Aurkintza	G-6 G-7	2004/02/05

Toponimo konposatuak bat eginik idatzi behar dira.

Mertxete	*Mertxete*	Baserria	G-5	2004/02/27

1810ean eta 1851n *Merchete* era dokumentatzen da jadanik. San Martinek 1857ko *Nomenclátor* delakotik hartua, testigantza bakarra dakar eta hala egiten du arautzeko proposamena. Hala ere, *Eibarko Hiri-toponimia* (Onomasticon Vasconiae, 13), *Martxeta* izena dator 1871n dokumentatua. *Martxeta>Mertxete* aldaketa esplikatzea ez litzateke zaila izango, harmonia bokaliko bortitz baten ondorioz. Leku bera ote den ezin jakinik, bere horretan uztea erabaki da.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Mirafloresbekoa (-a)	–	Baserri zaharra	E-4	2004/05/27

Basarrixen liburuak dakar eta ondo kokatu eta errotula liteke. 1810ean dokumentatzen da *Miraflores* izena, etxeok gaur egun baserri itxurarik ez duten arren. *Millápros* ahoskatzen omen da.

Mirafloresgoikoa (-a)	–	Baserri zaharra	E-4	2004/05/27

Basarrixen liburuak dakar eta ondo kokatu eta errotula liteke. 1810ean dokumentatzen da *Miraflores* izena, etxeok gaur egun baserri itxurarik ez duten arren. *Millápros* ahoskatzen omen da.

Moru	id.	Mendia	C-7	2004/05/24

Oharrik ez.

Motea (-a)	*Motia* (Zaldibar)	Mendia	G-2	2004/02/05

Amaierako *ea>ia* itxitura hori automatikoa da hizkera askotan, baina ez da idazten.

Mugitza	*Mugitza*	Aurkintza (Baserri zaharrak)	D-5	2004/06/29

Baserri bi egon ziren eta proposatu zen berauei dagokien letra-moldea erabiltzea, baina desagertuta daudenez gero, agian hobe honela uztea. Toponimoa ondo dago, oso dokumentatua gainera. Hala ere, 1857ko *Nomenclátor* delakoan *Muguinza* agertzen da, seguraski akastun era. *Basarrixen* liburuaren arabera etxeak *Mugitza Txiki* eta *Mugitza Zaharra* ziren, baina desagerturik daude. Errotulatzekotan *Mugitzatxiki* eta *Mugitzazarra* arautu behar lirateke. Hasieran, amaierako *-a* hori kengarri bezala jo bazen ere, azkenik organiko jo da.

Mugitzabarri	*Mugitza Barri*	Baserria	D-5	2004/02/05

Toponimo konposatuak bat eginik idatzi behar dira. 1810ean dokumentatzen dugu, baita 1857ko *Nomenclátor* delakoan ere, *Muguinza* era, agian akastuna. *Basarrixen* liburuan, *Mugitza Berri* era estandarizatzailea jarri zen, baina dialektala erabili behar da.

Mundio	*Mundixo*	Aurkintza	C-2	2004/02/27

1889an *Mundiogaña* era dokumentatzen da eta kontsideratu da *-gaina* generikoa eranstea. Hala ere, era sinplea ematea hobetsi da azkenik. Amaierako hiatoko *io>ixo* epentesi automatiko hori mintzairari dagokio, baina ez idatzizko arauketari.

Munikola	id.	Alderdia	G-2	2004/05/24

Oharrik ez.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua

Muntegi *Muntei* Aurkintza G-4 2004/02/05

1846an dokumentatzen diren erek (*Munteguicoa*, *Munteguico-errecapea*) bokalarteko *-g-* hotsaren galeraren berri ematen digute, eta idazkeran kontsonante hori jaso behar da, nahiz eta gero, hizkera erlaxatuan, hotsa nabaritzen ez den.

Murgia (-a) *Murgixa* Aurkintza D-5 2004/02/05

1791n eta 1793an dokumentaturiko erek argi uzten dute *ia>ixa* epentesi hiatiko automatikoa dagoela. Hizkeran bai, baina idazkeran ez da islatu behar.

Mutegi *Mutei* Aurkintza D-3 2004/06/29

Baliteke bokalarteko hotsen bat hortik jausi izana, seguruena -tegi atzizkia egotea izanik. Hala ere, hipotesia baizik ez da eta dokumentaziorik ezean bere horretan uztea da egokiena. Kontuan izan bedi, *Muteitta* ahozko era *Mutegieta* arautzea ez zela eztabaidatu, agian kasu horretan ageriagoa zelako desitxuraketa. Gauza bera egin da *Ordei* jasotakoa *Ordegi* araututakoan eta *Mutegieta* izen arautuarekin. Honekin ere beste hainbeste egitea da egokiena, azken finean familia berekoak dira-eta.

Mutegieta *Muteitta* Aurkintza D-4 2004/02/05

Dokumentatzen ez dugun arren, badirudi bokalarteko hotsen bat jausi dela hortik, eta seguruena *-tegi* atzizkia egotea litzateke. Honen ondoren *eie>ei* sinpletzea ematen da eta horren ondoriozko hurrengo hotsaren bustidura. Fenomeno hauek ondo daude hizkera erlaxatuan, baina ez dira idatzi behar.

Nagiorbebekoa (-a) *Naiorbe* (*Behekua*) Baserria E-4 2004/02/05

1810ean eta 1857ko *Nomenclátor* delakoan bokalarteko *-g-* hori dokumentatzen da, hizkera erlaxatuan ahozkatu ez baina idatzi behar dena. Salbuespenak salbuespen, mendebaldeko toponimoetan ez da h letra idatzi behar. Gainera, toponimo konposatuak bat eginda idatzi behar dira, bereziki oikonimoak. Amaierako *oa>ua* itxitura bokalikoa ez da idazkerara eraman behar.

Nagiorbegoikoa (-a) *Naiorbe Goikua* Baserria E-4 2004/02/05

1810ean eta 1857ko *Nomenclátor* delakoan bokalarteko *-g-* hori dokumentatzen da, hizkera erlaxatuan ahozkatu ez baina idatzi behar dena. Bestalde, toponimo konposatuak bat eginda idatzi behar dira, bereziki oikonimoak. Amaierako *oa>ua* itxitura bokalikoa ez da idazkerara eraman behar.

Nebera id. Baserria C-4 2004/05/24

Oharrik ez.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Olabaso	id.	Aurkintza	D-4	2004/05/24

Oharrik ez.

Olamendi	id.	Aurkintza	E-6	2004/05/24

Oharrik ez.

Olarreaga	id.	Alderdia	F-2 G-2	2004/05/24

Oharrik ez.

Orbe	*Orbe*	Baserria	D-5	2004/05/27

Basarrixen liburuan artikulua eta guzti agertzen da eta kontsideratu dugu era hori arautzea, 1810ean hala dokumentatzen baita (*Orvea*). Hala ere, bera barik uztea erabaki da, gaur egun zeharo desagertu delako mugatzaile hori.

Orberreka	*Orbe erreka*	Erreka	C-2	2004/05/27

Hidronimo hau ez dator toponimoen zerrendan eta generikoa elkartuta arautu behar da, konposatu arrunt baten gisa alegia.

Orbesoraen	*Orbe Soraen*	Baserria	B-2	2004/02/05

1728an Valle de Soraen dokumentatzen da eta 1857ko *Nomenclátor* delakoan *Orbesoráin* etxea. Bokalismo zaharra berreskuratzearekin bat gatoz, baina bat eginda idatzi behar da, toponimo konposatu guztiak bezala, berezi-ki oikonimoa izanik.

Ordegi	*Ordei* (Markina-Xemein)	Iturria	A-4	2004/02/05

Itxura guztien arabera, bokalartetik zerbait jausi dela ematen du, haren atzean agian -degi atzizkia izkutatzen dela, baina ez dugu dokumentaziorik. Hala ere, jasotzea onartu da.

Oregibaso	id.	Aurkintza	G-3	2004/05/24

Oharrik ez.

Oregizar	*Oregi*	Baserria	A-2	2004/05/27

Basarrixen liburuaren arabera *Oregi Zahar* izango litzateke izen osoa, era arautua *Oregizar* izan behar lukeena, bat eginik eta -h-rik gabe.

Orla	*Orla*	Alderdia	D-3	2004/02/27

Ez dauka Bergaran omen dagoen *Gorla* gainarekin zerikusirik, hasieran uste genuen bezala, eta hasierako moduan uztea erabaki da.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Orlaburu	*Orlaburu*	Aurkintza	D-3	2004/02/27

Ez dauka Bergaran omen dagoen *Gorla* gainarekin zerikusirik.

Ormaztegi	*Ormaztegi*	Erreka	D-4	2004/05/27

Toponimoen zerrendak ez dakar hidronimo hau eta gaineratu behar litzateke. Gainera iparralderago datorren *Trango* errekaren izenetik ez da ondo bereizten. Hala ere biok uztea erabaki da.

Otabaltz	id.	Aurkintza	F-5	2004/05/24

Oharrik ez.

Otalarra	id.	Aurkintza	G-2	2004/05/24

Oharrik ez.

Otaola	*Otaola*	Erreka	G-3	2004/05/27

Hidronimo hau ez dator toponimoen aurkibidean eta gaineratu behar litzateke.

Otaolaerdikoa (-a)	–	Baserria	F-3	2004/06/29

Basarrixen liburuak aipatzen du. Hiri inguruan badago ere, kontsidera liteke kokatu eta errotulatzea. 1913an dokumentatzen da izena bere horretan. *Txaltxakoa* etxearen atzean (iparraldean) dago.

Otaola-Kiñarra	*Otaola-Kinarraga*	Auzunea	H-4 H-5	2004/05/27

Kinarra toponimoei ez zaie aurkitu *-aga* duteneko dokumentaziorik eta hala uztea erabaki da. Izen hau ere modu berean arautu behar da, beraz. Hala ere guztiei *-ñ-* grafia jartzea erabaki da. Bi entitateren elkartetik sortutako auzunea da-eta, gidoia erabiltzea da egokiena.

Otegi	id.	Aurkintza	D-4	2004/05/24

Oharrik ez.

Otun	id.	Aurkintza	D-5	2004/05/24

Arraroa dirudien arren, 1793an (*Otum*) eta 1800ean (*Otun*) dokumentatzen da. Seguraski *ota+gun(e)* elkartetik sortua.

Pagadibaltz	id.	Aurkintza	B-1	2004/05/24

Oharrik ez.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Pagadizar	id.	Aurkintza	C-1 C-2	2004/05/24

Oharrik ez.

Pagaegi	*Pagei*	Erreka	D-3	2004/02/05

1810ean, 1857ko *Nomenclátor* delakoan eta 1928an ondo dokumentatzen da mintzairan bokalarteko *-g-* hotsa galtzen duen toponimo hau. Gainera *ae>e* sinpletze bokalikoa egiten da. Idatzizko era arautuan, ordea, ez dira fenomeno horiek islatu behar.

Pagaegi	*Pagei*	Alderdia	D-3	2004/02/05

1810ean, 1857ko *Nomenclátor* delakoan eta 1928an ondo dokumentatzen da mintzairan bokalarteko -g- hotsa galtzen duen toponimo hau. Gainera *ae>e* sinpletze bokalikoa egiten da. Idatzizko era arautuan, ordea, ez dira fenomeno horiek islatu behar.

Pagaegi	*Pagei*	Baserria	D-3	2004/02/05

1810ean, 1857ko *Nomenclátor* delakoan eta 1928an ondo dokumentatzen da mintzairan bokalarteko *-g-* hotsa galtzen duen toponimo hau. Gainera *ae>e* sinpletze bokalikoa egiten da. Idatzizko era arautuan, ordea, ez dira fenomeno horiek islatu behar.

Pagaegiabeletxe	*Pagei Abeletxe*	Baserria	D-3	2004/02/05

1810ean, 1857ko *Nomenclátor* delakoan eta 1928an ondo dokumentatzen da mintzairan bokalarteko *-g-* hotsa galtzen duen toponimo hau. Gainera *ae>e* sinpletze bokalikoa egiten da. Idatzizko era arautuan, ordea, ez dira fenomeno horiek islatu behar. Toponimo konposatuak, gainera, bat eginik idatzi behar dira, bereziki oikonimoak.

Pagaegiaurre	*Pageiaurre*	Aurkintza	D-3 D-4	2004/02/05

1810ean, 1857ko *Nomenclátor* delakoan eta 1928an ondo dokumentatzen da mintzairan bokalarteko *-g-* hotsa galtzen duen toponimo hau. Gainera *ae>e* sinpletze bokalikoa egiten da. Idatzizko era arautuan, ordea, ez dira fenomeno horiek islatu behar.

Pagaegikorta	*Pagei( )korta*	Baserria	D-3	2004/02/27

1810ean, 1857ko *Nomenclátor* delakoan eta 1928an ondo dokumentatzen da mintzairan bokalarteko *-g-* hotsa galtzen duen Pagaegi- toponimoa. Gainera *ae>e* sinpletze bokalikoa ere fenomeno arrunta litzateke. Idatzizko era arautuan, ordea, ez dira gertakari horiek islatu behar. San Martinek ere *Pagaegui* era osoa dokumentatzen du 1498an eta 1609an, azken hau deitura legez.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Pagoaga	*Pagua*	Erreka	D-6	2004/02/05

1810ean *Paguaga* era dokumentatzen den arren, 1857ko *Nomenclátor* delakoan *Pagoaga* dator. Bokalarteko *-g-* hotsaren galera, *aa>a* sinpletzea eta *oa>ua* itxitura, hirurak dira hizkerari dagozkion fenomenoak, baina ez dira idazkeran islatu behar.

Pagoagaabeletxe	*Pagua Abeletxe*	Baserria	D-6	2004/06/29

1810ean *Paguaga* era dokumentatzen den arren, 1857ko *Nomenclátor* delakoan *Pagoaga* dator. Bokalarteko *-g-* hotsaren galera, *aa>a* sinpletzea eta *oa>ua* itxitura, hirurak dira hizkerari dagozkion fenomenoak, baina ez dira idazkeran islatu behar. Toponimo konposatuak bat eginda idatzi behar dira.

Pagoagalde	*Pagualde*	Aurkintza	D-6	2004/02/05

1810ean *Paguaga* era dokumentatzen den arren, 1857ko *Nomenclátor* delakoan *Pagoaga* dator. Bokalarteko *-g-* hotsaren galera, *aa>a* sinpletzea eta *oa>ua* itxitura, hirurak dira hizkerari dagozkion fenomenoak, baina ez dira idazkeran islatu behar.

Pagola	id.	Alderdia	C-4	2004/05/24

Oharrik ez.

Pagolabekoa (-a)	*Pagola Behekua*	Aurkintza	B-4	2004/02/05

1846an *Pagaola-* dokumentatzen da, baina hasierako zatia *pago>paga* konposaketa-aldaeratik dator-eta, kontsideratu da etimologikoki argiagoa den Pagola- era uztea, berau ere ondo dokumentatua. Toponimo konposatuak bat eginda idazten dira. Mendebaldeko toponimoetan ez da h letra idazten, oso hedaturik dauden generiko ohikoenetan salbu. Amaierako *oa>ua* aldaketa ez da jaso behar idazkleran.

Pagolaerreka	*Pagaerrekalde*	Erreka	C-5	2004/05/27

Toponimoen zerrendan ez dator hidronimo hau. Gorago dagoen *Pagolaerrekalde*rekin zerikusi segurua dauka-eta batera arautu behar dira biok.

Pagolaerrekalde	*Pagola Errekalde*	Aurkintza	C-5	2004/05/27

Hortik behera doan erreka *Pagolaerreka* izena du, eta ez *Pagaerrekalde*. Hortik sortua dateke izen hau eta bat eginik idatzi behar da, beraz.

Pagolagoikoa (-a)	*Pagola Goikua*	Aurkintza	C-4	2004/02/05

1846an *Pagaola-* dokumentatzen da, baina hasierako zatia *pago>paga* konposaketa-aldaeratik dator-eta, kontsideratu da etimologikoki argiagoa den *Pagola-* era uztea, berau ere ondo dokumentatua. Toponimo konposatuak bat eginda idazten dira. Amaierako *oa>ua* aldaketa ez da jaso behar idazkeran.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Pagolatxabola	*Pagola*	Baserria	C-4	2004/05/27

Mapan *Pagola* bezala datorren arren, *Basarrixen* liburuan *Txabola Pagola* eran dator baserri hau, antzina txabola izandakoa, eta ahoz *Txabola* esaten diotena.

Pagoloste	id.	Aurkintza	B-4	2004/05/24

Oharrik ez.

Pagozarreta	id.	Aurkintza	B-3	2004/05/24

Oharrik ez.

Pagutzi	id.	Aurkintza	F-6	2004/05/24

Oharrik ez.

Palankaleku	id.	Aurkintza	B-1 B-2	2004/05/24

Oharrik ez.

Petramuñoko atxa (-a)	*Petramuko hatxa*	Aurkintza	A-2	2004/02/27

Mendebaldeko generiko propioa den *atxa* (vs. *haitza*) ez dugu h-z idatzi behar. Genitibo marka daramaten toponimo konposatuak ez dira bat eginda idazten, oikonimoak salbu. 1879an *-muno* generikoa daraman era dokumentatzen da, 1927an *-mino* bihurtua. Berreskuratu behar dela uste izan dugu, eta era «batuagoa» den bustitako *muño* era kontsideratu da egokiagoa.

Pitxargain	–	Baserria	F-4	2004/06/29

Basarrixen liburuak dakar eta kontsidera liteke errotulatzea. Liburu horretan *Pitxargaingoa* izena ematen zaio, baina *Dolaraetxe* izena zuela esaten da ere. Onomasticon Vasconiae, 13, 387an ondo dokumentatzen da *Pitxargaingoa*, baita *Dolaraetxe* era ere 1901ean. Hala ere, ahoz *-goa* atzizkia galdu da-eta, bera barik arautzea onartu da. 1860an *Pichargaña* ere dokumentatu da. *Aldatza* ondoan dago.

Potrozulo	id.	Aurkintza	D-5	2004/05/24

Oharrik ez.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Saabil	*Saabil*	Aurkintza	E-5	2004/02/27

Bokal geminatu horren atzean beste zerbait egotea litzateke normalena. Ez dugu dokumentaziorik aurkitu, baina baliteke atzean *Saga(r)-* lexema egotea. Hala ere, hipotesia dugu eta dokumentaziorik ezean, bere horretan uztea pentsatu dugu dela egokiena. Bitxia bada ere, *Suabil* era ere dokumentatzen da, beharbaka akats hutsa.

Saapita	id.	Aurkintza	D-4	2004/05/27

Mandiola baserriko eskrituretan begiratzen saiatuko dira, baina bokal geminatu horren atzean beste zerbait egotea dirudi normalena. 1810ean eta 1857ko *Nomenclátor* delakoan datorren *Sagarbieta*, ez dirudi leku berbera denik eta honenbestez, zegoen legez uztea ematen du zuhurrena.

Sagarbakotxa (-a)	*Sagarbakotxa*	Aurkintza	D-4	2004/02/27

Posible litzateke *-aga* atzizkia galdu izana, baina ez dugu inon ere dokumentaziorik aurkitu. Bere horretan uztea erabaki da.

Sagarbieta	*Sagarbitta*	Baserria	E-4	2004/02/27

San Martinek, 1857ko *Nomenclátor* delakoan lekukotza bakarrarekin, *Sagarbieta* proposatu du era arautu legez. 1810ean ere *Sagarbieta* dokumentatu da. Azken finean, *ie>i* hiatoaren desagerpena eta geratzen den *-i-* horrek eragindako bustidura modernoa izango lirateke aldaketaren esplikazioa, gaurko ahoskera *Saárbitta* izan ohi da-eta.

Sagartegieta	*Sagartegitta*	Baserria	E-6	2004/02/05

1810ean eta 1857ko *Nomenclátor* delakoan dokumentatzen da era osoa. Uste dugu, errotulaturiko eran *Sagartegitta* jarri nahi zela, *ie>i* sinpletzea ezinbestekoa baita ondoko *-t-* leherkaria busti ahal izateko. Gaurko ahoskera *Saarteitta* izaten da.

Sagastia (-a)	*Sagastixa*	Aurkintza	E-3	2004/02/05

1787an dokumentatzen da *Sagastibarren* era. Amaierako *ia>ixa* epentesi hiatikoa ez da idatzi behar, ahoz esatea zuzena bada ere.

Sagastiko tontorra (-a)	id.	Aurkintza	E-3	2004/06/29

Oharrik ez.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Salbador	id.	Alderdia	G-5	2004/05/24
Oharrik ez.				
Salbadorpe	id.	Aurkintza	G-5	2004/05/24
Oharrik ez.				
Salbatore	*San Salbador* baseliza	Baseliza	G-5	2004/04/29

Salbador esan arren (amaierako -e hori absolutiboan ez daramala dirudi, *Salbadorpe* esan ohi delako, eta ez **Salbadorepe*), era arautua *Salbatore* da euskaraz, nahiz ofiziala beti gaztelaniazkoa izan den. Gainera, kasu honetan izen bat bera direnez, antzeko samarrak, ez du ematen zuzenegi *Salbador* (San Salbatore) errotulatzea. Elizako dokumentazioan *Salbatore ermita* izen ofizial hutsa agertzen da-eta, azkenik *Salbatore* estandar hutsa lagatzea erabaki da.

Sallabente	id.	Alderdia	G-2	2004/05/24
Oharrik ez.				
San Agustin (Done Agustin)				
	–	Parrokia	F-4	2004/04/29

San Andres parrokiatik bidalitako informazio ofiziala dela-eta parrokia hau ere mapan errotulatzea erabaki da.

San Andres	id.	Aurkintza	G-4	2004/05/24
Oharrik ez.				
San Andres Apostolua (-a)				
	–	Parrokia	F-4	2004/04/29

San Andres parrokiatik bidalitako informazio ofiziala dela-eta parrokia hau ere mapan errotulatzea erabaki da.

San Esteban (Done Eztebe)				
	–	Baseliza	E-6 F-6	2004/04/29

San Andres parrokiatik bidalitako informazio ofiziala dela-eta ermita hau ere mapan errotulatzea erabaki da.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
San Ildefontso santutxua (-a)				
	–	Santutxoa	B-3	2004/04/29

Santutxu legez ezaguna den hau gaineratzea erabaki da. Honexegatik, beharrezkotzat jo da, salbuespen gisa, generikoa jartzea, berau baita identifikatzeko erabiltzen den hitza.

San Lorentzo (Done Laurenti)				
	–	Baseliza (desagertua)	–	2004/04/29

San Andres parrokiatik bidalitako informazio ofiziala dela-eta kontsideratu zen ermita hau ere mapan errotulatzea. Hala ere, desagertuta dagoenez, ez egitea erabaki da. Izen arautu historikoan, era kanoniko batua dakarren parentesia gaineratzea ere erabaki da.

San Martin	San Martin	Baserria	E-6	2004/05/27

Ermita errotulatuta dago eta haren ondoan serora-etxea izandako baserria dago. Kontsidera liteke biok, letra molde egoki banaz, errotulatzea.

San Pio X.a (-a)				
	–	Parrokia	F-3	2004/04/29

San Andres parrokiatik bidalitako informazio ofiziala dela-eta, parrokia hau ere mapan errotulatzea erabaki da.

San Rafael Goiaingerua (-a)				
	–	Baseliza (desagertua)	–	2004/06/29

San Andres parrokiatik bidalitako informazio ofiziala dela-eta, ofizialki *San Rafael* hutsa bazekarren ere, kontsideratu zen ermita hau ere mapan errotulatzea. Hala ere, ermita desagertuta dagoenez, ez errotulatzea erabaki da azkenik, nahiz eta izen arautua proposatu bezala utzi eta jasotzeko esan.

Sandroman	San Roman	Baserria	B-3	2004/02/27

San Martinek (Onomasticon Vasconiae, 21) *San Droman* era jasotzen du ahoz. *Sandroman* izango litzateke herri-hagionimoa, eta arautu beharreko era, beraz. *San Roman* izena 1625ean eta 1808an biltzen du San Martinek, baita 1857ko *Nomenclátor* delakoan (etxea eta ermita). 1789an *San Román de Zelarte* era jasotzen da ermitarako, toponimo baten laguntza jatorraz.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Sandroman Zelartekoa (Done Erroman)	*San Roman* baseliza	Baseliza	B-3	2004/04/29

San Martinek (Onomasticon Vasconiae, 21) *San Droman* era jasotzen du ahoz. Hala balitz, *Sandroman* izango litzateke herri-hagionimoa, eta arautu beharreko era beraz, nahiz ostean adbokazioaren era kanoniko arautua gaineratu. *San Roman* izena 1625ean eta 1808an biltzen du San Martinek, baita 1857ko *Nomenclátor* delakoan (etxea eta ermita). 1789an *San Román de Zelarte* era jasotzen da, toponimo baten laguntza jatorraz. *Zelartekoa* kokatzaile hori, hagionimoaren ostean jartzea erabaki da.

Sangointxo	*Sangointxo*	Aurkintza	D-4	2004/02/27

Ez dugu batere dokumentaziorik aurkitzen, baina toponimo arraro samarra da. Txikigarri bat izan liteke, baina ez dakigu zerena. Bere horretan uztea onartu da.

Sanjuangoa (-a)	*San Juan*	Baserria	D-6	2004/05/27

Basarrixen liburuan *San Juan* hagionimoaz dator eta hala arautzea kontsidera liteke. Hala ere, liburu honek oharretan dio 1726ra arte *Arizmenditarrena* izan zela eta *Arizmendi Sanjuangua* izenaz ezagutzen zela. Toponimoen zerrendan ez dator eta gaineratu behar litzateke, beraz.

Sanmartinburu	id.	Aurkintza	E-1 E-2	2004/05/24

Oharrik ez.

Santa Ines	–	Baseliza (desagertua)	–	2004/04/29

San Andres parrokiatik bidalitako informazio ofiziala dela-eta kontsideratu da ermita hau ere mapan errotulatzea, baina desagertuta dagoenez, ez egitea erabaki da. Egondako lekuan gaur egun *Santaiñes* kalea dago, *Santáiñes* ahoskatu ohi dena. Ahoskera hori ez galtzeko, kalearen izena honela uzteari ez zaio gaizki irizten, bestela jendeak erdarazko *Santa Ines* erabiltzen hasiko bailitzateke.

Santakurutz	*Sta Kurutz baseliza*	Baseliza	D-4	2004/02/27

Ondoko eskolarekin egin den bezala, *Sta>Santa* hitza bere osotasunean proposatzen da, laburdura barik. Amaieran *-e* ez daramalako frogatzat har daiteke, ondoan dagoen *Santakuruzko* eskola, deklinatzean zuzenean jasotzen baitu *-ko* genitibo marka. Hau bereiz idaztea ere zilegi litzateke, baina orduan eskola ere modu horretan idatzi behar litzateke. Bat eginik idaztea erabaki da.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Santakuruzko eskola	*Santa Kuruzko eskola*	Eskola	D-4	2004/02/27

Ermita *Santakurutz* arautu den bezala, zuzenena izen hau era berean idaztea da.

Santela	id.	Aurkintza	D-2	2004/05/24

Oharrik ez.

Santupe	id.	Aurkintza	B-3	2004/05/24

Oharrik ez.

Santutxu	*Santutxo*	Aurkintza	A-1	2004/07/19

Atzizki txikigarri mendebaldarra arautzea erabaki da.

Santutxu	*Santutxo*	Aurkintza	G-6	2004/07/19

Atzizki txikigarri mendebaldarra arautzea erabaki da.

Santutxu	*Santutxo*	Aurkintza	C-4 G-6 F-3	2004/05/27

Mendebaldeko txikigarria onartu zitzaion honi, hala erabiltzen omen baita.

Saratsuegi	*Sautsi*	Alderdia	F-5	2004/06/29

Agian *Sautxi* edo *Sautzi* forma ahozkoa ere jasotzea proposatu da. 1810ean *Zarazuegui* dokumentatzen da, baina etimoarekin adosago daude *s*-dun erek (*Sarats* edo *Sahats*, **Salix viminalis**). 1857ko *Nomenclátor* delakoan San Martinek *Sarasuegui* dokumentatu du eta ahoz *Sautxi* jaso. Gainera *Eibarko Hiri-Toponimia* (Onomasticon Vasconiae, 13) *Satzuy* (1898), *Satsuy* (1955), *Sarasuegui* (1779, 1786, 1813, 1874), *Sachuey* (1863), *Sasuy* (1871), *Saazuy* (1878) eta *Sarazui-aldea* (1868) erak jaso dira. Horiek ikusita, aldakuntzaren ibilbide korapilatsua, esplikagarriago egin daiteke: *Saratsuegi*>*Saatsuei*>*Satsui*>*Sautsi*, hau da, *-r-* eta *-g-* bokalartekoen erorketa, talde bokalikoen sinpleketa eta metatesi bat. *Basarrixen* liburuak *Sarasuegi* era dakar, baserriari ahoz *Sautsi Hemetikua* esaten ei zitzaion arren.

Sardinatxa (-a)	*Sardanatxa*	Aurkintza	E-6	2004/02/27

1774an *Sardinach* dokumentatzen da. *Sardinatxa*>*Sardanatxa* aldaketa harmonia bokalikoaz esplika liteke, baina *i*>*a* aldaketa, ezta kasu horretan ere, ez da oso arrunta. Etimoa ere ulergaitz samarra egiten zaigu.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Seipagoeta	id.	Aurkintza	A-4	2004/05/24
Oharrik ez.				
Soraen	id.	Etxe-taldea	B-2 B-3	2004/05/24
Oharrik ez.				
Soraluze	id.	Udalerria	G-6	2004/05/24
Oharrik ez.				
Sorginbaso	id.	Aurkintza	G-4	2004/05/24
Oharrik ez.				
Suiñaga	*Suinaga*	Baserria	B-2	2004/05/27
Grafia bustia arautzea erabaki da.				
Suiñagatxo	*Suinatxo*	Baserria	B-2	2004/05/27
1810ean *Suinaga* eta 1857ko *Nomenclátor* delakoan *Suiñaga* dokumentatzen dira. Bustidura idazteaz gainera, galdutako *-g-* bokalartekoa berreskuratzea erabaki da.				
Sumendiagabekoa	*Sumendiaga*	Baserri erdia	E-5	2004/07/19
Basarrixen liburuak goikoa eta behekoa bereizten ditu, eraikin bat bakarra osatzen duten arren.				
Sumendiagagoikoa	*Sumendiaga*	Baserri erdia	E-5	2004/07/19
Basarrixen liburuak goikoa eta behekoa bereizten ditu, eraikin bat bakarra osatzen duten arren.				
Sutxuegi	id.	Aurkintza	E-6	2004/05/24
Oharrik ez.				
Tellaiturri	*Teillaitturri*	Iturria	C-3 C-4	2004/05/27
Bustidura mendebaldeko joerari men eginik arautzea erabaki zen, hau da, *-i-* bokalik gabe.				
Tontorra (-a)	id.	Aurkintza	F-4 G-4	2004/06/29
Oharrik ez.				
Topinburu	id.	Mendia	H-5	2004/05/24
Oharrik ez.				

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Torrea (-a)	*Torria*	Aurkintza	B-2	2004/02/05

Ez dugu dokumentatzen, baina atzean «torrea» hitz arrunta dagoela argi dago. Amaierako *ea>ia* bokalismo automatiko hori ez da idatzi behar.

Trango	*Trango*	Erreka	C-3 C-4	2004/05/27

Toponimoen zerrendak ez zekarren hidronimo hau eta gaineratzea erabaki da. Gainera, hegoalderago datorren *Ormaztegi* errekaren izenetik ez da ondo bereizten. Bakoitza bere ibaiadarrean uztea erabaki da, azken hau laburra izan arren.

Tutulu	id.	Alderdia	F-3 G-3	2004/05/24

Oharrik ez.

Txabolalde	id.	Aurkintza	C-2	2004/05/24

Oharrik ez.

Txaltxaburu	id.	Aurkintza	F-3	2004/05/24

Oharrik ez.

Txaltxakoa (-a)	–	Baserri eroria	F-3	2004/05/27

Basarrixen liburuak dakar baserri hau Maxi-Eroskiren aldamenean jausita. Errotula liteke, inguruko hainbat gauzari izena eman dio-eta.

Txaltxakoa (-a)	*Txaltxakua*	Erreka	F-3	2004/02/05

1810ean eta 1857ko *Nomenclátor* delakoan dokumentatu dugu. Amaierako *oa>ua* bokalismoa ez da idatzi behar, hizkeran automatikoa delako.

Txarabekoa (-a)	*Txarakua*	Jausitako baserria	E-5	2004/02/05

1810ean eta 1857ko *Nomenclátor* delakoan dokumentatu dugu. Amaierako *oa>ua* bokalismoa ez da idatzi behar, hizkeran automatikoa delako.

Txaragoikoa (-a)	*Txarakua*	Baserria	E-5	2004/05/27

1810ean eta 1857ko *Nomenclátor* delakoan dokumentatu dugu. Amaierako bokalismoa ez da idatzi behar, hizkeran automatikoa delako *oa>ua* aldaketa. Hala ere, *Basarrixen* liburuan *Txara Gainekoa* desagertuta bezala ematen da eta *Txara Azpikoa* ere aurreko urtean bota zutela adierazten da. Zutik dagoena *Txaragoikoa* da, ez behekoa.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Txarako erreka	*Txarako erreka*	Erreka	E-5	2004/05/27

Toponimoen zerrendak ez zekarren hidronimo hau eta gaineratzea onartu da. D-3 D-4 kokaeran badago izen bereko beste erreka bat.

Txarako erreka	*Txarako erreka*	Erreka	D-3 D-4	2004/05/27

Toponimoen zerrendak ez zekarren hidronimo hau eta gaineratzea onartu da. E-5 kokaeran badago izen bereko beste erreka bat.

Txarakoa (-a)	*Txarakua*	Alderdia	E-4 E-5	2004/02/05

1810ean eta 1857ko *Nomenclátor* delakoan dokumentatu dugu. Amaierako *oa>ua* bokalismoa ez da idatzi behar, hizkeran automatikoa delako.

Txarea (-a)	*Txaria*	Aurkintza	D-3	2004/02/05

Atzean *-a* organikoa duen txara hitza dagoela dirudi, mendebalean *-a* artikulua jasotzean *txarea* ematen duena. Amaierako *ea>ia* bokalismoa ez da idazten. Hala ere, ez dugu dokumentatu.

Txarrondo	id.	Aurkintza	C-5	2004/05/24

Oharrik ez.

Txindurrierreka	*Txindurri erreka*	Erreka	D-6 D-7	2004/05/27

Toponimoen zerrendak ez dakar hidronimo hau eta gaineratu behar litzateke. Generikoa lotuta idatzi behar da.

Txingotegi	id.	Alderdia	D-5	2004/05/24

Oharrik ez.

Txintxasti	id.	Aurkintza	D-6	2004/05/24

Oharrik ez.

Txonta	id.	Alderdia	F-4	2004/05/24

Oharrik ez.

Txonta	id.	Erreka	G-4	2004/05/24

Oharrik ez.

Txurrio	id.	Aurkintza	G-5	2004/06/29

Oharrik ez.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Udana	id.	Alderdia	D-5 D-6	2004/05/24
Oharrik ez.				
Umaio	*Umaixo*	Baserria	D-6	2004/02/05

1787an, 1810ean eta 1857ko *Nomenclátor* delakoan *Umayo* era dokumentatzen da. Amaieran *io>ixo* epentesi hiatikoa egitea arrunta da inguru horretako, eta beste hainbat lekutako, hizkeran, baina ez da arauzko idazkeran islatzeko modukoa.

Unbe	id.	Alderdia	G-4	2004/05/24
Oharrik ez.				
Unbe	id.	Erreka	G-4 H-4	2004/05/24
Oharrik ez.				
Unbe kirolgunea	id.	Kiroldegia	G-4	2004/05/24
Oharrik ez.				
Untzama	id.	Aurkintza	E-2	2004/05/24
Oharrik ez.				
Untzeta	id.	Baserria	D-6	2004/05/24
Oharrik ez.				
Untzeta	id.	Baserria	E-5	2004/05/24
Oharrik ez.				
Upartiño	id.	Alderdia	D-4	2004/05/24
Oharrik ez.				
Urdandegieta	*Urdandeitta*	Aurkintza	B-5	2004/02/05

Dokumentatzen ez dugun arren, *-deitta* amaiera horretan *-degi*-eta atzizki metaketa egotea oso posible da. Bokalarteko *-g-* galdu (*Urdandeieta*), *eie>ei* talde bokalikoaren sinpletzea (*Urdandeita*) eta ondoriozko bustidura gertatuz (*Urdandeitta*). Jatorrizkora jo behar du kasu honetan arauzko idazkerak, hizkera erlaxatuak fonetismoak egiten jarraitzen badu ere. Galdamesen dagoen izen bereko lekuari hangoek ahoz *Urdaita* esaten dioten arren, *Urdandegieta* izena arautu da halaber.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Urgoiti	*Urgoitti*	Alderdia	E-6	2004/02/05

Dokumentaziorik ez dugu aurkitzen, baina toponimo gardena da. Bustidura hori ez da idatzi behar.

Urkidi	*Urki*	Etxea	F-4	2004/05/27

Aurretik izen hori daramaten toponimo guztiekin batera, galdutako bokalarteko *-d-* hori berreskuratu behar da.

Urkidia (-a)	*Urkidixa*	Aurkintza	B-5	2004/02/05

Urkidi(a) XVI. mendetik ondo dokumentatzen den izena dugu, askotan artikulurik gabe. Amaierako *ia>ixa* epentesi hiatikoa ez da idatzi behar, ahoz esaten den arren.

Urkidibarrena (-a)	–	Baserria	F-4	2004/06/29

Basarrixen liburuak dakar etxe hau *Urkidi Barrena* idatzita eta *Txatxingua*, *Untzeta* nahiz *Sebastianenekua* izenez ere ezaguna izan dena. Kontsideratu da etxearen izen hura arautzea, baita goitizenetarik bat parentesi artean ematea, baina azkenik, izena baizik ez da onartu, hori bai, bat eginik idatziz. Kanposantuaren hegoaldean dago, *Urkidikurutzekoa* etxearen ondoan.

Urkidiko San Jose Langilea (-a)	–	Parrokia	F-4	2004/04/29

San Andres parrokiatik bidalitako informazio ofiziala dela-eta parrokia hau ere mapan errotulatzea erabaki da.

Urkidikurutzekoa (-a)	–	Baserria	F-4	2004/06/29

Basarrixen liburuak dakar etxe hau *Urkidi Kurutzekoa* eran idatzita. *Urkidiko San Lorentzo* ermita egondako tokitik hurbil dago eta haren oroimenez kurutzea dagoelako jaso omen du adjektibazioa. Kokatu eta errotulatzea kontsidera liteke. Kanposantuaren hegoaldean dago, *Urkidibarrena* etxearen ondoan.

Urkidisarasketa	–	Etxea	F-4	2004/07/19

Basarrixen liburuak dakar pisu-etxe hau eta agian kokatu eta errotula liteke, hiri barruan geratzen dela ematen badu ere. Dirudienez, beste *Urkidi*-guztien moduan, kanposantuaren hegoaldean dauden etxeetako bat da. Kontsultatu diren iturri batzuen arabera *-enekoa* atzizkia eraman lezake, baina azkenean bera barik arautzea erabaki da.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Urkiditorre	–	Etxea	F-4	2004/06/29

Basarrixen liburuak dakar hutsik dagoen eraikin hau. Auzunearen izenaren jatorria izan daiteke-eta errotulatzea mereziko lukeela dirudi. Dirudienez, beste *Urkidi-* guztien moduan, kanposantuaren hegoaldean dauden etxeetako bat da.

Urkieta	Urkitta	Aurkintza	B-3	2004/02/05

1786an **Urquietazabal** eta 1846an *Urquieta* dokumentatzen dira, zein tokiri ote dagozkion ez badakigu ere. Nahiko argia da *ie>i* sinpletze bokalikoa eta ondoriozko bustidura gertatu direla kasu honetan. Jatorrizkora jo behar da idazkera arautuan.

Urkieta	*Urkixeta*	Aurkintza	E-3	2004/02/05

1786an *Urquietazabal* eta 1846an *Urquieta* dokumentatzen dira, zein tokiri dagozkion ez badakigu ere. Kasu honetan, -ie- talde bokalikoa ez da sinpletzen (sortalderagoko joera) eta *-x-* txistukari hiatikoa hartzen du (sartaldeko ohitura), *ie>ixe* eginik. Hala ere, jatorrizkora jo behar da, halako epentesiak ez baitira idazkeran arautzeko modukoak.

Urkiola	id.	Aurkintza	B-5	2004/05/24

Oharrik ez.

Urkizuegi	*Urkuzuegi*	Baserria	E-4	2004/02/27

1857ko *Nomenclátor* delakoan, San Martinek zuzen jasotzen duen legez, *Urcusúegui* dator. Hala ere, *Urkizu* asko dokumentatzen dira Eibarren. Elorrion ere badago *Urkizu* auzunea, ahoz *Urkúsu* esaten dutena, harmonia bokaliko ia ekidin ezina dela bide (*u-i-u>u-u-u*). Gainera 1785ean *Urquizuegui* era dokumentatu da orain, San Martinek izan ez zuen datua. Honengatik berak proposatutako *Urkuzuegi* eraren ordez, guk *Urkizuegi* jatorrari deritzogu zuzenago.

Urko	id.	Mendia	D-2 D-3	2004/05/24

Oharrik ez.

Urko	id.	Iturria	D-3	2004/05/24

Oharrik ez.

Urresti	id.	Aurkintza	D-2	2004/05/24

Oharrik ez.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Urritxain	id.	Alderdia	C-5	2004/05/24

Basarrixen liburuan, jausitako baserri honen berri ematen zaigu, gaur alderdi legez agertzen dena errotulatuta.

Urzulueta	id.	Aurkintza	D-4	2004/05/24

Oharrik ez.

Usartza	id.	Alderdia	C-3 C-4	2004/05/24

Oharrik ez.

Zaldibar	id.	Udalerria	G-2	2004/05/24

Oharrik ez.

Zaturio	*Saturixo*	Alderdia	D-6 D-7	2004/02/05

1783an *Zaturio* era dokumentatzen da eta 1927an *Saturio*. Txistukarien nahastea ohikoa da mendebalde osoan, eta idazkera arautzeko beraz, dokumentaziora jo behar da.

Zaturio	*Saturixo* (Elgoibar)	Aurkintza	D-7	2004/02/05

1783an *Zaturio* era dokumentatzen da eta 1927an *Saturio*. Txistukarien nahastea ohikoa da mendebalde osoan, eta idazkera arautzeko beraz, dokumentaziora jo behar da.

Zaturio	*Saturixo*	Erreka	D-6 D-7	2004/02/05

1783an **Zaturio** era dokumentatzen da eta 1927an *Saturio*. Txistukarien nahastea ohikoa da mendebalde osoan, eta idazkera arautzeko beraz, dokumentaziora jo behar da.

Zearreta	*Ziarreta*	Aurkintza	F-3	2004/02/05

1728an eta 1783an *Ziarreta* era jaso da, 1786an ordea, *Cearreta*. Datek aurkakoa erakusten ei duten arren, gure ustez, azken hau litzateke jatorrizkoa, *ea>ia* bokalismoa automatikoa baita hizkeran eta atzera bihurtuta hitzaren etimoa argia baita.

Zelaiguren	id.	Aurkintza	E-5	2004/05/24

Oharrik ez.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Zelaikoa (-a)	*Zelaikua*	Baserria	D-6	2004/05/27

1800ean *Celaiguchi*, 1810ean *Zelaia*, 1857an *Celaicoa* eta 1968an *Celaybaster* dokumentatzen ditugu. Amaierako *oa>ua* itxitura hizkerari dagokio, baina ez idazkera arautuari. *Basarrixen* liburuan *Zelaia* era hutsa agertzen zen eta kontsideratu da horrela arautzea. Azkenik, hala ere, *-koa* atzizkia eta guzti onartu da.

Zelaitxueta	id.	Aurkintza	F-6	2004/05/24

Oharrik ez.

Zelarte	*Zelaiarte*	Erreka	B-3	2004/05/27

Sandroman ermitari ere *Zelarte* kokatzailea erantsi ohi zaio.

Zelata	*Zelata*	Aurkintza	C-3	2004/02/27

Ez dugu dokumentaziorik aurkitzen. Baliteke *Zelaieta* hitzaren aldaera bat izatea (*Zelaieta>Zelaeta>Zelata*), baina ez da oso normala, jatorrizkoak etimo gardena duelako euskal hiztunarentzat. Gainera jadanik XVI. mendean dokumentatzen da *Zelata* era. Bestalde, bere kokaera, *Izuagana* eta *Usartza* artean, hau da, ibarren arteko pasalekua den lepoaren inguruetan, «zelata» hitz arruntaren esanahiarekin ere bat etor liteke. Badaezpada ere, jaso bezala uztea erabaki da.

Zentenotza	id.	Aurkintza	E-3	2004/05/24

Oharrik ez.

Zerratokia (-a)	*Zerratokixa*	Aurkintza	D-2	2004/02/05

Dokumentaziorik ez dugu aurkitzen, baina generiko huts gardena dela ematen du, toponimoa baino gehiago. Nolanahi ere, amaierako *ia>ixa* epentesi hiatikorik gabeko forma arautu behar da idazkerarako.

Zertzemin	*Zertzemin*	Aurkintza	D-3	2004/02/27

Ez dugu dokumentaziorik aurkitzen, baina *Zartza* hitza fitonimotzat hartu izan da maiz toponimian. Adjektibo legez, *min* oso ohikoa da ere fitonimoen lagun, esanahia eztabaidagarria den arren *(iramin(eta), sagarmin(aga), intxaurmin*, e.a.). Bokalismoa (*a>e*) bi aldiz gertatzea, ondoko i bokalagatik esplika liteke, edo hasieran hori eta gero harmonia edo asimilazio hutsa. Hala ere, dokumenturik aurkitu ez denez gero, bere horretan uztea erabaki da.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Zesterokoa (-a)	*Zestero*	Aurkintza (Baserri zaharra)	D-5 D-6	2004/05/27

Oikonimoek inguru honetako herrietan duten itxuran (*-koa* atzizkiaz) ematea onartu den arren, jausitako baserria dela ematen du aditzera *Basarrixen* liburuak.

Zezeilbekoa	*Zezeil*	Baserri erdia	C-4 D-4	2004/07/19

Basarrixen liburuak goikoa eta behekoa bereizten ditu, eraikin bat bakarra den arren.

Zezeilgoikoa	*Zezeil*	Baserri erdia	C-4 D-4	2004/07/19

Basarrixen liburuak goikoa eta behekoa bereizten ditu, eraikin bat bakarra den arren.

Zozola	id.	Baserria	E-3	2004/05/24

Oharrik ez.

Zozolabarri	*Zozola Barri*	Baserria	E-3	2004/02/05

1810ean eta 1857ko *Nomenclátor* delakoan *Sosola* agertzen da, baina Juan San Martinek ondo dokumentatu ditu *z* horiek lekukotza zaharrekin (Onomasticon Vasconiae, 21). Bestalde, toponimo konposatuak, bereziki oikonimoak direnean, bat eginda idatzi behar dira idazkera arautuan.

Zubiaga	*Zubixa*	Erreka	E-6	2004/02/05

XVI. mendetik aurrera ondo dokumentaturiko izena da. Oso normala da inguru honetako hizkeran bokalarteko *-g-* erortzea, *aa>a* batzea eta *ia>ixa* epentesi hiatikoa egitea, baina fenomenu hauek ez dira idazkeran eman behar, nahiz hizkeran egitea ondo dagoen.

Zubiaga	*Zubixa*	Aurkintza	B-2	2004/02/05

XVI. mendetik aurrera ondo dokumentaturiko izena da. Oso normala da inguru honetako hizkeran bokalarteko *-g-* erortzea, *aa>a* batzea eta *ia>ixa* epentesi hiatikoa egitea, baina fenomenu hauek ez dira idazkeran eman behar, nahiz hizkeran egitea ondo dagoen.

Zubiaga	*Zubixa*	Aurkintza	E-5 E-6	2004/02/05

XVI. mendetik aurrera ondo dokumentaturiko izena da. Oso normala da inguru honetako hizkeran bokalarteko *-g-* erortzea, *aa>a* batzea eta *ia>ixa* epentesi hiatikoa egitea, baina fenomenu hauek ez dira idazkeran eman behar, nahiz hizkeran egitea ondo dagoen.

Era arautua	Hasierako lema	Generikoa	Kuadrantea	Onartua
Zudeia (-a)	*Zudeixa*	Aurkintza	D-6 D-7	2004/02/27

Amaieran *ia>ixa* epentesi hiatikoa duela dirudi, baina ez dugu dokumentaziorik aurkitzen. Era berean, *-aga* atzizkia ere egon liteke hor, baina hipotesia baizik ez da eta atzizkia ez gaineratzea erabaki da.

Zumaran	id.	Baserria	C-3	2004/05/24

Oharrik ez.

Zumaranbarri	–	Etxea	C-3	2004/05/27

Mapan *Zumaran* baserria agertzen da errotulatuta, baina *Basarrixen* liburuan, ondoan *Zumaran Barri* etxe berria duela jakinarazten da. Agian izen hau ere errotula liteke, era arautuan bat eginik idatzita.

Zurrin	*Zurrin*	Alderdia	G-5	2004/05/27

Arraroa da, baina ez dugu dokumentaziorik aurkitu eta bere horretan uztea erabaki da.

Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, 2004ko uztailaren 29an emana.

Txostengilea: Ontzat emana:

Patxi Galé García,
Onomastika batzordekidea

Mikel Gorrotxategi Nieto,
Onomastika batzordeko idazkaria

JAGON SAILA

EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

VIII. Jagon Jardunaldiak

Eliza eta euskara Gasteizko elizbarrutian

Data: 2004ko azaroaren 26a.

Lekua: Euskaltzaindiaren Arabako ordezkaritza (San Antonio, 41 – Gasteiz).

Egitaraua:

16:30 Aurkezpena. Andres Urrutia, Jagon saiburua.

Sarrera. Jose Luis Lizundia, euskaltzaina.

16:45 "Eliza katoliko erromatarra eta euskara". Joseba Intxausti, euskaltzain urgazlea.

17:15 "Gasteizko apaiztegia eta euskara gerra aurretik". Andres Ibañez, Gasteizko Teologia Fakultateko irakasle emeritua.

17:45 "Euskararen egungo egoera Gasteizko elizbarrutiko pastoral jardueran". Emilio Pérez, Aramaioko erretorea.

18:15 Elkarrizketa.

18:45 Azken hitzak. Jean Haritschelhar, euskaltzainburua.

VIII. *JAGON* JARDUNALDIAK:
Eliza eta euskara Gasteizko elizbarrutian

Gasteizen, Euskaltzaindiaren
ordezkaritzan, 2004ko azaroaren 26an

Andres Urrutia,
***Jagon** sailburua*

Arratsaldeon guztioi.

Hirugarrenez dator Jagon Saila, Sustapen Batzordearen bitartez, zuen aurrean, gaia «Eliza eta euskara» dela.

Gure ibilbidea, bistan da, pausoz pauso joan da. Horretara, duela bi urte Hendaian azaldu zen euskararen egoera, Iparraldeko elizbarrutikoa. Iaz Irunberrin antolaturiko jardunaldiei esker, Nafarroako elizbarrutien egoera jende aurrean jartzeko aukera izan genuen.

Aurten, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokiona landuko dugu. Egun, hiru elizbarruti dira Euskal Erkidegoarenak, historian zehar gertaerak oso bestelakoak izan badira ere.

Horrexegatik, hain zuzen ere, lehen-lehenik Joseba Intxausti euskaltzainak adieraziko digu historiaren ikuspegitik, «Eliza katoliko erromatarra eta euskara».

Jarraian, har bitza Euskaltzaindiaren izenean eskerrik beroenak, Andrés Ibañez jaunak. Andrés Ibañez es profesor emérito de la Facultad de Teología de Gasteiz, y nos ilustrará sobre el euskera en el Seminario de formación de sacerdotes de Vitoria antes de la Guerra.

Azkenean, Emilio Pérez, Aramaioko erretorreak plazaratuko du euskararen egungo egoera Gasteizko elizbarrutiko pastoraltza-jardueran. Eskerrak berari ere.

Horiek egoki zertzeko, Jose Luis Lizundia euskaltzainak sarrera laburra egingo digu, mendeetan zehar Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa batzen zituen Kalahorra elizbarrutiari buruzko xehetasunak emanez, eta, itxialdian, elkarrizketarako tartea, eta amaierako hitzak, Jean Haritschelhar euskaltzainburuaren kontura.

Has gaitezen, beraz.

VIII. *JAGON* JARDUNALDIAK: GASTEIZKO ELIZAREN SORTZEA ETA EUSKARA

Gasteiz, 2004ko azaroaren 26an.

Jose Luis Lizundia Askondo

Sarrera honetan eta, dudan denborara mugatuz, XIX. mendean Eliza Katolikoak Euskal Herriarekiko bere baitako erakundetzea aipatzea nahiko nuke. Gaur eta, hemen, ez dut jardungo mende horren hasieran Napoleonen Konkordatuak nola ekarri zuen, alde batetik Iparraldeko parrokia guztiak diozesi berberean batzea, hots, Lapurdi, Garazi-Baigorri eta Arberoa artzipreztazgukoak, lehendik Baionakoak zirenak; Amikuze, Oztibarre eta Agaramontekoak (Navarre deitutako artzipreztazgukoak), orduarte Akizi atxikiak eta Zuberoakoak, Oloroekoarenak. Baina baita ere, Biarnoko guztiak, orduarte Leskarre edo Oloroen zeudenak, BAIONA-LESKARRE-OLOROEko elizbarruti handi eta nahasian (euskaldunak eta biarnesak), horrela populu biak bil araziz. Departamendua eta diozesa gauza bera, eta, horrela jarraituko, zoritxarrez.

Espainiako Erreinuan ere estatu liberalak nahi izan zuen egin hori. 1822an, liberal progresistek «trienio liberal» delakoan, lehen benetako probintzializazioa burutu zuten 52 probintziekin «Proyecto de división del territorio español» indarrean jarriz. Egile nagusia euskaldun bat, Jose Antonio Larramendi Mugurutza mendaroarra. Napoleoni imitatuz probintziak eta elizbarrutiak kopuru eta muga berberak izatea nahi zituzten. Absolutismoa berriz ezarri zen eta Erregimen Zaharrera itzuli zen egoera, baina 1833an Javier de Burgos ministro liberalak burutu zuen gaur ezagutzen dugun probintzia banaketa. Berehala hasi ziren liberalok Kondordatu berrian lehengo asmoekin, baina agintean zeuden liberal moderatuak ez zuten lortu Frantziako eredu osoa, hori bai, lortu zuten zenbait elizbarruti txiki handiagoekin biltzea, hala nola Tutera Tarazonekoarekin eta abar, baina baita ere elizbarrutirik ez zuten probintziek lortzea, ez denek ordea.

Garaia etorri zitzaien arabar, bizkaitar eta gipuzkoarrei obispadua lortzeko, paradogikoki bada ere Espainiako liberal jakobinoei esker. Calahorra-La Calzadako elizbarruti erraldoiak 553 parrokia galduko zituen Mendebal Euskal Herrian eta hori nekez irentsi zitekeen. Argudio asko erabili zituzten kontrakoek, bereziki kalonje eta elizgizon nagusiek, baina interesgarriak izanik ere, gaur euskarekikora mugatuko naiz. Horretarako Andrés E. de Mañaricua,

Demetrio Mansilla, Sebastián Insausti eta Juan Pérez Alhamaren *Obispados de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya hasta la erección de la Diócesis de Vitoria.* Victoriensia, Publicaciones de lal Seminario de Vitoria, Vitoria, 1964 liburu mardul eta dokumentatua irakurtzea gomendatzen dizuet. Zuetariko batzuk ezagutzen baduzue ere Santo Domingo de la Calzadako Justo Barbagero abatarenak dira hemen aipagarri.

Abata kontserbadorea izango zen, ziur, baina Grazia eta Justizia ministro liberalari idatzi zion, Konkordatuaren ondorioz erabakita zegoen Gasteizko elizbarrutia, gauza ez zedin azken ahalegina egin guran. Bere «*Memoria o consideraciones sobre la reunión de las tres provincias vascongadas en su sólo obispad, con la silla episcopal en Vitoria*» oso adierazkorra da euskararen, euskaldungoaren eta euskal nazionalitateen (horrela dakar euskal nazionalismoa sortu aurretik) kontra argudiatuz. Hara hor pasarterik argigarrienak hitzez hitz:

Ministroari egindako gutunetik:

– «....me ha parecido deber prestar un servicio a mi futura iglesia consignando en la adjunta *Memoria* razones muy valederas contra el proyecto de unir aquellas tres provincias en un solo obispado».

Memoriatik:

– «Y estas razones no han podido ser otras que las que ahora precisamente se alegan para reunir las tres provincias en un solo obispado: el tener las misma legislación especial con igualdad de costumbres y tradiciones. Esa legislación especial es la que da a las tres provincias una especie de independencia que hace muy precaria su unión con España, si el vínculo político que las sujeta a la corona, no estuviese fortalecido con el vínculo canónico que las estrecha y hace dependientes de Castilla».

– «Si a la independencia administrativa y legislación especial de que gozan, se junta entonces la espiritual y eclesiástica, tienen todo lo necesario para gobernarse por sí mismos y ser de todo punto independientes».

– «Para conseguir este objeto (que ha debido parecer a nuestros Reyes de gravísima importancia), y para remover el principal obstáculo que se opone a la fusión de los pueblos en una misma nacionalidad, han procurado limitar el uso de la lengua vascongada, mandando que en todas las escuelas se enseñe por libros castellanos y empleando otros medios para generalizar el uso de este idioma, a cuya adopción en el pays (sic) no ha contribuido poco el clero, por la necesidad de ejercitarlo en sus relaciones con las capitales de las diócesis y comunicación con sus prelados. Por la perseverancia en estas medidas, y a causa también del mayor trato y roce con los castellanos durante la guerra, había llegado así a desaparecer el vascuence: en distritos enteros, limítrofes a Castilla».

– «Teniendo los vascongados. Obispos de su habla, cabildo y párrocos de su habla, se aferrarán más y más en ella, tratarán de extenderla por los límites de las tres provincias, ganando el terreno perdido y haciendo de ella una lengua na-

cional; y si a esto se agrega la mayor afición que cobrarán a sus costumbres, tradiciones y fueros, que en cierto modo se autorizan y sancionan, se habrá contribuido a formar en España una nacionalidad distinta, y una base de separación política para lo que más adelante quisieren invocar el principio de las nacionalidades».

Argi dauka beraz La Calzadako kalonje-abatak euskara eta euskaldungoaren mesedetan izan zitekeela hiru probintziek elizbarruti erakunde bateratua izatea. Politikoki bat ere lotsa gabe jokatuaz, bere Memoria horretan azken azken ahalegin bat egiten du, gutxienez ezinbestean sortzen bazen ere, hiru herrialdeon eremu osoa ez zedin hartu:

– «...y lo 3º, por las razones políticas indicadas que aconsejan más bien que la unión, el fraccionamiento de las tres provincias. Conservando a Pamplona, San Sebastián y Tolosa, que distan menos de ella que de Vitoria; a Santander y Burgos su territorio actual en Vizcaya y Alava; y a Calahorra y La Calzada, por ser la que más pierde, la mayor parte posible de esta última provincia», Araba alegia.

Horrela Bizkaiko Enkarterri eskualdea, Ezkerraldea barne, Santanderko elizbarrutian jarraituko zukeen; gauza bera, Aiara aldeko Tuterako artziprestazgua (Artziniena buru zuena); Gobiarango parrokiak Burgosekin eta Gipuzkoa gehiena, Debarroa salbu, Iruñerekin segituko zuen. Asegaitza zenez gure abat hori Arabako Hegoaldeak ere Calahorra-La Calzadarekin segitzea hobe.

Zorionez ez zuen lortu hiru probintzien eliz batasuna zapuztea. Hori frankismo garaian gertatuko zen, 1949ko azaroaren 2an, Aita Santuaren *Quo ccomodius* buldarekin, Bilbo eta Donostiako apezpikutegi berriak sortuaz,baina hori beste historia bat da. Nik bakarrik abat-kalonje horrek eliz erakundetze batek zer mesede edo kalte zekarzkion euskarari eta euskal nazioari ondotxo zekiela oroit arazi nahi izan dut. Oviedoko eta Iruñeko eliz probintziek frankismo beranduan eraiki zirenean, nola Araba eta Bizkaiko elizek Burgoskoaren eremuan gelditu ziren datorren urterako utziko dugu.

ELIZA KATOLIKO *ERROMATARRA* ETA EUSKARA
Haren hizkuntz hautapenei buruz zenbait ohar

Gasteiz, 2004-XI-26

Joseba Intxausti

«Eliza Katoliko *Erromatarra*» dio izenburuak, Eliza Katoliko horri eman ohi zaion izenlaguna azpimarratzeko asmoarekin.

Izan ere, historikoki *erromatartasuna* baldintza erabakigarria izan da Eliza Katolikoak Mendebaldeko bere hizkuntz politika hautatzean: aparteko erresistentziarik aurkitu ez zuenean, Eliza horrek Erromako hizkuntza, *latina*, hobetsi zuen bere bizitza ofizialenerako, ez beti molde eta maila berean, baina bai, funtsean, joeraz eta erabakiz gogo horri fermuki eutsiz. Eta hori kasik gure egunak arte.

Hala ere, ezaguna denez, jakin badakigu latina ez dela izan Eliza Katoliko Erromatarraren hizkuntza bakarra, baizik eta premia, komenentzia edo hobespenen arabera gainerako hizkuntzek ere izan dutela lekurik Eliza Latinoan, betiere garai eta inguruko girora egokituz.

Esan beharrik ez dago eliz bizitzan Euskal Herriko kristauoi hizkuntz hautapen horren barnean bizitzea egokitu zaigula, Europako Mendebalde guztiari bezala. Eta hor baldintza orokor batzuk egon dira, eliz kulturgintzaren prozesua eta kultura orokorra ere bide jakin batetik eraman dituztenak.

Orrialde hauetan ez dugu deskribatuko hemengo historia hori bere osoan, baina bai jokalekuan izan ditugun arau nagusiak gogoraraziko, eta, lagin historikoren bat hartuta (Iparraldeko XVII-XVIII. mendeak), haiek ekarri zuten emaitza erakutsiko.

Euskal Herrikoa ez da izan inondik ere kasu isolatua; baina, bere arruntasunean, gurean zer nolako ondorioak izan dituen jakiten joateak badu interesik, euskararen kanpo-historia ulertuz joateko. Guretik at egon diren ikusbide eta historia zabalagoak baztertu gabe, noski.

1. ERLIJIOAK ETA HIZKUNTZAK

Erlijio-hizkuntzen arteko zerikusi, harreman edo eraginak ez dira bereziki Eliza kristauen kontua izan, erlijio ez-kristauek ere historia soziolinguistiko iraunkor/aldakorra izan dute, eta aberatsa (1).

1.1. Erlijio-hizkuntzen tradizio handiak

Erlijio handiek hizkuntza hautapen jakinak egin dituzte, beren jator-buruetan eta gero. Gomutagarria da, gainera. hizkuntza batzuen historia idatzia bizitza erlijiosoak sustaturik hasi zela, horretarainoko erabakigarritasuna izan baitute inoiz erlijioek hizkuntzen mundu honetan.

Herri, Herrialde eta Kontinente osoak besarkatu dituzten erlijioen hizkuntz tradizioak hona ekarri besterik ez dago gertakari historiko horren alkantzua barruntatzeko:

1. Hinduismoak (2) *sanskritoz* eman zituen bere liburu sakratu ugari eta aberatsak (Vedak, 1800-500 K.a.; loraldia: 1500-300 K.a.). Aurreko tradizio luze bati jarraiki, Panini gramatikariak finkatu zuen hizkuntzaren araua, hain zuzen testu erlijiosoen fideltasun sakratua segurtatzeko xedearekin (K.a. V. mendean) (3).
2. Budismoak *palieraz* jaso zituen Buddha-ren hitzak eta mezuak, Buddhak berak espresuki sanskrito ulergaitza baztertu eta hizkera herritarra (*prakrito* bat: paliera) hobetsi ondoren (K.a. V-K.o. II. mendeak); Indiatik at, palieraren tradizio budatar hori itzulpenetan jaso zen gero (Txina, Tibet, Birmania, etab.); Txinan, adibidez, 500 eta gehiago itzultzaileren Bulegoa antolatu zen lan horietarako (IV-V. mendeak) (4).
3. Judaismoaren liburu sakratuak funtsean *hebraieraz* eman ziren, eta juduen Liturgian bizirik eta finko geratu zen hebraiera; baina aramerak eta grekoak ere izan zuten lekurik judutarren Biblian (5).

---

(1) Lehen erreferentzietarako: SAWYER, J. F. A.; SIMPSON, J. M. Y. (ed.) (2001): *Concise Encyclopedia of Language and Religion*. Amsterdam: Elsevier.

(2) Hinduismoak, diogu, bere esanahirik zabalenean: vedismoa, brahmanismoa eta hinduismoa (adiera hertsian) barne dituela. (Ik. KÓNIG, F. (1964): *Diccionario de las religiones*. Barcelona: Herder. Ordena kronologiko batean, begira s. v. «Vedismo», «Brahmanismo», «Hisduismo»).

(3) Hinduismoa eta sanskritoa: MANSION, J. (1931): *Esquisse d'une histoire de la langue sanscrite*. Paris: Librairie Orientaliste Paul Geuthner. Ik. Sawyer et al. 2001: 52-54. MORAL, R. del (2002): *Lenguas del mundo*. Madrid: Espasa-Calpe. S. v. «Sánscrito».

(4) Budismoa eta paliera: Mansion 1931: 118; Sawyer et. 2001: 15-20 (zenbait autore).

(5) Judaismoa eta hebraiera: SAENZ-BADILLOS, A. (1988): *Historia de la lengua hebrea*. Sabadell: Editorial Ausa. Hasteko, batik bat Biblia da «hizkuntza sakratu» honen arrakasta¸Testamentu Zaharraz geroztikoa: GONZALO MAESO, D. (1960): *Historia de la literatura hebrea*, Madrid: Gredos. Ik. Sawyer et al. 2001: 68-72 (M. Weitzman). TREBOLLE BARRETA, J. (1993): *La Biblia judía y la Biblia cristiana*. Madrid: Editorial Trotta.

4. Mendebaldeko kristau erromatarren artean *latina* nagusitu zen, baina ez hasieratik bertatik, zeren Erromako lehen kristauak mundu juduhelenistikotik baitzetozen, eta Erroman bertan kultura grekoak eta hizkuntzak itzal handia baitzuten. Latintzea geroago etorri zen, eta latin kristauaren eragin historikoa ere (6).

5. Bien bitartean, Ekialdeko Elizek bestelako bideak ezagutu zituzten, tokian tokiko herritarren hizkuntzak hobetsiz: Egipton koptera, Etiopian ge'ezera, Sirian siriakoa, Bizantzion grekoa, Herri eslaviarretan eslaviera zaharra, Armenian armeniera, etab. Esan dezagun kasu honetan hizkuntza nazionalak indartu zirela oro har, Estatu nazionalarekin edo gabe (7).

6. Erreforma Protestanteak (1517…) zeharo irauli zuen Erdi Arotik zetorren egoera latinoa, eliz bizitza ia osoa hizkuntza herritarretan ematean: Biblia, Liturgia, Predikua, Katixima, Administrazioa, eta partez bederen baina gero eta gehiago Teologia bera ere. Egiteko horretan Erreformatzaile handi guztiek izan zuten esku zuzena, pertsonalki itzultzaile bezala eta mugimendu erreformazaleen gidari gisa ere (8).

7. Arabiera klasikoa izan da *Ummah* (='eliza') islamdarraren hizkuntza, eta hain horrela ikusi dugu hori, ze «arabiarra» eta «musulmana», biak, bat egin eta berdintzera heldu baikara sarritan, musulmantasuna arabiartasun linguistikoarekin nahasteraino. Islam-ak arabiera du Meskita eta Eskola Korandarretan hizkuntza erabat nagusia (predikuak bestelako eskakizunak izan ditzake, noski), eta Historiak erakusten digunez, boterea lagun, beraietatiko eraginez *ere* gizarte zibil eta herri osoak arabiartu ditu Islam-ak. Hala ere, ez du jokabide horretan beti arrakasta bera izan, erresistentziarik ere egon baita (Pertsia, India, Indonesia edo Turkian, adibidez), eta bestalde, hizkera klasiko eta herritarraren arteko betiko aldea izan da, eta da, herrialde arabiarretako buruhauste politiko, kultural eta erlijioso larri bat (9).

---

(6) Begira, besteak beste, Jedin-en *Historia de la Iglesia*-n zehar ageri dena (Barcelana: Herder, 1966). Erosoago eta labur nahiago bada: Sawyer et al. 2001: 27-42 (zenbait autore).

(7) Ekialdeko Elizak eta hizkuntza nazionalak: Bibliografiak ezagutzeko Brepols (Turnhout) argitaletxearen «Fils d'Abraham» bilduma begira daiteke. INTXAUSTI, (2004): «Elizak egin (ez) duen euskarazko kultura idatziaz», in: *Hemen*, 4.zenb., 2004, 63-80.

(8) Protestantismoaz: DELUMEAU, J.; WANEGFFELEN, Th. (19989): *Naissance et affirmation de la Réforme*. Paris: puf. 45-46, 111, 116-117, 288-289. LÉONARD, E. G. (1967): *Historia general del Protestantismo*. Barcelona: Edicions 62 (4 libk.); guri dagokigunaz hurbilagoak direnak: I, 263-314; II, 77-139.

(9) Sawyer et. 2001: 55-66, 162-166 (zenbait autore). Arabiera klasikotik modernoetarako barne-jauziaz, sintesi erosoa: BLAU, J. (1969): «L'apparition du type linguistique néo-arabe», in: Revue des Études Islamiques. 1969/2 (Aparteko inprimaldia: Paris: Libr. Orientaliste Paul Geuthner). Arabiera klasikoaren rol historiko, sozial, kultural, ideologiko eta politikoaz zerbait ja

Eta gatozen kristauen mundura. Hasieran, hizkuntzen hautapen batzuk ez ziren egin Eliza eta fededunen elkarteak herrietan inkulturatzeko asmorik gabe; baina, orduan eta gero baita, alderantziz, norberarena erbesteetan ezartzeko grinarekin ere. Burubide bikoitz horren adibide gisara, jada iradoki dugunetik Erroma Hiriko lehen kristauartea aipa genezake.

Lehen bi mendeetan Hiri hartako Eliza grekoz bizi eta hazi zen (ez ahantzi kristauak Ekialde helenistikotik zetozela, eta Testamentu Berria bera grekoz idatzi zela). Erromatar Kristautasunaren hizkuntz inkulturatzea ez zen ziurtatu Lazion III. mende-hasiera baino lehen. Lehen latintze horren ondoren, ordea, Eliza gaztearen latinak berriz ere Inperioko bideak eta jokamoldeak hartu zituen. Hori horrela, Mendebalde/Ekialdetan erdibanatutako Inperio ahulduko latina Mendebaldeko herriak latinez kristautuz indarberrituko zen, Erromako Elizaren hizkuntz hautapenaren ondorioz.

1.2. Berezko bilakaerak eta aldakuntza egitarautuak

Baina hizkuntzaren aukera hauek, ondorio guztiz iraunkorrekoak izan arren, ez dute hizkuntzen historia geldiarazten, ez barrutik, ez kanpotik. Horregatik, egoera eta bilakaera erlijiosoek, edo soziolinguistikoek, ezusteko emaitzak ere ekarri dituzte Elizara batzutan: herritarren ezpainetatik hasierako eliz hizkuntza galtzean, eliz Erakundeak misio-herrietako hizkuntza berriekin edo gizarteko eleaniztasunarekin topo egitean. Horren guztiaren lekukoak dira *hildako* latin sakratua edo hartatik «sobera» *aldatutako* neo-latinak (erromantzeak…), Amerika aurkitu berriko hizkuntzak, edo betidaniko Ekialde Hurbil eleanitza.

Eliza Katoliko Erromatarraren latina, Eliza Armeniarraren armeniera *grabar*-a, Egiptoko koptera, maroniten siriera, ge'ezera etiopiarra edo Islam-aren arabiera klasikoa ez dira, dagoeneko, hizkuntza mintzatuak, diakroniak eta geografiak bere alda-lana burutu baitute horiengan. Honela, hain tematí iraun ohi duten hizkuntza sakratuen eta belaunaldi fededun berrien artean eten deseroso bat agertu ohi da, azken buruan.

Nola sortu hor, adibidez, Liturgiaren eta herritarren arteko zubi berriak? Galdera, beste nolabait, aintzakotzat hartzekoa da ez erlijio-mundurako bakarrik, inoiz baita bizitza zibil modernorako ere.

Eliza Katolikoan Vatikano II.ak (1962-1965) latinarekin egin duenaren kontrakoa egin du zenbait herri arabiarrek deskolonizatze ostean. Esateko, Al-

---

kiten hasteko bila lehen argibideak, Estatuz Estatu: «L'aménagement linguistique dans le Monde» deritzan web-gunean: http://www.tlfq.ulaval.ca. Arabiera klasikoa (erlijioso korandarra) gaur egungo arabiera dialektal, tokiko arabiera gutxi-asko estandar, arabiera moderno orokorr(ar)en eta beste hizkuntza ez-arabiarren artean nola lekutzen den jakiten hasteko ere balio du batzuetan web-guneak.

jerian, Mauritanian edo Somalian, hiruretan, arabiera klasikoa hizkuntza ofiziala da, arrazoi sinboliko-politikoengatik eta hizkera horrek betidanik duen itzal erlijioso, historiko eta kulturalagatik.

1. Aljeriako biztanleak musulmanak dira ia denak, eta arabieraz ari dira gehienak molde batez edo bestez (% 72) baina bertako arabiera modernoa ez da hizkuntza ofizial idatzia (berberera ez den bezala: % 27,4 mintzatzaile): arabiera klasikoak du ofizialtasun hori; besterik da, praktikak zer ematen duen gero (10).

2. Mauritaniako gizartea musulmana da eta arabiera hassaniya-z («mairuen» hizkuntzaz) ari da gehienbat (% 66 mintzatzaile: indartuz eta zabalduz doan arabiera nazionala delarik), baina arabiera klasikoa da hizkuntza ofiziala (1968an frantsesarekin batera, eta 1991etik hona, bakarra), beste hizkuntza nazional aitortuen artean. Gobernuaren azken hizkuntz politika praktikoak arabiera modernoa laguntzen du. Horren guztiaren ondorioetako bat da Mauritaniako hizkuntza idatzi bakarrak arabiera klasikoa eta frantsesa izatea. Definizio teoriko eta praktiko zaileko egoera bizi du Mauritaniak (11).

3. Somalian, berriz, deskolonizazio-biharamunean somaliera aitortu zen hizkuntza ofizial bakartzat (1969, 1972), sozialki orduko eta geroko hizkuntza nazional nagusia izaki (% 72,5), eta azken hogeita hamar urteetan indartuz eta zabalduz joan dena. Somalierak, independentziatik hona, zinezko iraultza sozio-kulturala ezagutu du (alfabeto latinoa hartu, eskolaratzea somalieraz egin, alfabetatze orokorra abian jarri, ofizialtasun bakarra finkatu). 1979ko Konstituzioaren arabera, arabiera klasikoa ere hizkuntza ofizial bilakatu da (nahiz eta horren nolabaiteko sostengu soziala litzatekeen arabiera herrian darabiltenak % 0,1 bakarrik diren). Somaliarrak musulmanak dira (Estatuaren erlijio ofiziala ere Islam-a da: 1979), baina Somalia ez da sekula arabiartu, eta arabiera (klasikoa) sinbolo bat baizik ez da: «la langue qui unit le peuple de Somalie avec la nation arabe dont il fait partie intégrante».

Ikusten denez, deskolonizazioek (laiko nahiz erlijiosoek) zaila izan dute hizkuntza erlijiosotik ihes egitea, arabiera klasikoaren kasuan aipatutako arra-

---

(10) Irakurtzekoa da, zinez, Mbarek Redjala-k 1970ean idatzitako lan hau: *Remarques sur les problèmes linguistiques en Algérie*. Paris: Paul Geurthner (aparteko inprimaldia). Oinarrizko informazioa du, azkeneko hogei urteak hartzen ez dituen beste honek: GRANDGUILLAUME, G. (1983): *Arabisation et politique linguistique au Mahghreb*. Paris: Maisonneuve & Larose.

(11) Egoeraren konplexutasuna ikusteko eta ikuspegi kritiko baterako: HALAOUI, N. (1997): «Langue dominante, langue rejetée: le Hassaniya en Mauritanie», in: *DiversCité Langues*. I, 1997 (Laval Unibertsitateko web-gunetik jaso daiteke).

zoiengatik ez ezik eskola korandarretan herritarrek barneratu ohi dituzten kultur ohiturengatik eta tradiziozko gizarte-balioengatik ere (12).

Azkenean, badirudi kasu arabiar/musulman horiena baino samurragoa izan dela, oro har, Eliza eta herri kristauen historia, Mendebaldeko Estatu nazionalak lehenago indartu zirelako, modernitate kultural eta ideologikoak bere garaian bidea urratu zuelako eta Elizek berek ere hizkuntza eraberritze oso bat aitzina eraman dutelako, partez Erdi Arotik hasita eta bortitzago oraindik XVI. mendetik hona.

Euskararen eta euskaldungoaren kasua Mendebaldeko testuinguru kristau horretan jarri behar da, Protestantismo kalbindarraren ukitu batekin, baina ia osorik Eliza Katolikoaren lerro historiko nagusien barruan. Horregatik, Eliza honen barrunbe linguistikoari begiratu bat eman beharra daukagu, Elizaren eta elizetako hizkuntz eremuak zeintzuk izan ditugun jakiteko.

2. HIZKUNTZAREN ELIZAKO EREMU ETA BETEKIZUNAK

Eliza Katolikoaren hizkuntz historia bere osoan eta zuzen ulertzeko, beharrezkoa gertatzen zaigu, Eliza horren barnean hizkuntzaz baliatu diren eremu eta betekizun sozio-erlijiosoak zeintzuk (izan) diren begiratzea, funtsean horrek argituko baitu, azken buruan, hizkuntza bakoitzak bertan izan dituen presentzia, pisua, maiztasuna edo bazterketa (13).

Eremu eta betekizun horiek elkarrekin batera emateko ondoko laukia osatu dugu, irakurleari lagungarri gertatuko zaiolakoan:

(12) Ik. *Dictionnaire encyclopedique de l'Islam*. Paris: Bordas, s. v. «Coran, Psalmodie du» eta «Coranique, École». Gogora Erdi Aroko gure eskoletan Salmutegiak zuen lekua eta askoz geroago ere, gure egunak arte kasik, testu erlijiosoak buruz ikasteak izan duen garrantzi pedagogiko-didaktikoa.

(13) Laukian ez ditut garatu Elkarte erlijioso berezietako hizkuntz egoera, jarrera eta jokaerei dagozkienak, batez ere duten konplexutasun bereziagatik. Horretaz hasita daude azterlanak agertzen eta beraietara jo beharko du irakurleak: AGIRREBALTZATEGI, P. (1996): «Euskal Herria eta euskara: Kantabriako Frantziskotar Probintziaren erantzuna eta erantzukizuna», in: *Cantabria Franciscana*. 1996, L, 25-56. Eta ikertzaile berak: «Euskararen 'normalkuntza' Euskal Herriko Erlijioso-Institutuetan: Aldeko eta aurkako arrazoibideak. Frantziskotarren (ofm) adibidea», in: INTXAUSTI, J. (ed.) (2004): *Euskal Herriko erlijiosoen historia. Familia eta Institutu Erlijiosoen Euskal Herriko Historiaren I. Kongresuko Aktak*. Arantzazu: efa. I, 534-552.

ELIZAKO HIZKUNTZAREN ERABILPEN-EREMUAK

1. HITZA ETA HITZAREN OSPAKUNTZA

Eremuak	Hedabideak	Tresnak
Liburu Sakratuak	Biblia	Jatorrizkoen edizioak Itzulpenak: ofizialak (Vulgata) eta libreak Atalkako argitalpenak Argitalpen osoak Argitalpen liturgikoak…
Liturgia	Meza Sakramentuak Orduen liturgia	Meza-liburu ofizialak Meza-liburu egokituak Meza-liburu itzuliak… Liburu ofizialak Liburu egokitu ez-ofizialak Liburu itzuliak (Praktika mintzatuak)
Paraliturgia	Bederatziurrenak… Ospakuntza gidatuak Guruzpidea Santuekiko jaierak…	Argitalpen inprimatuak Ospakizun-gidoiak Irakurgai hautatuak Kantategiak…
Herri-erlijiotasuna	Jaierak (Santuak, Santutegiak) Herri-jaiak Erromesaldiak	Debozio-liburuak Erromes-liburuak Kantategiak Bideko-erritoak

2. HITZAREN APOSTOLUTZA (MISIOA)

Eremuak	Hedabideak	Tresnak
Magisteritza	Kontzilioetakoa Erromakoa Herrialdeetakoa Diozesietakoa Parrokietakoa Eliza eta santutegietakoak	Kazetaritza idatzia Irratiak Testu ofizialak Buletinak Parroki orriak Aldizkari bereziak…
Prediku arrunta	Iganderokoak Aro jakinetakoak Jaietakoak	Homiliak Garizumakoak… Panegirikoak
Prediku berezia	Herri-misioak Hirurrenak… Gogo-Jardunak	Sermoi-bildumak Liburuxkak Misio-lagungarriak
Kleroaren hezkuntza	Seminarioak Erlijiosoen Ikastegiak	Testu-liburuak Eguneroko biziera
Katekesia	Haurren Katekesia Helduen Katekesia	Katiximak, Dotrinak Langai lagungarriak
Ereduen literatura	Historia sakratua Santuen hagiografia Autobiografiak	Bibliari iruzkinak Errezo-irakurgaiak Santuen bizitzak…
Idazlan teologikoak	Dogma Morala Izpiritualitatea Aszetika Mistika	Teologiako eskuliburuak Ikerlanak Itzulpenak Aldizkari berezituak Goi-dibulgaziokoak

3. Tokiko eliz Erakundean, Gizartean, eta Misioetan

Jarduerak	Eremu-guneak	Tresnak
Elizako kudeaketa	Gobernua Administrazioa Barne-harremanak: Eguneroko harremanak Unean uneko harremanak	Eliz Kodea Arautegiak Buletinak Txosten ofizialak Bulego-langai idatziak…
Eliz taldeen gidaritza	Institutu Erlijiosoak Institutu Sekularrak Hirugarren Ordenak Kofradiak Elkarteak Lagunarteak	Erregelak Konstituzioak Ordenako Liturgia Erakundeko literatura Taldeko historia Taldeko heziketa…
Gizarterako zerbitzuetan	Ikastetxeak, herritarrentzako Erietxeak Zerbitzu sozialak Hedabide sozialak Kultura orokorreko partaidetza	Hizkuntz Irakaskuntza Hizkuntz hobespenak Bezeroekiko hizkuntza Euskarazko kazetaritza Kulturgintzako partaidetza linguistikoa
Misioetan	Misionologia Ikerlan bereziak Propaganda	Misioetarako ekimenak Erakusketak Orri eta liburuxkak

Laukiari bere iruzkina emanez, hasteko esan dezagun Kristautasuna «Liburuaren» erlijioetako bat dela (14), aipatu ditugun zenbaiten antzera: Goi-Agerkunde baten ondorio bezala ulertzen duela bere burua Elizak, errebelazio baten emaitza dela, alegia; Goi-Agerkundea hitzez emana izan zitzaiola, mintzatua eta idatzia batez ere. Horren fruitu da Biblia, kristau-herriari Jainkoa-

(14) Erlijio horiek beren Liburu Sakratuen kanona eratu izan dute, tradizioaren eta Kontzilioen bidez; ondorioz, liburu-bilduma ofizial horren erabilera eta itzulpenak garrantzirik behinena izaten dute, erlijio-hizkuntzen historian. Ik. TREBOLLE BARRERA, J. (1993): «Colecciones de libros bíblicos. Libros canónicos y no canónicos», eta «Historia del texto y de las versiones del Antiguo y del Nuevo Testamento», in: Trebolle 1993: 157-270, 271-385. WIDENGREN, G. (1976): «La formación del canon», in: ID. (1976): *Fenomenología de la religión*. Madrid: Cristiandad. 527-544.

ren Hitza ematen dion liburua: hor daude sinestekoak, balioak, bizitzeko arauak. Azkenean, sinestunen Elkarteari (*Eliza* deituko da hori, adierarik zabalenean) Bibliak ematen dio zer pentsa eta zer maita.

Sinbolo, zeinu, keinu eta erritoen balioa ukatu gabe (izan ere Sakramentuak edo «portaera kristaua», adibidez, hor daude), Kristautasuna Hitzez goiagertua da batik bat (hau da, hizkuntza mintzatuz), eta hitzezko mezu horren argitan eraikitako elkartasuna. Horrela ulertzen du Elizak bere burua. «Mezua» ulertu, bizi eta zabaldu hitzaren bidez egiten da batik bat Kristautasunean.

Oinarrizko datu horren gain laukiak sei maila ezberdinetan banatzen du Erakundearen barruko hizkuntzaren edo hizkuntzen presentzia:

1. Hitzaren liburua: Biblia.
2. Hitzaren ospakuntza: ohiko Liturgian eta Paraliturgian, eliz elkarte, bilera eta jaietan.
3. Hitzaren apostolutza: Magisteritza, predikua, katekesia, eliz hezkuntza, kazetaritza eta literatura, pentsamendua eta teologia.
4. Hitzaren kanpoko hedakuntza: Misioak, proselitismoa.
5. Erakundeko hizkuntza, barneko bizitzan.
6. Zerbitzuetako hizkuntza (zerbitzu sozialak).

Sei puntuetako lehenengo laurak Jainko-Hitzaren mezua jaso eta emateko dira, hau da, fededunen elkartasunari Hitza eman, berori elkarrekin bizi eta inguruari ere eskaintzeko.

Azken bi puntuak, ostera, «Eliza» deitua Erakunde erlijioso bihurtzen denean, berorren barruko elkartasunak eskatzen duen komunikabide-tresnari dagozkio: Erakunde barruko nahiz kanporako harremanek hizkuntzaren bat eskatzen dute, eta lehentxeago edo geroxeago hizkuntza ofizial edo para-ofizialak sortzen dira: agian Liburu Sakratukoa bera izan daiteke (hebraiera, grekoa, latina…), eta bera bakarrik, edota berorrekin batera besterik ere bai: alfabetoa asmatu berri zaien gotiko (IV. mend.) edo armeniera (V. mend.) beharbada, edo erromantze jaio berriren bat Erdi Aroan (XI-XIII. etan), hizkuntza nazional idatzi berriren bat XVI.ean, etab.

Maila-modu anitzetan txandatuz, ordezkatuz, trukatuz lekutu izan dira Elizan herrien hizkuntzak, mailarik apalenetik goreneraino, egunerokotasunetik jai handietaraino, herriko seme apaizarekin etxekoaz baliatuz edo urruneko Gotzainarekin hizkuntza arrotza erabiliz (edo isilduz) (15), teologia han-

(15) Ez dut sekula ahantziko Foru euskaldunean (Bizkaia) Bilboko Morcillo Gotzainak –segur aski horretarakoxe hautatutako– nexka-mutikoei jendaurrean gaztelania hutsez egin zien katixima-azterketa (1951-1954.etako data batean izan zen, eta beste askoren artean neu lekuko. Ikustekoa eta entzutekoa!).

dietan latinez jardunez eta herri xumeari sermoietan bere erromantzean mintzatuz (16).

Hizkuntza jakin baten eliz normalizazioa laukian ageri diren betekizunei, hau da, herritarren eliz premia guztiei eta eliz Erakundearen beraren bizitzari hautatutako hizkuntza horren bidez osorik erantzutean lortuko litzateke. Eta, mendeak zehar, nola bete den jakin beharko genuke, ez une mugatu batean, Elizbarruti jakin batean, baizik eta Euskal Herri osoan, berau kristautu zenetik hona.

3. ELIZA ETA EUSKARA ERDI AROAN

Erdi Aroak lekuko idatzi asko utzi du gure monasterio, eliza, herriko etxe eta enparauetan; baina hizkuntza idatziaren eta mintzatuaren arteko eremu-banaketa eta elkarrekiko urruntasuna nabaria izan da gizartean eta Elizan. Herritar hizkuntzan bizi zen jendeari, bizitzako albisteak modu formalagoan idatzita ematean, latinez idazten zizkioten elizgizonek eta eskribauek, adibidez. Horrela, gizarte guztiz elebakarreko artxibo-albisteak beste hizkuntza bateko elebakartasun «ofizialarekin» erantzuten zion paperetan. Bi errealitate linguistiko parekide eta elkar ezin ukituak balira bezala. Erdi Aroko azken mendeetan erret erromantzeen eta euskararen arteko joko bera izan zen hura.

Hizkuntza ugariren historian ezaguna den egoera da hori, eta lege zurrunaren eta malgutasun praktikoen artean ezaugarri propioak izango ditu horrek Elizaren bizitzan. Adibidez, badakigu Santo Tomas Akinokoak edo San Bonaventurak inoiz edo beste sermoiak herri hizkuntzaz egin zituztela, baina ez zuten idatzi sekula horrela: herrian sarritan herritarrez egina gero idaztean eskolako latinez eman ohi zen XIII. mendean. Mendeak pasatu ahala, geldiro-geldiro aldatuz joango den ohitura da hori guztia, baina, orduan ere, gehienbat erret hizkuntzei leku emateko, eta ez Estaturik gabeko mintzairaren mesedetan.

3.1. Latinak bahituriko eliz bizitza?

Hastapenez, Eliza ofizial Erromatarrarentzat latinak zernahitarako balio zuen, Sakramentuak emateko bezala predikurako. Latina galdu eta Goi-Esko-

(16) Bilakaera mendetako aldaera batean zetorrenez, zaila da une historiko bakoitzean (gehi leku jakin batean eta eliz eremu ezberdinetan) egoera zehazki nolakoa zen jakitea. Hizkuntza erromanikoen garapenak gero eta gehiago urruntzen zuen herritar arrunta latinetik, eskolatuen artean latina biziberritu ere egin zen bitartean (Ernazimendu karolingiarra); horregatik, unean uneko hizkuntzen mapak eta aurpegi soziolinguistikoak agintzen zuen praktikan, baina hizkuntz egoeretara moldatzen predikarien berezko gaitasunak, hizkuntz prestakuntza eta abildadeek edo trakeskeriak eta dorpeziak lagun ala oztopa zezaketen. Dena den, predikari handiak nazioarteko bilakatu izan ziren Erdi Aroan (Giovanni Capistrano-koa, Vicens Ferrer valentziarra, e. b.).

letara bildu zenean ere, Elizak oro har bereari eutsi zion: latina zen hizkuntza ofiziala, eta setati, ofizialtasun horretan bahituta gorde zituen Biblia, Liturgia, Zuzenbide Kanonikoa, etab. Historialariak oso kritiko ageri dira gaur egun Eliza latinoaren jokaera horrekin.

Erroman ez zen zalantzarik izan, eta Gregorio Handiak (590-604), Aita Santu izan aurretik bost urte Konstantinoplan egin arren, ez omen zuen grekotik tutik ikasi. Hala baina, praktikan zalantza aukerarik ere egon zen mende haietako Europan (herri zelta, germaniar, eslaviar eta baltikoen Misioetan, adibidez: Irlanda, Alemania, Moravia, Danimarka, Eskandinavia).

Erreforma Gregoriotarrarekin hasita joan ziren zurrunduz gauzak (1050-1230), Zuzenbide erromatarraren funtsezko joerak indarberritzean (XII-XIII.etan), botereaz teoria politiko berriak lantzean (1179ko Lateran III.etik Bonifazio VIII.aren 1303ko *Unam sactam* buldaraino, adibidez), eta erromantze gazte eta beste hizkuntza ez-latinoetara ireki partez, guztiei latina are bortitzago ezartzean, besteak beste Liturgian erromatartasuna berrindartuz ere.

Ondorioak nabariak izan ziren Iserloh-k deskribatu digunez, nabariak eta iraupen mugiezina izan zutenak, mendez mende (17):

> *Desde el siglo XIII […] la liturgia no fue ya sentida como servicio o culto de toda la Iglesia […]. El pueblo quedó excluido hasta de las lecciones. No se hizo ningún ensayo de traducirlas y muchas veces quedaban recubiertas por el toque del órgano. La misa no era ya predicación de la palabra. La lengua ininteligible cerraba al pueblo todo acceso al sentido.*

Hamarkadatan laudorioz aipatu izan den Erreforma Gregoriotarraren historia Gregorio VII.aren (1073-1085) aurretik eta ondoren burutu zena, orain kritika serioak jasotzen hari da historialarien aldetik, horretan eta bestetan.

Gomuta dezagun iganderoko Mezaren betebeharra legez 1215ean ezarri ziola Lateran IV.ak kristau herriari, eta asteroko aldizkakotasun finko hori ezartzen zen aldi bertsuan aipatutako testuak dioena ari zela gertatzen. Garaiko hamarkada batzuk (1184-1240) susmoz eta beldurrez betetakoak izan ziren, hasierako libertatea (laikoen predikua, adibidez) pausoz pauso lotu zutenak.

3.2. Euskal Herriko Elizan

Erdi Aroko ordu haietarako bataiatuta zegoen euskal herria, baina zinezko bere kristautze-bidean (beste Europako herri anitzetan bezala) Hitzaren eta prediku jatorraren beharretan, artean. Zer dakigu, bada, honetaz?

---

(17) ISERLOH, E.(1973): «La vida interna de la Iglesia [en la Baja Edad Media]», in: JEDIN, H. (1973): *Historia de la Iglesia*. Barcelona: Herder. IV, 866.

Euskal testu zaharretara goazela, hemen interesatzen zaigun eremuan uzta eskasa dugu zinez. Egia da, esan bezala, Erdi Aroko mundu idatzia lekuko eskasa, pobre eta engainagarria dela, jendeak idatzitik kanpo eta idatzi gabe bizi zuen errealitatea ispilatzeko, hau da, paperetan «ofizialki» latinez (eta onenean erromantzez) ematen zenak gaizki ispilatzen du garaiko hizkuntzen soziografia, eta euskara eta euskarazko gizartea ez da *entzuten* paperetan (18).

Horrela, irakurtzeko gaude oraindik Erdi Aroko Bibliaren atal itzulirik, edo sermoirik. Eliz paperen gain hainbat Historia «egin» da, eta agiri horiek izan dira historialariarentzat albiste-iturri preziatuak; baina euskararen lurraldeko Monasterioetako kontuak izan arren, ez dituzte ondasunak «euskaraz administratu», idatziz behintzat. Horra gure hutsune tradizional bat.

Katiximarik ere ez zaigu iritsi Erdi Arotik. Eta ez dezagun pentsa, badaezpada, Getariako Martinek (†1449), Parisen ikasitako Maisu eta Nafarroako Erret Kontseilari getariarrak, euskaraz kristau herriarentzat dotrinarik idatzi zigunik, eta ez da iritsi guganaino haren *clara sonoraque vox* hura inongo euskarazko sermoi-liburutan, nahiz eta Basileako Kontzilioak miretsi ahal izan zuen haren ahots ozen eta garbia. Aitzitik, Martin-ena ez da juxtu Ubillos-en kasua (1707-1789): *Philosophia naturalis* bat hiru liburukitan kaleratu ondoren (1755, 1758, 1762), Teologia Irakasle honek *Christau dotriñ berri-ecarlea* zeritzan kristau-bide xume bat behintzat eman zigun euskaraz (1785), Getariakoaren garaietatik hiru mende eta laurden iragan ondoren.

Jakina da Historian iturrien isiltasunak ezer gutxi frogatzen duela, eta, nork daki, egunen batean ez ote dugun altxor ezezagunen bat aurkituko; baina froga hori ez dugun bitartean nahitaez uste beharko da Euskal Herriko Erdi Aro kristauan bostehun edo zortziehun urteko euskarazko hutsunea dugula, eliz kultura idatzian. Azpilkueta «Doktore Nafarra» horren lekuko, 1586an zera idatzi zuenean:

> *…un cántabro piadoso y docto que, hace más de unos 35 años, […] tradujo al vascuence y enseñó esas cuatro cosas [=oraciones], junto con lo más importante de la doctrina cristiana*, lo cual ojalá se hubiera hecho mil quinientos años antes [Azpimar. nirea].

Iturri idatzi eskolatuen falta horretan, adierazgarri gertatzen da ezagutzen dugun euskarazko otoitz-testu bakarra, latinezko *Breviarium* batean emana (c. 1425), baina herri-erlijiotasunaren adierazpena baizik ez dena («padre nuestro chiquito» bezala aipatu dena). Gu gabiltzan honetarako ezer gutxi, noski: nahi

(18) Euskararen lekuko filologiko anitz bada, noski, Erdi Aroko agirietan, eta hor dute beren harrobia «euskara zaharrari» buruzko ikerlanek, Monasterioetako kartularioetatik hasi eta hirietako Gutunetara jauzi eginez, e. b. Ez naiz horretaz ari, gizartean bezala Elizan hiztunek zituzten euskararen erabilpen, ohitura eta hizkuntza(ar)ekiko jarrerei buruz baizik. Azken buruan, Erdi Aroko biziera soziolinguistikoaz dihardut hemen.

bada, Katedralerako erreforma liturgiko erromatarra bai (19), baina herriarentzako euskarazko kultura idatzirik ez (20).

Hala ere, egon zen zerbait hobe eta berria egiteko paradarik: Arnalt Barbazan-ek bildutako Sinodoan (1354) urrunago joan gabe. Begira zer dioen horretaz Goñi Gaztambide historialariak (21):

> *Pero la importancia de este Sínodo está en que don Arnalt de Barbazán publicó en él un compendio de teología en lengua vulgar para uso de los rectores, vicarios y capellanes imperitos en la lengua latina. La obra presenta un carácter elemental y contiene una exposición sumaria de la doctrina cristiana. […]. Completada en algunos puntos en 1500, continuó siendo la base de la formación de un gran sector del clero aún en el siglo XVI.*

Ohar eta argibide historiko hauek iruzkin gustagarririk mereziko lukete, baina bego informazioa bere horretan, besterik gabe.

Monasterioetako euskal lekuko apurrek eta Sinodoetako Arauek erakusten digutenez, euskara ez da agiri eliz zerbitzuetarako espresuki aintzakotzat hartuta. Lehenengo haiek mundu ekonomikoaz dihardute, beste ezer baino gehiago (zergak, dohaintzak, lurrak, langileak, etab.); bigarrenek, berriz, eliz gobernurako ez dute aipatzen euskararik, gutxiago euskarazko idazlan pastoral edo teologikorik.

Hala ere, segurua da euskal gizarte elebakarrean nahitaezkoa zuela Elizak euskara ere erabiltzea, eta XVI. mendean agertuko dira berariaz horretaz diharduten arauak eta irizpideak. Joera horren lekukoa dugu –eta ez da seinale txarra– XVI.aren hasieran kristau Moja-Etxe bateko sarrera-zina, elkarren parean gaztelaniaz bezala euskaraz ere emana (Durango, c. 1520) (22).

Labur dezagun, oro har, egoera: Erdi Aroa amaitzean eliz euskararen burubide instituzional eta soziala oso gutxi normalizaturik dagoela esan behar

---

(19) GOÑI GAZTAMBIDE, J. (1979a): *Historia de los obispos de Pamplona*. I. Siglos IV-XIII. Pamplona: Gobierno de Navarra. 279-281.

(20) MICHELENA, L. (1964): *Textos arcaicos vascos*. Madrid: Minotauro. 57-59. Begira Barbazan Gotzainaren (1318-1355) erreforma liturgikoa: GOÑI GAZTAMBIDE, J. (1979b): *Historia de los Obispos de Pamplona. Siglos XIV-XV*. Pamplona: Ed. Univ. de Navarra/Insti. Príncipe de Viana. 168.

(21) Goñi Gaztambide 1979b: II, 152. Ez zen izan hura (1354) Barbazan-en garaiko Sinodo bakarra: gogora litezke 1325, 1330, 1346 eta 1349koak (Ib. 144-152). Ondoko Gotzainek ere izan zituzten Sinodo berriak, gobernu-arazo eta zeregin pastoralak zaintzeko: adibidez, 1357, 1360, 1373, 1388 (?), 1459, 1477 eta 1499 (Ib. 216-221, 255, 303-304, 538-541, 613-617, 662-665). Azpimarra ditzagun bi puntu: a) Lehendik ezarrita zegoen latinaren Iruñeko eliz Epaitegietako erabilera behartua mugatu egin zuen 1477ko Sinodoak; b) 1499ko Sinodo Konstituzioak bi hizkuntzatan eman ziren: bata latinez, aurreko Sinodoetako Arauekin batera emana izan zen, eta bestea gaztelaniaz (Azpeitian dago ale bakarra). Euskarazkorik ez da ageri.

(22) Historia honetan badu zeresanik, noski, Gotzainak ia beti arrotzak izateak (J. I. Tellechea-k et T. Azcona-k, bakoitzak bere aldetik azpimarratu dutena). Durangoko testua, ik: INTXAUSTI, J. (1985): *Euskal Herria*. Donostia: Jakin/Caja Laboral. I, 342.

da, idatzizko lekukorik ezak, frogatu ez bada, iradokitzen duenetik susma daitekeenez. Hona horren zenbait arrazoi argigarri:

1. Lehenik eta behin, Eliza Erromatarrean gaude: latinak hartuta du bere lekua (Liburu Sakratuan, Liturgiako ospakizunetan, Administrazio idatzian, Teologian, etab.).

2. Euskal Herriko Gotzainak arrotzak dira ia beti (Iruñean bezala, Kalahorra eta Baionan) (23).

3. Euskal Herria eta beroni dagozkion Diozesiak hainbat Eliz Probintziatan banatuta daude, erdal lurraldeekin batera elkartuta.

4. Hemengo zerbait berezia izan gabe, esan daiteke Klero diozesitarren heziketa urrun dagoela, artean, Trento ondoren berandu batean egingo diren ahaleginetatik (Sinodoen kezka eta deiak entzun besterik ez dago) (24).

5. Erlijiosoen «euskal ausentzia» kasik ulertezina da: Eskekoak hemen zeuden XIII. mendetik herriarekin harreman hertsian, hirietan bezala herrietan, baina, dakigunez, euskarazko mundu idatzian ez zuten deus eman (uste dugunez, besterik izango zen, noski, prediku-lan mintzatuan).

6. Eta datu larri bat: euskarak ez du lortu euskal gizarte zibilean zegokion babes eta lekurik. Euskal Herriko Administrazio zibilak «ez daki» euskaraz, mintzatzen bai, idazten ez.

7. Laukian ageri diren eremu ezberdinetan gertatu zenaz apenas dakigun Erdi Aroko ezer, geroago ere gertatuko zaigunaren antzera (herrietako apaizen heziketa, katekesia, herri-erlijiotasuna, parrokien historia, etab.).

8. Mundu idatzi inprimatura gatozela, Brocar-ek 1490ean eman zuen argitara Euskal Herriko lehen liburua (*Manuale Pampilonense*, Iruñea), baina, ikusten denez, latinez.

Horrela iristen gara, bada, Aro Modernora, baina honi heldu aurretik, erlijio-hizkuntzen arteko harremanean zeresanik izan duten ezagun batzuk ekarri nahi ditut hona, gure nahi eta ezinen argigarri ere izan daitezkeelakoan, kontrastez.

---

(23) Ikus episkopologioak GOÑI GAZTAMBIDE-renean. Aipatutako Gotzainen historia (Iruñea), DIOCÈSE DE BAYONNE, LESCAR ET OLORON: *Annuaire 2002*, 43-47 (Baiona eta Oloroe), SÁINZ RIPA, E. (1994-1997): *Sedes episcopales de la Rioja*. Logroño: Diócesis de Calahorra y La Calzada-Logroño.

(24) MURO ABAD, J. R. (1994): «El clero diocesano vasco en los siglos XV y XVI: una imagen», in: GARCIA FERNANDEZ, E. (1994): *Religiosidad y sociedad en el País Vasco (s. XIV-XVI)*. Bilbao: upv/ehu. 53-82.

4. HETERODOXO, GUTXIENGO ETA AITZINDARIEN ARTEAN

Gorago Buddha aipatu dugu, eta haren jarrera pastorala: Hinduismoaren sanskritoa baino *prakrito* herritar bat nahiago izan zuela, alegia, paliera hobestean. Ez da izan hori budismoaren kontua bakarrik; aitzitik, erlijio-mugimendu edo erakunde berriren bat sortu denean eta beronek lehenengo batean hizkuntza erritual zahar batekin topo egin, mugimendu berriak hizkuntza herritarrari heldu izan dio sarritan.

Kristautasunak ez zuen hobetsi, jaiotzean, Sinagogako hebraiera, eta aramera (Palestina, Siria), grekoa (mundu helenistikoan) eta latina nahiago izan zituen (Mendebaldean); Armeniako Eliza nazionalak, eskueran zuen hastapeneko siriera utzi eta armeniera hobetsi zuen (IV-V. mendeak); era bertsuan, Protestantismoak latina utzi egin zuen fededun herritarrekiko harremanean (25), eta hizkuntza herritarrak hobetsi zituen.

4.1. Heterodoxiaren hizkuntzak (XII-XV. mendeak)

Erdi Aro Berantiarrak, XII-XV. mendeetan, mugimendu heterodoxo bizkorrak ezagutu zituen, eta neurri batean edo bestean guztiek ekarri zuten mahai gainera hizkuntzen erabileraren hau, mugimendu herri-herritarretan noski (valdestarrak, kataroak), baina baita lehen buruak teologoak izan zituztenetan ere (wycliffetarrak, hustarrak).

Lyon-dik zetozen valdestarrek, aurkezten zuten Bibliaren itzulpen herritarra onartzeko eskatu zioten Lateran III.ari (1179), Walter Mapp ingelesak bere kronikan idatzi zuenez (26). Ez zen hori Lyon-go arazoa bakarrik.

Urte gutxi geroago, jada Inozentzio III.aren eskuetatik dakigu (1199) Metz-en bazela herritar laiko talde bat Bibliatik «Ebanjelioak, San Pauloren gutunak, Salmutegia, Job eta beste liburu asko Galiako hizkuntzara itzuli» eta «itzulpen horiek isilpeko bileretan erabiltzen zituena». Inozentziok ez zuen itzulpenen kontra deus esan, nahiz eta taldea eliz barnean birbideratu beharra

---

(25) Goi-Teologia egiteko, eta *Confessio* deituetarako ere, latina eurrez erabiliko da lehen belaunaldietan, ikusi besterik ez dago Luter, Melanchton, Zwingli, Kalbin eta hainbaten idazlan osoak, baina horrek berak ere denborarekin behera egingo du. Hautapen berria nondik zihoan ikusteko gogora Kalbin-en obra teologiko nagusiaren historia: *Institutio* deitua 1539an eman zen latinez, eta berehala frantsesera itzuli, 1541ean (gaztelaniaz Varela-k eman zuen, 1597an). Hortaz, Teologia bera ere (hizki larriz eman ohi den hori) herri hizkuntzan eman zitekeen, eta azken buruan halaxe emango zen.

(26) Valdestarren artean lehen egitekoetako bat izango da Bibliaren itzulpena eta berorren irakurketa pertsonala. Ik. AUDISIO, G. (1998[2]): *Les Vaudois. Histoire d'une dissidance (XIIe-XVIe siècle)*. Paris: Fayard. 22. TOURN, G. (1991[2]): *Les Vaudois. L'étonante aventure d'un peuple-église*. Torino: Claudiana. 14.

azpimarratu zuen. Garaiko ebanjelio-zaletasunaren arrastoan zetozen Bibliarekiko eske eta irrika haiek.

Kataroek ere bide berritzaile horretatik jo zuten, eta hain zuzen hizkuntzen erabilera berria izan zuten beren ezaugarrietako bat (27):

> *Un dernier détail explique également le succès du catharisme en Occitanie: les Parfaits parlaient et prêchaient dans la langue des peuples du Sud, c'est-à-dire en occitan, alors que le clercs de l'Église se flattaient de ne parler qu'en latin, langue que ne comprenaient ni le petit peuple ni même les petits féodaux.*

Politika horrek katolikoak ere mugiarazi egin zituen, eta Sto. Domingoren Predikariek prestaturik egon behar zuten tokian tokiko herri-hizkuntzan jarduteko, predikuari zegozkionetan behintzat (28).

Erdi Aroko azken mendeetan, mugimendu heteredoxoen artean beste bi talde nabarmendu ziren, J. Wycliffe (1320-1384) eta J. Huss (1370-1415) Buru zituztela. Wycliffe ingelesak, hainbat lankiderekin batera, burutu ahal izan zuen Bibliaren lehen itzulpen ingelesa (1380-1381: gero *Bible of the Lollards* bezala ezagutua), XVI.ean etorriko zen Erreforma handiari eta beronen itzulpenei aurrea hartuz (29): W. Tyndale-renari (*New Testament* [Worms, 1526], Zaharrarekin osatuz joan zena) eta beronen gain egindako *King James Version* (1611) ofizial eta klasikoenari (30).

Husstarren eta Eliza txekiarraren hizkuntz lana dago, jakina denez, Bohemiako nazioaren oinarrietan: Elizan ez ezik nazio haren beregaintasun-borrokan eliz hizkuntza trukatzeak gure egunak arteko ondorioak izan ditu (31). Kasu honetan, gainera, latinari eta alemanierari ere kendu nahiko zaizkio hartuta zituzten zenbait eremu eta zeregin.

Huss-ek bere *De Ecclesia* funtsezko obra teologikoa (1413) latinez eman zuen, baina horren ondoan txekieraren aldeko bere jarrera garbiki erakutsi ere bai, ideietan eta jardunean, ortografi erreforma ere sustatuz (*Orthographia Bohemica, c.* 1406) (32). Beronen ondoko mugimenduari zor zaio Biblia txekiarren berehalako loraldia.

Hizkuntzaren hau ardura seriosa zen husstarren artean, eta eztabaida-gai ere gertatu zen Eliza disidente hartan. Taboristek adibidez (husstarretako he-

---

(27) GARDÈRE, M. (1996): *Rituels cathares*. Paris: La Table Ronde. 35. Ik. BRENON, A. (1996): *Les cathares. Vie et mort d'une Église chrétienne*. Paris. Jacques Grancher. 99.

(28) LAMBERT, M. (2003): *La otra historia de los cátaros*. Madrid: Ediciones Martínez Roca. 191.

(29) STEINER, G. (2001): *Préface à la Bible hébraïque*. Paris: Albin Michel. 30.

(30) Steiner 2001: 51-52.

(31) MACEK, J.; MANDROU, R. (1984): *Histoire de la Bohème. Des origines à 1918*. Paris: Fayard. 119-121, 150-151. Mugimenduaren historia labur bat: HOLMES, G. (1984): Europa: *Jerarquía y revuelta, 1320-1450*. Madrid: Siglo XXI. 242-267.

(32) CHIZHEVSKI, D. (1983): *Historia comparada de las literaturas eslavas*. Madrid: Gredos. 106.

gal muturrekoenek), Meza osoa nahi zuten eman txekieraz, Pragako apaiz husstarrek partez bakarrik onartzen zuten bitartean (33). Honela, bada, hizkuntza ere arazo erlijioso bizia bilakatu zen hussismoaren baitan.

Hizkuntza herritarren eske hau ez zen heterodoxiaren monopolioa izan Erdi Aroko Elizan, eta, e. b., moldiztegia asmatu ondoren eta Erreforma Protestantearen aurretik Bibliaren itzulpen katolikoak ugari banatu ziren Europan; era berean, eremu bibliko horretan eta Elizako beste hainbat eremutan egon zen herritar kultura erlijioso idatzirako tokirik Erakunde erlijioso berean. Hau da gerora minorizazio nabaria nozitu duten zenbait herritako kasua. Gure geografia honetatik hurbil, kasuren bat edo beste aipa daiteke, Eliza Katolikoaren barneko ezinegon eta gogo haiek erakusten dituztenak.

4.2. Penintsulako hizkuntzak

Erdi Aroko Penintsula Iberiarra ez zen inondik ere elebakarra izan, nahiz eta ordurako erromatarraurreko hizkuntzak (euskara salbu) galduta zituen. Haiek ordezkatuko zituzten hizkuntza berriak kanpotik etorrita edo berton latinaren ondorengo bezala jaiota agertu ziren: Bizantziarren grekoa, bisigotuen gotikoa, konkistatzaile musulmanen arabiera eta berberera, juduen hebraiera erlijiosoa, eta guztion ondoan eta ondoren mintzaira erromantzeak, mozarabieratik hasi eta gainerako guztietaraino.

Eleaniztasun neolatinoa XIII. mendean nabariki ageri da, finkatuta, bere nortasun kulturala ere bilatuz, baita mundu idatzian ere.

4.2.1. *Katalunia*

Hizkuntza erromantzeen artean, eliz prosa –prosa aberatsa, gainera– goizik sortu zuenetakoa izan zen katalana, Europako hizkuntza «handi» askori aurrea hartuz.

Izenak beren datekin ematea nahikoa izango da zertaz ari garen jakiteko: Ramon Llull eta bere produkzio erraldoia (c. 1232-p. 1315), Arnau de Vilanova (c. 1238-1311), F. Eiximenis (c. 1327-1409), A. Canals (1352-1419), V. Ferrer (1350-1419: sermoiak); M. Comalada, agian berea duen *Spill* (sic) *de la vida religiosa* hainbat bider itzulitakoarekin (1515; 11 hizkuntzatan 50 argitaraldi izatera iritsi zen XVIII.a arte) (34), etab.

---

(33) Macek/Mandrou 1984: 105-106, 119-120.

(34) MOLAS, J.; MUNTANER, J. (1979): *Diccionari de la literatura catalana*. Barcelona: Edicions 62. (s. v. «Espill de la vida religiosa». Era berean, ik. «Literatura llatina feta als Països Catalans»).

Eliz letretako ondare erdiarotarra erreferentzi gunetzat geratu zen Kataluniako elizgizonen oroimenean, eta hori gure egunak arte. Adibideren bat nahi balitz, Josep Comerma (35) apaizaren *Història de la literatura catalana* (1923) begira liteke (36). XIII-XV. mendeak «osotasun» garaia bezala aurkezten ditu *(plenitud)*, eta orduko produkzio entziklopedikoaren barruan ematen Llull eta Eiximenis (kapitulu oso bana), aszetika eta moraleko lanak, aldi berean eleberrian ere «novel-la religiosa» deritzana jasoz; horri guztiari itzulpenen mundua gehitu behar zaio, batez ere Bibliarena eta gainerako eliz idazlanena. Hots, Comerma-k bezala, Renaixença-ko elizgizonek ere literaturaren urrezko aroa Erdi Aro hartan ikusi zuten, eta, azken buruan, orduko balio handietako bat bezala ulertu zuten garaiko eliz literatura (37).

Erdi Arotik honantzago, Aro Modernoko beheraldian ere (XVI-XVIII.etan) produkzio erlijiosoan erlatiboki bereari eutsi zion katalanak (38), nahiz eta ikusiko ditugun hizkuntzarekiko planteamolde kastilanozaleak jada XVII.eko krisi orokorrean agertuak ziren.

Modernotasun baten bezperan, Renaixença-n (1832…), literatura erlijiosoak ez zuen atzera egin, eta luma ezagunak eman zituen, gaien aldetik bezala idazleenetik: Torras i Bages, Morgades, Ll. Carreras, C. Cardó, etab. Hamarkada haietan, Montserrateko Monasterioa edo «Foment de Pietat Catalana» bezalakoek eraman zuten mugimenduaren gidaritza (39).

Badirudi Herrialde Katalanetan hizkuntzari bere betekizun sozialak –jendaurrekoak eta eliz eta herri-erakundeetakoak– betidanik ofizialtasun osoz eman zitzaizkionez, samurra izan zela halako eliz literatura izatea; haatik, Herri Katalanetan ere krisi politiko-instituzionalek izan zuten eliz hizkuntzarenean oihartzunik, katalanaren ohizko *status*-a mugiarazi nahiez.

Horren isla dira Kataluniako Sinodoak ere, beren gisara nagusituz zihoan politika zentrala ispilatzen baitute. Koiuntura bikoitz baten barnean

---

(35) Mossèn Josep Comerma (1887-1936) gironarra zen, apaiza (1910) eta Tarragonan Teologian graduatua, latina, erretorika eta literaturako irakaslea izan zen Gironan (1911-1927), Canet de Mar-eko Erretore egin zuten arte (1927-1936). Elizbarrutiko eta diozesiarteko Katekетika eta Pedagogiako Batzordeetan parte hartu zuen. Antzerti lanetan jardun zuen, eta eleberri argitaragaberen bat ere badu. Ik. Molas/Muntaner 1979: s. v. «Comerma, Josep».

(36) COMERMA VILANOVA, J. (1923): *Història de la literatura catalana*. Barcelona: Editorial Políglota. (Begira XIII-XV. mendeei eskaintzen dizkien orrialdeak).

(37) Comerma 1923: 79-139, 143-145, 187-199. *Kempis*-a, e. b., 1482an itzuli zuen Miquel Péres-ek katalanera.

(38) Gurearekin bere begira-moldean duen kidetasunagatik, biziki hurbila gertatzen zaigu XVIII. mendeaz ari den A. Comas-en ondoko kapitulu hau: «La literatura religiosa», in: RIQUER, M. DE; COMAS, A. (1964): *Història de la literatura catalana*. Barcelona: Edicions Ariel. IV, 352-498. Hizkuntza eta pastorala, sermoiak eta sermoi-bildumak, misioetako kantategia, katiximak, errituala eta sakramentu-bizitza, lagunarte eta kofradietako liburuak, santuen bizitza, bederatziurren eta jaierazko liburuak, izpiritualitate-liburuak eta abar aurkezten ditu.

(39) MASSOT I MUNTANER, J. (1979): «Literatura religiosa» (s. v.), in: Molas/Muntaner 1979: 381-383.

suertatu zen hori: alde batetik, Trento-ondoko Erreformaren mareagorarekin batera zetorrelako, eta, bestetik, Olivares-ekin Koroaren erdirakoitasunaren indarrez sustatuta.

Tarraconense Probintziako Sinodoetan (1429, 1591, 1636, 1637) eta Tarragona eta Urgell-eko diozesietakoetan (1566, 1578, 1635) agertu zen hizkuntzaren arazoa, eta ez bakarrik emandako arauetan, baita berorien aurreko eta inguruko eztabaidetan ere (1636-1646).

Xehetasunetan sartu gabe, esan dezagun artean betidanik onartutako katalana berezko hizkuntza dela Printzerrian, baina hamarkada horietan batzuek hizkuntza bakartzat daukaten bitartean, zenbait elizgizon hasirik dela gaztelaniari ateak irekitzen, Herrialdeko hizkuntza katalanari derrigortasuna samurtu edo kentzeko gogoz.

Deigarria da 1591ko testu onartua, argitaratzean, belaxkatua agertu zela (1593), eta 1636koan eztabaida bortitza sortu, Kontzilioan bertan eta ondoren. Gutxi batzuek Arauak gaztelaniaren alde eraman nahi zituzten, hau da, Konde-Dukearen erret politika orokorrera moldatuagoa nahi zen Kataluniako Elizaren hizkuntz politika, Kataluniako Hierarkiaren osaketan bertan nabarmenduz zihoan norabide bereko joera, alegia. Izan ere, 1637ko Kontzilioa ospatzean, eliz Probintzia Tarragonatarrean Gotzain bat bakarra zen sortzez katalana (40).

Gaztelaniaren aldeko ideiak eta zenbait ahalegin beren bidea urratzen hasita zeuden, Elizak pastoralean mendetako tradizio elebakarra hauts zezan. Artean, XVIII. mendeko haize borbondar zakarrak heldu gabe zeuden, baina jada etxeko atarian.

4.2.2. *Galizia*

Gure inguruetan ez da Katalunia bakarrik izan hizkuntzen arteko eliz hautapen orokor edo puntualak egin behar izan dituen periferia. 1975ean, Arauxo Gotzainak gogorarazi zuenez, «a situación orixinal» baten ondoren «o proceso da colonización cultural» bat jasan zuen Galiziak ere (41):

> *Andando o tempo, a vinculación política de Galicia a Castela trocóuse en presión uniformadora, tendente a afogar a personalidade propia de Galicia. O*

(40) Ondoko liburuxtan daude bilduta Kataluniako albisteok: PRATS, M. (ed.) (1995): *Política lingüística de l'Esglesia catalana. Segles XVI-XVII*. Girona: Eumo (Univ. de Girona). Gotzainen datua: 148.

(41) ARAUXO, M.-A. (1975): *A fe cristiá ante a cuestión da lingua galega*. Santiago: sept. 13. Galiziako kolonizazio linguistikoaz Alonso Monterok eskaini zigun gogoeta historiko bat: ALONSO MONTERO, X. (1973): *Informe –dramático– sobre la lengua gallega*. Madrid: Akal. 127-151.

proceso inicióuse cos chamados Reis Católicos de Castela e Aragón, non sin encontrar fonda resistencia por parte dun pobo que se vía privado de algo que, moitas veces inconscientemente, consideraba sustantivo. Pro a forza do máis forte impúxose.

Gotzainak prozesu horren aurrean Elizaren jarrera zein izan zen galdetzen du ondoren, zer egin zuen eliz Erakundeak alegia (42):

…si quixésemos resumir en poucas palabras o comportamento histórico da Igrexa galega, teríamos que recoñecer que, en definitiva, contribuíu a intensificar o proceso da alienación cultural. – Ao noso pobo transmitíaselle a fé cristiá xeralmente non na sua língua cotidiá, senón na língua castelá; e ensinabaselle a rezar, ou mesmo a confesarse, en castelán e non en galego. Igualmente, na sua vida administrativa a Igrexa prescindíu do galego e valeuse do castelán.

Ondoren egoera eta jokabide horren arrazoiak ematen ditu: kanpotik ezarritako politika, Hierarkia arrotza, Eliz Probintziako lurralde-antolaera. Azken arrazoi honen garrantzia azpimarratzen du, gure historiarako ere are argigarriago gerta dakigukeen testu honetan (43):

Baixo a metrópoli compostelá incluíanse tamén dioceses non galegas, por exemplo Oviedo. Este factor determinou, en certo grado, toda a pastoral, e concretamente o emprego da língua, sobre todo en certos casos, como nos Concilios provinciáis.

Estatu- eta eliz politika horren aurrean, hizkuntzaren arriskuaz kontzientzia garbia zuten elizgizonak gogoratuz bukatzen du Arauxo-k bere ohar historiko labur hau: Saco Arce, Sarmiento, López Ferreiro, Lago González (44).

Hizkuntza mugatuago hauek (katalana edo galegoa ditugu hemen adibide) izan dituzten eragozpen eta arrakastak gogoratzean, komeni da gutxiengoen historiara ez mugatzea, zeren eta, bestalde, Elizaren politika latintzaleak guztientzat balio baitzuen eta latintzaletasun hori eliz garapen kulturalean, herriari zegozkionetan, atzerakarga baitzen nonahi ere. Gaztela eta gaztelania dira horietako kasu bat.

4.2.3. *Gaztela*

XIII.ean iritsi zen gaztelania hitz-lauzko literatura sortzera, Zuzenbidea, Zientzia, Historia eta Jokuak emateko behar zuten prosa asmatuz batez ere (Alfontso X.a Jakituna; Errege: 1254-1284).

Eta eliz literatura? Egia esan, Eliza ez zebilen erromantzearen letra ederretatik erabat urrundurik, *Mester de Clerecía*-ren olerkigintzak (XIII.eko le-

(42) Arauxo 1975: 14-15.
(43) Arauxo 1975: 15.
(44) Alonso Montero 1973: 157-159. Sarmientoren zenbait testu.

hen partean) poliki asmatu zuen koblakari herritarrengandik (*Mester de Juglaría* deitu zenetik) eta garaiko eliz literatura latinotik dastatuz erromantzea lantzen: honetan maisua Gontzal Berceo-koa izan zen (†c. 1250).

Monjea zen Berceo, eta Errioxako Donemiliaga Monasterioan bizi izan zen; olerkia utzi zigun, eta harritzekoa da izenez ezagutzen den lehenengo olerkari gaztelau honek landu zuen obra eskerga: garai haietan hain maitea zen latinezko hagiografiatik «mirariak» eta biltzen saiatu zen, berak bere aldetik erromantze berrian eta bertsoz fededunei haien berri emateko: Andre Mariaren Mirariak eta Santuen bizitzak (45). Berceo hau «bertsolari eskolatu» bat izan zela esan daiteke, fededunentzat «bertso-paper» luzeak landu zituena behintzat (46).

Errioxarra zen olerkaria, eta harentzat ez ziren arrotzak euskal mintzatzaileak eta euskara bera, hainbat jende euskaldun baitzuen auzoko (47), eta idazkietan euskararen aztarnarik ere utzi du (48); Menéndez Pidal-ek elebidun bezala aipatzen du Berceo (49). Dena den, baldintza eta inguru hori gorabehera, olerkaria ez zen euskarazko koblakari bilakatu, eta, latina utzita, *roman paladino* eskolatu bati heldu zion.

Egia esan, pentsa daiteke Nafarroan genituen monje-etxeetan euskarak aukera hoberik izan zezakeela *scriptorium*-en batean izkribatua izateko (Irantzuko Monasterioa, adibidez, 1174koa dugu), baina ez zen horrelakorik gertatu, dakigunez. Eta Eskeko Fraideek (esan dugu) eta gure Diozesi ugarietako Gotzain eta apaizek ez zuten aurkitu modurik Erdi Aroan pauso hori emateko (50).

---

(45) BERCEO, G. DE (1992): *Obras completas*. Madrid: Espasa-Calpe. (Isabel Uria eta beste hainbatek paratutako edizioa). Berceo-ren eliz inguru kulturala ezagutzeko lagungarri ona izango da: SAUGNIEUX, J. (1982): *Berceo y las culturas del siglo XIII*. Logroño: Diputación Provincial. Hemen ukitu ditugunak: 103-119. Berceo-rekiko ikuspegi sozial kritikoa: RODRÍGUEZ PUERTOLAS, J.. (coord.) (19812): *Historia social de la literatura española*. Madrid: Editorial Castalia. I, 74-81, 93-94: «Mester de clerecía e intereses creados. Gonzalo de Berceo»; Berceo-ren alde politikoa eta interes sozio-ekonomikoak ere gogorarazten ditu kritikariak (94).

(46) Euskal Herriko bertsolari zaharrenak hain urrun suertatu ote ziren, gero, *Mester de Juglaría* hartatik? Ik. J. Azurmendi-ren gogoeta (pre)historikoa: AZURMENDI, J. (1980): «Bertsolaritzaren estudiorako», in: Jakin. 1980, 14/15. zenb., 139-164.

(47) MERINO URRUTIA, J. B. (19783): *La lengua vasca en la Rioja y Burgos*. Logroño: Diputación Provincial. Ohartzekoa da Merinoarekiko «fazayna» XIII.ekoa dela (c. 1239), eta Errioxako pertsona-izen erdiarotarrak, beren datekin emanak, berezikiago erreparatzekoak dira (18-19 eta 77-85. or.). Ikus, gainera: ORPUSTAN, J.-B. (1999): «L'espace bascophone ancien», in: ID. (1999): *La langue basque au Moyen Âge (IXe-XVe siècles)*. Baigorri: Éditions Izpegi. 17-39.

(48) Michelena 1964: 56-57.

(49) MENENDEZ PIDAL, R. (1926): *Orígenes del español*. Madrid. 466.

(50) Diozesien berri jakiteko begira beza irakurleak zerau: GOÑI GALARRAGA, J. (2004): «Panorama histórico-geográfico de las Diócesis de Euskal Herria», in: INTXAUSTI, J. (ed.) (2004): *Euskal Herriko erlijiosoen historia*. Oñati: Arantzazu. I, 45-128. Bereziki baliagarria I. liburukiko 111. orrialdeko laukia.

Olerkigintzaren hastapen aberats horren ondoren, prosa erlijioso gaztelauak, ordea, ez zuen ezagutu Erdi Aroan katalanaren pareko loraldirik, ezta urrutitik ere (51), nahiz eta Berceo beraren belaunaldiko *Disputa del cristiano y del judío* aipatu behar den, hasteko; baina M. Pérez-en *Libro de las confesiones* bezalakorik ezingo da ahantzi (1316).

XVI. mendea iristean ere, garaiko teologo handiak Salamanka eta Alkalan latinez ari dira ia denak eta ia beti: eliz zientzia (eta besteak ere) artean latinez. Aldakuntza ez zen teologoen Eskolatik (Eskolastikatik) etorri, elizgizon ongi eskolatu eta batzuetan izatez teologo ere baziren baina kristau herri jantziari edo ez hain eskolatuari heziketa hobea eskaini nahi zietenengandik baizik.

Lantegi horretarako prest agertu zirenak ez ziren gutxi izan, eta bai kalitate onekoak. Jada 1500-1530.etan eliz liburu herritarren produkzioan abiada bizkorragoa sumatzen da (52), eta Urrezko Mendea bere indar betean loratuz doalarik, izen sonatuak agertuko dira: F. Osuna-koa (†1542), B. Laredo-koa (†1540), A. Guevara-koa (†1545), Pedro Alkantara-koa, (†1562), Diego Lizarra-koa (†1578), bostak frantziskotarrak; Luis León-goa (†1591) eta P. Malón Etxaide-koa (53) (Kaskante, c.1530-Barcelona, 1589), biak agustindarrak; Juan Avila-koa apaiz diozesitarra (†1569); Ignazio Loiolakoa (†1556) eta geroago A. Rodríguez (†1616), josulagunak; Santa Teresa Avila-koa (†1582) eta Donibane Gurutzekoa (†1591), karmeldarrak; Luis Granadakoa (1504-1588) domingotarra, etab. (54).

Eskoletako Teologia egin gabe, eliz goi-literatura eskaini nahi izan zuten idazleok, Ikasketa Biblikoetatik, Eliz Gurasoengandik, Teologiatik kristauentzat aberasgarri izan zitezkeenak jaso eta modu atsegin eta ulergarrian eskueran jarriz. Asmo honek, ordea, indarrean zeuden aurreiritziekin egin zuen topo. Erromantzearekiko uste zaharrek, partez Humanismoak ere bai (55), eta Kontrarreforma mesfidatiak balazta jarri zieten honelako ekimenei.

Orduko giroaren lekuko izan daitezke, *Los Nombres de Cristo* goi-dibulgazioko liburua gaztelaniaz idatzi zuenean, Frai Luis León-goak desarrazoiak

---

(51) Aski adierazgarria da zer ematen digun GARCIA VILLOSLADA-k gidatutako *Historia de la Iglesia en España* argitalpenak, Erdi Aroaz dituen liburukietan: Kultura eta pentsamendu erlijiosoan katalanak ditugu agertzen direnak (II/2º, 180 eta hurr.), jaieratasun eskolatuan antzertia eta olerkia agertzen dira (II/2º, 291 eta hurr.) eta herri xumearen heziketa erlijioso urrikarria latina ez baztertuaren eta baliabide erromantzerik ezaren ondorioa ere bazen Gaztelan (291-292). Portugali dagokionez, ohar labur bat zerean ikus daiteke: SARAIVA, A. J.; LOPES, O. (198513): *História da literatura portuguesa*. Porto: Porto Editora. 151-156.

(52) García Villoslada 1980: III/1º, 363-371 (Gz. Novalín).

(53) Aurkezpen laburra: García Villoslada: III/2º, 486-488.

(54) García Villoslada 1980: III/2º, 327-361 (M. Andrés Martín: «Espiritualidad española en los siglos XV y XVI. Movimientos y disputas»), III/2º, 443-552 (B. Marcos: «Literatura religiosa en el Siglo de Oro español»).

(55) HINOJO, G. (1997): «Llatí versus vulgar: antecedents i conseqüències d'una polèmica», in: FELIU, F.; IGLÉSIAS, N. (ed.) (1997): *Llengua i religió a l'Europa moderna*. Barcelona: Quaderns Crema.

haizatzeko eman behar izan zituen argibide zurigarriak (1585). Pasarteak, luzea bada ere, azaltzen duen arrazoibidearengatik merezi du hona osorik ekartzea (56):

> *Y esto mismo, de que tratamos [Kristoren izenei buruzko gai teologikoa, alegia], no se escribiera como debía por solo escribirse en latín, si se escribiera vilmente: que las palabras no son graves por ser latinas, sino por ser dichas como a la gravedad le conviene, o sean españolas o sean francesas. Que si, porque a nuestra lengua la llamamos vulgar, se imaginan que no podemos escribir en ella sino vulgar y bajamente, es grandísimo error; que Platón escribió no vulgarmente ni cosas vulgares en su lengua vulgar; y no menores ni menos levantadamente las escribió Cicerón en la lengua que era vulgar en su tiempo; y por decir lo que es más vecino a mi hecho, los santos Basilio y Crisóstomo y Gregorio Nacianceno y Cirilo, con toda la antigüedad de los griegos, en su lengua materna griega, que, cuando ellos vivían, la mamaban con la leche los niños y la hablaban en la plaza las vendedoras, escribieron los misterios más divinos de nuestra fe, y no dudaron en poner en su lengua lo que sabían que no había de ser entendido por muchos de los que entendían la lengua.*
>
> *Que es otra razón en que estriban los que nos contradicen, diciendo que no son para todos los que saben romance estas cosas que yo escribo en romance. Como si todos los que saben latín, cuando [=aunque] yo las escribiera en latín, se pudieran hacer capaces de ellas, o como si todo lo que se escribe en castellano fuese entendido de todos los que saben castellano y lo leen. Porque cierto es que en nuestra lengua, aunque poco cultivada de nuestra culpa, hay todavía cosas, bien o mal escritas, que pertenecen al conocimiento de diversas artes, que los que no tienen noticia de ellas, aunque las lean en romance, no las entienden.*
>
> *Mas a los que dicen que no leen aquestos mis libros por estar en romance, y que en latín los leyeran, se les responde que les debe poco su lengua, pues por ella aborrecen lo que si estuviera en otra tuvieran por bueno. Y no sé yo de dónde les nace el estar con ella tan mal, que ni ello lo merece, ni ellos saben tanto de la latina que no sepan más de la suya, por poco que de ella sepan, como de hecho saben de ella poquísimo muchos.*

Horrelako argudioak erabili behar izan zituen Frai Luis Irakasleak eliz prosa teologiko baten alde (57), Alfontso X.ak prosa profaua sortu eta hiru mende geroago ere. Oztopo horiei gaina hartuz, mende batean literatura eta pedagogia erlijioso aberatsa burutu zuen literatura gaztelauak, parte on batez

---

(56) GARCÍA, F. (ed.) (1944): *Obras completas castellanas de Fray Luis de León*. Madrid: bac. 673-674. Frai Luis-ek liburuaren bigarren argitaraldiari (1585) gehitutako 3. parteko «Eskaintza»-n ageri da jasotzen dugun testua.

(57) Eta ez zen bakarra izan Urrezko Mende hartan erdal idazle handien artean: beste hainbeste egin zuten hain zuzen Malón de Chaide nafarrak (Cascante, c. 1530-Barcelona, 1589) eta A. Orozko santu egin berriak (2002). Biak agustindarrak. Ik. B. Marcos-en oharra in García Villoslada 1980: 486. Etxaide-ren testua Azurmendi-k jasota du: «Habiendo yo comenzado esta niñería en nuestra lengua vulgar –gaztelaniaz, alegia– he tenido tanta contradicción y resistencia para que no pasase adelante, como si el hacerlo fuera sacrilegio…» (Intxausti 1985: I, 363).

aurreko hutsuneak ongi bete eta ondoko mendeei eredu herritar (*vulgar*) landua proposatuz.

Pentsamolde zaharrak gorabehera, honelako aitzindarien ahaleginez abia zitezkeen gainerako herri-hizkuntzak ere eliz prosaren bidetik. Baita euskara ere.

5. ELIZA ETA EUSKARA ARO MODERNO-GARAIKIDEETAN

Euskararen eliz erabilpenaren eta literaturaren historia batez ere Aro Moderno-Garaikideetan ezagutzen dugu. Ondoko orrialdeetan biei buruz esango dugu zerbait, alde batetik kronologia orokor bat proposatuz, eta bestetik, Iparraldeko lagin jakin bat miatuz (XVV-XVIII. mendeei dagokiena).

Baina, aurrera baino lehen, komeni da historia honetako oinarrizko datu batzuk hona biltzea, berauek baitira Elizako euskal historia bere funtsean baldintzatu dutenak.

1. Euskal Herriko eta hemengo Diozesietako erdaldun(dutako) lurraldeen pisua (geografia soziolinguistikoa: Euskal Herriko erdal herria).

2. Erromantzeen presentzia sozial eta ofizialak dakartzan mugak (euskararen ez-ofizialtasuna edo ofizialtasun eskasa).

3. Kanpotiko hizkuntz ezarpen ofizialak, legez nahiz praxiaz: herri-administrazio idatzi erdalduna, erret ordezkari erdaldunak, etab.

4. Euskal Herriko bertako kultur egitura modernoen eskasia, eta kultur profesionalen euskararekiko urruntasuna: Unibertsitateak, eskolak, moldiztegiak…

5. Euskal goi-ikasleen erbesteratzea (Alkala, Salamanka, Paris, Tolosa…), eta, ondorioz, gure Irakasle titulatuen maisugo galdua (atzerriko Unibertsitateetan: Paris, Bologna edo Coimbra-n, adibidez; nazioarteko Ordena Erlijiosoetan).

6. Klase euskaldun sozialetan sumatzen diren erdal joerak, eta garaiko jende eskolatuen kultur ohitura erdaltzaleak edo «euskaltzale» teorikoak.

7. Euskara eskolaraturik eta euskal mintzatzaile alfabetaturik eza: hizkuntzaren eta euskaldungoaren tradizio eskolatu eskasa.

8. Elizan, derrigorrezko latinaren erabilerak jartzen dituen mugak: hau da, Elizak orokorrean duena eta, gurean, hierarkiaren erdalduntasun kronikoak areagotutakoa.

9. Diozesi eta Ordena erlijiosoen inkulturazio-kontzientzia ahula: egitarau orokorrik gabea eta jarraitasunik gabea.

10. Herrietako elizgizonen eskola-prestakuntza apala: Seminarioen eraketa XVIII.a arte atzeratuz joango da, gehienbat arrazoi ekonomikoengatik.

11. Elizaren kultur ekonomia eskasa, betiere Diozesi aski pobreen bizkar zihoana (argitalpenak beti ziren garestiak) (58).

Oro har esan daiteke, Elizaren hizkuntz jokabidea ezin dela garaian garaiko euskal gizartearenetik guztiz aparte begiratu: gizarteko klase sozialek –elizgizonek gidatuta ere bai, noski– nahiago izan zuten eliz eraikin ederrak jaso, eliz argitalpen pobre, praktiko edo ederrak egin baino. Bestelakorik ere proposatu izan zen, noski, testamentuetan, ondarea eskolaren bat sortzeko utziz, baina horrelakoetan batez ere ikasleengan premiazko eta nahitaezko erdal gaitasunak sortzeko izan ohi zen, ez euskalgintzari laguntzeko.

Dena ere euskaldungoarentzat zama astuna, gaztelania indar betean zetorrenean: hemen eta euskaldunen atzerriko zereginetan, Inperioan alegia.

5.1. Eliz euskararen kronologia (1500-2000)

Euskaldungoaren eta eliz Erakundearen arteko hizkuntz harremana hark eta honek, biek, epekatu eta ezaugarriztatu dute. Hortaz, bien historiak eduki behar dira gogoan, elkarrengan eten gabeko eragina izan dutelako. Hori gogoan hartuz, ondoko kronologia hau proposatuko nuke:

1. Lehen urratsak (1500-1596).

2. Eliz arauak, eta 1. idazketa-loraldia (1596-1728).

3. Hegoaldeko 1. eliz ekarpen idatzia (1729-1875).

4. Eusko Pizkundeko ekarpenak (1876-1937).

5. Gerraondotik Kontzilio-ondora (1937-2000).

Egituraketa kronologiko honek ahal den neurrian esparru-sozial ezberdinak hartu nahi ditu aintzakotzat (sozial orokorra, elizakoa, politikoa, etab.), eta kulturaren alde ezberdinak ere bai (literatura, hizkuntz politika, eliz mugimendu kulturala, euskararen historia, etab.).

(58) Tellechea Idigoras-ek azpimarratu du Iruñea, Kalahorra eta Baionako Diozesien ekonomia apalarena. Sáinz Ripa-renean begira daiteke inguruko Diozesien artean Kalahorrakoak zuen balioespen ekonomikoa.

5.1.1. *Lehen urratsak (1500-1596)*

XVI. mendean gaude, Ernazimenduan, Amerika aurkitu berria duen gizarte batean, humanistekin elkarrizketan (Erasmo bera hurbil dugula), berehala Erreforma Protestantea ezagutuko duen Europan eta Kontrarreformari ekingo dion Eliza Katolikoan, bi Monarkia lehiakideren artean (eta zerbitzuan); artea eta kultura modernoa ez dira arrotzak Euskal Herrian, eta zenbait euskal herritar hortik zehar dabil arte-lanak ontzen; era berean, Elizako hierarkian bezala armadan, Koroaren Administrazioan idazkari eta eskribau gisa, ekonomia bizkortzen arrantzale, garraiolari, merkatari, teknikari eta konkistatzaile bezala… Mundua zabala da garaiko euskaldunentzat.

Nabarmentzekoa da euskarazko predikuari begira Ignazio Loiolakoaren eta Luku Gotzainaren arteko gutuneriak erakusten duen ardura, eta behingoz hartu ziren erabakiak. Aukera horretan, behintzat, eliz goi-gidari jakitunek gogoan dute Euskal Herrian euskaraz jardun beharra. Erreforma Katolikoaren emaitza izan ziren, prediku-lan berriak (1551-1553) eta lehenengo katixima (1561).

Testuinguru horretan ari ziren, bada, urak mugitzen; baina hortik harago noraino jo zitekeen?

Esan daiteke hiru aldiz behintzat heldu zitzaiola euskarazko idazketa-lanari, Elizatik nahiz kanpotik: a) Etxeparek lehenengo, bere amodiozko bertsoak eta olerki erlijiosoak eskainiz (Erdi Arotik Ernazimendurakoan zubi eginez), b) Leizarragak bigarren, Biblia itzuliz (Eliza kalbindarraren proiektuaren altzoan), c) eta hirugarrenez, eliz Erankundeak berak, Pastoraltzan lehen urrats xumeak ematean.

Hiru ahaleginok ez zuten, ordea, berehalako segidarik izan, eta ez dirudi Lazarraga kaleratu gabearen aurkikunde berri isolatuak uste hau bere osoan aldaraziko digunik. Elizen mundutik so eginik, Leizarragarena izan zen lanik helduena, osoena, baina Gerrate Erlijioso eta Kontrarreforma katolikoko izozteak eta haizeek eraman zituzten zuhaitz gaztearen fruituak.

Eliz mundu idatziaren euskalduntzea hutsaren hurrengoa izan zen XVI. mendean: dotrinaren bat edo beste. Hala ere, euskal predikuan emaitza hobeak izan genituen, edo behintzat ardura arretatsuagoa jarri zen eremu horretan, eta hauxe da segur aski mende hartako lorpenik onena. Ikusiko dugu zerbait.

5.1.2. *Eliz arauak, eta 1. idazketa-loraldia (1596-1728)*

Kontrarreforman eta Barroko katolikoan gaude. Trentoko Kontziliotik badira hogeita hamar urte pasatuak (1562-1596), bildu da hainbat Sinodo Kalahorran bezala Iruñean, baina neurri handi batean hastear dago, oraindik, euskal Elizaren berreraketa eta zinezko inkulturazio linguistikoa.

1596ko data sinbolo erraz bat da: Hegoaldean urte horretakoa dugu Betolatzaren dotrina (*Doctrina Christiana en Romance y Bascuence*, Bilbo), eta Iparraldera urte berean heldu zen Pedro Agerre, ondoko literatur loraldirako gizon ardatza.

Bestalde, 1728a dugu Larramendik bere «euskal apostolutza» hasi zuen urtea (*De la antigüedad y universalidad del bascuence*, Salamanka): geroago ikusiko denez, Eskola berri baten hasiera, hain zuzen hurrengo urtean agertu baitzen, gainera, euskal gramatika (*El impossible vencido. Arte de la lengua bascongada*, Salamanka).

Bi data horien artean zer? Lehen begiratu batean esateko, ezeren gainetik zinezko eliz prosaren sorrera eta lehen goraldia Iparraldean, Hegoaldea kultur garapen horretatik urrun zegoen bitartean. Iparraldeko goraldi horretan bi epealdi ditugula esango genuke: XVII.eko lehen erdia (Sara-Donibane inguruetan), eta ondoren, Iraultza arteko segida sostengatua.

Idazleek ez ezik, eliz laguntza ofizialek eragin zuzena izan zuten produkzio horretan, eta euskara idatziaren historian eliz jendeari zor zaion ekarpenik ederrenetakoa egin zen orduan. Oro har, eliz Pastoraltzaren zerbitzuko argitalpenak izan ziren, eta ahalegin horretan euskarazko idazketarako ildo eredugarria iradoki eta landuta geratu zen.

Bi molde ezberdinetan hasiko dira lanak Hegoaldean eta Iparraldean. Hegoaldean batez ere lehen Katekesiari dagozkion erabakiak eta argitalpen gutxi batzuk ezagutzen ditugu, ofizialki Elizbarrutiek bultzatuak (Kalahorrako Sinodalak, 1621). Iruñeko Diozesian Nafarroa eta Gipuzkoako euskal elebakartasun orokorra aintzakotzat hartuz jokatu nahi izan zen (horretaz Gotzain-oharrak errepikatuz doaz).

Iparraldean, ostera, haurrentzako Katekesi zeregin hori ahantzi gabe, helduei eta eremu zabalagoei begira lan egin zen, argitalpenen tamainak erakutsiko digunaren arabera. Zalantzarik gabe, Hierarkiaren sostengua erabakigarria gertatu zen alor horretan. Diozesitarrekin batera, idazle protagonisten artean Ordena erlijiosoek ere aurkitu zuten lekurik.

5.1.3. *Hegoaldeko 1. eliz ekarpen idatzia (1729-1875)*

Josulagun baten inguruan dator egun-argitara aro berri hau, Manuel Larramendik (1690-1766) sustaturik, alegia. Agian, inoiz euskararen munduan ezagutu den gidaritzarik nabariena da Larramendirena, bere bizialdian eta ondoko mende betean. Hau da garai honen ezaugarrietako bat.

Mugatzat eman ditugun bi daten artean, mugarri jakin bat jar daiteke, josulagunak Euskal Herritik eta Espainiatik iraitziak izan ziren urtean (1767). Horren aurreko hogeita hamar urteetan, josulagun gutxi batzuek bideratu zu-

ten Hegoalderako idazketa-eredu berria, Iparraldekoa ezagutzen zuena, baina beregainki jokatuz definitua.

Lagundia erbesteratu zutenetik, Hegoaldeko elizgizonek piztu berria zen lastargia eskuetan hartu, eta gogoz eta lanez eutsi zioten hasitako bideari. Eusko Pizkunderaino luzatu zen hori, luma berriak lanera erakarriz eta idazlanak metatuz. Nahiko maiz, lanok, ordea, ez ziren kaleratu ahal izan idatzi eta berehala, eta batzutan idazleak hil ostean, urteak pasatuta, eman ziren argitara. XIX. mendeko liburugintza, partez bederen, XVIII.eko uzta ere bada.

Azken Gerrate Karlistak eta Hiru Probintzietako Erakunde-krisiak ezarri zuten, euskarazko idatz-produkzioan ere (1875-1876) aro honen azken muga.

Lehenengo ekinaldi hartan josulagunek berek burutu zituzten lanak: Larramendik, Kardaberazek, Mendiburuk. Ondoren, apaiz eta erlijiosoen lagunartea zabalduz joan zen, izan ere garaiko beste ezaugarria hauxe baita Hegoaldean: diozesitarren eta fraideen aldi bereko produkzioa. Izenak errenkan datoz: Mogeldarrak, Añibarro, Gerriko, Astarloatarrak, Frai Bartolome, Lizarraga, Zabala, Uriarte, Lardizabal…

Esan beharra dago, bestalde, eliz gaiez idazteaz gain euskararen inguruko lanak sortzen direla garai honetan: josulagunek euskararen izenona, *corpus*-aren ezagumendua (hiztegi eta gramatika) eta eliztarren artean ere hizkuntzarekiko kontzientzia eta estimua landu zituzten. Bere urak Eusko Pizkunderaino zabalduko zituen olatua izan zen hau, batzuetan euskararen *status*-a ere hobe-beharrekoa zela iradokiz.

Hegoaldean lehenengo aldiz mende askotan, kristau euskaldunak beren fedeaz zer irakurri izaten hasi ziren hamarkada haietan, eta herrietako apaizek liburu ongi hornituak eskuratu ahal izan zituzten beren predikua aberasteko.

5.1.4. *Eusko Pizkundeko ekarpenak (1876-1937)*

«Eusko Pizkundea» deitu izan duguna, batez ere gertabide sozial orokorra da, ez Elizara eta ez literaturara bakarrik bildua.

Iparraldean bertatik bertara eta lehenagotik ezagutzen zituzten Iraultza politikoaren ondorioak (han oso bizirik ageri zirenak) Hegoaldera ere iristen dira, azkenik. Bizpahiru gerra ere galdu dira, Foruak defendatzen; Industri Iraultza eta inmigrazioa iritsi dira Euskal Hegoaldera, eta abertzaletasunak hartu du bere bidea eta indartuz doa. Hori baino zerbait lehentxeagoa (1862), Hiru Probintziek badute, gainera, beren Diozesia (Gasteiz), alboetako zenbait eskualde oraindik hortik kanpo izan arren.

Iparraldea eta Hegoaldea bi inguru politiko ezberdinei erantzun beharrean aurkitzen dira: Hexagonoan, III. Errepublikako eztabaida politiko-erlijiosoari,

eta Penintsulan Cánovas-en Izanberritze alfontsotarrari. Bietan ere, elizgizonek ez dute beren ekimena moteldu nahi, eta euskaltzaletasun abertzaleak eztenkatuta ere bai, Elizako euskarazko zerbitzuen indarberritzeari ekiten diote.

Gasteizko Sinodoan bezala (1884) Baionako Diozesiko une ezberdinetan (1910, 1921), euskararen gutxieneko eliz erabilpena behinik behin ofizialki segurtatu zen, predikuan eta katekesian, baina, zorionez, praktikan Elizako erabilera idatziaren arazoa ahantzi gabe.

Idazle eliztarrak agertu eta estimatu ez ezik, eliz elkarte euskaltzaleak ere sortu ziren Diozesietan, ofizialak edo ez hain ofizialak: Jaungoiko-Zale, adibidez, Bizkaian. Elizgizonen euskal gogoa bizkor ari da, eta eliz barneko ekimenekin batera (Kristau Ikasbideak berritzea, Apaizgaitegietako euskal eskolak, argitalpen pastoralak, etab.), eliztarrek garaiko euskal kulturgintza orokorrean ardura eta balio handiko lanak burutuko dituzte batzuetan: Azkue edo Tx. Agirrek Euskaltzaindian (59), euskararen sustapen sozialean Aitzol-ek, bertsolaritza birdefinitzen (M. Lekuona), etab.

Elkarren lana osatuz eta aurrekoei segida emanez, euskarazko eliz kazetaritza abian jarri zen Baiona, Donostia, Bilbo eta Iruñean. Klero diozesitarraren ekarpena handia da, eta inoiz edo beste laikoekin elkartuta jardungo dute.

Ordena Erlijiosoak ere saiatu ziren XX.eko lehen laurdenean euskal kazetaritzaren eremu hori abiarazten, aldi berean beren eliz elkarteetako lagunentzako eliz liburuak idatziz. Azpimarratzekoa da 1936ko gerra-aurreko batzuen ekarpena (josulagun, kaputxino edo karmeldarrena, adibidez).

Oro har esan daiteke aro honetako Hegoaldean hizkuntzarekiko ardura pastorala ez ezik kulturala ere indartu egiten dela elizgizonen artean, eta Elizako zenbait sektore kezkatik adi-adi begiratzen diola inguruan garatzen ari den euskalgintzari. Iparraldeko apaizeriak bere tradizioari segida duina ematen dio, eta lehenengo aldiz du aukera Hegoaldeko indar euskaltzaleekin elkartzeko (Hendaia, Hondarribia: 1901-1902; Euskaltzaindia, 1919).

5.1.5. *Gerraondotik Kontzilio-ondora (1937-2000)*

Bi epealdi nabari eman behar dira hirurogei urte horietan: gerratik Kontziliora doana, eta Vatikano II.etik mendearen bukaera artekoa. Lehen tarte hartan, Hegoaldean Espainiako politikak ezartzen ditu baldintzak; bigarrenean, ostera, batez ere Eliza barruko bilakaerak agintzen du Euskal Herriko Elizan ere, eta beronen euskaltasunean. Iparraldean 1939-1945.etako gerratik Kontzi-

(59) Erlijiosoen Euskaltzaindiko lanaz: ARANA MARTIJA, J. A. (2004): «Erlijiosoak Euskaltzaindiko jarduera eta bizitzan», in: Intxausti 2004: I, 317-320.

liorainokoa batasun bat da, eta ondokoan, Hegoaldeko arazo eta irtenbide berak ditu Iparraldeak ere.

Penintsulan, gerrako etena (1936-1937) gogorra gertatu zen, oro har, euskal kulturarako, eta baita Elizako euskaltzale ekintzaleentzat ere, Diozesietan bezala Ordena Erlijiosoetan: ez zen falta izan hildako eta afusilaturik, ezta erbesteraturik ere. Kanpora joanak sakabanatuta, eta barruan geratutakoak, lokarri motzez harturik.

Lehenengo hamar-hogei urteetan ez zen samurra gertatu gerra-aurrean hasitako bideari berriro ekiten: Seminario eta eliz Ikastegietatik erabat desagertu zen euskara, argitalpenak itxi egin ziren, euskal idazle eliztarrek ez zuten izan idazlanak argitaratzerik, etab.

Predikua bera ere erabat gaztelaniaz ezarri nahi izan zuen Gobernuak (1938) (60), baina herri handiagoetako lehen estualdien ondoren, partez bederen birbideratu ahal izan zen arazoa Gasteizko Diozesian.

1920etan sortutako dotrina normalizatuei bidea moztu egin zitzaien berehalako gerra-ostean, ortografia eta testu zaharrak ezarriz. Predikuan bezala katekesian, euskararekiko gobernu-giro ofizial zitalak bere higatze-lana egin zuen, noski; baina herrietako –batez ere txikienetako– euskarazko egoera zaindu ahal izan zen. Herri-misioen goraldikoan, 1955-1965.etan, euskarak hiri eta herri handienetan galdu bazuen ere, txikiagoetan misiolari herritarrek euskaraz lan egin ahal izan zuten.

1950etik aurrera (frantziskotar eta karmeldarrek egin zuten lehen ahalegin emankorrena), aldizkariak eta zenbait liburu argitara eman ahal izan ziren, eliz elkarteen zerbitzurako; urte batzuk geroago datoz josulagunak eta kaputxinoak.

Kontziliora heldu aurretik, Elizako zenbait indar euskaltzalek lortu du eliz euskarari gutxi-asko bere betiko leku mintzatua ematea, baina idazki ofizialetan apenas duen lekurik euskarak, eta gerra-aurreko eliz garapen idatziari (eliz goi-literaturari) ezarri zaizkion trabak ezin gainditurik dabil eliz jendea.

Hala ere, apaizgaitegietako belaunaldi gaztea prest ageri da (1956…) bere ahotsa jaso eta eliz euskalgintza bultzatzeko, filosofian, teologian eta zernahi moldetako eliz zientzietan.

Vatikano II.a gertatu zen XX. mendean euskarak Elizako bizitzan presente izateko muntarik handieneko aukera: zinezko bihurgunea izan zen bera. Eta hori bi arrazoirengatik, gutxienez: proposamen teologiko berria zelako (ireki eta aldakorragoa), eta hizkuntzei, latina albora uzteko erraztasunarekin,

(60) INTXAUSTI, J. (2000): «Euskararen erabilpen-debeku eta arauak lehen Gobernu frankisten eliz politikan (1937-1940)», in: Ormaetxea et al. (2000): *Txillardegi lagun-giroan*. Bilbo: UEU. (193-230. or.).

Liturgia osora eta eliz zeregin guztietara iristeko legezko abagunea eman zielako.

Handik honako historia da Euskaltzaindiko biltzen garen jardunaldiotan aztertu nahi izan den hizkuntzaren eliz iragana (itzulpenak, azalpen ofizialak, urratsez urrats egin den euskalduntzea, argitalpenak, etab.).

Ondoren, aipatu ditugun aldi horietako bi atali dagozkienak jasoko ditugu hemen: «Lehen urratsak», *Eliz literaturaren aurrekariak* aurkeztean, eta «Eliz arauak, eta 1. eliz ekarpen idatzia», *Eliz literaturako lagin bat: Iparraldea*-z jardutean.

Lan honetan ez ditut aurkeztuko Elizaren euskalduntze erlatiboan protagonista izan diren pertsonaia (61) eta taldeak (62) (nahiz eta zertxobait esango dudan, azalpenak eskatzen didan heinean). Hemen batez ere emaitza behinenak gogoratuko ditugu: lege eta arauak, ideiak, portaera linguistikoak, argitalpenak, etab. Hautatu dugun gaiari jarraikiz, erreforma protestanteaz ez da esango deus orrialdeotan, nahitaez aipatzekoa izan arren (63).

5.2. Eliz literaturaren aurrekariak (c. 1530…)

Euskal literaturaren historia bitan banatuta ageri da, eliz euskararen iragana bezalatsu: Hegoaldea / Iparraldea. Bidasoaz gora, 1545ean ustekabeko lehenengo euskal liburua agertu zitzaigun, bat-batean; bazirudien aurrekaririk gabe zetorrela, ingururik gabe.

Baina, zerbait lehenago eta ondoren, badakigu Hegoaldeko kristau kezkatuen artean eliz erreformazaleek euskara zegokion tokian jarriz lan egin nahi zutela behintzat, eta lehentxeago edo geroago euskara mintzatuari ez ezik idatziari ere bide eman beharko ziotela. Hona horren guztiaren zantzu batzuk.

5.2.1. *Trento bukatu aurrekoak (a. 1563)*

Han-hemengo gertakari solteek (eta batzuetan elkarrekin lotuek) euskararekiko jarrera eta gogo berriak pizten ari zirela emango ligukete aditzera (c. 1530-1563).

---

(61) Idazle eta protagonista pertsonalak Villasante-ren lanean bilduta daude oro har: VILLASANTE, L. (1961): *Historia de la literatura vasca*. Bilbao: Sendoa.

(62) Elizako taldeez ere ari den lan honek lagun dezake: INTXAUSTI, J. (1998): «Talde euskaltzaleen garapen historikoaz (XVI-XX. mendeak)», in: INTXAUSTI, J. (ed.) (1998): *Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak. Donostiako Udako XII. Ikastaroak. 1993ko Uztaila*. Bilbo: ehu. 17-56.

(63) INTXAUSTI, J. (1995): «Leizarraga eta leizarragatarrak (1563-1571), Erreforma-Kontrarreformaren ilun-argitan», in: RIEV. XL, 1995, 119-160.

Ernazimenduak hainbat hamarkadatan bere ibilaldia bete du, eta ez da erabat arrotza gurean. Hastapenean, Koroa irekita ageri zaigu Humanismora, eta Erasmok, adibidez, buru eta bihotz asko irabazi ditu Penintsulan (1534a arte, eta geroago ere); bestalde, Trento aurreko Karlos V.aren erreforma-zaletasunak lagunduta badago gogorik Eliza berritzeko. Urrunago (urrunago, diot, zeren Joana Albretekoaren erreforma-asmoak jaiotzeke baitaude), Erreforma Protestanteak berak ere ez zuen, artean, bere azken hitza esan.

Euskal Herrian gertaera esanahitsuak ditugu, gainera: Iruñeko kalonjeek Gotzain euskalduna eskatzen diote Karlos V.ari (1539), Jesusen Lagundia sortu da (1539) eta laster dei egingo zaio Euskal Herritik (1551), Oñatin Unibertsitatea eraikitzen du Mercado Zuazola-k (1540), Etxepare bere liburua idatzi eta argitaratzera doa (Bordele, 1545), euskal jatorriko Gotzain bat dator Kalahorrara (1545), San Ignazio harreman zuzenean dago Kalahorrako Gotzain honekin (1545-1553), Enperadoreak Joan Zumarragakoa Gotzain (1533) eta Artzapezpiku (1547) aukeratu du, eta hiltzean (1549) Arantzazu eta Durangora bidaliko ditu honek bere liburuak (Erasmo barne); Trento-koari bide egiteko, Sinodoak ospatuko dira (horietako bi Gasteizen: 1546, 1553).

Izena eman gabe aipatu dudan Kalahorrako Gotzain horrek garrantzia du hemen: *Joan Bernal Diaz Luku* da bera (Juan Bernal Díaz de Luco, 1495-1556), orduan eta denbora luzez euskal pastoraltzaren aldeko sustatzailerik finena. Eta hemengo bere Gotzainaldiko epe laburrean bizkorki mugitu zena.

Sevillan jaioa zen bera, elizgizon baten (aita subdiakonua zuen) eta Luku herriko Maria Lekeitio-koren haurra (1495). Ez dakigu euskararik zekien ala ez, baina segur aski ez zitzaion hizkuntza hau arrotza gertatzen. Kalahorrara etorri eta berehala Gasteizen egin zuen egonaldi eta Sinodo bat, Kalahorran bertan egiteko partez. Bizkaira ere egin zuen Bisitaldi sonatu bat, arazo zaharrak bideratzeko. Luku intelektual eta kanonista sonatua izan zen, eta Indietako Kontseilu Gorenekoa, Karlos V.ak Trento-ko bere Gotzain-taldea osatzeko deitu zuena. Hainbat argitaraldi izan zuten beste lanen artean, Lukuren *Practica criminalis* zeritzanak (1543) 26 edizio ezagutu zituen XVI.en mendean. Luku 1556an hil zen, eta maite zuen amaren sorterrian ehortzi zuten azkenik, Arabako Luku herrian (gaur egun ere hango elizako aldare aurrean ikus daiteke haren hilobia) (64).

Luku-ren biografia eta historia intelektuala hurbilenetik aztertu duen Tomás Marín-ek zera idatzi du (65):

---

(64) Biografia pertsonala eta eliztarra, idazlea eta kanonista, Trentoko gurasoa, zaletasun linguistikoak, Kalahorrako Gotzainaldia, San Ignaziorekiko harremanak eta pastoraltza euskaldun baten aldeko apustua ezagutzeko: INTXAUSTI, J. (1996): «Euskararen Eliz erabilpena eta Luku Gotzaina (1545-1556)», in: *Sancho el Sabio*. VII. 1997, 243-274. Orain, Gotzainaldiari buruz: Sáinz Ripa 1994-1997: III, 219-244.

(65) MARIN, T. (1952): «La Biblioteca del obispo Juan Bernal Díaz de Luco (1495-1556)», in: *Hispania Sacra*. V, 1952, 267.

...además de obispo, Padre de Concilio y Consejero de Indias, fue jurista eminente teórico y práctico, versadísimo en teología y ciencias eclesiásticas (…), profesor de lenguas clásicas y cultivador de la historia, escritor fecundo, buen literato y sabio de vastísima erudición un poco al modo de aquellos humanistas coetáneos suyos que llegaban a disertar de omni re scibili.

Ignazio Loiolakoa eta Luku adiskideak izan ziren, bata Lagundiaren etorkizunaz eta bestea Euskal Herriko Pastoraltza hobe batez interesaturik zeudelako batik bat. Tarteko harremanetan eskutitz-multzoa sortu zen (1545-1552), eta Lagundiaren Erromako Artxiboetan gordeta geratu ziren geroztik gutun haiek. Erabilitako arazoetan lan pastoralarena dago tartean, euskarazkoa ere mintzagai dutela.

Une hartako gure eliz pertsonaia giltzarri hauen kezkak ezagutzea merezi du, 1550eko inguru haietan euskarari sortzen ari zitzaizkion aukera berrien albisterik izateko. Honela diote hautatu ditudan atal hauek (66):

Y como yo sé quán sancta y sana es la [doctrina] que enseñan todos los de la Compañía de V. m., ternia por gran felicidad, si V. m. encargase á alguno ó algunos della, que me ayudasen á doctrinar el Obispado. Y por esto, cuan affectuosamente puedo, le pido por merced, que haga tan gran limosna á aquella tierra, y á mí tan gran caridad y socorro spiritual, que me embie alguno de sus compañeros, que me ayude, speçialmente de los bascongados; pues V. m. sabe bien quánta nesçesidad tiene aquella tierra, donde se habla esta lengua, de buena doctrina […]. Y pues V. m. en ley de charidad deue más á aquella tierra que á otra alguna, justo es que no falte en esto, espeçialmente en tiempo que el Prelado della la pide y desea. [1545ekoa da gutuna. Azp. nirea].

Yo creo bien que V. m. no tiene oluidadas las ánimas de su naturaleza [jatorri berekoak, alegia]; pues entre las otras de todo el mundo (de cuya saluación tiene mucho desseo) tienen estas particular razón para que V. m. se acuerde de ellas, mayormente estando tan ynformado, como está, de la gran necessidad que en aquella tierra ay de doctrina, y de la imposibilidad que ay para que allí se pueda plantar, sino por personas naturales de la mesma lengua, y de la falta de eclesiásticos vascongados [euskaldunak, alegia] que puedan y quieran aplicarse á predicar por aquella tierra. Y aunque yo tengo todo esto por cierto, por lo que en ello me va no puedo dexar de tornar á encomendar a V. m. que, por amor de nuestro Señor, no pierda el cuidado de hazerles bien [...], pues no ay en el mundo prouinçia á quien sea tan obligado; y es cosa justa que ganen aquellas ánimas en auer nuestro Señor criado en sus tiempos vn varón de tanta charidad y zelo, natural de la misma tierra. [1551koa da gutuna. Azp. nirea].

Muy gran merced recebiré que scriba V. m. al doctor Araoz [josulagunen hemengo Aita Probintzialari] y al duque [Frantzisko Borjakoari], para, quando fuere venido, que tengan particular cuydado de hazer ocupar los clérigos, que

(66) *Monumenta historica SI / Epist. Mixt*. I, 210-211; *Epist. Mixt*. V, 720; *Epist. Mixt*. V, 755-756.

tuuieren doctrina, vascongados, en predicar en su lengua las más vezes que pudieren, y repartiéndose por la tierra, pues sabe V. m. la necessidad que ay en ella de doctrina, y la falta de personas que se puedan y quieran ocupar en ello. [1552koa da gutuna. Azp. nirea].

Hortaz, argi dago Kalahorrako Gotzaina, Hegoaldearen parte on bat hartzen zuen Diozesiko Burua, euskara aintzakotzat hartuz ari zela pastoraltza egitarautzen: premiazkoa ikusten zuela predikua euskaraz ematea, kalitateko predikua, elizgizon prestatuak erakarriz (adibidez, Frantzisko Borja-koa Oñatin egongo zen 1551-1552.etan, eta Bergaran eman zuen bere lehenengo Meza).

Garaiko «euskaltzaletasunean» (betiere euskaltzaletasun pastorala, noski) Luku ez zen bakarrik aurkitu, eta Ignazio Loiolakoaren eta josulagunen lankidetza izan zuen herrietan misioak euskaraz emateko.

Ez ziren bakarrak. Euskal goi-hierarkiako zenbaitek sentiberatasun berria erakutsi zuen hamarkada haietan hizkuntzarekiko; Mallea-k gogorarazi zigun Zumarraga Artzapezpiku durangarraren zaletasun bera (67). Esan behar da, gainera, 1530.eko hamarkadaz geroztik behintzat harreman pertsonalak ere izan zituztela Lukuk eta Zumarragak (hemen, bide batez bada ere, ezingo da ahantzi Zumarraga-ri zor diogula Etxepareren aurretik ezagutzen dugun testu zaharrik luzeena: 1537ko gutuna) (68).

Zumarragak Mexikon ere ikusi zuen bezala, zinezko kristauartea egiteko premiazkoa zen herritarren hizkuntzei Elizan eremu berriak ematea. Galduta dugu 1561eko S. Eltso-ren *Dotrina Christiana… en Castellano y Vazcuence* hura (Iruñea) (69), ondoko hamarkadetan ikusiko dugun ardura kateketikoaren aitzindaria; baina urte bertsuetan hasi eta XVII.ean barrena Arabako Lautadako pastoraltzan sumatzen dugun euskararen presentzia agiriztatua hor dago, hain zuzen bide batez lekuko horiek balio izan diote M. Portilla-ri eskualde horretako hizkuntzaren erro sozial irmoa baieztatzeko (1556-1557, 1565-1569, 1607, 1614) (70). Nahitaezkoa zen, nonbait, Trento-ondoko zeregin berrietan ere herritarrekin Araban euskara erabiltzea.

---

(67) MALLEA-OLAETXEA, J. (1992): «The private Basque World of Juan Zumarraga, firts Bishop of Mexico» in: *Revista de Historia de América*. (IPGH, México). 1992, n. 114, 41-60. Gainera, ID. (1988): Juan Zumarraga. *Bishop of México and the Basques: The Ethnic Connection.* Reno: Basques Studies Program. [Argitaragabea]. Ik., azkenik, *Euskera*. XXXIV, 1989-1, 311-319.

(68) OTTE, E. (1979): «Juan de Zumarraga vasco», in: *Les cultures ibériques en devenir: essais publiés en Hommage à la mémoire de Marcel Bataillon (1895-1977)*. Paris: Fondation Singer-Polignac. 489-496.. Ik. *Euskera*. XXVI, 1980, 4-14.

(69) VINSON, J. (1891): *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*. Orain: Bilbao: Caja de Ahorros Vizcaína, 1983. 5. or.

(70) PORTILLA, M. (1979): «Datos y noticias sobre el vascuence en Alava (siglos XVI y XVII», in: *Norte Express. Extra. Fiestas de la Virgen Blanca*. 1979: 56/50 [sic].

5.2.2. *Kontzilioaren arrastoan (Hegoaldea: c.1563-1728)*

Gatazka erlijioso eta politikoei aurre egin beharrean aurkitu zen Euskal Herria XVI. mendeko bigarren erdialdian: gerra erlijiosoak Iparraldean, Monarkia espainolaren politika kontrarreformista Hegoaldean. Gerra haiek ekarritako hondamendiaren golkoan itoko da euskal Eliza kalbindarraren proiektua: Leizarraga eta bere lankideek lana burututa, argitara emanda utzi zuten (1571), baina hedatzeko tresna politiko ofizialik gabe (1572: San Bartolome Gaua).

Trentoko Kontzilioa bukatu da (1563), eta erreformarako arauak eman dira. Hemen, Euskal Hegoaldean, Erret Zaingoak (azken buruan, Erregek berak, «Estatu-arazotzat» jo ditzakegunetan behintzat) eta Gotzainek gidatu beharko dute berori, Aita Santua urrun baitago eta Felipe Erregea biziki interesatua (1556-1598).

Hasteko, Diozesien barruti geografikoak aldatuko dira, Iruñea eta Baiona arteko mugak birmoldatuz (arrisku protestanteari aurre egin nahiez dela esaten da) (71), Obserbantzia deituriko adar erreformatuen bidez Ordena Erlijiosoak Koroaren politikari hertsiago lotuko dira (72) eta berorien Probintziak Gaztela aldera eraman (Nafarroa izango da galtzaile nabarmena) (73). Guztientzako abia-unea urte berean jarri zen: 1567.

Ondoren, Kontrarreforma itogarria nagusituko da. Ez da erraza jakiten zenbateraino baldintzatu zuen horrek euskararen eliz erabilera orokorra, eta batez ere espero zitezkeen garapen berriak.

Garbi dago euskarazko Biblia katolikoaren prestakuntza ez zela egon orduko lehentasunen artean; era berean, alor kateketikoan Pio V.aren *Cathechismus Romanus* mardula (1566) ez zuen inork euskaratu… Hala ere, bazen munduan euskaraz ere bazekien teologo, moralista eta legegizonik; hori bai, dena esan behar da, gehienak erbestean zebiltzanak eta, lan, latinez edo gaztelaniaz lan egiten zuten. XVI. hartan euskarazko gure uzta Pio V.aren hura askoz ere laburragoa izango zen: Betolatzaren *Doctrina Christiana en Romanze y Basquenze* (Bilbo, 1596) (74).

---

(71) Goñi Galarraga 2004: 85-92.

(72) Azalpen orokorra: GARCIA ORO, J. (2004): «Conventualismo y Observancia. El proceso de las Reformas religiosas en el País Vasco y en Navarra, durante el Renacimiento», eta frantziskotar komentutarren kasua: FERNANDEZ-GALLARDO, G. (2004): «La supresión de los franciscanos conventuales en Navarra (1566-1567)», bi idazlanak: Intxausti 2004: 555-567, 598-808.

(73) García Oro 2004: 561-563. Frantziskotarrei buruzKO xehetasunak: URIBE, A. (1996): *Provincia franciscana de Cantabria*. II. *Su constitución y desarrollo*. Arantzazu: efa. 75-88.

(74) Bi/hiru hizkuntzen artean nolako aldea izan genuen ikusteko: AZURMENDI, J. (1985): «Irakaskuntza eta pentsamendua Euskal Herrian», in: INTXAUSTI, J. (ed.) (1985): *Euskal Herria*. Arantzazu: Jakin/Caja Laboral. I, 357-386; berezikiago: 362-369.

Hain zuzen, Kristau Ikasbidearen hau izango da euskal Sinodoek berezikiago zaindu nahi izango duten eremua, baina, horra pasatu aurretik, beste puntu jakingarri bati eman behar diogu begiratu labur bat.

5.2.2.1. Ordena Erlijiosoak

Orain arteko honetan Diozesiak aipatu ditugu gehienbat; baina Ordena Erlijiosoen sarea ongi eta aspalditik errotuta ageri zaigu XVI. mendeko Euskal Herrian. Are gehiago, 1450 eta 1650 artean Eskeko Ordenek eta Jesusen Lagundiak sare hori hertsiago harilduko dute euskal Kostaldeko Herrialdeetan, Bizkaian lehenengo eta Gipuzkoan gero. Komentuak, predikari-etxe ez ezik, zenbait kasutan, Ikastetxe ere bilakatuko dira, eta, atzekoz aurrera nahi bada, josulagunen historia irakasleena batik bat eta, ondoren, predikariena izango da (75).

Ez da, artean (XVIII.ean Kardaberaz-ekin bezala), haurren euskarazko eskolatzearena aipatuko, baina badakigu Kristau Ikasbidea euskaraz ematen jardun zutela lehen josulagunek (1554) (76), eta predikuarena hasieratik bertatik izan zela zeregin ongi zaindua.

XIII.az geroztik finkatuta zeuden Eskeko Ordenetan XVI.ean aurkituko ditugu euskarazko predikuarekiko ardura adierazten duten agiriak. Komentu berriak sortu edo berrantolatzean, fundatzaileek eta erreformatzaileek, baldintza jakin batzuek jarri ohi zituzten (lehen kasuan *capitulaciones* eta bestean *estatutos* deitzen zirenak).

Frantziskotarretan bada honelako testuetan euskarari dagokionik, eta deigarrienetakoa Arrasateko komentuari Joan Araotz fundatzaileak eman ziona dugu (1579). Araotz-ek euskararen eskakizuna kargudunen izendapenetarako baldintza bezala aipatzen du (erreguzko baldintza bazen ere) (77):

> *Item digo que es mi voluntad y deseo que* el Rector Guardián de dicho Colegio sea en todo tiempo Religioso que sepa hablar y predicar en nuestra lengua Bascongada, *porque su doctrina puede hacer mucho fruto en la villa y su comarca en servicio de Dios y beneficio de los fieles cristianos naturales de ella.*

(75) Frantziskotarren kasua: INTXAUSTI, J. (2004): «Frantziskotarren Euskal Herriko historia», eta PINEDO, I. (2004): «Jesuitas en el País Vasco / Navarra», in: Intxausti (ed.) 2004: 353-354 eta 574-577. Era berean: Uribe 1996: 290-310. Fraidegaien prestakuntzarako Ikastegiak ez ezik herritarrentzako Eskolak ere izan zituzten frantzioskotarrek. Josulagunen historia Malaexetxebarriak eman zigun: MALAXECHEVARRIA, j. (1926): *La Compañía de Jesús por la instrucción del País Vasco en los siglos XVII y XVIII*. San Sebastián: Libr. e Impr. San Ignacio de Loyola.

(76) Malaxechevarria 1926: 33.

(77) INTXAUSTI, J. (1990): *Euskara, euskaldunon hizkuntza*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. 82-83 (Ik. Arrasateko hau ez ezik Zarauzko komentuko agiri-faksimila ere, testu transkibatuekin batera).

Pido y suplico a los muy Reverendos Religiosos Padres Definidores y Capítulos Provinciales de ella, e inter capítulos, que provean siempre de Rectores Guardianes de este Colegio a Sacerdotes Religiosos de esta nuestra antiquísima lengua Bascongada, *[…] y si no lo pudiesen hacer cómodamente, no les obligo a ello, pero tórnoles a supricar lo mesmo, dexando por mi equidad en sus manos lo que yo tengo en las mías* [Azpm. nirea].

Erlijiosoen euskal predikuaren ardura honek, zalantzarik gabe, XVIII. mendean eman zituen emaitzarik onenak, josulagunen artean eta batez ere frantziskotarretan (Zarautz, 1746-1840) lehenengo, eta beste Ordenetan (karmeldarretan, adibidez) berehala. Badirudi Diozesiek, beren aldetik, ahalegina Katekesi mundura zuzendu zutela bereziki, predikuarena errazegi fraideen eskuetan utziz (78).

5.2.2.2. Kalahorrako Sinodoak eta euskal katekesia

Kalahorran bezala Iruñean Sinodo ugari bildu zen XVI-XVII.etan, baina ez zuten izan maiztasun bera eta ez ziren bildu erregulartasunez: Kalahorran, adibidez, 16/17 Sinodo dauzkagu XVI.ean, eta 4 bakarrik XVII.ean. Sinodo guztiek ez zuten pisu bera izan, batzuek arlo ekonomikora mugatu ziren, eta ez zen egin beti Konstituzio edo Arau Sinodotarren argitalpen inprimaturik, eta honelakorik egin zenean, Sinodo bakoitzaren aurretik indarrean zeuden Arauak ere jaso ohi zituen edizio berriak (79).

Guri dagokigun honetan, Kalahorra-ko Arau Sinodotarren bi edizio ditugu aintzakotzat hartzekoak (1621ekoa eta 1700ekoa) (80). Euskarari dagozkion izenburuak bakarrik ekarriko ditugu hona (81):

Constitución x. *Que los Prelados hagan imprimir cada año Doctrinas Christinas, en lenguage acomodado a las Provincias.* [Pedro Manso-ren Araua da hau, 1600].

Constitución xi. *Dase forma de cómo se han de hazer los Cathecismos de Doctrina Christiana en Vaquence, para que pueda aprovechar en las Provincias Vazcongadas*. [Pedro de Lepe-ren Araua da hau (1698), eta 1700ean lehenengoz inprimatua].

---

(78) Ikus Sáinz Ripa 1994-1997: III, 84, 334, 384-385.

(79) Arau Sinodotarren segidakotasun horren zenbatekoa ezagutzeko ikus, adibidez: Sáinz Ripa 1994-1997: III, 357, 389, 500.

(80) Pedro González de Castillo Gotzainak argitara emandakoa: (1621): *Constituciones Synodales del Obispado de Calahorra y La Calzada*. Madrid: Viuda de Alonso Martín. Pedro de Lepe Gotzainari zor dioguna: (1700): *Constituciones Synodales antiguas, y modernas del Obispado de Calahorra y La Calzada*. Madrid: Antonio González de Reyes. Ik. faksimilean azalak eta zenbait testu: Intxausti 1990: 81-82.

(81) Testuak Rementeriak osorik emanda: Agirrebaltzategi/Amundarain 1975: xviii-xix.

Constitución xii. *Que en la tierra Vazcongada los Sermones sean en Vazquence*. [Pedro Manso-ren Araua da hau, 1600].

Aurrekoen erabakiek eta praktikak erakutsitakoa osatzen duen Lepe-ren Arauak honela dio (1698ko Sinodokoa da) (82):

Don Pedro Lepe, en Logroño, año de 1698. *Es nuestro ánimo que la Constitución antecedente [X.a alegia] se observe como sana, y saludable, en quanto ser pueda. Mas aviendo mirado con atención todas las cosas que pueden ayudar à este santo intento en las Provincias Vazcongadas, hallamos que no es fácil dar impresso texto, ó explicación de Doctrina Christiana, que uniformemente pueda servir en todas las tierras, en donde se habla este Idioma, por la mucha diferencia que ay del Vazquence de unos lugares à otros, según la mayor o menor distancia, que entre ellos ay, de la fuente, y origen de la lengua Vazquence: de donde nace, que en unos pueblos no se entiende aquella lengua perfectamente, la qual en otros es usual, y materna. Y para dar forma con que todos tengan explicación conveniente de la Doctrina Chritiana: Ordenamos y mandamos, s.s.a. que se haga una breve explicación de ella, por persona docta, en cada una de aquellas partes, en donde es común, y sin óbice alguno el Idioma Vazquence: y esta se comunique a los Curas de aquella circunferencia, en donde se habla el Idioma, con aquel uso de voces. Lo qual encomendaremos à personas inteligentes, y de doctrina: que sin duda alguna las ay en el Vazquence. Y hablamos de experiencia, por haver encontrado en todas partes Sacerdotes con caudal de Sciencia, muy competente para enseñar a otros. Y el quaderno, que en cada parte se hiziere, fácilmente se puede dar à la imprenta, para la mayor facilidad en la comunicación.*

Hauek izango ziren, 1862a arte, Kalahorrako Diozesian indarrean egon ziren Arauak. Hirurak dira interesgarriak, baina Lepe-rena areago, euskalkiei erreparatzen dielako eta elizgizonen prestakuntzaz dioenagatik. Lepe hau ez zen maingua.

María Moliner-en gaztelaniazko hiztegira joaten bazarete, esaera zahar hau aurkitu ahal izango duzue: «Sabe más que Lepe», edo «Sabe más que Lepe, Lepijo y su hijo», eta hiztegigileak, errakuntza kronologiko batekin bada ere, berorien esanahia eta historia azaltzen dizkigu: ‘ser muy astuto’ esan nahi omen du, eta «del n. de D. Pedro de Lepe, obispo de Calahorra –siglo XV–, famoso popularmente por su sabiduría» omen dator esaera. XVII.ean Kalahorrak izan zuen Gotzainik baliozkoena izan zen agian.

Aipatutako Pedro Manso 1593.1612), Pedro Gz. de Castillo (1614-1627) eta Pedro Lepe (1686-1700) Gotzainen albisteak biltzeko Sáinz Ripa-ren liburura jo behar da (83). Kristau Ikasbideak (‘dotrinak, katiximak’) argitaratzea eta predikua egokiro antolatu eta zaintzea guztiz premiazkoa zen garai haietan, fededunen beharrei eta klero diozesitarraren ezinei aurre egiteko, izan

(82) Constituciones Synodales 1700: 126-127. or.

(83) Sáinz Ripa 1994-1997: III, 327-364 (P. Manso), 369-396 (P. Gz. de Castillo) eta 485-504 (P. Lepe).

ere herrietako apaizen prestakuntzak ez baitzuen ematen, orokorrean eta Seminario faltaz, Lepek bere Arau Sinodotarrean aipatzen dizkigun gutxi batzuen maila onik. Seminarioaren eratzea atzeratuz joan zen luzaro, Kalahorrakoa 1781ean eraiki zen arte (84). Hutsune horren ondorioz nabaria zen apaizeriaren kultura apala (85).

Arauak arau, oraindik ere jakiteko egarriz gaude lege haiek eliz burubide praktikoan nola bete ziren. Rementeria-k eman zigun argitara euskal Katiximen historia, bere azterlan zabalago baten laburpen gisa, baina azken hau, uste dudanez, bere osoan ez da kaleratu. Rementeriaren «Euskal «Kristau Ikasbideen» historia laburra», *Kristau Bidea* izenburuarekin argitara emandako «Nimegako Katekesi Institutuaren» (Herbehereak) liburuko hitzaurrea da (86).

Rementeria dotrinen ugaritasunaz mintzatzen da. Euskaraz argitara emandakoek Ripalda (1591) eta Astete-renak (1599) izan zituzten jatorrizko testu edo iradokizun. Asteterena 30 aldiz baino gehiagotan eman zen argitara; Ripalda, gutxiago (87). Zalantzarik gabe, euskal argitalpenen historian ugariena izan dena dotrina hauena da (88).

5.2.2.3. Iruñeko Diozesian

Sinodoekin edo Sinodoetatik kanpo, Nafarroan ere Iruñeko Diozesiak ez zion ez-ikusi egin aurrean zeukan gizarte euskaldunari, Jimeno Jurio-k «Política, religión y lengua en el siglo XVI» kapitulu batean erakutsi digun bezala (89). Baina kosta zitzaion ondo! Rojas y Sandoval-ek (1588-1596) Sinodoa bildu zuen 1590ean, eta Arau Sinodotarrak laster eman ziren argitara: euskaldunen euskarazko zerbitzu pastoralaz ez da deus ageri (90). Bestalde, ez di-

---

(84) Sáinz Ripa 1994-1997: III, 84, 85, 86-87, 390, 486, 503; IV, 203-208.

(85) Sáinz Ripa 1994-1997: III, 49, 75, 83-86.

(86) AGIRREBALTZATEGI, P.; AMUNDARAIN, D. (zuzendari/zuzentzaileak) (1975): *Kristau Bidea*. Arantzazu: Jakin. XVII-XXIV. Ik., gainera, AGIRRE, P. (1998): «Belaiperez», in: *ASJU*. XXXII-2, 340-351.

(87) Asteteren edizio-multzo baten berri: Vinson 1891: 62-64 zenbakiak (1742-c.1760), 67 (1862), 68 (1821-1866), 69 (1849, 1889), 70 (1867-79), 74 (1744-1854); Ripaldarena: Vinson 1891: 94-97. Astete eta Ripalda-ren dotrinek Espainian izan zuten hedapenaz: García Villoslada 1980: III/1º, 363-367.

(88) Vinson 1891-k gutxienez ondoko zenbaki hauetan ematen du dotrinen berri: 6 (Betolatza, 1596), 64, (Beriain, 1626), 24 (Ripalda, 1656), 25 (Pouvreau, 1656), 41 (1686), 42 (Zubia, 1691), 43 (Belapeire, 1696), 44 (Maitia, 1706), 45 (Otxoa Aringoa, 1713), 52 (Artzadun, 1731), 54-55 (Harostegi/Lavieuxville, 1733), 57 (Eleizalde, 1735), 60 (Aulan-Akize, c. 1745), 65 (Arrue, 1858), 66 (1864, 1887), 84 (Lariz, 1757-1773), 71-73 (*Iruñea*, 1826-1875), 126 (Ubillos, 1785).

(89) Jimeno Jurio 1997: 67-101.

(90) Jimeno Jurio 1997: 83. Sinodoaz orokorrean: GOÑI GAZTAMBIDE, J. (1985): *Historia de los Obispos de Pamplona*. IV. *Siglos XVI*. Pamplona: Ed. Univ. de Navarra/Insti. Príncipe de Viana. 562-565.

rudi 1596ko *Cartilla para enseñar a leer a los niños, con la doctrina cristiana* hartan euskaraz ezer sartu zenik.

Dena den, hizkuntza arrazoiengatik, Elizaren Administrazio zuzenak eskatzen zituen gutxieneko neurri batzuk hartuta zeuden: Diozesiarentzat eta bertako Gotzainentzat Nafarroa ez zen elebakarra, eta ez zen tratatu behar halakotzat; aitzitik, herri eta gizon-emakume euskaldunak daude, alde batetik, eta erdaldunak, bestetik. Hasteko, errealitate bikoitz horren egiaztapenaren frogarik ageriena 1587ko Erregistro sonatua da, Nafarroako herrien hizkuntz araberako geografia aurkezten duena (91).

Eta ondoren eta ondoan, Pastoraltzako hizkuntz eskakizun aitortuak daude (92) eta Gotzainen Bisitaldietako oharretan ikus daitezkeen lekukotasun idatziak, 1600.eko bueltan agertzen zaizkigunak (93). Manso Kalahorra-n ari den bitartean, Mateo de Burgos[ofm] Gotzaina ari da Iruñean (1600-1606) erabakiak hartu eta arauak ematen. Beronen Gotzain-Bisitaldietan errepikatuz joan den esaldi bat dago (94):

> *Item que el abad [=Errektoreak] declare el Santo Evangelio todos los domingos y fiestas de guardar, y enseñe la doctrina cristiana a sus feligreses en vascuence explícitamente, de manera que lo entiendan y deprendan.*

Honek guztiak, Pastoraltzarako apaiz euskaldunak eskatzen zituen (95), eta herrien administrazio eta justizia onerako eskribau, epaile eta interpretariak ere (96). Euskarak bere ofizialtasun-maila zuen, Iruñeko Diozesian, Administrazioko paperak euskaraz ematera iritsi gabe, noski, baina predikuan eta katekesian arrazoizkotasun normaldu mintzatu bat ofizialki onartu eta ezarriz. Horretan Erret Administrazioak baino arreta eta irizpide zabalagoak zituen Elizak, nahiz eta Erret Kontseiluko Ordenantzek ere aintzakotzat hartzen zuten Nafarroako izaera elebiduna, zeharbidez onartuz lekuko euskaldunen euskarazko azalpenen balio juridikoa (1594) (97).

Baina, zalantzarik gabe, Errektoreek tresna idatziak ere behar zituzten dotrina mintzatua ongi finkatuta uzteko. Horregatik, Bilbon bezala (Betolatza, 1596) Iruñeko Diozesian, lehenik Kristau Ikasbideak prestatzen dituzte, segur aski zerbait zabalagoren itxaropena galdu gabe: esan dugun Eltso-rena (1561),

---

(91) Aurkezpena eta oharrak: Jimeno Jurio 1997: 83-95. Muga-marra bezala baino aldatuz doan mugalde gisara ulertu behar da horko lurralde banaketa.

(92) JIMENO JURIO, J. M. (2004): *Retroceso Histórico del euskera en Navarra*. Pamplona: Pamiela. 28-29, 32-33, 36, 49, 55, 125-126, 133-138, 146-149, 158-160, 186, 196-212, 219-225, 230-234.

(93) Jimeno Jurio 1997: 104-107.

(94) Jimeno Jurio 1997: 109.

(95) Jimeno Jurio 1997: 111-114.

(96) Jimeno Jurio 1997: 114-118.

(97) Jimeno Jurio 1997: 114.

diru faltaz argitara ez zen Ripalda-ren itzulpen gipuzkoarra (Arrieta, 1609) eta, agian, galduta dugun besteren bat. Izatez, Mezaz eta Ikasbideaz diharduten Beriain-en bi liburuxkek emango diote une honi bere ukitu nafarra, argitaratzearekin batera ekimen horren arrazoiak ere adieraziz: *Tratado… de oir Misa* (1621) eta *Doctrina Christiana* (1626) (98).

Elizbarrutiko euskararen ofizialtasun-maila horrek bere horretan iraun zuen. Horren lekuko adierazgarria da (bere alde on eta eskasagoekin), XVIII.aren hondarretan funtzionari *bascongado* eta *romanzado*-en arteko auzia.

1512az geroztik joera gaztelazaleak indar berriak hartuta ditu Nafarroan, eta euskara, aldi berean, ahulago ageri da: Aldatu behar baldin bazen, zer zen, bada, aldatu behar zena ofizialtasun hartan? Galdera honek, eta beronen inguruko eskubideek eta interes kontrajarriek auzitara jo zuten, eta artxibo-paperetan zehazki jarrai daiteke eztabaida XVIII.eko hondarretan (99).

Kalahorran bezala Iruñean, eliz euskara idatzi baterako (eta predikurako) lehenengo urratsa emanda zegoen, bada; baina hurrengo handiagoetarako Hegoaldean ez zen bildu aski indar eta erabaki: Iparraldeak hartu zion aurrea Hegoaldeari, beste Eliza batetik Leizarragak berrogei urte lehenago Eliza Katolikoari bezala. Eliz euskara idatziaren bigarren aukera gertatu zen hau.

5.3. Eliz literaturako lagin bat, Iparraldean (1596-1789)

Euskara idatziaren eliz historia osoari heldu gabe, Aro Modernoan ikus daitekeen lehenengo ahalegin handiari begiratuko diogu hemen, idazleok zer eman zuten ikusteko ez ezik, Hierarkiak ere lehentasunak non jarri zituen jakiteko.

Eremu horretan, esan dugunez, bi data sinboliko hartu ditugu mugapen kronologikoa ezartzeko:

1. 1596koa, alde batetik: urte hartan heldu zen Pedro Agerre «Axular» Iparraldera. Eliz Erretore berri hau (1600) gertatu zen gero Lapurdiko idazle-talde baten aitagoia. Urte-modu haietan, 1598an, Bertrand Etxauz etorri zen Baionara Apezpìku, eta honengan aurkitu zuten lehen apaiz idazleek aterpe hierarkikorik onena.

(98) Rementeria 1975: xix, xxi. Jimeno Jurio 1997: 79 (Azpilkuetak aipatua).

(99) JIMENO JURIO, J. M. (1998): *Navarra, Gupuzkoa y el Euskera. Siglo XVIII*. Pamplona: Pamiela. Jimeno Jurío 2004: passim.

2. 1789koa da beste mugarri kronologikoa: Frantziako Iraultza. Iparraldearentzat historia mota berria hasten da Iraultzarekin, eta euskarazko idazketan ere aski berritasun eragingo du gertakari hark, euskal Literatura eta Eliza luzaro markatuko dituena.

1596-1789 urteek ia bi mende osatzen dituzte, eta lehenengo loraldiaren ondoren (1617-1643), segida sostengatua ezagutu zuen euskara idatzi inprimatuak. Orduan eta gero (kasik XX. mendeko azken laurdena arte) eliz argitalpenak izan ziren nagusi, alde handiz, euskal produkzioan; baina, aldi berean, egon zen idazletan jende paisanorik, eta gaietan elizatik kanpokorik ere. Produkzio ez-eliztar honek badu interesik gero ikusiko dugun eliztarraren esanahi historikoa hobeki ulertzeko ere.

5.3.1. *Ekoizpen ez-eliztarra*

Garaiko euskal idazle ipartarren artean, elizgizonak ez diren bi izen leinargi bederen baditugu: Allande Oihenart (†1657) eta Joanes Etxeberri Sarakoa (†1749), idazle jakitunak, idazle erlatiboki emankorrak; beste gutxi batzuekin osatuko zuten gai ez-eliztarrak erabiliko zituztenen taldetxoa. Gainerakoan, horien ondoan, dozena-erdiren bat lagun dugu.

Euskara gai-eremu ez-eliztar ezberdinetara eramango duten hauetako gehienak sekularrak izango dira, herritar eskolatuak (100). Bi mediku ditugu (Etxeberri Sarakoa eta Ihartze), legegizon bat (Harriet notarioa, baina Oihenart ere abogatua zen) eta maisu bat (Egiategi); bestalde, gai «mundutarrak» erabiltzen bi apaizek behintzat lagundu zuten (Mikoleta bilbotarrak eta Kardaberaz josulagunak). Gainerakoen albiste zehatzik ez dut eskura.

---

(100) Ondoko laukitik kanpo utzi ditugun hiru izen sekular gogoratu nahi ditut hemen: Lazarraga, Garibai eta Oihenart; dakigunez, hirurak ere puntareneko izenak gure historian: azken biak errefrau eta olertira mugatu ziren, eta lehenengoaren obra galdurik egon da orain arte. Lazarragaren testuak Internet-en aurki daitezke (www.gipuzkoakultura.net/lazarraga), eta Gipuzkoako Foru Aldundiak argitara emandako CDrom-ean: *Lazarragaren eskuizkribua. XVI. mendea*. Prentsan iruzkinik ez da falta izan, eta bidean da jada hainbat azterlan. Edizio transkribatua, aldakin faksimilarekin batera inprimatuta, Urkizuk paratu du lehenengoz: PEREZ DE LAZARRAGA, JOAN (2004): *Dianea & Koplak*. Donostia: Erein. –Garibai-ren *Refranes y Sentencias*-en edizio kritikoa: LAKARRA, J. (1996): *Refranes y Sentencias (1596). Ikerketa eta edizioa*. Bilbao: Euskaltzaindia.– Oihenart-en obra: OIHENARTE (1971): *Atsotitzak eta neurtitzak*. Donostia: Editorial Herri-Gogoa. (Larresoro-k prestatutako argitaraldia. E. Goyhenetxeren hitzaurrea). Ikus, gainera, VARII (1994): *Oihenarten laugarren mendeurrena*, Iker 8, Bilbo, Euskaltzaindia.

Hona, bada, eskuartean dugun zerrenda laburra:

GAI EZ-ELIZTARRAK EUSKAL PROSAN (1617-1789)

Urtea	Idazlea	Izenburua	Gaia
1620	Voltoire	Thresora hirur lenguaietakua (101)	Hizkuntzak
(1653)	R. Mikoleta	Modo breve de aprender la lengua vizcayna (102)	Hizkuntza
1677	P. Etxeberri	Itsasoko nabigazionekoa (103)	Nabigazioa
(1692)	M. Dasantza	Laborarien abisua (104)	Nekazaritza
(1712...)	J.Etxeberri Sarakoa	Obras Vascongadas (1907) (105)	Hizkuntza...
1741	M. M. Harriet	Gramatika eskuaraz eta frantzesez (106)	Hizkuntza
1761	A. Kardaberaz	Euskeraren berri onak (107)	Erretorika
1783	M. Ihartze	Mirikuntzaren gainekoak (108)	Sendagintza
1785	J. Egiategi	Filosofo huskaldunaren ekheia (109)	Filosofia
1789	Lapurdiko Biltzarra	Botuen eta instrukzioneen Kaierra (110)	Politika

(101) Ik. Vinson 1891: 55-64. or. (12. zenb.). 1620 ingurukoa izan daiteke lehen edizioa eta datatu edo datatugabeko ondoko inprimaldiak izan zituen gero: 1642, 1684, s. d., s. d., s. d., s. d., 1845, 1872.

(102) Villasante 1961: 97-98. or. Vinson 1898: 667, 786, 789. or. Lehen argitalpena 1880an egin zitzaion.

(103) Izenburua osorik: *Libvrvhauda jxasoco nabigacionekoa. Martin de Hoyarzabalec egiña Francezes. Eta Piarres Detcheverry, edo Dorrec escararat emana*. Baiona, 1677. Vinson 1891: 129-132 (37. zenb.); Villasante 1961: 94.

(104) Villasante 1961: 94. or. Daranatz-ek paratutako edizioa: RIEV/RIEB. V, 1911, 585-600.

(105) Urkixori zor zaio izenburu horrekin egindako lehenengo edizio osoa: (1907): *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri (1712), con una introducción y notas por JULIO DE URQUIJO E IBARRA*. Paris: Paul Geuthner. Bere garaian argitara emandako idazlan bakarra: (1718): *Lau-Urdiri gomendiozco carta, edo guthuna*. Baiona: Mateo Roquemaurel. Vinson 1891: 100. or. (47. zenb.); Villasante 1961: 101-107. or.

(106) Harrieten idazlanaren izenburua: (1741): *Gramatica escuaraz eta francesez, composatva francez hitzcunça ikhasi nahi dutenen faboretan. M. M. HARRIET, Notari Erreïalac*. Baiona: Fauvet alarguna eta J. Fauvet. Vinson 1891: 185. or. (61. zenb.); Villasante 1961: 108. or.

(107) Kardaberaz-en idazlan hau apartekoa da autore beraren gainerakoen artean, eliz gaia ez darabilelako. CARDABERAZ, A. (1761): *Eusqueraren berri onac: eta ondo escribitceco, ondo iracurteco, ta ondo itzeguiteco Erreglac: Cura Jaun ta escola maisu celosoai Jesus-en Compañiaco Aita Agustin Cardaberaz ec esqueñtcen, ta dedicatcen dieztenac.* Iruñea: Antonio Castilla. Vinson 1891: 208. or. (91. zenb.); Villasante 1961: 141-146. or. Edizio kritikoa: ALTUNA, P.; ZULAIKA, E. (2004): *Evsqueraren berri onac*. Bilbo: Euskaltzaindia.

(108) Titulu osoa: *Miricountzaren gaineco popoulouiaren faltac, libourou, oficio hartaco eçtirenen arguitzeco, Miricountzaco thermino bada eta eçbada cerbitzatou behar içandirenen esplicacioniarekin. De Ihartze, Escoutari, Miricou, eta Erregueren Miricou icendatouïac eguina.* Paris, 1783. Vinson 1891: 233-234 (124. zenb.).

(109) Izenburu osoa: (1785): *Lehen liburia edo filosofo huskaldunaren ekheia. Juseff Eguiteguy, Zuberoan Errejent denaren obra. Frankfort-en Beiñat Edelman-en Moldizkidiatik.* Frankfort: B. Edelman. Edizio kritikoa: PEILLEN, Tx. (1983): *Lehen liburia edo filosofo huskaldunaren ekheia (1785)*. Bilbo: Euskaltzaindia.

(110) Vinson 1891: 248-250 eta 251 (133-141. eta 144. zenb.). RICA, M. (1975): «Traduction en basque de termes politiques sous la Révolution», in: ASJU. IX, 3-175.

Voltoire-ren idazlana salbu (seiren bat argitaraldi Iraultza-aurretik), gainerako argitaratutako guztiek edizio bana izan zituzten hemen aintzakotzat hartzen dugun epealdian eta adierazita dauden urteetan. Baina, data parentesi artean dutenak (Etxeberri Sarakoaren idazlanetako «Lau-Urdiri Gomendiozko Karta» izan ezik: 1718) beren garaian argitara gabe geratutakoak ditugu. Hortaz, berez murritza den produkzioa are murritzago bilakatu zitzaien garaikoei; isildurik geratutakoa, gainera, obrarik estimagarriena izan zen, zenbait aldetatik (Etxeberri Sarakoarena).

Beraz, nabardura horiekin, bere garaian ezagutu ahal izan ziren laukiko idazleak hauek ditugu: Voltoire, P. Etxeberri, Harriet, Kardaberaz, Ihartze eta Egiategi. Sei luma ezberdin, eta azken orduko Lapurdiko Biltzarra.

Euskal prosa ez-eliztarra, bada, muga oso hertsietan zebilen, artean. Gainerako literaturetan gertatu izan denaren antzera, olerkiaren atzetik etorri zen hitz-lauzko lanketa, eta paremiologiari edo olerkiari errazago heldu zioten gure idazleek, prosa-lanari baino (111). Errefrauen mundu hori ez dugu jaso laukian, ezta idazlan guztiz laburrak ere (112).

Jatorrizko edizioen orrialdeetan, hiru argitalpeni aitortu behar zaio lehenengotasuna: Vinson-en datuen arabera, Harriet-en *Gramatika*-k 512 orrialde zituen, 465 Ihartze-ren liburuak eta Voltoire-ren *Thresora* 280 orrialdetara iritsi zen; esan bezala, azken honek, gainera, edizio-kopuru errespetagarria izan zuen. Eskueran den aipatutako edizioan ikus daiteke Egiategiren ekarpena.

Burututako lanean hizkuntzaren gaia da gainerakoen gainetik, nagusi eta zabal: Voltoire, Mikoleta, Etxeberri Sarakoa bera, Harriet, Kardaberaz. Euskara buruhaustea da, ikasi eta irakatsi behar dutenentzat (nolabait ere elebakartasunaren kanpoarekiko isolamenduari gaina hartu beharra); bestalde, inguruan entzuten diren euskarari buruzko eztabaidetatik geure mesedetan zerbait ikasi beharra sentitzen da (Etxeberri Sarakoa), edo euskara duintasun berri batera eraman nahia (Kardaberaz).

Horren ondoan, bizitzako premia praktikoak ere agertzen zaizkigu: laborari eta arrantzaleen ekonomia eta lana (P. Etxeberri eta Dasantza), eta garaiko hainbeste izurrite eta gaixotasun menderatu ezinen artean, osasuna zaindu beharra (Ihartze). Eta gutxiena espero genezakeena: «Filosofo huskaldun» bat agertu zitzaigun, non eta Alemaniako Frankfort-en kaleratua Frantziako Iraultzaren bezperan (1785).

---

(111) URQUIZU, P. et al. (2000): *Historia de la literatura vasca*. Madrid. UNED. 71-73, 151-155, 214-217. Gogora hainbat biltzaile: Garibai (1592, 1596), Zalgiz (*c*. 1610), Voltoire (1620), Isasti (1625), Oihenart (1657, 1664), Bela (*a*. 1667), Larramendi (1745), Egiategi eta abar (hauek ere ez denak bere garaian argitara emanak).

(112) Ez ditugu bildu hona hamar-hogei orriko liburuxkak, eta liburu eginagoetara mugatu gara. Horretan, Dasantzaren lana izango litzateke salbuespen bakarra (RIEV/RIEB. V, 1911, 585-600).

Hauek izango lirateke beren testu-masagatik, gero ikusiko ditugun garai bereko idazle eliztarren idazlanen parekoak izan daitezkeenak. Gai biziki ezberdinak dituzte, eta hastapen llabur honek ez zuen lortu eremu bakoitzean euskal prosa finkaturik sortzea: betiere ahalegin solteak eta segidarik gabekoak izan ziren.

Garai berrien aldakuntza unean, sinbolikoak gertatu ziren Lapurdiko Biltzarrak bere diputatuei euskaraz emandako *Kaierra* eta berehala Iraultzak sustatu zituen itzulpenak, gure euskal Erakundeek lehenago egin ez zutena behingoz behintzat eginez: erakundeetako bizitza eta ideia politikoak euskaraz eman (113).

Beren bakantasunean beste hainbat perla dira idazlanok, eta, esan bezala, salbu Voltoire-rena (9 edizio), ia beti argitaraldi bakarrekoak, eta inoiz orrialde gutxikoak ere (Dasantza-ren kasua, e. b.).

Oro har, uzta ez zen izan aberatsegia (baina bai batzuetan ausarta), eta garaiko hitz-lauzko idazlan handi, ugari eta hedatuenak ez dira hauek izango, ondoren ikusiko ditugun argitalpen eliztarrak baizik.

6.2. Argitalpen eliztarrak

Bi epetan bana genezake Iparraldean XVII-XVIII.etako eliz literatur historia: Axularren Erretore-aldiak hartuko lukeena bata (1600-1643), eta haren inguruko idazle-taldearen ondorengoa bestea, mende eta laurden pasatxoa besarkatuko lukeena (1650-1789).

Eliz idazketaren lehen loraldiak bere alde eta kontra izandako egokiera historikotik nahitaez hona ekarri beharra dago garaiko hainbat joera, kezka eta gertakari, batzutan geureak eta bestetan testuinguru orokorretik gu ere ukitu gintuztenak.

Besteak beste ondoko hauek, behintzat, badute zer ikusirik euskal eliz literaturaren loraldi honekin:

1. Trento-ondoko eliz Erreforma (1562…), Frantzia osoko Eliza eta Euskal Iparraldekoa ekimen berrietara bultzatu zituena (114).
2. Erreforma kalbindarraren parioa hurbila eta arriskutsua izan zen Eliza Katolikoarentzat, eta hark mahai gainean utzitako eliz euskara idatziaren proposamena, teorikoa eta praktikoa, hor zegoen betiere (Biblia, Katekesia, Otoitz-liburuak) (115).

---

(113) Vinson 1891: 248-250. or.; Urquizu et al. 2000: 274-276.

(114) Ik. «La renaissance catholique dans la première moitié du XVIIe siècle», in: LATREILLE, A. et al. (1963): *Histoire du catholicisme en France*. Paris: Spes. II, 271-349. MOREAU, R. (1970): *Histoire de l'âme basque*. Bordeaux: Imprimerie Taffard. 209-238.

(115) Intxausti 1995: *passim*.

3. Triskantza odoltsu eta mingarria izan zen Frantziako Erlijio-gerrena, Nafarroako Erregina tarteko zelarik (1562-1598).

4. Berrikitan (1609-1611), morisko espainolen bat-bateko etorrerak zenbateraino astindu ote zituen Lapurdiko kostaldeko lurrak? Erronka sozio-erlijioso berriei erantzun beharra erakusten zuen horrek ere (116).

5. Bertrand Etxauz-ko apezpìkuaren babesa badirudi erabakigarria izan zela, Baionako Gotzain zelarik, noski (hogei urtez: 1598-1618); baina baita geroago ere, hil arte (Tours, †1641): Hierarkia, beraz, hor dago kultur ahalegin honen hasieran, Axular-ek berak eta lagunek aitortzen digutenez (117).

6. Baina egokiera aparta idazle protagonistak berak dira: apaizarte euskaldun prestatuago baten presentzia –batzuetan Unibertsitateetan ibilia– erabakigarria suertatu zen (118).

7. Ziburuko frantziskotar errekoletoen komentuak eskaintzen zituen aukerak (bilera-leku eta apaizentzako Ikastegia) ez ziren galdu, nonbait, izan ere Etxauz-ek asmo guztiz sortua zen komentu-etxe hau (1611). Herrietan banandutako apaizek lagunarte kezkatu eta eskolatuagoa izan zuten bertan (119).

Badirudi aipatu izan den garaiko jasoaldi ekonomikoa ez dela, beste gabe, aintzakotzat hartzekoa, eta hipotesi hori eskueran dauden datu berrietara ekarri behar dela (120). Historian jakina denez, batzuetan egoera eskasago edo txar bat sustagarri ere gerta daiteke gizartean (ekimen berriak pizteko, iraultzara jotzeko, etab.), eta garaiko zailtasunek ere «lagundu» egin zuten, itxuraz.

Ezingo dugu esan gabe utzi beste datu jakingarri bat: Baiona eta Oloroeko Apezpikuei dagokiena. Bi Diozesietan zenbait Gotzain euskaldunekin topo egiten dugu, kalitateko gizonak dira eta euskarazko pastoraltzaz ardu-

(116) ECHEGARAY, B. (1945): «¿Se establecieron los moriscos en el País Vasco de Francia?», in: *Bulletin Hispanique*. XLVII, 92-102.

(117) AXULAR, P. (1976): *Gero (Después)*. Arantzazu: Jakin/efa. 4-9: «Gomendiozko karta», inondik ere protokolo hutsa ez dena.

(118) Hala ere, badirudi, Hegoaldean bezalatsu Iparraldean ere, Seminariorik ezean apaizgaien prestakuntza nahikoa mugatua zela. Moreau 1970: 218-219.

(119) Axular 1976: 13. «Egun batez, konpaiñia on batean». Materre-rekiko xehetasun guztiekin ez bada ere, gogoan har Villasanteren oharra. Ziburuko komentu horren historiaz ik.: INTXAUSTI, J. (1998B): *Euskal historialariak eta frantziskotarrak. Azterketa historiografikoa*. Arantzazu: efa. 170-178.

(120) GOYHENETCHE, M. (2001): *Histoire Générale du Pays Basque*. III. *Évolution économique et sociale du XVIe au XVIIIe siècle*. Donostia: Elkarlanean. 47-65, 109, 169-171.

ratuak; beren laguntzaz edo erabakiz emango da argitara hainbat argitalpen, XVII-XVIII. mendeetan (121). Episkopologio honen historia egiten hasi gabe (122), aski izan bedi hemen beren izenak eta Gotzainaldiak adierazita uztea:

GOTZAIN EUSKALDUNAK (BAIONA, OLOROE, XVII. MEND.)

Apezpikua	Egoitza	Gotzainaldia	Urteak	Orotara
B. Etxauz	Baiona	1598-1618	20	–
Cl. de Rueil (123)	Baiona	1621-1628	7	–
J. Oltza	Baiona	1643-1681	38	Baiona: 65
A. Maitia I	Oloroe	1597-1623	26	–
A. Maitia II	Oloroe	1623-1646	23	–
A.F. Maitia III	Oloroe	1659-1681	22	Oloroe: 71

Hau da, 65 urtetan euskaldunak izan ziren Baionako Gotzainak XVII. mendean, eta Oloroen, berriz, Maitia-tarrek, hiruren artean, 71 urteko Gotzainaldi euskalduna bete zuten. Datua gogoan izatekoa da, uste dugunez.

Aterpe horiekin eta testuinguru zabal hartan loratu zen eliz idazketa katolikoaren udaberri hau. Banan-banan, egindako guztiaren berri ematea ezinezkoa dugu hemen, baina argitalpenen lagin bat bederen aurkeztu nahi dut. Hona, bada, argitalpen nagusienen zerrenda hautatu bat.

(121) Moreau 1970: 209-216.

(122) Ik. VEILLET, R. (1910): *Recherches sur la Ville et sur l'Église de Bayonne*. Bayonne/Pau. I, 189-202 (Etxauz), 204-209 (De Rueil), 228240 (Oltza).

(123) Etxeberri Ziburukoak (1626) euskaldun berritzat edo emana, bere liburuari egindako laudoriozko eta fidagarriegia ez den testu batean. Moreau-k ere bai (213).

IPARRALDEKO IDAZLEEN ELIZ ARGITALPEN LARRIENAK (1617-1789)
(Katolikoen eliz eta fede-bizitzarako liburuak)

Urtea	Idazlea	Liburua	Orriald.	Ediz.	Oharrak
1617	Estebe Materre	*Dotrina christiana* (124)	383[2]	5	
1635	Joanes Haranburu	*Devocino escuarra* (125)	512[1]	5	
1636	Joanes Etxeberri	*Eliçara erabiltceco liburua* (126)	542[1]	3	
1641	P. Argaignarats	*Avisu eta exortationea* (127)	372	1	
1643	*P. Agerre* Axular	*Gvero* (128)	*623*[1]	2	
1656	Silvain Pouvreau	*Guiristinoaren dotrina* (129)	307	1	Richelieu-ren itzulpena
1664	Silvain Pouvreau	*Philotea* (130)	557	1	S.Frantzisko Saleskoarena
1665	Silvain Pouvreau	*Gudu espirituala* (131)	334	1	Scupoli-ren itzulpena
1686	Bernard Gasteluzar	*Eguia catolicac* (132)	479	1	
1716	–	*Exercicio spirituala* (133)	371[2]	7	
1720	Mixel Xurio	*Jesus Cristoren imitacionea* (134)	426	4	Kempis-ena
1731	Grazien Haroztegi	*Bigarren Catichima* (135)	467[1]	3	Lavieuxville Apezpikuarena
1749	Joanes Haraneder	*Philotea* (136)	569[1]	1	S. Frantzisko Saleskoarena
1750	Joanes Haraneder	*Gudu izpirituala* (137)	355[1]	1	Scupoli-ren itzulpena

(124) Vinson 1891: 51-55. Villasante 1961: 69-70. Ik. DEDIEU, h. (1977): «Etienne Materre, franciscain français écrivain d'expression basque», in: *Bulletin du Musée Basque*. 1977, 97-100.

(125) Vinson 1891: 74-76; Vinson 1898: 542; Villasante 1961: 72.

(126) Vinson 1891: 76-78; Villasante 70-71 (2. edizioko orrialdeak).

(127) Vinson 1891: 85; Villasante 196: 72.

(128) Vinson 1891: 86-92; Villasante 1961: 72-83.

(129) Vinson 1891: 98-99; Villasante 1961: 83-86.

(130) Vinson 1891: 109-114; Villasante 1961: 83-86.

(131) Vinson 1891: 114-123; Villasante 1961: 83-86.

(132) Vinson 1891: 135-137; Villasante 1961: 90-91.

(133) Vinson 1891: 149-160; Vinson 1898: 568-570; Villasante 1961: 112.

(134) Vinson 1891: 162-166; Villasante 1961: 107-108.

(135) Vinson 1891: 178-180; Vinson 1898: 571-572; Villasante 1961: 113. Gogoan har bedi *Bigarren Catichima*-ri dagokion oinarrizko Katixima txikia, hainbat argitaraldi izan zituena (Vinson 1891: 173-178; Vinson 1898: 571-572).

(136) Vinson 1891: 197-198; Villasante 1961: 108-109.

(137) Vinson 1891: 198-199; Villasante 1961: 108-109.

Urtea	Idazlea	Liburua	Orriald.	Ediz.	Oharrak
1758	Baionako Diozesikoa	*Eucologia Ttipia* (138)	547+ccxx	2	Frantsesekotik itzulia
1759	M. G.	*Jesusen Bihotz sakratuaren… devocionea* (139)	512[2]	1	Frantsesetiki tzulia
1775-1777	Beñat Larregi	*Testamen çaharreco eta berrico historioa* (140)	377+454	1	Royaumont-en obra itzulia
*p.*1775	– (Barkoxekoa)	*Uscara libria* (141)	350[11]	1	
1778	Alexandre Mihura	*Andredena Mariaren Imitationea* (142)	305	1	Hérouville-ren itzulpena
1782	López	*Perfeccioniaren pratica* (143)	466	1	A. Rodríguez-en itzulpena
1784	Andre Baratziart	*Guiristinoqui bicitceco eta hiltceko moldea* (144)	312[2]	2/3	

Iturria: Vinson 1891, Vinson 1898. – Oharrak: Orrialdeen zifra-ondoan eman ditugun superindizeek datuaren edizio-iturria adierazten dute. – Orrialdeen kopurua ez da erabakarrekoa, baizik eta obra bakoitzeko aipatu edizioan ageri diren orrialdeen motakoa (liburuen arteko orrialdeetako testu-masa berdindu gabea, hortaz).– Edizioen kopurua 1617-1789. urteen tartekoa bakarrik da (ondokoak ez dira hemen jaso).

Lauki honetan ditugun liburuak urte haietan Iparraldean Elizari buruz edo elizarako argitara emandako argitalpenak dira (1617-1789), baina argitalpen haietako edizioren batean 300 orrialdetatik gora izan zituztenak bakarrik ekarri ditugu hona. Hau izan da laukirako jarri dugun muga, betiere testu-masarik handiena izan zutenak aintzakotzat hartuz, eta balio kualitatiboak albora lagaz (literatur nahiz teologi balioak, esaterako). Beraz, ondoko iruzkinak, ezarritako muga horien barruan ulertu behar dira (145).

Argitara emandakoak dira, eta ez garai haietatik geratu zitzaizkigun eskuizkribuak, Haraneder-en Testamentu Berriaren antzera bere garaian egun ar-

(138) Vinson 1891: 205-206; Vinson 1898: 579; Villasante 1890: 113. Ematen ditugun orrialdeak 2. ediziokoak dira (1790).

(139) Vinson 1891: 206-207; Villasante 1961: 111.

(140) Vinson 1891: 224; Villasante 1961: 109-110.

(141) Vinson 1891: 1*, 243-247; 1**, 589-590. Villasante 1961: 113.

(142) Vinson 1891: 226-228; Villasante 1961: 112 (riev/rieb IV, 1910, 478).

(143) Vinson 1891: 228-231; 1898: 587; Villasante 1961: 112.

(144) Vinson 1891: 234-237; Vinson 1898: 587-588; Villasante 1961: 110-111.

(145) Salbuespen txiki bat egin dugu, orrialde-kopuru hori 1789tik ondorengo edizioren batean gainditu duen birekin: *Uskara libria* eta *Jesusen Bihotz*-ekin. Haren lehen edizioak (p. 1775) 142 or. bakarrik izan zituen, baina ondoren etorri zen edizio-sail handian (gutxienez 14 izateraino) inoiz 386 or. ere izan zituen (1851). Bigarrena, berriz, 1. edizioko 159 orrialdeetatik 512tara pasatu zen 1831n.

girik ikusi gabeak (1740) (146), orduan eta Hegoaldean geroxeago bezala, honelakorik egon baitzen Iparraldean ere (Axular-en «bigarren partea» galdurik dela ere pentsa daiteke!) (147), eta ez derrigorrez zentsura ofizialagatik, arrazoi eta ezin ekonomikoek edo ardurarik ezak horretara eramanda baizik.

Inprimategietan argitara emateko bideak ez zuten, segur aski, sasirik gabekoak izan behar Iparraldean. Badakigu zinez hiri honetako moldiztegi batean inprimatutako lehen liburu 1642koa dela, Vinson-ek esaten digunez (148), eta handik aurrerakoetan ere Baionatik kanpo egin (behar) izan zirela sarritan inprimaketa-lanak geroago ere, XVII.ean noski, baina baita hainbat aldiz XVIIIean ere.

Erran gabe doa, Iparraldeko produkzio osoa aztertu nahi bada (eta ez, hemen egingo dugun lehen hurbilketara mugatu), idazlan larrien hauen ondoan beste hainbat ekarri beharko genukeela hona, et, gainera, kasu batzuetan ez euskal literaturan gutxien entzun edo argitaratuak izan direnak, e. b., Etxeberri Ziburukoaren *Noelak* (hamarren bat edizio XVII-XVIII.etan).

Gisa berean, nola ahantzi Kristau Ikasbideak, Baionak bezala Oloroek beren diozesietarako hain sarritan atera zituztenak? Zalantzarik gabe, hauek izan ziren (izen eta egile batekin edo besterekin), herritarren eskuetan sarrienik eta gehien zabaldutako eliz argitalpenak. Batzuetan ofiziosoak ziren, baina indarrik handiena Katixima ofizialek izan zuten, noski: Pouvreau (1656), Belapeire (1696), Maitia (1706), Aulan (*c*. 1745), etab. Katixima herritar apalen ondoan inoiz edo bestetan apaizentzako ketekesi-liburuak ere agertu ziren, Lavieuxville/Haroztegi-ren hura bezalakoak (1731).

Jaiera edo deboziozko liburuak –sarritan, lehenengoan txikiak, eta gero, hurrengo argitaraldietan haziz joan ohi zirenak– aipatu beharra dago. Gehienak ez dira ageri laukian, orduan (1617-1789) eta gero izan zuten indar guztiarekin, baina garbi dago beren argitara-maiztasunak aditzera ematen digunez, liburu estimatu eta erabiliak izan zirela: otoitzak, kantikak eta santuen bizitzak batera etortzen ziren horrelakoetan. Biblia urrun zegoenez, Iparraldeko kristau katolikoek debozio- eta gogoeta-liburuei heltzen zieten, batez ere. Ikusiko dugu.

Argitalpenen aurreko bi laukiak alderatuz gero (ez-eliztarrak / eliztarrak), lehen begiratuan nabari ageri zaigu gai ez-eliztarren eta elizakoen artean ageri den aldea, idazletan bezala idazlanetan. Ez-eliztarren artean hor ia dena jaso dela esan genezake, zegoen guztia; beste bigarren lauki honetan, berriz, hautatu gutxi batzuk bakarrik, eta, hala ere, eliztarrok beren hautapen mugatuan

(146) Haraneder-en hau Harriet-ek kaleratu zuen 1855ean (Baiona: E. Lasserre), eta berrikitan egin da edizio kritikoa: HARANEDER, I. (1990): *Jesu Christoren Evangelio Saindua*. Bilbo: Euskaltzaindia. (Patxi Altina-k paratua).

(147) Villasante 1972: 96, 121-122.

(148) Vinson 1891: xxviii.

askotxoz ere ugariagoak dira ez-eliztarrak baino, kopuruz eta mamiz: haietatik, hamar idazle aipatu ditugu, bakoitzari lan bana dagokiola (Etxeberri Sarakoa dugu salbuespena); beste hauetan, aitzitik, 21 obra aipatu behar izan ditugu, 18 egilerenak. Bederatzi obra dira XVII.ekoak, eta 12 XVIII. mendekoak.

Garaiko Hegoaldearekin erkatzen bada, Iparraldeak ia mende eta erdiko aurrerapena duela ikus dezakegu: Materreren lana 1617koa dugu, baina Hegoaldean zinezko liburu-idazketaren lana Mendiburu-rekin hasi zela emanez, 1747a arte ez dugu aurkitzen tamaina bertsuko libururik (149).

Laukiratu ditugun idazleek zein soslaia sozial eskaintzen dute?

Denetik dagoela esan genezake: apaiz diozesitarrak eta erlijiosoak (baita Iparraldean etxerik izango ez duen josulagunen bat ere), diozesitarren artean Erretore eta Bikarioak (Axular, Argaignarats, Xurio, Harizmendi, etab.), euskalki ezberdinetako idazleak (Lapurditik Zuberoaraino). Azkenik, atzerritarrak ere baditugu, hortxe ausart eta behargin saiatu, bertakoak lotsarazteko moduan.

Dakidanez, herritar laiko eta emakumerik ez da ageri; baina segur aski emakumezkoak izan ziren eliz liburuen erabiltzailerik finenak, *Gero*-ren ale zahar batean ikus daitekeenari jarraiki: «Marianna Galharrague jingoitico etcheco andria da liburu hunen jabea», idatzi zuen bertan etxekoandre baten eskuak (150).

Laukitik, lehendabizi, estreinako bultzada handia eman zutenak gogorazi behar ditugu, Donibane eta Sara ingurukoak. Segida izango zuen euskarazko lehen idazketa abiarazi zuten, hizkuntzaren *idaztasuna* ahalbideratuz; baina ez hori bakarrik: idazketa hori kalitate handi batez hornitu eta loratu zuten, eta ondokoentzako *idatz-eredua* proposatu. Praktikotasunari ez ezik (mezua pasarazteari, alegia), duintasunari eta edertasunari ere begiratu zioten.

Laukian daudenak (Materre, Haranburu, Etxeberri, Argaingnarats, Axular) aipatu behar dira, eta baita hor izendatu gabeak ere: Harizmendi, Klaberia, etab. Talde hark elkarren arteko hurbiltasun nabariak erakusten ditu: bata besteen liburuetan onarpen-ofizialak ematen, laudoriozko bertsoak edo hitzaurreak idazten ageri zaizkigu (151).

Batzuetan idazle bat berak liburu bakarra baino gehiago idatzi zuen, nahiz eta laukian ez denak agertu: Etxeberri Ziburukoak hor agerian duena ez ezik

(149) MENDIBURU, S. (1747): *Jesusen Bihotzaren devocioa*. Donostia: B. Riesgo Montero. 387 orrialde; berehala izan zituen beste bi argitaraldi (Iruñea: 1747, 1751), jaiera honek orduan hartutako indarrari erantzunez, noski.

(150) INTXAUSTI, J. (1990): *Euskara, euskaldunon hizkuntza*. Vitoria/Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. 85.

(151) Villasante, L. 1972: 90-93.

(*Eliçara erabiltceco liburua*, 1636), beste bi baditu: *Manual devocionezcoa* (1627) eta *Noelac* (1631). Beraz, luma-ofizioko gizona zela esan beharko genuke, «goren kalitateko pertsonaia, eskolatua eta humanista» izateaz gain. Idazten zihardu en garai berean, inguruko lagunei eta euskalgintza berriari bere itzal eta jakinduriaz beste, zituen gidari-dohainak ematea izan zen Etxeberriren zerbitzurik onena.

Idazle-kalitatean guztiok lehentasuna aitortu dioguna dago: Pedro Agerre *Axular*. Salamankan eskolatua zen Pedro Agerre (1592-1595) (152). Iparraldera joatean (1596), artean ez zen apaiz, izan ere 1596an apaiztu baitzuen Tarbeko Apezpikuak; hortaz, heldutasun onean ordenatu zen, eta zergatik ez dakigula, bere Iruñeko Diozesitik (berea bai, baina jaiotzezkoa ez zenetik (153)) Baionakora pasatu zen (154), eta hasteko, Donibane Lohizunen jarri bizitzen, 40 urte zituela. Saran Erretore izango zen hau (1600-1644) bere heldutasun betean inguratu zen herri horretara. Badakigu predikari onaren sona zuela jada 1601ean, Enrike IV.aren gutun batek dioenez (155). Zahartzaro adinduan, jada hiltzear zelarik, kaleratutako *Gero* (1643), urrundik zetorren prediku-lanen emaitza da. Begi-bistan dagoenez. Axular liburu bakarreko idazlea dugu, bizitza osoko liburua osatu baitzuen argitaratutako hartan.

Ongi bertokoak ziren horien ondoan gogoratzekoa da hastapen haietan bi atzerritar nola jarri ziren euskaraz idazten: Estebe Materre eta Silvain Pouvreau. Materre fraide frantziskotarra zen, Saran ikasi zuen euskara eta, inondik ere, euskal apaizarteko giro hartan sartu zen berehala. Berarena izan zen Donibane-Sarakoen lehen liburua: *Dotrina christiana* (1617). Materre-ri bere Probintzia erlijiosoko gobernu-kargutan ibiltzea egokitu zitzaion, beharbada lehenik edo Baionan, baina baita La Réole (Gironde) eta Tolosan ere. Horrek moztu zion, beharbada, hemengo idazle-lana.

Silvain Pouvreau belaunaldi bat geroagokoa da, eta bere argitalpenak 1650-1670.etan eman zituen. Bourges-en jaio, Euskal Herrira etorri eta Saint-Cyran-en idazkaria izan zen; giro hartan euskara ikasi zuen, eta handik urte batzuetara Bidarteko Erretore bilakatu (1640-1644). Laukian ditugun idazleen artean emankorrenetakoa da, Etxeberri Sarakoa eta J. Haraneder-en ondoan. Laukian hiru liburu dituen bakarra da Pouvreau: *Guiristinoaren dotrina* (1656), *Philotea* (1664) eta *Gudu espirituala* (1665). Hirurak dira itzulpenak eta azken bi hauek izpiritualitatearen historian «klasikoak», Euskal Herritik joan eta gero Parisen kaleratuak. Zinez, funtsezko lan bati heldu zion euskal-

(152) Itziar Mitxelena-k aurkitu zituen Salamankako urte hauetako matrikula-agiriak (1972). Ik. Villasante 1972: 36, 1. oh.

(153) Urdazubi sorterria Baionako Diozesikoa zen 1556an; pentsa daiteke politikak ezarritako diozesiarteko muga-aldakuntza administratiboak (1567) ez zituela aldatu berehala herritarren Iparralderako joerak, bide eta topografiak ere jendea hara bideratzen zutenean.

(154) Villasante 1972: 38-40.

(155) Villasante 1972: 41.

dun berri honek; zoritxarrez, argitara eman bai, baina ez ziren pasatu lehenengo ediziotik aurrera (156).

Idazle emankorrenen artean sartu behar dira XVIII.eko bi izen, gutxienez: Joanes Haraneder eta Beñat Larregi. Berriz ere, biak dira itzultzaileak, eta Haraneder-en kasuan, itzulpen errepikatuak ditugu, gainera: hau da, Pouvreau-ren lana berriro egin zuen Haraneder-ek laurogei urte geroago, hark bezala *Philotea* (1749) eta *Gudu espirituala* (1750) ostera euskaratuz eta argitara emanez. Errepikapenaren hau eliz literaturako paradoxetako bat da, Kempis-ekin ere behin eta berriz jazoko dena.

Beñat Larregi-k hartu zuen egitekoa ere zabala izan zen, bi liburuki marduletan emana, eta hau ere itzulpena: Royaumont-en *Testamen çaharreco eta berrico historioa* (1775-1777). Kristau izpiritualitateari begira egindako lanak dira Haraneder-en eta Larregi-ren hauek, eta berauena osatzera etorri zen A. Rodríguez-en *Perfeccioniaren pratica* (1782), Jesusen Lagundiko tradiziotik zetorrena eta López-ek euskaratua.

Ikus daitekeenez, euskal eliz produkziorik handiena itzulpenena dugu, eta nabaria da kultura beregain batek behar duen baino askoz harago doan itzulpengintzaren aurrean gaudela. Euskarazko eliz literaturak, Donibane-Saran halako beregaintasunez jaiotakoak, gerora ez zuen zaindu ahal izan bere testuan hasierako originaltasuna (bere mezuan behintzat segur aski erlatiboa zena), nahiz eta aitortu behar den itzulpen-lanak Teologian eta Izpiritualitatean hizkuntzari eskatzen zizkion trebeziak ontzen lagundu zuela.

Itzulpenen ondoan, azpimarratzekoagoa da mende eta erdi honetan ekoizpen originala egin zutenena: Etxeberri Ziburukoa, Axular, edo Gasteluzar-ena, adibidez. Hitz-lauz eta bertsoz, bietara, egindako azkeneko honen lana merituzkoa izan zen. Euskal Herritik kanpo bizi behar izan zuen Gasteluzar-ek, Pauen, baina euskaldunei behatuz idatzi zuen, eta gero badakigu herritarrek gogoz jaso zizkiotela bere bertsoak elizkizun arrunt eta bestelako ospakizunetan.

Burututako hau guztia ez zen agortu emaitza eman zutenen belaunetan; alderantziz, egindakoa ondokoentzat zinezko ondarea izan zen, eta hainbat kasutan Iraultza-ondoan argitaraldi berriak ezagutu zituzten obra haiek. XIX. mendean, aurrekoetako hauek dira berrargitara emanak, adibidez: Xurio-ren Imitationea (4 edizio), Haraneder-en *Philotea* eta *Gudu espirituala* (ed. bana), *Eucologia Ttipia* (5 ed.), *Uscara libria* (15 ed., gutxienez) eta apenas aipatu dugun Baratziart-en *Guiristinoqui bicitceko* (12 ed. gutxienez). Liburu txikiagoen artean (laukian jaso gabeetan, alegia) ez da falta horrelakorik: Haroztegiren *Guiristinoen doctrina*-k (1733) XVIII.ean bederatzi argitaraldi izan ondoren, hurrengo mendera luzatu zuen bere bizialdia beste lau ediziorekin.

(156) Euskara-frantsesa hiztegi bat ere utzi zuen, baina ez zen bere garaian argitara eman. Villasante, L. 1961: 85.

Axular-en kasua berezia da: 1864an Iparraldean hirugarren edizioa ezagutu ondoren, XX. mendean Hegoaldean piztu zen *Gero*-rekiko interesa, lehenagoko Añibarro-ren bizkaierazko itzulpenetik hasi eta Urkixo, Lekuona eta Villasante-ren edizioetara nahiz Euskaltzaindiaren edizio faksimileraino (157). Eliz liburu hau euskaldun anitzentzat literatur liburu bilakatu da, hizkuntzaren eskola.

Oro har, 1617-1789.etako Iparraldeko argitalpen larrienek gehien landutako eremuak ondoko hauek izango lirateke:

1. Elizarako eliz liburu orokorrak: aldi berean meza eta sakramentuetarako testu lagungarri, jaierazko otoitz-bilduma, kantategi eta inoiz hagiografia ziren liburuak daude lehenengo. *Exercicio espituala* edo *Eucologia Ttipia* dira adibide onak, edo zubererazko *Uskara libria*.

2. Katiximak: Herriarentzakoak dira ugarienak (laukian ageri ez badira ere) eta apaizentzako «Maisu-liburuak» dei ditzakegunak, Katekesirako liburu gidariak. Katiximen hau da Hierarkiak gehien lagundutako eremua.

3. Izpiritualitate-liburuak: Etxerako liburu irakurgarriak dira, bakarka edo sendian irakurtzekoak; normalean, kanpoko Maisu handien obrak ditugu hauek (*Philotea, Imitacionea*).

4. Jaiera berezietarako liburuak: Ongi hiltzen laguntzekoak batzutan; garaiko zaletasun eta interesei ere erantzuten diete honelakoek (adibidez, Jesus-en Bihotzaren debozioari, XVIII.ean).

5. Predikurakoak: Laukiak partez bakarrik islatzen du *(Gero)* honetarako apaizei proposatutako gida-liburuak, baina ezin dira ahantzi eremu honetan inprimaturik eman ziren langaiak (iganderoko Ebajelio-ondoko oharrak: *Pronus* deituak, esate baterako).

6. Bibliaren mundua: Biblia oso modu mugatuan iristen zen herrira (norberaren etxeko irakurgai arrunt izatera heldu gabe, eta ia beti Liturgia ofizialaren karietara); hutsune hori estaltzeko Larregik itzulitako *Testamen çaharreco eta berrico historioa* dago (1775-1777) jasotako zerrendan, Hegoaldean XIX.ean Lardizabal-ek eskainiko zuenaren antzekoa.

Katekesi-eremuan Hierarkiaren ardura zuzen eta iraunkorra ageri da, kasik zerbait programatua, baina, gainerakoan, badirudi ekimen pribatuek dakartenaz baliatzen dela eliz Erakundea, eta zinezko eliz inkulturazio teologiko-linguistiko egitarauturik ez dela abiarazten. Iparraldeak egin zuen ekarpen aski aberats hau, eskasa eta maingua dela esan liteke, nahiz eta laukitik kan-

(157) Ik. Villasante 1972: 120-131. AÑIBARRO, P. A. (2001): *Gueroco guero*. Bilbo: Euskaltzaindia. Blanca Urgell Lázaro-k paratutako edizio kritikoa.

poan geratu diren 300 orrialdeetatik beherakoak ere hobeki begiratu behar diren, azterketan ondorio egiatiak eskuetan izateko.

6. ATZERA BEGIRATU BATEAN

Ikusi ditugunetatik (eta ez dira begiratu beharreko denak, gutxiagorik ere) zein ondorio atera dezakegu euskarak edo eliz Erakunde barruko euskaldunek Eliza Katoliko Erromatarrean bizi izan duten hizkuntz trataeraz?

Azterketa jarraitu ahal izateko zenbait datu orokor aurreratu nahi izan ditugu hemen, gogoan hartu beharrekoak direlakoan. Lehenik, «Liburu-erlijio» unibertsal handiek hizkuntzekin (izan) dituzten harreman hertsiak gogorarazi ditugu; Kristautasuna ere testuinguru orokorrago horretan dago.

Atal-galduka ibili gabe, aztergaiari bere osoan so egiteko («Eliza/Euskara» gaiari, alegia) eta Elizako hizkuntz(ar)en eremuak definituz joateko aztergai izan daitezkeenen aurkezpena egin dugu lauki batean; lauki teoriko osagarri eta zuzengarria da hori.

Horren ondoren Erdi Aroaz egin dira azpimarraketa batzuk, arazo honetan mende haiek ahantziegiak ditugulakoan; Aro Moderno-Garaikideetarako azterketa-kronologia bat proposatu dugu, eta Iparraldeko liburu-lagin bati gain-begiratua eman (XVII-XVIII. mend.), oraingoz gaia agortzeko asmorik gabe.

Ikusitakoetatik beharbada bidezkoa da ondorio batzuk atera edo hipotesi batzuk bederen egitea, Aro eta eremu ezberdinei begira.

1. Zer esan euskaldunen kristautzeaz? Kolonizazio politiko eta erlijiosoetan gertatu izan denaren arabera, eta Euskal Herriko erromatar kolonizazio kulturalak zekartzan urei jarraiki, lehen kristautzean zenbait hiritako euskaldun elebidunekin –eta berorien bidez– hasiko zen Eliza bere mezu mintzatua pasatzen. Lehendik edo orduan latindutako euskaldun elebidunak dira, bada, euskaldun elebarrengana iristeko bitartekariak. Hizkuntza mintzatuak bete zuen egiteko hori, eta jakin ez dakigu aldi bertsuan ezer idatzirik egon zenentz. Hau da aurkitu dugun hutsune historiko larri bat, lehen kristau-euskara idatziarena.

2. Zer pentsa gure Erdi Aroaz? Euskal Herriko kristautzeaz izan diren eztabaidak gorabehera, gurera bilduz (hau da, hemengo lehen Eliza kristauak hizkuntzarekiko izan zuen burubideaz galdetuz), ikusi dugu Erdi Aroak ez digula utzi euskarazko testu bibliko, liturgiko edo pastoralik (hortaz, mila edo, nahiago bada, bostehun urteko hutsunea). Euskarazko predikurik egon zela, halabeharrez segurutzat eman dezakegu, baina horren lekukorik ere ez dugu. Beren tradizio kultural (jatorri beneditarreko Monasterioak) eta pastoralarengatik (Eskeko Ordenak) ga-

rrantzizko ekarpen idatziak egin zitzaketen Ordena Erlijiosoek, dakigunez, ez zioten aurkeztu halakorik euskaldungo kristautuari.

3. Aro Modernoan, Hegoaldean bezala Iparraldean, Elizak ofizialki gogoan hartzen du euskara, ofizialtasun mugatu batekin, Katekesi eta Predikura begira batez ere, eta praktika hori eliz gobernu baterako premiazkotzat ikusten den neurri edo unean (Trento ondoko arau eta sinesgaiak zabaldu eta berritzeko, adibidez). Hortik aurrerako hizkuntz erabilpen eta garapenak (Biblian, teologian, izpiritualitatean, administrazio idatzian eta abarretan) ez ziren eraman modu egitarautu batean, ez eremuz eremu, ezta denbora-segidatasun batekin ere. Bestalde, egindako lanean ere desoreka eta desberditasun nabarmenak daude Euskal Herriko Lurralde, Diozesi eta klero ezberdinen artean. Badirudi, gainera, Diozesien eraketak eta ezaguna den Hierarkiaren erdalduntasun jarraikorrak (batez ere erbesteetako politikek ezarriak) zerikusi handia izan dutela Elizaren hizkuntz normalkuntza hain mugatu horretan.

4. Euskararen historia sozial orokorrean lekutu behar da elizako hau ere: botere politikoak, interes sozial orokorrak eta aipatu ditugun beste arrazoi zehatzek zama handia izan dira Elizarentzat Euskal Herriko bere hizkuntz inkulturazioan, oro har Mendebaldeko Europa honetako herri minorizatu guztietan bezala eta Estaturik izan ez duten edo galdu dutenetan bezala.

5. Eliza Erromatar latinoak teorian (eta praktikan, hein batean) izan dituen bi hizkuntz politika orokorren artean (Misioetarakoa, Mendebaldeko Estatuetarakoa) Euskal Herriari bigarren honetan egotea egokitu zaio, baina, latinaren ondoan, Estatuetako hizkuntzak ere Elizan lehiakide eta nagusi dituela. Kasurik onenean, euskararen Elizako presentzia oso ezberdina izan da hizkuntza mintzatuan eta idatzian, latina hobetsi izan zen eremuetan eta hizkuntz hautapen libreagoak izan dituztenetan.

6. Eliza Erromatarrak berez izan dituen muga guztiekin ere, hainbat Gotzainek eta elizgizon saiatuek ekoizpen idatzi estimagarria burutu zuten XVII. mendetik aurrera Iparraldean eta XVIII.etik hona Hegoaldean. Gure liburugintzako katalogoek ongi erakusten dute hori, eta are nabarmenago egindakoa Herri-Erakundeek egin ez zutenarekin alderatzen bada.

7. Euskararen eliz normalkuntza historikoak eskatuko zukeena aditzera emanda dago Elizako hizkuntz eremuak jasotzen dituen laukian: ez dirudi, adibidez, ez Iparraldeko goraldiak, ez hemen ia begiratu gabe gelditu den Eusko Pizkundeak normalkuntza teoriko hartako eremu guztiak bete dituztenik.

8. Esandakoak osatuz, eta bukatzeko, nabarmen dezagun hogeigarren mendearen aparteko interesa: beste herrialdeetako Eliza Katolikoan bezala, Euskal Herrikoaren hizkuntz politikak normalkuntza-abagune paregabea ezagutu du, mendetako tradizioa irauliz (Vatikano II.a), horrek erakutsi dituen aurrerapauso nabariekin, eta geldirik geratu diren hainbat eremurekin. Badirudi, belaunaldi baten epe motzean, lanari ekitean historia osoko funtsezko arazoak batera azaleratu zaizkigula.

Orrialde hauek azterlan berrietarako gonbita izan nahi dute, gure iragana begira-puntu zabaletatik so egin eta euskaldungoaren hizkuntz bizitza bere garapen eta bilakaera sozialean gero eta hobeki ezagutzeko.

Bibliografia

Bibliografia honetan ez da jasotzen euskal idazlan zaharren aipurik («klasikoenik», esan dezagun), aipatu behar zirenak laneko oharretan jasorik baitaude. Aitzitik, orokorrean eta bereziki gure literaturaz edo historiaz diharduten azterlanak, eta lanerako erabilitakoak, ekarri nahi izan ditugu hona.

AGIRRE, P. (1998): «Belaiperez», in: *ASJU*. XXXII-2, 340-351.

AGIRREBALTZATEGI, P. (1996): «Euskal Herria eta euskara: Kantabriako Frantziskotar Probintziaren erantzuna eta erantzukizuna», in: *Cantabria Franciscana*. 1996, L, 25-56.

ALONSO MONTERO, X. (1973): *Informe –dramático– sobre la lengua gallega*. Madrid: Akal.

ARANA MARTIJA, J. A. (2004): «Erlijiosoak Euskaltzaindiko jarduera eta bizitzan», in: Intxausti 2004a: I, 317-320.

ARAUXO, M. A. (1975): *A fe cristiá ante a cuestión da lingua galega*. Santiago: SEPT.

AUDISIO, G. (19982): *Les Vaudois. Histoire d'une dissidance (XIIe-XVIe siècle)*. Paris: Fayard.

AZURMENDI, J. (1980): «Bertsolaritzaren estudiorako», in: *Jakin*. 1980, 14/15. zenb., 139-164.

AZURMENDI, J. (1985): «Irakaskuntza eta pentsamendua Euskal Herrian», in: Intxausti 1985: I, 357-386.

BERCEO, G. DE (1992): *Obras completas*. Madrid: Espasa-Calpe. (Isabel Uria eta beste hainbatek paratutako edizioa).

BLAU, J. (1969): «L'apparition du type linguistique néo-arabe», in: *Revue des Études Islamiques*. 1969/2 (Aparteko inprimaldia: Paris: Libr. Orientaliste Paul Geuthner).

BRENON, A. (1996): *Les cathares. Vie et mort d'une Église chrétienne.* Paris. Jacques Grancher.

CHIZHEVSKI, D. (1983): *Historia comparada de las literaturas eslavas*. Madrid: Gredos. 106.

COMERMA VILANOVA, J. (1923): *Història de la literatura catalana*. Barcelona: Editorial Políglota.

DEDIEU, h. (1977): «Etienne Materre, franciscain français écrivain d'expression basque», in: *Bulletin du Musée Basque*. 1977, 97-100.

DELUMEAU, J.; WANEGFFELEN, Th. (19989): *Naissance et affirmation de la Réforme*. Paris: PUF.

DIOCÈSE DE BAYONNE (2002): *Annuaire*. Bayonne.

ECHEGARAY, B. (1945): «¿Se establecieron los moriscos en el País Vasco de Francia?», in: *Bulletin Hispanique*. XLVII, 92-102.

FELIU, F.; IGLÉSIAS, N. (ed.) (1997): *Llengua i religió a l'Europa moderna*. Barcelona: Quaderns Crema.

FERNANDEZ-GALLARDO, G. (2004): «La supresión de los franciscanos conventuales en Navarra (1566-1567)», in: Intxausti 2004a: 598-808.

GARCIA FERNANDEZ, E. (1994): *Religiosidad y sociedad en el País Vasco (s. XIV-XVI)*. Bilbao: UPV/EHU.

GARCIA ORO, J. (2004): «Conventualismo y Observancia. El proceso de las Reformas religiosas en el País Vasco y en Navarra, durante el Renacimiento», in: Intxausti 2004a: 555-567.

GARCIA VILLOSLADA, R. (ed.) (1979): *Historia de la Iglesia en España* Madrid: BAC.

GARCÍA, F. (ed.) (1944): *Obras completas castellanas de Fray Luis de León*. Madrid: BAC.

GARDÈRE, M. (1996): *Rituels cathares*. Paris: La Table Ronde.

GLASSÉ, C. (1991): *Dictionnaire encyclopedique de l'Islam*. Paris: Bordas.

GOÑI GALARRAGA, J. (2004): «Panorama histórico-geográfico de las Diócesis de Euskal Herria», in: Intxausti 2004a: I, 45-128.

GOÑI GAZTAMBIDE, J. (1979a): *Historia de los obispos de Pamplona. I. Siglos IV-XIII*. Pamplona: Gobierno de Navarra.

GOÑI GAZTAMBIDE, J. (1979b): *Historia de los obispos de Pamplona. II. Siglos XIV-XV*. Pamplona: Gobierno de Navarra.

GONZALEZ DE CASTILLO, P. (1621): *Constituciones Synodales del Obispado de Calahorra y La Calzada*. Madrid: Viuda de Alonso Martín.

GONZALO MAESO, D. (1960): *Historia de la literatura hebrea*, Madrid: Gredos.

GOYHENETCHE, M. (2001): *Histoire Générale du Pays Basque*. III. *Évolution économique et sociale du XVIe au XVIIIe siècle*. Donostia: Elkarlanean.

GRANDGUILLAUME, G. (1983): *Arabisation et politique linguistique au Mahghreb*. Paris: Maisonneuve & Larose.

HALAOUI, N. (1997): «Langue dominante, langue rejetée: le Hassaniya en Mauritanie», in: *DiversCité Langues*. I, 1997.

HINOJO, G. (1997): «Llatí *versus* vulgar: antecedents i conseqüències d'una polèmica», in: Feliu/Iglesias 1997: 59-86.

HOLMES, G. (1984): *Europa: Jerarquía y revuelta, 1320-1450*. Madrid: Siglo XXI.

INTXAUSTI, J. (ed.) (1985): *Euskal Herria*. Donostia: Jakin-Caja Laboral.

INTXAUSTI, J. (1995): «Leizarraga eta leizarragatarrak (1563-1571), Erreforma-Kontrarreformaren ilun-argitan», in: *RIEV*. XL, 1995, 119-160.

INTXAUSTI, J. (1997): «Euskararen Eliz erabilpena eta Luku Gotzaina (1545--1556)», in: *Sancho el Sabio*. VII. 1997, 243-274.

INTXAUSTI, J. (ed.) (1998a): *Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak. Donostiako Udako XII. Ikastaroak.* 1993ko Uztaila. Bilbo: EHU.

INTXAUSTI, J. (1998b): «Talde euskaltzaleen garapen historikoaz (XVI-XX. mendeak)», in: Intxausti 1998a: 17-56.

INTXAUSTI, J. (2000): «Euskararen erabilpen-debeku eta arauak lehen Gobernu frankisten eliz politikan (1937-1940)», in: Ormaetxea et al. 2000: 193-230.

INTXAUSTI, J. (ed.) (2004a): *Euskal Herriko erlijiosoen historia. Familia eta Institutu Erlijiosoen Euskal Herriko Historiaren I. Kongresuko Aktak*. Arantzazu: EFA.

INTXAUSTI, J. (2004b): «Frantziskotarren Euskal Herriko historia», in: Intxausti (ed.) 2004a: 347-373.

INTXAUSTI, J. (2004c): «Elizak egin (ez) duen euskarazko kultura idatziaz», in: *Hemen*, zenb., 2004, 63-80.

ISERLOH, E.(1973): «La vida interna de la Iglesia [en la Baja Edad Media]», in: Jedin 1966…: IV, 857-883.

JEDIN, H. (1966…): *Historia de la Iglesia*. Barcelana: Herder.

JIMENO JURIO, J. M. (1998): *Navarra, Gipuzkoa y el Euskera. Siglo XVIII*. Pamplona: Pamiela.

JIMENO JURIO, J. M. (2004): *Retroceso Histórico del euskera en Navarra*. Pamplona: Pamiela.

KÖNIG, F. (1964): *Diccionario de las religiones*. Barcelona: Herder.

LABAYRU IKASTEGIA (2001): *Iglesia y euskera / Eleiza eta euskera*. Bilbao: Inst. Labayru Ikastegia.

LAMBERT, M. (2003): *La otra historia de los cátaros*. Madrid: Ediciones Martínez Roca.

LATREILLE, A. et al. (1963): *Histoire du catholicisme en France*. Paris: Spes.

LECLERC, J. (2004): «L'aménagement linguistique dans le Monde». Laval Unibertsitatea: http://www.tlfq.ulaval.ca.

LÉONARD, E. G. (1967): *Historia general del Protestantismo*. Barcelona: Edicions 62 (4 libk.).

LEPE, P. (1700): *Constituciones Synodales antiguas, y modernas del Obispado de Calahorra y La Calzada*. Madrid: Antonio González de Reyes.

MACEK, J.; MANDROU, R. (1984): *Histoire de la Bohème. Des origines à 1918*. Paris: Fayard.

MALAXECHEVARRIA, J. (1926): *La Compañía de Jesús por la instrucción del País Vasco en los siglos XVII y XVIII*. San Sebastián: Libr. e Impr. San Ignacio de Loyola.

MALLEA-OLAETXEA, J. (1988): *Juan Zumarraga. Bishop of México and the Basques: The Ethnic Connection*. Reno: Basques Studies Program. (Argitaragabea).

MALLEA-OLAETXEA, J. (1992): «The private Basque World of Juan Zumarraga, firts Bishop of Mexico» in: *Revista de Historia de América*. (IPGH, México). 1992, n. 114, 41-60.

MANSION, J. (1931): *Esquisse d'une histoire de la langue sanscrite*. Paris: Librairie Orientaliste Paul Geuthner.

MARIN, T. (1952): «La Biblioteca del obispo Juan Bernal Díaz de Luco (1495-1556)», in: *Hispania Sacra*. V, 1952, 263-312.

MASSOT I MUNTANER, J. (1979): «Literatura religiosa» (s. v.), in: Molas/Muntaner 1979: 381-383.

MENENDEZ PIDAL, R. (1926): *Orígenes del español*. Madrid.

MERINO URRUTIA, J. B. (19783): *La lengua vasca en la Rioja y Burgos*. Logroño: Diputación Provincial.

MICHELENA, L. (1964): *Textos arcaicos vascos*. Madrid: Minotauro.

MOLAS, J.; MUNTANER, J. (1979): *Diccionari de la literatura catalana*. Barcelona: Edicions 62.

Monumenta historica Societatis Iesu. Roma.

MORAL, R. del (2002): *Lenguas del mundo*. Madrid: Espasa-Calpe.

MOREAU, R. (1970): *Histoire de l'âme basque*. Bordeaux: Imprimerie Taffard.

MURO ABAD, J. R. (1994): «El clero diocesano vasco en los siglos XV y XVI: una imagen», in: García Fernández 1994: 53-82.

ORMAETXEA et al. (2000): *Txillardegi lagun-giroan*. Bilbo: UEU.

ORPUSTAN, J.-B. (1999): «L'espace bascophone ancien», in: ID. (1999): *La langue basque au Moyen ge (IXe-XVe siècles)*. Baigorri: Éditions Izpegi. 17-39.

OTTE, E. (1979): «Juan de Zumarraga vasco», in: *Les cultures ibériques en devenir: essais publiés en Hommage à la mémoire de Marcel Bataillon (1895-1977)*. Paris: Fondation Singer-Polignac. 489-496.. Ik. *Euskera*. XXVI, 1980, 4-14.

PINEDO, I. (2004): «Jesuitas en el País Vasco / Navarra», in: Intxausti (ed.) 2004: 574-577.

PORTILLA, M. (1979): «Datos y noticias sobre el vascuence en Alava (siglos XVI y XVII», in: *Norte Express. Extra. Fiestas de la Virgen Blanca*. 1979: 56/50 [sic].

PRATS, M. (ed.) (1995): *Política lingüística de l'Esglesia catalana. Segles XVI-XVII*. Girona: Eumo (Univ. de Girona).

REDJALA, Mbarek (1970): *Remarques sur les problèmes linguistiques en Algérie*. Paris: Paul Geurthner (aparteko inprimaldia).

REMENTERIA, J. M. (19 75): «Euskal *Kristau Ikasbideen* historia laburra», in: NIMEGAKO KATEKESI INSTITUTUA (1975): *Kristau Bidea*. Arantzazu: EFA. XVII-XXV.

RIQUER, M. DE; COMAS, A. (1964): *Història de la literatura catalana*. Barcelona: Edicions Ariel.

RODRÍGUEZ PUERTOLAS, J.. (coord.) (19812): *Historia social de la literatura española*. Madrid: Editorial Castalia.

SAENZ-BADILLOS, A. (1988): *Historia de la lengua hebrea*. Sabadell: Editorial Ausa.

SAINZ RIPA, E. (1994-1997): *Sedes episcopales de la Rioja*. Logroño: Diócesis de Calahorra y La Calzada-Logroño.

SARAIVA, A. J.; LOPES, O. (198513): *História da literatura portuguesa*. Porto: Porto Editora.

SAWYER, J. F. A.; SIMPSON, J. M. Y. (ed.) (2001): *Concise Encyclopedia of Language and Religion*. Amsterdam: Elsevier.

STEINER, G. (2001): *Préfrace à la Bible hébraïque*. Paris: Albin Michel.

TOURN, G. (19912): *Les Vaudois. L'étonante aventure d'un peuple-église*. Torino: Claudiana.

TREBOLLE BARRERA, J. (1993): «Colecciones de libros bíblicos. Libros canónicos y no canónicos», eta «Historia del texto y de las versiones del Antiguo y del Nuevo Testamento», in: Trebolle 1993: 157-270, 271-385.

TREBOLLE BARRETA, J. (1993): *La Biblia judía y la Biblia cristiana*. Madrid: Editorial Trotta.

URIBE, A. (1996): *Provincia franciscana de Cantabria*. II. *Su constitución y desarrollo*. Arantzazu: EFA.

URQUIZU, P. et al. (2000): *Historia de la literatura vasca*. Madrid. UNED.

VARII (1994): *Oihenarten laugarren mendeurrena*. Bilbo: Euskaltzaindia.

VEILLET, R. (1910): *Recherches sur la Ville et sur l'Église de Bayonne*. Bayonne/Pau.

VILLASANTE, L. (1961): *Historia de la literatura vasca*. Bilbao: Sendoa.

VINSON, J. (1891): *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*. Orain: Bilbao: Caja de Ahorros Vizcaína, 1983.

WIDENGREN, G. (1976): *Fenomenología de la religión*. Madrid: Cristiandad.

GASTEIZKO APAIZTEGIA ETA EUSKARA GERRA AURRETIK / EL SEMINARIO DE VITORIA Y EL EUSKERA ANTES DE LA GUERRA CIVIL

Vitoria /Gasteiz, 26-XI-04

Andrés Ibañez,
Gasteizko Teologia Fakultateko
irakasle emeritua

1. Mateo Múgica Urrestarazu (1870-1968)

Es posible que en la historia de la diócesis de Vitoria no haya existido un obispo con una vida tan dramática como la del Mons. Mateo Múgica, nacido el 21 de septiembre de 1870 en Idiazabal (Guipúzcoa) y fallecido a los 98 años en Zarauz. Nos referimos a un personaje cuya centenaria existencia se vio ensombrecida no sólo por la ceguera provocada por el glaucoma en los últimos años sino por las cuatro guerras y dos destierros de signo diferente que tuvo que soportar. La vida deparó un cruel destino a este eclesiástico íntegro e integrista, amante del País Vasco y de su lengua, pero también de España y de la monarquía alfonsina. Dotado de una recia personalidad, sus actitudes fueron muy controvertidas en el campo humano, religioso y político. Mientras unos diocesanos alababan su talla intelectual, la firmeza y la reciedumbre moral, la fidelidad a la Iglesia y su dignidad mostrada en los dos exilios, otros, en cambio, criticaban su integrismo eclesial, el sentido excesivamente estricto de la obediencia eclesiástica, su adhesión a la monarquía y, a menudo, a la cruzada de Franco. En cualquier caso, nadie podrá negar la labor pastoral desarrollada en sus tres diócesis: Burgo de Osma (1918-1924), Pamplona (1924-1928) y Vitoria (1928-1937). Durante estos años veló por el cumplimiento de las leyes eclesiásticas *(Observantia legum eclesiasticarum)* procurando conservar la pureza del vestido femenino y el desfile de modas.

* * *

M. Múgica hizo sus estudios primarios en Beasain, pasando más tarde a la Universidad de Oñate donde estudió latín, retórica y filosofía; finalmente, se doctoró en teología en la Universidad de Salamanca. Tras ser ordenado sacerdote por el Obispo de Vitoria, Mons. Fernández Piérola, se estrenó como

coadjutor en la parroquia de Usurbil (Guipúzcoa). Pero pronto volvió al Seminario Conciliar de Vitoria donde enseñó latín, retórica y filosofía y, más tarde, Sagrada Escritura. En octubre de 1903 obtuvo el cargo de canónigo lectoral del Cabildo Catedralicio de la capital alavesa y el 19 de mayo de 1918 fue consagrado obispo en la Catedral de Sta. María. Durante estos años destacó en la enseñanza, y por su afición al euskera, a la oratoria y a la música. En 1906 dirigió la *Schola Cantorum* del Seminario, compuesta de unas 100 voces, en la Basílica de San Pedro en Roma con ocasión de la beatificación de Valentín de Berrio-Ochoa. Es justo también tener en cuenta sus pastorales y sermones en euskera y la traducción vasca del cap. XVII de *El Quijote de la Mancha*.

Tras una década de ausencia como obispo por tierras castellanas y navarras, vuelve a su diócesis vitoriana haciendo la entrada solemne el 24 de junio de 1928. Fue recibido con claras muestras de afecto y alegría en las tres capitales vascas donde los diocesanos veían finalmente a un obispo nacido en Euskal Herria y, además, vascohablante. En su primera Carta Pastoral, Mons. Múgica muestra su gratitud por «los triunfales y cariñosísimos recibimientos» (BOOV, 15-IX-1928:428). Se entrega a una intensa actividad pastoral: visitas a las parroquias; Acción Católica; peregrinaciones (Roma, Lourdes y Tierra Santa en cinco ocasiones); el cargo de presidente de la Unión Misional del Clero; el cuarto Congreso de Música Sacra; congresos marianos y eucarísticos (Colonia, Malta, Madrid), mostrando su acendrado nacionalismo español.

Pero su obra cumbre, el hito histórico más importante de su paso por Vitoria fue, sin duda alguna, la construcción (llevada a cabo por el arquitecto y sacerdote vizcaino D. Pedro de Asua (1890-1936) e inaguración del Seminario Mayor (1930) iniciado por su predecesor Fray Zacarías Martínez en 1926. El día 28 de septiembre de 1930 fue inaugurado solemnemente con la asistencia del Rey Alfonso XIII; el Delegado del Papa Pío XI, Cardenal Ruffini; el Nuncio Apostólico de su Santidad, Mons. Tedeschini; numerosos arzobispos y obispos. Mons. Múgica bendice el gran órgano de la iglesia pública arrancando a sus teclados las primeras notas «sentado delante del órgano, con todo el religioso boato de su mitra y capa pluvial, interpreta la Marcha Real Española –como homenaje a Cristo Rey– y la Marcha de San Ignacio –como himno secular de nuestro pueblo» (BOOV, 6-X-1930:728). A pesar de ello, D. José Calvo Sotelo (1893-1936), en nombre de la derecha española, tildará al Seminario de Vitoria de *batzoki y nido de separatistas*. Por ello, en una ocasión, Mons. Múgica se verá obligado a interrogar bajo juramente solemne al Rector D. Eduardo Eskarzaga si en el Seminario se hacía «política nacionalista o cualquiera otra política de partido».

* * *

En medio de un ambiente polémico muy tenso, el 14 de abril de 1931 se proclama la II República en España. Mons. Múgica había pensado siempre

que «la República había sido y sería manantial inagotable de toda clase de maldades». Por ello, por su acendrado monarquismo y por los ataques a la República fue desterrado por orden del Ministerio de Gobernación. El 17 de mayo sale de Irún y se establece en La Puye (cerca de Poitier) en un monasterio de las Hijas de la Cruz (31-VIII-1931) hasta que regresa a España el 13 de mayo de 1932, pero no a Vitoria sino a Bujedo (Burgos) de donde pasa definitivamente a su diócesis vasca el 11 de abril de 1933 (BOOV, 1-V-1933:252).

El 18 de julio de 1936 estalla la guerra civil y el Cardenal I. Goma prepara un documento en el que se formula a los católicos de forma categórica la prohibición *Non licet* de adherirse a la República, fraccionando así las fuerzas ante «la hidra marxista de siete cabezas». El Cardenal de Toledo presiona a los dos obispos vascos, Mons. M. Múgica y al vizcaíno Mons. Olaechea (Pamplona) y éstos suscriben y publican la «instrucción pastoral» ante el estupor de los republicanos y el rechazo total de los nacionalistas vascos. Sin embargo, más tarde ante las elecciones que se anuncian, el Vicario General de Vitoria, D. Jaime Verástegui, publica una nota (con la aprobación de su obispo) en la que se afirma que «es indiferente desde el punto de vista católico votar a cualquiera de las candidaturas católicas que luchan en la diócesis». Esto desagrada sobremanera a los militares (Franco, Mola, Cabanellas, Millán Astray, Beorlegui, Camilo Alonso Vega, etc.), eclesiásticos (Cardenal I. Goma) y civiles (José Luis Oriol). Era obvio que Mons. Múgica estorbaba en sus planes de reforma en el clero por lo que se especuló incluso con la posibilidad de asesinarlo. Rechazada tal hipótesis por la posible resonancia internacional negativa para la cruzada, se optó por la solución del destierro.

* * *

A Mons. Múgica no le garantizaron su permanencia como Obispo de Vitoria ni sus explícitas muestras de apoyo a la cruzada durante los primeros meses del alzamiento, ni la pastoral conjunta *Non licet*, ni las bendiciones impartidas a los requetés que iban al frente de batalla, ni la entronización de la imagen del Sagrado Corazón de Jesús en la sede de la Falange, ni la cesión del Seminario como hospital de guerra, ni las sumas de dinero recogidas en las colectas de las parroquias en favor del «triunfo del ejército salvador». El plan urdido entre la diplomacia vaticana (Cardenal Secretario de Estado, Eugenio Pacelli), con la connivencia del Cardenal I. Goma, y la Junta Militar de Burgos convenció finalmente a Mons. Múgica a pesar de su rechazo inicial. El 14 de octubre de 1936, después de aceptar la destitución impuesta de su vicario general y tras nombrar como sustituto suyo al canónigo donostiarra D. Antonio Pérez Ormazabal, Mons. Múgica emprendió una salida que no encontraría el camino de regreso hasta once años más tarde, en 1947, pero ni aún entonces, como obispo residencial. Se habló oficialmente de una renuncia «voluntaria» pero en realidad fue un arreglo amañado mediante su viaje

pastoral a Roma para asistir al II Congreso Internacional de la Unión Misional del Clero (11, 12 y 13 de noviembre de 1936) de la que era presidente en España. Los aplausos que resonaron el día 13 al presentarse D. Mateo ante el público contrastan con las humillaciones que tuvo que sufrir durante su estancia de ocho meses en Roma. El 14 de febrero D. Antonio Pildain, canónigo magistral y profesor del Seminario de Vitoria, además de diputado en las Cortes en Madrid, era consagrado Obispo de Canarias en Roma. La Junta Militar de Burgos contando con la diplomacia vaticana vetó la presencia de D. Mateo en esta ceremonia religiosa, a pesar de la disconformidad del nuevo obispo y de la tristeza de Mons. Múgica.

* * *

Los acontecimientos históricos se suceden de forma cruel para el Obispo de Vitoria. En junio de 1937 recibe una carta del Cardenal I. Goma en la que le anuncia la redacción de una «Carta del Episcopado Español» a petición del Jefe del Estado. El 28 de junio de 1937, como respuesta escrita en Frascati (Italia), D. Mateo muestra al Cardenal el estado anímico en que vive:

> «llevo más de ocho meses alejado de mi diócesis! [...] podría suscribir el documento cuando yo estuviese en mi puesto física y personalmente [...] deseo y pido al Señor el triunfo del generalísimo Franco sobre todos los rojos».

Dos ausencias muy significativas resaltarán en la lista de prelados firmantes de este documento: la del Cardenal tarraconense Mons. Francisco Vidal i Barraquer y la del aún Obispo de Vitoria que se niegan a firmarlo. Más aún, Mons. Múgica en un escrito dirigido a la Santa Sede explica claramente las razones de su negativa. En contra de lo que afirman los obispos españoles él muestra su desacuerdo diciendo que la Iglesia en la España de Franco no es libre. Denuncia también el asesinato de

> «nutridísimas listas de cristianos fervorosos y de sacerdotes ejemplares»,

a la vez que protesta por presentar en el documento

> «a la ciudad de Bilbao como un pueblo blasfemo».

Con el ánimo de acallar definitivamente la voz del Obispo de Vitoria, la Junta Militar de Burgos, contando con la venia del Cardenal I. Goma y el consentimiento del Vaticano, nombra Administrador Apostólico de Vitoria al vizcaíno Mons. F. Javier Laucirica que el 4 de septiembre de 1937 toma posesión de la diócesis vasca, sin mencionar siquiera el nombre de su predecesor en la homilía de su presentación en la Catedral (BOOV, 1-X-1937:353-356). Durante casi un año (octubre 1936 - septiembre 1937) D. Mateo conservó siempre la esperanza de volver a su amada diócesis. Pero esta ilusión se desvaneció con el nombramiento de su sucesor de quien Franco comentaba que

> «es un hombre que hablará de Dios hablando de España».

En vista de que su presencia en Roma no tenía ya ningún sentido, se marchó

> «haciendo el mayor sacrificio de mi vida»,

y buscó acomodo en Bélgica durante varios años. En una carta escrita al Cardenal I. Goma el 22 de febrero de 1939 en Gooveind se defiende

> «con la libertad de quien nada tiene que perder»,

y defiende también

> «a los nacionalistas vascos por tratar de conservar su lengua, tradiciones [...]»,

en contra de las falsas acusaciones del Primado de Toledo.

* * *

En 1940 las tropas nazis invaden Holanda, Bélgica y Francia y D. Mateo pasa a Pays Basque Nord/Iparralde residiendo en Ustaritz y Cambó. En una ocasión es detenido y conducido a la Citadelle de Donibane Garazi donde fue humillado y vejado por las fuerzas alemanas durante varios días. En el mes de abril de 1945,

> «restablecido del glaucoma que me amenazó dejarme totalmente ciego»

escribe una dolorosa, sincera y profunda reflexión, a petición de D. José Miguel Barandiarán en la casa *Bidartea* (Sara) de éste. Es, sin duda alguna, uno de sus escritos más valientes y claros, una noble confesión hecha a

> «su compañero de tribulaciones» a la vez que «dignísimo e inteligentísimo profesor».

El documento se titula «Imperativos de mi conciencia» (1945) y está escrito, una vez liberado de las trabas que le

> «obligaron a guardar silencio desde fines de 1936 [...]; un ruego, que yo no podía desatender, me fue transmitido para que callara 'por el momento'».

Pero ocho años más tarde puede decir en público lo que confesó antes al gran Papa (Achiles Ratti) Pío XI (1857-1939).

Ya en octubre de 1936 Mons. Múgica elevó a la Santa Sede la primera protesta contra los abusos del bando insurgente. En ella defendía a sus diocesanos

> «injustamente perseguidos, vejados, castigados, espoliados por los representantes y propagandistas del 'Movimiento Nacional'».

Finalmente, en 1947 puede regresar a Euskal Herria y residir en la Villa *Montemar* de Zarauz hasta el 27 de octubre de 1968, prácticamente ciego durante los últimos años. Murió rodeado del cariño de sus familiares, amigos, y

también del respeto y comprensión de muchos de sus antiguos diocesanos. Sus restos descansan en el altar mayor de la Catedral de Santa María de Vitoria, cuyo obispo Mons. Peralta, con ocasión del sermón de la misa funeral de D. Mateo Múgica y Urrestarazu, resumió la dramática vida de éste con las siguientes palabras:

> «Contradicciones, abandonos, desprecios, calumnias, ingratitudes, enfermedades, la prolongada ceguera [...]» (BOOV, 31-X-1968:311).

Goian bego!

* * *

2. José Miguel Barandiaran (1889-1991)

José Miguel Barandiaran Ayerbe nació a las 6 horas de la mañana del 31 de diciembre de 1889 en el caserío *Perune-zarra*, en el barrio *Murkondo* de San Gregorio de Ataun (Guipúzcoa). Fue el benjamín de una familia numerosa de nueve hijos (cinco chicos y cuatro chicas, de las que tres fueron monjas) del matrimonio formado por Francisco Antonio Barandiaran y María Antonia Ayerbe. Cursó la primera enseñanza en Ataun, siendo un estudiante mediocre debido al inhumano sistema pedagógico empleado por el maestro que usaba todos los textos en castellano para niños que lo desconocían completamente. Si la escuela era detestada por el niño Joxemiel, el hogar familiar, en cambio, se convirtió en el mejor centro de aprendizaje en el que el futuro patriarca de la cultura vasca iba almacenando en su interior leyendas, dichos, mitos, creencias, vidas de santos como la de *Sta. Genoveva de Bravante*, contados por su madre junto al fogón de la cocina.

Con 14 años ingresa (con Manuel Lekuona) en noviembre de 1904 en la Preceptoría de Baliarrain (Guipúzcoa) donde cursa los estudios de latín y humanidades, aprobando los dos primeros años de latín en un solo examen. Al año siguiente fallece su madre a la edad de 56 años, quedando marcado de por vida el corazón de aquel niño. En 1906 pasa al Seminario Conciliar de Vitoria donde supera con brillantes calificaciones los tres cursos de Filosofía y cinco de Teología. Joxemiel destaca por su afición a las ciencias y, en especial, a la física, sin descartar el terreno de las lenguas (francés, inglés y alemán). Es nombrado profesor de Física antes de finalizar la carrera sacerdotal. Al acabar los cursos de Filosofía obtiene, además, el título de Maestro en la Escuela Normal de Vitoria.

Durante los años de teologado no se conforma con lo que dicen los textos de clase y cuestiona algunas verdades defendidas hasta entonces como axiomas, formulándose preguntas sobre el origen del mundo y el sentido de la vida humana. Intenta asociar la ciencia con su fe religiosa, mientras apare-

cen las primeras sombras en el firmamento de su fe. En una época en la que la enseñanza oficial sobre el origen del mundo discurría por los senderos del creacionismo antievolucionista, el joven seminarista opta por las cronologías científicas, más cercanas a las teorías de C. Darwin (1809-1882) en su libro *El Origen de las Especies* (1859). Acuciado por esos interrogantes, comienza a hurgar en el pasado remoto del pueblo vasco como campo de sus investigaciones científicas. El interés por los estudios etnográficos, prehistóricos, arqueológicos y por la Historia de las Religiones marcará en adelante su larga vida de intensa actividad (1916-1990). Tras acabar el cuarto de teología (1913), emprende un viaje a Leipzig en cuya universidad se matricula en un curso de Sociología de los Pueblos, impartido por el profesor de filosofía Wilhem Wundt (1832-1920). Este encuentro marcará en adelante su quehacer científico, que se basará en datos, en la constatación y en el esmero por la exactitud, convirtiéndose en fotógrafo de la realidad y no en teorizador de ella.

El 19 de diciembre de 1914 recibe la ordenación sacerdotal en Vitoria de manos de su obispo, Mons. Melo y Alcalde, y celebra su primera Misa en Ataun. Poco después es enviado a ampliar los estudios de Teología a la Universidad Eclesiástica de Burgos donde obtiene la licenciatura. En 1916 es nombrado profesor de Matemáticas del Seminario Conciliar de Vitoria. Comienza entonces a publicar los resultados de sus primeras investigaciones en la revista *Euskalerriaren Alde* (1916), escribiendo su primer artículo «Ataun en la Edad Media. El antiguo Castillo». El 15 de agosto de 1917 es importante porque conoce en Ataun al vergarés Telesforo Aranzadi Unamuno (1860-1945), catedrático de la Universidad de Barcelona, y al vitoriano Enrique Eguren (1888-1944), catedrático y Rector de la Universidad de Oviedo, formando así el grupo conocido como «los tres tristes trogloditas». Comenzarán las primeras excavaciones conjuntas en Aralar, prologando sus tareas durante veinte años (1917-1936), hasta la última campaña en la cueva *Urtiaga* de Itziar (Deva). En 1918 inician la exploración de las cuevas de Satimamiñe (Kortezubi, Bizkaia), y J. M. Barandiaran participa además en el Congreso de Estudios Vascos de Oñate, en el que se funda *Eusko Ikaskuntza* (Sociedad de Estudios Vascos), del que será nombrado socio-fundador en 1919.

En 1920 es designado Vicerrector del Seminario Conciliar de Vitoria, y al año siguiente funda la «Sociedad de Eusko Folklore» y la revista *Anuario de la Sociedad de Eusko Folklore*, que, con algunas interrupciones, perdurará hasta 1975. En 1925 esta sociedad cae en desgracia porque el Rector del Seminario le retira su confianza al tildar de 'mamarrachadas' sus «Anuarios». Aun así, J. M. Barandiaran es nombrado Rector del Seminario Menor de «Aguirre», simultaneando este cargo con las ocupaciones de Vicerrector del Seminario Conciliar. El joven Rector promueve cambios profundos en el sistema educativo, especialmente en el campo científico. Al año siguiente publica la revista *Gymnasium* buscando la iniciación científico-literaria de los seminaristas de la diócesis. En 1927 y 1929 ingresa como miembro corres-

pondiente en la Real Academia Española y en Euskaltzaindia, respectivamente.

La década siguiente será muy importante, y a la vez dramática, en la vida de J. M. Barandiaran. El 28 de septiembre de 1930, con asistencia del Obispo Mateo Múgica y del rey Alfonso XIII, se inaugura el nuevo Seminario Conciliar de Vitoria, y el 14 de abril de 1931 se proclama la II República, que terminará con el inicio de la Guerra Civil el 18 de julio de 1936. El estallido bélico sorprende a J. M. Barandiaran —en compañía de T. Aranzadi— en plena dedicación arqueológica en la cueva de *Urtiaga* (Itziar); por ello, el 20 de septiembre se ve obligado a huir por mar a San Juan de Luz, embarcando en el puerto de Motrico. Se hospeda temporalmente en Anglet, en el convento de una de sus hermanas, y en la abadía benedictina de Belloc (Urt, Laburdi). Durante un año se aloja en el Seminario de Bayona y pasa tres años en Biarritz hasta 1940, año en el que se muda definitamente a Sara (1940-1953). En esta fecha las tropas de Hitler invaden Francia y llegan a Iparralde. J. M. Barandiaran es obligado a confinarse y es trasladado al norte de Francia a un lugar cercano a Alençon (Normandía), pero, tras una breve estancia, puede volver a Sara, donde las autoridades alemanas le permitirán proseguir investigando.

En el año 1945 Mons. Mateo Múgica, anciano y exiliado, escribe desde su residencia de Cambó (Laburdi), a petición del profesor de Ataun, el documento «Imperativos de mi conciencia. Carta abierta al presbítero D. Miguel Barandiaran». Se trata de una profunda reflexión sobre su actuación pastoral durante la Guerra Civil y es, además, la noble confesión que redime a un hombre desterrado en dos ocasiones. Al año siguiente J. M. Barandiaran crea en su domicilio «Bidartea» de Sara el «Institut Basque de Recherches» (1946-1951) y publica, como boletín, la revista *Ikuska*. En 1947 funda en Bayona la «Société Internationale des Basque» con la colaboración de P. Lafitte, M. Intxausti, T. Monzón, M. de la Sota, J. Bilbao, M. Legasse, etc., publicando la revista *Eusko-Jakintza*. Además, viaja por Europa (Bruselas, Londres y París), asistiendo a congresos internacionales y dando conferencias. Es una ocasión propicia para dar cauce a la sabiduría almacenada en tantas investigaciones y describir la larga lista de dólmenes, estelas funerarias y crónlechs hallados en *Jentilbaratza* (Ataun), *Aralar*, *Aizkorri*. *Borunda* (Ataun), *Altzania*, *Entzia*, *Elosua* (Placencia), *Urbasa*, *Belabieta* (Elduayen), *Santimamiñe*, *Lumentxa* (Lekeitio), *Bolinkoba* (Abadiano), *Silibranka* (Mañaria), *Urtiaga* (Itziar) eta (Deva), etc.

El 20 de octubre de 1953, después de 17 años en el exilio, J. M. Barandiaran regresa a su pueblo natal. Es invitado por el Rector de la Universidad de Salamanca, Antonio Tovar (a instancias del Ministro de Educación, J. Ruiz Jiménez), a impartir un ciclo de 12 conferencias en la nueva cátedra «Manuel Larramendi» de lengua vasca. En 1954 planifica la investigación en el País Vasco peninsular y reemprende sus actividades de antaño: Urtiaga (1955), *Lezetxiki* (1956-1957), *Atxea* (Forua, 1959), *Aitzbitarte* (Rentería, 1960), *Axlor* (Dima, 1960), *Altxerri* (Orio, 1962), *Marizulo* (Urnieta, 1963), etc. En 1964

la Universidad de Navarra le ofrece la cátedra de Etnología Vasca, impartiendo temas sobre cultura vasca hasta el curso 1979-1980.

Con tantos méritos adquiridos no podían faltar los homenajes, los reconocimientos oficiales ni los honores. En 1962 «La Academia Errante» (J. Oteiza, J. Caro Baroja, L. M. Santos, etc.) le dedica en Ataun un homenaje. Al año siguiente es nombrado académico de número de Euskaltzaindia, y en 1973, miembro honorario del Instituto Americano de Estudios Vascos. Las medallas de oro se multiplican también al final de su itinerario cultural: «Ayuntamiento de Gasteiz» (1979), «Gobierno de Navarra» (1989), «Bellas Artes de Madrid» (1989), «Ayuntamiento de Donostia» y «Diputación Foral de Álava». Es también investido «Doctor Honoris Causa» por la Universidad el País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (1978), la Facultad de Teología de Vitoria (1980), la Universidad de Deusto (1986) y la Universidad Complutense de Madrid (1987). Al cumplir los 100 años recibe la Medalla de Honor de Euskaltzaindia y es nombrado «Hijo Predilecto de Bizkaia» por la Diputación Foral de Bizkaia, como lo fue, asimismo, en 1982 por la Diputación Foral de Guipúzcoa. En 1990 la Fundación Sabino Arana le otorga el Premio Anual, y al siguiente es distinguido con la Gran Cruz de la Orden de Carlos III.

El 31 de julio de 1991 recibe en su hogar «Sara-Etxea» a los Reyes de España, D. Juan Carlos y Dña. Sofía, y en agosto es ingresado por primera vez en el hospital de Ntra. Sra. de Aranzazu de Donostia. El 17 de diciembre se presagia ya su inminente muerte y en la madrugada del día 21 fallece acompañado de su fiel sobrina Pilar. Al día siguiente Mons. J. M. Setién celebró la Misa funeral en la Parroquia de San Gregorio y los restos del pequeño gran cura fueron inhumados en el cementerio local.

J. M. Barandiaran fue un vasco universal y un sacerdote sencillo de vida ejemplar, que supo conversar con los sabios del mundo, pero también con los niños, los ancianos y los aldeanos. Incansable y metódico en su trabajo, frugal en la comida y abstemio en la bebida, entrañable y afable con todos. Un vasco que defendió su lengua materna porque la consideró como el único testimonio viviente de la prehistoria europea.

EUSKARAREN EGUNGO EGOERA GASTEIZKO ELIZBARRUTIKO PASTORAL JARDUERAN

Gasteiz, Euskaltzaindiaren Arabako ordezkaritza, 2004-XI-26

Emilio Perez,
Aramaioko erretorea

1. ATARIKOAK

1.1. Agurra

Euskaltzainburu, euskaltzain eta entzule guztioi, agur t´erdi.

Euskararen egungo egoera 'Gasteizko Elizbarrutiko pastoral jardueran'. Gaia ez da berria Euskaltzaindiarentzat. Dagoeneko, aztertua duzue Baiona, Iruñea eta Tuterako elizen euskararen erabilera pastorala. Nik neuk birritan azaldu dut gai hau Gasteizko Elizbarrutiko Pastoral Kontseiluan.

1.2. Txosten honen asmoa

Euskal pastoraltzan dabilen abade baten testigantza jasoko duzue. Ez dut nire burua inoiz maisutzat hartu, eta ez diot inori leziorik eman nahi, are gutxiago hizkuntzaren maisu erne zaretenoi. Arabako Elizaren ahuleziak eta indarguneak nabarmentzeko ez dugu azterketa soziologikoa egin beharrik. Urteetan euskararen alorrean eta pastoralgile euskaldunekin lanean ibiltzeak lekuko zuzena egin naute. Bildutako datuak eta esperientziak agertuko dizkizuet, antzeman ahal izan dezazuen nolako pozak eta atsekabeak bizi ditugun Arabako elizkide euskaldunok.

1.3. Txosten-egilearen ikuspuntua

Gaian murgildu aurretik, eta azalpen honen nondik norakoak ulergarriago egiteko asmoz, euskararen alorrean egin dudan ibilbidea argituko dizuet.

Gasteizko Teologia Fakultatean oinarri batzuk ikasi ondoren, oraindik apaizgai nintzela, Aramaiora bidali ninduen Bikario Nagusiak, euskara ikas nezan. Zergatia, Seminarioko azken urteetan euskarazko klaseetara joan

izana. Egia esanda, Izaskun Arruek, Olabide Ikastolaren andereño sortzaileak, euskara gogoz maitatzen erakutsi zion, Urduñako apaizgai «soriano» hari.

Aramaion bederatzi urtez ibili nintzen, abade gazte nintzela. Nirekin beste sei abade ziren. Baserritarren artean euskaldundua, Eskoriatzako Irakasle Eskolan alfabetatu nintzen. Gasteizera aldatu ninduten, Aramaion hiru abade utzita, saiatu nintzen Pilar Parrokiako euskaldunekin eta Olabide ikastolan apaiz-lana egiten, Aramaion ikasitako inkernu guztiarekin. Holako baten, Larrauri Gotzainak Euskal Pastoraltzaren Zerbitzuburu izendatu ninduen. Gotzaindegian lan garrantzitsua egin behar nuelako, bulego eta guzti jarri zidaten.

Berriro ere, Aramaiorako bidea hartu behar izan nuen. Pilar Parrokian ordekotzat, apaiz ordenatu berri bat utzi nuen. Orain abade bakarra naiz Aramaion. Zortzi parrokiak eta hamabost ermitak nire kargu. Guztira hogeitalau teilatu eta zortzi hilerri. Soinean daramatzat gotzaindegiko ardurak, itzulpenak errazten dituen posta elektronikoari esker.

2. ARABA BERE KOPURUETAN

2.1. Arabako biztanleak

Gasteizko Elizbarrutiaren mugen barruan, Urduña eta Trebiñu barne, 300.000 pertsona bizi dira. Hiriburuan 217.604. Laudion 19.070; Amurrion 8.376; Agurainen 3.946; Urduñan 3.936; Oionen 2.354; gainetiko herriak askoz txikiagoak dira. Gehienek 100 biztanle baino gutxiago dute. Horietatik zenbat elizkide? Neurriaren arabera. Gehienak bataiatuak dira. Domeketako mezetan parte hartzen dutenen kopurua oso apala da. Dena den, hori argitzea ez da gure geure gaurko kezka.

2.2. Arabako euskaldungoa

Euskararen esparruan «gutxi aurreratu dugu azken bizpahiru hamarkadetan» diote batzuk. Araban gauzak errotik aldatu dira. Azken erroldaren datuek adierazten digutenez, Arabako euskaldunak oso gutxi izatetik, gaur %13,4 izatera pasatu dira. Gasteizkoak %14,7 eta ia-euskaldunak %20.

Urte asko ez direla, zalantzan jarri zituzten Arabako euskalduntzeari buruzko datuak. Kopuruak puztuta zeudela zioten. Gogora ekarri nahi dut Madrilgo *Tabula V* enpresa kontratatu zutela Hizkuntza Politikarako Idazkaritzak plazaratutako datuak guztiz fidagarriak ez zirelakoan.

Denok dakigu euskararen bilakaera azken 40 urteotan handia izan dela Araba osoan. XX. mendean Arabako hainbat herrik euskara galdu bazuen ere.

Euskararen atzerakada etengabea gelditu egin da. Aspaldidanik familiaren barruan ez da euskararen galerarik. Salbuespenak salbu.

Euskara ez dago gaur egun Aramaio eta Legutiano inguruetan mugatuta. Arabako zazpi taldeetan eta udalerri guztietan gertatu da. Gasteizen biltzen den euskaldunen kopurua benetan adierazgarria da.

2.3. Hazkundearen eragileak

Euskararen zabalkundea handia izan da. Baina ez da izan, besterik gabe, Arabara etorritako gipuzkoar, bizkaitar eta nafar euskaldunen emaitza. Zergatiak ugariagoak dira.

Euskararen aurkako neurriak ahuldu egin ziren, euskal zaletasunak gora egiten zuen bitartean. Arabako euskaldunak protagonismoa hartzeko prestaturik zeuden eta mugitu ziren. Adibidea Olabide ikastolaren sorrera 1963an. Lehenengo ikasleak arabarrak ziren, Anituak zuzentzen zuen «Escuela de Aprendices» horretan ikasitakoen seme-alabak (1).

Guraso arabarrek euskara irakatsi nahi diete seme-alabei. Hauxe dugu funtsezko arrazoia ikastolak sortzeko eta euskal ereduen aldeko aukera egiteko.

Euskal erakundeen Hezkuntza sistemak bere fruituak ematen ditu. Elebitasuna bermatzen duten B eta D ikastereduak gora doaz. A eredua ahultzen ari da, nahiz eta Araban oraindik pisua izan, batez ere lanbide hezitan eta Elizaren ikastetxeetan.

Helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko ahaleginak aspaldikoak dira. Aipagarrienak *Umandi* eta *Apraiz* genituzke. Euskaltegietan milaka lagun dira euskara ikasi dutenak. AEK, IKA, UDABERRIA, HABE, IRALE eta abarren fruituak ikusten ditugu.

Eragile guztien bildumak eragin du Araba osoan euskaldunen ugaritzea. Honez gero, euskararen dimentsioak berriz aztertzekoak dira Araban.

2.4. Arabarren hizkuntza gaitasuna

Euskararen ezagupena azkarki zabaltzen ari da urte hauetan. Euskalduntze prozesua areagotzea normaltzat jo beharko genuke, besteak beste, ikastoletan hezitako lehen belaunaldiak oraintxe hasi direlako aita-amak / guraso izaten. Honen ondorioz gero eta ume gehiagok izango du euskara ama-hizkuntza.

---

(1) Anitua eta haren abade lagunak aipatzeko modukoak dira: Reparaz, Enekotegi, Narbaiza, Zirarda, Ros, Ibisate. Adiskidetasunak eta euskalzaletasunak lotzen zituen. Eliza mailako ekimen garrantzitsuei eman zieten hasiera. «Escuela de Aprendices» hori gero Elizbarrutiko Eskola Politeknikoa bihurtuko da, edo Arkauteko Nezakari Eskola. Narbaiza arduratu zen *Olabide* ikastolaz.

Inork ez dezala ahaztu, Arabako euskaldun gehienek euskara eskolan edota euskaltegian ikasia dutela. Familiek eta kale giroak ekarpen txikia eskaini ahal izan diote euskalduntzeari. Beraz, neurri handi batean, euskaldun berrien lurraldean bizi gara. Alor askotan ez dago zuzeneko erreferentzia euskaldunik. Askoren gaitasun komunikatiboak baditu mugak.

3. GASTEIZKO ELIZBARRUTIA BERE KOPURUETAN

3.1. Pastoralgileak

Apaizak: 275. Horietatik 110 apaizek badute 70 urte eta gehiago.

Parrokiak: 465. Hiriburuan 40. Mila biztanletik gorako herrietan, 16 parrokia, horietatik lau Laudion. 500 eta 1000 biztanlekoen artean 10 parrokia. Eta parrokia gehienak 340ren bat 50 biztanletik beherako herri txikietan daude.

Artziprestaldeak: 15, Trebiñu eta Urduña barne.

Fraide eta Moja

Klausurako mojak: 142 bizi dira, 12 komentutan. Euren adinera heltzea, opagarria.

Hezkuntza eta osasun arloko 589 erlijiosa; 55 komunitate txikiagotan banaturik.

Erlijiosoak 185 dira, 26 komunitateetan antolatuta.

Elizaren eraginpeko ikastetxeak: 26.

3.2. Elizbarrutiko helburuak eta minak

Berez, kristau guztiek, laiko, erlijioso eta apaiz, Jesu Kristoren Ebanjelioa ahalik eta leialen bizi behar dute, eliz elkartea osatuz eta herriari zerbitzurik jatorrena emanez. Baina, horrekin batera, bizitzaren legeak bete behar dituzte. Izan ere, biologiak iruzur gutxi onartzen du. Kristau fededunen urteak urte dira; eta elizkidegoa larriki zahartzen ari da.

Mendebaldeko kultur-giroa iruntzi behar du, lixeriketa oso astuna bazaio ere.

Euskal Herriko giro politiko gaiztotua jasan egiten dute eta kalterik latzenak sofritzen dituztenak errukiz ikusi eta apalki eskuzabaltasunez lagundu nahi diete.

3.3. Arabako Kristau euskaldunak

Arabako Elizak bere funtsezko ezaugarrien artean euskara kontenplatu du. Hala ere, ez dugu gaur gaurkoz Arabako kristau euskaldunen proportzioa be-

reizterik. Biztanleria orokorraren barruan kokatzen dira eliztarrak. Bide bererik doa lehenengo kristauen jokaera. Gogoan hartzeko modukoa da, Diogneto izeneko kristau bati bigarren mendean eginiko gutuna:

> Kristauak ez dira gizon-emakumeengandik bereizten, ez euren jaioterri, ez euren hizkuntza, ez euren ohiturengatik. Ez dira bizi euren bazter-auzoetan; ez dute hizkera arrotzez hitz egiten; ez dute biziera nabarmenik eramaten *(Diognetori gutuna, V)*

Gaiaren erdigunera iritsi gara. Oraintxe arte esandakoarekin garbi utzi nahi izan dut, gure Elizaren helburu, eskakizun eta ahaleginik preziatuena ez datorrela, hain zuzen, hizkuntzaren arlotik.

Elizaren seme-alabok, gainetiko euskaldun guztien antzera, soziolinguistikaren bi lege nagusiak betetzen ditugu nahitaez. Hau da, Espiritu Santuak ez digu saihesten hiztunen proportzioaren legea. Hizkuntza-gaitasunaren kontuetan ez dago esaterik *suplet ecclesia*.

Bestela, euskal gogorik eta adorerik ote dagoen, Arabako Elizan? Agian ez, batzuk nahiko luketen neurrian. Arabako Elizari geldokeria egotzi ote diezaiokegu? Ikus dezagun dena atalka, azaleko iritzi orokorretatik ihes eginik.

4. EUSKAL PASTORALTZA GASTEIZKO ELIZBARRUTIAN

4.1. Abiapuntua

Oraindik gogoratzen ditugu paper, hormirudi eta ekintza guzti-guztiak erdaraz egiten zirela. Elizbarruko erakunde batzuk errefraktarioak izan dira euskararen munduan.

Bizitzan badira une bereziak pertsonen eta taldeen bizitzan. Horrelako bat izan zen Elizbarrutiko Batzarra euskal pastoraltzako. Hiru urtez (1989-1991), 5.000 elizkide ibili ginen 500 taldetan antolaturik. Talde gutxi batzuk euskaraz aritu ziren. Baina euskarak aipamen zuzen ugari izan zuen prozesu osoan. Batzarraren Idazkaritza Nagusiak bazekien Nafarroan gertatu zena, euskararen alde egindako proposamen guztiak atzera gelditu zirela, gehiengoaren bidez. Garbi genuen Arabako Elizak ez zuela jarriko euskara bere gai kuttunen artean. Horregatik saiatu ginen euskararen aldeko proposamen guztiak jasotzen gai bakoitzeko erabakietan. Baina ez genion inori aukerarik eman botoen bidez euskararen aldeko proposamenak atzera botatzeko.

Honetan geunden, Katedralean egin behar genuen azken ospakizuna prestatzen. Euskarari zenbateraino tartea utzi behar genion aztertzen ari ginela, ohartu ginen Idazkaritza Nagusian hartan bertan 29 kideetatik, 10 baino gehiago gai ginela hartutako azken erabakiak kristau herriari ele bietan aurkezteko. Harridura eta poza, biak batera, ulertu genuenean Elizaren borrokan geunden taldekide haiek, euskararen borrokan ere murgilduta ginela. Ospakizuna oso

ondo prestatu zen, euskarari inoizko tokirik handiena emanez. Sensibilizazio berezia sortu zen.

4.2. Pastoralgile euskaldunak

Bere txikitasunean, Arabako kristau euskaldunek ez dute zarata handirik egin. Bidezkoa zaio edonori, beraz, kristau euskaldunik ba ote den galdetzea. Gehiegi ez garelako, eta asmakerietan ez gabiltzala ziurtatzeko, hemen aipatuko ditut, behintzat, kristau hauen zerbitzuan ari diren apaiz euskaldunak, hobeto esanda, kasu gehienetan euskaldunduak.

4.2.1. Parrokietako abadeak

Lehenengo apaizaren izena, gero nongoa den, eta azkenik, non dagoen apaiz:

Jesus Mari Elejalde: Aramaixoarra. Elosu-Ubidean dago abade.

Andoni Armentia: Apellaniz, Okondo.

Ciriako Molinuevo: Gasteiz, Laudio.

Juan Carlos Pinedo: Gasteiz, Laudio.

Félix Placer: Ozaeta, Zigoitia.

José María Salazar: Eskota, Legutiano.

Jabi Zubiaurre: Gasteiz, Murgia. Apaiztu berria.

Josemari Galdos: Errenteria. Frantziskotarra. Izarra.

Koldo Larrañaga: Azkoitia. Caicedo de Yuso.

Benito Martínez de Zuazo: Larrainzar. Armiñon.

Gotzon Pérez de Mendiola: Caicedo Yuso. Amurrio.

Patxi Larrauri: Rivabellosa, Urduña.

Josetxu Lag: Gasteiz, Agurain.

Txusma Atauri: Kanpetzu, Agurain.

Joseba Llamas: Alegi. Klaretarra. Gasteizko Ariznabarrako San Paulo.

Iñaki Oregi: Murgia. Gasteizko Lakua-Bizkarrako Santa Maria Josefa.

Unai Ibañez Berriozabal: Legutiano. Gasteizko Pilareko Andra Maria.

Satur Yanguas: Miranda. Gasteizko San Jose Aranakoa.

Txema Arzalluz: Errezil. Pasiotarra. Gasteizko Gure Aita.

4.2.2. Apaiz misiolariak

Ekuadorren: Martin Areta Buradon, Gatzagakoa; Benjamin Respaldiza, Artziniegakoa; Josetxu Apellaniz eta Antonio Madinabeitia, gasteiztarrak.

4.2.3. Euskara ikasteko apaiz liberatuak

Ikasturte honetan, Fernández Oribe, IRALEN. Bande, Lazkaon.

4.2.4. Abade jubilatuak

Haien artean dozenatik gora daude jatorriz euskaldunak direnak, gehienak 80 urtetik gorakoak dira: bizkaitarrak (Abaitua, Arraibi, Otazua, Yarza) nafarren bat (Arizti), eta sei gipuzkoar (Barandiaran, Bello Portu, Garai, Larrañaga, Latiegi, Oñatibia), arabarrak (Nafarrate) aramaixoarra. Las Heras-ek eta Ibisatek antzina ikasi zuten euskara.

4.2.4. Hil berriak

Hauek ez ditugu zenbatzeko, baina, inolaz ere ahazteko**:** Agirre Arrieta, Ros, Bergaretxe, Ibargutxi. Orainago, 2004ko urrian bertan, hil zaigu Josemari Larrarte, pasiotarra, Eusko Legebiltzarraren sorreran lehen itzultzailea izan zena, besteak beste.

4.3. Erlijiosoak

Gasteizko Elizbarrutian bizi diren erlijiosoen artean, badira euskaldunak, komentu gehienetan, gainera. Ezin dut zenbakitan zehaztu, baina hiru euskaldun baino gehiago aurki, jarraian aipatuko dudan fraidetxe bakoitzean: Karmeldarrak, frantziskotarrak, biatoristak, marianistak, salestarrak, klaretarrak, jesuitak, pasiotarrak, Estibalizko beneditarrak.

4.4. Erlijiosak

Ez dut zehazterik erlijiosa euskaldunen kopurua. Baina etxe gehienetan euskaldun bat baino gehiago aurkitzea ez da batere harrigarria, bai moja kontenplalarien artean (klaratarrak, karmeldarrak...) bai osasun eta irakaskuntzan dabiltzanen artean (Vedrunak, Berrizkoak, Neverskoak, Merzedariak, «Hermanitas», Karitatearen alabak, Ursulinak...) Erlijiosa hauek euskara gorde badute, gehien bat euren familiari esker izan da. Arabako emakumezkoen komentuetan euskarak leku gutxitxo izan duen susmoa dut. Hauetako askori euskara nahiko ahazturik gelditu zaio. Moja euskaldun berri batzuk ezagutzen ditut.

4.5. Apaizgoa utzitakoak

Atal honetan beste dozena bat abade-ohi euskaldun sartuko genuke. Horietatik sei eskolak jaso ditu; bi euskaltegiek; hiru unibertsitateak. Bestalde, Gasteizen hainbat abade-ohi eta fraide izandakoak bizi dira. Elizetan inoiz horrelako argazkiak atera daitezke: mezaburuaren aldamenean lau abade-ohi: organo-jolea, kantu-zuzendaria, ohargilea eta irakurlea. Adibide haua *Pilar* parrokian hainbatetan gertatu da.

4.6. Apaiz elebidun hartzaile pasiboak

Apaiz euskaldun berrien kopurua nabarmena da. Agian ez dute inoiz maisuen maila lortuko, baina milaka eta milaka ordu eder sartua du Arabako apaizgoak euskaraz ikasten eta batzuk irakasten, isilean, normalki, eguneko lehenengo orduak erabiliz, oporrak euskara ikasten inbertituz.

Agian, ez zaie eliz-zerbitzurik euskaraz gehiegitan eskatuko. Agian, erdi lotsaturik daude euskara bide erdian gelditu zaielako. Agian, euskararekiko ezina adieraziko dizute. Baina, ziur nago, gure Elizari eta herriari funtsezko giroa eskaini diotela Arabako toki askotan euskaraz normaltasunez aritu ahal izateko.

5. EUSKAL PASTORALTZARAKO OINARRIAK

5.1. Oinarri historikoa

Gaur poza adierazi beharko genuke Arabako Elizan jarraipen positiboa izan delako mendeetan zehar euskararen mesedetan. Díaz de Luco, Betolaza, Prestamero, Olabide, Urreztarazu, Narbaiza, Anitua, Basterrika, eta beste asko, –gehienetan, oso garai zailetan–, nabarmendu ziren euskararen aldeko ahaleginetan.

5.2. Vatikano II. Kontzilio Ekumenikoaren bultzada

Pozik hartzen ditugu aintzat Vatikanoko II. Kontzilioaren gogoetak. Beranduago eginiko beste eliz-dokumentuek ere garbi erakusten digute Elizak nolako sentiberatasun argia izan behar duen herrien izakera osatzen duten kulturaren eta, era berezian, hizkuntzaren aurrean.

- Elizak bere historiaren hasieratik, herri ezberdinetako kontzeptu eta hizkuntzen bidez adierazten ikasi zuen Kristoren mezua eta, horrez gainera, filosofoen jakinduriaz janzten ahalegindu zen; eta guztia, Ebanjelioa, bai guztien ulermenera eta bai jakintsuen eskakizunetara, komeni zen eran egokitzearren. Egiaz, errebelatutako hitzaren prediku egokitu honek, ebanjelizatze ororen lege izan behar du. Izan ere, honela, Kristoren mezua herri guztietan nork bere erara adierazteko aukera indartzen da eta, era berean, Elizaren eta herrietako kultura ezberdinen arteko harreman bizia eragiten da (Gaudium et Spes 44).

- Sarritan bertako hizkuntzaren erabilera oso ongi etor liteke herriarentzat. Horregatik, bai mezatan eta bai sakramentuak ematerakoan eta liturgiako beste arlo batzuetan, toki handiagoa eman dakioke, batez ere irakurgai eta oharpenetan, otoitz batzuetan eta kantuetan (Sacrosantum Concilium 36.2).

- Paulo VI.ak, Evangelii Nuntiandi entziklikan gogorarazten digu: Ebanjelizazioak indar eta eraginkortasun asko galtzen du, gogoan hartzen ez baditu ebanjelizatu nahi duen herria, bere hizkuntza, bere zeinuak eta sinboloak; kezka sortzen dioten galderei erantzuten ez badie; bere bizitza konkreturaino iristen ez bada (E.N. 63).

• Gasteizko Elizbarrutiko Batzarreak (1991) gure kultur-gatazkaren aurrean erantzukizunez beteriko sinesmena bizitzera dei egiten zigun: Gure herrian bizi diren gazteleraren eta euskararen bi kultur ezberdinen erdian: adiskideturik dagoen eta adiskidetzailea den Elizaren testigantza emateko dei sakona entzuten du Gasteizko Elizbarrutiak. (VI. Gaia, 10. helburua). Antzeko aipamenak aurki daitezke Elizbarrutiko Batzarrean: V. 9 eta 10; X. 11 eta 12.

6. KRISTAU ELKARTE EUSKALDUNAK

6.1. Arabako herri euskaldunak

Aramaioko bederatzi parrokietan, *Arexola, Azkoaga, Barajuen, Etxaguen, Gantzaga, Ibarra, Untzila, Uribarri* eta *Oleta/*Otxandio ondokoa, barne. 1500 biztanle; horietatik 80 pertsonek ez dakite ia ezer euskaraz. Beste 125 pertsona, euskara jakin arren, ez dira gauza euskaraz moldatzeko.

Liturgia guztia, euskaraz egiten da, bederatziurrenak eta erromeriak barne. Ibabeko Kofradiak euskaraz egiten ditu liburuko aktak eta oharpenak. Jendearentzako informazio idatzia ele bietan ematen da.

Familia erdaldunak, zuzenean inplikaturik daudela, ele bietan egiten da, baina kantak eta familiaren eskerrona euskaraz nahiago izaten dute.

Katekesiko guraso gehienekin euskaraz egiten dugu; bateren batek euskaraz ondo ez dakienean, asko baldintzatzen du hizkuntza-dinamika.

Laudion, Legutianon eta ondoko *Elosun* eta *Urrunagan*, euskaldunen proportzioa nabari jaitsi egiten delako, eredu elebidunetan moldatzen dira.

6.2. Gasteizko Kristau Elkarte Euskaldunak

Eliza Zerbitzu osoa (liturgia, katekesia, elkarte antolamendu finkoa, abadea) euskaraz eskaintzen duten parrokia edo gurtza-lekuak aspaldidanik egonkor mantendu dira: *Pilar, Gure Aita, Estibaliz, Jesus Langilea, Jesu Kristo Berpiztua, Xabierko San Frantzisko*. Ariznabarrako *San Paulo* parrokiak elebitasunaren aukera nabarmena egina du. Eliztarrak, oro har, gutxitu egin dira.

Euskal Elizbarrutietako agiri ofizialak erabiltzen dituzte: Bataio, ezkontza, hildakoena. Elkarteen barruko dinamikak, diru-kontuak, bilerak eta aktak ere euskaraz egiten dira. Elizkizunak duintasunez ospatzeko badago hainbat baliabide.

Elkarte euskaldun hauek dira Euskal Herriko gainetiko Elizbarrutien fruituak hartzen dituztenak: Itzulpen liturgikoak (*Irakurgaiak, Meza Liburua, Orduen Liturgia*, sakramentuen *errituala*k...); kanta liburuak (*Aranburu* klasikoa, *Gora Jainkoa* sailekoak, *Lazkaoko Meza Abestiak*, Loiolako *Cantos Religio-*

sos; Arantzazuko 5 *Kanta Dezagun-cantemos*, Belokeko 4 *Ezkila, J. Elezkanorenak, Berri Ona Kantuz*...); musika erlijiosoaren 50 zinta inguru; aldizkariak (*Karmel, Arantzazu, Mintzo ta kantu, Fededunak, Hemen*...); Gotzainen Idazkien euskarazko bertsioak eta abar.

Euskaraz argitaratzen diren liburu erlijioso gehienak itzulpenak dira, baina lan batzuk meritu handi-handikoak dira: Vatikanoko II.a, Asisko San Frantzisko, eta Teresa Lisieux-koa. Deustuko Erlijio Kulturaren Bildumak ongi baino hobeto bete du teologian geneukan hutsunea. Urteak beharko dira ahalegin erraldoi hauei zukua ateratzeko. Hauetaz gain, bada zer erosi euskarazko erlijio-liburuen artean.

Hauekin gutxi balitz, Elizbarrutietako eta erlijiosoen web guneetan hainbat baliabide eder aurki dezakegu euskaraz.

Dena den, Arabako pastoralgile euskaldunak, jasotzaile diren neurrian, erabiltzaileak dira. Hori gehien bat ikusten da katekesian.

6.3. Umeen katekesia

Ekintza honek jende eta baliabide asko inplikatzen du: katekista, ume, guraso, abade. Baliabideen aldetik lan asko daroa sei mailetako umeen liburuak prestatzeak; gehiago katekisten gidaliburuak. Euskal Elizbarrutietako elkarlanak ahalbidetzen du liburuen duintasun maila, bestela ezinezko litzateke. Lan talde zabala egon da murgilduta prozesu osoan.

Ikus-entzuteko baliabideak prestatzea ere lan interesgarria izan da. 40 bideo-kasete euskara ulergarrian izatea lortu da. Ez da txantxetako marka. Euskal Elizbarrutiekin batera, Ikastolen Federazioa eta Erlijiosoak ibili dira. Gabeziaz gabezia, euskarazko katekesian aukera egokiagoak ditugu bideoetan, gaztelaniaz dabiltzanak baino. Inoiz, erdal katekesiko umeek bideoak euskaraz ikusi dituzte, probetxuz.

Gasteizko zentroetako eta Laudio, Amurrio, Urduña, Aramaio eta Legutianoko katekesiek iraunkor diraute. Guztira 680 ume ziren igaz katekesia euskaraz eskaintzen zuten zentroetan. 70 katekista euskaldun inguru ari da lanean. Eskariaren eta eskaintzaren arteko oreka gutxitan gertatzen zaigu. Gehienetan katekista helduak falta dira. Elizbarrutian 4.115 ume ziren gaztelerazko katekesian. Araban 13.631 ikasle dira Lehen Hezkuntzako sei mailetan.

6.4. Eskolako erlijio irakaskuntza

Elizbarrutian 36 irakasle dira, ikastetxe publikoetan eskolako erlijio gaia euskaraz irakasten dutenak. Badute gaitasun akademikoa: diplomatu eta lizentziatuak dira. Badute euskaraz irakasteko legezko maila, ofizialtasun osoz aitortua. Badute Erlijioaren irakaskuntzarako titulu espezifikoa. Badute Gotzainaren baimena. Guzti horien azpian, ordea, borroka latza dute eskolan.

Ikastetxeetan ikasle-taldea sortzea kosta egiten da. Hainbat ikastetxetan ez dute aukerarik ere eskaintzen. Beste batzuetan hamaika traba jartzen dizkiete. Eta taldea sortu eta gero, parekotasun ezarik larriena sortzen da. Erlijiokoek badute programa eta eginbidea. Baina erlijioa aukeratu ez dutenentzat, kasu gehienetan, ez dago eskaintzeko moduko gogoeta etiko adostua. Ondorioz, ikasgai hauen izaera kolokan da aspaldiko urteetan, maila akademikoaren eskakizunak zehaztu barik.

Egoera honek irakasleengan nekea eta ezina sortarazten ditu. Ez dute baldintza onik bakez eta probetxuz lana egiteko.

6.5. Euskal Pastoraltzaren Zerbitzua

Elizbarrutian talde eta esperientzia desberdinak daude. Denek elkarren beharra sentitzen dute. Koordinazioa dute amets.

Antolamendu arloan urrats txiki baino esanguratsuak ematen ari dira. Euskal Pastoraltzaren Zerbitzuan apaiz talde batek aspaldidanik jarraitzen du lanean. Asmoz, laster sortuko da Euskararen Arloko Pastoral Kontseilua, euskaraz ari diren toki desberdinetako pastoralgileen ordezkariak osaturik. Leku batzutan badute pastoral batzorde edo batzarra, beti tokian tokiko parrokietan eta pastoral-barrutietan txertaturik.

Talde honen arduraduna, idazki honen egilea da. Ez du aginte mailarik; baina bere parrokian euskara bultzatu nahi izan duenari beti erantzun diogu. Elizbarrutian zerbitzu hau jarri denetik ezinbesteko erreferentzia bihurtu da. Gehienetan itzulpen beharrak asetzen dituelako; baina, baita ere, nora jo ahalbidetzen duelako.

7. ELIZBARRUTIKO ERAKUNDEAK

Euskaldunak lanean ari dira, baina nolako laguntza jasotzen dute Elizaren erakundeetatik?

7.1. Gotzaina

Asurmendi Gotzainak gaztelaniaz betetzen ditu ia bere eginkizun guztiak; baina Gasteizera etorri zen unetik tarte bat eskaini dio euskarari. Astero du hitz-ordua euskarako irakaslearekin (Izaskun Arrue). Igarri egiten zaio, jendaurrean irakurtzen duena ulergarri gertatzen baita. Oporretan aste pare bat erabili ohi du euskara ikasteko. Azken udaldian Arantzazun izan zen.

Meza euskaraz ospatzeko moldatzen da. Musikaria izateak eta kanturako dohainak asko laguntzen diote. Elizbarruti mailako ospakizunetan hitzaldiaren zati batzuk euskaraz ematen ditu.

Behin baino gehiagotan, eliztar eta elizgizon batzuen bekozkoa ikusi du, elizkizun batzuetan euskara «gehiegi» erabiltzeagatik. Batzuk «euskaldunen menpekotzat» daukate, «euskal abertzaletasunez kutsaturik». Ez dago horrelako beldurrik. Dena den, Euskal Pastoraltzan gabiltzanok eskertu diogu euskararekiko duen jarrera. Apaiz askok badute non ikasi. Beste egoera batean ez genuke gauza bera esango.

7.2. Gotzain Kontseilua

Elizbarrutian gorengo arduradunak dira: Bikarioak eta Idazkari Nagusiak. Gaztelaniaz moldatzen dira. Inoiz euskaldun bat suertatu da taldean. Orain euskara gehien dakiena gotzaina da. Hasiera samarretik Euskal Herriko Elizbarrutien eskutik ibili dira euskal gaietan: Itzulpen liturgikoak, Argitalpenak, Katekesia, Pastoral Idazkiak, eta gainetiko euskal arazoetan. Gehien bat Gotzaina eta Bikario Nagusia arduratu dira.

Finantziazioari buruz, orain dela 27 urte, Euskal Elizbarrutiek hitzarmen bat egin zuten eta aurrera jarraitzen dute. Aldaketak egiten dira partaideen arabera. Bilbo, Donostia, Gasteiz, bakarrik edo Iruñekoekin batera, edo Baionak ere parte duen, edo argitalpen ekumenikoa denean protestanteek ere parte duten. Adibidez, orain *Elizen arteko Biblia*ren bigarren argitalpena dute eskuen artean. Goitik behera aztertu dute Biblia osoa Euskaltzaindiaren azken 10 urtetako erabakiak gogoan hartuta. Liburua eta CD bat agertuko da. Arabako Elizak dagokion zatia ordainduko du.

Euskal Pastoraltza, apaiz eta fraide euskaldunen esku utzi dute. Elizbarrutiko Euskararen Arloko Pastoral Kontseilurako iradokizunak eginak dizkigute.

Euskal Herriko Elizbarrutietako Artzipreste eta Arduradunen topaketak antolatzen dituzte, batzutan Loiolan, beste batzutan Arantzazun. Beste horrenbeste egiten dute erlijiosa-erlijiosoen buruekin. Arabako Elizari horretatik on baino ez datorkio.

Badute gehiago egiterik? Dudarik gabe, askoz gehiago egin zezaketen. Euren gabeziak eta inertziak ondo ezagutzen ditut. Ez badute jarrera oso euskaltzalea ere, ez dira itxiak. Euskal Pastoraltzaren eragozpen handienak ez ditugu hemen aurkituko.

7.3. Elizbarrutiko Pastoral Kontseilua

Pastoral Kontseilua Kontzilioko eskakizuna da. Elizbarrutiko Batzarraren ondoren eratu zuten. Honen konposaketa: 34 laiko, 12 abade, 10 erlijioso-erlijiosa eta Gotzaina bere bikarioekin. Harrigarria da oraingo kontseilukideen gaztetasuna eta prestaera maila. Batzar Nagusiaren iradokizunak jaso eta Pastoral Egitasmo berriak lantzea da haren egitekoa.

Pastoral Kontseiluak adostasun zabalez onartu ditu euskal pastoraltzaz egin zaizkion bi proposamenak. Lehenengoan, Euskal Pastoraltzaren Zerbitzuaren helburuak eta programa aurkeztean, 60 botoetatik bi boto bakarrik izan ziren kontrakoak; eta bigarrenean, euskarari buruzko gomendioak onartzean, bozka guztiak aldekoak ziren, boto zuri bat izan ezik. Horrek aditzera ematen du, Arabako Elizaren barruan badagoela euskararen aldeko giroa. Baita, euskal pastoraltzan gabiltzanok nahiko ondo ezagutzen dugula geure errealitateari zer eska diezaiokegun.

8. EUSKARA ELIZBARRUTIKO ARLO PASTORALETAN

Gure Elizbarrutian egiazko aurrerapausoak eman ditugu euskararen erabilpenean. Hori pastoralgintzaren edozein arlotan ikus daiteke. Honez gero Elizbarrutiko erakunde askok gogoan dute euskararen errealitatea.

8.1. Katekesia

Oraintxe arte esandakoa eta gehiago egiten dute. Adibidez helduen katekesitako materialak prestatu. Katekisteei begira egindako *Catequistas* aldizkarian laburpen txiki batzuez gain, orri batzuetako testuak euskaraz eman dituzte.

Katekesiko liburudendak, euskarazko eskaintza borobilik ez badu ere, oinarrizko liburuak eskaintzen ditu, baita azken argitalpenak ere. Batez ere umeei begira: *Biblia* irudidunak, kantak...

Agurainen eta Urduñan, adibidez, katekesi saioak hasi aurretik erabiltzen da euskara, apaizak horretarako gai direlako eta ume guztiek horretarako jarrera ona dutelako. Kanpetzun bi katekista euskaldunak dira. Euren taldeek euskaraz egiten dute katekesia, arazo berezirik gabe. Kasu hauetan guraso gehienek gaztelaniaz jarraitzen dute umearen fede heziketa, nahiz eta gogoz onartu katekesian ere euskararen presentzia jarraitua.

8.2. Gazteak

Elizbarrutiko sailarik dinamikoena da. Ekintza ugari plazaratzen du. Esku-orriak noiznahi ateratzen dituzte. Hormirudiak, deialdiak, *web gune* berezia. Denetan dute leku bat euskararentzat. Euskal Zerbitzuari galdera eta eskaera dozenaka egiten dizkiote.

Gazte Sailaren dokumentu nagusiak: *Gaztaro* 1, 2 eta 3 elebietan argitaratu zituzten. Oraingo Plan Estrategikoa, *Garai berriak* deiturikoa itzultzen ari dira. *Gazteen berriak* du izena sail honen aldizkariak. Artikulu batzuk euskaraz egin dira. Laburpen txikiak ugariak dira.

Atseden Taldeak, Elizbarrutiko Gaztetxoen elkartea, ele bietan aritzeko akordioa hitzartu dute. Euskal Herriko Eskautek hizkuntza biak erabiltzen dituzte sistematikoki.

8.3. Liturgia

Nabarmen hobetu da euskararen erabilera Elizbarruti osoari dagozkion ospakizunetan.

Elizbarrutiko Batzarraren klausura ospakizuna ondo apaindu zen: euskal kanta ugari, ohargile elebidunak, bertso jarriak. Batzarraren hamaika gaietako azken erabakiak ele bietan aurkeztuak izan ziren. Jakinekoa, gaztelania izan zen nagusi, baina euskarak oso leku duina izan zuen elizaren itzelezko ekitaldi batean. Euskaldunak oso pozik irten ziren katedraletik.

Antzeko zerbait moldatu zen Larrauri gotzainaren agurrean eta Asurmendiren etorrera egunean. Ospakizunak oso ondo irten zirelako, euskararen presentzia nabarmena tartean, nolabait ospakizun-eredua finkatu zen. Harrezkero, ohitura bihurtu da Elizbarrutiko ospakizunetan euskara dexente sartzea: Kantak, Mezaren erantzun batzuk, irakurgairen bat, oharpenak, hitzaldiaren zati batzuk, eskariren bat...

San Prudentzio, Krisma Meza, apaizgintza, apaizgintzaren 50. edo 25. urteurrenak, Lourdesko erromesaldia, Andra Maria Zuriaren eguna, bakearen aldeko ekitaldiak, eta abar momentu bereziak bihurtu dira. Nekez ospatuko dira euskarari aukera nahikorik eskaini gabe.

Bestalde, gehitu egin da elebitasunaren sarrera ohizko gaztelaniazko ospakizunetan, batez ere eliz-kantak haurrak diren mezetan. Erdal eta euskal abestien arteko proportzioa eta maiztasuna guztiz aldatzen da parrokia batetik bestera. Jaunartze egunetan gertatu da, erdaldunak % 80 izan arren, erdaraz % 20a baino ez egitea; jakina, onarpen guztiz zabalez.

Parrokia batzuk badute euren bidea euskarari ekiteko. Beste batzuk ez, eta egun gehienetan ez zaio lanik falta Euskal Zerbitzuari. Orain bataio baterako laguntza. Orain hileta elizkizunerako. Gero kantaren bat. Hurrengoan partitura eta guzti. Jaunartzeak datozela; herriko jaiak direla; errotuluak jarri behar dituztela, esku-orria atera behar dutela. Gasteiz hirian eta Arabako herrietan nahiko zabalduta dago jokaera hau.

8.4. ETBko mezak

Honez gero 120 baino gehiago dira ETBko Arabatik emandako mezak euskaraz. Gutxienez 35 lekutatik. Azkenekoak Manurgatik eman dira, urrian. Printzipioz bertako parrokiako elizkideek hartzen dute parte, beti ere albokoen laguntza hartzen dutela. Adibidez, Manurgako Meza horietan Zigoitiko hainbat euskaldun agertu zen, baita parrokoaren lagun gasteiztar batzuk ere, kantuan eta organoan laguntzen. Gasteizen antolatzen direnean elkarte euskaldunen batek laguntzen du.

Dena den, urte bete igaro da ETBko meza-ordua aldatu zutenetik. Orain goizeko 9etan da. Ordu hori ez da batere egokia nagusi eta ezinduentzat. Ez dut esango ETBk eskubide batzuk urratu dutenik, ez. Bakarrik esan nahi dut aitona-amona euskaldun askori ezinezko bihurtu diotela meza euskaraz telebistan ikustea. Erdarara pasatu dira asko eta asko, ordu egokiagoa dutelako. Honen harira, Meza horietan parte eginkorra izan dugun apaiz askori oinarrizko irizpideak aldatu dizkigute. Osasuna urratuta dutenentzat ez bada, zertarako eta norentzat eman telebistatik Meza? Pantailan dotore agertzeko? Ez. Ameriketan erdaraz ikus dezaten? Ez. Nonbait, ETBkoek ahaztu egin dute Elizan zerbitzua dela klabea eta nori zerbitzu egin garbi ez badago, arazo larria.

8.5. Seminarioa eta Teologi Fakultatea

Ikasleen kopurua, laikoak barne, irakasleen parekoa da. Irakasleen maila, oro har, guztiz inbidiagarria. Andres Ibañez, nire aurretik berba egin dizuena, adibide ona izan duzue. Gaur ez da apaizgairik Gasteizen. Baina urtero egiten da Seminario eguna. Kanpaina horretan lan bikaina egiten dute. Material guztiak hizkuntza bietan argitaratzen dituzte. Aurtengoak, guztira, 30 orri izango ditu euskaraz, apaizgoaz gogoeta luzea dakarrela. Bestalde, zelan ez dizuet esango Seminarioko liburutegia ederra dela, oso. Euskarak badu leku txikitxoren bat. Beste edozein hizkuntzatakoa baino txikiagoa. Liburutegia liburuz elikatzeko, hiru aldizkari argitaratzen dituzte: *Lumen*, *Surge*, eta *Scriptorium Victoriense*. Gainera, Victoriensia bildumak 71 doktorego tesi baino gehiago eman ditu argitara.

Euskara ikasteko aukera eskaintzen du Fakultateak. Bada irakaslea. Noizbait aukerako ikasgai batzuk euskaraz eman dira. Lizentziaturarako tesina batzuk euskaraz landu eta defendatu dira.

Euskal Herriko Erlijioso Bizitzaren Teologia Institutuak Seminarioan bertan du bere egoitza. Lan gehienak *Frontera / Hegian* gaztelaniaz argitalpenetan ematen dituzte. *Hemen*, erlijio gogoetarako aldizkaria plazaratu berria dute euskaraz.

8.6. Komunikabideak

Elizbarrutian bada *Nagusia* aldizkaria. Ez duzue gauza askorik euskaraz aurkituko. Ez dago debekurik euskara sartzeko. Baina nork idatzi? Badira berripaperak. Gotzaindegiak bat ateratzen du, urtean lau bider edo. Euskara gutxi darama, baina beti azalduko da 6 edo 8 tokitan, sumario gisa, laburpen moduan, inoiz zutabe bezala. Karitasekoek ere bi hilabetekaria eta urteko txostena argitaratzen dute. Azken urteetan hasi dira euskara sartzen. Misioetakoek ere aldizkari formalago dute, *Los Rios* izenekoa. Euskara gutxi sartzen dute, baina inoiz ez dira gelditzen erdara hutsean.

Web orriak ugarituz doaz gure Elizan. Badakit ahalegin handiak egiten dituztela oinarrizko edukiak euskaraz jartzen.

8.7. Solidaritate kanpainak

Gure Elizbarrutian hainbat kanpaina edota diru-bilketa egiten da urtero. Egun jakinetan egin arren, garaiz iragartzen dira hormirudien bidez. Haur Misiolariak; Gosearen Aurkakoa, Euskal Misiolariena. Karitasek kanpaina bereziak egiten ditu Ostegun Santuz, Kristoren Gorputz-Odol Santuen egunean, eta Gabon aurreko domekan. Urrian Domund eguna dator. Kanpaina guzti hauetan euskarak badu adierazpidea. Hormirudiak, Mezatarako lagungarriak, pegatinak, margotzeko marrazkiak, bideoak, kantak. Batzutan eskolarako baliabide pedagokikoak ere lantzen dituzte.

Hemen ez dago dena esaterik. Atal garrantzitsuren bat geldi daiteke aipatu gabe. Esate baterako, herri txikietako apaizen taldeak edo Euskal Herriko Apaizen koordinakundeak agiri eleanitzak egiten dituzte. Nire ustez, oinarrizkoenak agertu dizkizuet. Jakingarri izan daiteke Elizbarrutiko Artxibo Historikoan eta Arte Sakratuaren Museoan badirela langile euskaldunak.

9. ZAILTASUNAK EUSKARAREN ERABILERA PASTORALEAN

9.1. Euskaldunen proportzioa txikia izatea Arabako gizartean. Kristau euskaldunena oraindik txikiagoa. Apaiz euskaldunak, bistan da, gutxi batzuk baino ez gara.

9.2. Euskara ondo ez ezagutzea. Ondo alfabetatuak gutxi dira Elizan, bai elizkideen artean, bai pastoralgileen artean. Gotzainen pastoral idazkiak, eliztar gehien gehienek nekez irakurtzen dituzte euskaraz.

9.3. Pastoralgile euskaldunak, lan hirukoitza egin behar izaten du. Batetik, kristau euskaldunei euskaraz zerbitzua egin; bestetik, euskaltzale erdaldunei euskaraz egin dezaten laguntza eman, eta, azkenik, inguruko erdaldunak ere erdaraz zerbitzatu.

9.4. Oharpen txikia izan euskararen garrantziaz, bai Elizarentzat eta bai Euskal Herriaren etorkizunerako. Ematen du batzuei pareko egiten zaiela euskaraz egitea eta abertzale sentitzea. Euskal sentierak, berriz, ez du ordezkatzen euskara. Beste muturretako batzuk oso begirune gutxi erakutsi diote euskarari.

9.5. Itzulpenaren menpe. Euskaldunok Elizan gehienetan azkar egin behar izan diren itzulpenen menpe bizi gara. Bibliaren eta liturgiaren testuak, oso ondo eta egoki moldatuta daude euskarara. Lar ondo, askoren ulermen mailarako.

9.6. Gorabehera politikoen zurrunbiloak, indarkeria odolzalea barne, euskararen errealitatea osoa astintzen du. Euskara mugimendu politikoen tresna

bilakatzen denean, handitu egiten da euskaldunen arteko mesfidantza. Bakean eta patxadaz lan egiteko giroa falta denean, irabazi gutxi dago alor gehienetan. Gutxienez, indar galera izugarria gertatzen da. Herri honen indarrak ez dira mugagabeak.

9.7. Euskalgintzako zati esanguratsu baten eta elizaren arteko etena, gero eta larriagoa da. Ez da Elizarentzat ona. Bestalde, euskal gizarteak ez du bertako Elizaren lanik mardulenak ezagutzen. Penagarria benetan.

10. GOMENDIOAK ELKARTEENTZAT

Gasteizko Elizbarrutian euskarari leku egokiago egiteko ondorengo gomendioak onartu zituen Elizbarrutiko Pastoral Kontseiluak..

1. EUSKARA IKUSARAZI: Elebitasuna kanpoko agertokietan arduraz zaintzea: parrokiaren izena, errotulazioa, hormirudiak, agiri-ofizialak, oharrak...

2. EUSKARAREN ALDEKO JARRERA ONA BILATU: Elkartearen bizitzan tentuz eta gozotasunez elebitasunari bide ematea: harreran, bileretan, agurrak egitean, abesti, otoitz eta abarren bidez.

3. LANA AURRERA ATERAKO DUTENAK BILATU: Talde pastoral elebiduna prestatzea, parrokian edo artziprestaldean, laikoak, erlijioso-erlijiosak eta apaizak barne direla, eliz-zerbitzuak euskaraz burutu ahal izan dezaten duintasunez: Eukaristiak, hileta-elizkizunak, Bataioak eta gainetiko sakramentuak, baita beharrezko itzulpenak ere.

4. GUTXIENEKO BALIABIDEAK LORTU: Oinarrizko liturgi-liburuak euskaraz edukitzea, gutxienez Gasteizko eta herri nagusietako parrokia eta gurtza-lekuetan: *Biblia, Meza Liburua, Irakurgaiak*, sakramentuen erritualak, abestiak....

5. EUSKARA ERABILI, BAINA SAKABANATU GABE: Ohizko liturgi ospakizunetan euskarazko abestiak tartekatzea, Euskal Pastoraltzaren Zerbitzuak aukeratutako kanta sorta laburra aprobetxatuz.

6. EUSKALDUNEI KATEKESIA EUSKARAZ ESKAINI. Katekesia euskaraz parrokian bertan eskaintzea edo zerbitzu hori artziprestaldeko alboko parrokietan hartzeko bideak erraztea. Gazteen pastoralgintzan ere berdin jokatzea.

7. ARTZIPRESTALDEEN EGINKIZUNA AZTERTUARAZI. Artziprestaldeetan ospakizunak euskaraz egiteko bideak aztertu eta irtenbide bat bultzatzea.

8. ELIZBARRUTIKO ERAKUNDEEI EUSKARA ZAINTZEKO DEITU. Elizbarrutiko erakundeek plazaratzen dituzten solidaritate, formazio edo otoitzerako kanpainetan baliabide elebidunak prestatzea eta eskaintzea.

- Hormirudi elebidunak hasieratik elebidun asmatu behar dira. Letra ugariak ez du laguntzen. Hitz jokoek itzulpen zaila dute. Sarri ez du balio gaztelania edo euskara hutsezko kartelak. Biok dira beharrezkoak.
- Euskararen ikuspegitik Elizaren euskarazko mezuak, gehien bat, gazteei eta umeei begira egin behar dira, euskara ezagutzen dutelako. Adibidez: marrazkiak, ikur-hitzak, pegatinak, oharrak, otoitz laburrak, dinamikak, esku-lan txikiak, ikus-entzutekoak...
- Kanpaina bat Elizbarruti batek baina gehiagok bultzatzen badu, hobe da elkarren artean lan egitea, bakarka antzerako gauzak egiten ibiltzea baino.

9. EUSKAL ZERBITZUA DENEI ESKAINI. Gai hauetan sor daitezkeen galderak, zalantzak edo zailtasunak argitzeko Elizbarrutiko Euskal Pastoraltzaren Zerbitzura jotzea.

> Etxea Jaunak eraikitzen ez badu
> alperrik ari dira etxegileak (127. Salmoa)

Eskerrik asko zuen gonbite eta arretagatik.

Esan dut.

ACTITUD DE LOS HABITANTES DE VILLAVERDE DE TRUCÍOS (1) HACIA EL EUSKERA: 1986-2002

Mikel Gorrotxategi Nieto

Este trabajo es el resultado de dos encuestas realizadas en 1986 y 2002 en la población encartada de Villaverde de Trucíos. La primera encuesta se llevó a cabo cursando la asignatura de sociolingüística en la EHU-UPV y fue dirigida por la profesora Karmele Rotaetxe. La segunda, en los cursos de doctorado 2001-2002, con la ayuda de la profesora Maitane Etxebarria de la misma facultad. Se utilizó la misma encuesta (2) en ambos casos para poder ver la evolución sufrida en estos años.

En 2002 se encuestaron 53 personas en la semana del seis al diez de mayo. La encuesta, realizada íntegramente en castellano, salvo en un caso, se realizó de forma aleatoria en días laborales a partir de las 5 de la tarde, para –en la medida de lo posible– recoger el parecer de los habitantes «fijos» de la localidad. Realizarla en otro horario o día de la semana podría haber desvirtuado los datos. En *Villaverde*, como en otros municipios rurales de las Encartaciones, hay una gran población, que está empadronada en el pueblo, pero sólo acude los fines de semana. Finalmente, no hay que olvidar que, al no haber ninguna industria ni centro de enseñanza, son muchas las personas que trabajan o estudian fuera del municipio.

En 1986 se entrevistó al 5% de la población. Los entrevistados fueron elegidos mediante sorteo. En aquella ocasión, la población del lugar era más estable que en la actualidad, al no haber segundas residencias ni prácticamente edificaciones de nueva construcción.

Se ha tratado de recoger el testimonio de todos los grupos de edad aunque, como en otras zonas rurales, haya un notable envejecimiento de la población.

Número de encuestados en 2002: 53; número de encuestados en 1986: 29.

---

(1) El municipio de *Villaverde Trucíos / Villaverde Turtzios* es un enclave de la Comunidad Autónoma de Cantabria, antes provincia de Santander, en las Encartaciones de Bizkaia. Sus límites son *Turtzios* N, *Karrantza* O, *Artzentales* E y *Balmaseda* S. Está comunicado por carretera con *Artzentales, Karrantza* y *Turtzios* y por ferrocarril con Bilbao (la estación está situada en Artzentales) y Santander.

(2) Las únicas preguntas modificadas son las relativas a la prensa y a la escuela, por razones obvias: los periódicos han cambiado y la escuela está actualmente cerrada.

Resultados de la encuesta

Se incluyen a continuación las preguntas realizadas en la encuesta así como las respuestas totales y porcentajes de las mismas del año 2002 en primer lugar y de 1986 en segundo lugar:

1) ¿Sabe usted vasco (3)**?**

	2002		**1986**	
Sí	11	20,70%	1	3,4%
Poco	9	16,98%	–	–
No	33	62,20%	28	96,6%

Es notorio el cambio en estos pocos años. El porcentaje de vasco-hablantes ha pasado de 3,4 % a 20,7 % y el de los que lo desconocen totalmente ha descendido del 96,6 % al 62,2 %. Las causas de este aumento hay que buscarlas en dos razones. La primera es que las nuevas generaciones estudian euskera en los centros de enseñanza, ya que la mayoría de los niños acude a *Trucíos* al modelo B. La segunda razón, aunque de menor peso, son las personas que se han desplazado a vivir a este pueblo desde Bizkaia y dominan en mayor o menor medida la lengua. Como curiosidad destacar que la única persona que era vasco-hablante en 1986 había nacido en dicho municipio, donde residía en casa de sus padres e impartía clases de euskera en Bilbao.

2) ¿Ha intentado usted aprender vasco?

	2002		**1986**	
Sí	12 (4)	22,64%	4 (5)	13,7%
No	21	39,60%	24	82,7%
Sin respuesta	20	37,70%	1	3,4%

(3) La designación del idioma es el primer obstáculo en la encuesta, por lo que se prefirió el vocablo «vasco» al entenderse que en la zona en cuestión es más común y neutro que «euskera». En cualquier caso, en las nuevas generaciones esta última forma se está haciendo más común que la castellana.

(4) El medio de aprendizaje más señalado es el *euskaltegi* (centro de enseñanza de euskera a adultos), aunque uno de los encuestados había utilizado además sistemas de aprendizaje como *Bakarka* y otro que se designó autodidacta había aprendido por contacto con vasco-hablantes.

(5) Dos de los encuestados habían estudiado en *euskaltegi* y los otros dos en el colegio, al cursar BUP fuera del municipio.

Los que no lo hablan, pero han estudiado algo, se dividen en dos grupos. Unos, la mayoría, que han acudido a un *euskaltegi* (voluntariamente) y otros que lo han aprendido en el colegio, dentro de la enseñanza reglada. Conviene recordar que los alumnos de *Villaverde*, en principio, están exentos del aprendizaje del euskera. Hay que advertir, no obstante, que desde el cierre de la escuela de *Villaverde* por falta de niños, éstos acuden a la de *Trucíos* del modelo B, por lo que las nuevas generaciones tendrán un conocimiento mayor. Algunos de los encuestados se lamentaron de que en su época al no darse euskera en la escuela de la localidad y pese a que cursaron BUP en Bizkaia al estar exentos no pudieron aprenderlo. En su momento hubo intentos para enseñar euskera en la escuela pero fracasaron, por lo que se dio el caso de una familia que llevó a su hijo a *Karrantza* para que estudiara en modelo D.

3) ¿Es usted partidario de que enseñen vasco en la escuela?

	2002		**1986**	
Sí	46	86,79%	22	75,8%
No	4	7,54%	–	–
Sin respuesta	3	5,66%	7	24,1%

Es singular que dos de las personas que se manifestaron en contra de la enseñanza, se posicionaron a favor de la integración en Bizkaia. Alguno de los encuestados se quejó de que al no haber habido euskera en la escuela y haber estado exento en secundaria en Bizkaia (en *Villaverde* no ha habido secundaria jamás), no ha podido acceder a puestos de trabajo en la Administración vasca.

En general, la gente más joven que mayormente no trabaja en el campo se lamenta de la falta de euskera en la enseñanza, tenga o no estudios superiores. La no implantación del euskera en la enseñanza es probablemente el motivo de que la escuela cerrase por falta de niños, ya que varias familias enviaban a sus hijos a *Turtzios* (en la actualidad modelo B) y a *Karrantza* para que estudiasen en euskera.

4) Inglés / vasco. ¿Cuál tiene para usted mayor interés?

	2002		1986	
Vasco	10	18,97%	10	34,4%
Inglés	28	52,83%	10	34,4%
Ambos por igual	13	24,52%	5	17,2%
Sin respuesta	2	3,77%	4	13,7%

Desde 1986 ha subido notoriamente el porcentaje de los que creen que el inglés es más necesario, ya que en aquel año estaban al mismo nivel. La influencia de los medios de comunicación en esta valoración se ve al dividir los encuestados por estudios. De los cinco titulados superiores –grupo que *a priori* debiera ser el más necesitado de inglés– tres valoraron igualmente las dos lenguas, uno el inglés y el que primó el euskera, sabía inglés perfectamente. El resto de las personas, que mayormente valoraron el inglés, se lamentaron de que el euskera es imprescindible en la Administración, tanto foral como autonómica, por ejemplo en la *Ertzaintza*.

5) Opinión respecto al vasco

	2002		1986	
Es necesario	24	45,28%	8	27,5%
Es conveniente	21	39,60%	10	34,4%
Es perjudicial	–	–	1	3,4%
Indiferente	4	7,54%	10	34,4%
Sin respuesta	4	7,54%	–	–

En 2002 solamente una –que no realizó la encuesta por no ser residente, pero que estuvo presente mientras la realizaba una amiga– declaró que era perjudicial. En 1986 el único que dijo que era perjudicial fue un joven de 14 años que había tenido problemas en el colegio.

6) Razones a favor o en contra del vasco

	2002		1986	
A favor:				
Para encontrar trabajo	27	50,94%	12	41,3%
Para participar en la cultura vasca	16	30,18%	7	24,1%
Porque lo hablaron mis antepasados	6	11,32%	2	6,8%
Otras	–	–	1	3,4%
Sin respuesta	4	7,54%	7	24,1%
En contra:				
No es más que una molestia	1	1,88%	–	–
Es tarde para aprenderlo	12	22,64%	9	31,0%
Es una excusa para difundir determinadas ideologías	5	9,43%	–	–
Sin respuesta	35	66,03%	20	68,9%

De entre las personas que dijeron que es una excusa para hacer política, dos valoraron el euskera como medio de encontrar trabajo, otros dos para integrarse en la cultura vasca y uno no respondió. De los que respondieron que el euskera sirve para participar en la cultura vasca, siete de dieciséis, también lo valoraron como herramienta para encontrar trabajo. De entre los que se mostraron a favor, por haber sido la lengua de sus antepasados, cuatro también lo valoraron como herramienta para encontrar trabajo y, finalmente, dos dieron importancia a la participación en la cultura vasca y al hecho de haber sido la lengua de sus antepasados.

La mayoría de los encuestados dijo expresamente que no había ninguna razón en contra del euskera.

7) ¿Escucha *Radio Euskadi*?

	2002		1986	
Sí	41	77,35%	13	44,8%
No	12	22,64%	16	55,1%
En caso de respuesta afirmativa, tipo de programas:				
En castellano	39	73,58%	10	34,4%
En vasco	2	3,77%	1	3,4%
Todos	–	–	2	6,4%
Frecuencia:				
Todos los días	25	47,16%	1	3,4%
Tres días a la semana	16	30,18%	7	24,1%
Un día a la semana	–	–	5	17,2%

8) ¿Ve la televisión vasca (*ETB*)?

	2002		1986	
Sí	51	96,22%	21	72,4%
No	2	3,77%	5	17,4%
Sin respuesta	–	–	3	10,3%
Frecuencia:				
Todos los días	24	45,28%	3	10,3%
Tres días a la semana	17	32,07%	2	6,8%
Un día a la semana	10	18,86%	13	44,8%
Sin periocidad	–	–	3	10,3%

De los dos únicos que no ven *ETB*, uno dijo que no veía la televisión y el otro que en su casa no se ve ese canal por problemas de recepción. Los programas más vistos son los informativos; los de entrevistas como: *Ésta es mi gente* y *Lo que faltaba* y los deportivos en euskera, únicos que ven habitualmente en euskera por los no vasco-hablantes. Dos madres dijeron que ven los dibujos animados y *Betizu* (un programa infantil) porque lo ponen sus hijos pequeños. En 1986, ETB2 no se podía ver sin antena especial y ETB1 no

se veía en todos los barrios; los que captaban esta última cadena la utilizaban para ver los partidos de fútbol, fundamentalmente.

9) ¿Lee algún periódico?

	2002		**1986**	
Alerta	–	–	–	–
El Diario Montañés	1	1,88%	1	3,4%
El Correo Español	16	30,18%	7	24,1%
Deia	1	1,88%	2	6,8%
Gara (*Egin* en 1986)	1	1,88%	1	3,4%
Egunkaria y *Gara*	2	3,77%	–	–
Deia y *El Correo*	2	3,77%	13	44,8%
El País	1	1,88%	–	–
Más de uno (6)	–	–	5	17,2%

La mayoría de los lectores habituales lo hace solamente un día a la semana.

10) ¿Es una ventaja saber vasco?

	2002		**1986**	
Sí	50	94,33%	22	75,8%
A medias	2	3,77%	4	13,7%
No	1	1,88%	2	6,8%
Sin repuesta	–	–	1	3,4%

La expresión más usada fue «el saber no ocupa lugar». La única persona que dijo que no es una ventaja saber euskera no contestó la mayoría de las preguntas, pero sí dijo que era una excusa para hacer política y se manifestó en contra de su enseñanza en *Villaverde*. Otra persona también dijo que no es

(6) En 1986 un encuestado manifestó que leía *Egin* y *El País*; dos *Deia* y *El Correo* y finalmente uno *Alerta*, *El Diario Montañés* y *El Correo*.

una ventaja, pero no completó el cuestionario (7) por lo que no se ha contabilizado. De los dos que en 1986 se manifestaron en contra, uno estaba a favor de la integración y el otro en contra.

11) ¿En qué consiste el valor del vasco?

	2002		**1986**	
Es una riqueza cultural que hay que conservar	23	43,49%	9	31,0%
Es un atraso y debe desaparecer	–	–	–	–
Sólo vale como lengua familiar	1	1,88%	1	3,4%
Sirve para encontrar trabajo	10	18,86%	7	24,1%
Es un lazo de unión entre los vascos	12	22,64%	6	20,6%
Otras	–	–	–	–
Sin respuesta	7	13,28%	6	20,6%

Es de destacar que de las diez personas que sólo lo valoraron como forma de encontrar trabajo, nueve estaban jubiladas.

En esta pregunta se dio la opción de dar más de una respuesta pero graduándolas. Entre las respuestas figura como segunda opción la laboral de forma mayoritaria.

- Es una riqueza cultural que hay que conservar y sirve para encontrar trabajo 10
- Es una riqueza cultural que hay que conservar y un lazo de unión entre los vascos 5
- Es un lazo de unión entre los vascos y sirve para encontrar trabajo 2

(7) Sólo contestó las diez primeras preguntas y dejó el resto sin contestar. Manifestó, entre otras cosas, que el castellano era el idioma más antiguo del mundo.

12) Introducción del vasco en la enseñanza en *Villaverde de Trucíos*

Esta pregunta ha sido suprimida en 2002 puesto que en la actualidad no existe escuela en *Villaverde*, por lo que los datos son únicamente de 1986.

Necesario	10	34,4%
Conveniente	15	51,7%
Sin interés	1	3,4%
No es conveniente	1	3,4%
Perjudicial	1	3,4%
Sin respuesta	1	3,4%

13) Futuro del vasco

	2002		**1986**	
Desaparecerá	1	1,88%	2	6,4%
Sólo lo hablarán los que lo hablan hoy	10	18,86%	2	6,4%
Se extenderá a todo el País Vasco	37	69,81%	19	65,5%
Sin respuesta	5	9,43%	6	20,6%

El único que dijo que en su opinión desaparecerá era vasco-hablante y se definió como «euskaltzalea», pero era pesimista en lo que se refiere al futuro de las lenguas minoritarias y la tan cacareada globalización.

14) Deseo sobre el futuro del vasco

	2002		**1986**	
Que desaparezca	–	–	–	–
Que lo hablen los que lo hablan hoy	12	22,64%	6	20,6%
Que se extienda a todo el País Vasco	29	54,71%	10	34,4%
Sin respuesta	12	22,64%	13	44,8%

La única persona que deseó que desapareciese es la que antes hemos mencionado que no era residente, por lo que no se contabilizó su opinión, ya que se limitó a contestar algunas preguntas de forma aleatoria en presencia

de una amiga que sí hizo la encuesta. De los doce que manifestaron que se mantuviese como hasta ahora, sólo dos estaban a favor de la integración en Bizkaia.

15) Actitud hacia la enseñanza del vasco a adultos en *Villaverde*

	2002		1986	
El ayuntamiento debe favorecer su enseñanza	32	60,37%	9	31,0%
El que quiera que lo aprenda por su cuenta	4	7,54%	10	34,4%
Se debe crear algún centro para aprenderlo	2	3,77%	8	27,5%
Sin respuesta	15	28,30%	2	6,8%

Los cuatro que dijeron que «el que quiera lo aprenda por su cuenta» además de declararse en contra de la integración en Bizkaia delataron una actitud hostil hacia el euskera. Los dos únicos que pidieron un centro de estudio son menores de 24 años, los cuales remarcaron la necesidad de aprenderlo y se lamentaron de no haberlo podido hacer en la escuela al haber estado exentos.

Características de los encuestados

En el *Nomenclátor del Instituto de Estadística* de 1999 *Villaverde* tenía 371 habitantes empadronados.

16) Edad de los encuestados

	2002		1986	
Menos de 15	3	5,66%	2	6,8%
15-24	7	13,20%	1	3,4%
25-34	5	9,43%	5	17,2%
35-49	15	28,30%	4	13,7%
50 ó más	23	43,39%	17	17,0%

17) Lugar de nacimiento y residencia

2002	País Vasco (8)	Villaverde	España
Lugar de nacimiento	22-41,50%	24-45,28%	7-13,20%
Residencia habitual	6-11,32%	47-88,67%	–

1986	País Vasco	Villaverde	España
Lugar de nacimiento	14-48,2%	13-44,8%	2-6,8%
Residencia habitual	13,7 - 4%	25-86,2%	–

La mayoría de los nacidos en el País Vasco, la práctica totalidad en 1986, son personas vinculadas familiarmente al pueblo. En algunos casos, fueron a *Villaverde* desde pueblos colindantes por razones de matrimonio y, en otros, aunque los padres residían en *Villaverde*, nacieron en pueblos limítrofes por cuestiones circunstanciales. En el caso de los más jóvenes, la mayoría nació en *Barakaldo* en el hospital de *Gurutzeta* / *Cruces*, al igual que casi todos los habitantes de Bizkaia de la misma época. Los más mayores nacieron en la casa natal de la madre siguiendo la costumbre de ir a dar a luz a la casa materna. No se trataba por lo tanto, salvo alguna excepción, de personas que se han desplazado a esta localidad desde lejos. En el caso de 2002 hay un pequeño porcentaje de personas que han ido ha vivir al pueblo sin tener ninguna relación con el mismo por la facilidad a la hora de construir casas.

18) Estudios

	2002		**1986**	
Sin estudios	–	–	5	17,2%
Primarios	25	47,16%	19	19,0%
Bachiller o FP	18	33,96%	3	3,0%
Universidad	4	7,54%	1	1,0%
Otros	1	1,88%	1	1,0%
Ns/Nc	5	9,43%	–	–

(8) En todos los casos se trata de Bizkaia.

El único encuestado que en 1986 tenía estudios universitarios era vasco-hablante.

19) Profesión

	2002		1986	
Ganadero (9) / Agricultor	19	35,89%	10	34,4%
Trabajador por cuenta ajena	9	16,98%	4	13,7%
Negocio propio	4	7,54%	1	3,4%
Profesión liberal	2	3,77%	1	3,4%
Estudiante	8	15,08%	2	6,4%
Ama de casa	7	13,20%	7	24,1%
Parado	2	3,77%	1	3,4%
Funcionario	1	1,88%	2	6,8%
Docente	1	1,88%	1	3,4%
Otros	1	1,88%	–	–

Las personas jubiladas en el momento de realizar la encuesta se contabilizaron por su anterior actividad laboral. Es de destacar que en 1986 los dos únicos funcionarios lo eran de la Diputación Foral de Bizkaia / Bizkaiko Foru Aldundia.

20) Acude a Bizkaia

	2002		1986	
Todos los días	24	45,28%	9	31,0%
A menudo	26	49,05%	14	48,2%
Algunas veces	3	5,66%	5	17,0%
Casi nunca	–	–	–	–
Sin respuesta	–	–	1	3,4%

Los motivos son diversos, pero los habituales son el trabajo, estudios (a estudiar así como a recoger a los hijos) y las compras; estas últimas se realizan fundamentalmente en Zalla.

(9) La mayoría se definió como ganadero.

21) Acude a Cantabria (fuera de *Villaverde*)

	2002		1986	
Todos los días	–	–	–	–
A menudo	7	13,20%	1	3,4%
Algunas veces	9	16,98%	7	24,1%
Casi nunca	37	69,81%	20	72,4%
Sin respuesta	–	–	–	–

De los encuestados seis remarcaron que sólo van a cuestiones oficiales, fundamentalmente por razones relacionadas con el ganado y la reciente concentración. En 1986 un señor de 76 años dijo explícitamente que «sólo a cuestiones oficiales» y remarcó «a la mili». Sorprendentemente, dicha respuesta fue repetida en 2002 por otro encuestado de parecida edad. Un matrimonio comentó que ella fue por primera vez a Santander cuando la hija pequeña cumplió 20 años y los llevó en coche. De entre los que figuran como «a menudo» dos van a visitar a la familia y dos por trabajo. En verano aumenta la frecuencia de los viajes entre los más jóvenes que acuden a las playas de Castro-Urdiales y Laredo.

22) Lugar de trabajo

	2002		1986	
País Vasco	19	35,89%	6	20,6%
Villaverde	30	56,66%	20	68,9%
Villaverde y el País Vasco	4	7,54%	3	10,3%

Exceptuando los trabajadores de hostelería el resto se dedica a la ganadería.

23) Lugar donde realiza sus compras

	2002		1986	
País Vasco	46	86,79%	18	62,0%
Villaverde	–	–	4	13,7%
Villaverde y el País Vasco	6	11,32%	6	20,6%
Otros	1	1,88%	1	3,4%

En *Villaverde* no hay más que una pequeña tienda y un camión-tienda que viene desde Zalla con productos diversos y recorre los diferentes barrios.

24) Se considera

	2002		1986	
Vasco	22	41,50%	15	55,1%
Cántabro, vinculado al País Vasco	7	13,20%	2	6,8%
Cántabro	7	13,20%	7	24,1%
Ns/Nc	9	16,98%	1	3,4%
Burgalés	1	1,88%	1	3,4%
Apátrida	1	1,88%	–	–

La persona que se declaró burgalés, aunque reside en *Villaverde*, vino de Burgos al casarse. En 1986 uno de los encuestados se definió como castellano. Hay que tener en cuenta que en aquella época estaba muy cercana en el tiempo la creación de Cantabria como comunidad autónoma escindida de Castilla la Vieja con el consecuente cambio de nombre de Santander a Cantabria.

25) ¿Está usted a favor o en contra de la integración de *Villaverde* en Bizkaia?

	2002		1986	
A favor	35	66,03%	19	65,5%
En contra	6	11,32%	2	6,8%
Sin respuesta	10	18,86%	3	10,3%
Le da igual	2	3,77%	5	17,2%

Dos de los encuestados, aunque se declararon cántabros, se mostraron a favor de Bizkaia por cuestiones de comodidad, tanto médicas, como de seguridad ciudadana, lamentándose de que la *Ertzaintza* no pudiese actuar en el municipio. Como ejemplo de las razones, cabe destacar que hay jóvenes que se empadronan en municipios colindantes, en casas de familiares, para figurar en el paro de Bizkaia y no en el de Cantabria.

Conclusión

Los resultados de las encuestan hablan por sí mismos y no hace falta mayor explicación. En los años pasados, es decir, en los siguientes a la realización de la primera encuesta el euskera, se ha normalizado, tanto en su conocimiento como en su valoración. Los únicos que se han manifestado abiertamente en contra, además de ser minoritarios, han sido mayormente personas mayores.

EUSKARA ETA EUSKALTZAINDIA EUROPAKO HIZKUNTZEN MOSAIKOAN

Bartzelonan, 2004.eko irailaren 16an

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Europear Batasuna benetako hizkuntzen mosaikoa dugu, alegia, zenbait koloretako harri bitxiez osaturiko eraikuntza. Eta aipatu koloreetako hizkuntzen artean bi nabarmenduko genituzke latina eta germaniera, baina ahantzi gabe, egungo behin behineko egoera kontuan harturik, hizkuntza zeltikoak eta berauen artean, aspaldidanik argi bikaina eskaintzen duen grekoa. Bestalde, bi «kolore» berri barneratu dira azken boladako Europear Batasuna handitzean/gehitzean, hots, eslaviera eta hizkuntza baltikoak. Ezinbestekoa dugu zera aipatzea, alegia, hauek guztiok indoeuropear kideak direla eta guztiek familiaz gaindiko taldea osatzen dutela. Bestalde, zera gehitu behar litzateke, hizkuntza indoeuropear ez direnen artean hizkuntza uralikoak: suomiera (finlandiera), estoniera eta hungaiera. Eta nahiz eta estatu mailako hizkuntza ez den arren, aipatu beharrean gara laponiera. Eta azkenez, hizkuntza arabiarra dena, eta zalantzarik gabe postindoeuropearra den maltera.

Baina niri Euskaltzainburu gisara natorrenez gero, gure hizkuntza den Euskarari buruz mintzatzea dagokit, alegia, Europako hizkuntzen mosaikoan barnean argi eta kolore berezia duen gure hizkuntzaren ordezkari gisara bainator. Euskara ezin dugu aipatu gabe utzi hizkuntzen barnean sartu ez eta sailkatu ere, eta,bestalde, Europa barnean aspaldiko urteetan iraun dueña baita. Gure hizkuntzak Exonimiara jotzen baldin badugu badauzka zenbait izendapen: *euskara, vasca, basca, basque, baskische*... eta abar.

1918an, Euskal Ikerketen Lehen Biltzarrean, Oñatiko Unibertsitatean, Bizkaiko Foru Aldundiaren proposamenez eta Nafarroa, Gipuzkoa eta Arabako aldundien babesarekin sortu zen Euskaltzaindia, Euskararen Akademia. Eta Francisco Franco hil eta hiru hilabetera,1976.eko otsailaren 20an, hemen, Bartzelonan, Juan Carlos Erregeren gidaritzapeko Ministroen Kontseiluak ofizialki aintzat hartu zuen Euskaltzaindia.

Instituzioak bi Sail dauzka: *Iker* eta *Jagon*, alegia, Hizkuntz Akademiaren betebehar behinenak hizkuntzaren ikerketa eta jagotea edo zaintzean dautza. *Iker* Sailak bost batzorde iraunkor dauzka (Hiztegigintza, Gramatika, Dia-

lektologia, Onomastika eta Literatura) eta, bestalde, *Jagon* Sailak bi batzorde. Eta hau guztia kontuan hartzekoa da Euskaltzaindiaren izatea ulertu ahal izateko.

Eta zokoratu eta gibelatu edo eta galerazitako hizkuntza izan dena Pirinoetako Euskal Herriko Iparraldean, Frantziak, Frantziako Iraultzaren jakobinismoak eta Hegoaldean, Espainiak hemeretzigarren mendeko Monarkia zentralistak, eta hauekin batera Foruen desegitearekin zenbait fasearekin batera. Eta hauek guztiok kontuan harturik ezina izan da Espainiako Erret Akademia eta Frantziako Académie Française delakoen kopia soil batez aurrera atera, zeren haien hizkuntzak –Gaztelania eta Frantsesa– aipatu estatuen Administralgoak babestuak baitira. Aipatu administrazioen eragina eta kontrola oso zehatza izan baita bai hezkuntza eremuan –eskoletan– eta bai administrazio eremuan ere. Eta etxeko hizkuntza –euskara– familia eta aisia denporetara mugatua izan baita. Eta zenbaitzutan azken eremuotan ere debekatua eta zigortua izan da.

* * *

Beraz, Espainiako Erret Akademiaren kaltetan ekin gabe Espainiako Estatuko beste hiru akademiek Kataluniakoa, Galiziakoa eta Euskal Herrikoek beste zeregin eta betebehar desberdinak dituzte. Aipatu hiru akademiok dituzte Onomastika batzordeak aipatu diziplina ikertu eta finkatzen ahalgintzen direna bai Toponimian, bai Antroponimian, Patronimian, Exonimian, eta abarretan. Eta batzordeak dagozkien Administrazio eta entitateekin. Guk dakigularik Espainiakoak ez du horren faltarik edo ezarik izan.

* * *

1968.urteko Arantzazuko, Oñati, Biltzarraren ondoren, Erakundeak euskara batuaren oinarriak ezarri baitzituen, Euskaltzaindiak eguneratze eta berregituratze berrira jo zuen. Eta 1970.eko hamarkadarekin hasten dira lanean lehen batzordeak, alegia, aditz batuarena, deklinabidearena, erakusleena, ortografiarena, ikastolek eskaturik eskola hiztegia –herri irakaskuntzan euskara galerazia baitzen– eta Onomastika.

Eta 1980.urtearen hasieran, Euskaltzaindiak sortzen ditu batzorde iraunkorrak eta baita ikerketetarako lan-batzorde bereziak. 1980.urteko abuztuan, Eusko Legebiltzarra eta Jaurlaritza eta lau Aldundiekin-Foru aldundietako –hausteskundeak 1979.urtean bozkatu ziren– Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak egiten dira munduan zehar euskara hizkuntzaren ikerketa nola aurkitzen den frogarazteko. Biltzar honen ondorioa zera izan zen, alegia, euskararen barne eta kanpo arautzearen bultzada sendoa.

Nik neure aldetik, Euskaltzainburu gisara, anitzetan adierazi dudan bezalaxe, Euskaltzaindiak azken hogeita hamar urteotan- araugintza eremuan, izugarrizko lana burutu du, eta laburra izateko adierazi/agindu didatenez, hemen eta orain ezin dut zehaztapenetan sartu. Baina, bai –1980 eta 1990. hogeika– dan, adierazi behar ditut zenbait zertzeladaz, jarraiko lau puntuok:

1. *Orotariko Euskal Hiztegia.* Gure Erakundeko *Iker* Sailburu izan zen Koldo / Luis Mitxelenak sortua, aro desberdinetako lexiko ondarearen biltze sistematikoa dena. Jadanik hamabost liburuki kaleratuak dira eta urte honen bukaerarako hamaseigarrena argitaratua izanen zaigu.

2. *Euskal Gramatika Lehen Urratsak.* Gramatika Batzorde iraunkorrak, jadanik, bost liburuki kaleratuak ditu, eta orain beste bi edo hiru liburuki argitaratzeko lanean dihardu.

3. *EHHA* edo Euskararen Hizkuntz Atlasa dela eta Dialektologia Batzordeak Euskal Herri osoko 145 tokitan burutu ditu inkestak. Inkestotan 2857 galdea egin dituzte euskal lexiko, morfologia, sintaxi eta fonetikaren inguruan. Inkestak burutuak dira 2.400 zinta grabatuak direlarik eta hauetan 4.000 orduko grabazioak barneraturik.

4. *Onomastika*. Onomastika Batzordeak zera paratu eta kaleratu du, alegia, *Euskal Izendegia* deritzana. Gizasemeen Izenena edo Ponte-izenena; eta Autonomia Erkidegoko herri eta herritarren izenena eta baita Nafarroakoa, Zuberoakoa, Lapurdikoa eta Nafarroa Beherekoa. Eta ezin ahantzi dugu Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak babesturik kaleraturiko *Euskal Deituren Izendegia*. Eta, ahantzi gabe, Exonomia eremuko ikerketak eta toponimiari buruzko hainbat diktamen edo irizpideak ere.

Eta ezin ahantzi bosgarren Batzorde Iraunkorra ere baduela Euskaltzaindiak, *Literatura*rena, hain zuzen, berriena izanik ere hainbat ikerketa burutu dituena Literatura ikerketaz eta herri literaturari buruz. Zenbait kaleratuak dira eta berehalaxe beste batzuk argitaratzeko paratzen diharduena.

* * *

Eta *Forum* honetako Zuzendari-Eragile Nagusia den Amorós i Pía jaunak deituak garen «Europako kultura desberdinen arteko elkarrizketa aberasgarria» deritzan topagunea kontuan harturik, eremu txikietako Europako hizkuntzen topagune honetan azken boladan Europaren Batasuna handitzen doan heinean herri desberdinen hizkuntzek tokia duten moduan, Euskarak, –Estatu biren artean aurkitzen denak– Europa kultura eta hizkuntza anitzekoan, aspaldiko urteotako gogoa berpiztu nahi du, ofizialtasun estatusa lortzeko ametsarekin.

Egun ingelesa hizkuntza joria dugu –munduan zehar nagusitu zaiguna– Erdi Aroan latina izan zen bezalaxe eta mila bederatziehun eta hirurogei arte Eliza Katolikoaren hizkuntza ofiziala. Vatikano II. Kontzilioak Liturgiarako

munduko herri-hizkuntza guzti-guztien berdintasuna erabaki zuen. Adibide bikaina Europear Batasunarentzat! Baina kultur ekologia, aniztasun adierazkorra eta abarrengatik, Laponiatik Galiziara beharrezkoa jotzen dugu Europan zehar kultur aniztasunaren izenean hiztun gutxidunen erabilera –eta batzutan ez hain gutxidunena zuon kasuan Katalanarena– diseinatu eta plangintza aurrera eraman ahal izatea. Bai Akademiek eta bai antzeko elkarte eta instituzioek batera lanean ekin behar genuke gure hizkuntzak Europa barnean onartuak eta erabiliak izan daitezen.

Eta zergait ezin dugu Hizkuntz Atlas Europearra burutzera jo? Edo eta Italiako toskanar hiriko Pisan, XXII.Onomastika Zientzien Nazioarteko Biltzarrean, zeina ospatuko den 2005.urteko udan, Onomastika europearrak Onomastika orokorrari ekar diezaizkion ekarpenak zeintzuk liratekeen?

Eta bukatzeko bi gogoeta ekarri nahi nituzke zuon aurrera, alegia: lehena, euskarak, gutxienen hizkuntzak eta bakanduak Akademia modernoa eta sendoa behar luke bai *Iker* eremurako eta bai *Jagon* esparrurako ere. Bigarrena: poztasun handiz hartzen dugu Kultura europearren Idazkaritza Iraunkorrean parte hartzeko proposamena. Idazkaritza honen egoitza hiri anfitrioia berau-Bartzelona, alegia, izan daiteke.

Honela ba, Europaren Batasun berrian hizkuntzaren normalkuntza eremu zabaleko plangintza erkidetua burutu ahal genuke, Europako hizkuntzen mosaikoko harri bitxi eta bereziak landuz.

Esan dut.

EL EUSKERA Y SU ACADEMIA EN EL MOSAICO LINGÜÍSTICO EUROPEO

Barcelona, 16 de septiembre de 2004

Jean Haritschelhar,
presidente

La Unión Europea es un verdadero mosaico lingüístico, es decir, una obra taraceada de piedras preciosas de varios colores. Destacaríamos los colores de las dos grandes familias lingüísticas: la latina y la germánica, pero sin olvidar, a pesar de su precaria situación presente, el matiz de las lenguas célticas y el que brilla desde la antigüedad clásica, la lengua helénica. Dos nuevos «colores» se han incrustado con la reciente incorporación en la Unión, las lenguas eslavas y las bálticas. Huelga decir aquí que todas éstas pertenecen a la suprafamilia indoeuropea. Cabría añadir entre las no indoeuropeas a las uráli-cas: finlandés, estonio y húngaro, sin olvidarnos, aunque no sea lengua de Estado –por ello lo mencionamos aquí–, del lapón. Finalmente, el maltés, lengua arábiga, sin duda postindoeuropea.

Pero a mí me toca, como presidente de Euskaltzaindia, Real Academia de la Lengua Vasca, hablar de un idioma con color y luz propios en este mosaico lingüístico europeo. No pertenece a ninguna de las grandes o pequeñas familias lingüísticas mencionadas, pero es sin duda europea desde hace varios milenios. Es el *euskera* o *euskara* en su nombre autóctono o *vasca, basca, basque, baskische,* etc. en sus formas exonímicas.

A propuesta de la Diputación de Bizkaia y la aceptación y patrocinio de las otras tres Diputaciones de Navarra, Gipuzkoa y Álava y durante el transcurso del primer Congreso Internacional de Estudios Vascos, celebrado el año 1918 en la antigua Universidad de Oñati, se fundó la Academia de la Lengua Vasca, que en euskera se denominaría *Euskaltzaindia*. Tres meses después de la muerte de Franco, el Consejo de Ministros –en reunión celebrada bajo la presidencia del Rey, precisamente aquí, en Barcelona, el 20 de febrero de 1976– reconocía oficialmente a nuestra Academia.

Iker eta *Jagon* (investigar y tutelar) son los dos grandes cometidos de nuestra institución académica. Investigar y normativizar, por un lado, tarea que hace a través de las cinco comisiones permanentes de la *Sección Iker* (Lexicografía, Gramática, Dialectología, Onomástica y Literatura) y la tutela del

idioma, por otra parte, a través de las dos comisiones de la *Sección Jagon*. Esto es muy importante para comprender la naturaleza de Euskaltzaindia.

Una lengua marginada, postergada, cuando no prohibida por ambos Estados, desde el triunfo del jacobinismo durante la Revolución Francesa al Norte de los Pirineos y por la Monarquía centralista española decimonónica, en coincidencia con las distintas fases de las aboliciones forales, no podía normalizarse con una simple copia de las dos Academias, la Real Española y la Académie Française, cuyos idiomas y su respectiva normalización estaban cumplidamente atendidos por las dos Administraciones, férreamente centralistas con todo su aparato periférico, que llegaba hasta el municipio más minúsculo y alejado y su pequeña escuela unitaria, donde la lengua materna sólo se podía hablar en el recreo. Y tampoco siempre.

* * *

Por ello, sin perjuicio de nuestro respeto a la Real Academia Española, entiendo que las otras tres Academias, la Catalana, la Gallega y la Vasca, tienen otros cometidos. Las tres tienen unas Comisiones de Onomástica que investigan y fijan esta disciplina en sus diversas especialidades: toponimia, antroponimia, patronimia, exonimia, etc. y colaboran con las respectivas Administraciones y entidades. Que sepamos, a la española no le ha hecho falta.

* * *

Tras el Congreso de Arantzazu de 1968, que fijó las bases para una lengua literaria común, Euskaltzaindia emprendió una labor de modernización. Es con el comienzo del nuevo decenio cuando se crean las primeras comisiones, se acometen las tareas de estandarización del idioma en la ortografía, en el sistema verbal, en la declinación, en el vocabulario escolar para las ikastolas –el euskera seguía prohibido en la enseñanza pública– y en el campo de la onomástica.

Es a principios de los ochenta cuando la Academia puede acometer nuevos retos, sentando las bases para las comisiones permanentes y sus grupos de trabajo especializados. En agosto de 1980, creados ya el Parlamento y Gobierno Vascos y las cuatro Diputaciones –las cuatro elecciones forales habían tenido lugar el año anterior– se celebra el Congreso-Encuentro Internacional de Vascólogos, para un conocimiento de la situación y puesta en común de los estudios de Euskerología en el mundo. Este Congreso sirvió de base de lanzamiento para la normalización interna y externa de la lengua.

Muchas veces he dicho que Euskaltzaindia en estos últimos tres decenios ha hecho una labor normativizadora ingente, que, en aras de la brevedad, no

puedo desarrollar como quisiera. Permítaseme, no obstante, extenderme en cuatro puntos, como los cuatro puntos cardinales que se han elaborado y desarrollado en los decenios del 80 y del 90:

1. El *Orotariko Euskal Hiztegia*, es decir, el Diccionario histórico del euskera, obra magna creada por Luis Mitxelena y que esperamos finalice con la publicación del decimosexto volumen este año. Ha supuesto la recopilación y sistematización del patrimonio lexical de las diferentes épocas.

2. *Euskal Gramatika Lehen Urratsak.* Respecto de la gramática, nuestra comisión permanente ha preparado la publicación de cinco tomos, que se consideran normas básicas para la gramática del euskara y que culminarán con otros dos o tres volúmenes más.

3. *E.H.H.A.* Es decir el Atlas Lingüístico del Euskara, en el que el equipo técnico de la Comisión de Dialectología ha realizado encuestas en 145 localidades de todo el País, formulando 2.857 preguntas sobre léxico, morfología, sintaxis y fonética. El trabajo de campo está finalizado ya con 2.400 cintas, que suman un total de 4.000 horas de grabación.

4. *Onomastika.* Esta comisión ha preparado y publicado ya cuatro ediciones del *Euskal Izendegia* o Nomenclátor de Nombres de Pila; los nomenclatores con sus gentilicios, de las entidades de población de la Comunidad Autónoma Vasca, de Navarra, de Zuberoa, Lapurdi y Baja Navarra; el *Nomenclátor de apellidos vascos.* No podemos olvidar tampoco las normas en materia de exonimia, o decenas de dictámenes sobre toponimia.

Existe, asimismo, una quinta comisión permanente, la de *Literatura*, que es la más reciente y que realiza también un gran trabajo sobre investigación literaria y literatura popular.

* * *

En ese «diálogo intercultural enriquecedor de las diversas culturas europeas», al que nos convocaba el Sr. Amorós i Pía, Director Ejecutivo General de este Fórum, tienen su sitio las lenguas europeas de reducida dimensión, algunas lenguas de Estado de las nuevas naciones recién incorporadas a la Unión Europea y otras como el euskera, que estando a caballo de dos estados aspiran legítimamente a idéntico status de oficialidad en esa Europa multicultural y multilingüe desde hace muchos siglos.

Podrá considerarse al inglés como «lingua franca», como lo era el latín en el Medioevo y hasta los años sesenta lengua oficial en la Iglesia Católica. El Concilio Vaticano II decretó la igualdad entre todas las lenguas vernáculas del mundo para la liturgia. Buen ejemplo para la Unión Europea. Igual por razones como la ecología cultural, la riqueza idiomática, la variedad expresiva y otros muchos aspectos, se hace necesario que, desde Laponia a Galicia, se

diseñe y planifique un proyecto multicultural europeo que asegure la presencia de estas lenguas pequeñas –o no tan pequeñas, como el catalán–. Sus respectivas Academias e instituciones similares hemos de ofrecernos para participar en primera línea en esa tarea.

¿Por qué no se puede aspirar a un atlas lingüístico europeo? O en el XXII Congreso Internacional de Ciencias Onomásticas, que se celebrará el próximo verano en la ciudad toscana de Pisa, ¿no podría debatirse sobre la aportación de la onomástica europea a la cultura universal?

Quisiera terminar con dos reflexiones: la primera, que una lengua como el euskera, minoritaria y minorizada, necesita de una institución académica moderna y potente en su labor investigadora, tuteladora y normativizadora, para los retos que se le plantean en la Europa del siglo XXI. La segunda, que nos sumamos gustosos a esa propuesta de creación de un Secretariado Permanente de las Culturas Europeas. Su sede podría ser esta ciudad anfitriona.

Podríamos realizar así un plan mancomunado en el amplio campo de la normalización lingüística de la nueva realidad de la Unión, trabajando cada una de las piedras preciosas y singulares del mosaico lingüístico europeo.

EUSKALTZAINDIAREN AGERRALDIA NAFARROAKO PARLAMENTUAK FORU KOMUNITATEAN EGIN ETA GARATZEN DEN HIZKUNTZA POLITIKA AZTERTZEKO ERATUTAKO BATZORDEAREN AURREAN

Iruñean,
2004ko irailaren 8an.

Andres Iñigo,
Euskaltzaindiaren
Nafarroako ordezkaria

Parlamentari jaun-andreak:

Lehenik eta behin, agerraldi honetan ordezkatzen dudan Euskaltzaindiaren izenean, eskerrak eman nahi dizkizuet, Nafarroako Foru Komunitatean egin eta garatzen den Hizkuntza Politika aztertzeko, Nafarroako Foru Parlamentuan sortu duzuen Batzorde (Ponentzia) honetara gonbidatua izateagatik.

Sarrera gisa

Euskaltzaindia Nafarroako Foru Diputazioak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiekin batera 1918an sortutako Euskararen Akademia da. Ondoren, 573/1976 Dekretuaren bidez Euskaltzaindiari Euskararen Errege Akademia izatea aitortu zitzaion eta bere jarduera eremua Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako probintzietara hedatzen da.

Erret Dekretuan aitortzen zaizkion eginbehar nagusiak bi atal hauetan sailkatzen dira:

a) Iker Saila. Honen helburua hizkuntza lantzea, ikertzea eta arautzea da, saila osatzen duten hiztegigintza, gramatika, dialektologia, onomastika, literatura,... batzordeen bidez.

b) Jagon Saila. Honen esku dago hizkuntza eskubideak zaintzea, euskararen erabilera sustatzea, hiztunek erabiltzeko moduko hizkuntza lantzea, Euskaltzaindiaren jarduera eremuan euskara maila guztietara za-

baltzea, denen komunikabide izan dadin. (Ik. Dekretuaren 1. artikuluaren e, f, eta g atalak).

Euskaltzaindia eta Nafarroako Foru Komunitateko hizkuntza politika gaurdaino

Euskaltzaindiak bere sorreratik, eta bereziki 1976ko Dekretuaz geroztik, arduratsu jokatu du egokitu zitzaizkion eginbeharrak betetzen eta gorago aipatutako euskararen jagole arduretan kezka bizia agertu izan du beti. Nafarroako Foru Komunitateari dagokionez, kezka hori oraindik sakonagoa izan dela argi aski egiaztatzen dute Akademiak 1979az geroztik egindako adierazpenek.

Hona hemen, laburbilduz, epe horretan egindako 13 adierazpenen zioa:

- 1979. Kezka larria azaldu zien Parlamentuari eta Diputazioari, «Junta Superior de Educación» zelakoaren bidez kudeatu nahi izan ez zuelako nafarrek gogotsu espero zuten elebitasun dekretua, horrela Foru Komunitatea gai honetan inolako lege babesik gabe utzi baitzuten.
- 1982. Foru Hobekuntza Legearen 9. artikuluak euskarari diskriminaziozko tratamendua eman ziolakoan, beste inon ez bezala, gure hizkuntzaren lur eremua mugatzen duelako eta, ondorioz, euskara Nafarroa osoaren ondasuna dela ukatzen.
- 1985. Nafarroako Euskararen Legeak, beste gainerako erkidegoetako hizkuntza politiketan ez bezala, Foru Komunitatea hiru lurraldetan zatitzen zuelako eta, horrenbestez, lege honek oraindik gehiago estutzen zituelako Espainiako Konstituzioaren 3. artikuluak eta Nafarroako Foru Hobekuntzaren 9. artikuluak jarritako hizkuntza mugak.
- 1986. Estatuko Hauteskunde Batzordeburuari, Nafarroako hauteskunde txarteletan euskara erabat baztertua utzi eta, ondorioz, nafarren hizkuntza eskubideak urratzeagatik.
- 1991. Nafarroako Gobernuari, FM irrati esleipenean emandako zazpi lizentzia berrien artean euskaraz emititzen duten irrati bakar bat ere ez sartzeagatik, kontuan izanik egoera berri horretan lizentziadun hogei irratiek gaztelania hutsean emititzen zutela. Bidegabekeria hori berehala zuzen zezala eskatu zitzaion Gobernuari.
- 1994. Nafarroako Parlamentuaren aitzinean, euskararen legeak gure hizkuntzari irakaskuntzan, administrazioan eta komunikabideetan markatzen zizkion eremu meharrak zabaldu ahal izateko alderdi politikoen alderdikeriagatik galdutako aukera salatu zuen. Aldi berean, euskara alderdikeria guztietatik kanpo utzi behar zela gogorarazi zien.

- 1995. Eusko Ikaskuntzarekin batera, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren aurrean salaketa egin zuen, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko auzi-epaimahaiak 1994ko irailaren 19an emandako sententzia zela eta. Bertan, besteak beste, gisa honetako baieztapenak egiten ziren: Iruñean ez zela bertan jaiotako euskaldunik, euskaraz soilik egindako irrati programazioa kultura garapen orokorrerako kaltegarri izanen litzatekeela eta, gainera, herritar gehienak gutxienekin alderatuta diskriminatuak izanen liratekeela.

- 1997. Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko auzi-epaimahaiak emandako sententziagatik, non atzera bota zuen Barañaingo Udalak euskara jakitea beharrezkotzat joz egin zituen irakaskuntza eta administrazio arloetarako zenbait lanpostu dei.

- 1997. Nafarroako Gobernuaren Lehendakari jaunari, Gobernua FM irrati lizentzien deialdi berria prestatzen ari zela eta. Bertan eskatzen zitzaion Nafarroak une horretan zuen hizkuntza egoera kontuan hartuz, bitarteko egokiak jar zitzala eta, horrenbestez, frekuentzia berrien esleipenean gizartearen kopuru handi baten hizkuntza eskubideak errespeta zitzala, Nafarroa osoko euskaldunen eskubideak eta, bereziki, Iruñerrikoenak, hiriburuaren inguru honetan bizi baitzen Erkidegoko hiztunen kopururik handiena.

- 1998. Nafarroako Gobernuari, FM irrati lizentzien esleipenaren berehalako berrikusketa eskatu zitzaion. Euskaltzaindiaren ustez, esleipen horrek agerian utzi zuen Gobernuak ez zuela euskara Foru Komunitate osoko hizkuntza bizitzat hartzen eta, ondorioz, nafarren hizkuntza eskubideak urratzen zituela.

- 2000. Nafarroako Gobernuaren Lehendakariari. Batetik, azken aldi horretan Nafarroako politikarien artean euskararen inguruan sortu eta plazaratutako eztabaida kezkagarria adierazi zitzaion eta, bestetik, Gobernuak eraberritutako Hizkuntza Politika eta Unibertsitateko Zuzendaritza Nagusiak egunetik egunera nafar gehiagok hautatzen zuten *lingua navarrorum*-aren presentzia, erabilera eta sustapena berma zezala eskatu. Halaber, Foru Komunitateko hizkuntza legeria bere edukian eta espirituan bete eta nafar guztien hizkuntza eskubideak berma zitzala ere eskatzen zitzaion.

- 2001. 372/2000 abenduaren 11ko Foru Dekretuaren salaketa. Euskaltzaindiaren iritziz, dekretu horrek Espainiako Konstituzioa, Nafarroako Foru Hobekuntzarako Legea eta Nafarroako Euskararen Legea urratzen zituen. Horretaz gain, nazioarteko itun eta arauen aurka zihoan, besteak beste, Espainiako Estatuak Europan sinatu berri zituen itun eta arauen aurka. Aldi berean, Euskaltzaindiak gogorarazi nahi izan zuen Nafarroan, legez, bera dela hizkuntza gaietarako erakunde ofiziala eta

Nafarroako Gobernuari espresuki eskaini bazion ere bere aholkua, Gobernuak ez ziola legeriari buruzko kontsultarik egin.

- 2002. Azkenik, Euskaltzaindiak, Nafarroako Euskararen Kontseiluan dituen bi kideen bitartez, ezezko botoa eman zion 29/2003 otsailaren 10eko Foru Dekretuari. Besteak beste, honako arrazoi hauengatik:

  a) Batetik, proposatutako testuak Euskararen 18/1986 Foru Legeak ezarritako oinarrizko helburuak murrizten zituelako. Horien artean legeak espresuki aipatzen zituen hauek: «herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea» eta «euskararen berreskurapena eta garapena begiratzea, bere erabilpena sustatzeko neurriak adieraztea».

  b) Bestetik, proposatutako testuak isildu egiten zituen ordeztu nahi zuen 135/1994 Foru Dekretuan egindako aipamen batzuk. Besteak beste, honako hauek:

  – Euskara «Nafarroako berezko hizkuntza» dela.

  – Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak, 1992ko ekainaren 25ean, konbentzio maila duen Eskualdeetako Hizkuntzen edo Hizkuntza Gutxiagotuen Europako Gutuna, urte bereko azaroaren 5ean, hamaika estatu kidek sinatu zutena, besteak beste, Espainiako estatuak. Honek, gainera, 2001ean berretsi zuen.

  – Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren zeregina zen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Departamentuen arteko koordinazio organo gisa aritzea, hizkuntza plangintza prestatzeari dagokionez. Halaber, berari zegokion toki entitateekin eta bestelako administrazio publikoekin lankidetzan aritzea eta Nafarroako Foru Komunitateko eremu mistoan, zehatzago oraindik, bertako administrazioaren zerbitzu nagusietan, administrazio zirkuito elebidunak ezartzea, zerbitzuak euskaraz ematea bermatu ahal izateko, erabiltzaileek hala eskatzen zutenean.

  – Eremu mistoan, agiriak, inprimakiak, irudiak, oharrak, argitalpenak eta abarrekoak elebitan idatzi behar direla edo elebitako erabilerara joko dela bermatzea.

  – Euskara jakitea nahitaezkotzat hartzea lanpostu jakin batzuk eskuratzeko; Nafarroako euskal eremutik beste eremuetara joateko funtzionarioen leku aldatzeko lehiaketetan parte hartu ahal izatea; Nafarroako Foru Administrazioaren lanpostu jakin batzuk eskuratzeko eta hurrengo lehiaketetan parte hartzeko euskaraz jakitea ehunekoetan balioestea.

Azpimarratzekoa da Euskaltzaindiak bere adierazpen guztietan argi eta garbi utzi nahi izan duela:

- Bere eginbeharra nafar guztien ondare den euskara zaintzea eta defendatzea dela.
- Dagokion helburu hori lortu ahal izateko beti aritu izan dela elkarlanean Nafarroako Erakundeekin, aldian aldiko erregimen politikoarekin alegia, baina jakinik Euskaltzaindiaren egitekoa edozein interes politiko eta ideologikoren gainetik dagoela.
- Unean uneko abagune politikotik at gelditzen dela, hain zuzen ere, politika Akademiari ez dagokion esparrua delako.
- Euskarak interes politikoen gainetik egon behar duenez gero, politikoei behin eta berriz eskatu izan diela euskara alderdi bakoitzaren ideologia eta komenentziaren gainetik jartzeko eta alderdien arteko liskarretatik kanpo uzteko –jarduera politikoan zilegi badira ere–.
- Behin eta berriz adierazi nahi izan duela lankidetzan aritzeko eskaintza, betiere xedea, alderdien interes politikoen gainetik, euskararen defentsa eta gure hizkuntza Nafarroako Foru Komunitateko gizartearen lokarri sendoa bihurtzea denean.

Ildo horretatik, hain zuzen, Nafarroako Gobernuaren 29/2003 Foru Dekretuari on ikusia emateko izandako Euskara Kontseiluaren bilkuran, Euskaltzaindiak ezezko botoa emateareki batera, argi berretsi zuen Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean aritzeko jarrera, betiere, bi erakundeon arteko harremanen xedea, euskara landu eta garatzea baldin bada, Nafarroako Foru Komunitateko berezko hizkuntza izateagatik dagokion mailaren arabera.

Lankidetza horren lekuko dira 1989az geroztik, Euskaltzaindiak bere jarduera eremuko bost Administrazio Publikoekin, hots, Nafarroako Gobernuarekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiekin sinatu dituen Hitzarmen bateratuak, eta 2002az geroztik indarrean dagoen aldebiko Hitzarmena Nafarroako Gobernuarekin, bere Hizkuntza Politika eta Unibertsitateetako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez.

Euskaltzaindia Nafarroako Foru Parlamentuko Batzordeak egindako proposamenaren aurrean

Laburtu dizkizuegun adierazpenen bitartez, ikusi ahal izan duzue Euskaltzaindia Dekretuz aitortzen zaizkion eginbehar nagusiak betetzen saiatu dela, eta horien artean espresuki eskatzen zaizkion hauek: hizkuntza eskubideak zaintzea, euskararen erabilera sustatzea, hiztunek erabiltzeko moduko hizkuntza lantzea eta euskara maila guztietara zabaltzea, denen komunikabide izan dadin.

Gehitu diezaiegun eginbehar horiei, Espainiako Estatuko eta Europako araudiek dakartena:

a) Batetik, Espainiako Konstituzioak 3. artikuluan dioena:

– «Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien autonomia erkidegoetan, beraietako estatutuekin bat etorriz» (2. puntua).

– «Espainiako hizkuntza-moten aberastasuna kultur ondarea da, eta ondare horrek begirune eta babes berezia izango du» (3. puntua).

b) Bestetik, Erregioetako eta Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Kartak 7. artikuluan ezartzen dituen helburu eta oinarriak, hots, «hizkuntza horiek hitz egiten diren lurraldeetan [...] politika, legeria eta jarduera praktikoa hurrengo helburu eta oinarrietan errotuko dute»:

– «Erregioetako edo gutxiengoen hizkuntzak kultur aberastasunaren adierazle gisa onartzean» (a puntua).

– «Erregioetako edo gutxiengoen hizkuntza bakoitzaren eremu geografikoaren errespetuan, halako moldez, non aldez aurretikako zatiketa administratiboak zein berriak eragozpen izango ez baitira erregioetako edo gutxiengoen hizkuntza horien sustapenerako» (b puntua).

– «Erregioetako edo gutxiengoen hizkuntza bat erabiltzen den eremuan bizi eta berau ezagutzen ez dutenei, hala nahi balute, hizkuntza hori ikasteko baliabideen horniketan» (g puntua).

Araudi horien ildotik, argi eta garbi ondoriozta dezakegu, Nafarroako legeriaren berrikusketa beharrezkoa dela. Parlamentu honek erabaki beharko du zein neurritan, begi bistan izanik, betiere, Nafarroako Erkidegoan euskara bizitzaren harremanetarako eta kultur eta gizarte komunikaziorako tresna izateko eskura jarri behar diren aukerak.

Aipatutako legeriaren aitzinean, ez dirudi inork zalantzan jar dezakeenik zenbait printzipio, hala nola, euskara gure Erkidegoko kultur ondaretzat jotzea, ondare horren jabe diren nafarren hizkuntza eskubideak bermatu behar izatea, edo euskara gutxiengo baten hizkuntza den heinean bere erabilera eta sustapenerako neurriak hartu behar izatea. Hauen aitortzea eta berauek lortzeko beharrezkoak diren baliabideak ezartzea botere publikoen betebeharra da. Euskaltzaindiari dagokio, ordea, printzipio horiei erabateko sostengua eman eta bete daitezen botere publikoei galdegitea. Hortaz, Euskaltzaindiaren eskumenetik at geratzen dira botere publikoek jarri beharreko baliabideak, markatu beharreko egutegiak, neurrien erritmoak, etab. Dena dela, onuragarri litzateke neurri horiek guztiak interes jakin batzuen edo unean-uneko abagune edo aukera politikoen gainetik jartzea. Hori da, hain zuzen, nafarrak ordezkatzen gaituzuen Parlamentu honetako kide eta gure Legegintza-Boterea osatzen duzuenon eskumena. Zuei dagokizue, bada, Nafarroan 1982 eta 2004 urteen artean egin den eta egiten ari den hizkuntza politikaren behar-beharrezko azterketa egin ondoren, hartu beharreko neurriak erabakitzea eta prozedura egokiak ezartzea.

Edozein modutara, eta oroz gain, Euskaltzaindiaren izenean zorionak eman nahi dizkiot Parlamentu honi Foru Komunitateko hizkuntza politikaren garapenaren azterketa xede duen Ponentzia eratzeko hartutako akordioagatik, besteak beste, honako neurri hauek hartzera bideratua dagoena:

a) Erkidego osoko irakaskuntza ez-unibertsitarioko maila guztietan, eta baita Nafarroako Unibertsitate Publikoan ere, nafarrei irakaskuntza euskaraz jasotzeko aukera bermatzea.

b) Nafarroan euskaraz emititzen duten komunikabide legeztatuen presentzia bermatzea.

c) Nafarrek Administrazioekiko harremanetan euskararen erabilera bermaturik izatea, eta gaur den egungo Nafarroako Gobernuaren administrazio birtualean bertako bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea.

Parlamentu honi dagokio Nafarroako hizkuntza politika gauzatu eta garatzeko legea ezartzea, eta hori da, hain zuzen, 18/1986 Foru Legea onartzearekin egin zuena. Hala ere, legearen garapenerako ondoren egiten diren dekretu, agindu, ebazpen eta arauak erabakigarriak izaten dira, eta jakina da dokumentu horien bitartez legea bera gutxieneko edukietara murriztu edota saihesten ahal dela legearen benetako muina.

Horrelakorik gerta ez dadin, premiazkotzat jotzen dugu Parlamentuak eratutako legea oso zehatza izatea, bere garapena ahalik eta hobekien bermatu ahal izateko, azken batean, bere aplikaziorako ondorengo araudiek ez dezaten legea bera itxuralda.

Gure ustez, Parlamentu honen legeak oinarrizko printzipiotzat hartu beharko luke euskara Foru Komunitatearen hizkuntza eta ondare kulturala dela eta, hortaz, nafar guztiena. Horregatik, –Europako Kartak dioenaren ildotik– gaur egungo zatiketa administratiboak, edo egin litezkeenak, ezin dira, inola ere, hizkuntzaren sustapenerako eragozpen izan. Hori dela eta, lege horrek honako printzipio nagusi hauek bermatu beharko lituzke:

a) Nafar guztien eskubidea euskara jakin eta erabiltzeko. Beste edozein hizkuntza bizi bezalaxe, hizkuntza dinamikoa eta, beraz, bizitzarako komunikazio tresna izan dadin, hala kultur nola gizarte komunikazioan.

b) Euskararen berreskurapen eta garapenerako babesa Nafarroan. Horretarako, argi eta garbi ezarri beharko lirateke sustapen eta erabilerarako baliabideak, euskara jakin eta erabiltzeko neurriak eta, aldi berean, erabat saihestu, hizkuntza dela eta, izan daitezkeen bazterketak.

c) Herritar bakoitzak hautatzeko duen eskubidea errespetatuz, euskararen ikasketa eta erabilera bermatzea.

Orain arte azaldutakoan oinarrituz, Ponentzia honek jakinarazi digunez, hartu gogo dituen neurrietan –ondoko ataletan azaltzen ditugunetan, alegia–, gure ustez, oinarrizko diren zenbait eskubide bermatu beharko lituzke:

➢ Nafarroako Administrazio Publikoekin harremanak euskaraz izan nahi dituzten nafarren eskubideak bermatu ahal izateko, premiazkoa da:

– Herritarrekin harreman zuzena duten eremu euskaldunean kokatuak dauden administrazio zerbitzu publikoetako langileak, hala nola, idazkari, administrari, sendagile, erizain etab. euskaldunak izatea.

– Nafarroako hiriburuari eta Iruñerriari dagozkien hizkuntza eremuak berrikustea. Gaur egun hiriburua bera eta Iruñerriko udalerri batzuk «eremu mistoa» deitutakoan daude, baina beste batzuk, «ez euskaldunean», esaterako, Galar –bere garaian eremu mistoan sartu ez zen Iruñerriko zendea bakarra–, Aranguren eta Elortz ibarrak edo Noaingo udalerri berria. Gaur egun Nafarroako euskaldunen erdiak baino gehiago biltzen dituen eremu zabal honetan kokatuak daude Nafarroa osoko zerbitzu administratibo zentralak (hots, Nafarroako herritar guztientzako direnak). Oraindik gehiago, Iruñea bere izen bera daraman merindadeko eta auzi barrutiko hiriburua da, eta bere baitan hartzen du «eremu euskaldun» izendatutako Nafarroako lur zatirik handiena, Nafarroako biztanle euskaldunak ia-ia bere osotasunean, alegia.

Agoitzeko auzi barrutiak ere berrikusketa bera merezi du, hiri honetan daudelako Nafarroako eremu euskaldunaren zati nabarmen bati dagozkion zerbitzuak, esate baterako, lehen instantziako epaitegia, jabegoaren erregistroa, notaritza, etab.

Administrazioaren eta biztanleen arteko harremanak bermatzeko, eremukako banaketa berez eragozpen handia baldin bazen, azken Foru Dekretuan (29/2003) araututako neurriek, praktikan, erabat ezinezkoa bihurtu du jarduera hori, «hizkuntza zirkuitoak» deitutakoen ezabaketaren bitartez, eta egungo bide seinale, errotulu, zigilu ofizial, iragarki, publizitate eta abarrei dagozkien araudien bitartez.

➢ Irakaskuntzari dagokionez, azpimarratzekoa da irakaskuntza ez-unibertsitarioa dela, zalantzarik gabe, 18/86 Foru Legetik abiatuta Nafarroan garapen handiena lortu duen esparrua, euskararen berreskurapen, sustapen eta erabileraren alorretan.

Hala ere, egungo egoerak zenbait nafarren hizkuntza eskubideak sistematikoki urratzen ditu. Hona hemen errealitate horren zenbait adibide:

– Eskolara joateko adinean egon eta lan edo bestelako arrazoiengatik eremu ez euskaldunera joatera behartuak diren familien seme-alabak.

– Egungo Iruñerriaren hizkuntza eremuak. Unitate geografiko zabal bat izanik, bere baitan eremu mistoan kokatutako udalerriekin batera eremu ez euskaldunekoak ere biltzen ditu. Azken hauek arestian aipatutakoak dira (Galarko Zendea, Aranguren eta Elortz ibarrak eta Noaingo udalerri berria).

– Herri ekimenez sortu eta eremu ez euskaldunean kokatuak dauden D ereduko irakaskuntzarako zentroen egoera, ikastolena alegia.

– Lanbide Heziketa mailetan euskarazko irakaskuntzaren egoera larria, eremu euskaldunean ere hutsaren hurrengoa baita.

– Azken urte hauetan sortu eta hedatzen ari diren Haur Hezkuntzaren Lehen Zikloko ikastetxeak, 0 eta 3 urte bitarteko haurrenak. Kontuan izatekoa da euskararen eta euskarazko irakaskuntza bermatzeko behar-beharrezko den araudia.

Unibertsitateko irakaskuntzari dagokionez, ikusten da Nafarroako Unibertsitate Publikoan ez daudela bermatuak, ez 18/86 Foru Legearen 19. artikuluan aurreikusitako printzipio orokorrak dioenaren aplikazioa, ez unibertsitatearen beraren estatutuetan jasotako araudiarena ere. Nafarroak duen presentziazko unibertsitate publiko bakarra da eta, hortaz, Nafarroako hizkuntza eremu guztietako herritarrei zerbitzua ematen diena. Gainera, urtero sartzen diren ikasle berrien %20 inguru euskarazko ereduetan ikasitakoa izan arren, Nafarroako Unibertsitate Publikoan ez da euskaraz ikasteko eskubidea bermatzen ari, eskaintzen dituen 18 ikasketetatik bakar batean izan ezik, Irakasle Ikasketetan alegia, baina hauetan ere ez irakasten diren espezialitate guztietan.

Nafarrek euskaraz ikasteko dituzten eskubideak bermatzeari dagokionez, egungo irakaskuntzaren egoera, orokorrean, hobetzen ahal da. Oraindik gehiago, hizkuntza honetan eskaintzen den irakaskuntza hasierako mailetara soilik mugatzea ez dator bat nafarren artean «euskararen erabilera sustatu» behar dela dioen printzipioarekin, jakina baita hizkuntza gizarte harremanetan eta kultur bizitzan erabiltzea irakaskuntzaren hasierako mailetan ikaste soiletik haratago doan kontua dela. Horretaz gain, aipatzekoa da 18/86 Foru Legearen 19. artikuluak dioena: «Herritar guztiek dute hezkuntza maileta irakaskuntza euskaraz eta gaztelaniaz izateko eskubidea», hots, irakaskuntzaren mailetako bakar bat ere baztertu gabe.

➢ Hedabideen alorrean, garrantzitsua da zehaztea 18/86 Foru Legearen 27. artikuluan euskararen babes, sustapen eta erabilera bultzatzeko hartu behar diren neurriak aipatzen dituela. Era berean, administrazio publikoek hedabide publiko zein pribatuetan euskararen presentzia progresiboa bultzatuko dutela dio, sostengu ekonomiko zein baliabideen bitartez, bai komunikabideetan (telebista, irrati eta abarretan) bai argitalpenetan.

Hala ere, ondoren egin den legearen aplikazioa ez da, hain zuzen ere, ez lege horren testuaren ez bere baitan jasotako espirituaren garapenarena izan. Adibide gisa aipatzearren, FM irrati frekuentzien esleipenak ditugu. Oker ez bagaude, erabaki horien ondorioz, Nafarroan egun gaztelaniazko 30 irrati legeztatu diren bitartean euskarazko bat bakarra dugu (azken hau eremu euskalduneko zati mugatu batean entzun daitekeena). Antzeko zerbait gertatzen da euskarazko prentsa, aldizkari eta abarrentzako edizioetarako ematen diren laguntzekin.

Hortaz, premiazkoa da alor honetan ere nafarren hizkuntza eskubideak bermatzea, eta, ondorioz, komunikabideetan euskararen sustapenerako neurriak argi eta garbi ezartzea, honako hauetatik abiatuz:

– Lehenik eta behin, euskaraz emititzen duten hedabide legeztatuen presentzia (irratia, telebista...) ahalbidetuko duen araudia.

  Honen harira, eta adibide gisa, berriki euskararen beste ahanztura bat gertatu da etorkizuneko tokian tokiko telebista digitala lurraldeka arautzeko ezarritako irizpideetan, eremu euskaldunean dauden telebistek ez baitute bertan sartzeko aukerarik ere izanen, duela urte batzuetatik hona informazio lan garrantzitsua ematen ari badira ere.

– Euskara hutsean aritzen diren egunkari, aldizkari eta abarrei benetako laguntza eraginkorra posible eginen duen lege araudia. Era berean, euskarazko gutxieneko edukia duten edota neurri progresiboan gehitzen ari diren agerkariei.

– Informazio arloko ekimen berriei laguntza.

➢ Komunikazio birtualari dagokionez, ezinbestekoa da azpimarratzea Foru Komunitatearen eremukako banaketa berez dela oztopo biztanleen hizkuntza eskubideak bermatu ahal izateko. Europako Kartak adierazitakoaren arabera, lurraldearen zatiketa administratiboa ezin da inola ere oztopo izan herritarren hizkuntza eskubideetarako.

Horrez gain, eremukako banaketa hori iraganeko ikusmolde baten isla besterik ez da, gaur den egunean inolako zentzurik ez duen giza harremanen eta hizkuntzaren kontzepzio estatikoa erakusten duena. Mugikortasuna eta dinamikotasuna dira, ezbairik gabe, bai egungo bizimoduaren bai hizkuntzaren beraren ezaugarririk nabarmenetakoak. Begi bistakoa da egungo bizimoduan hizkuntza ezin dela, inondik ere, parametro estatikoetara mugatu.

Komunikazio birtuala atzera egiterik ez duen errealitatea da jadanik gure gizartean, eta, egunetik egunera, etengabe aurrera segituko duena. Errealitate honek argi erakusten digu hizkuntza eskubideen praktika ezin dela, inola ere, gauzatu eremuka zatitutako erkidego batean; are gehiago, eskubide horiek sistematikoki urratu egiten direla.

> Foru Erkidego honetako administrazio zerbitzu birtualek –hiriburuan bertan, Iruñerrian, edo Nafarroako beste edozein tokitan badaude ere, zerbitzu birtualetan inolako garrantzirik gabeko kontua baita lekukotasun fisikoa–, zerbitzu ber-bera eskaintzen dute biztanle guztientzat eta, hortaz, berdin-berdin balio dute hizkuntza eremu guztietako nafarrentzat. Ezin dira, inola ere, lurraldearen zatiketa baldintza horien arabera planteatu. Horrenbestez, zerbitzu hauei dagokienez, egungo lege araudiaren hitzez hitzeko aplikazioak nafar herritarren hizkuntza eskubideekin talka egiten du aurrez aurre. Ondorioz, eskubide horiek bermatu nahi izatera, aipatutako zerbitzuak bi hizkuntzetan eskaini beharko lirateke.

Hau da, orokorrean eta laburki, Batzorde edo Ponentzia honek proposatuta, Nafarroako Foru Parlamentuak egindako gonbitari erantzunez, Euskaltzaindiaren ordezkari gisa atsegin osoz helarazi nahi izan dizuedana.

Esker mila zuen arretagatik.

COMPARECENCIA DE EUSKALTZAINDIA ANTE LA PONENCIA CONSTITUIDA EN EL PARLAMENTO FORAL DE NAVARRA, PARA EL ANÁLISIS DEL DESARROLLO DE LA POLÍTICA LINGÜÍSTICA DE LA COMUNIDAD FORAL DE NAVARRA

Pamplona / Iruñea,
8 de septiembre de 2004.

Andres Iñigo,
Delegado de Euskaltzaindia en Navarra

Señoras y señores parlamentarios:

Quiero, en primer lugar, agradecer en nombre de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, Institución a la que represento en esta comparecencia parlamentaria, la invitación recibida del presidente de este Parlamento –a propuesta de la Ponencia constituida para el análisis del desarrollo de la política lingüística de la Comunidad Foral de Navarra–, a fin de asesorar sobre los temas de estudio fijados por esta Ponencia.

A modo de introducción

Euskaltzaindia es la Academia de la Lengua Vasca, creada en 1918 bajo el patrocinio de las Diputaciones de Álava, Gipuzkoa, Navarra y Bizkaia, reconocida por Real Decreto 573/1976 bajo la denominación de Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, cuyo ámbito de actuación se extiende a las provincias de Álava, Gipuzkoa, Navarra y Bizkaia.

Los cometidos encomendados en el citado Real Decreto abarcan dos amplias secciones:

a) La Sección de Investigación (**Iker** saila) creada para el estudio y elaboración de las normativas lingüísticas: gramaticales, ortográficas, lexicales, onomásticas, literarias, etc.

b) La Sección Tutelar (**Jagon** saila) a la que se encomienda expresamente *promover el uso de la lengua, velar por los derechos lingüísticos y trabajar en la capacitación de la lengua a fin de que ésta pueda ser*

–en el ámbito de actuación encomendado a la Real Academia–, *medio de expresión de la comunidad a todos los niveles* (art. 1, puntos e, f, g).

Euskaltzaindia y la política lingüística de la Comunidad Foral de Navarra hasta la actualidad

Euskaltzaindia ha tenido un cuidado exquisito en el cumplimiento de los objetivos que como Academia responsable del euskera se le asignaron desde su fundación y especialmente a partir del Real Decreto de 1976. Concretamente, en lo referente a los objetivos encomendados a su Sección Tutelar (que recordemos son: *promover el uso del euskera, velar por los derechos lingüísticos y trabajar en la capacitación de la lengua a fin de que ésta pueda ser medio de expresión de la comunidad de ciudadanos a todos los niveles*), ha demostrado una preocupación constante. En lo que concierne a la Comunidad Foral de Navarra, puede catalogarse de una preocupación muy honda, tal como queda reflejada en los diversos manifiestos hechos públicos, especialmente a partir de 1979.

Se trata de un total de trece manifiestos motivados por los siguientes hechos:

- 1979. Por la indefensión legal en la que quedó Navarra al perder la oportunidad de gestionar, a través de la Junta Superior de Educación, el deseado Decreto de Bilingüismo.
- 1982. Por considerar que el art. 9 de la Ley de Amejoramiento del Fuero da un trato discriminatorio al euskera en Navarra, restringiéndolo territorialmente al ámbito vascófono y por no considerarlo, en consecuencia, patrimonio histórico general de Navarra.
- 1985. Ante el proyecto de la Ley del Vascuence, manifestando su profunda preocupación porque el mismo divide a Navarra en zonas lingüísticas de modo arbitrario y sin relación alguna con los usos de la legislación comparada en materia de política lingüística, restringiendo aún más los límites lingüísticos contemplados en el art. 3 de la Constitución española y en el art. 9 del Amejoramiento del Fuero.
- 1986. Ante la Junta Electoral Central por haber postergado la lengua vasca en las papeletas de voto de las elecciones generales, privando así del derecho lingüístico que asiste a los ciudadanos navarros.
- 1991. Ante el Gobierno de Navarra, por no haber concedido en la adjudicación de licencias de radio FM ninguna de las siete nuevas frecuencias a emisoras de radio en euskera, entendiendo que con ello se postergaban los derechos lingüísticos de los ciudadanos navarros, ya

que la situación pasó a ser, en aquel momento, de veinte licencias en lengua castellana y ninguna en euskera.

- 1994. Ante el Parlamento de Navarra, que con motivo de la posible modificación de la Ley Foral del Vascuence actuó con miras estrechas de cara a ampliar la presencia de la lengua vasca en la enseñanza, en los servicios administrativos a los ciudadanos y en los medios de comunicación.

- 1995. Ante el Consejo General del Poder Judicial. Se trata de una declaración conjunta de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia y de la Sociedad de Estudios Vascos/Eusko Ikaskuntza, con motivo de la sentencia de 19 de septiembre de 1994 de la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de Navarra, en la que textualmente se vertían las tres afirmaciones siguientes: que en Pamplona no existía «ningún vasco-parlante de origen en la ciudad», que una programación de radio «sólo en euskera pudiera considerarse perjudicial para el desarrollo cultural general y de la generalidad de las personas» y que tal hecho «sería discriminatorio para la mayoría de los ciudadanos en relación con la minoría».

- 1997. Con respecto a la sentencia de la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de Navarra, la cual se oponía a que se estableciera la necesidad del conocimiento del euskera para determinados puestos de trabajo en el ámbito de la enseñanza y de la administración en una convocatoria del Ayuntamiento de Barañáin.

- 1997. Al Presidente del Gobierno de Navarra, ante el anuncio de una nueva convocatoria de ocho nuevas licencias de radio FM, solicitándole que, en atención a la realidad lingüística de Navarra, arbitrara los mecanismos adecuados para que la adjudicación de las nuevas frecuencias no lesionara los derechos lingüísticos de una parte importante de la población navarra, y solicitándole, asimismo, cubriera las necesidades de todo el ámbito territorial de la Comunidad Foral, con especial atención al área metropolitana de Pamplona, donde reside el mayor número de habitantes vascófonos de la Navarra actual.

- 1998. Al Gobierno de Navarra, solicitándole la revisión urgente de la adjudicación de las mencionadas nuevas licencias de radio FM, por haber incurrido, en opinión de Euskaltzaindia, en un agravio a los derechos lingüísticos de los ciudadanos navarros, teniendo en cuenta que el euskera es patrimonio vivo de la Comunidad Foral.

- 2000. Al Presidente del Gobierno de Navarra, manifestándole la preocupación de Euskaltzaindia ante el debate surgido en aquella época en algunos sectores de la clase política de Navarra en torno al euskera, y solicitándole que la nueva Dirección General de Política Lingüística,

creada como consecuencia de la reestructuración realizada por el Gobierno de Navarra, fuera garante de la presencia, uso y fomento del euskera, en atención a los derechos lingüísticos de los navarros que eligen la *lingua navarrorum* como vehículo de comunicación y se cumpliera así, en letra y espíritu, la legislación lingüística promulgada por la Comunidad Foral.

- 2001. Ante el Decreto Foral 372/2000 de 11 de diciembre, denunciándolo ya que, en opinión de Euskaltzaindia, dicho decreto, por una parte, vulneraba la Constitución española, la Ley de Amejoramiento del Fuero y la Ley del Vascuence de Navarra y, por otra, no respetaba los acuerdos y tratados internacionales que el Estado español había ratificado en materia de utilización de lenguas cooficiales y propias. Al mismo tiempo, Euskaltzaindia deploraba que a pesar de ser, por ley, la Institución asesora oficial en materia lingüística y haberse ofrecido expresamente al Gobierno de Navarra para el asesoramiento en la materia, no hubiera sido consultada siquiera en la fase de elaboración del citado decreto.

- 2002. Finalmente, Euskaltzaindia, a través de sus dos representantes en el Consejo Navarro del Euskera, manifestó su voto negativo a la aprobación de la propuesta del Decreto Foral 29/2003 de 10 de febrero, por entender que el texto de dicho decreto:

  a) Por una parte, modula de forma restrictiva los objetivos esenciales establecidos en la Ley Foral del Vascuence 18/1986, especialmente en lo referente «al derecho de los ciudadanos a conocer y usar el vascuence» y a «proteger su recuperación y desarrollo en Navarra, señalando las medidas para el fomento de su uso».

  b) Por otra parte, elimina una serie de referencias que contemplaba el Decreto Foral 135/1994 al que trataba de sustituir. Se omitían, entre otros, los siguientes contenidos:

     – Que «el vascuence es lengua propia de Navarra».

     – La referencia a la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias del Comité de Ministros del Consejo de Europa de 25 de junio de 1992, firmada ese mismo año, entre otros estados miembros, por el español, el cual, además, lo ratificó en el 2001.

     – El cometido expreso de la «Dirección General de Política Lingüística para actuar de órgano coordinador entre los Departamentos de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra en lo que se refiere a la elaboración de la planificación lingüística», y a su colaboración en la «elaboración de la planificación lingüística de las entidades locales y otras administraciones públicas», así

como en lo referente al establecimiento de los «circuitos administrativos bilingües que garanticen suficientemente la prestación de sus servicios en vascuence cuando el usuario así lo requiera» en los servicios centrales de la Comunidad Foral de Navarra de la zona mixta.

– Las referencias concretas de «se redactará de forma bilingüe» o «se tenderá a la redacción de forma bilingüe» en documentos, impresos, imagen, avisos, publicaciones, etc. en la zona mixta.

– La preceptividad del conocimiento del vascuence para el acceso a determinados puestos de trabajo, la posibilidad de concursar desde la zona vascófona a otras zonas de Navarra, y eliminaba o rebajaba la valoración porcentual del conocimiento del euskera para el acceso a puestos de trabajo en la Administración Foral de Navarra y para concursos posteriores.

Es preciso señalar que en dichos manifiestos, Euskaltzaindia deja constancia clara y expresa de:

• Que su labor se limita a la defensa de la lengua como patrimonio cultural de todos los navarros.

• Que siempre ha colaborado con las instituciones navarras, cualquiera que fuese el régimen vigente, bajo la premisa de una total independencia de cualquier adscripción política e ideológica.

• Que, por lo tanto, no entra en ninguna consideración de tipo político ni de oportunidad política, puesto que es un campo que no le compete.

• Que pide, a su vez, a las fuerzas políticas la necesidad de mantener a la lengua vasca fuera de los avatares de la política partidista y por encima de credos e ideologías.

• Que reitera, una y otra vez, su disposición para colaborar por la defensa de la lengua vasca para que, por encima de discrepancias legítimas en lo político, la lengua y cultura vasca sea siempre un elemento de unión y cohesión social en la Comunidad Foral de Navarra.

Y, en concreto, en su última comparecencia en el Consejo Navarro del Euskera, reunido para asesorar al Gobierno sobre su propuesta del Decreto Foral 29/2003, a la vez que emitió su voto negativo al texto propuesto, insistió una vez más, que Euskaltzaindia, como institución consultiva oficial en materia de euskera, reiteraba su disposición a colaborar con el Gobierno de Navarra desde la perspectiva de una relación entre ambas instituciones que permita el cultivo y desarrollo del euskera con el rango que le corresponde como lengua propia de la Comunidad Foral de Navarra.

Ejemplo de esa colaboración son los diversos *Acuerdos* que han firmado, desde 1989 de forma conjunta con las cinco Administraciones Públicas del ámbito de su actuación territorial, es decir, con el Gobierno de la Comunidad Foral de Navarra, el Gobierno de la Comunidad Autónoma Vasca y las Diputaciones de Alava, Gipuzkoa y Bizkaia, y desde 2002 el bilateral actualmente vigente con el Gobierno de Navarra, a través de su Dirección General de Política Lingüística y Universidades.

Euskaltzaindia ante la propuesta realizada por la Ponencia del Parlamento Foral de Navarra

A través de las comunicaciones que les hemos resumido, Euskaltzaindia ha actuado en el cumplimiento de los objetivos y cometidos que como institución académica, reconocida por Real Decreto, se le encomiendan expresamente, es decir, en *promocionar el uso del euskera, velar por los derechos lingüísticos y trabajar en la capacitación de la lengua, a fin de que ésta pueda ser medio de expresión de la comunidad a todos los niveles.*

Unamos a ello lo establecido al respecto por la normativa estatal y europea:

a) Por una parte, la Constitución española, cuyo art. 3 dice:

   – «Las demás lenguas españolas serán también oficiales en las respectivas Comunidades Autónomas de acuerdo con sus Estatutos» (punto 2).

   – «La riqueza de las distintas modalidades lingüísticas de España es un patrimonio cultural que será objeto de especial respeto y protección (punto 3).

b) Por otra parte, la Carta Europea de Lenguas Regionales o Minoritarias, cuyo art. 7 establece los objetivos y principios, especificando que «en los territorios donde se hablen dichas lenguas [...] basarán su política, su legislación y su práctica en los objetivos y principios siguientes:

   – «En el reconocimiento de las lenguas regionales o minoritarias como expresión de la riqueza cultural» (punto a).

   – «En el respeto del área geográfica de cada lengua regional o minoritaria, actuando de tal suerte que las divisiones administrativas ya existentes o nuevas no sean un obstáculo para el fomento de dicha lengua regional o minoritaria» (punto b).

   – «En la provisión de medios que permitan aprender una lengua regional o minoritaria a los no hablantes que residan en el área en que se emplea dicha lengua, si así lo desean» (punto g).

Podemos deducir, con meridiana claridad, que es más que conveniente la revisión de la legislación navarra, a fin de ampliar, en la medida que estime necesaria este Parlamento, las opciones para que la lengua vasca sea vehículo de vida y comunicación cultural y social de nuestra Comunidad Foral.

A la luz de la citada legislación, no parecen cuestiones a debatir los principios que se refieren a la consideración del vascuence como patrimonio cultural de nuestra Comunidad, a la garantía de los derechos lingüísticos de los sujetos de dicho patrimonio que son los ciudadanos navarros y a las medidas de uso y fomento que deben aplicársele como lengua minoritaria que es. Dicho reconocimiento y el establecimiento de los medios para alcanzarlos es deber de los poderes políticos, y es competencia de Euskaltzaindia apoyarlos plenamente y exigir a los poderes públicos su cumplimiento. Lo que escapa a la competencia de la Real Academia de la Lengua Vasca son los medios, el orden de actuación, los ritmos a imprimir, etc., que corresponde a los poderes políticos y que sería deseable estuviera al margen de intereses concretos, coyunturas u oportunidades políticas de cada época o momento. Ésa es la competencia propia de Vds., los miembros de esta Cámara que nos representan a los navarros y constituyen su Poder Legislativo, el cual deberá decidir, en su caso, el procedimiento a seguir en esa necesaria revisión de la política lingüística en Navarra de 1982 a 2004.

En cualquier caso, y ante todo, reitero en nombre de Euskaltzaindia la felicitación a esta Cámara por el acuerdo adoptado de constituir una Ponencia con la finalidad de realizar un análisis del desarrollo de la política lingüística de la Comunidad Foral, encaminado a tomar una serie de medidas:

a) Que garanticen a los ciudadanos navarros la posibilidad de acceder a la enseñanza en euskera en todos los niveles de enseñanza no-universitaria de todo el territorio de la Comunidad Foral y en la Universidad Pública de Navarra.

b) Que garanticen la presencia legal de medios de comunicación que emiten en lengua vasca en Navarra.

c) Que garanticen el uso del euskera en las relaciones con las Administraciones Públicas de Navarra, así como el uso de las dos lenguas propias de Navarra en la administración virtual del Gobierno de Navarra.

El marco legal a establecer para la consiguiente aplicación y desarrollo de la política lingüística de Navarra corresponde a este Poder Legislativo y así lo hizo con la aprobación de la Ley Foral 18/1986. La práctica posterior, sin embargo, es decisiva para su aplicación, ya que a través de decretos, órdenes forales, resoluciones y reglamentos, se puede llegar a rebajar los contenidos a mínimos legales, modificando el espíritu y los principios que motivaron el planteamiento y la redacción del texto marco.

Ante tal situación, entendemos urgente la elaboración por parte de este Legislativo del consiguiente texto legal que garantice plenamente el posterior desarrollo de la ley, evitando la posibilidad de que normativas de rango inferior desvirtúen y modifiquen en su espíritu los principios del texto marco.

La consiguiente normativa parlamentaria, regida por el principio de que el euskera es patrimonio cultural y lingüístico de nuestra Comunidad Foral y, en consecuencia, de todos los navarros, sin que –tal como indica la Carta Europea–, las divisiones administrativas existentes o nuevas sean un obstáculo para su fomento como lengua minoritaria, debería garantizar, a nuestro juicio, y con carácter general:

a) El derecho de los ciudadanos navarros a conocer y usar el euskera, de modo que, como toda lengua viva y por lo tanto dinámica, pueda ser usada y convertida en vehículo de vida y comunicación, tanto a nivel cultural como social.

b) La protección de su recuperación y desarrollo en Navarra, estableciendo claramente las medidas para el fomento y el uso y, en definitiva, para el ejercicio del derecho ciudadano a conocer y usar el euskera y para impedir la discriminación por razones de lengua.

c) El aprendizaje y el uso, respetando el derecho de los ciudadanos que voluntariamente lo deseen.

En base a ello, las medidas que pretende establecer el documento elaborado por esta Ponencia, deberían, a nuestro juicio, incluir en sí mismas una serie de garantías:

➢ En lo referente a la atención al ciudadano que, de modo voluntario, decida dirigirse en euskera a las administraciones públicas de Navarra, la ejercitación de los derechos lingüísticos pasa por:

– Dotar los servicios administrativos públicos incluidos en la zona vascófona, con funcionarios o personal de atención directa a los ciudadanos, tales como secretarios, administrativos, médicos, enfermeras, etc. que sepan euskera.

– Reconsiderar como zona lingüística Pamplona capital (actualmente en la zona mixta) y su área metropolitana (algunos de cuyos municipios, como Galar –única cendea circumpamplonesa no incluida en su día en la zona mixta–, los valles de Aranguren y Elorz, o el nuevo municipio de Noáin, están declarados como «zona no vascófona»). Esta gran área que acoge en la actualidad como vecinos residentes a más de la mitad de la población vascoparlante de Navarra, incluye los servicios administrativos centrales de toda Navarra (es decir, de todos los ciudadanos na-

varros). Además, Pamplona es cabeza de la merindad y del partido judicial que lleva su nombre, el cual incluye la mayor parte del territorio navarro declarado en la actualidad como «zona vascófona», es decir, la práctica totalidad de la población vasca de Navarra.

La misma reconsideración cabe respecto al partido judicial de Aoiz, villa en la que, como capital de distrito, se hallan los servicios que afectan a una parte considerable del territorio denominado «vascófono» de Navarra, tales como juzgado de primera instancia, registro de la propiedad, notaría, etc.

Si la zonificación es, de por sí, un gran escollo para la garantía del ejercicio de ser atendido en euskera, las decisiones adoptadas en el último Decreto Foral 29/2003 imponen, en la práctica, la imposibilidad de tal ejercitación, a través de la eliminación de los denominados «circuitos lingüísticos» y las normativas reglamentarias actuales sobre señalizaciones, rótulos, sellos oficiales, anuncios y publicidad, señalización viaria, etc.

➢ En lo referente a la enseñanza, es preciso señalar que la enseñanza no-universitaria es indudablemente el campo más desarrollado en Navarra, en lo que a recuperación, fomento y uso del euskera se refiere, a partir de la Ley Foral 18/86.

Hay, sin embargo, derechos que, en el marco actual, no pueden ser ejercitados por los ciudadanos navarros. Tal es el caso de:

– Los hijos en edad escolar de las familias que se ven obligadas a desplazarse, por motivos laborales u otros, a la zona no vascófona de Navarra.

– La actual área metropolitana de Pamplona, que bajo una gran unidad geográfica incluye en sí a poblaciones de la zona denominada mixta junto a otras denominadas no vascófonas, como son los anteriormente mencionados (cendea de Galar, los valles de Aranguren y Elorz y el nuevo municipio de Noáin).

– La situación de los centros de iniciativa social para la enseñanza en euskera ubicados en la zona no vascófona, como son las ikastolas.

– La enseñanza en euskera en los niveles de la Formación Profesional, que incluso en la zona vascófona tiene una implantación prácticamente insignificante.

– La implantación de la Educación Infantil en su Primer Ciclo (0 a 3 años) que se está llevando a cabo en la actualidad y que precisa de una garantía suficiente para la enseñanza del euskera y en euskera.

En lo que a la enseñanza universitaria concierne, en la Universidad Pública de Navarra no parece estar garantizada la aplicación, tanto de los principios generales previstos en la Ley Foral 18/86, art. 19, como de la normativa contemplada en los estatutos de la propia universidad. Siendo la única universidad pública presencial de Navarra y, por tanto, para los ciudadanos de todas las zonas de Navarra, y a pesar de que de los nuevos alumnos que ingresan anualmente aproximadamente el 20% procede de las líneas de euskera, la UPNA no está garantizando el derecho del estudio en euskera, salvo en una sola de las 18 carreras que imparte, Magisterio, aunque tampoco lo hace en todas sus especialidades.

La actual situación de la enseñanza en Navarra, en general, puede mejorarse en lo relativo a garantizar a los ciudadanos navarros el derecho a estudiar en euskera. Más aún, el reducir la enseñanza en esta lengua a los niveles iniciales, no está en línea con el principio de «fomentar el uso» del euskera entre los ciudadanos navarros, puesto que el uso de la lengua en la vida social y cultural va más allá de su mero aprendizaje en los niveles iniciales de la enseñanza. A más abundancia, está en colisión con el mencionado art. 19 de la Ley Foral 18/86, en el cual se reconoce «el derecho a recibir la enseñanza en vascuence y castellano en los diversos niveles educativos», es decir, sin excluir ninguno de ellos.

➢ En lo referente a los medios de comunicación, es importante precisar que el art. 27 de la Ley Foral 18/86 habla de medidas de protección, fomento y uso del euskera y de que las administraciones públicas promoverán la progresiva presencia del vascuence en los medios de comunicación social públicos y privados, con planes de apoyo económico y material para que el euskera tenga una presencia cada vez más progresiva en la televisión, radio y medios gestionados por la Comunidad Foral.

Sin embargo, la práctica posterior no ha sido precisamente la del desarrollo ni del texto de dicha ley ni del espíritu incluido en la misma. Baste citar, como ejemplo, el caso de los concursos de adjudicación de frecuencias de radio, cuyo resultado actual en Navarra es, salvo error, de 30 licencias de radio en castellano y 1 en euskera (esta última con cobertura en una parte muy concreta de la zona vascófona), o el de las ayudas a las ediciones de prensa, revistas, etc. en euskera.

Es preciso, por lo tanto, garantizar los derechos lingüísticos de los ciudadanos en lo que al uso social del euskera en los medios de comunicación se refiere, estableciendo claramente las correspondientes medidas de promoción, partiendo de:

– La normativa legal que posibilite, de entrada, la presencia legal de medios de comunicación que emiten en euskera: radio, televisión,...

A este respecto, y a modo de ejemplo, se ha observado recientemente un nuevo olvido de la lengua vasca en el criterio establecido para regular territorialmente la futura televisión digital local, a la que ni siquiera tendrán opción de concursar televisiones ubicadas en la zona vascófona, que están desde hace varios años cubriendo una importante labor informativa en euskera.

– La normativa legal que haga posible el apoyo real y efectivo a la prensa: periódicos, revistas..., que cubren la información exclusivamente en euskera y a los medios que incluyen una publicación suficiente y/o progresiva en esta lengua.

– El apoyo a nuevas iniciativas en el campo de la información.

➢ En lo referente a la comunicación virtual, es preciso insistir, una vez más, en que la zonificación territorial de la Comunidad Foral es, en sí misma, una clara limitación para el ejercicio de los derechos lingüísticos, que como indica la Carta Europea no deben ser obstaculizados por divisiones territoriales.

El criterio de zonificación territorial es, además, reflejo de una concepción absolutamente anclada en el pasado, porque conlleva una visión estática de la vida, de la relación social y de la lengua, en contraposición y colisión con la vida actual, caracterizada por la movilidad y la dinámica, fenómenos que igualmente caracterizan al propio hecho lingüístico.

La comunicación virtual es una realidad impuesta ya, sin ningún viso de retroceso, sino todo lo contrario. Ello no solamente pone en tela de juicio los esquemas de derechos lingüísticos pensados y establecidos según zonas territoriales dentro de una misma comunidad, sino que, además, colisiona frontalmente con ellos.

Los servicios administrativos virtuales de esta Comunidad Foral, estén centralizados en Pamplona capital y su área o en cualquier otra parte –que a los efectos sería irrelevante–, atienden de igual forma a todos los ciudadanos navarros independientemente de la «zona lingüística» en la que se ubiquen. No pueden, en modo alguno, plantearse con criterios de uso según zonificaciones territoriales. Por ello, la aplicación literal de la normativa legal actual en lo referente a estos servicios, colisiona directamente con los derechos lingüísticos de los ciudadanos navarros. En consecuencia, para la ga-

rantía de los mismos, los mencionados servicios deben ofrecerse de forma bilingüe.

Es lo que, de una forma general y abreviada, he tenido a bien informarles en calidad de representante de Euskaltzaindia, como respuesta a la invitación recibida por el Parlamento Foral de Navarra, a propuesta de esta Ponencia.

Muchas gracias por su interés y atención.

JAGONET

Hona hemen, labur-labur, JAGONETeko 2004ko datuak, urte guztikoak:

1. Galdelekuan jasotako galderak: 841.
2. Banan-banan emandako erantzunak: 830.
3. Datu-basea osatzen duten galde-erantzunak: 382 + 140(sartzeko prest).
4. JAGONETeko datu-baseak hartutako bisitariak*: 39.418 (egunean 107).
5. JAGONETeko datu-basean egindako bilaketak*: 47.126.

* Izarñoa duten kopuruak EUSKALTELek emanak dira.

* * *

Alderaketa, urtez urte:

	2001	2002	2003	2004
Bisitariak, guztira	6.621*	12.073	28.121	39.418
Bisitariak, egunero	24	33	77	107
Banakako erantzunak	656*	892	892*	841*

* Izarñoa duten kopuruak 9 hilabetekoak dira

* * *

JAGONETeko datu-baseko 2004ko datuak, hilabeteka:

JAGONETeko datu-basean egindako bilaketak:

urt.	ots.	mar.	api.	mai.	eka.	uzt.	abu.	ira.	urr.	aza.	abe.
4.070	4.268	5.132	3.199	4.451	2.540	2.361	1.015	3.746	5.941	6.986	3.417

JAGONETeko orri nagusia zenbat aldiz bistaratua:

urt.	ots.	mar.	api.	mai.	eka.	uzt.	abu.	ira.	urr.	aza.	abe.
2.128	3.605	4.100	1.443	3.692	2.929	1.915	1.791	4.493	4.776	5.275	3.271

Jose Ramon Zubimendi,
JAGONET-en arduraduna. Euskaltzaindia

EUSKALTZAINDIAREN
BARNE-HISTORIA
(VI)

EUSKALTZAINDIAREN BARNE-HISTORIAZ

Xabier Kintana,
idazkaria

SARRERA

Gure Hizkuntzaren Akademiak aspaldidanik ikerketa eta arautze arloan egiten dituen lanak eta euskara sustatu eta jagoteko asmoz ematen dituen pausoak gero eta ezagunagoak dira, eta horiek gure gizartean sorrarazten duten oihartzunak eta dituzten aplikazio zabalek aski ongi erakusten digute jendeak zer nolako interesa duen gure egitekoez.

Badira, ordea, gure erakundearen historian hain ezagunak ez diren puntuak, beraren sortze, jardunbide eta bilakaeraren gorabeherei buruzkoak, horhan-hemenka gutun argitaragabe, artikulu eta dokumentu sakabanatuetan barreiatuak. Horietan guztiotan nolabait Euskaltzaindiaren barne historia dei genezakeena datza, maiz, zoritxarrez, aski ezezagun eta gaizki adituen eta ulerkera okerren iturri, eta, horrexegatik, gure ustez, barne historia horretako zokomokoak argitu eta gure argi-ilunak islatzea egokia bezain komenigarria litzateke. Beraz, xede horrekin, zenbaki honetan hasi eta hemendik aurrera osatuz joan nahi genukeen atal honetan, Euskaltzaindiaren ibilbide historikoa hobeki ulertzeko lagun dezaketen era guztietako agiriak eta lekukotasunak agertzen hasiko gara, P. Xarrittonek oraingoan argitaratzen dituen dokumentu baliotsuak lehenbiziko urratsak izanik.

PIERRE LAFITTEN GUTUNDEGIA
Lehen gutun azaoaren aurkezpena

P. Charritton,
P. Andiazabal,
J.A. Irigaray

Euskaltzaindiko liburutegian dagoen P. Broussainen gutundegia, *Euskera*-ren 5. zenbakitan argitaratu eta, lotzen gatzaizkio Baionako Apezpikutegian dagoen P. Lafitten gutundegiari. Gutundegi hau jadanik baliatua izan da zenbait ikerlei esker, hala nola Eusko Ikaskuntzako buru-orde Jean-Claude Larronderi esker, Sabino Arana Fundazioak 1995an argitaratu zuelarik *Euskalerrizaleen mugimendu abertzaleen sortzea Iparraldean (1932-1937)* hiru hizkuntzatan, edo Amelia Hernández Matak aurkeztu aitzin bere doktoregoko tesia Leioan *P. Lafitten sare intelektuala (1920-1940)* eman zigularik Uztaritzen (*Euskera*, 2001-2, 581-637 or.).

Ez gara beraz gai horietan berriz sartuko, nahiz horien iturriak liburutegian dauden beste gai bereziren asko bezala. Hemen orai argitaratzeko xedea dugu, Piarres Andiazabalen baimenarekin, tituluak dioen bezala Euskaltzaindiaren barne-historiari doazkon idazkiak eta hasten gara Piarres Lafitte eta Irigarai Pablo Fermin, Aingeru aita-semeen eta Piarres Lafitten elkarrizketaren lehen zatiarekin.

Agertuko dira lehenik P. Lafittek berak bidali gutun bakan eta berdin datarik gabekoak, gero Aingeruk 1937. aitzin bidaliak *eta daugin aldian Aingeruren gerla ondokoak.*

P. Xarritton

P. LAFITTE – A. IRIGARAY
(1955-1970)

Urriaren 4-ean
(1955 urriaren 1ekoari ihardespena)

Adichkidea,

Huna nun zer den zintzarroa eta *tobera-munstra* hoieri buruz.

Hasteko «Arsenal» delako liburutegian, orai deus ere ez.

«Bibliothèque Nationale» delakoan,

Parisen: n°s 113 eta 179, «Le Grand Alexandre» pastoralarekin nahasteka.

(1) *Ardeatina et Ludovina*.

(2) n° 136, *Chiveroua et Marceline*.

n° 135, Pansart-ekin nahasteka.

(3) *Planta et Eléonore*.

n° 138, Roland-ekin nahasteka.

(4) *Recoquillard et Arieder*.

Bordelen aurki ditazke:

(1) *Canico et Belchitine*, n° 24.

(2) *Jouanic Hobe et Arlaita*, n° 13.

(3) *Malkus et Malkulina*, n° 21.

(4) *Mehalçu et Vénus* «Saturne et Vénus»-ekin nahasteka, n° 18.

(5) *Petitun et Petik Huni*, n° 19 (ez da aitzin pheredikiaz besterik).

(6) *Pierrot et Charrot*, n° 16 «L'enfant prodigue» pastoralarekin nahasteka eta «Bacchus»-ekin, n° 22.

(7) *Planta et Eléonore*, n° 23 «Pansart» delakoarekin nahasteka.

(8) *Saturne et Vénus*, n° 18.

Baionan berriz: Bibliothéque Municipale Ms: Basques

(1) *Ardeatina et Ludovina* «Le Grand Alexandre» pastoralan ithoa, n° 46.

(2) *Canico et Belchitine*, Bordelekoaren pare-parekoa, n° 54.

(3) *Saturne et Vénus* hiru paia «Judith et Holopherne» pastoralan galduak, pp. 67-70.

RIEV 1923 (oct.-déc.) bada artikulu bat «Les tragi-comédies de Carnaval» par G. Hérelle.

Hor aiphu ditu hirur:

(1) *Jugement et condamnation de Carnaval*. Nehun ez da haren hatzik.

(2) *Pansart* aurki ditake Parisen (n° 135) eta Bordelen (n° 23).

(3) *Bacchus* ez da Bordelen baizik (n° 22).

Igortzen dautzut Baionan hartu dudan *Canico et Belchitine*. Uste dut hori den ohargarriena.

Orai arras lanperatua naiz nihaur kopiatzen artzeko, bainan badut kopiatzale bat.

Parisen liburuzain dagon ene eskolier ohi batek lagunduko gaitu Pariseko tragerien ekhar-arazten, Baionarat, bederazka bederen, nahiz ez den maiz egiten holakorik. Orai nahiago dituzte eskutitzak mikrofilmatu.

Othoi ez eni gal igortzen dauzkitzun kaierrak.

Bilhatzen duzun neurthitz aldiaz ez dut berririk.

Ez dugu batere saltzerik hiztegiari buruz: uste ginuen, *bi mila* gramatika salduz geroz, bederen bertze hainbertze hiztegi joanen zirela «in nomine santi-an», bainan zortzigarren ehunerat ere ez gira heldu, bortz mila jalgi ditugularik bada!

Ondoko egunak arte.

Zure-zurea

P. Lafitte

(1962)

Adiskide Jauna,

Ondar denbora hautan ez gira zuen aldetarikako berririk gabe. Eta, egia erran, buru-joangarri da ikustea gure Eskualzaindi xaharra gisa hortan zatiakatua.

Hunaindiko eskualdunek auzi hortan sartzeko esku-biderik badugun gaude, baitakigu Eskualzaindi guzia zuen arteko diru xoilak deramala, eta gu bizkarkin bezala aurkezten girela zuen artean, nahiz bethi ongi hartuak eta ederki artatuak.

Bertzalde, nahiz zonbaitek dioten, bazterretik gauzak askotan hobeki ikusten direla, atsotitzak dio: *«urrungo eltzea urhez, harat orduko lurrez»*.

Gure aburuek zer balio duten ez dakit, bainan hasian hasi huna neure ikusteko manera.

Iduri zait Akademia, aspaldiskoan, ez dela estalgi nasai bat baizik: agintarien begietan gerizatzen ditu eskuararen alde eginikako asko jai, zoin gehiagoka, sariketa, liburu agertze eta holako. Ez da gauza apurra, segur eta halere; eta hauspean erdi-bizi zen pindarrari garra ateratzeko errextasunen emaitea izan da obra bat zaila eta merezimendu handikoa. Baditake, behin edo bertze, Akademia zuhurregi edo herabegi aurkitu duten zonbaitek; bainan nik ez diot hortan harririk aurdikiko, hain zuzen hura nun den ez baitakit: zuhurtziaren izenean alderdikari izan ditakela ere, erran dute; bainan bana-bertze iduri zait Akademia ez dela izan hain hertsi: aise da erraitea, ardietsi ez dituen baimenak ez zituela, beharbada, izaiteko gisan galdetu! Frantsesez «procès de tendance» erraiten diotegu aieru horieri.

Beraz Akademiak denen eskerrak hartze ditu, eskuarari eta eskualzaleri egin dioten laguntza eder horren gatik.

Bainan ez dut uste Eskualzaindiaren eginbideak hortan direla mugatzen. Eta ez badu kasik bertzerik egiten, hori heldu da lehen-lehenik egiazko buruzagi baten eskasetikan. Azkue bere azken urtetan ez zen itzal bat baizik, izan zenaren ondoan. Erlika saindu baten pare ohoratzen ginuen, bainan ez zuen gehiago deus ere ez manatzen, ez kudeatzen. Oleaga gaizoak zadorlaritza zeraukan prestu-prestua, eta ez ginen lanho-arte hortarik ateratzen! Gero Echaide jauna etorri zaiku, bethi maitagarri, bainan gemenik gabe, eritasunak ahuldua. Hunek ere ez dauku behin ere lanik agindu, ez xederik aurkeztu. Eta,

erran badezaket, ondarrerat gauzak mandotik astora joan zaizkigu. Zadorlariaren mutila, A.I. (Alfontso Irigoyen) jarri zaiku denen kudeatzale; hots, morroina nagusi. Bertze nehork ez baitzuen eskualzainetan manatzeko ausartziarik, mutila ikusi dugu eskualzainen itzain; eta nik ez dut batere arrotz atzemaiten, izana jadanik zuenak nahi ukan baitu eskualzain izena ere ardietsi. Ofizioa utzi ziotenaz geroz, zertako ez titulua ere eman? Nago, bururaino joaitekotz, ez litaken buru ere ezarri behar!!! Funtserat-eta, A.I. gazteari ez diot nik hobenik botatzen; izaitekotz, gu gira hobendun, eskualzainak, gauzak hortaratzerat utzi ditugulakotz, gemen eskasez, edo ezinbertzez.

Bainan badut uste A.I.-ren izendatzeko maneraz kexu direnek arrazoin dutela: indarkako ukaldi baten itxurak baditu, Eskualzaindiko arauak kasu hortan baztertuak izan baitira. Gure gostuko, izendatze hori berriz egitekoa da: hiru eskualzainek aurkeztu dezatela, eta gero izkiribu horren gainean eman bedite bozak, eta legez izendatua izanen da.

Haatik ez gira munduaren azkeneraino buruzagirik gabe egoiten ahal. Norbait... behar dugu, manatzaile. Araudiak ez du ekartzen hil-artinokoa izendatu behar denik. Bizpahiru urterentzat ongi litake. Erran gabe doa «citoyen espagnol» beharko dela, asko arrazoin bixtan direnen gatik. Bainan otoi ez ezar aitaso zahar akiturik, eta ahalaz ez apezik ere.

Geroko izendatzeri buruz izanen da zer egin. Guk, Lapurdi-aldekoek, ez dugu pleinitzeko arrazoinik, alkiak nasaiki eman dauzkutzue; bainan biziki xuhur ez ote den izan Eskualzaindia bertze Eskualde batzueri buruz, eta hori beharbada, ala ez azolez ala batzuen beldurrez? Nik ez dakit, bainan aditu izan dut, azken denbora hotan eskualzaindia bilakatua dela iputch-zaindia, hots, zonbaiten eskuetan dagola eroria eta hain xuxen Gipuzkoako jaun batzuen menean. Hortako omen da kasik Donostian kokatua. Guri iduri zaiku Donostia ez dela hain gaizki hautatua, bide-erditsutan bezala delakotz, bai hemendik, bai Nafarroatik, bai Bizkaiatik. Bizkitartean hedamenaren gatik noizean behin Donostiatik ateratzea ez zaiku batere gaizki; eta hortan ere guk ez dugu errai-tekorik, bai Baionan, bai Uztaritzen bildu baita jadanik Eskualzaindia, eta berriz etortzekoa ere Belokerat eta Baigorrirat segurik, aurthen berean.

Ikusi behar, ea guretzat dituzuen arta horiek, ez litazkeen hedatzen ahal Nafarroarat ala Bizkaiarat. Bilbotar batzueri iduri zaiote zireztela gu erdi-arrotzentzat dena agur, eta hurbilekoentzat muttur! Ez dut, egia erran, batere sinesten halako alderdikariak zireztela: halere kasu egin behar ginuke denek, ez ote ditugun aisegi baztertzen garbizale batzu, ez direlakoan gure eskuara herritarraren alde. Zuhaurek diozun bezala: Eskualzaindiak gora atxiki behar du bere burua.

Bilbotar anaia horiek ezinago minberak dira eta idurikorrak. Erranen dautzut gure departamenduan halako zerbait iragaiten dela. Guk eskualdunek ez dugu Baiona baizik gogoan, bainan Pau-en baita departamenduko hiri-nausia, iduritzen zaiku han beti gure kontra ari direla, dena azpikeria eta faltsokeria,

eta askotan harrituak daude biarnesak nundik atheratzen ditugun gure ixtorioak, uste gabetarik zaurtu gaituztelarik. Inchauspe jaun zena Paueko Deputazionean buru izan zenaz geroztik, aitortuko dautzut Biarnesekilakoa arras eztitu dela beharrik, eta eskualdunak ez girela lehen bezain idurikorrak. Banago ez denetz holako zerbait gertatzen bilbotar haurridekin. Ez ditugu sumindu behar, eta are gutiago baztertu behar: batasuna orotan galde egiten-eta, itsusi eta kaltegarri laiteke nolazpait ez elgar aditzea.

Letra luze hunek nahi zaitu argitu gure aburuez; behar bada lagunduko zaitu, heldu den biltzarraren apailatzen zure adixkidekin. Ez dautzut batere segereturik galde egiten, eta erakuts dezakezute zure Donostiako eskualzainkideri, bereziki Lecuona, Arrue, Michelena jauneri. Igorri dautzut, Dassance eta Eppherre jaunekin hitz egin ondoan, bainan ez heien partez: beude ene gain hemen erranak.

Gauzak naski gordinkisko atera ditut, bainan ez dira Eskualzaindian irakurtzekoak, ongi elgar ezagutzen dugunen artean baizik. Zuhauk ikus funtsean nori on zaitzun parte emaitea, zerbait antolamendu egitekotan.

Zure aspaldiko

P. Lafitte

(1964-XII-2koari ihardespena)

Jaun mediku adixkidea,

Zure ondarreko kartak aipatzen dauzkit asko gauza. Ihardesten dautzut nahas-mahas, zuk galdeak egin ordenean.

1. Atsegin dut Nafarroan abiatua duzuen eskual-lan ederraz *Herria*n gogotik aipatuko dugu. Luzaz diraula.

2. «Página en la *Lingua Navarrorum*», nik itzul nezake «Nafar-izkuntzazko orria», «eskuarazko lan bat» erraiten den bezala.

3. «Premio Axular» horrek zer arrakasta izanen duen aiduru nago. Zure itzulpena errexa da. Huts bat aurkitzen diot, hedatzen ari dena. Diozuna aurrek bear dute *mintzo diren* bezala izkiriatu. Uste dut eman behar zinuela «*mintzatzen* diren bezala»; «*mintzo* da» mintzatzen *ari* den norbaitez; «mintzatzen da» mintzatzen *ohi* den edo mintzatzen *hasten* den batez. Hemen segurik berexkunde hori egiten dugu: «question d'aspect» erran ginezake erdaraz.

4. Zure kartan bazaude miretsia, *«zer gertatzen den Nafarroan, bein ere ez bezala, eskuarari hola bihurtzeko?»* Nahiko zinuen segurenik erran *«eskuaralat bihurtzeko»*. «Norbai*ti* edo zerbai*ti* bihurtzea», Lapurdin eta Benabarren behintzat, aurka edo *kontra* jartzen da. Ez baita batere berdin!

5. Zuk bezala uste dut Antologiak ez duela «Textos arcaicos» direlakoen eiterik behar: literatura ez da filologia.

6. Fonetismoen kentzera ausartzen bagira, ez gira lan ttipiari lotuko. Nork berexiko ditu! Garbiki ez dut ikusten zertako *jüjatzia* baztertuko dugun *büria* onhartzen badugu.

7. Laxalt amerikanoaz ez dakit deus ere.

8. Zure eskual-zertifikaten alde naiz osoki. Bainan ez ditake ardura gabe xutik ezar holako eraikizun bat. Hortako ere batzorde edo komisione baten beharra izanen da, beharko baitira programa edo ikas-ekeiak apailatu, eta bertzalde ikusi nork, nun, noiz, nola eta nor etsaminatzen ahalko dituzten.

9. *J.B. D* da Jean-Baptiste Dirassar (1) eskualzain laguntzaleen segretarioa: uste dut har-emanetan zirela harekin... Ederki derabila Hazparneko eskuara.

(1) J.B. Dirassar da gaurko *Herria* astekariaren zuzendaria eta gainera euskaltzain ohorezkoa.

10. Induztria-ko goiti-beheitiez ez dut nihaurek argi handirik: zerbait dakitela uste dutenak uzten ditut mintzatzera. Zure izenik salatu gabe erakarriko dut *Herria*n zure iritzia.

11. *H* delakoaz ez dut artikulurik egin, Minaberry andereak (2) ontu bertsu batzueri bertsuz irri egiteko ihardetsi baizik. Ez dut ikusten nola antola ditaken auzia, horkoek *h* hori soberakin, hemengoek beharrezkoa daukatelarik, eta nehork amor ez eman nahi! *X* horren sartzeak galarazi dauzku jadanik hainitz irakurle: ez nago *h* kentzekotan.

12. Nafarroan bada eskuaraz *h* baino handiagoko hutsik: *«eskatu izan dute holako ageriak»* aise erraiten da zuen artean, bertze orotan *dituzte* (?) diotelarik kasu hortan.

(2) Marie Jeanne Minaberry da gaur euskal idazle eta kazetari erretiratua, euskaltzain ohorezkoa.

(1969-V-3koari ihardespena)

Adixkide Jauna,

Huna ene ihardespenak, hemengo eskuara hartzen dudalarik eredu; horrek ez du erran nahi bertze eskualkiak makur dabiltzala, gureak ez bezalako lege batzuen pean beren mintzairea daukatelarik.

Laket

Piarres Adame gizon laket*a* zen: alegera, dena zirto eta irri solas...

Laket naiz Uztaritzen.

Lapurdi laket dut, bainan berdin laket ditut Nafarroa eta Bizkaia.

Laket zait hemen bizitzea.

Laket dut hemen bizitzea.

Uztaritzen laketzen da: ez da arras laketua, bidean da, laketuko da.

Punttalakurlo

Haurrean sosik ez izanez eskolako luma edo punttakoekin jostatzen ginen. «Kutx ala pil» erraiteko orde, lumak aurdikitzean erraiten zen «puntta ala kurlo» [esp. punto i culo]. Luma punttaz beheiti landatzen bazen «puntta» erran zuenak irabazten zuen. Hargatik xabal-xabala erortzen bazen, ikusi behar zen ea ahoz goiti etzana zenetz ala ahoz beheiti; eta, zeiharka emaiten zenean, lanak ziren jujatzea erdia ala laurdena balio zuenetz.

Hortik jalgi dukegu «punttalakurlo», *puntilloso* edo *reparón* erraiteko.

Pilikintzo = torropilo (ttipi eta lodi).

Pedanteria (pedantismo) ez da gehiago entzuten.

Petulantzia zaharrek bazerabilaten *bizitasun* erraiteko, bainan hitz horrek ez zuen «harrokeriarik» adi-arazten españolez bezala.

Ados españoletik hartua dugu. Pilotariez erraiten ohi da: *«Hamarna! Ados, jaunak, ados»*, erran nahi baita *«berdin»*.

Badugu ere: *«enaiz horrekin ados»* entzun-arazteko ez girela «aburu bereko».

Jaukitzea da norbaiten eremaitea nausi baten gana (citar ante una autoridad) gauza batez garbitasun ateratzeko: ez da baitezpada akusatzea!

Apeztasun, ezin galduzko apez izaitea; apezgoa bat, apez *kargu* bat. Bainan ez ditazke beti *-tasun* eta *-goa* hain errexki berex elgarretarik; Xuberon eta Baxe-nabarren erraiten ohi dute: handigoa, hertsigoa, luzegoa, zabalgoa; Lapurdin: handitasun, hertsitasun, luzetasun, zabaltasun...

Orotan: erretorgoa, bikarigoa edo bikalgoa, notalgoa edo notarigoa. Hargatik tokitan notaltza, hala nola artzaingoa eta artzaintza, medikugoa eta medikuntza.

-tza horrek baditu asko ikur.

Eskaintza, emaitza = eskaintze, emaite, bainan halaber eskaini*a* edo emana, ohointza ebastea baizik ez da. Laguntza da laguntzea, bai eta ere laguntzeko erabili den gauza edo bidea.

Arraintza-k erran nahi du ofizioa. Ikus gorago *hargintza* etc.

Entzun du Presidentgoa kargu bezala. Presidentzia ere bai Biltzar baten buru izaiteaz. Behin ere ez **Presidentza*!

Idarizkaritza eta idarizkarigoa elgarren bete dira: biek enplegu bera deitzen dute (secretariado). *Lekuaren* izendatzeko, ene ustez, *-tegi* bezalako zerbait behar litake: *idaztegi* «secretaría».

Ohart huni: itsaso aldeko eskualdunek *-a* hainitz kentzen dituzte; -keri, -go erraiten dute, *-keria* edo *-goa* guk diogularik.

Deitu zinautan (zuk haurra eni atzo)

Deitu ninduzun (zuk ni atzo)

Deitu zidazun = *zuka* mintzatuz Arnegin *zitazun* (semea eni deitu zuen)

Ikusi nautzun xapela buruan (xapela zuri nik)

Ikusi zintudan (nik zu)

Igor zaiozu = igor ezazu

Aitor dut (orai)

Aitortzen dut (usaian bezala)

Mintzo naiz (orai ari naiz)

Mintzatzen naiz (usaian)

Paretari beha (edo so)

Urrunera beha zagon

Iguzkiak iguzkiari = iduzki betean *(da el sol de pleno)*

Gisa berean diogu gauak gauari, uriak uriari (nahiz gaztek laburtzen duten) erranez *gauak gau, uriak uri.*

Gizona gizon-tei: zer nahi izan dadien gizonaz *(sea lo que sea...)*

Kantu hori zuri aditu nautzun

Zu entzun zintudan kantatzen

Ni jo ninduzun (zuk)

(Zuka) Pellok jo zitazun (eni astoa)

Ondoko egunak arte, Jainkoak nahi badu.

P. Lafitte

(1970, Martxoa)

H

H-ek ez ditu bazter guziak bete behar, bereziki haren lekurik sekula izan ez den hitzetan.

Ez da izkiriatu behar: *hilun*, ilun edo illun baizik; *horai*, *horaindik*, etc. orai, oraindik, etc. baizik; *ihaz*, *ihazko*, jaz, jazko baizik; *jahio*, jaio baizik; *zahie* etorri zaie baizik; *mahilla*, maila baizik; *alketeheri*, alketeri edo alketeeri baizik.

Zuk diozuna *«diptongoa hausten denean baizik ez dela sartu behar h hori bi bokalen artean»*, egia handia, bainan ez baita euskalki guzietan berdin gertatzen.

Uztaritzen *ahizpa* hiru silabetan dugu, *gehiago* lau silabetan. Bainan *hain* erraiten dugu silaba batez, ez *ahin*, salbu xuberotarrez *arin* erraiteko plazan, ez baita kasu bera.

Manera berezi batez ez ezar behin ere *h*-ik atzizkietan:

ille*h*ek, aitortze*h*a, zirei*h*a,
atxe*h*ekin, arrazoi*h*ak, begi*h*ak, } Hauk oro gaizki emanak dira.
biltzarre*h*etan.

Bitxikeria: *ukitu* erraiten da, bainan *hunkitu* gutartean.

Aipatu ginuen aspaldian kontsonanten ondoan ez ginituela *h*-ak begiratuko izkiribuz: beraz ez da gehiago *kh*, *lh*, *nh*, *rh*, *ph*, *th*-rik. Bainan zer egin hitz lotuetan? Egia da zaharrek izkiriatu dutela askotan : *atzerri*, *otserri*. Bainan gutarteko hainitzek ez dute ikusten zertako, *hartu* erranez geroz, ez duten on-*h*artu erranen. Gisa berean *herri* diotenek ongi daukate Eskual-*h*erri ere izkiriatzen. Legeari ez ihardokitzeko, marratxo batez berexten ditugu bi hitz-zatiak.

Arno-basoa da: arno edateko egina den basoa, verre *à* vin, verre *à* bordeaux, verre *à* champagne, etc., formari doako izena...

Bainan erraiten dugu *baso bat arno*, un verre *de* vin, erran nahi baita: edozein baso, arnoz betea denez geroz.

Arno-basoa ez da baitezpada arnoz betetzen.

Badet nere funtsean (lurretan) zink-mia bat. Bainan errialdeko masoi edo sorgin batzorde batean sartuak diran zenbaitek arri-erakuskinen (muestras de piedra) indarra kanbia-razten didate. Ez al da deabruaren indarren medioz?

Nai nuke jakin meza bat bearrezkoa danez, elburu orretara ematen danean, indar suerte ori galerazteko, nik bidaltzen ditudan zink-arri erakuskinak (muestras de mineral) eldu ditezen nik bidaltzen ditudan lekura.

Ondoko egunak arte. Biotz-biotzetik agur andi bat.

P. Lafitte

A. IRIGARAY – P. LAFITTE
1933-1936

Iruñean, 5-XII-33

Pierre Lafitte yaunari,

Nere adiskide agurgarria: *Eskualduna* irakurtzen ari naizela, ikasten dut *Eskual Herriaren alde* liburuaren berria; asko poztu nau berri atsegin orrek. Non eros nezake? Otoi erran zadazu itz bat.

Aspaldian nere buruarekin bueltaka arituz, beti gauza berera eldu naiz: emen Nafarroako eskualdun zatian (orai elekzionetan oso gora gelditu dira abertzaleen aldekoak, beste Nafarroaren aldean) bear bearrezkoa da euskal paper bat; giputz izkera ez da lapurtarra bezain atsegin eta errex guretako; ez ote ditake paperño bat egin euskaraz, bide nabar Nafarroako euskaldunendako ere on litakena? Zuen eta gure artean?

Bide batez, zabaldu ginezake *emeki* abertzaletasuna, eta euskara ortografiak eta erak ere poxi bat bateratu.

Euskarazko paper txiki bat bear litake, euskaldun politikarekilako ardura geixeagorekin, eta Franzia ta Españako gutiagorekin. Zer zaizkitzu ene ametsak?

Badakusagu, emeki emeki (bertzalde) sartzen tuzuela *Eskualduna*n aberkoi ziriak; arimak irabazten ari zizteia?

Egon ongi eta agindu beti zure adiskide eta zerbitzariari.

Aingeru Irigaray

13-III-34

Pierre Lafitte yauna,

Neure adiskide agurgarria: emen dituzu yaun Larramendi-tarrak, Baztan Iruritako nere adiskide onak. Otoi, egin ezazu zerbait beren xedeari laguntzeko.

Mila esker *Gure Herria*n zuregandik egin den ene aipamenaz.

Egon ongi eta agindu zure zerbitzari txipienari.

A. Irigaray

29-V-34

Pierre Lafitte yauna,

Neure adiskide agurgarria: irakurtzen dut Vogel musikariaz diozuna eta tirriatu naiz *Ene hautiaz*: non eros dezaket? Etzauzu iduritzen arras on litzatekela liburutegi batian, Donianen edo Bayonan, agertzen diren liburu euskaldun berriak, eta zaharretarik ditazkenak ere, kausitzen ahal izatea? Pirineoz unaindiko eskualdunek eztakigu zer egin, norat jo, zuen alde ortan agertzen diren liburuak eskatzeko. Ene adiskide batek nai du Haranederren *Philotea* bat, bertze batek *Gueroco* bat: otoi, baldin badakizu non ditazken erran zadazu itz bat; aditu dut Belloc-eko Beneditanoek badutela liburu eskualdun parrasta bat: an ote?

Gogotik irakurtzen ditugu zure lan ezinederragokoak, *Eskualduna*n, eta berriki «Lan eskasa» *Gure Herria*n: milla zorion zure lan ederrarengatik. *Eskualduna* ezinegona bezala dago zenbeit denbora untan, bereziki socialismo ta «franc-maçon»-en gatik; ez duzu uste anitzez geyago edatuko litzakela astekaria, bere doyan, emekiago yoz ezkertarren politika? Iduritzen zait ainitzek irakurriko dituztela bertze egunkariak, berze gaien gose direlakotz preziski: berriak, mundu guziko berriak, erdaldun egunkariek ezartzen dituzten einean berean ematen ez ditugun bizkitartean, ez diogu lekua yanen erdal egunkariari.

Zertan daude *eskualerrizaleak*?

Axularren *Gero* argitaratzekotan, uste dut itzez-itz egin bear dela, oraiko ortographian; gurean, rr doblekin, eta h guziekin, latin erranak orrialdeko beiti bazterrera; eta itz ez ezagunak beitiko aldean ere, bere itzulpenarekin, bizkaitar eta gipuzkoarrek ulertu dezatenzat; nai nuke afera untaz, aburu berekoa zaren yakin, baitakit asko dakizula liburu ori.

Izen, bataio-izen euskaldunak bildu bear lirazkela nago; emen barreatzen ari dire, izen berri (A.G.) (Arana Goiri) batzu, itsusiak, baiño zaar ederren faltaz eta ignoranziaz; or Dassance-k ba omen ditu anitz; ez ote du argitara eman gogo? Edo kopia bat utzi?

Barkatu gaitz erranak, eta agindu beti zure adiskide eta zerbitzari xumeenari.

Gure Herria, gero ta ederrago!

A. Irigaray

28-V-34

2-VI-34

M. Pierre Lafitte

Ustaritz

Nere yaun adiskidea: milla esker *Ene hautia* bidali bai dirazu; eztakit zenbat fabore egiten dirazun, eta urririk! Emen dut 10-eko paperño bat eta bidaltzen zitut, badakit ala ere onekin ez dizudala dena ordaintzen.

Idazten dirazularik, otoi, erradazu nongoa den eskuaraz zerbait ematen duen agerkari sozialista ori *Le Travail*; gutiziatua naiz, ikusteko.

Beste deus gaberik, egon ontsa eta agindu zure sehi xumeenari.

A. Irigaray

6-VI-34

Pierre Lafitte yauna,

Nere yaun maitea: nik egin ondotik, artu nuen zure gutuna. Milla esker *Philoteaz* agintzen dirazuna. Konprenitzen dut orko marxistaz diozuna; emen ere badugu zerbait alako. Ala ere iduritzen zait, barkatu geyegi erraten badut, geyago edatuko litzakela *Eskualduna* gaiak geiago aldatuz, eta politika elekatuz epelkiago; eskualduna berez ere epel da, eta uste dut atseginago artuko zuela astekaria; makurrean nago? Baditake; geyago edatzea astekari ori besterik enuke nai, beinik bein. Bataio-izena diozunagatik ere, eskerrik asko berriz ere.

Oso osoan nago, Axularrez diozunarekin.

Iaun enuke nik aldatuko *jaun*: emen J (jota espagnole) oso edatua da Gipuzkoan, eta kendu naiak daude; ortako ez da paratu bear *i* dagon tokian; *campo*, ez ote litzake obe *kampo* ezenez kanpo?

Deituraz diozunaz bistan da: *Cupido, Ovidio,...*

Latin sailak Axularren ongi daude? Ongi artuak clasico-etatik erran nai dut.

Mila goraintzi. Zure zerbitzari xumeena.

A. Irigaray

P.S.— Erran zadazu, zor baldin badizut zerbait.

Roncesvalles - 14
Iruñean - 23-VIII-34

Pierre Lafitte yauna,

Neure adiskide eta yaun maitea, irakurtzen dut bozkario andi batekin argitara gogo duzuela illabetekari bat. Uste dut geyena eskuaraz eginen duzuela eta, ala balitz, edatuko litzake Nafarroko eskualdun parteetan eta Gipuzko zenbaitean *Eskualduna* baiño geyago.

Eskualduna, soberaxko emana iduritzen zait Frantziako goiti beitietara, emengo errietan interesaikin irakurtzeko; eta paper batean irakurtzen ahal balire Eskualerriekilako ainbeste gauza eta gora bera, uste dut, dagon goserekin, sartuko zela emen ere. Eta nago, bear bearrezkoa dela zuen paper bat emengo partetan, eskuara ederra ikasteko, yastatzeko eta gozatzeko. Badakizu, abertzaletasuna dela bide, leia eta maitasun andia dela emen, Lapurdiarendako, eta ainitz gustatzen dela *lapurtar eskuara* ederra, naiz anitzek ez yakin ongi.

Ikusi zinuen azken batzarrean, Donostian, ez gaudela arras bakarrik zuk bezala pensatzen dugunak; asko daude orai gure aldera, au da euskara erreza eta erritarraren aldera behatzen dutenak.

Bat edo bertzek, emengo errietatik berriak igortzea ere zuen paper ortara elitzake batere gaizki; baño, deus yakin gabe, sartzen naiz ni batere begiramen gabe, barkatu, baño nere nai andia, lapurtar eskuara edatzen ikusteak, bulkatzen nau ausardi unen artzera.

Zer gisakoa izanen da paper ori? Berriketaria? Ezen *Eskualduna*ren utsa da mundu guztiko berri eskas dakarrela, ain guti, non orai berean emen gertatzen diren gauzak, ain barna izanik, ez paititu kasik aipatzen. Ez ote zaie *Eskualduna*ren agintariei atsegin, eskualdunak beren elburua erdiesteko, elkar arrapatzea bidean ezkertarrekin? Ala da, bañan...

Zuen berri gose naukazu eta zerbait laguntzen aal badizuet, zuen lan eder orretan, erradazu itz bat.

Salve bat: *Euskalzaleek* Donostian erabili ginuen solasaz zer diraustazu? Zer bideak uste duzu zitezkela oberenak, emengo idatz moldeak pixka bat oneratzeko? Agindu beti zure zurea den A. Irigaray-eri.

Nere ezkontzaren berria euskaraz ere eginarazi, baiñan ez dut oraiño.

Iruñean 11-IX-34
Roncesvalles 14-10

Pierre Lafitte yauna,

Nere adiskide agurgarria : bialtzen dizut erantzupen ori *Page des curieux*, azken *Gure Herria*ko 35 garren galdeari. Nere frantsez errebesatua, otoi, orraztatuko bearko duzu eni bidali gabe, eta ala ere, eztakit argitaratzeko funtsik baduenez, zuk ikus.

Eya Dassance-k ere idazten duen *Gure Herria*ko Bibliographie zatia, oso ederra ta interesantia. Donibaneko bilkurara ezin yuan, prestamenetan bainago, baiñan gogoz zuen artean izanen nuzue. Egon ongi eta agian eginen fite zuen aldizkari berria. Zure-zurea.

A. Irigaray

Aitak galde egiten ditzu eia nor den D. Etchegoyen (3).

(3) «D. Etchegoyen» hau da D. Soubelet *Eskualduna* astekariko zuzendariaren izenordea.

Iruñean 6-XI-34

Adiskide yauna, ezkontza bidayatik itzultzean atxematen dut zure gutuna, aspaldi egina dudarik gabe, mila esker zure desira eta itz onagatik. Eskeintzen dizut, nere bizi toki berria: «García Castañón, 4 - Pamplona».

Atsegin andia artzen dut jakitean nere lana gustatu zautzula, eta Dassance-k ere yarraikiko duela. Badugu izendegi serios baten bearra.

Ez dut ikusi Aintzina, eta, otoi, igor zadazu numero bat, plazer baduzu, bere sarian.

Soberasko aitzina juan ondoren emen, nik uste pixka bat emekiago yuan bear dugula guk ere, eta eskuara geixago...

Egon ongi eta agindu beti zure zerbitzari xumeenari.

A. Irigaray

García Castañón, 4-3°
Iruñean 4-XII-34

Pierre Lafitte yaunari

Ustaritz

Nere yaun adiskidea, naski zuk igorri zidazun *Aintzina* aldizkari polita! Milla esker, beraz.

Otoi, egin zadazu artzale edo abonné, 5frs igorririk ere *bigarren zenbakia*. Zorionak ematen dauzkizut agerkari eder orrengatik, ala egin bear da lan, epelki eta barneki; emen, askok daude aspertuak erematen dugun bide gogorrengatik: «*euskera geyago eta politica gutiago*»! ara emengo abertzale aunitzen teleka. Zuek ematen duzue erdian; jarraik bada bide ortatik, azkar eta berme, bide segura baita, eta gañera izan ditake emengo aunitzen ikas-bidea. Ederki litzake ortarako, zenbeit irakurle egitea Gipuzkoan eta Bizkayan, eta Nafarroako iparrean; nik nere aldetik, egin aala eginen dut. Gipuzkoan eginen dautzu Piarres Garmendia Eusko Ikaskuntzakoak (4).

Leeneko ikasbidea emengoentzat da *erdia baiño geyago* euskaraz ematea; eta zer euskara! Euskara garbia, baiñan errikoa bera. Gauzak interes dute (5) olako paperetan, *errietako berriak*, eskuaraz; eta *Ichtorio chahar* Etcheberry-rena bezalakoak: zeren Folk-lore guti biltzen da, denaren aldean; eta zer da gauza atseginagorik *ele xahar*, ipui, erran zaharrak, sorgin kontu, biltzea eta irakurtzea baño! Ori ditake, politikaz betetako paper baten pausa tokia; eta dudarik gabe, ortarik zoazte zuek.

Irakurri nuen nere lana *Gure Herria*n, mila esker zure laguntzarengatik; norbaitek bidaliko aal du zerbait geyago! *Eskualduna miriku* Pierre *Larzabalena* (6), da lan bat ederra; erritikako irakurgaiak ez dire sobera ikusten gure aldizkarietan; eta ori da gauzarik atsegiñena eta nagusiena. Emen Barandiaranek bakarrik egiten du Folk-lore ori, eta zein ongi! Azken liburuan, ordea, Ariztia andreari (7) ez diote ain ongi lagundu!

Egon beti ongi eta prest naukazu laguntzeko nere einean. Zure zerbitzari.

A. Irigaray

---

(4) Piarres Garmendia Goyetche saratarra, Saran bizi zen. Gerlaren ondorioz, Bizkaira 1937an joanik, han hil zen.

(5) Etcheberry apeza 13 liburu bere kontuz idatzi zituen dohoztiritar idazle oparoa.

(6) P. Larzabal euskaltzaina. Ikus haren obrari P. Charrittonek aurkeztuak 7 tomotan.

(7) Mayi Ariztia «Amattoren uzta».

13-VIII-35

Ene adiskide maitea: zer pena artu nuen zure itzaldia ez entzutearekin Donostian! Baño baneraman 15 egun etxetik kampo, eta beartu nintzen sartzera. Aditu dut ezin ederragoa izan zela zure itzaldia; an ez ginenek non irakur dezakegu? Ainitz gara deseio ortan gaudenak.

Emen doakizu Luzaideko adiskide (Manezaundi) maite baten deiadarra; zuk igor dezakeiozu katichima eta eliz liburuño merke dozena bat mutiko ttipientzat? Ala balitz, igor zaiozu *nere kontu*, unat: *M. Enrique Zubiri* Valcarlos (Espagne).

Irakurtzen dut bozik *Aintzina*; bereziki *Ichtorio chahar* eta *Le persan*: unek badu arrakasta!

Boztuko nintzake edatzen balitz illabetekari eder ori; gazteetan ainitz irakurtzen ote da?

Eskualduna ederra nai ginuke emen *Nafarroan* pixka bat edatu; eskuara bera da eta egin litake; aditu nuen etzaiotela batere axolik astekariko jaunei Nafarroan edatzea, eta ere, ez ginukela bilduko erreztasun andirik (kario baita emengo astekarien aldean) badut beldur; zer dirazu erraiten untaz?

Agian, uda untan bisita bat eginen datzugu Uztaritzen. Egon ongi eta agindu zure zerbitzari apalenari.

A. Irigaray

2-I-1936

Pierre Laffitte yauna,

Nere yaun adiskidea: irakurri dut yuan den *Eskualdun*ean «Gure gurutzea» deritzaion irakur gaia; uste dut P.L. zu zarela eta orgatik nai dizut erran zein ongi atcheman ditudan zure arrazoiak, beti gertatzen zaitan bezala; zorigaitzez, *Ebangelioa* atalean ezdakusat zure oñatzik.

Berdin bozkario eta atsegin aundirekin segitzen dugu emen zuen *Aintzina* zuhurra; gauza funtsezkoak errateko eta egiteko ezta bear arrabotsa eta arroitu. Emen ainitzek ez dugu ontsa ikusten gure P.'ko agintariek deramaten bidea; naiago, eskualdungoaren azkartzea, axolatu gabe geyegi Españako koloreaz estalia dagonez; berdin Frantziaz. Mintzairan ere arras akort gaude zuekin, emengo asko, eta emengo zenbeitek derabilaten eskuara irriegingarri zaigu, ezpalitz nigarregingarri. Segi ol-ola: bide zuzenean zoazte, ezta dudarik.

Eskuararen aferaz, preziski, behar (behar!) ginuke emen sararazi *Eskualduna*, zenbeit eskutartean bereziki, paperak zirriborratzen dituztenen eskuetan; nik beti igortzen ditut bizpairur urririk; ez ote litake (salneurri apal batean) barreatu (Gipuzkoan) zenbait numero, propagandatako; dozena bat edo ala? Aspalditik ideia orrek nerabila, baño ezbide zaiote deus axolik *Eskualdun*ean? Ala uste dut.

Bestenaz, afera aundia da eskuararentzat, ikus dezatentzat emengo batzuk nolakoa den euskara goxoa, euskara aberatsa eta euskara erritarra, ots *Eskualdun*ena.

Eta, barkatu otoi, zertako ez edatu geyago *Eskualduna* or zuen alde ortan berean? Ederki dago «Gure gurutzea», baño etzen batere gaizki izanen zuen saretan biltzea ainitz gazte eskualdun; ortako, etzait iduritzen, barkatu berriz ere, bide oberena dela sobera eliztiar agertzea; izatea bai, baño itxura pixka bat apaindu, nabarmendu gabe. Eskualdunak gutxi gara, eta bearrezkoa da denak biltzea eskualdungoaren saretan; sare oietan sartuz, elizarako oztasuna ere galtzen da lenagotik bada, eskualdungoa, berez, kristaua baita. Eliztiartasuna zerbeit estaliz irakurle berri geyago irabaziko zuken *Eskualduna*k, zarrak galdu baño... Ortan da auzia.

Gure astekari ederraren amodioak erranarazten dit itz ausarta abek; uste dut balio duela ortan gogoetatzea; ikus dezagun ezkertarrek nola estaltzen duten bere barna, beren paperetan, ez dezakegu guk berdin egin?

Urte berri on bat eta osasunez eta euskalzaletasunez betea. Zure adiskide eta zerbitzari.

Zuen berri onak, beti on neri.

Aingeru Irigaray

Iruñen 27-III-36
G. Gastañón, 4-3°

Piarres Lafitte yauna,

Nere adiskide agurgarria : nai nituzke zure ele on batzu, afera ezin andiago bati buruz.

Bilingüismo escolar legeaz ari gara: Gobernua legea ematera ixuria. Badakizu nola gabiltzan texto-taz: maisu euskaldunik ez asko errietan; erri euskaldun askotan aurrek ez euskaraz edo guti; zer egin orai, zer irakatsi, zer eska Gobernuari, guk egin aal izateko, eta *ridicule*-rik ez yasaiteko gero; plan nationala bat bear dugu orai bereala, egiten ahal diren gauzena; nik uste gutxi egin daikela emen, berehala, ta zer da gutxi ori?

Otoi, ixilean nai baduzu, erradazu zer iduritzen zaitzun obekienik, ezen nik sudurra sartzen aal nuke *comisión* onetan. Gurasoek erran bear, naski, zer eltan irakatsi beren umeei; baño, erri euskaldun uts batean, gurasoek ezpadute eskuara eskatzen, axola etzaielakotz?...

Bada zer pentsa. Milla esker igorriko dauzkizut, itz bat erraten baldin badirazu; zeren, beharrezkoa da conseilu bat, bereziki, gauzak egiten eta ikusten dituen yakitun batengandik. Egon ontsa eta agindu zure zerbitzari eta adiskideari.

A. Irigaray

P.S.— Artu bide zintuen nik biali lerroak *Gure Herria*rendako?

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

BATZAR-AGIRIAK

Larresoron, 2004.eko ekainaren 25ean

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,
Henrike Knörr, euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Beñat Oihartzabal, Iker sailburua,
Andres Urrutia, Jagon sailburua,
Jean Louis Davant,
Patxi Goenaga,
Andres Iñigo,
Emile Larre,
Jose Luis Lizundia,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu
eta Piarres Xarritton euskaltzainak,

Juan Jose Zearreta, kudeatzailea, Pello Telleria, idazkariordea, eta Mikel Gorrotxategi Onomastika batzordeko idazkaria, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Patxi Altuna, ahala P. Salabururi; Jose Antonio Arana Martija, ahala H. Knörri; Miren Azkarate, ahala P. Salabururi; Xabier Dihartze, ahala J.L. Davanti; Juan Mari Lekuona, ahala J. Haritschelharri; Patxi Ondarra, ahala A. Iñigori; Juan San Martin, ahala J.L. Lizundiari; I. Sarasola, ahala P. Salabururi; P. Zabaleta, ahala A. Iñigori; eta Antonio Zavala, ahala J.L. Lizundiari.

Batzarra goizeko 10,10ean hasi da Larresoroko Herriko Etxearen bilera aretoan, ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

1. Akta onartzea

Maiatzeko batzarraren akta onartu da, horri J.L. Davanten ezin etorria erantsirik, berau E. Larreren bitartez adierazia baitzen.

2. Hizkuntza gaiak

2.1.1. Onomastika: Gipuzkoako herri izendegia (2. zerrenda): Tolosaldea, aurreko bileran banatua, aurka inolako oharrik jaso gabe, ontzat eman da. M. Gorrotxategik azaldu duenez, J.L. Lizundiak *Toloserria* forma ere jaso du, eta hori ere jasotzea erabaki da. P. Goenagak *–(h)erri* bukaera duten toponimoek izan behar duten deklinabidetrataeraz galdera egin du. M. Gorrotxategik, J.L.Lizundiak, Tx. Peillenek, P. Goenagak holako izenak alde batera eta bestera erabakitzearen alde on-txarrez hitz egin dute. Haritschelharrek *–(h)erri* bukaeradunak hurrengorako aztertu eta erabakitzea proposatu du. Ontzat eman da. *Amasa* herri-izena erantsita, *amasar* herritar-izena ere ontzat eman da.

2.1.2. Batzordeak Gipuzkoako herri izendegia (3. zerrenda): Goierri aurkeztu du. Horri buruzko oharrak uztailaren 15erako bidali behar direla gogoratu zaie euskaltzainei.

2.2.1. Batzordeak *Euskal Herria* izena arau izateko proposamena aurkeztu du A. Iñigok. Ondoren, *Euskal Herria* izena deklinatzeko moduaz eta herri-izen hori inguruko erdaretan adierazteko Euskaltzaindiak erabiliko dituen itzulpenez mintzatu dira P. Goenaga, H. Knörr, A. Iñigo, B. Oihartzabal A. Urrutia, Tx. Peillen, P. Xarriton eta

X. Kintana, nork bere ñabardurak eginez. Hurrengo bilkurarako, uztailaren 15erako, oharrak idatziz bidaltzea erabaki da.

2.2.2. Hiztegi Batua: P. Salaburuk *b – berriz* zerrendari egin zaizkion oharrak aurkeztu ditu, eta horiek aztertu eta eztabaidatu ondoren, *balazo*-tik *baliogo*-rainoko hitz guztiak erabaki dira. P. Salaburuk zerrenda bat aurkeztu du, euskaltzainek markaturiko hitzekin, baina gero oharrik egin gabeak.

3. Eskuartekoak

J. Haritschelharrek ondoko gaiak aurkeztu ditu:

Aramaion, uztailaren 6tik 9ra artean, Euskal Herria XVI. mendean gaiaz eginen diren kultur jardunaldien programa.

Pirinio Atlantikoetan gehien erabiltzen diren deituren zerrenda, maiztasunaren arabera ordenatua.

Era berean, Euskaltzainburuak J.L. Lizundiaren sarrera-hitzaldia, Euskaltzaindiaren uztaileko batzarraren ondoren, Abadiñon izango dela adierazi du. J.L. Lizundiak hara heltzeko bide eta garraioaz argitasunak eman ditu.

4. Andolin Eguzkitza euskaltzainaren ordezkoa hautatzea

Andolin Eguzkitza euskaltzain zenduaren hutsunea betetzeko aurkeztu diren bi kandidatuetatik bat hautatzeko, botazioa egin da, ondoko emaitza hauekin: Adolfo Arejita jaunak 12 boto, Itziar Laka andreak 10 boto eta boto zuri bat. Beraz, Adolfo Arejita jauna gelditu da hautaturik. Berari halaxe jakinaraziko zaio.

5. Banaturiko liburuak:

Espainiako Kode Zibila, Andres Urrutia Badiola euskaltzainaren eta Esther Urrutia Idoiaga irakaslearen ardurapean itzulia.

Nafarroako Gobernuak, '*Fonoteca del vascuence'*, *barruan Nafarroako euskararen egoera* izenaz ateratako emaitzak.

Euskaltzaindiak BBK-ren diru-laguntzaz 2003an antolaturiko Literatur Lehiaketako liburu sarituak:

Olerkia: *Oihan nabarra*, Luis Garde Iriarte-rena.

Antzerkia: *Lagun mina*, Aitor Arana-rena.

Eleberria: *Bost ahizpa*, Aitor Arana-rena.

Saioa: *Harrizko pareta erdiurratuak*, Patziku Perurena-rena.

Bilera-ekitaldia 12,44an amaitu da.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Bilkura Irekia
Euskaltzaindia Haltsun eta Larresoron

Larresoro, 2004-VI-24

Euskaltzaindiak, Maurice Harrieten heriotzaren lehen mendeurrena dela eta, ageriko bilkura egin du Larresoron. Hala ere, ageriko bilkura hasi aurretik, zenbait ekitaldi burutu zuen Akademiak, Haltsun, Harriet sortu zen herrian. Lehenik eta behin, Haltsuko karrikan «Maurice Harriet eskola»-ri agurra egin zioten euskaltzainek, izan ere ekainaren 24an bertan jarri baitzioten arduradunek Haltsuko eskolari Maurice Harriet izena. Joseph Maia eskolako zuzendariaz gain, Piarres Charritton euskaltzaina eta Maite Iratzoki eskola pribatu elebidunen zuzendaria mintzatu ziren, eskolako gorabeherak eta Harriet beraren historiaz mintzatuz.

Ondoren, Haltsun, Maurice Harrieten «Etxeberria» sortetxean Euskaltzaindiaren oroitarria inauguratu zuen Jean Haritschelhar euskaltzainburuak. Honela dio oroitarriak:

Etxe honetan sortu, bizi eta hil izan den Maurice Harriet (1814–1904) euskaltzale handiari. Euskaltzaindiak, 2004-06-24.

Euskaltzainburuak hitz hauek esan zituen:

«Euskaltzaindiak nahi ditu ohoratu gure aitzinean izan direnak. Horietarik bat da Maurice Harriet eta nik uste dut gure oroitzapenerako holako gauzak behar ditugula egin. Duela bizpahiru urte egin genuen Luhuson, Aita Lafitterentzat. Egun, egiten dugu, hemen, Maurice Harrietentzat. Eta hori da guk egin nahi duguna, guk ere gure historia baitugu eta historia hori behar dugu osatu, gure haurrek behar dute jakin zer izan diren beraien arbasoak eta nik uste dut horretan, bai euskaraz eta bai beste hizkuntzetan ere, behar ditugula horiek zabaldu».

Ekitaldi xume hau amaitu zenean, euskaltzainak Haltsuko eliza-atera joan ziren, Maurice Harriet zenaren hilobiari agurra egiteko.

Ondoren, 17:30etan, Larresoroko Pelerene liburutegian ageriko bilkura egin zen, hizlariak hauek izan zirelarik: Henrike Knörr, Arantxa Hirigoyen, Pierre Andiazabal, Iranzu Epelde, Piarres Charritton eta Jean-Louis Davant.

Bilduak: Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; Henrike Knörr, buruordea; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Beñat Oihartzabal, *Iker* sailburua; Andres Urrutia, *Jagon* sailburua; Andres Iñigo, Emile Larre, Txomin Peillen, Jean-Louis Davant eta Pierre Xarritton euskaltzain osoak. Pierre Andiazabal, ohorezko euskaltzaina. Euskaltzain urgazle hauek: Gexan Alfaro, Xipri Arbelbide, Aurelia Arkotxa, Erramun Bachoc, Xarles Bidegain, Joseph Camino, J.B. Dirassar, Luzien Etxeza-

harreta, Mixel Itzaina, Daniel Landart, Pello Telleria eta Juan Jose Zearreta. Amaia Okariz, Euskaltzaindiko prentsa arduraduna, eta Annie Etxeberri, Euskaltzaindiaren Baionako ordezkaitzako bulegaria eta Maite Irazoki, Baionako diozesiko ikastegien zuzendaria, eta azkenik, Haltsuko auzapeza Haltsun eta Larresorokoa Larresoron.

Henrike Knörr: Maurice Harriet, euskaltzale eta euskalari

Maurice Harriet apaiza Haltsun sortu zen 1814an eta han hil zen 1904an, laurogeita hamar urte betetzear. Henrike Knörrek esan zuen bezala, «bi alderdi ikusten dira haren bizitza luzean. Alde batetik, euskaltzale porrokatua izan zen. Gogoratu behar da, batez ere, D'Abbadieren laguntzaile handiena izan zela, 1853an, lehenbiziko Lore Jokoetan; batere gehiegikeriarik gabe erran daiteke Maurice Harriet zela antolatzaileen talde-burua». Bestalde –azpimarratu zuen Knörrek– aitona Martin Harriet gramatikalariaren bideari jarraiki, euskalaria izan zen Maurice: «Hiztegi handi bat, zazpi probintzietako euskararen hartzailea, eta garai bateko eta besteko autoreen adibideekin idazten aritu zen, baita bukatu ere. Zergatik ez zuen argitara eman? Bere osasun makalagatik? Azkue bere hiztegia prestatzen ari zela jakin zuelakoz? Ez dakigu».

Arantxa Hirigoyen: Harrieten hiztegiaren berezitasunak

Arantxa Hirigoyenen aburuz, lehenik eta behin azpimarratzekoa da M. Harrieten hiztegia (3.536 orri) eskuizkribua dela, hau da, sekulan argitaratua izan ez den obra bat. Hiztegi elebiduna da, euskara-frantsesa; hots, frantsesez azaltzen ditu euskal hitzak. «Egiturari begira –azaldu zuen Hirigoyenek– beti hurrenkera berean aurkeztuak dira hiztegi-artikuluak: sarrera-hitza, aldakia, mugabidea, adibidea edo aipua, sinonimoa, etimologia eta oharrak». Edukiari begira, aldiz, hiztegi honek dituen bi aberastasun aipatu zituen Arantxa Hirigoyenek: «Lehenbizikoa, Maurice Harriet hiztegigileak euskalki guziak kondutan hartu ditu. Harrieten hiztegian ez dira bakarrik lapurtera, behe-nafarrera edo zubererazko hitzak agertzen, baizik eta euskalki guzietakoak. Gisa horretan euskal lexikoaren erakusgai zabala eskaintzen digu. Horrek frogatzen digu ere, Harrietek bere ezagutza eta jakitateaz aparte iturri anitz eta desberdinak erabili zituela bere hiztegiaren osatzeko».

Pierre Andiazabal: Maurice Harrieten liburutegia

Pierre Andiazabal kalonjeak azaldu zuenez, Harrieten liburutegiaz, Arantxa Hirigoyenek berak lan bikaina badu agertua Euskaltzaindiko Iker – 14 liburuan. Beraz, Andiazabal «liburutegi horren inguruaz» mintzatu zen. Andiazabalek esan zuenez, Harrietek euskarazko bere liburuak Larresoroko Seminarioari utzi zizkion, «baina ez da ahantzi behar 1906an gobernamendua Larresoroko seminarioaz jabetu zela, eta nik beti entzun dudanaren arabera, hango liburutegia ere Pauerat eramana izan zela. Nere ustez ez zitazken oraindik Harrieten liburuak Semenariorat eremanak». Seminario ttipiak

Uztaritzerako bidea hartu ondoren, 1928an, Mathieu jaun apeza sartzen da Uztaritzeko seminarioan nagusi bezala, «eta hark Piarres Lafitteren eskuetan ezartzen ditu Harrieten liburu guziak, eta gainera bere sakelatik ematen dio diruketa bat, liburutegi horren emendatzeko». Andiazabalen aburuz, «ez da dudarik altxor hori ederki baliatu zuela Lafittek».

Hori horrela izanda, galdera egin zuen Andiazabalek: «Non dira liburu horiek orain?». Arantxa Hirigoyenek, gaineratu zuen, «bere artikuluan eman dauku liburu horien guzien zerrenda. Egia erran, bi zerrenda». Lehena, Lauren Hirigoyen apezak egin da, «Harrieten jatorrizko zerrenda galdua baita». Bigarren zerrenda aldiz, Hirigoyenek berak ezarria, bestea baino luzeagoa, askoz liburu gehiago daukana. «Nago –erran zuen– ez ote den hori Hirigoyenek egin duen zerrenda, Harrieten liburutegia Belokerat, Seminario ttipirat ekarri zutenean».

Iranzu Epelde: Larresoroko eskuara

Iranzu Epelde Unibertsitateko irakasleari egokitu zitzaion Larresoroko euskaraz aritzea. Larresoroko gaur eguneko euskararen ezaugarri nagusiak azaltzeko saioa egin zuen, aldameneko herrietako hizkerekin alderatuz eta ikuspegi kontrastiboari lehentasuna emanez. Haren esanetan, Lapurdiko hizkeren gaineko azterketa zehatzek leku urria dute Euskal Dialektologiaren historian. Larresoroko hizkerari dagokionez ere, ez dela oso bestelakoa orain arteko egoera ere azpimarratu zuen Epeldek, eta ondoren hau ekarri zuen gogora: lehen dialektologia interpretazioa Bonaparte printzearena izan zen, hemeretzigarren mendearen bigarren partekoa. Geroztik, inkesta batzuk egin dira alde honetako hizkera biltzeko, «baina sailkapenaren inguruko interpretazio berririk ez da izan hogeigarren mendearen bigarren erdira arte». Iranzu Epelderen iritziz, «edozein hizkera aztertzeko, eta geolinguistikoki kokatzeko, nahitaezkoa da zein hizkuntza ezaugarri hautatu behar den eta zein baztertu behar den erabakitzea, eta hori lan nekeza izaten da, are gehiago hau bezalako erdiguneko hizkera batean».

Jean-Louis Davant: Manex Goyhenetche (1942-2004)

Azkenik, Maurice Harrieten omenezko bilkuraz gain, zendu berri den Manex Goienetxe historialari eta euskaltzain urgazlea ere gogoan izan zuen Euskaltzaindiak, eta Jean-Louis Davant euskaltzainak irakurri zuen haren omenezko hilberri-txostena.

Jean-Louis Davantek gogora ekarri zuenez, Manex Goyhenetche historialari eta euskaltzain urgazlea Garaziko Ezterenzubi herrian sortu zen 1942ko irailaren 22an, laborari familia batean. Historiako lizentziarekin, bigarren mailako irakasle izan zen, lehenik eskola katolikoetan (1966-1972), gero Seaskako ikastoletan (1981-2003). Historiako doktoregoa lorturik 1984an, Baionako Fakultatean ere irakatsi zuen orduz geroztik.

Bitartean, Ikas-eko idazkaria izan zen (1971-1983), baita Seaskako lehen langile «permanentea» ere. Horretaz gain, Euskal Herriaren historiaz hogei bat liburu idatzi zituen, gehien bat frantsesez. Gure historia orokorraz, lau liburu daude hor; azkena laster aterako da, bosgarrena.

Euskal historia osatzeko, Goyhenetchek egin duen ekarpena goraipatu zuen Davantek, «... berak nazionalismotik askatu duelako euskal historia, neurri handi baten. Historiak ez du nazionalista izan behar, baina nazionala izan daiteke. Eta hori da Manex Goyhenetxeren xede nagusia: Euskal Herriaren historia nazionala utzi digula».

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Abadiñon, 2004.eko uztailaren 23an

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,
Henrike Knörr euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Beñat Oihartzabal, Iker sailburua,
Andres Urrutia, Jagon sailburua,
Patxi Altuna,
Adolfo Arejita,
Miren Azkarate,
Jean Louis Davant,
Patxi Goenaga,
Andres Iñigo,
Emile Larre,
Txomin Peillen,
eta Piarres Xarritton euskaltzainak,

Juan Jose Zearreta, kudeatzailea, Pello Telleria, idazkariordea, eta Mikel Gorrotxategi Onomastika batzordeko idazkaria, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak:

– Patxi Ondarra.

– Pello Salaburu, ahala M. Azkarateri

Batzarra goizeko 10,10ean hasi da Abadiñoko Udaletxearen batzar aretoan, ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

1. Adolfo Arejitari ongi etorri

Euskaltzainburuak aurreko bilkuran Larresoron Andolin Eguzkitzaren hutsunea betetzeko hautatu zen euskaltzain berriari, Adolfo Arejitari, ongi etorria egin dio, Euskaltzaindian lan egiteko bere gogoko batzorderen bat hautatzera gonbidatuz.

2. Abadiñoko alkatearen agurra

Javier Uriarte jaunak, Abadiñoko Alkateak, Euskaltzaindia bildua dagoen aretora heldu eta Akademiako kideak agurtu ditu, Abadiñoko herriarentzat holako bilkura izatea ohorea dela azalduz. Instituzioaren izenean, euskaltzainburuak alkateari eskerrak adierazi dizkio emandako erraztasun eta laguntza guztiengatik.

3. Gai ordena aldatzea

Bilkura hobeki antolatzeko, bezperan Zuzendaritzan erabaki bezala, J. Haritschelharrek eguneko gaien ordena aldatzea proposatu du, 12etan atseden-etena egingo dela iragarriz.

4. Akta onartzea

Ekaineko batzarraren akta onartu da, horri Andres Iñigok aurkituriko huts batzuk zuzenduta.

5. Eskuartekoak

5.1 Augustin Zubikarai euskaltzain ohorezkoaren heriotzaren berri eman da, uztailaren 12an gertatua. Euskaltzaindiari Juan Jose Ibarretxe lehendakariak eta Xabier Retegi Eusko Ikaskuntzako lehendakariak doluminak adierazi dizkiotela jakinarazi da.

5.2. Euskaltzaindiaren hurrengo bilera irailaren 17an, Lizarran, eginen dela iragarri da.

5.3. Antonio Tovar euskalari eta euskaltzain ohorezkoaren alarguna, Consuelo Larrucea andrea, uztailaren 1ean hil dela eta euskaltzainburuordeak haren senideei doluminak helarazi dizkiola azaldu da.

5.4. Liburu berriak. Bilera bukatzean euskaltzainen artean Orotariko Euskal Hiztegiaren XV. tomoa eta *Euskera* 2003 2. separata (Euskaltzaindiaren Argitalpen eremua: Argitalpenetarako prozeduraz) banatuko direla iragarri da.

6. 2005.eko urterako aurrekontu egitasmoaren aurkezpena. Juan Jose Zearreta kudeatzaileak datorren urterako aurrekontu egitasmoa aurkeztu du, oraingo honek eta aurreko urteetakoek dauzkaten aldaketak alderatuz. Egitasmoen kostu ekonomikoak banan-banan xeheki azaldu ditu. Esan duenez, horiek ez dute zerikusirik ohiko batzorde akademikoen funtzionamenduarekin, hauek finantziazio ziurtatua dute eta.

Abuztuaren 13ra arte bulegoan lanean arituko dela esan du kudeatzaileak. Irailaren 3ra arte edozein euskaltzainek aldaketak zein gehiketak idatziz proposatzeko eskubidea dauka. Geroago helduriko zein ahoz egindakoak ez dira kontuan izango. Helduriko zuzenketa horiekin irailaren 17rako prestatu eta aurkeztuko dira behin betiko aurrekontuak.

J.L. Lizundiak, egitasmoen artean agiri diren desorekak azpimarratu eta proiektu berriek finantziazio aldetik bete beharko lituzketen baldintzak azaldu ditu.

Bukatzeko, J. Haritschelharrek oharrak egiteko azken data irailaren 3a dela gogoratu du eta Euskaltzaindiaren aurrekontua 3.300.000 eurokoa izango denez gero, gastuak horra egokitu eta murriztu beharra dagoela.

7. Hizkuntza gaiak

7.1.1. Gipuzkoako herri izendegia (3. zerrenda). Goierri, aurreko bileran Onomastika batzordeak banatuari ez zaio idatziz inolako oharrik egin eta, beraz, ontzat eman da. P. Goenagak, ahoz, Zumarragako herritarren izenaz bere zalantzak agertu ditu. J.L. Lizundiak erantzun dio, *zumarragar* hitz horren lekukotasuna egiaztatuz.

P. Xarrittonek onomastika batzordearen lanaren iraunkortasunaz galde egin du. J.L. Lizundiak ihardetsi dio, oraindik egiteko dauden zeregin behinenak gogoratuz.

7.1.2. Gipuzkoako herri izendegia (4. zerrenda): Urola Kosta aurkeztu du Mikel Gorrotxategik. *Bidania-Goiatz*-ri buruzko argitasunak eman ditu J.L. Lizundiak. Horri buruzko oharrak, idatziz, irailaren 3rako bidali behar direla gogoratu zaie euskaltzainei.

7.1.3. Onomastika batzordeak aurreko bilkuran aurkeztu zuen *Euskal Herria* izena arau izateko proposamena, jaso diren oharrekin horniturik, berriz ekarri da, onar-

tzeko. Euskal Herriaren definizioaz eztabaidak izan dira. B. Oihartzabalek zazpi herrialdeen izenak jartzea proposatu du, adierazpen geografikoa emateko. Lehen punturako honelako testua onartu da: ***Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa (Beherea eta Garaia) eta Zuberoa herrialdeak batera izendatzeko erabil bedi, ohikoa den bezala, Euskal Herria izena.*** Orobat, Uriarteren Bizkaiko testu bat eranstea erabaki da, lekukotasun gehiago izan ditzan.

7.1.4. Udal ez diren biziguneen herritarren izenak. Proposamena Mikel Gorrotxategik aurkeztu eta Jose Luis Lizundiak azaldu du. P. Xarrittonek eskaturiko argitasunak J.L. Lizundiak eskaini ditu.

7.2. Hiztegi Batua

M. Azkarateren gidaritzapean, helduriko oharrak ikusi dira. Alde batetik, X. Kintanaren azken oharrak aztertu dira, aurretik markaturiko baina gero, ahazturaz, azalpenekin hornitu gabeko hitz batzuei zegozkionak, *bakailaoketari* eta *bakero* hitzei eginiko iradokizunak onartuz.

Ondoren, *b-berriz* zerrendako gainerako berba ohardunak aztertzeari ekin zaio eta *baliogo* hitzetik hasi eta *baltzuan hartu*-raino heldu da.

Bilkura 2,23an amaitu da.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

AGERIKO BILKURA BEREZIKO BATZAR-AGIRIA

Abadiñon, Gerediagako Salbadore batzar-etxean, 2004ko uztailaren 23an, arratsaldeko 6etan, bildu da Euskaltzaindia, Jose Luis Lizundia Askondo euskaltzainaren sarrera ospatzeko.

Bildu dira: J. Haritschelhar, euskaltzainburua; H. Knörr, buruordea; X. Kintana, idazkaria; J. L. Lizundia, diruzaina; B. Oihartzabal, Iker sailburua; A. Urrutia, Jagon sailburua; P. Altuna, J. A. Arana Martija, A. Arejita, M. Azkarate, P. Charritton, J. L. Davant, P. Goenaga, A. Iñigo, E. Larre, J. M. Lekuona, Tx. Peillen; J. San Martin eta P. Zabaleta. Ezin etorria adierazi dute P. Ondarrak eta A. Zavalak.

J. A. Retolaza, euskaltzain ohorezkoa; J. Agirreazkuenaga, A. Aranburu, X. Aranburu, G. Aulestia, J. Aurre, G. Aurrekoetxea, R. Badiola, L. Baraiazarra, X. Bidegain, X. Erdozia, J. L. Goikoetxea, M. Gorrotxategi, J. M. Iriondo, M. P. Lasarte, A. Muniategi, K. Rotaetxe, P. Telleria, A. Toledo, P. Uribarren, M. Urkia, M. Urrestarazu, J. Zearreta eta J. R. Zubimendi, urgazleak; Felix Muguruza eta Patxi Galé batzordekideak eta Euskaltzaindiko langileak.

Mahaiburuan eseri dira: Javier Uriarte, herriko alkatea; J. Haritschelhar, euskaltzainburua; Nekane Alonso, Bizkaiko Batzar Nagusietako Mahaiko lehen idazkaria eta Xabier Kintana, idazkaria.

Aretoan, herri-agintari eta euskal kulturako ordezkari ugari izan dira, besteak beste hauek: Jose Luis Bilbao Bizkaiko Diputatu Nagusia; Jose Juan Gonzalez Txabarri Gipuzkoako Diputatu Nagusia; Belen Greaves, Bizkaiko Kultura diputatua; Gotzon Lobera, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Sustatzeko zuzendari nagusia; Abel Muniategi, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Biodibertsitate sailburuordea; Maria Angeles Larrauri, Durangaldeko Merindadeko presidentea; Garaiko alkatea (Jose Loizate) eta Mikel Etxeita zinegotzia; Mañarikoa (Javier Arteaga); Otxandiokoa (Aritz Otxandiano); Maria Jose Balier, Durangoko alkateordea eta Jose Antonio Delgado zinegotzia; Maria Asun Ardanza, Ermuko alkateordea; Mari Luz Azumendi, Mallabiko zinegotzia; Ronaldo Isoird, Berrizko zinegotzia; Agustin Asua, Elorrioko alkatea; Arantza Aranburu (EA), Fernando Castillo (PSE) eta Angel Rodrigo (PP) Añadiñoko zinegotziak; Jon Larrinaga, Gobernuaren Ordezkaritzako aholkularia; Nerea Mujika Gerediagako lehendakaria; Balendin Lasuen, Anton Mari Aldekoa-Otalora eta Jon Irazabal, Gerediagako kideak; Jose Mari Arregi eta Jon Lopategi bertsolariak; Jose Jabier Abasolo «Tiliño», Bizkaiko Dantzarien Biltzarrekoa; Patxi Roman eta Kepa Bengoa Abañolako ordezkariak; Odile Krutzeta, Euskadi Irratiko zuzendaria; Bingen Zupiria, Euskal Telebistako zuzendaria; Koldo Altzibar, Loiolako Jesuiten nagusia eta Marisa Barrena eta Jesus Mari Salterain Antolamendu batzordekoak.

Ongietorria eman diete Euskaltzaindiari eta bertaratu diren guztiei Nekane Alonso Batzar Nagusietako Mahaiko lehen idazkariak eta Javier Uriarte alkateak, hitzalditxo bana eginez.

Ondoren, Xabier Kintana idazkariak, Barne Erregeletako 57.8 eta 57.9 ataletan esaten dena betez, ekitaldi akademikoaren nondik-norakoak azaldu ditu.

Horrela, euskaltzain berriaren bila irten dira Andres Iñigo –azken aurrez izendaturiko euskaltzaina– eta Jose Antonio Arana Martija –haren aurkezleetariko euskaltzaina–, eta batzar-aretoan sartu da euskaltzain berria.

Jarraian, Jose Luis Lizundia Askondo euskaltzainak bere sarrera-hitzaldia irakurri du, «Euskal kulturgintza 60ko hamarkadan» izenekoa. Arlo hauek ukitu ditu besteak beste, hizlariak: lehenik, J. M. Satrustegi eta A. Eguzkitza euskaltzain hil berrien gorazarrea egin du, eta ondoren, 1960ko hamarkadako kulturgintzaren arlo hauez aritu da: Euskaltzaindiaren biltzarrak eta barne-egituratzea, euskal kantagintza, euskal artistak, dantza, antzerkia, folklorea, euskarazko klaseak eta alfabetatze-kanpainak, ikastolen sorrera, euskara batua, Gerediaga Durangoko Merindadeko Adiskideen Elkartearen sorrera eta Liburu eta Disko Azoka. Azkenik, ondorio gisa, garai hartako kulturgintzaren ezaugarriak aipatu ditu: posibletasuna, hiritartasuna, zeharkatasuna, batasuna eta naziotasuna.

Segidan, Jean-Louis Davant euskaltzainak bere erantzun-hitzaldia egin du. Hasteko, Euskal Herriko bi muturrak aipatu ditu, Mendebaldea eta Zuberoa, eta euskara batuaren garapenean bi alde horiek izan duten eragina. J. L. Lizundiak kulturgintzan izan duen emaitzaz aritu da, ondoren: lehenik, Euskaltzaindiaren barneko egituratzea egin duen lan bikaina, batez ere Onomastika arloan egindako ikerketak eta euskal kulturako beste hainbat arlotan eta politikan emandako urratsak. Amaitzeko, Akademiaren etorkizunaz hitz egin du Davantek eta erreforma egiteko beharra aipatu: «Erreforma sakonen beharra ikusten dut, eta ez naiz bakarra. Horiez gogoeta sakonak egingo ditugu nik uste euskaltzain guztiok elkarrekin. Hor gako eta giltza baliosa izanen zaigu, Lizundia, gure oroimena, ikuspegi seguruekin».

Gero, denak zutik direlarik, Euskaltzainburuak J. L. Lizundiari laudoriozko hitzak esan dizkio eta euskaltzain oso aitortu du, dagozkion diploma eta domina emanez. Ondoren, zorionak eman dizkio eta besarkatu egin du, eta, jarraian, euskaltzain guztiak euskaltzain berriari zorionak ematera hurbildu dira.

Azkenik, Angel Arkarazo eta Jose Antonio Azkorbebeitia Gerediagako kideek *banango zaharra* izeneko dantza egin diote euskaltzain berriari, eta, Abadiñoko Udalaren izenean, Javier Uriarte alkateak Muntsaratz dorretxearen irudiaren aldakia oparitu dio Jose Luis Lizundiari eta Parisen astebeteko egonaldirako ordainduriko gonbita-txartela. Gerediagako elkartearen izenean, Balendin Lasuenek, Vicente Larrea eskultorearen neurri txikiko obra bat eskaini dio Lizundiari. Garai, Izurtza eta Mañariko udalek, lehengo garaietan kofradietan erabiltzen zen pitxar bat eman diote, herri horietako idazkaria izan baitzen J. L. Lizundia.

Une honetan, X. Kintana idazkariak, amaitutzat eman du ageriko bilkura berezia.

Ekitaldiaren ondoren, batzar-etxearen aurreko zabalgunean, euskaltzain berriaren omenez zenbait dantza-saio burutu dira: *Alkate* soinua; Kriskitin taldekoek lagunduta, *Agur-dantza* eta *Platilu* soinua; eskualdeko dantzariek eskainita; dantzari-dantza eta koplak (Beñat Gaztelurrutiak eta Anton Mari Aldekoa-Otalorak paratu eta kantaturikoak). Amaiera moduan, herri-afaria izan da Abadiñoko *Mendizabal* jatetxean.

Lizarran, 2004.eko irailaren 17an

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,
Henrike Knörr euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Andres Urrutia, Jagon sailburua,
Adolfo Arejita,
Jean Louis Davant,
Andres Iñigo,
Patxi Ondarra,
Txomin Peillen,
eta Pello Salaburu euskaltzainak,
Juan Jose Zearreta, kudeatzailea eta Pello Telleria, idazkariordea, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: J. A. Arana-Martijak, ahala J.L. Lizundiari; M. Azkaratek, ahala P. Salabururi; P. Goenagak, ahala P. Salabururi; B. Oihartzabalek, ahala J. Haritschelharri; P. Xarrittonek, ahala J. Haritschelharri.

Batzarra goizeko 10,10ean hasi da Lizarrako Udaletxearen batzar aretoan, ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

Bilkuraren hasieran, Maria Josefa Fernández-ek, Lizarra herriko alkate andreak, euskaltzainak agurtu ditu.

1. Aurreko akta onartzea: oharrik gabe onartu da.

2. Hizkuntza gaiak.

2.1.1. Gipuzkoako herri izendegia (4. zerrenda). Urola-Kosta, onartua.

Andres Iñigok aurkeztu du, *aiar* herritar izenaren lekukotasunaz eta Bidania herri izenaren azken –a erantsiaz ohar batzuk eginez.

Zumarragar herritar izena dela eta, Patxi Goenagak P. Salabururen bidez egindako oharrari buruz –berak *zumarragatar* entzuna du– A. Iñigok eta J.L. Lizundiak argitasunak eskaini dituzte, lekukotasunekin.

Zerrenda ontzat eman da

2.1.2. Gipuzkoako herri izendegia (5. zerrenda). Debarroa. A. Iñigok aurkeztu du, kontsonantearen ondoan -a erantsia duten toponimoen deklinazioaz oharrak eginez. Euskaltzain batzuek beren iritziak eman dituzte.

2.1.3. Onomastika: Euskal Herria izenari buruzko araua banatu da, P. Salaburuk *aizkol apustu* hitzari egindako oharrarekin. (*aizkol apustu* ‘aizkora apustua’).

2.2. Hiztegi Batua: P. Salabururen zuzendaritzapean *b-berriz* zerrendari egin zaizkion oharrak aztertzen eta erabakitzen segitu da, *batzuan jarri*-tik *baratxuri*–rainoko oharrak ikusi eta onartuz.

3. 2005.eko aurrekontu egitasmoa. Juan Jose Zearreta kudeatzailea, bilkura-aretora sartu eta aurreko bileran emandako aurrekontuei buruz bi ohar (P. Salaburu eta I. Sarasolarenak) eta zenbait aholku jaso dituela adierazi du, euskaltzainen artean banatu den laburpen batean bilduak. Bi euskaltzainon oharrak onartu dituela argitu ondoren, laburpeneko egitasmo, kostu eta finantzabideak ahoz ere azaldu ditu. Azkenean, kudeatzaileak onarpena zatika egitea eskatu du. Egitasmo arruntak eta iraunkorrak, besterik gabe onartu dira.

Aribideko egitasmoen atalean P. Salaburuk Gasteizko toponimiaren finantziazioaz galdetu du. H. Knörrek erantzun dio. J. Haritschelharrek, argitalpen bereziak direla eta, galdera egin du EHUrekiko hitzarmenaz; aurtengo hitzarmena laster burutuko dela erantzun zaio. P. Salaburuk egitasmo berri berezien balioespena egiteko baremoaz galdetu du. J.J. Zearretak erantzun dio.

A. Urrutiak gogoratu du egitasmo bereziak finantza-iturriek jartzen dituzten betebehar eta argitasunen baldintzapean egin behar direla, eta beraz onarpena behin-behinekoa izanen dela nahitaez. Hau kontuan izanda, hauek ere ontzat eman dira.

J.L. Lizundiak proiektu batzuk salgarriagoak eta finantziatzeko errazagoak direla beste batzuk baino gogoratu du, zer nori proposatzeko eta diru-iturri bila joateko.

J.J. Zearretak txostenak urriaren 10erako bidali beharko direla gogoratu du. Ondoren, agintariekin adostu beharko dira eta osoko batzarrera berriz ekarri. Lehen seihilabeteko dietak ere berehala ordainduko direla iragarri du.

4. Esku artekoak.

Euskaltzainburuak irailaren 16an Bartzelonako Forum-eko bileretan izandako partaidetasuna azaldu du eta bertan «Euskara eta Euskaltzaindia Europako hizkuntzen mosaikoan» izeneko hitzaldia euskaraz eskaini zuela. Txosten hori J.L. Lizundiaren laguntzaz egin zuela adierazi du.

A. Zubikarairen heriotza dela eta, Zuzendaritzak euskaltzain ohorezko horren hilberri-txostena A. Urrutiaren esku uztea erabaki duela jakinarazi du J. Haritschelharrek.

Andres Iñigok irailaren 8an Nafarroako Parlamentuan izandako partaidetasunaren berri eman du eta han eginiko hitzaldiaren kopia euskaltzain osoen artean banatu da.

Era berean, A. Iñigo nafar euskaltzainak bi ohar egin ditu: bata, Euskaltzaindiak unibertsitateekin hitzarmenak egitea komeni dela, akademiak antolaturiko ikastaro, jardunaldi eta kultur ekitaldietan parte hartzen dutenek etorreragatik kredituak onartu eta baliokidetuak era egokian izan ditzaten, erakunde horiekin aurretik akordiorik gabe ez baitzaizkie onartzen. Bestean, *Euskera* aldizkarian argitaraturiko artikuluen separatetan ere ISSN, ISBN eta lege-gordailua agertzea eskatu du, artikulu horien separatak merezimendutzat aurkezten direnean, aipaturiko datu horiek gabe, epaimahai batzuek baztertzen dituztelako. Eskari biak aintzat hartu dira.

P. Xarriton euskaltzaina erori eta min hartuta egon dela adierazi du Euskaltzainburuak, baina zorionez orain ongi aurkitzen dela.

Aita Zavala euskaltzainaren anaia jesuita, Vicente Zavala, Durangon bizi zena, hil dela jakinarazi da. Doluminak igortzea erabaki da.

5. Banaturiko argitalpenak:

Batzarraren bukaeran liburu hauek banatu dira:

– Jean-Pierre Arbelbideren *Erlisionea*, Nafarroako Gobernuarekin batera Euskaltzaindiak argitaratua.

– Zuzenbidearen Euskal Akademiaren *Aldizkaria*. 2003.eko azaroa. 1. zenbakia. Zuzenbide Akademiak euskaltzain osoei opetsia.

– *Ni kazetaria naiz*, Jean Hiriart-Urrutirena. Labayru Institutuaren oparia euskaltzain osoentzat.

Bilkura 2,27an amaitu da.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Donostian, 2004.eko urriaren 29an.

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,
Henrike Knörr, euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia diruzaina,
Beñat Oihartzabal, Iker sailburua,
Andres Urrutia, Jagon sailburua,
Adolfo Arejita,
Jean Louis Davant,
Patxi Goenaga,
Andres Iñigo,
Txomin Peillen,
Ibon Sarasola
Piarres Xarritton
eta Patxi Zabaleta euskaltzainak,
Juan Jose Zearreta, kudeatzailea eta Pello Telleria, idazkariordea, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Jose Antonio Arana Martijak, ahala X. Kintanari; M. Azkaratek, ahala P. Goenagari; Patxi Ondarrak, ahala A. Iñigori, eta Pello Salaburuk, ahala J. Haritschelharri.

Batzarra goizeko 10,20an hasi da Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiko batzar aretoan, ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

1. Aurreko akta onartzea: oharrik gabe onartu da.

2. Azken ordukoak: Ohiko gai akademikoekin hasi baino lehenago, ondoko gaiok ukitu dira:

2.1. Euskaltzainburuari agurra: Oraingo bilkuran J. Haritschelharrek, euskaltzainburu gisa, Gipuzkoako jauregian egiten duen azken agerraldia dela eta, diputazioburuak euskaltzainak bazkaltzera gonbidatu ditu, bide batez, euskaltzainburuari agur egiteko.

2.2. Martin Ugalderen heriotza. Martin Ugalde ohorezko euskaltzaina urriaren 4an hil zela eta, beronen hilberri txostena egitea J. M. Torrealdai euskaltzain urgazleari eskatu zaiola jakinarazi du Euskaltzainburuak, eta onartu duela.

2.3. J. M. Larrarteren heriotza. Jose Mari Larrarte ohorezko euskaltzaina hil honen 23an zendu dela jakinarazi da. Beronen hilberri-txostena egiteko hiru urgazleren izenak aipatu dira.

2.4. J. Haritschelharri Manuel Lekuona saria. Urriaren 18an aurtengo Manuel Lekuona saria Jean Haritschelhar jaunari eman zaiola adierazi du Idazkariak. Hori dela eta, euskaltzainburuari zorionak eman zaizkio.

2.5. J. L. Lizundiak omenaldia Mañarian. Era berean, Jose Luis Lizundiak Mañariko herrian, bertako idazkaria izan zela eta urriaren 21ean omenaldia egin zaio. Euskaltzainek zorionak eman dizkiote.

2.6. Manuel Agud Querolen alargunaren eskerrak. Euskaltzainburuak, Manuel Agud Querol euskaltzale oraintsu zenduaren alargunaren eskutitzaren berri eman du, erakutsiriko doluagatik esker oneko hitzak esanez.

3. Hizkuntza gaiak.

3.1.1. Gipuzkoako herri izendegia (5. zerrenda) Debarroa onartzea. Andres Iñigo Onomastika batzordeburuak hartu du hitza, *mendaroar* herritar izenaz egon diren zalantzak eta lekukotasunak azalduz. Zerrenda ontzat eman da.

3.1.2. Herri-izenak: Hurrenkera eta zeinu grafikoen erabilera. Txosten hau A. Iñigok aurkeztu eta azaldu du, toponimo batzuen forma eta grafietan gertatzen diren arazoak sailkatu eta era arautuan konpontzeko irtenbideak proposatuz.

Araugaia irakurri ondoren P. Goenagak *Vitoria / Gasteiz*-en kasuaz galdetu du. J.L. Lizundiak erantzun du, zenbait tokitan lehendik harturiko erabakiak gora-behera, Euskaltzaindiak bere barrurako behintzat beti arau berberak eduki behar dituela azalduz.

Oharrak azaroaren 22rako aurkeztu beharko dira.

3.2. Hiztegi Batua: b-berriz zerrenda. P. Salabururen ezin etorriagatik, Euskaltzaindiko idazkariaren zuzendaritzapean *b-berriz* zerrendari egin zaizkion oharrak aztertzen eta erabakitzen segitu da, eta *baratxuri*-tik basal-erainoko oharrak ikusi eta eztabaidatuta, zerrendatxo horretako hitz guztiak erabaki dira.

4. Ohorezko euskaltzainak izendatzeko irizpenak. Zuzendaritzak txosten bat aurkeztu du, euskaltzain osoen artean banatua, ohorezko euskaltzainak izendatzeko kasuistika eta irizpideak finkatzeko asmoz. Txosten hori J. L. Lizundiak irakurri eta azaldu du. Idazkia irakurri eta komentatu ondoren, ohoratzekoei ea izendapena onartuko duten ala ez aurretik galdetzea komeni ote den eztabaidatu da. I. Sarasolaren ustez ez litzaieke ezer galdetu behar, eta Euskaltzaindiaren ustez merezimendurik aski badute, besterik gabe, izendatu beharko lirateke, ondoren, beraiek, izendapen hori onartu edo gaitzesteko duten eskubidea ukatu gabe. Horrek, bidenabar, saihestu egingo luke kasu ezagunen batean zoritxarrez gertatu den bezala, Euskaltzaindiak euskaltzale nabarmenen bat ohorezko egin nahi izan ez duelako zurrumurru faltsua. Aurkeztu den proposamenaren arabera, ohorezko euskaltzaingaien izenak eta horien merezimenduak aurkezteko epea azaroaren 22ra artekoa izanen da.

5. Esku artekoak.

5.1. Literatura sarietarako epaimahaikoak.

Literatura Ikerketa azpibatzordearen proposamenez, Zuzendaritzak ondoko pertsonak aurkeztu ditu 2004ko deialdiko literatura sarien epaimahaiko izateko:

Txomin Agirre eleberri sarirako: Maria Jose Olaziregi, Txomin Peillen eta Ana Toledo.

Toribio Altzaga teatro sarirako: Eugenio Arozena, Daniel Landart eta Patri Urkizu.

Felipe Arrese Beitia poesia sarirako: Jon Kortazar, Mikel Lasa eta Lourdes Otaegi.

Mikel Zarate saio sarirako: Aurelia Arkotxa, Adolfo Arejita eta Antton Aranburu.

Berretsi egin dira izendapen hauek.

5.2. VIII. Jagon jardunaldiak.

A. Urrutia Jagon Sailburuak *Eliza eta euskara Gasteizko elizbarrutian* izenpean 2004.eko azaroaren 26an Gasteizen, Euskaltzaindiaren Arabako ordezkaritzan egiteko diren VIII. Jagon Jardunaldien programa aurkeztu du, euskaltzain osoen artean banatua.

5.3. Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetza hitzarmena. Aurtengo urriaren 21ean Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan sinatu zen dokumentuaren berri eman da. Euskaltzainei horren kopia bana eman zaie.

5.4. Zuberoako antzerkigileen protesta-gutuna. Bilduen artean, Jean Louis Davant eta Txomin Peillen euskaltzainek eta Junes Casenave urgazleak sinaturiko idazki bat banatu du Txomin Peillen euskaltzainak, Literatura Ikerketa batzordeak prestaturiko hiztegian zuberotar herri-teatroa ahozko literaturaren barruan sailkatu eta kokatu dela salatzen duena. Beren protestan, sinatzaileek aski garbi uzten dute, pastoralak, zati kantatuak badituzte ere, oinarriz teatro-lan idatziak direla, eta aldez aurretik zehazki prestatuak, eta hortaz, «ahozkoak» barik, «herri-teatro», «teatro tradizional» edo «Erdi Arotikako teatro»tzat jo behar direla, behar den seriotasunaz jokatzeko. Hortaz, Zuberoako teatro mota honi zor zaion errespetua izatea eskatzen dute.

Ordu bietan amaitu da bilkura.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Gasteizen, 2004.eko azaroaren 26an

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Andres Urrutia, Jagon sailburua,
Jose Antonio Arana-Martija,
Adolfo Arejita,
Jean Louis Davant,
Patxi Goenaga,
Emile Larre,
Patxi Ondarra,
Pello Salaburu,
Ibon Sarasola eta
Piarres Xarritton euskaltzainak,

Juan Jose Zearreta, kudeatzailea; Pello Telleria, idazkariordea; eta Mikel Gorrotxategi, Onomastika batzordeko idazkaria, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Andres Iñigok, ahala J.L. Lizundiari, Henrike Knörr-ek, ahala A. Urrutiari, M. Azkaratek, ahala P. Goenagari.

Batzarra goizeko 10,20ean hasi da Gasteizko ordezkaritzaren batzar aretoan, ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

1. Aurreko akta onartzea: oharrik gabe onartu da.

2. Hizkuntza gaiak

2.1. «Onomastika: «Herri izenak: hurrenkera eta zeinu grafikoen erabileraz» araua onartzea. M. Gorrotxategik, Batzordearen idazkariak, jasoriko oharren berri eman du. Ondoren, P. Goenagak, berak aurkezturikoak azaldu ditu, *Donostia/San Sebastián, Vitoria-Gasteiz* kasuez eta, horien antzera, bere ustez zehaztasun handiagoa behar duten beste adierazpen batzuez ere bai. Erantzuna Jose Luis Lizundiak eman dio, kasuan kasurako irtenbideak eskainiz. Herrialdearen izena daramaten hitzekin *(Getaria Gipuzkoa, Getaria Lapurdi...)* deklinatzean azaltzen diren eragozpenak nola konpon daitezkeen argitzea eskatu du. -a organikodun hitzez ere argibide hobeak jartzea eskatu du. Eskaturiko argitasun horiek guztiok preseski azaltzea ontzat eman da.

2.2. Antzinateko eskualdeen eta hirien euskarazko izenak. J.L. Lizundiak aurkeztu du, zerrenda honek irakaskuntzarako (historian eta geografian batik bat) duen garrantzia azpimarratuz. Zerrendan ageri diren izenen aukera dela eta, M. Gorrotxategik, izen horiek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak bidaliriko zerrendan oinarrituak direla argitu du. Oharrak abenduaren 12rako bidali behar direla gogoratu du.

2.3. Hiztegi Batua: P. Salabururen zuzendaritzapean *b-berriz* zerrenda, *basalan*etik *basauso*-rainoko oharrak ikusi eta erabaki dira.

3. Ohorezko euskaltzainak izendatzea:

Euskaltzainek aurkezturiko kandidatuen proposamenak, zeinek bere curriculumarekin, idatziz banatu dira. Ondoren, botazioa eginda, ondokoak izendatu dira euskaltzain ohorezko:

- Jose Luis Alvarez Enparantza 'Txillardegi'
- Pello Apezetxea Zubiri
- Koldo Artola Kortajarena
- Federico Barrenengoa Arberas
- Josep Camino-Hasquet
- Jean-Baptiste Dirassar-Hiriart Urruty
- Joseba Intxausti Errekondo
- Jon Lopategi Lauzirika
- Francisco J. Oroz Arizkuren
- Jeran-Baptiste Orpustan
- Karmele Rotatetxe Amusategi

Idazkariak guztiei izendapenaren berri emanen die, abenduaren 17an dagozkien diplomak banatuko zaizkiela adieraziz.

4. Azken ordukoak

Euskaltzainburuak ondoko albisteak azaldu ditu:

4.1. Andres Iñigoren semeak istripua: Andres Iñigo euskaltzainaren semeak, Garikoitzek, Pirinioetan mendi-istripu bat ukan du. Ondorioz, Paueko ospitalera eraman eta bertan ebakuntza bat egin behar izan diote. Gaur Iruñera dakartela eta, A. Iñigo ezin izan da bilkurara etorri.

4.2. Ander Manterolaren anaia hil: Ander Manterola ohorezko euskaltzainaren anaia hil da. Euskaltzaindiak bere doluminak igortzea erabaki du.

4.3. Martin Ugalderen senideen esker ona: Martin Ugalderen senideek Euskaltzaindiari eskerrak emateko gutuna bidali diote, M. Ugalderen oroigailu batekin.

4.4. Euskararen Eguneko ospakizunak: Abenduaren 2rako, Euskaren eguna dela eta, egingo diren ospakizunetarako, Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Diputazioaren eta Bilboko Udalaren inbitazioak jaso dira. Ahal duten euskaltzainak hara joanen dira.

4.5. Abenduko batzarraz: Euskaltzainburuak, halaber, abenduko bilkurak 16an eta 17an eginen direla jakinarazi ondoren, egun bakoitzeko programa azaldu du. Ondoren, batzarrotarako deiak banatu dira, bertan dauden euskaltzainei eskura emanez; etortzerik izan ez duten euskaltzainei postaz igorriko zaie.

5. Gema Insausti eta Itziar Rekalde Euskaltzaindiko bi langileei zilarrezko domina. Aurten, Gema Insausti eta Itziar Rekalde andreek, hurrenez hurren, Euskaltzaindiaren Iruñeko eta Gasteizko ordezkaritzetako langileek, hogeita bosna urte bete dituzte Akademiaren zerbitzuan. Hori dela eta, Euskaltzaindiak, urteotan egindako lan zintzoa ezagutzeko, erakundearen zilarrezko domina bana eman die. Euskaltzainburuak ohoratuen lan bikaina goraipatu du eta han bilduriko euskaltzain guztien txaloen artean dominak eskaini dizkie.

Bilkura 14etan amaitu da.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

EUSKALTZAINDIAREN *ARAUAK*

LII. ARAUEN TESTU OSOA

140
GIPUZKOAKO HERRI IZENDEGIA

I) Herrien euskal izena

Euskal izena	Izen ofiziala	Herritarra	Eskualdea
Abaltzisketa	Abaltzisketa	abaltzisketar	Tolosaldea
Aduna	Aduna	adunar	Tolosaldea
Aia	Aia	aiar	Urola Kosta
Aizarnazabal	Aizarnazabal	aizarnazabaldar	Urola Kosta
Albiztur	Albiztur	albizturtar	Tolosaldea
Alegia	Alegia	alegiar	Tolosaldea
Alkiza	Alkiza	alkizar	Tolosaldea
Altzaga	Altzaga	altzagar	Goierri
Altzo	Altzo	altzotar	Tolosaldea
Amezketa	Amezketa	amezketar	Tolosaldea
Andoain	Andoain	andoaindar	Tolosaldea
Anoeta	Anoeta	anoetar	Tolosaldea
Antzuola	Antzuola	antzuolar	Debagoiena
Arama	Arama	aramar	Goierri
Aretxabaleta	Aretxabaleta	aretxabaletar	Debagoiena
Arrasate	Arrasate / Mondragón	arrasatear	Debagoiena
Asteasu	Asteasu	asteasuar	Tolosaldea
Astigarraga	Astigarraga	astigartar	Donostia-Beterri
Ataun	Ataun	ataundar	Goierri
Azkoitia [1] *(-a)*	Azkoitia	azkoitiar	Urola Kosta
Azpeitia [2] *(-a)*	Azpeitia	azpeitiar	Urola Kosta
Baliarrain	Baliarrain	baliarraindar	Tolosaldea
Beasain	Beasain	beasaindar	Goierri
Beizama	Beizama	beizamar	Urola Kosta
Belauntza	Belauntza	belauntzar	Tolosaldea

[1] Gogoratu behar da *Azkoitia* herri-izenaren bukaerako *-a* artikulua dela. Hortaz, adalaren izen osoa erabiltzean honakoa da bidea: *Azkoitia, Azkoitiarekin, Azkoitiar...*; baina *Azkoitiko, Azkoititik, Azkoitiva...* Era berean, izen honek bere azken *-a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektibo bat daramanean, adibidez: *Azkoiti maitea, Azkoiti osoan, Gure Azkoiti hau...*

[2] Gogoratu behar da *Azpeitia* herri-izenaren bukaerako *-a* artikulua dela. Hortaz, adalaren izen osoa erabiltzean honakoa da bidea: *Azpeitia, Azpeitiarekin, Azpeitiar...*; baina *Azpeitiko, Azpeititik, Azpeitiva...* Era berean, izen honek bere azken *-a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektibo bat daramanean, adibidez: *Azpeiti maitea, Azpeiti osoan, Gure Azpeiti hau...*

Euskal izena	Izen ofiziala	Herritarra	Eskualdea
Berastegi	Berastegi	berastegiar	Tolosaldea
Bergara	Bergara	bergarar	Debagoiena
Berrobi	Berrobi	berrobitar	Tolosaldea
Bidania-Goiatz [3]	Bidegoian	bidaniar, goiaztar	Urola Kosta
Deba	Deba	debar	Debabarrena
Donostia	Donostia-San Sebastián [4]	donostiar	Donostia-Beterri
Eibar	Eibar	eibartar	Debabarrena
Elduain	Elduain	elduaindar	Tolosaldea
Elgeta	Elgeta	elgetar	Debagoiena
Elgoibar	Elgoibar	elgoibartar	Debabarrena
Errenteria	Errenteria	errenteriar	Oiartzualdea
Errezil	Errezil	errezildar	Urola Kosta
Eskoriatza	Eskoriatza	eskoriatzar	Debagoiena
Ezkio-Itsaso	Ezkio-Itsaso	ezkiotar, itsasoar	Goierri
Gabiria	Gabiria	gabiriar	Goierri
Gaintza	Gaintza	gaintzar	Goierri
Gaztelu	Gaztelu	gazteluar	Tolosaldea
Getaria	Getaria	getariar	Urola Kosta
Hernani	Hernani	hernaniar	Donostia-Beterri
Hernialde	Hernialde	hernialdetar	Tolosaldea
Hondarribia [5] *(-a)*	Hondarribia	hondarribiar	Oiartzualdea
Ibarra	Ibarra	ibartar	Tolosaldea
Idiazabal	Idiazabal	idiazabaldar	Goierri
Ikaztegieta	Ikaztegieta	ikaztegietar	Tolosaldea
Irun	Irun	irundar	Oiartzualdea
Irura	Irura	irurar	Tolosaldea
Itsasondo	Itsasondo	itsasondoar	Goierri
Larraul	Larraul	larrauldar	Tolosaldea
Lasarte-Oria	Lasarte-Oria	lasartear, oriatar	Donostia-Beterri
Lazkao	Lazkao	lazkaotar	Goierri

[3] Gogoratu behar da *Bidania*-ren bukaerako *–a* artikulua dela. Hortaz: *Bidania*, *Bidaniarekin*, *Bidanian*...; baina *Bidaniko*, *Bidanitik*, *Bidanira*... Era berean, izen honek bere azken *–a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Bidani maitea*, *Bidani osoan*, *Gure Bidani hau*... Bestalde, udalaren izen osoa erabiltzean, honakoa da bidea: *Bidania-Goiatz*, *Bidania-Goiatzekin*, *Bidania-Goiatzen*, *Bidania-Goiatzeko / Bidania-Goiazko*, *Bidania-Goiatzetik*, *Bidania-Goiatzera*...

[4] Kontuan izan behar da Euskaltzaindiak bere *Herri-Izenak: hurrenkera eta zeinu grafikoen erabilera* 141. arauan dioena, hots, herri batek euskaraz izen bat eta erdaraz beste bat duenean, bi izenak elkarrekin erabili behar direnean zehar-marra (/) baten bidez bereizirik jarriko direla, *Arrasate / Mondragón* modura. Marratxoa (-), ordea, bi herrik edo gehiagok administrazio elkarte bat osatzen dutenean erabili behar da, esaterako *Ezkio-Itsaso*.

[5] Gogoratu behar da bukaerako *–a* artikulua dela. Hortaz, erabil bedi: *Hondarribia*, *Hondarribiarekin*, *Hondarribian*...; baina *Hondarribiko*, *Hondarribitik*, *Hondarribira*... Era berean, izen honek bere azken *–a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Hondarribi maitea*, *Hondarribi osoan*, *Gure Hondarribi hau*...

Euskal izena	Izen ofiziala	Herritarra	Eskualdea
Leaburu	Leaburu	leaburuar	Tolosaldea
Legazpi	Legazpi	legazpiar	Goierri
Legorreta	Legorreta	legarretar	Goierri
Leintz Gatzaga	Leintz-Gatzaga	gatzagar	Debagoiena
Lezo	Lezo	lezoar	Oiartzualdea
Lizartza	Lizartza	lizartzar	Tolosaldea
Mendaro	Mendaro	mendaroar	Debabarrena
Mutiloa	Mutiloa	mutiloar	Goierri
Mutriku	Mutriku	mutrikuar	Debabarrena
Oiartzun	Oiartzun	oiartzuar	Oiartzualdea
Olaberria [6] *(-a)*	Olaberria	olaberritar	Goierri
Oñati	Oñati	oñatiar	Debagoiena
Ordizia	Ordizia	ordiziar	Goierri
Orendain	Orendain	orendaindar	Tolosaldea
Orexa	Orexa	orexar	Tolosaldea
Orio	Orio	oriotar	Donostia-Beterri
Ormaiztegi	Ormaiztegi	ormaiztegiar	Goierri
Pasaia	Pasaia	pasaitar	Oiartzualdea
Segura	Segura	segurar	Goierri
Soraluze	Soraluze-Placencia de las Armas [7]	soraluzetar	Debabarrena
Tolosa	Tolosa	tolosar	Tolosaldea
Urnieta	Urnieta	urnietar	Donostia-Beterri
Urretxu	Urretxu	urretxuar	Goierri
Usurbil	Usurbil	usurbildar	Donostia-Beterri
Villabona-Amasa	Villabona [8]	billabonatar, amasar	Tolosaldea
Zaldibia	Zaldibia	zaldibiar	Goierri
Zarautz	Zarautz	zarauztar	Urola Kosta
Zegama	Zegama	zegamar	Goierri
Zerain	Zerain	zeraindar	Goierri
Zestoa	Zestoa	zestoar	Urola Kosta
Zizurkil	Zizurkil	zizurkildar	Tolosaldea
Zumaia	Zumaia	zumaiar	Urola Kosta
Zumarraga	Zumarraga	zumarragar	Goierri

[6] Gogoratu behar da bukaerako *–a* artikulua dela. Hortaz, erabil bedi: *Olaberria, Olaberriarekin, Olaberrian...*; baina *Olaberriko, Olaberritik, Olaberrira...* Era berean, izen honek bere azken *–a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Olaberri maitea, Olaberri osoan, Gure Olaberri hau...*

[7] Kontuan izan behar da Euskaltzaindiak bere *Herri-izenak: hurrenkera eta zeinu grafikoen erabilera* 141. arauan dioena, hots, herri batek euskaraz izen bat eta erdaraz beste bat duenean, bi izenak elkarrekin erabili behar direnean zehar-marra (/) baten bidez bereizirik jarriko direla, *Arrasate / Mondragón* modura. Marratxoa (-), ordea, bi herrik edo gehiagok administrazio elkarte bat osatzen dutenean erabili behar da, esaterako *Ezkio-Itsaso*.

[8] Udalak izena aldatzeko eta *Villabona-Amasa* ofizialtzeko bideari ekina dio.

II) Herrien izen ofiziala

Izen ofiziala	Euskal izena	Herritarra	Eskualdea
Abaltzisketa	Abaltzisketa	abaltzisketar	Tolosaldea
Aduna	Aduna	adunar	Tolosaldea
Aia	Aia	aiar	Urola Kosta
Aizarnazabal	Aizarnazabal	aizarnazabaldar	Urola Kosta
Albiztur	Albiztur	albizturtar	Tolosaldea
Alegia	Alegia	alegiar	Tolosaldea
Alkiza	Alkiza	alkizar	Tolosaldea
Altzaga	Altzaga	altzagar	Goierri
Altzo	Altzo	altzotar	Tolosaldea
Amezketa	Amezketa	amezketar	Tolosaldea
Andoain	Andoain	andoaindar	Tolosaldea
Anoeta	Anoeta	anoetar	Tolosaldea
Antzuola	Antzuola	antzuolar	Debagoiena
Arama	Arama	aramar	Goierri
Aretxabaleta	Aretxabaleta	aretxabaletar	Debagoiena
Arrasate / Mondragón	Arrasate	arrasatear	Debagoiena
Asteasu	Asteasu	asteasuar	Tolosaldea
Astigarraga	Astigarraga	astigartar	Donostia-Beterri
Ataun	Ataun	ataundar	Goierri
Azkoitia	Azkoitia [9] *(-a)*	azkoitiar	Urola Kosta
Azpeitia	Azpeitia [10] *(-a)*	azpeitiar	Urola Kosta
Baliarrain	Baliarrain	baliarraindar	Tolosaldea
Beasain	Beasain	beasaindar	Goierri
Beizama	Beizama	beizamar	Urola Kosta
Belauntza	Belauntza	belauntzar	Tolosaldea
Berastegi	Berastegi	berastegiar	Tolosaldea
Bergara	Bergara	bergarar	Debagoiena
Berrobi	Berrobi	berrobitar	Tolosaldea
Bidegoian	Bidania-Goiatz [11]	bidaniar, goiaztar	Urola Kosta
Deba	Deba	debar	Debabarrena

[9] Gogoratu behar da *Azkoitia* herri izenaren bukaerako *–a* artikulua dela. Hortaz, udalaren izen osoa erabiltzean honakoa da bidea: *Azkoitia, Azkoitiarekin, Azkoitian*...; baina *Azkoitiko, Azkoititik, Azkoitira*... Era berean, izen honek bere azken *–a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Azkoiti maitea, Azkoiti osoan, Gure Azkoiti hau*...

[10] Gogoratu behar da *Azpeitia* herri izenaren bukaerako *–a* artikulua dela. Hortaz, udalaren izen osoa erabiltzean honakoa da bidea: *Azpeitia, Azpeitiarekin, Azpeitian*...; baina *Azpeitiko, Azpeititik, Azpeitira*... Era berean, izen honek bere azken *–a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Azpeiti maitea, Azpeiti osoan, Gure Azpeiti hau*...

[11] Gogoratu behar da *Bidania*-ren bukaerako *–a* artikulua dela. Hortaz: *Bidania, Bidaniarekin, Bidanian*...; baina *Bidaniko, Bidanitik, Bidanira*... Era berean, izen honek bere azken *–a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Bidani maitea, Bidani osoan, Gure Bidani hau*... Bestalde, udalaren izen osoa erabiltzean, honakoa da bidea: *Bidania-Goiatz, Bidania-Goiatzekin, Bidania-Goiatzen, Bidania-Goiatzeko / Bidania-Goiazko, Bidania-Goiatzetik, Bidania-Goiatzera*...

Izen ofiziala	Euskal izena	Herritarra	Eskualdea
Donostia-San Sebastián [12]	Donostia	donostiar	Donostia-Beterri
Eibar	Eibar	eibartar	Debabarrena
Elduain	Elduain	elduaindar	Tolosaldea
Elgeta	Elgeta	elgetar	Debagoiena
Elgoibar	Elgoibar	elgoibartar	Debabarrena
Errenteria	Errenteria	errenteriar	Oiartzualdea
Errezil	Errezil	errezildar	Urola Kosta
Eskoriatza	Eskoriatza	eskoriatzar	Debagoiena
Ezkio-Itsaso	Ezkio-Itsaso	ezkiotar, itsasoar	Goierri
Gabiria	Gabiria	gabiriar	Goierri
Gaintza	Gaintza	gaintzar	Goierri
Gaztelu	Gaztelu	gazteluar	Tolosaldea
Getaria	Getaria	getariar	Urola Kosta
Hernani	Hernani	hernaniar	Donostia-Beterri
Hernialde	Hernialde	hernialdetar	Tolosaldea
Hondarribia	Hondarribia [13] *(-a)*	hondarribiar	Oiartzualdea
Ibarra	Ibarra	ibartar	Tolosaldea
Idiazabal	Idiazabal	idiazabaldar	Goierri
Ikaztegieta	Ikaztegieta	ikaztegietar	Tolosaldea
Irun	Irun	irundar	Oiartzualdea
Irura	Irura	irurar	Tolosaldea
Itsasondo	Itsasondo	itsasondoar	Goierri
Larraul	Larraul	larrauldar	Tolosaldea
Lasarte-Oria	Lasarte-Oria	lasartear, oriatar	Donostia-Beterri
Lazkao	Lazkao	lazkaotar	Goierri
Leaburu	Leaburu	leaburuar	Tolosaldea
Legazpi	Legazpi	legazpiar	Goierri
Legorreta	Legorreta	legorretar	Goierri
Leintz-Gatzaga	Leintz Gatzaga	gatzagar	Debagoiena
Lezo	Lezo	lezoar	Oiartzualdea
Lizartza	Lizartza	lizartzar	Tolosaldea
Mendaro	Mendaro	mendaroar	Debabarrena

[12] Kontuan izan behar da Euskaltzaindiak bere *Herri-izenak: hurrenkera eta zeinu grafikoen erabilera* 141. arauan dioena, hots, herri batek euskaraz izen bat eta erdaraz beste bat duenean, bi izenak elkarrekin erabili behar direnean zehar-marra (/) baten bidez bereizirik jarriko direla, *Arrasate / Mondragón* modura. Marratxoa (-), ordea, bi herrik edo gehiagok administrazio elkarte bat osatzen dutenean erabili behar da, esaterako *Ezkio-Itsaso*.

[13] Gogoratu behar da bukaerako *–a* artikulua dela. Hortaz, erabil bedi: *Hondarribia, Hondarribiarekin, Hondarribian...*; baina *Hondarribiko, Hondarribitik, Hondarribira...* Era berean, izen honek bere azken *–a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Hondarribi maitea, Hondarribi osoan, Gure Hondarribi hau...*

Izen ofiziala	Euskal izena	Herritarra	Eskualdea
Mutiloa	Mutiloa	mutiloar	Goierri
Mutriku	Mutriku	mutrikuar	Debabarrena
Oiartzun	Oiartzun	oiartzuar	Oiartzualdea
Olaberria	Olaberria [14] *(-a*)	olaberritar	Goierri
Oñati	Oñati	oñatiar	Debagoiena
Ordizia	Ordizia	ordiziar	Goierri
Orendain	Orendain	orendaindar	Tolosaldea
Orexa	Orexa	orexar	Tolosaldea
Orio	Orio	oriotar	Donostia-Beterri
Ormaiztegi	Ormaiztegi	ormaiztegiar	Goierri
Pasaia	Pasaia	pasaitar	Oiartzualdea
Segura	Segura	segurar	Goierri
Soraluze-Placencia de las Armas [15]	Soraluze	soraluzetar	Debabarrena
Tolosa	Tolosa	tolosar	Tolosaldea
Urnieta	Urnieta	urnietar	Donostia-Beterri
Urretxu	Urretxu	urretxuar	Goierri
Usurbil	Usurbil	usurbildar	Donostia-Beterri
Villabona [16]	Villabona-Amasa	billabonatar, amasar	Tolosaldea
Zaldibia	Zaldibia	zaldibiar	Goierri
Zarautz	Zarautz	zarauztar	Urola Kosta
Zegama	Zegama	zegamar	Goierri
Zerain	Zerain	zeraindar	Goierri
Zestoa	Zestoa	zestoar	Urola Kosta
Zizurkil	Zizurkil	zizurkildar	Tolosaldea
Zumaia	Zumaia	zumaiar	Urola Kosta
Zumarraga	Zumarraga	zumarragar	Goierri

[14] Gogoratu behar da bukaerako *–a* artikulua dela. Hortaz, erabil bedi: *Olaberria*, *Olaberriarekin*, *Olaberrian*...; baina *Olaberriko*, *Olaberritik*, *Olaberrira*... Era berean, izen honek bere azken *–a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Olaberri maitea*, *Olaberri osoan*, *Gure Olaberri hau*...

[15] Kontuan izan behar da Euskaltzaindiak bere *Herri-izenak: hurrenkera eta zeinu grafikoen erabilera* 141. Arauan dioena, hots, herri batek euskaraz izen bat eta erdaraz beste bat duenean, bi izenak elkarrekin erabili behar direnean zehar-marra (/) baten bidez bereizirik jarriko direla, *Arrasate / Mondragón* modura. Marratxoa (-), ordea, bi herrik edo gehiagok administrazio elkarte bat osatzen dutenean erabili behar da, esaterako *Ezkio-Itsaso*.

[16] Udalak izena aldatzeko eta *Villabona-Amasa* ofizialtzeko bideari ekina dio.

III) Herrien izenak eskualdeka

Donostia-Beterri

Izen ofiziala	Euskal izena	Herritarra
Astigarraga	Astigarraga	astigartar
Donostia-San Sebastián [17]	Donostia	donostiar
Hernani	Hernani	hernaniar
Lasarte-Oria	Lasarte-Oria	lasartear, oriatar
Orio	Orio	oriotar
Urnieta	Urnieta	urnietar
Usurbil	Usurbil	usurbildar

Oiartzualdea [18] *(-a)*

Izen ofiziala	Euskal izena	Herritarra
Errenteria	Errenteria	errenteriar
Hondarribia	Hondarribia [19] *(-a)*	hondarribiar
Irun	Irun	irundar
Lezo	Lezo	lezoar
Oiartzun	Oiartzun	oiartzuar
Pasaia	Pasaia	pasaitar

Tolosaldea [20] *(-a)*

Izen ofiziala	Euskal izena	Herritar izena
Abaltzisketa	Abaltzisketa	abaltzisketar
Aduna	Aduna	adunar
Albiztur	Albiztur	albizturtar
Alegia	Alegia	alegiar

[17] Kontuan izan behar da Euskaltzaindiak bere *Herri-izenak: hurrenkera eta zeinu grafikoen erabilera* 141. arauan dioena, hots, herri batek euskaraz izen bat eta erdaraz beste bat duenean, bi izenak elkarrekin erabili behar direnean zehar-marra (/) baten bidez bereizirik jarriko direla, *Arrasate / Mondragón* modura. Marratxoa (-), ordea, bi herrik edo gehiagok administrazio elkarte bat osatzen dutenean erabili behar da, esaterako *Ezkio-Itsaso*.

[18] Gogoratu behar da bukaerako *–a* artikulua dela. Hortaz, erabil bedi: *Oiartzualdea, Oiartzualdearekin, Oiartzualdean...*; baina *Oiartzualdeko, Oiartzualdetik, Oiartzualdera...* Era berean, izen honek bere azken *–a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Oiartzualde maitea, Oiartzualde osoan, Gure Oiartzualde hau...*

[19] Gogoratu behar da bukaerako *–a* artikulua dela. Hortaz, erabil bedi: *Hondarribia, Hondarribiarekin, Hondarribian...*; baina *Hondarribiko, Hondarribitik, Hondarribira...* Era berean, izen honek bere azken *–a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Hondarribi maitea, Hondarribi osoan, Gure Hondarribi hau...*

[20] Gogoratu behar da bukaerako *–a* artikulua dela. Hortaz, erabil bedi: *Tolosaldea, Tolosaldearekin, Tolosaldean...*; baina *Tolosaldeko, Tolosaldetik, Tolosaldera...* Era berean, izen honek bere azken *–a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Tolosalde maitea, Tolosalde osoan, Gure Tolosalde hau...*

Toloserri(a) izena ere erabil daiteke, baina amaierako *-a* artikulua den ala ez finkatu gabe dago.

Izen ofiziala	Euskal izena	Herritar izena
Alkiza	Alkiza	alkizar
Altzo	Altzo	altzotar
Amezketa	Amezketa	amezketar
Andoain	Andoain	andoaindar
Anoeta	Anoeta	anoetar
Asteasu	Asteasu	asteasuar
Baliarrain	Baliarrain	baliarraindar
Belauntza	Belauntza	belauntzar
Berastegi	Berastegi	berastegiar
Berrobi	Berrobi	berrobitar
Elduain	Elduain	elduaindar
Gaztelu	Gaztelu	gazteluar
Hernialde	Hernialde	hernialdetar
Ibarra	Ibarra	ibartar
Ikaztegieta	Ikaztegieta	ikaztegietar
Irura	Irura	irurar
Larraul	Larraul	larrauldar
Leaburu	Leaburu	leaburuar
Lizartza	Lizartza	lizartzar
Orendain	Orendain	orendaindar
Orexa	Orexa	orexar
Tolosa	Tolosa	tolosar
Villabona [21]	Villabona-Amasa	billabonatar, amasar
Zizurkil	Zizurkil	zizurkildar

Goierri

Izen ofiziala	Euskal izena	Herritar izena
Altzaga	Altzaga	altzagar
Arama	Arama	aramar
Ataun	Ataun	ataundar
Beasain	Beasain	beasaindar
Ezkio-Itsaso	Ezkio-Itsaso	ezkiotar, itsasoar
Gabiria	Gabiria	gabiriar
Gaintza	Gaintza	gaintzar
Idiazabal	Idiazabal	idiazabaldar

[21] Udalak izena aldatzeko eta *Villabona-Amasa* ofizialtzeko bideari ekina dio.

Izen ofiziala	Euskal izena	Herritar izena
Itsasondo	Itsasondo	itsasondoar
Lazkao	Lazkao	lazkaotar
Legazpi	Legazpi	legazpiar
Legorreta	Legorreta	legorretar
Mutiloa	Mutiloa	mutiloar
Olaberria	Olaberria [22] *(-a*)	olaberritar
Ordizia	Ordizia	ordiziar
Orendain	Orendain	orendaindar
Ormaiztegi	Ormaiztegi	ormaiztegiar
Segura	Segura	segurar
Urretxu	Urretxu	urretxuar
Zaldibia	Zaldibia	zaldibiar
Zegama	Zegama	zegamar
Zerain	Zerain	zeraindar
Zumarraga	Zumarraga	zumarragar

Urola Kosta

Izen ofiziala	Euskal izena	Herritar izena
Aia	Aia	aiar
Aizarnazabal	Aizarnazabal	aizarnazabaldar
Azkoitia	Azkoitia [23] *(-a)*	azkoitiar
Azpeitia	Azpeitia [24] *(-a)*	azpeitiar
Beizama	Beizama	beizamar
Bidegoian	Bidania-Goiatz [25]	bidaniar, goiaztar
Errezil	Errezil	errezildar
Getaria	Getaria	getariar
Zarautz	Zarautz	zarauztar
Zestoa	Zestoa	zestoar
Zumaia	Zumaia	zumaiar

[22] Gogoratu behar da bukaerako *–a* artikulua dela. Hortaz, erabil bedi: *Olaberria, Olaberriarekin, Olaberrian...*; baina *Olaberriko, Olaberritik, Olaberrira...* Era berean, izen honek bere azken *–a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Olaberri maitea, Olaberri osoan, Gure Olaberri hau...*

[23] Gogoratu behar da *Azkoitia* herri izenaren bukaerako *–a* artikulua dela. Hortaz, udalaren izen osoa erabiltzean honakoa da bidea: *Azkoitia, Azkoitiarekin, Azkoitian...*; baina *Azkoitiko, Azkoititik, Azkoitira...* Era berean, izen honek bere azken *–a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Azkoiti maitea, Azkoiti osoan, Gure Azkoiti hau...*

[24] Gogoratu behar da *Azpeitia* herri izenaren bukaerako *–a* artikulua dela. Hortaz, udalaren izen osoa erabiltzean honakoa da bidea: *Azpeitia, Azpeitiarekin, Azpeitian...*; baina *Azpeitiko, Azpeititik, Azpeitira...* Era berean, izen honek bere azken *–a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Azpeiti maitea, Azpeiti osoan, Gure Azpeiti hau...*

[25] Gogoratu behar da *Bidania*-ren bukaerako *–a* artikulua dela. Hortaz: *Bidania, Bidaniarekin, Bidanian...*; baina *Bidaniko, Bidanitik, Bidanira...* Era berean, izen honek bere azken *–a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Bidani maitea, Bidani osoan, Gure Bidani hau...* Bestalde, udalaren izen osoa erabiltzean, honakoa da bidea: *Bidania-Goiatz, Bidania-Goiatzekin, Bidania-Goiatzen, Bidania-Goiatzeko / Bidania-Goiazko, Bidania-Goiatzetik, Bidania-Goiatzera...*

Debarroa [26] *(-a)*

a) Debabarrena [27] *(-a)*

Izen ofiziala	Euskal izena	Herritar izena
Deba	Deba	debar
Eibar	Eibar	eibartar
Elgoibar	Elgoibar	elgoibartar
Mendaro	Mendaro	mendaroar
Mutriku	Mutriku	mutrikuar
Soraluze-Placencia de las Armas [28]	Soraluze	soraluzetar

b) Debagoiena [29] *(-a)*

Izen ofiziala	Euskal izena	herritar izena
Antzuola	Antzuola	antzuolar
Aretxabaleta	Aretxabaleta	aretxabaletar
Arrasate / Mondragón	Arrasate	arrasatear
Bergara	Bergara	bergarar
Elgeta	Elgeta	elgetar
Eskoriatza	Eskoriatza	eskoriatzar
Leintz-Gatzaga	Leintz Gatzaga	gatzagar
Oñati	Oñati	oñatiar

Zerrenda hauek data hauetan onartu ditu Euskaltzaindiak:

Bilbon, egoitzan, 2004ko maiatzaren 28an.

Larresoroko Udaletxean, 2004ko ekainaren 25ean.

Abadiñoko Udaletxean, 2004ko uztailaren 23an.

Lizarrako Udaletxean, 2004ko irailaren 17an.

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian, 2004ko urriaren 29an.

[26] Gogoratu behar da bukaerako *–a* artikulua dela. Hortaz, erabil bedi: *Debarroa, Debarroarekin, Debarroan...*; baina *Debarroko, Debarrotik, Debarrora...* Era berean, izen honek bere azken *–a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Debarro maitea, Debarro osoan, Gure Debarro hau...*

[27] Mankomunitatearen izen ofiziala ***Debabarrena*** da. Gogoan izan behar da bukaerako *–a* artikulua dela.

[28] Kontuan izan behar da Euskaltzaindiak bere *Herri-izenak: hurrenkera eta zeinu grafikoen erabilera* 141. arauan dioena, hots, herri batek euskaraz izen bat eta erdaraz beste bat duenean, bi izenak elkarrekin erabili behar direnean zehar-marra (/) baten bidez bereizirik jarriko direla, *Arrasate / Mondragón* modura. Marratxoa (-), ordea, bi herrik edo gehiagok administrazio elkarte bat osatzen dutenean erabili behar da, esaterako *Ezkio-Itsaso*.

[29] Mankomunitatearen izen ofiziala ***Debagoiena*** da. Gogoan izan behar da bukaerako *–a* artikulua dela.

141

HERRI-IZENAK: HURRENKERA ETA ZEINU GRAFIKOEN ERABILERA

1) Sarrera

Neurri eta erritmo diferenteekin bada ere, azken garai hauetan aldaketa handiak ezagutu ditugu Euskal Herriko lekuen euskarazko izenen lege-onarpen eta erabilera publikoaren eremuetan. Horren ondorioz, gure herri, ibar, udal eta, oro har, leku asko izen ofizial bat baino gehiago izatera pasatu da. Konpetentziadun erakunde bakoitza, bere egoera soziolinguistiko eta aukera politiko demokratikoaren arabera, dagokion esparruaren izendapen ofizialen erabakien arduradun izan da eta, aurretik derrigorrean Euskaltzaindiaren aholkua ere eskatu eta aintzat hartu behar izan du. Hala ere, herriek "elebitasun" hori ulertzeko erak desberdinak izan dira eta, ondorioz, izen ofizialen forma ez da beti bera izan. Batzuek hizkuntza bakoitzean dagokion eran erabiltzeko proposamena egin dute: *Donostia / San Sebastián, Lizarra / Estella*... Beste batzuek edozein hizkuntzatan biak erabiltzeko aukera hautatu dute: *Vitoria-Gasteiz, Ugao-Miraballes*... Hainbatek, diferentziak grafiazkoak zirela jo eta euskal forma hutsa onartu dute ofizial legez: *Aramaio, Arrankudiaga, Mutriku*... Kontrara, beste batzuek izen ofizialak lehendik zuten gaztelaniazko grafian utzi dituzte: *Elciego, Laguardia, Pueyo, Ribera Alta, Roncal*... Esan dugun bezala, legeriak eta egoera soziolinguistikoak ez dira bat bera Euskal Herriko barruti politiko guztietan.

Beste alde batetik, administrazioak hala erabakita, maiz lur-erakunde berriak sortzen dira. Ordu arte bereizirik egon diren entitateak elkartu egiten dira maiz eta kasu horietan, normalena izaten da udal, herri edo auzo "berriak" bi zaharren izenak jasotzea edo izen berri bat hartzea. Era honetan, Bizkaiko Durangaldeko *Apatamonasterio, Arrazola* eta *Axpe* elizateak elkartzetik, udal berri bat sortu zen eta *Atxondo* izena jaso zuen. Beste zenbait kasutan, herri elkarte horrek izenen elkartea besterik ez du hartzen eta honela sortu ziren *Ligi-Atherei, Markina-Xemein, Atharratze-Sorholüze, Aratz-Matxinbenta, Arraitz-Orkin, Beotegi-Menagarai, Añezkar-Oteitza*...

Euskal Herrian, zenbaitetan, herri-izen bera ageri da herrialde batean eta bestean (*Getaria* Gipuzkoan eta Lapurdin, *Jatsu* Lapurdin eta Nafarroa Behereko Garazin, *Gamiz* Bizkaian eta Arabako lautadan, *Gaintza* Gipuzkoan eta Nafarroa Garaiko Araitzen...) edo herrialde beraren barrenean (*Ametzaga, Durruma, Subilla*... Araban; *Arteaga, Axpe, Elexalde*... Bizkaian; *Alegia, Garagartza, Zubieta*... Gipuzkoan; *Espartza, Etxarri, Hiriberri* … Nafarroa Garaian etab.). Garbi dago horrelako izen bikoitzak nahasgarri gerta daitezkeela eta, beharrezkoa denean, bereizgailuren bat erabili behar dela gauzak argi uzteko. Hau da administrazio publikoek jarraitzen duten bidea. Garai batean Espainiakoak, esate baterako, *Miranda de Arga, Sada de Sangüesa, Vera de Bidasoa*, etab. eman zituen, Frantziakoak lehenago hartutako erabaki batean oinarrituta: *Saint-Jean-sur-Richelieu, Saint-Jean-de-Niost, Saint-Jean-d'Angély, Saint-Jean-de-Maurienne*, etab. Euskaltzaindiak ere bereizteko irizpidea segitu zuen 1979ko *Euskal Herriko Udalen Izendegia*-n eta egun, besteak beste, Kataluniako Institut d´Estudis Catalans-ek eta Galiziako Real Academia Galega-k bide horri jarraitzen diote.

Azkenik, euskaraz leku izen askoren amaierako *-a* ez da berezkoa, artikulua baizik. Halako kasuak ondo identifikatuta edukitzea, oso da garrantzitsua erabiltzailearentzat, zeren baldintzatzen baitu zeharo deklinabidea burutzeko bidea. Bereziki euskara lan-tresna duten kazetari, esatari, irakasle, idazle eta abarrek, bide argiak behar dituzte kasu horiek identifikatzeko eta behar bezala jokatzeko. Esaterako, *Bizkaia* izenak *-a* hori artikulu duelako, *Bizkaitik, Bizkaira* eta *Bizkaiko* esan behar da, ez ordea **Bizkaiatik*, **Bizkaiara* eta **Bizkaiako* era arrotzak, aipatu profesionalek maiz erabiltzen dituztenak. Ez da orobat gertatzen *Donostia* hitzarekin, *-a* hori berezkoa du eta ez da deklinabidean galdu behar. Ondorioz, *Donostiatik, Donostiara, Donostiako* esan behar da eta ez **Donostitik, *Donostira, *Donostiko*, noiz edo behin ere irakurri eta aditzen den bezala.

Euskal Herrian Euskaltzaindiari dagokio –hizkuntza gaietan erakunde aholkulari ofiziala denez gero–, gai hauek arautzea eta bere irizpideak euskal eremu osorako ematea. Eta halaxe egin du orain arte plazaratu dituen lan, agiri, argitalpen nahiz irizpen batzuen bidez. Ikus dezagun orain arteko bidea.

2) Euskaltzaindiak oraintsu arte emandako izendegiak

Euskaltzaindiak 1979an *Euskal Herriko Udalen Izendegia* plazaratu zuen eta 1986an *Euskal Herriko Autonomi Elkarteko herrien izenak* izeneko liburua. Azken honetan, Eusko Jaurlaritzak argitara emana, biztanleria-entitate guztien izen ofiziala eta euskal ordaina eman zen lehenengoz, ez soilik udalena. 1990ean bide beretik abiatuta, Nafarroako Gobernuak erkidego horri zegokion herri izenen bilduma argitaratu zuen, *Nafarroako Herri Izendegia* izenburupean. 1999an *Zuberoako Herri Izendegia* izeneko araua onartu eta *Euskera* agerkarian argitaratu zen, separata eta guzti. 2000. urtean, izen ofizialetan gertaturiko zenbait aldaketa aitzaki, *Nafarroako Toponimia* izeneko argitalpena kaleratu zuen Nafarroako Gobernuak. Era xumeago batean, Foru Erkidegoko herrien izen ofiziala, euskal ordaina eta elebitasunaren erregimena arautu nahi izan zen argitalpen horrekin, besteak beste. Urte berean Zuberoarekin egin bezala, *Lapurdiko Udalen Izendegia* arautu eta *Euskera* agerkarian plazaratu zen eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri izenen berrikusteari ekin zitzaion, EUDEL-ek eskatuta. 1986tik aitzina aldaketa ugari gertatuak ziren izendapen ofizialen eta aldaera zuzenen kontuan, udal batzuen sentiberatasun handiagoagatik eta, bereziki, toponimia ikerketaren alorrean gero eta lan gehiago egiten ari zirelako, datu berri askok iraganean hartutako erabakiak zuzentzea eskatzen zuten-eta. Horren ondorioz, 2000.ean *Euskera* agerkarian *E.A.E.ko Biztanle Entitateak* izeneko zerrenda argitaratu zen, apur bat beranduago EUDEL-ek berak liburu batean plazaratuko zuena. 2002 eta 2004 bitartean *Nafarroa Behereko Herri Izendegia* izeneko arauak eskualdeka argitaratu dira *Euskera* agerkarian. Bitartean ere, udalek eskatuta, Euskaltzaindiko Onomastika batzordeak sarri egin behar izan ditu herri-izenen gaineko txosten, irizpen eta aholkuak. Lan horietan guztietan agertu dira, neurri batean edo bestean, hemen tratatzen ari garen gai hauek.

a) Egoera elebidunaren ondorioak: zehar marra

Kontuan izan behar da euskara hizkuntza ofizialtzat hartu aurretik sortutako beharrak bestelakoak zirela. Koldo Mitxelenak berak argi utzi zuen Euskaltzaindiak 1979an kaleratu zuen izendegiaren xedea zein zen: herri izenen euskal ordainak ematea, jendeak ehunka kontsulta egiten zizkiolako Euskaltzaindiari eta nor bere kabuz ari zelako euskal ordainak ematen “lehen zeudenen aldamenean edo gainetik”; hortaz, Euskaltzaindiak, presaka bazen ere, herri izendegia kaleratu behar izan zuen:

> “Euskaltzaindiak, eta ez Euskaltzaindiak bakarrik, ehundaka izan ditu deiak, honi edo hari euskaraz nola deritzan jakin nahiz. Hor dabiltza, besteak beste, horrenbeste lurkarta, mapa edo lurtamu, eskualde eta hirien izenak euskaraz omen dakarzkienak: zorigaitzez, haatik, euskaraz baldin badaude ere, ez datoz beti, ezta alderatzeko ere, itxura berean... Euskara ofizialkidetasun bideetan abiatu baino lehen ere, eta luzaro gabe bide horietan barrena sartua beharko du gure hizkuntzak, jendea hasi da, nor bere kabuz, direlako izenen euskal ordainak leku askotan agerian ipintzen, lehen zeudenen aldamenean edo lehen zeudenen gainetik, beraz, egoki iruditu zaio Euskaltzaindiari gidaritza moduko zerbait bere herritarrei eskaintzea, izendapen kontuan guztiok, han eta hemen, bateratsu ibil gaitezen”.

Herri batzuen izenak grafia bera dute euskaraz eta erdaraz. Kasu horietan, konpetentziadun erakundeek ez dute buruhauste handirik kartel, agiri ofizial eta halakoak idaztean. Hala gertatzen da *Altzai* (NB), *Amurrio* (A), *Berango* (B), *Tolosa* (G), *Urdiain* (NG) eta antzerakoetan. Beste kasu batzuetan, zeinu diakritiko huts batzuetan baizik ez dira desberdinak: *Abaigar / Abáigar* (NG), *Ainhoa / Aïnhoa* (L), *Baigorri / Baïgorri* (NB), *Beasain / Beasáin* (G), *Ondarroa / Ondárroa* (B) etab. Kasu hauetan badirudi arazoa gutxitu egiten dela berez, nahiz eta, egoera soziolinguistiko eta soziopolitikoaren arabera, toki bakoitzean tildea erabiltzea ala ez erabakitzen den. Beste kasu batzuetan izen bera eduki arren, hizkuntza bien ezaugarri morfofonetikoen ondorio, desberdintasun grafiko txikiak daude hizkuntza batetik bestera: *Gernika / Guernica* (B), *Zumaia / Zumaya* (G), *Murgia / Murguía* (A), *Lekunberri / Lecumberri* (NG) etab. Kasu hauek konplexuago bihurtuz joaten dira, desberdintasun grafiko horiek, ahoskera desberdinak adierazten dituztenean, orduan beste hizkuntzako idazkera ikastea ez ezik, ahoskaera propioa eta zenbait kasutan hots berri batzuk ere ikasi beharko baititu erabiltzaile elebakarrak: *Leitza / Leiza* (NG), *Urruña / Urrugne* (L), *Zuhatza / Zuaza* (A), *Gerrikaitz / Gerricaiz* (B) etab. Aldaera hauen arteko desberdintasunak bortitzago bihurtuko dira, hizkuntza-sistema bietan izen beraren eboluzio desberdinak dituguneun: *Guardia / La Guardia* (A), *Abadiño / Abadiano* (B), *Lazkao / Lazcano* (G), *Igantzi / Yanci* (NG), *Angelu / Anglet* (L), *Larrañe / Larrau* (Z) etab. Azkenik, herri batek izen desberdin bat eduki dezake hizkuntza bakoitzean, bata bestearen itzulpena izan nahiz ez: *Iruri / Trois Villes* (Z), *Donostia / San Sebastián* (G),

Alegría / Dulantzi (A), *Ugao / Miravalles* (B), *Donapaleu / Sain Palais* (NB) etab. Esan bezala, Euskal Herrian dauden erkidego politiko desberdinen legeriaren arabera eta, halaber, herri bakoitzeko egoera soziolinguistikoaren arabera, erakundeek hizkuntza aberastasun anitz hori kudeatzeko erabaki desberdinak hartu ohi dituzte.

Euskaraz aritzean erdal toponimoen idazkera euskalduntzaileak hedatu ez diren bezala, erdaraz aritzean euskarazko izenen grafia gaztelaniartzaileak ekiditeko joera zabaltzen ari dela dirudi. Hala, euskara ofiziala den erkidegoetan, *Beasáin, Guernica, Guerricaiz, Lecumberri, Murguía, Ondárroa* eta era honetako grafiak gero eta gutxiago erabiltzen dira, gaztelaniaz ere euskal grafiak nagusitzen ari baitira erakundeen bultzadaz. Era bien arteko aldeak bortitzagoak direnean, egoera soziolinguistiko eta soziopolitikoaren arabera jokatu ohi da, nahiz eta askotan toponimoa ondare den hizkuntzako grafiaz besteko erak ibili eta ofizialdu: *Arkauti / Arcaute* (A), *Burlata / Burlada* (NG), *(Sopela /) Sopelana* (B), *(Ligi /) Licq* (Z), *(Sara /) Sare* (L) etab. Hala ere, kontuan izan behar da, hizkuntzen artean maila-desberdintasunik onartzen ez badugu bederen, *Añezcar* grafia gaztelaniartzailea ontzat ematea, *Kaparroso* grafia euskalduntzailea bezain zilegi (edo ez) dela. Ez dirudi bide hori segitzea komenigarria denik ezein hizkuntzaren osasunerako. Bestelako egoera baten aurrean gaude, izenak nabarmen desberdinak direnean. Normalean biak onartu ohi dira ofizial gisa eta erabiltzaile bakoitzak bere hizkuntzari dagokiona hauta dezake: *Donostia / San Sebastián* (G), *Agurain / Salvatierra* (A), *Areatza / Villaro* (B), *Hiriberri / Villanueva* (NG) etab.

Hala ere, kontuan izan bedi erabilera hau herrien zerrenda, izendegi, kartel eta abarretan agertzeko bide komentzionala dela, Euskal Herriko elebitasun egoeraren erakusgarri eta baliabide erabilgarri. Euskararen erabilera arruntean, ordea, emandako bi izen horietarik, esaldi barruan euskarari dagokion era jasoko dugu bakarrik. Gaztelaniaz eta frantsesez beste horrenbeste egingo dugu, erdal izena erabiliz. Hortaz, euskaraz honako erabilerak dira zuzenak:

Arkautitik etorri dira gaztagile horiek, Burlatara ezkondu da haren arreba, Sopelako tabernak beti egoten dira beterik, Ligin ikusi genuen maskarada aurten, Sarak oso inguru ederrak ditu, Agurainentzat izan dira azkenengo diru-laguntza guztiak, Areatzari ez dio horrek mesederik egingo, Hiriberrirekin batera joango gara festara...

Batzuetan, hala ere, egoera hauek adierazteko zehar marraz gainera beste ikur batzuk erabili dira. Adibidez, *Nafarroako toponimia* liburuan (2000), egoera desberdinak adierazi nahi omen dira *Doneztebe / Santesteban* eta *Burlada<>Burlata* ikurren erabilerarekin. Gainera izen guztien euskal ordaina ematen den arren, kasu askotan ez da ofiziala (eremu ez-euskaldunean edo mistoan dagoelako). Kasu horretan zer egin behar du eremu euskalduneko erabiltzaileak izen hori idatzi nahi badu?

Bestalde, zenbait administrazio publikok bere kabuz hartutako erabaki batzuk nahasgarriak bihurtu dira, hala nola, *Vitoria / Gasteiz* eta *Donostia / San Sebastián* eman beharrean, *Vitoria-Gasteiz, Donostia-San Sebastián* idatzita ematea. Gainera, lehenbiziko kasuan, udalbatzaren helburua izan zen, izen hori bere horretan hizkuntza bietan erabil dadin eta, ondorioz, hala egiten da gaur egun agiri ofizial guztietan: *Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz / Vitoria-Gasteizko udala*. Gogoratu beharko litzateke *Vitoria-Gasteiz* ez dela zuzena ez gaztelaniaz ez euskaraz.

Bestalde, jakinarazi behar da zehar marra beste esanahi batez erabili duela inoiz Euskaltzaindiak. Jadanik *Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Herrien Izenak* argitalpenean (1986), zehar marra agertzen zen ontzat hartutako bi euskal izen zuzen ematen zirenean. Honen adibide, Elgoibarren *San Pedro / Idotorbe* (G) agertzen da euskaraz bietarik edozein zuzen dela adierazteko. Geroztik tradizio horri eutsi dio Euskaltzaindiak onartutako azkeneko izendegietan, hala nola *Zuberoako Herri Izendegian* (1999): *Urdatx / Santa-Grazi* (Z) eta *Lapurdiko Udal Izendegian* (2000): *Biarritz / Miarritze* (L) etab.

b) Herri elkarteak: marratxoa

Asko dira Euskal Herriko erkidego politiko guztietan, udalerriak osatzeko tradizioan bereiz egon diren udalak elkartuz sortutakoak. Eta ez bakarrik udalerriak (*Altzai-Altzabeheti-Zunharreta* (Z)). Kasu batzuetan kontzeju elkartuak (Aiarako *Beotegi-Menagarai* (A)), udalaz gaineko barruti bereziak (*Baiona-Angelu-Biarritz* (L)) etab.

Segituan ikusiko dugunez, marratxoak erabilera eta esanahi ugari izan ditu leku izenekin erabiltzean. Baina badirudi ohikoena, eta hiztun arruntak errazkien ulertzen duena, zenbait herriren elkarketarena dela. Ondorioz, argitalpen guztietan izan dugu elkarte horien berri, marra erabiltzeari esker: *Ainhize-Monjolose* (NB) 1979an, *Gernika-Lumo* (B) 1986an, *Arraitz-Orkin* (NG) 1990ean, *Lexantzü-*

-Zunharre (Z) 1999an, *Gorrontz-Olano* (NG) 2000.ean, *Zeinka-Zearregi* (B) 2000.ean, *Labetze-Bizkai* (NB) 2002an.

Frantsesez erabilera ofizialean marratxoa hitz bat baino gehiagoz osatutako leku izen guztietan erabili ohi da, izendapenaren hitz-batasuna nolabait adierazi nahian. Irizpide hau oinarri, *Lichans-Sunhar* elkarketaren kasuan ez ezik, *Cambo-les-Bains* (L), *Saint-Martin-d'Arrosse* eta honelako izen konposatuetan ere ageri da. Euskaltzaindiak araututako *Santa-Grazi* (Z) euskal izenaren eran, erabilera horren islada dagoela dirudi, euskarazko hagiotoponimoak frantsesezko *Sainte-Engrace* izen ofizial marratxodunaren itxura bera hartzen baitu.

Gorago ikusi dugun bezala, erakunde batzuek marratxoa ofizialdu dute hizkuntza biei dagozkien leku-izenak bereizteko, batzuetan "batasun" banaezina adierazi nahian (*Vitoria-Gasteiz*) eta beste batzuetan aukera egin dadin (*Donostia-San Sebastián*).

Euskaltzaindiaren izendegien tradizioan marratxoa erabili da halaber herri izenkideen kasuan, bereizte aldera argigarri bezala herriaren izenari ibar edo eskualdearena gaineratzen zitzaionean. Gainera tradizio hau oraintsu artekoa izan da: *(Araba-)Bastida* (A) 1979an, *(Arrati-) Arteaga* eta *Albizuelexaga-San Martin* (B) 1986an, *(Arakil-)Uharte* eta *Etxarri-Aranatz* (NG) 1990ean, *Hiriberri(-Arakil)* (NG) 2000.ean...

c) Herri-izenkideak bereizteko bide tradizionala

Euskal Herrian zehar izen berbera duten herri asko aurkitu ahal da. Hiztuna testuinguru geografiko esanguratsu edo murriztu batean dagoenean, ez da arazorik sortzen. Kontrara, zehaztu gabeko eremu geografiko edo Euskal Herri osoaz aritzean, gerta daiteke aski ez izatea *Donibane, Getaria* edo *Lekunberri* izenak aipatzea, entzulea zein herriz ari garen ohartzeko.

1979ko *Euskal Herriko Udalen Izendegia* delakoan, argibide oharretan honako hau esaten zen:

> Euskal Herrian izen bat baino gehiago izen berekoak daudela adierazteko da. Euskaldun batek (*Markin-*) *Etxebarri* esaten du, *Markina* merindadekoa *Uribekoaz* bereizteko, baina bereiztu behar denean bakarrik, herrian bertan *Etxebarri* esango du. Adibideak: (*Leintz-*) *Gatzaga*, (*Lapurdi-*) *Getaria*.

Irizpide honen arabera herri izen franko agertzen dira egoera berean, eta are gehiago udal ez diren gainerako kontzejuak, herriak, lekuak, etab. normalduz doazen neurrian:

(Etxauri-) Etxarri, (Lapurdi-) Jatsu, (Garazi-) Jatsu, (Garazi-) Lekunberri, (Lizoain-) Urrotz, (Gipuzkoa-) Getaria, (Lapurdi-) Getaria, (Araba-) Bastida, (Nafarroa Beherea-) Bastida, etab.

Baina, aldi berean, 1979ko lan horretan bertan ikusten ahal da zenbait izenetan (gutxi gorabehera hirutik batean) irizpide hori ez zela errespetatu, eta aipatutako modu horretan eman beharreko herri izen batzuk beste honetan ere eman zirela:

Donibane-Garazi; Uharte-Garazi; Etxarri-Aranatz; Uharte-Arakil...

Hau da, ez zen kontuan izan, marraren erabilera beste kasu batzuetarako arautu zela, hain zuzen ere, argibide oharretan aipatzen dituen hauetarako, gorago aipatu bezala:

> "Herri bik udal bakarra osatzen dutela adierazten du, biak maiuskulaz daudenean: *Gamiz-Fika, Ezkio-Itsaso, Biurrun-Olkotz, Ürrüstoi-Larrabile*".

Alderantzizkoak ere aurkitzen dira, hots, izenen ordena aldatuz emandakoak, *Murelu (-Konde)* esaterako, eta, bestalde, ez da falta irizpide horrekin zerikusirik ez duen herri izenen bat *(Arga-) Miranda*, edota irizpide horren arabera idatzia, beste modu batera adierazi beharrekoa, hala nola, *Olite (-Erriberri)*, zeinetan era biak euskaraz zuzenak direla eman nahi baita aditzera.

1986ko *Euskal Herriko Autonomi Erkidegoko Herrien Izendegia*n eta 1990eko *Nafarroako Herri Izendegia*n, 1979ko *Euskal Herriko Udalen Izendegia* hartu zen oinarritzat eta ondorioz, ibar edo eskualdeak modu berean eman ziren:

(Gulibar-) Aginaga, (Lizoain-) Aginaga, (Arakil-) Uharte, (Baztan-) Uharte, (Arrati-) Arteaga, (Gautegiz-) Arteaga, nahiz eta *Derio-Arteaga* izena ere agertu.

Euskararen ofizialtasunaren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Komunitateko herri izenak udaletako agirietan eta errepideetako karteletan jartzen hasi zirenean, zenbait udal eta kontzejuk Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeari kontu hau argitzeko eskatu zioten. Arrazoi osoz

planteatzen zuten, agiri ofizialetan, eta bereziki karteletan, lehendabiziko erreferentziak herriaren izena behar zuela izan, eta ez ibar edo eskualdearena. Horretaz gainera, euskara teknikari eta itzultzaileei testu ofizialak euskaraz eman behar izaten dituztenean eta, bereziki, deklinatuak eman behar dituztenean, arazoak eta zailtasunak sortzen zaizkie.

Jasotako eskarien ondorioz, Onomastika batzordeak egindako ikerketan ikusi ahal izan da Euskal Herrian, ohikoena, lehendabizi herriaren izena eta gero ibar edo eskualdearena ematea zela:

Donibane Garazi (euskaraz XV. mendean ageri dena), *Etxarri Aranatz*, *Uharte Arakil*...

Eta ez alderantzizkoa, salbuespenak salbuespen, adibidez, *Markin Etxebarri*, nahiz eta azken jokabide hau, ustez, egokiagoa izan oikonimoetan.

Hona hemen esandakoa frogatzen duten lekuko batzuk:

Donibane Garazi:

> "Et[a] jaquiçu done Johane garacicoec dute[la] gracia…" (1415, F. Idoate, "Una carta del siglo XV en vascuence", *FLV 2*, 1969, 290. or.).
>
> "Hilabete hunen hamarrean, etzi zortzi, Donibane-Garazin pesta baten egitera doazi Eskual-Herriko ta inguruetako framazonak" (J. Hiriart-Urruti, *Mintzaira, Aurpegia: Gizon*, 1971, 171. or.).
>
> "Bihurtzen nitzaie bizi-bizia. Diotet Doniane-Garaziz gozatu nahi duenak ez duela (…)" (J. Etxepare, *Berebilez*, Klasikoak 17, Euskal Editoreen Elkartea & Eusko Jaurlaritza, 1987, 43. or.).
>
> "Ehiaralarre (frantsesez Saint Michel), Doniane Garazitik hiru kilometra urrundua da (…)" (E. Zubiri, *Artikulu Bilduma*, R. M. Pagolak paratu argitalpena, Klasikoak 41, Euskal Editoreen Elkartea & Eusko Jaurlaritza, 1990, 104. or.).
>
> "Erran eguneko, seiak eta erdietan tank, hantxet zen Piarres, Doniane Garaziko garan" (Barbier, *Supazter sokoan*, Klasikoak 16, Euskal Editoreen Elkartea & Eusko Jaurlaritza, 1987, 92. or.).
>
> "Oihenartek dio, hamaseigarren mende erditsutan Etchegaray delako batek Donibane Garazin Artzain Gorria agerrerazi zuela" (Lafitte, *Euskal Literaturaz*, Klasikoak 35, Euskal Editoreen Elkartea & Eusko Jaurlaritza, 1990, 45. or.).
>
> "Don[j]áne Garázi" (P. Salaberrik E. Etxarren uhartearrarengandik jasotako ahozko era).

Uharte Arakil:

> "Bere joan-etorri oyetan, Arbizu, Altsasua, Uarte-Arakil, Egilorr, Beasoain, Urrotz, Etxaleku, Ororbia, Ibero, Gaintza, Errea, Ongotz, Nuin, Aristregi; Berastegi, Asteasu, Azkoitia eta batek daki bertze zenbat errietan ibiliko zen" (Andre Lizartza, *Mendiburu'tar Sebastián A'z*, 1926).
>
> "Herrira heldu zelarik, Uharte Arakilen aurkitzen zen gure gizona biziki gaizki eta han, hil aurretik, testamentua baietsi zueneko ondorioa izan zen" (J.B. Aierbe, *Hijos Ilustres de Segura / Herriko Seme Ospetsuak*. Segura, 1978).
>
> "Uarte, Uerte, Uberte, Uartearakil, uartearakildar" (*Nafarroako Herri Izendegia*. Iruñea, 1990. Ahozko lekukotzetarik azkenengo biak, seguraski, Arakil ibarretik eta Iruñetik gertu dagoen beste Uharte hartatik bereizteko).

Etxarri Larraun:

> "Etxarrilarraungo apeza" (J. M. Satrustegik Sakanan ahoz bildutako testigantza).

Hau guztia ikusirik, esan daiteke euskal jokaera arrunta dela, ahal delarik, herri edo auzunearen izen hutsa ematea. Ordea, testuingurua behar bezain argia ez denean eta nahastea ekar dezakeela ikusten denean, bereizten laguntzeko biderik erabiliena, ondotik eskualdea, ibarra, herrialdea eta kasuren batean handik pasatzen den ibaiaren izena jartzea dela.

Zenbait kasutan era konposatu horren lexikalizazio maila altua da eta, beharrezkoa ez izanik ere, hala erabili ohi da ia beti. Izen hauekin, hain da era konposatu hau normala, non egiten ez denean, toponimoaren era apokopatua dabilela ematen baitu. Honelakoetan, badirudi leku-izena bi hitzez osatuta dagoela arautzea dela egokiena:

Artatza Foronda (A), *Donibane Garazi* (NB), *Durruma Kanpezu* (A), *Miranda Arga* (NG), *Uharte Arakil* (NG), *Arteaga Derio* (B)...

Salbuespen gisa, zenbait kasutan argigarria aurretik doa: *Leintz Gatzaga* (G), *Pasai Antxo* (G), *Pasai Donibane* (G), *Pasai San Pedro* (G), *Markin-Etxebarria* (B), azken honetan marrak konposaketa azpimarratzen duela, *Markina* merindade zaharraren izenaren azken *-a* galdu dela adieraziz.

Kontrara, bigarren osagarria argigarri gisa bakarrik erabiltzen dela adierazi nahi dugunean, parentesi artean emango da eta aukerakoa izango da erabilera, betiere une bakoitzeko zehaztasun beharraren neurria erabiltzailearen esku geratzen delarik:

Aretxabaleta (Gasteiz) (A), *Elexalde (Amoroto)* (B), *Aginaga (Gulibar)* (NG), *Jatsu (Lapurdi)* (L), *Lekunberri (Garazi)* (NB)...

d) Artikulua eta berezko *-a* herri-izenetan

Orain arte gure izendegietan maiz gaineratu dugun *-a* ohar argigarriaz zerbait esatea ere beharrezko deritzogu. Herri askoren izenek berezkoa dute amaierako *-a* bokala, eta kasu horietan ez dugu inolako oharrik egiten, bokalez amaituriko beste edozein izenen moduan deklinatzen direlako. Kasu marka jasoz gero, honelakoak bere horretan emango dira, oso-osorik:

Ainhoa (L), *Ostankoa* (NB), *Aria* (NG), *Donostia* (G), *Eskiula* (Z), *Lemoa* (B), *Zanbrana* (A)...

Beste kasu batzuetan, ordea, amaierako *-a* hori ez da berezkoa izaten, jatorriz izen horiek daramaten artikulua baizik, eta ondorioz, artikulu arruntari gertatu ohi zaion bezala, ezkuta daiteke deklinabidea eranstean. Kasu hauek dira, hain zuzen ere, *-a* ohar argigarriaz seinalatu ohi ditugunak. Ohar horrekin aditzera eman nahi da herri-izenari zein eratan erantsi behar zaion deklinabidea. Argigarri didaktiko hutsa den aldetik, ez dugu izenaren parte bezala ulertu behar eta ondorioz, gure izendegietan, aurkibideetan eta halako dokumentuetan erabilgarri izan daitekeen arren, ez da seinaleztapenetan edo hizkuntza-erabileretan agerrarazi behar. Orain arte argitara emandako izendegi gehienetan eman da datu hau, baina ez beti:

• 1979ko udalen izendegian: *Busturia -a* (B), *Hondarribia -a* (G), *Urizaharra -a* (A), *Ziordia -a* (NG)...

• 1986ko EAEko herrien-izendegian: *Busturia* (B), *Hondarribia* (G), *Urizaharra* (A)...

• 1990eko Nafarroako herri-izendegian: *Elizagorria, -a; Itzagaondoa, -a; Ziordia, -a*...

• 1999ko Zuberoako herri-izendegian: *Basabürüa (-a), Onizepea (-a), Ospitalepea (-a), Pettarra (-a), Sarrikotapea (-a)*.

• 2000.eko Nafarroako toponimia liburuan: *Arribiltoa, (-a); Bortziriak, (-ak)* (plural horri deklinabidea eranstean dauden ondorioak bereziak dira, *-ak* galdu ondoren *-eta-* artizkia hartu behar baitu*); Otsagabia, (-a); Ziordia, (-a)*...

• 2000.eko EAEko biztanle entitateen zerrendan: *Barrundia, -a; Mallabia, -a; Olaberria, -a*...

Bistan da joera nagusia, izendegietan oharra agerraraztea izan dela. Bai komunikabideek, bai lekua ezagutzen ez duten erabiltzaileek, beharrezko duten datua da, *-a* hori kengarria den ala ez jakitea, esan bezala, deklinabidean ondorio garrantzitsuak dituelako. Ezin da onartu euskal esatariek, kazetariek, testu liburuek, aldizkariek eta abarrek **Bizkaiatik, *Donostira, *Iruñakoa* eta halakoak setati aireratzen aritzea, oso kaltegarria delako hizkuntzaren normalizaziorako, erabilera baldar tradiziorik gabeko horiek hedatzen jardutea. Honenbestez, oharra jartzen segitzea dirudi bidezkoena, gainera erabiltzaile, aditu eta profesionalei, dei berezia egiten zaiela, horrek dakartzan ondorioez eta erabilera desberdinez ondo ohartu daitezen eta halaxe joka:

• *Bizkaia, -a: Bizkaiari, Bizkaian, Bizkaiko, Bizkaitik, Bizkaira...*

• *Donostia: Donostiak, Donostian, Donostiako, Donostiatik, Donostiara...*

• *Iruñea, -a: Iruñeaz, Iruñean, Iruñeko, Iruñetik, Iruñera...*

Honen guztiaren ondorioz, herri-izenen hurrenkeraz eta jarri beharreko zeinu grafikoez hau da Euskaltzaindiaren araua:

1) Herri batek euskaraz izen bat eta erdaraz beste bat duenean, bi izenak elkarrekin erabili behar direnean zehar-marra (/) baten bidez bereizirik jarriko dira, adibidez, izendegi, zerrenda, seinale eta antzekoetan:

Agurain / Salvatierra (A), *Areatza / Villaro* (B), *Baiona / Bayonne* (L), *Barkoxe / Barcus* (Z), *Donezteb*e */ Santesteban* (NG), *Donostia / San Sebastián* (G), *Izura / Ostabat* (NB)...

Euskarazko testu jarraituetan, ordea, emandako bi izen horietatik euskarari dagokiona soilik hartuko da, esaterako:

Aguraindik etorriko gara; Areatzari mesede handia egingo dio enpresa horrek; Baionan erosi dugu etxea; Piarres Topet "Etxahun" koblakaria Barkoxeko semea zen; Donezteberaino heldu ziren ibilgailu zahar horrekin; Donostiara hurbilduko zaitugu; Izurak ez du hazkunderik izan azken urteotan...

* * *

2) Bi herrik edo gehiagok administrazio elkarte bat osatzen dutenean, bi izenak beti marratxo (-) baten bidez bereiziko dira, izendegi, zerrenda, seinale eta abarretan:

Arratzua-Ubarrundia (A), *Beintza-Labaien* (NG), *Ezkio-Itsaso* (G), *Gamiz-Fika* (B), *Labetze-Bizkai* (NB), *Maule-Lextarre* (Z)...

Erabilera arruntean deklinabide-marka azken izenari jarriko zaio:

Arratzua-Ubarrundian bizi da nire laguna; pagadi horiek Beintza-Labaienenak dira; Ezkio-Itsasoko Udalak halaxe erabaki du; Gamiz-Fikak bere batasunari eutsiko dio aurrerantzean ere; Labetze-Bizkairi ondo letorkioke industria hori; Maule-Lextarretik irteten zen trena…

* * *

3) Lekua gehi eskualdea, harana edo ibarra adierazten duten herri-izenetan, lehendabizi herriaren izena jarriko da eta gero, tarteko marratxorik gabe, ibar edo eskualdearena. Konposaketa kasu hauetan, ordea, bi egoera bereizi behar dira:

3.1. Zenbaitetan herri-izena gehi eskualde, haran edo ibarraren erabilera oso hedatua dago. Elkartze hori jadanik lexikaldutzat ematen denez gero, erabilera jasoan biak jarriko dira:

Donibane Garazi (NB), *Donibane Lohizune* (L), *Uharte Arakil* (NG), *Etxarri Aranatz* (NG)…

Eta deklinabide atzizkia amaieran doan izenak jasoko du:

Donibane Garazin, Donibane Lohizunera, Uharte Arakilen, Etxarri Aranazko…

3.2. Beste askotan, herri-izenaren erabilera arruntak ez du ezinbestez eskatzen eskualde, haran edo ibarraren argigarria eta bere horretan utz daiteke, betiere baldin nahasketa sortzeko arriskurik ez badago:

Bastida (A eta BN), *Getaria* (G eta L), *Jatsu* (L eta NB), *Lekunberri* (NG eta NB)…

Baina testuingurua behar bezain argia ez denean, herri hori izenkidea den beste batekin nahas litekeelako, herri-izenaren ondotik, dagokion ibar edo eskualdearena jarriko da argigarri:

Bastida Arberoa, Getaria Gipuzkoa, Jatsu Lapurdi, Lekunberri Larraun… (vs. *Bastida Araba, Getaria Lapurdi, Jatsu Garazi, Lekunberri Garazi…*).

Konposaketa osagarri hau erabiltzea erabakiz gero, deklinabide-marka azken izenari jarriko zaio:

Bastida Arberoan nahiz *Bastida Araban*, *Getaria Gipuzkoatik* nahiz *Getaria Lapurditik*, *Jatsu Lapurdira* nahiz *Jatsu Garazira*, *Lekunberri Larraungoa* nahiz *Lekunberri Garazikoa*…

Hala ere, tradiziorik ez dagoen kasuetan, testu jarraituetan egokia da *Gipuzkoako Getariako txakolina* edo *Lapurdiko Jatsu herrian* moduko egiturak erabiltzea.

4) Herri-izenetan maiz ageri den amaierako *-a* dela eta, kontuan izan beharrekoa:

4.1. Herri-izen askok berezkoa dute amaierako *-a* hori:

Ainhoa (L), *Aintzila* (NB), *Arraia* (A), *Donostia* (G), *Garaioa* (NG), *Zierbena* (B), *Zühara* (Z)...

Izen horiek bokalez amaitutako beste edozein izenen moduan deklinatuko dira:

Ainhoatik, Aintzilara, Arraiarantz, Donostiako, Garaioatik, Zierbenaz, Züharan…

4.2. Beste anitz herri-izenetan, ordea, amaierako *–a* hori ez da berezkoa, artikulua baizik. Kasu hauek, hain zuzen ere, Euskaltzaindiaren izendegietan *–a* ohar argigarriaz ageri dira, esaterako:

Abaurrepea (-a) (NG), *Azkoitia (-a)* (G), *Ermua (-a)* (B), *Ospitalepea (-a)* (Z), *Zigoitia (-a)* (A)...

Azkeneko *–a* hori artikulua denez gero, erabil bedi:

Abaurrepean, Azkoitiarekin, Ermuan, Ospitalepearekin, Zigoitian..., baina Abaurrepera, Azkoitiko, Ermuko, Ospitalepetik, Zigoitira... Era berean, izen hauek ere azken *–a* galtzen dute ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramatenean; adibidez: *Abaurrepe maitea, Azkoiti osoan, Gure Ermu hau*...

(Euskaltzaindiak, 2004ko azaroaren 26an, Gasteizen, onartua)

142

ANTZINATEKO ESKUALDEEN EUSKARAZKO IZENAK

Antzinako zibilizazioak, batez ere Mediterraneoaren ertzekoak eta Ekialde Hurbilekoak (Mesopotamia, Egipto, Persia eta, batez ere, Grezia eta Erroma) ditugu, neurri batean, gure oraingo zibilizazioaren eta kulturaren oinarri eta zutabe. Antzinateko historia nahitaezko irakasgaia da eskoletan eta institutuetan, eta historia hori-pertsonak, lekuak, gertaerak-gure zibilizazioaren ondarea dugu.

Gure bi auzo-erdaretan eta, oro har, Europako hizkuntza nagusietan, Antzinateko pertsona- eta leku-izen nagusiek egina dute bidea, eta hizkuntza bakoitzak bere erara etsekotu ditu, hau da, bere ondarean sartu ditu, bere egin ditu. Hortaz, pertsona eta leku klasiko nagusi horien idazkera, maiz, aldatu egiten da hizkuntzatik hizkuntzara. Adibidez, *Ática, Capadocia, Numancia* eta *Troya* idazten da gaztelaniaz; *Attique, Cappadoce, Numance* eta *Troie* frantsesez; eta *Attica, Cappodocia, Numantia* eta *Troy* ingelesez.

Irakaskuntzan, hedabideetan eta kultura-eremuetan oro har, biziki zabaldu da euskara azken urteotan. Hortaz, premiazkoa da antzinako pertsona eta leku nagusien izenen forma finkatzea. Euskaltzaindiak, premia horretaz jabeturik, gaiari heldu dio, eta, Onomastika batzordearen barnean eratutako Exonomastika batzordeñoaren bidez, premia horri erantzun nahi dio. Lehenik, 1997an eta 1998an, Antzinate klasikoko pertsonaia historiko eta izen mitologikorik erabilienen zerrendak eta irizpideak landu eta aurkeztu ditu (Euskaltzaindiaren 76. eta 82. Arauak). Aurreko lan horien jarraipena da orain aurkezten diren zerrenda hau, *Antzinateko eskualdeen euskarazko izenak* finkatzea helburu duena.

Leku horien euskarazko grafia finkatzeko irizpideak, funtsean, aurreko bi erabaki horietan erabilitako berak dira, toponimiara doituta. Gure idazle klasikoen lanetan Antzinateko hainbat leku-izen ageri dira, baina garbi dago ez dugula tradizio bakarra: *Babilonia* idatzi zuten Arrese Beitia, Lardizabal, Duvoisin, Kardaberaz, Mogel, Axular, Mitxelena, Aresti, Orixe, Etxeberri Ziburukoak eta Etxeberri Sarakoak; baina *Babylone* eta *Babilona* idatzi zuen Leizarragak, *Babylonia* Hiribarrenek, Arbelbidek eta Mendiburuk; *Babilon* Iraizozek. *Efeso* hautatu zuten Lardizabalek, Agirre Asteasukoak eta Arruek; *Ephesa* Pouvreauk eta Intxauspek; eta *Ephese* Leizarragak. *Kanaan* ageri da Lardizabal, Añibarro, Frai Bartolome eta Agirre Asteasukoaren lanetan; *Kana* Joanategi, Iraizoz, Duvoisin eta Intxausperenetan; eta *Cana* Leizarraga, Mendiburu eta Etxeberri Ziburukoarenetan. *Troja* erabili zuen Etxeberri Sarakoak; *Troia* Mendiburu, Ibiñagabeitia eta Orixek; eta *Troya* Goikoetxea eta Zaitegik. Hala ere, beste askotan tradizioa ez da galbidea, argibidea baizik: *Kartago* idatzi zuten Axular, Hiribarren, Orixe, Añibarro, Berrondo, Aresti, Iratzeder eta Zaitegik; *Cartago* eta *Carthago*, biak, Astarloaren lanetan baino ez dira ageri.

Ondoko orrialdeetan eskaintzen den zerrendaren eta bonetan gauzatutako irizpideen erabilera-esparruari buruz, hiru obar egin behar dira:

I. Eskola-liburuetan, entziklopedia eta kontsulta-material orokorretan, hedabideetan eta, oro har, goi-mailako ikerketak ez diren kultura-eremu guztietan dira erabilgarri zerrenda eta irizpide hauek.

II. Zerrendetatik kanpo gelditu dira hainbat eskualde klasiko, maiztasun urriagokoak. Horien grafia ere egokitu daiteke euskarara zerrendan dauden izenetan egin den bezala. Hala ere, kontuan izan behar da zenbat eta ezezagunagoa izan eta gutxiago erabili leku-izen bat, hainbat txikiagoa izan ohi dela haren grafia egokitzeko joera.

III. Goi-mailako ikerketetan beti da zilegi jatorrizko grafia erabiltzea, latinaren kasuan (adibidez, *Cyrenaica* eta *Herculaneum*, zerrendetan dauden *Zirenaika* eta *Herkulano* formen ordez), edo, latindar alfabetoa erabiltzen ez duten hizkuntzetan, bestelako transkripzio-taulak erabiltzea (greziar jatorriko izenak transkribatzeko, ikus 76. Arauan emandako transkripzio-taula).

ANTZINATEKO ESKUALDEAK

Antzinatea (mundu grekolatindarra, Mediterraneoa, Asia Txikia, Egipto, Mesopotamia, Persia)

Euskara	Erratoria		Izen klasikoa	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa
Afrika Prokonsulartea	Afrika Prokonsulartetako	E	Africa Proconsularis	África Proconsular	Afrique Proconsulaire	Proconsular Africa
Akaia	akaiar	G	Achaea	Acaya	Achaïe	Achaea
Akitania	akitaniar	E	Aquitania	Aquitania	Aquitaine	Aquitaine
Arakosia	arakosiar	P	Arachosia	Aracosia	Arachosie	Arachosia
Argolida	argolidar	G	Argolis	Argólida	Argolide	Argolid / Argolis
Arkadia	arkadiar	G	Arcadia	Arcadia	Arcadie	Arcadia
Asiria	asiriar	M	Assyria	Asiria	Assyrie	Assyria
Atika	atikar	G	Attica	Ática	Attique	Attica
Baktriana (Baktria)	baktriar	P	Bactriana	Bactriana	Bactriane	Bactria / Bactriana
Beozia	beoziar	G	Boeotia	Beocia	Béotie	Boeotia
Betika	betikar	E	Baetica	Bética	Bétique	Baetica
Bitinia	bitiniar	G	Bythynia	Bitinia	Bithynie	Bythynia
Bizantzio / Bizantziar Inperioa / Ekialdeko Erromatar Inperioa	bizantziar	E	Byzantium	Bizancio / Imperio bizantino / Imperio Romano de Oriente	Byzance / Empire byzantin / Empire romain d'orient	Byzantium / Byzantine Empire / Eastern Roman Empire
Britania	britaniar	E	Britannia	Britania	Bretagne	Britania
Dalmazia	dalmaziar	G	Dalmatia	Dalmacia	Dalmatie	Dalmatia
Dardania	dardaniar	G	Dardania	Dardania	Dardanie	Dardania
Dazia	daziar	E	Dacia	Dacia	Dacie	Dacia
Doria	doriar	G	Doris	Dórida	Doride	Doris
Elam /Susiana	elamdar / susianar	P	Susianae, Susis	Elam / Susiana	Elam / Susiane	Elam / Susiana
Eolia /Eolida	eoliar	G	Aeolia	Eolia / Eólide / Eólida	Éolie / Éolide	Eolia
Epiro	epiroar	G	Epirus	Epiro	Épire	Epirus / Epirus
Escitia	escitiar	G	Scythia	Escitia	Scythie	Scythia
Etolia	etoliar	G	Aetolia	Etolia	Étolie	Aetolia
Etruria	etruskoi, etruriar	E	Etruria	Etruria	Étrurie	Etruria
Fenizia	feniziar	F	Phoenicia	Fenicia	Phénicie	Phoenicia
Forida	foridar	G	Phocis	Fócida	Phocide	Phocis
Frigia	frigiar	G	Phrygia	Frigia	Phrygie	Phrygia

Antzinateko eskualdeen euskarazko izenak

Euskara	Erderria		Izen klasikoa	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa
Galazia	galaziar	G	Galatia	Galacia	Galatie	Galatia
Galia/Galiak	galiar	E	Gallia	Galia	Gaulle	Gaul
Galia Zisalpinoa	galiar zisalpinoa	E	Gallia Cisalpina	Galia Cisalpina	Gaule Cisalpine	Cisalpine Gaul
Galia Transalpinoa	galiar transalpinoa	E	Gallia Transalpina	Galia Transalpina	Gaule Transalpine	Transalpine Gaul
Galilea	galilear	E	Galilea	Galilea	Galilée	Galilee
Gedrosia	gedrosiar	P	Gedrosia	Gedrosia	Gédrosie	Gedrosia
Germania	germaniar	E	Germania	Germania	Germanie	Germania
Getulia	getuliar	E	Gaetulia	Getulia	Gétulie	Gaetulia
Hatti	hattiar	M	Hatti	Hatti	Hatti	Hatti
Helade	Heladiko	G	Hellas	Hélade	Hellade	Hellas
Helvezia	helveziar	E	Helvetia	Helvecia	Helvétie	Helvetia
Hibernia	hiberniar	E	Hibernia	Hibernia	Hibernie	Hibernia
Hirkania	hirkaniar	P	Hyrcania	Hircania	Hyrcanie	Hyrcania
Hispania	hispaniar	E	Hispania	Hispania	Hispanie	Hispania
Iberia	iberiar	G	Iberia	Iberia	Ibérie	Iberia
Iliria	iliriar	G	Illyria	Iliria	Illyrie	Illyria
Ionia	joniar	G	Ionia	Jonia	Ionie	Ionia
Judea	judeatar	E	Iudaea	Judea	Judée	Judaea / Judea / Judah
Kaldea	kaldear	M	Chaldea	Caldea	Chaldée	Chaldea
Kaledonia	kaledoniar	E	Caledonia	Caledonia	Calédonie	Caledonia
Kanaan	kanaandar	E	Canaan	Canaan	Canaan	Canaan
Kapadozia	kapadoziar	G	Cappadocia	Capadocia	Cappadoce	Cappadocia
Karmania	karmaniar	P	Carmania	Carmania	Carmanie	Carmania
Karia	kariar	G	Caria	Caria	Carie	Caria
Kartago	kartagotar	E	Carthago	Cartago	Carthage	Carthage
Khwarezm / Korasmia	Khwarezmiko / korasmiar	P	Chorasmia	Corasmia	Kharezm / Chorasmie	Khwarezm / Khorezm / Chorasmia
Kolkida	kolkidar	G	Colchis	Cólquida	Colchide	Colchis
Komagene	Komageneko	E	Commagene	Comagene	Commagène	Commagene
Lakonia	lakoniar	G	Laconia	Laconia	Laconie	Laconia
Lazedemonia	lazedemoniar	G	Lacedaemonia	Lacedemonia	Lacédémone	Lacedaemon
Lidia	lidiar	G	Lydia	Lidia	Lydie	Lydia
Likaonia	likaoniar	G	Lycaonia	Licaonia	Lycaonie	Lycaonia
Lugdunensis	Lugdunensiko	E	Lugdunensis	Lionense	Lyonnaise	Lugdunensis / Lugudunensis
Liria	liriar	G	Lycia	Licia	Lycie	Lycia
Lokrida	lokridar	G	Locris	Lócrida	Locride	Locris
Lukania	lukaniar	E	Lucania	Lucania	Lucanie	Lucania
Lusitania	lusitaniar	E	Lusitania	Lusitania	Lusitanie	Lusitania

Antzinateko eskualdeen euskarazko izenak

Euskara	Erderria		Iven klasikoa	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa
Magna Graecia / Grezia Handia	Grezia Handiko	G	Magna Graecia	Magna Grecia	Grande-Grèce / Grèce d'Occident	Magna Graecia
Margiana	Margianako	P	Margiana	Margiana	Margiane	Margiana
Mauritania (Mauretania Tingitana; Mauretania Caesariensis)	mauritaniar (Mauretania Tingitanako; Mauretania Caesariensiko)	E	Mauretania (Mauretania Tingitana; Mauretania Caesariensis)	Mauritania (Mauritania Tingitana; Mauritania Cesariana)	Mauritanie (Mauritanie Tingitane; Mauritanie Césarienne)	Mauretania (Mauretania Tingitana; Mauretania Caesariensis)
Media	mediar	P	Media	Media	Médie	Media
Mesenia	meseniar	G	Messena	Mesenia	Messénie	Messenia
Mesia	mesiar	E	Moesia	Mesia	Mésie	Moesia
Mesopotamia	mesopotamiar	M	Mesopotamia	Mesopotamia	Mésopotamie	Mesopotamia
Misia	misiar	G	Mysia	Misia	Mysie	Mysia
Mitanni	mitanniar	M	Mitanni	Mitani	Mitanni	Mitanni
Narbonensis	Narbonensiko	E	Narbonensis	Narbonense	Narbonnaise	Narbonensis
Norika	norikar	E	Noricum	Nórica	Norique	Noricum
Numidia	numidiar	E	Numidia	Numidia	Numidie	Numidia
Paflagonia	paflagoniar	G	Paphlagonia	Paflagonia	Paphlagonie	Paphlagonia
Panfilia	panfiliar	G	Pamphylia	Panfilia	Pamphylie	Pamphylia
Panonia	panoniar	E	Pannonia	Panonia	Pannonie	Pannonia
Partia	partiar	P	Parthia	Partia	Parthie	Parthia
Pisidia	pisidiar	G	Pisidia	Pisidia	Pisidie	Pisidia
Piceno	picenoar	E	Piceum	Piceno	Piceum	Piceum
Ponto	Ponteko	G	Ponto	Ponto	Pont	Pontus
Rhetia	rhetiar	E	Rhaetia	Retia / Recia	Rhétie	Raetia / Rhaetia
Sabina	sabinar	E	Sabina	Sabina	Sabine	Sabina
Samaria	samariar	E	Samaria	Samaria	Samarie	Samaria
Samnio	samnioitar	E	Samnium	Samnio	Samnium	Samnium
Sarmacia	sarmaciar	E	Sarmatia	Sarmacia	Sarmatie	Sarmatia
Septimania	septimaniar	E	Septimania	Septimania	Septimanie	Septimania
Sogdiana	sogdianar	P	Sogdiana	Sogdiana	Sogdiane	Sogdiana
Sumer	sumeriar	M	Sumer	Sumer	Sumer	Sumer
Tarraconensis	Tarraconensiko	E	Tarraconensis	Tarraconense	Tarraconaise	Tarraconensis
Tebaida	tebaidar	Eg	Thebaida	Tebaida	Thébaïde	Thebaida
Tesalia	tesaliar	G	Thessalia	Tesalia	Thessalie	Thessaly
Transoxiana	transoxianar	P	Transoxiana	Transoxiana	Transoxiane	Transoxania / Transoxiana
Trazia	trazitar	G	Thracia	Tracia	Thrace	Thrace
Tripolitania	tripolitaniar	E	Tripolitania	Tripolitania	Tripolitaine	Tripolitania
Troade	troadetar	G	Troas	Tróade	Troade	Troas / Troad

Antzinateko erlaualdeen euskarazko izenak

Euskara	Eratorria		Izen klasikoa	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa
Urartu	urartuar	M	Urartu	Urartu	Ourartou	Urartu
Zilizia	zilitiar	G	Cilicia	Cilicia	Cilicie	Cilicia
Zirenaika	zirenaikar	E	Cyrenaica	Cirenaica	Cyrénaïque	Cyrenaica / Cirenaica

Oharrak:

- 'Nongoa' zutabearen ikurren irakurbidea:

  E Erromatar Inperioaren mendeko eskualdea
  Eg Egipto
  G Grezia (kultura helenikoaren eremuko eskualdea)
  M Mesopotamia
  P Persia

- Parentesi arteko forma bigarren mailan onartzen da. Adibidez: *Baktriana (Baktria)*

- Zehar marraz bereizitako formak maila berean onartzen dira. Adibidez: *Galia/Galiak*

- Eskualdearen izenetik abiatuta ateratzen den eskualdeko herritarren izena ageri da 'Eratorria' izeneko zutabean. Zenbaitetan, eskualdearen izena konposatua denean edo latinezkoa dagoen-dagoenean hartzea proposatzen denean, '*-ar*' atzizkiaren bidezko izen eratorriaren ordez '*–(e)ko*' atzizkidun forma (izenlaguna) erabiltzea hobetsi da. Nolanahi ere, zutabe hori informazio osagarri gisa eskaintzen da; eratorria noiz erabili eta noiz *ez* da erabaki honen arloko.

- Eskualdeko herritarren izena emanagatik *ez* da baztertzen beste testuinguru batzuetan erabiltzen den bestelako izendapena, hau da, herritarra *ez* eta bestelako esanahia duenean. Adibidez, 'lakoniar' ematen da *Lakoniako* herritarrak izendatzeko, baina 'lakoniko' hitza erabil daiteke bestelako testuinguruetan ('idazle lakonikoa').

(Euskaltzaindiak, 2004ko abenduaren 16an, Bilbon, onartua)

ADIERAZPENAK, HITZARMENAK...

BATETIK, EUSKO JAURLARITZA, ARABAKO, BIZKAIKO ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIEN ETA, BESTETIK, EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO 2004. URTERAKO *HITZARMEN* ERANTSIA

BILDURIK

Batetik:

MIREN AZKARATE VILLAR andrea, Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailburua.

FEDERICO VERÁSTEGUI COBIÁN jauna, Arabako Foru Aldundiaren Kultura, Gazteria eta Kirol Saileko foru diputatua.

BELEN GREAVES BADILLO andrea, Bizkaiko Foru Aldundiaren Kulturako foru diputatua.

JOXE JOAN GONZÁLEZ DE TXABARRI MIRANDA jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiaren diputatu nagusia.

Bestetik:

JEAN HARITSCHELHAR DUHALDE jauna, euskaltzainburua.

Euskaltzaindiaren lan-jardunari dagokionez, 2002ko azaroaren 19an Eusko Jaurlaritzak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek, batetik, eta Euskaltzaindiak, bestetik, izenpetu duten eta indarrean dagoen hitzarmenaren arabera eta hura betez, bertan, 2004. urteko diru-ordainketak eta urte horretan egin beharreko lanak ezartzen direlarik,

HITZARTU DUTE

I. Aurrekontu Arruntaren (157.467,09 euro) erabiliko ditu Euskaltzaindiak ikerketa eta garapen alorrean, ohiko batzorde akademikoen eginkizunak burutzeko: Hiztegigintza *(Hiztegi Batua)*, Gramatikagintza, Dialektologia, Onomastika, Literatura Ikerketa, Herri Literatura, Euskara Batua, *Jagon – Corpus, Jagon*– Sustapen eta Azkue Biblioteka. *(Ikus 1. eranskina)*.

II. Ohiko argitalpenak: Aurrekontu Arruntaren (58.980,51 euro) erabiliko ditu Euskaltzaindiak, txostenak eta agindutako lanak, *Euskera*, 2003, 2 / *Euskera*, 2004,1 / Euskaltzaindiaren *Arauak* (dagozkion sortak) *2003ko Oroitidazkia* eta *Argitalpenen Katalogo* eguneratua kaleratu ahal izateko. (Ikus 2. eranskina).

III. Gainerako (1.741.609,73 euro) Aurrekontu Arruntaren ondorengo gastuak ordaintzeko erabiliko ditu: Inbertsioak, ohiko gastuak eta zerbitzuak, zergak, gizabanakoen gastuak, finantza gastuak, aparteko gastuak, ... (Ikus 3. eranskina).

IV. Herri Aginte sinatzaileek *Orotariko Euskal Hiztegia* eta Euskararen Herri Hizkeren Atlasa egitasmoetarako 560.989,67 eurotako laguntza emango diote Euskaltzaindiari. (Ikus 4. eranskina).

V. Protokoloa sinatzen duten Herri-Aginteek, 2004.urtean, 2.519.047 eurotako diru-laguntza eskuratuko diote Euskaltzaindiari, ondorengo banaketaren arabera:

Agintea	Koefizientea	Aurrek. Arr.	Oeh+Ehha	Guztira
E. J.	%68,18	1.335.074	382.502	1.717.576
AFA	%2,84	56.706	15.958	71.664
BFA	%17,43	341.375	97.806	439.181
GFA	%11,53	225.905	64.721	290.626
	%100	**1.958.060**	**560.987**	**2.519.047**

VI. Dirubide hauek honela bideratuko dira:

– Lehen ordainketa aurrekontu arrunta osoaren erdiak osatuko du, eta urteko protokoloa izenpetu eta bi hilabetera gauzatuko da.

– Bigarren ordainketa aurrekontu arruntaren bigarren erdiak osatuko du, eta, dagozkien justifikagiriak aurkeztu eta hilabetera.

VII. Euskaltzaindiak dituen egitarau guztiek ikuspegi akademikotik izan duten betetze-mailaren berri emango die Herri Aginteei urteroko protokolo erantsian bildu beharko liratekeen lehentasunak ahalik eta hobekien finkatu eta adostu ahal izateko

VIII. Bestalde, informatizaturiko *corpus*en erabilerari dagokionez, *hitzarmena* sinatzen duten Herri Aginteek euskalgintzan, (euskararen ingeniaritza-industrian, itzulpengintzan, terminologian, liburugintzan, unibertsitateko ikerkuntzan…) diharduten elkarte edo enpresekin izan ditzaketen hitzarmenak direla medio, direlako elkarte eta izakundeek *corpus* horiek doan erabiltzeko aukera izango dute. Edonola ere, Euskaltzaindia ez den beste inork *corpus* ho-

riek erabiltzeko ezinbestekoa izango du Euskaltzaindiaren beraren eta HPSren idatzizko baimena eskuratzea

IX. Euskaltzaindiak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

a) 2004. urteko abenduan amaituko duela *Orotariko Euskal Hiztegia* egitasmoa.

b) 2004. urtean ez duela gehituko langile finkoen kopurua ezta Herri Aginteekin sinatutako *Hitzarmenar*en bidez babesturiko egitasmoetan dihardutenen gizabanakoen kopurua.

c) 2005. urterako, Administrazioaren aurrekontu egiturari eta Kontabilitate Egitura Orokorrari egokitutako Aurrekontuak aurkeztuko dituela.

X. Eusko Jaurlaritza, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundien eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmenaren seigarren klausulan araupetutako Jarraipen Batzordeko batzordeburu eta idazkari karguen honako ordezkotza--sistema finkatzen da Administrazio eta Prozedura arautzen duen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 23.2 eta 25.2 artikuluek xedatutakoari jarraituz:

– Batzordeburuaren ordezkotza: kargua hutsik egonez gero, gaixorik egonez gero, kanpoan egonez gero edo bestelako legezko arrazoirik izanez gero, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak izendatuko du batzordeburuaren ordezkoa.

– Idazkariaren ordezkotza: kargua hutsik egonez gero, gaixorik egonez gero, kanpoan egonez gero edo bestelako legezko arrazoirik izanez gero, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak izendatuko du idazkariaren ordezkoa.

Ondorioz, honako dokumentu hau 2002ko azaroaren 19an sinatutako hitzarmenari eransten zaio, haren zati bihurtzen delarik.

Hitzartutakoa hala ager dadin, eta esan bezala betetzeko, partaide ezberdinek honako dokumentu hau izenpetzen dute boskoitzez.

Bilbon, 2004ko azaroaren 16an

MIREN AZKARATE VILLAR andrea, Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailburua.

FEDERICO VERÁSTEGUI COBIÁN jauna, Arabako Foru Aldundiaren Kultura, Gazteria eta Kirol Saileko foru diputatua.

BELEN GREAVES BADILLO andrea, Bizkaiko Foru Aldundiaren Kulturako foru diputatua.

JOXE JOAN GONZÁLEZ DE TXABARRI MIRANDA jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiaren diputatu nagusia.

JEAN HARITSCHELHAR DUHALDE, euskaltzainburua.

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN (UPV/EHU) ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO *HITZARMENAREN* GARAPENA 2004RAKO

Euskaltzaindiak eta EHUk *lankidetza hitzarmen* bat sinaturik daukate elkarlana bultzatu eta erakunde bietako kideentzat interesgarri gerta daitezkeen lanen argitalpena sustatzeko. Horrela, 2004.urtean burutzeko diren lanetarako UPV/EHUk HAMAIKA MILA LAUREHUN ETA LAUROGEITA LAU €roko diru kopurua jarriko du, eta Euskaltzaindiak ematen dituen zerbitzuak beste horrenbestean balioesten dira.

Aipaturiko diru kopuruarekin honako lan hau argitaratuko da:

EHUko irakasle den Inés Pagola Hernández andrearen *Neologismos de Sabino Arana Goiri* berau argitaratzeko diru kopuru hau esleituz:

22.968 €

DESARROLLO DEL *CONVENIO* ENTRE LA UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO (UPV/EHU) Y EUSKALTZAINDIA PARA EL AÑO 2004

La UPV/EHU y Euskaltzaindia / R.A.L.V. tienen firmado un *convenio de colaboración* para impulsar la cooperación mutua y para impulsar la publicación de los trabajos que puedan ser de interés para los miembros de ambas instituciones. Para el año 2004, la UPV/EHU destinará la cantidad de ONCE MIL CUATROCIENTOS OCHENTA Y CUATRO Euros.

La publicación que se llevará a cabo con la cantidad citada es la siguiente:

Neologismos de Sabino Arana Goiri de la profesora de la UPV/EHU Inés Pagola Hernández para cuya publicación se destinan:

22.968 €

Argitalpena 1.000 aletakoa izango da, eta liburukien banaketa honela egingo:

500 ale UPV/EHUrentzat
500 ale
Euskaltzaindiarentzat

Egitasmo honen finantzaketa 22.968 € izango da eta Instituzio biek erdibana ordainduko dute.

EHUk 2004.eko ekitaldiaren kargura 11.484 € ordainduko dio Euskaltzaindiari.

Leioan, 2004ko urriaren 1ean

Jean Haritschelhar Duhalde,



euskaltzainburua / Presidente
de Euskaltzaindia / R.A.L.V.

La tirada será de de 1.000 ejemplares, cuya distribución será como sigue:

500 ejemplares para la UPV/EHU
500 ejemplares para
Euskaltzaindia / R.A.L.V.

La financiación de este proyecto, cuyo importe asciende a 22.968 €, será financiada a partes iguales entre ambas instituciones.

La UPV / EHU abonará a Euskaltzaindia / R.A.L.V. la cantidad de 11.484 € con cargo al ejercicio 2004.

En Leioa, a 1 de octubre de 2004

Juan Ignacio Pérez Iglesias,

Rector de la UPV / EHUko
errektorea

LANKIDETZA HITZARMENA, IRUÑEKO UDALAREN ETA EUSKALTZAINDIA-EUSKARAREN ERRET AKADEMIAREN ARTEAN

Iruñean, 2004ko ekainaren hamaseian ondokoak bildu dira: Kultura Zinegotzi Delegatua den Ignacio Pérez Cabañas, Iruñeko Udalaren izenean, eta Jean Haritschelhar jaun Euskaltzainburua.

Horiek biek *Lankidetza-hitzarmen* hau sinatzeko behar bezainbateko eskumena eta gaitasuna aitortzen dizkiote elkarri, betiere ordezkatzen dituzten erakundeen izenean, eta hitzartutakoa hobeki konprenitze aldera honako hau

ADIERAZI DUTE

Bi erakundeek, zeinak bere esparruan, interes bat eta bera dutela, euskara gorde eta sustatzeko, eta biek ala biek dituztela helburu gure hiriko biztanleek euskara gero eta estimu handiagoan izatea, euskara ezagutzen duten lagunak gero eta gehiago izatea eta euskararen erabilera sustatzea, hala hiztunen kopuruari nola hizkeraren kalitateari dagokienez.

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE PAMPLONA Y LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

En Pamplona, a dieciseis de junio de 2004, reunidos de una parte el Concejal Delegado de Cultura D. Ignacio Pérez Cabañas en representación del Ayuntamiento, de Pamplona, y de otra D. Jean Haritschelhar Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca.

Ambos se reconocen, respectivamente, competencia y capacidad para subscribir en nombre de sus respectivas instituciones el presente *Convenio* de cooperación, para cuya mayor comprensión

EXPONEN

Que las dos entidades, cada una en su ámbito respectivo, comparten un común interés en la preservación y promoción del vascuence, constituyendo un objetivo común para las dos la consecución de una estima cada vez mayor hacia el euskera por parte de los habitantes de nuestra ciudad, el aumento del numero de personas que lo conocen y la potenciación de su uso, tanto en lo que se refiere al número de hablantes como a la calidad lingüística del habla.

Horiek horrela, kontuan harturik bi erakundeek bat egiten dutela, hala helburuetan nola lan esparruetan, eta helburu horiek erdiesteko euskarak arreta berezia behar duela, derrigorrezkoa da aitortzea bi erakundeen arteko harreman errazak ezartzeko komenentzia, harreman horiek, betiere, elkarren arteko begirunean eta lankidetzan oinarrituta.

Por todo ello, y teniendo en cuenta esta coincidencia de objetivos y de ámbitos de trabajo y dada la especial atención que necesita el vascuence a efectos de la consecución de estos objetivos, se impone reconocer la conveniencia de establecer una relación fluida entre las dos entidades, basada en el mutuo respeto y colaboración.

Beste aldetik, abenduaren l5eko Euskarari buruzko 1986/18 Foru Legeak, 3.3 artikuluan, Euskaltzaindia izendatzen du erakunde aholku--emaile ofiziala, Foru Erkidegoan indarra edukitzekoak diren hizkuntz arauak ezartze aldera.

Por otra parte, la Ley Foral 18/1986 de 15 de diciembre del vascuence, en su art. 3. 3.º designa a la Real Academia de la Lengua Vasca como institución consultiva oficial a los efectos del establecimiento de las normas lingüísticas aplicables en la Comunidad Foral.

Horiek guztiak kontuan harturik, bi erakundeek *Hitzarmen* hau izenpetzea

Teniendo en cuenta todos estos razonamientos las dos entidades

ERABAKI DUTE,

ACUERDAN

ondoko klausula hauekin bat erabaki ere:

Suscribir el presente *Convenio* con respecto a las siguientes cláusulas:

1. Euskaltzaindia Iruñeko Udalari aholku emateko zereginetan aritu ahalko da, euskararekin zerikusirik duten hizkuntza aferetan bezainbatean.

1. La Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia podrá ejercer labores de asesoramiento al Ayuntamiento de Pamplona en cuestiones de materia lingüística relativas al euskera.

2. Euskaltzaindiak hiritarrek eskaturiko argibideak eta aholkuak oro eskaintzen jarraituko du, hala bere zerbitzu orokorretan nola

2. La Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia seguirá facilitando, tanto desde sus servicios generales como desde la propia de-

Iruñean kokaturik dagoen Nafarroako ordezkaritzan.

Halaber, kultur hedapenerako jarduerak, ikastaroak, hitzaldiak eta abar bultzatuko ditu, eta horretarako behar diren erakunde eta elkarteekin arituko da, elkarlanean.

3. Iruñeko Udalak konpromisoa hartzen du *Hitzarmen* honetarako 6.220 euro paratzeko, diru-laguntza gisara, eta kopuru hori ordaintzen dio Euskaltzaindiari. Erakunde horrek, bere aldetik, konpromisoa hartzen du kopuru hori *Hitzarmen* hau betetzen erabiltzeko, bai eta *Hitzarmen* honen bitartez lortu nahi diren helburuak gauzatzen ere. Dirulaguntzaren diru kopurua *Hitzarmena* sinatzen den momentuan ordainduko da.

Euskaltzaindiak, bere aldetik, konpromisoa hartzen du, behin urtaldia amaituta hala oroitidazki ekonomikoa nola jardueren gainekoa aurkezteko, halako eran non bertan justifikaturik azaldu behar baititu, gutxienez, Udalaren ekarpena berdintzeko adina gastu.

4. Euskaltzaindiak sustatzen dituen argitalpen, aldizkari edo edizio guztietatik sei ale emanen dizkio Iruñeko Udalari, betiere *Hitzarmen* honen esparruari dagozkion aferei buruzkoak baldin badira.

5. *Hitzarmen* honek 2004ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean izanen du indarra.

legación de Navarra en Pamplona, la información y el asesoramiento requeridos por los ciudadanos.

Del mismo modo, impulsará actividades de difusión cultural, cursos, conferencias, etc. en colaboración con las entidades e instituciones correspondientes.

3. El Ayuntamiento de Pamplona se compromete a aportar a este *Convenio* de colaboración la subvención de 6.220 euros, abonando a la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia esta cantidad, que se compromete a aplicar al cumplimiento de este *Convenio* y a la consecución de los fines que con este *Convenio* se pretenden. El importe de la subvención se abonará a la firma del presente *Convenio*.

La Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia, por su parte, se compromete a presentar, una vez producido el vencimiento del ejercicio anual, la memoria de actividades y económica en la que queden justificados, al menos, gastos por el importe de la aportación municipal.

4. La Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia entregará al Ayuntamiento de Pamplona seis ejemplares de las publicaciones, revistas y diferentes ediciones que promueva la entidad y versen sobre temas incluidos en el ámbito del presente *Convenio*.

5. El presente *Convenio* tendrá vigencia desde el 1 de enero a 31 de diciembre del año 2004.

Eta *Hitzarmen* honetan azaldutako guztiarekin bi erakurideak bat datozela adierazirik, *Hitzarmen* honen hiruna ale izenpetu dituzte ondokoek, arestian aipatu datan eta lekuan:

Euskaltzaindiaren izenean,



Iruñeko Udalaren izenean,



Y en prueba de conformidad con todo lo arriba expresado, firman el presente *Convenio* por triplicado ejemplar, en el lugar y fecha anteriormente señalados.

Por Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca,



Por el Ayuntamiento de Pamplona,



TOLOSAKO UDALAREN ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO *LANKIDETZA-HITZARMENA*

Donostia, 2004-VII-16

Amaia Okariz,
prentsa arduraduna

Prentsa-oharra

2004ko uztailaren 16an, Donostian, Euskaltzaindiaren ordezkaritzan, *lankidetza-Hitzarmena* sinatu dute Tolosako Udalak eta Euskaltzaindiak. Udalaren izenean, Jokin Bildarratz alkateak eta, Euskaltzaindiarenean, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak sinatu dute. *Hitzarmen* horren xedea honako hauxe da: «Tolosako Leku Izenak» deituriko lana sistematizatzea, azalpen-testuak lantzea, material grafikoa hautatzea eta maketatzea.

Sinadura-ekitaldia komunikabideen aurrean egin da. Mahaian hauek izan dira: Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; Jokin Bildarratz, Tolosako alkatea; Onintza Lasa, Tolosako Euskara Zerbitzuko burua eta Mikel Gorratxategi, Onomastika batzordeko idazkaria. Entzuleen artean, Tolosako Euskara Zerbitzuko Iñaki Azaldegi izan da, eta Onomastika batzordeko kide hauek: Andres Iñigo, Henrike Knörr, Jose Luis Lizundia eta Patxi Galé; eta baita, eta Pello Telleria, Euskaltzaindiko idazkariordea ere.

«Tolosako Leku Izenak» izeneko lana toponimiari buruzko azterketa da eta Udalaren datu-base batean txertatuta dago. Gauzak horrela, eta Udalak lan hori argitara ematea erabaki duen honetan, Euskaltzaindiarengana jo du, eginkizun horren ardura har dezan.

Sinatu den *Hitzarmena*ren arabera, Akademiak datu-basea hartu eta ondoko lanak egin beharko ditu: argitaratu beharreko materiala aukeratu; zerrenda egokiak definitu eta prestatu, bai eta material grafikoa, aipamen historikoen zerrenda eta azalpen testuak ere.

Lan horiek guztiak obrari buruzko maketa batean jasoko dira. Maketak, bestalde, 2005. urteko maiatzaren amaieran prest egon beharko du.

Hitzarmen hau koordinatzeko, Tolosako Udalak eta Euskaltzaindiak Jarraipen Batzordea eratuko dute, bakoitzak bi ordezkari izango dituelarik.

EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

TOLOSAKO UDALA

TOLOSAKO UDALAREN ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO *HITZARMENA*, «TOLOSAKO LEKU IZENAK» DEITURIKO LANA SISTEMATIZATZEKO ETA MAKETATZEKO

BILDURIK

Alde batetik, JOKIN BILDARRATZ SORRON jauna, adin nagusikoa, Nortasun Aginaren zenbakia 15.960.103 N eta jakinarazpenetarako egoitza Tolosako Plaza Zaharra 6-An. (Gipuzkoa), dituena.

Eta, beste alde batetik, JEAN HARITSCHELHAR DUHALDE jauna, adin nagusikoa, jakinarazpenetarako egoitza Bilboko Plaza Barrian, 15. zenbakian, duena.

PARTE HARTZEN DUTE

JOKIN BILDARRATZ SORRON jaunak, TOLOSAKO UDALAren izen eta ordezkaritzan, korporazio horretako Alkatea den heinean.

JEAN HARITSCHELHAR jaunak, EUSKALTZAINDIAren izen eta ordezkaritzan, euskaltzainburua den heinean.

Alderdiek elkarri aitortzen diote kontratu hau egiteko behar den adinako lege-gaitasuna, eta horretarako,

ADIERAZTEN DUTE

I. Tolosako Udalak «Tolosako Leku Izenak» deituriko lana argitaratu nahi duela, eta, horretarako, sistematizazio, normalizazio, azalpen-testuak landu, material grafikoa hautatu eta maketazio-lanak egin behar direla. Udalaren asmoa da lan horiek Euskaltzaindiaren ardurapean jartzea.

II. Euskaltzaindiak eginkizun hori onartzen duela. Hori dela eta, alderdiek erabaki dute Hitzarmen hau egitea, jarraiko hizpaketen arabera.

HIZPAKETAK

LEHENA. Kontratuaren helburua

Hitzarmen honen helburua da Tolosako Udalak Euskaltzaindiaren ardurapean jartzea «Tolosako Leku Izenak» deituriko lañaren sistematizazio- eta maketazio-lanak. Toponimiari buruzko azterketa hori aipatu udalaren jabetzapeko datu- base batera bilduta dago.

Eginkizun hori betetzeko, Euskaltzaindiak aukeratu egingo du argitaratu beharreko materiala; horrez gain, zerrenda egokiak definitu eta prestatuko ditu, bai eta material grafikoa, aipamen historikoen zerrenda eta azalpen testuak ere. Lan horiek guztiak obrari buruzko maketa batean jasoko dira; maketa hori behar den moduan sistematizatuta egongo da, beraren tratamendua eta erabilera aproposenak izan daitezen.

BIGARRENA. Lanak betetzeko epea

Euskaltzaindiak konpromisoa hartzen du, ezinbesteko kasuak alde batera utzita, tolosako Udalari «Tolosako Leku Izenak» deituriko lanaren behin betiko maketa 2005. urteko maiatzaren 31 baino lehen emateko.

HIRUGARRENA. Lankidetzaren zenbatekoa

Eginkizun hori egitearen truk, Tolosako Udalak Euskaltzaindiari hogeita bi mila euro (22.000) ordaindu beharko dizkio. Zenbateko hori hurrengo ordainketa-egutegiaren arabera gauzatuko da:

- ❑ 11.000 €, hitzarmena sinatu eta astebetera.
- ❑ 5.000 €, 2004ko abenduaren 15a baino lehen.
- ❑ 6.000 €, lana amaitu eta Euskara eta Hezkuntza Batzordeak oniritzia emandakoan.

Behin kasuan kasuko agiria luzatu eta gero, ordainketak bankuko transferentziaren bidez egingo dira, Euskaltzaindiak aipatutako kontuan. Edozein

kasutan ere, aurreko lerrokadan jasotako diru-kopurua zerga orotatik aske geratzen da, sortzapen- kasuetarako.

LAUGARRENA. Inoren materialak erabiltzea

Hirugarrenen titulartasunpeko jabetza intelektualaren eskubideak urratu ez daitezen, Euskaltzaindiak uste badu bere ardurapeko eginkizuna betetzeko beharrezkoa dela elementu zehatz batzuk erabiltzea (adibidez, irudiak), eta elementu horiek ez badaude jasota bere eskura jarritako datu-basean, inguruabar hori Tolosako Udalari komunikatu beharko dio, eta horren idatzizko baimena lortzea nahitaezkoa izango da, elementu horiek sartu ahal izateko.

Baimen hori lortzeak berarekin ekarriko du hirugarrenek eman beharreko baimenak kudeatzea, eta, hala denean, titularrekin adostutako royaltiak ordaintzea; royalti horien ordainketa Tolosako Udalari dagokio, eta ez dira inola ere sartzen aurreko klausulan finkatutako zenbatekoaren barruan.

BOSGARRENA. Jabetza intelektuala

Edozein kasutan ere, Tolosako Udalari dagozkio «Tolosako Leku Izenak» deituriko lana ustiatzeko eskubide guztiak. Ondorenez, udalak askatasun osoz argitara dezake lan hori, unean-unean egoki deritzen prozedura eta bide analogikoen bitartez. Era berean, udal-korporazioaren edo baimendutako beste edozein erakunderen web- orrian barnera dezake lana.

Aurrekoari kalterik egin gabe, Tolosako Udalak baimena ematen dio Euskaltzaindiari, «Tolosako Leku Izenak» deituriko lana bikoizteko, Euskal Akademiaren ekimenez burutzen diren teknologia berrien bidezko lan eta argitalpenetan. Dena den, Akademiak konpromisoa hartzen du lan eta argitalpen horietan beren beregi adierazteko obraren gaineko titulartasuna Tolosako Udalari dagokiola.

SEIGARRENA. Lanak gainbegiratzea

Euskaltzaindiak kanpoko langileak kontratatu ahal izango ditu, hitzarmen honetan aipatzen diren lanak egiteko. Lan horiek Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeko kide batek zuzen-zuzenean gainbegiratuko ditu; kide horrek, orobat, *Hitzarmen* honen Jarraipen Batzordean parte hartuko du.

ZAZPIGARRENA. Euskaltzaindiaren ikurra sartzea

Tolosako Udalak Euskaltzaindiari ahalmena ematen dio, argitaratuko den lanaren aurreko eta atzeko azaletan, Akademiaren ikurra jartzeko; horretarako, aurretiaz inprimatze-proba bidaliko dio, Euskal Akademiak ahalmen hori egikaritzeko aukera izan dezan.

ZORTZIGARRENA. Jarraipen batzordea

Hitzarmen hau koordinatzeko, Tolosako Udalak eta Euskaltzaindiak Jarraipen Batzordea eratuko dute; alderdi bakoitzak bi ordezkari izango ditu batzorde horretan. Euskaltzaindiaren kasuan, batzorde horretako ordezkarietatik bat Onomastika Batzordeko kidea izango da nahitaez; kide horrek gainbegiratuko ditu, seigarren hizpaketaren arabera, *Hitzarmen* honen ondoriozko lanak.

BEDERATZIGARRENA. Eztabaidak konpontzea

Hitzarmen honen interpretazioa edo betearazpena dela medio, edozein desadostasun izanez gero, alderdiek beren beregi uko egiten diote euren foruari, eta Bilboko epaitegi eta auzitegien eskumenaren menpe jartzen dira.

Tolosan, 2004ko uztailaren 16an.

EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOAREN ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO *LANKIDETZA-HITZARMENA*

BILDU DIRA

Alde batetik,

Pedro Maria Aranburu Aranburu jauna, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren lehendakaria,

eta bestetik,

D. Jean Haritschelhar Duhalde, euskaltzainburua.

AZALDU DUTE

Euskaltzaindia 1918. urtean sortu zen, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Aldundien ekimenez. Erakunde horren helburu nagusia da, hain zuzen ere, euskararekin zerikusia duten arazo guztiak zientziaren ikusmiratik lantzea.

Otsailaren 26ko 573/1976 Errege Dekretuak aitorpen ofiziala egin zion erakunde horri, Euskararen Errege Akademia gisa; harrezkero, Euskaitzaindia da euskararen arloko erakunde eskuduna, hizkuntza bera ikertu eta babesteko. Geroago, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak eta Nafarroako Foru Erkidegoaren Euskara Legeak beren beregi aitortu dute Euskaitzaindia erakunde aholku-emaile ofiziala dela, euskarari dagokionez.

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak, euskara eta euskal kultura ardatz dituen hezkuntza integrala lantzen ikastolei laguntzea eta kalitate oneko euskal eskola sustatzea ditu helburu, eta azken bost hamarkadaz, lan hori burutzen dihardu, unibertsitatera heldu arteko hezkuntza-maila desberdinetan. Eginkizun horretan I+G+B (Ikerketa + Garapena + Berrikuntza), prestakuntza, aholkularitza eta ikasmaterial propioak sortu ditu, eta ardura berezia jarri du, euskarazko gai desberdinen pedagogiari dagokionez. Lan hori guztia lurralde euskaldun guztietan burutu izan du.

Gaur egun, Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak hainbat jarduera burutzen dituzte, eta jarduerok interesgarri oso gerta daitezke hitzarmen honen ondorioetarako.

HITZARMENA

Bi erakunde horiek euron helburuak bete ditzaten, eta euskara eta euskal kultura irakatsi eta zabaltzeko ekimenak errentagarri eta egoki izan daitezen, bi erakundeok, bataren eta bestearen prozedura-arauak onartuz, honako *Hitzarmen* hau sinatzea erabaki dute, hurrengo baldintzokin:

1.) Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak aitortu egiten du, euskaraz denaz bezainbatean, Euskaltzaindia dela erakunde aholku-emaile ofiziala.

2.) Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak eta Euskaltzaindiak elkarri aitortzen diote euskarazko irakaskuntza-, ikerketa- eta pedagogia-zentro izatea. Horregatik, bi erakundeok lankidetza-proiektu zehatzak bideratu eta garatuko dituzte, euskararen eta euskal kulturaren inguruko irakaskuntza, ikerketa eta pedagogiaren eremuan; bi-bioi dagozkien lerro bereziak sustatuko dituzte, eta elkarri informazioa emango diote euren programazioetan zehaztutako lehentasunei buruz.

Horren harira, *curriculum*aren ondorioetako eta meritu gisa, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak kontuan hartuko du bere irakasle eta ikertzaileek Euskaltzaindiaren barman egindako lana. Irakasle eta ikertzaileok lan hori egin dezakete, dela Euskaltzaindiaren batzordeetan parte hartuz, dela Euskaltzaindiak antolatutako biltzar nahiz jardunaldi zientifikoetan parte hartuz, dela hitzarmen honen itzalpean bi erakundeok sinatzen dituzten lankidetza-proiektu zehatzetan parte hartuz.

Dena dela, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren irakasle eta ikertzaileek parte hartzen badute edo lankidetzan badihardute Euskaltzaindiak antolatutako jardueretan, parte-hartze edo lankidetza horiek *curriculum*aren ondorioetarako aintzat hartzeko, beharrezko diren baliokidetasun-koefizienteak ezarriko dira.

3.) Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak eta Euskaltzaindiak elkarri euren irakaskuntza- eta ikerketa-ondareak erabiltzeko aukera emango diote, eta, bereziki, euren artxibategi eta bibliotekak erabiltzeko aukera. Gainera, gero aipatuko den Jarraipen Batzordearen bidez, mekanismo egokiak finkatuko dira, bi sinatzaileek euren artean argitalpenak truka ditzaten.

4.) Bi erakunde horiek elkarlanean arituko dira, bereziki, euskararen normalizazioari buruzko proiektuak gauzatzeko eta Euskaltzaindiak euskararen arloan ezarritako arauak euren barnean zabaltzeko.

Bereziki, Euskaltzaindiak erantzuna emango die Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak egindako kontsultei; kontsultok euskal lexikoari, gramatikari, toponimiari, onomastikari, ortografiari eta, oro har, euskararen araugintzaren bestelako gaiei buruzkoak direnean. Horretarako, gero aipatuko den Jarraipen Batzordearen bidez, mekanismo egokiak finkatuko dira.

Edozein kasutan ere, kontsulta horiek bideratzeko orduan, bi erakundeek Euskaltzaindiaren JAGONET zerbitzua erabiltzea sustatuko dute, Jarraipen Batzordeak zehaztutako prozeduraren arabera.

5.) Argitalpenen arloan, elkarlana bultzatuko da, eta baterako argitalpenak sustatuko dira, euskarazko hezkuntza, irakaskuntza eta normalizazioaren eremuan, euskarazko testuak edo ikerketa- nahiz zabalkunde-lanak batera kaleratzeko, eta, horrela, bi erakundeok euskararen inguruan sortutako testugintza hedatzeko.

6.) Lan batzuk, argitaratu ez arren, ikerketarako interesgarriak izan badaitezke, esaterako, tesiak nahiz bestelako lanak, orduan lan horiek elkarren eskura jarriko dira, betiere egileen eskubidea errespetatuz eta egileon baimena lorturik.

7.) Bi erakunde horiek elkarlanean arituko dira, euren biblioteketako euskal funtsak sendotzeko; horretarako, euron argitalpen funtsetatik, zenbait lan ekarriko dituzte.

8.) Bi erakunde horiek lankidetzako politika bultzatuko dute ikastaroak eta programak sortu eta egin daitezen, euskarari eta euskal kulturari dagozkien eremuetan.

9.) Aipatutako helburuok betetzeko, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak eta Euskaltzaindiak Jarraipen Batzordea sortuko dute; batzorde horrek sei kide izango ditu, eta *Hitzarmen* hau sinatzen duen erakunde bakoitzak horietatik hiru hautatuko ditu. Hautatutako kideen artean, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren lehendakariak eta Euskaltzainburuak arduradun bana izendatuko dute, arduradunok koordinazio-harremanen gaineko erantzukizuna izan dezaten. Jarraipen Batzordea urtean behin bilduko da gutxienez.

Jarraipen Batzordeak urtero-urtero eranskin egokia idatziko du, eta bertan zehaztuko du bi erakunde horientzat zeintzuk izan daitezkeen ikerketa-proiektu, baterako argitalpen edo bestelako lan interesgarriak, zein izango den aurrekontu- zuzkidura, bai eta proiektu horien gainerako inguruabarrak ere.

10.) *Hitzarmen* honek bost urteko iraupena izango du; baina iraupen bereko eta ondoz ondoko epealdietan luza daiteke, baldin eta erakunde sinatzaileetatik batek ere ez badu berau salatzen, indarreko hitzarmena bukatu baino hiru hilabete lehenago.

Bi erakunde horietako idazkari nagusiek onespen-aktak luzatuko dituzte, eta akta horiek hitzarmen honen testuari erantsiko zaizkio.

Hitzarmen honen testua irakurri ondoren, eta behean sinatzen dutenak horrekin ados daudenez gero, goian aipatutako toki eta egunean sinatu egiten dute, bikoiztuta, eurek ordezkatzen dituzten erakundeen izenean.

Bilbon, 2004ko urriaren 21ean





Pedro Aranburu Aranburu jauna Jean Haritschelhar Duhalde jauna

BERRIAK

EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO EKITALDIA

Bilbo, egoitza, 2004-X-21

EUSKALTZAINDIA – EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOAREKIN *HITZARMEN*AREN SINATZEA

Bilbo, egoitza, 2004-X-21

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Jaun Andreak, egun on.

Euskaltzaindiaren egoitza honetan bilduak gara Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioarekin bien arteko *hitzarmen* baten sinatzeko. Ongi etorri beraz Iñaki Etxezarreta Ikastolen Konfederazioburuari.

Berrogeita bat urte iragan dira, 1963an hasi baitziren lehenbiziko ikastolak Gipuzkoan, frankismo garaian, Euskaltzaindia agertu zela orduan zuen laguntzeko. Alabaina argi zagoen Euskaltzaindiarentzat beharrezkoa zela ikastola, behar zirela ttipi-ttipitik hartu haurrak eta eraman gorago, eskolako hizkuntza bilakatzen zela euskara. Ez zen bakarrik euskara ikasten, euskaraz irakasten zen, gaiak zirela historia, zientziak, matematikak eta bertze... Denbora berean behar ziren sortu araberako liburuak, hori ere lan garrantzitsua izanez.

Egia da hasiak zirela ikastolak gerla aitzinean 1930eko hamarkadan. Hogeita hamar urte geroago bigarren urrats bat eman da eta hau iraunkorra. Gipuzkoatik hedatu da sarea Bizkaira, gero Nafarrora eta Arabara, Iparraldean ere sortu zela lehenbiziko ikastola 1969an Baionan, Argitxu Noblia eta aitama multzo baten nahiari esker. Dakizuen bezala Euskaltzaindiak erakutsi dio beti bere atxikimendua ikastolari. Adibide baten emaiteko *Herri Urratseko* bilkuran beti egon da norbait, gehienetan nihaur euskaltzainburu gisa eta ene ezin etorriaren adierazteko igorri ditut bertze euskaltzain batzuk, hala nola Piarres Charritton, Jean-Louis Davant edo Beñat Oihartzabal. Beraz hiru aldiz huts egin dut, baina han zegoen Euskaltzaindia.

Zinez *D* eredua beharrezkoa da euskararen osoki finkatzeko jakinki ez dela hizkuntza pasatzen belaunaldi batetarik bertzera lehen bezala. Alta beharrezkoa da familia, hartan baitatza lehenbiziko eskola, gero etortzen delarik alfabetatzea edozein hizkuntzatan gertatzen den bezala, eta hain zuzen garrantzi handikoa da haurrarentzat alfabetatua izan dadien euskaraz. Urrats horrekin egiten da euskararen iraupena.

Zuen konfederazioak biltzen ditu Euskal Herriko zazpi hegaletan diren ikastolak, euskara delarik lokarria mugaz gainetik eta helburu berbera dutelarik, euskarazko hezkuntza finkatzea eta hedatzea. Etsenplu gisa ukan duzue Euskaltzaindia, Euskal Herriko zazpi eremuetarik biltzen dituela kideak. Euskalki guziak bilduz mugaz gainetik izan den Instituzioa da hastapenetik, hamabi euskaltzainetarik hiru Iparraldekoak zirela eta orain hogeita lauetarik zazpi. Erakustera emaiten du hizkuntza eta kulturak ez dutela mugarik ezagutzen.

Iparralde eta Hegoaldearen arteko loturak are eta gehiago sendotzen dira garai honetan adierazten dutelarik batasunaren nahia, kulturan, erakaskuntzan, ikerketetan. Goazen aitzina, beraz, bilduz ahal guziak, hala nola biltzen ditugun egun sinatzen dugun hitzarmenarekin. Bost urterentzat izenpetzen dugu, baina pensatzen dut bost urteren buruan egungo hau luzatuko dela. Hala izan bedi luzaz, hori da ene ametsa. Bihotz-bihotzetik doaz ene zorionik hoberenak.

EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO *HITZARMENA*

Bilbo, Euskaltzaindiaren egoiza,
2004-X-21

Pedro Aranburu,
Euskal Herriko Ikastolen
Konfederazioko burua

Egun on guztioi!

Euskararen lurralde osoan, Euskal Herriko zazpi lurraldetan, aspalditik lanean ari garen bi erakunde nagusien arteko *Hitzarmena*ren sinatze ekitaldi honek bi erakundeon artean hamarkadetan izan dugun harremanetan mugarri berria izan nahi du. Izan ere, Euskaltzaindiaren eta Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren arteko lankidetza aspaldikoa da, besteak beste, material sorkuntza, garai batean ari ziren irakasleen euskararen ezagupena eta gaitasun maila frogatzeko asmoz Euskaltzaindiak sortutako D titulua, ikastolok antolatutako ekitaldietan Euskaltzaindiko kideen esku hartzea, eta abarrak dira harreman horren froga argia; ahaztu gabe, 60ko hamarkadaren erdialdera, frankismo gorrian, Euskaltzaindiaren izenean eta babespean, Alfontso Irigoien, erakundearen orduko idazkariordeak egindako tramitazioari esker eta Julita Berrojalbiz maistraren zuzendaritzapean, Bilboko Elkano kalean kokatu zen Azkueren izena eraman zuen ikastola legalaren inaugurazioa; eta han hemen zabaldu izan diren ikastolen sorreran zein bilakaeran Euskaltzaindiko kideek izan duten esku hartzea.

* * *

Bestalde, 1968an, Oñatiko Arantzazun, lehenagotik zetorren ahaleginaren emaitza gisa eginiko batzarrean ezarri zituen Euskaltzaindiak euskara batuaren oinarriak. Euskararen batasunean, batasun bide horren hedatzean zein indartzean, idazle nola baita pertsona helduen alfabetatzea ahalbidetu nahi zuen mugimenduarekin batera garrantzi erabakigarria izan zuten ikastolek, euskararen hedatze, indarberritze eta normalizatze prozesuan garrantzi handiko ekarpenak eginez. Testuinguru horretan sakonduz, ikastolok, badakigu jakin eskola dela hizkuntza baten normalizazio-prozesuaren zutabe eta eragilerik oinarrizkoenetakoa; alabaina, haren eginkizuna erlazionatuta dago euskal gizarteko beste sektore guztiekin, interakzio-prozesu batean, non eskola izango

baita euskalduntzearen bultzatzailea. Guk, ikastolok, euskara indarberritzeko ahaleginean, auzolanean sinesten dugu, euskararen eremuan lanean ari diren erakundeen arteko lankidetzan. Era horretara, askotariko egitasmoei balioa erantsi eta efektu biderkatzailea eragin ahal zaiela uste osoa dugu, noranzko horretan urratsak egiten segitzeko zein Euskaltzaindiaren eta Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren arteko harremanak areagotzeko izenpetu dugu *Hitzarmen* hau. Eskerrik asko.

IKASTOLEN KONFEDERAZIOA ETA EUSKALTZAINDIA

Bilbo, Euskaltzaindiaren egoitza, 2004-X-21

Andres Urrutia,
*Euskaltzaindiko **Jagon** Sailburua*

Eguerdi on, guztioi.

Euskalgintzan aspalditik diharduten bi erakundeen arteko hitzarmena dugu gaur jendaurreko hizpide. Izan ere, Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak sinatu dute gaur euren arteko lankidetza-hitzarmena. Halako hitzarmenek, sarri askotan, asmo ugari eta proiektu asko barneratzen dituzte. Hitzarmen hau, ostera, beste norabide batetik dator. Hitzetan sinisten badugu ere, ekintzetan nahi dugu hasi. Ekintza erkideak, jakina, bi erakundeok ditugun baliabideak elkarrekin erabiltzeko eta euskararen normalizazio-bidean batera jokatzeko.

Lehen esan legez, ibilbide luzeko erakundeak dira Euskaltzaindia eta Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa. Hortaz, ez litzateke gauza berria izango elkarrekin aritu nahi izatea. Bai, ordea, batak eta besteak sortu dituzten esparru eta eremuak, era banatuan baino, molde bateratsuan jartzeko gogoa. Hartara, konpromisoa hartu da, hurrengo bost urteetan eta batzorde berezi batek zehaztuko duen lan-egitasmoaren bitartez, irakaskuntza- eta ikerketa-alorrean bakoitzak duen ondarea elkarrekin trukatzeko; jarduera, mintegi eta abarrekoetan baliokidetasun-markak ezartzeko; eta, oro har, argitalpenak gauzatzeko.

Bide beretik, eta Euskaltzaindiko Jagon sailburu naizen aldetik, esan behar berebiziko garrantzia duela gaurko honetan Jagonet zerbitzuaren emaitzak ikastolen eskuetan jartzeak, bai eta Euskaltzaindiaren arauak, gomendioak eta bestelako materialak ikastolen konfederazioaren bitartez zabaltzeak ere, konfederazioa eta Euskaltzaindia baitira Euskal Herri osoan lan egiten duten erakundeak.

Labur-zurrean, hitzarmen honek, euskalgintzaren ikuspegitik, egituraketa baten presentzia edo lekukotza dakar, hain zuzen ere, irakaskuntza eta hizkuntza uztartzen dituen lotura sendoa, bi arlo horietako erakunde esanguratsuek ondua eta moldatua.

EUSKALTZAINDIA

Bilbao, 2004-X-21

J. I. Etxezarreta,
Euskal Herriko Ikastolen
Konfederazioko zuzendaria

Euskaltzainburu jauna,

Jagon sailburu jauna,

Ikastolen Konfederazioaren lehendakari jauna

eta bertan zareten gainerako guztioi:

Egun on.

Bistakoak ditugu Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak sinatu duten *Hitzarmena*ren ezaugarri ugari eta nabariak, hots, euskal lurralde guztiak jardun eremutzat hartzen duten bi erakundeen arteko elkar hartzea, Euskaltzaindiak ikastolen sorreran eta garapenean jokatu duen rolaren segidako lehen hitzarmen esplizitua izatea eta abar agerikoa.

Baina, aipatutakoen garrantzia gutxietsi gabe, hitzarmen honek badu sakoneko beste irakurketarik, euskarak une honetan eta hurrengo urteei begira dituen erronkei dagokiena, ondoko hiru ohar hauetan azpimarratu nahi duguna:

Lehena, euskarak behar duen hiztun iaio eta trebearekin loturik dago. Euskaldun kopurua handitzea, euskara ezagutzen duten herritarren estatistika loditzea lortu du euskarak eskoletan eta ikastoletan egin den lan eskerga eta miresgarriaren ondorioz. *Ekin eta jarrai* egin zen eta egiten dihardugu. *Jarrai eta ekin* dugu hurrengo urratsa, hau da, egindakoa errotzen eta areagotzen segitzearekin batera, euskararen erabilera aktiboa eta kalitatezkoa duten euskaldunak hedatzea.

Bigarrena, euskarak behar duen kultura propioa eta modernoarekin batera dator. Gure eskoletan eta ikastoletan euskara eta euskaraz ikastea eta irakastea erabat uztarturik egon izan dira euskal kulturaren edukiekin. Zer da, ordea, euskalduntzat bere burua duen edonork edo bere eskolaldia amaitu eta gero euskal gazteak Euskal Herriaz eta Munduaz gutxienez ezagutu behar di-

tuen gertaera eta kontzeptuak, egiten jakin behar dituen prozedurak, lortu behar dituen trebetasuna eta bereganatu behar dituen balioak eta jarrerak? Galdera honi hemen eta orain erantzun behar zaio, hori dugu ikerketa gai nagusia eta euskarak ezinbesteko hauspoa behar duena.

Hirugarrena, eta azkena, lankideok dakartzagun baliabideen indarraz ari da. Euskararen Ahaide Nagusia dugun Euskaltzaindiak bere autoritatea, bere ondarea eta bere ikerketa etengabea uztartuko ditu bere besoetako duen Ikastolen Konfederazioaren kudeaketa tresnarekin, hots, euskara eta euskal kultura hezkuntzaren bidez transmititu, garatu, adin eta gizarte ingurune anitzetara egokitu, didaktika, metodologia, ikas materialak eta prestakuntza ezin berrituagoak martxan jarri eta, azken finean, informazio eta komunikazio teknologia berrien sasoi honetan euskarak eta euskal kulturak beren garapenerako aro azkarra urra dezaten.

Horratx, bada, *Hitzarmenak* bere baitan duen balizko ibilbidea, egingarri bilakatzea eta burutzea sinatzaileon esku dagoena.

BILBOKO LIBURU-AZOKAK
2004KO 'URREZKO LUMA'

IDAZLE ETA IKERTZAILE BAT LIBURU ARTEAN BETI. JOSE ANTONIO ARANA JAUNAREN GORAIPAMENEZ

Henrike Knörr

Bilbon, 2004ko ekainaren 8an,
***Urrezko Luma**ren emate-ekitaldian*

Idazle on baten goraipamena egitea egokitu zait, Bilboko Liburu Azokak Jose Antonio Arana Martija jaunari eskaintzen dion *Urrezko Luma*ren emate-ekitaldian. Pozik hartu nuen sariaren berria, eta pozik dihardut gaur, zin-zinez, nahiz eginkizuna ez den erraza, hainbeste eta hain handiak baitira Arana jaunaren merezimenduak. Baina nekez esan niezaiokeen ezetz langintza honi. Izan ere, batetik, on da merezimenduak dituena jendartean aitortua izatea. Eta bestetik, adiskide dut sariduna aspaldidanik, eta bidezko da adiskideen ohore-aitortze orduetan, pozteaz gain, aitortze horretan laguntzea.

Idazle eta ikertzaile bikaina dugu Jose Antonio Arana. Idazlanen zerrenda luze-luzea da, bai euskaraz, bai erdaraz. Idazlan mamitsuak beti, gai honetaz eta hartaz, dela historia, dela literatura, dela musika edo folklorea. Ehunka ezkuturen argitzaile izan da gure omendua. Idazlan horietariko bat ere ez dago nolanahika idatzia, presaren presaz moldiztegira eramana. Ez. Guztiak dira txairo eta dotore idatziak. Egileak arreta handiz ikusi eta berrikusi ditu testu guztiak, deus ere trakets, zintzilik edota bestek konpontzeko utzi gabe (eta ongixko dakigu axolagabekeria noraino dagoen zabaldua idazleen artean).

Sakon ikertzeaz eta dotore idazteaz landa, bada Jose Antonio Aranagan alderdi bat azpimarratu behar dena: liburu artean bizi izan da gaztetandik. Irakurtzea maite izan du, eta maitasun hori beroa eta handia da. Nondik datorkio irakurzaletasuna? Berak argi du iturburua: Andres Mañarikua historialaria. Jakina, Aranak ez du beti izan aldeko giroa irakurtzeko. Halaz guztiz, gauza bitxiren bat gertatu zaio mesedegarri, hala nola Oteizaren *Quosque tandem..!* argitaratu berri zenean: kartzelara liburua sartzen utzi zioten, titulua latinez ikusirik elizako zer edo zer izango zelakoan.

Bestalde, liburuak izan ditu ikergai Arana jaunak. Gasteizko apaizgaitegiak liburutegi joria katalogatzean hura aritu zen Jose Zunzunegiren laguntzaile. Eta Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographia* lan erraldoiaren ontzean txartelgile zintzo aspergaitz jardun zuen, garbiro zekusalarik egiteko haren garrantzia. Agian txartel horietako batzuk ziren gero behin, Lekeitiorako bi-

dean, bazter batean aurkitu zituenak, Jonen autotik, nola ez dakigula, eroriak. Jon Bilbaorekiko leialtasunaren ispilu, horra beste adibide bat: askatasun-aroa itzultzen hasi zenean, batere zalantzarik gabe onartu zuen nik proposatu niona: *Eusko Bibliographia* erakundetzean parte hartzea. Oinarri-oinarrizko lan haren etorkizuna segurtatzea zen gu bion eta beste zenbaiten asmoa. Zoritxarrez, ahalegin haiek ez zuten agintarien aldetik inolako oihartzunik jaso, eta urte batzuen buruan pikutara joan zen hura guztia.

Bibliografiak eta katalogoak prestatzean eta osatzean Jose Antonioren lana ez da sekula eten, Bonaparteren eskuizkribuak eta argitalpenak izan, zein euskal kristau ikasbideak edo Herriko musika. Gure ondare aberatsa biltzea, apurrena ere ez galtzea: horixe izan du beti kezka, irriki eta amets. Urteetan Euskaltzaindiaren liburuzain izaki, talaia ederra izan du. Baina talaiaren edertasuna, hein handi-handi batean, hari dagokio, langile nekaezin eta erneari.

Dena esan behar badugu, mingarri zitzaion eta zaio ondare horrekiko hainbat jende nola ageri den ahanzkor, are erdeinukor. *Les illusions perdues*, Balzac-ek bezala, esan genezake guk ere bizi dugun garaiaz. Eskola, maila guztietan, neurri handi batean, eta hainbat bide, geure esku ditugularik, izugarria baita ahanztura, eta ikaragarria ezjakintasuna. Inor ez da jakintsu sortzen, eta bizi guztian ikasirik ere, beti izango dugu zer ikas. Baina ezin eraman daiteke giro hau, zeinetan ezjakinak lotsagabeki ibiltzen baitira, maiz txalotuak eta ez gutxitan gizarte-eredu...

Zazpi Kaleetan garenez gero, beste hau esan nahiko nuke, labur bada labur. Azkueren jarraitzaile, miresle, lan-biltzaile, oroimen-gordetzaile, biografiagile, izan da Jose Antonio Arana. Baina, denbora berean, Unamuno zuen aldioro eskura, mireste-gai, hausnarketa-eragile. Salamancako errektorearekiko zorra sarritan aitortu du gaurko gure saridunak. Arrazoiz, gaineratuko dut, badaezpada. Izan ere, azken urteotan ugaldu baitira intelektuak edo intelektual ustezkoak, Unamuno-zale (omen) direnak, Unamuno, euskaltzaletasuna, Herri honen askatasuna, euskaldunen arteko elkartasuna, demokrazia-bidea eta liberaltasuna, zaku desberdinetan sartzen dituztenak, ezin batuzkoak, elkarren etsai. Ez, jaun-andreak, kolore batekoak edo bestekoak izan. Utikan zuen *Syllabus* horiek, zuen gaitzeste-adierazpen eta zerrenda tristeak. Azkue bezala, Unamuno ere guztiona da, eta guk osorik nahi dugu gure iragana, bere argitzal guztiekin. Ez bekigu iragan horretatik ez orainetik ezer lapur ez ken. Ez dugu nahi ondare hori pobreturik eta txiroturik ikustea. Euskal kultura osoa nahi dugu, eta horrela etorkizun hobea izango du gure Herriak, munduaren aurrean.

Goresmenak Jose Antonio Arana jaunari, goresmenak eta osasun ona, bizi luzea opatzen diodalarik, guztion mesedetan.

AURKEZPENAK, LITERATURA SARIKETAK ETA BESTE

BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA:

- *Txomin Agirre*
- *Toribio Altzaga*
- *Felipe Arrese Beitia*
- *Mikel Zarate*

LITERATURA SARIAK

Bilbo, egoitza, 2004-VI-18

BBK LITERATURA SARIAK

Bilbo, egoitza, 2004-VI-18

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Jaun-andereak, egun on.

Ohi den bezala, egun barreiatzen ditugu BBK literatur sariak, 2003koak eta horietan agertzen dira lau sarituak hor ditugu nere atzinean. Bakarrik nahi nuke aipatu nola *Txomin Agirre* eleberri sarian epaimahaikideak ziren Gorka Aulestia, Txomin Peillen eta Ana Toledo, ikusten baititut hor Ana Toledo eta Gorka Aulestia hor direla haiei gure eskerrik beroenak; *Toribio Altzaga* antzerki sarian Eugenio Arozena, Daniel Landart eta Patri Urkizu, ez dira hor baina ukan ditzatela gure eskerrik ere bizienak; *Felipe Arrese Beitia* olerki sarian, Jon Kortazar, Mikel Lasa eta Lourdes Otaegi ere hor da; *Mikel Zarate* saio sarian, Xabier Altzibar, hor dugu ere, Adolfo Arejita eta Antton Aranburu. Beraz, horiek guztiak eskertzen ditut Euskaltzaindiaren izenean.

* * *

Eta orain ongi etorria emanez BBKko jaun horiei, hasiko gara eta deituko dut Mikel Zubeldia, Txomin Agirre saria *Manikien galeria*ren egilea. Berak azalduko du pixka bat.

Mateo Leonet Aranola, hala nola pentsatu duen Patziku Perurenak holako izen bat edo deitura bat. Biak deituko ditut *Mateo Leonet Aranola* eta Patziku Perurena, biak batean baitira.

* * *

Eta orain emanen diot hitza Jose Ramon Bilbaori, mintzatuko baita BBKren izenean.

* * *

Bukatzeko:

Galderarik badago? Ez badago galderarik, gogoeta hasiko dut orain. Badirela 45 urte elgarrekin lanean ari garela BBK eta Euskaltzaindia. Ezagutu ditut 45 urte eta badakit ere lankidetzaz aterako dela liburu bat, 45 horien historia eginen duena eta nik uste dut hori interesgarria izanen dela, zeren eta hor aipa-

tu baitira sarituak izan direnak eta horietan badira, hala nola, Xabier Lete, Txomin Peillen, Aresti, 'Txillardegi'... Erran nahi baita hor historia bat izanen dela; guretzat interesgarria izanen dela ikustea zer bide egin den 45 urte horietan eta berrikitan idatzi baitut hitzaurrea, orduan badakit eta ikusi noiz agertuko den orain, zuen eskuetan izanen baita. Baina gizalege gisaz berriz ere, nire eskerrik beroenak hori ere onartu baituzue eta nik uste dut hori beharrezkoa dela.

Besterik ez. Egun ona pasa ezazue eta ongi dagizuela!

HALAKO BATEAN, HELDU DA *MANIKIEN GALERIA* BLUNDERBUSS-EKO GELTOKIRA

Txomin Agirre saria

Bilbo, egoitza, 2004-VI-18

Mikel Zubeldia

Eguerdi on guztiori

Dakizuen bezala, Simón izeneko alegiazko estatuan girotu dut *Manikien Galeria*. Bertan, patuak jotako giza-manikiei buruz hiru narrazio luze burutu ditut.

1. Lehenengo narrazioak titulu luze bezain esanguratsua dauka: Katu bi, zakurra eta umea zaintzeko neskamea behar dugu. Bertan, etengabe gainbeheran doan Chicovska Markesaren istorioa kontatzen da. Nola, garai batean bera nagusi izandako jauretxera, neskame lan egitera itzultzen den.

2. Bigarren narrazioak berriz, *Terminus* du izena. Dario Riffo, ferietako saltzailearen ibili herrenak azalduko dira. Dariok, *Blunderbuss* izeneko bazterreko herrixka batean delarik, obsesio batekin hasi du eguna: egun hartan bertan *Herio* azalduko zaiola, hain zuzen.

3. *Bluefieldgo krimena*rekin amaituko da eleberria. Bertan, kazetari bati *Bluefield* meatzera joateko agindua ematen diote, hamar urte lehenago hilik suertatu zen, Barry Lutton twist kantariaren kasu ilunean, argi apur bat jartzeko.

Esan beharra dago hiru narrazioek, itxuraz, inongo erlaziorik ez duten arren, badirela narrazioen artean lerro-azpiko ur-xirripa komunikatzaileak.

Bestalde, inork eleberri hau irakurtzerakoan *Simón Estatua* mapan kokatu nahi badu, jai dauka. *Simón Estatua* ez baita inongo geografia liburutan azaltzen. *Simón Estatua* inon aurkitzen bada, hemen, nire irudimenean da. Hala eta guztiz ere, Simón bezalako herriak, leku askotan topa genitzakeela apustu egiten dut, eta, beraz, hain urrun baina era berean, hain gertu den geografia pertsonala deskubritzearen jokoa proposatzen dizuet.

Nahiz eta hemen kontatzen diren istorioak orokorrean nahiko ilunak diren, umoreaz –eta batez ere ironiaz– baliatu naiz, apur bat samurtzeko. Idaz-

teko garaian irudimenari, maldan behera eta balaztarik gabe lan egiteko aukera eman diodanez, eta lan horretan, kontakizunak *Simón Estatuan* kokatu izanak, erosotasun ugari eman dit.

Jakizue, *Manikien Galeria* idazteko momentuan oso presente eduki ditudala beste arte adierazpide batzuk, hots, zinema, argazkigintza, telebista (?), publizitatea (?) edo komikien mundua. Gaur eguneko literatura sormenean garrantzizkotzat jotzen ditut, eta, elementu horiek eleberrian zehar han-hemenka azalduko zaizkizue. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkizuet, Euskaltzaindia eta BBK-koei, *Manikien Galeria* liburuan ilustrazioak sartzen utzi didazuelako. Argazki eta komikiak, irakurleak gustuko izango dituelakoan nago.

Ilustrazio lanetan, Patxi Gallegoren laguntza izan dut. Eskerrak eman nahi dizkizut, Patxi, azaleko irudi koloretsuaz gain, *Yankee Joe*-ren komikiak, nire irudimenetik paperera, hain bikain interpretatu dituzulako.

Eskerrak eman nahiko nizkieke, baita ere, Xabier Mendiguren eta Xabier Etxeberria idazleei, narrazioen zuzenketa eta kritika egin izanagatik. Jabier Arocena margolaria ere gogoan dut. Hark, duela hamar bat urte akuarela margo eder oparitu baitzidan. Oparia nola eskertuko galde eginda, berak, hizketarako duen era lotsatian, ipuin bat dedikatzeko eskatu zidan. Esan beharra dago garai hartan ez nuela idazten. Hamar urte behar izan baditut ere, hemen duzu Jabier, zure ipuina.

Eta guztiaren gainetik, Paloma, nire andrea, zuri eskaintzen dizut *Manikien Galeria* eleberria, zuk emandakoa baita hein handi batean. Eta bidaia batean izanagatik, hona etortzerik izan ez duten nire gurasoak ere oso gogoan dauzkat.

Irakurle bidaizalea, inoiz gaizki edo bakarrik sentituko bazina, har ezazu *Blunderbussera* doan trena eta zatoz *Simón Estatura*; hamaika abenturaren lekuko izango zara, eta, zabalik aurkituko dituzu bertako leiho eta bortak. Rabelais zaharrak zioen bezala:

> hobe da irri egitea, malkoez idaztea baino.

Ba horixe.

Mila esker eta goza ezazue *Manikien Galeriarekin*.

BBK-EUSKALTZAINDIA:
LITERATURA SARIAK:

Poesia

Bilbo, egoitza, 2004-VI-18

Luis Miguel Garde

Eskaintza

Liburu honetan ez dut eskaintza berezirik paratu izan. Orokorrean, poesia liburuak –poema soilak– familiari eskaintzen dira, lagunen bati, edo ezkutuko maitaleren bati. Izen horiek idazlearen biografiaren zati bat dira, eta seguraski irakurle jasankorrari ez zaizkio gehiegi interesatzen. Poesia zer den nik ez dakit, baina literatura den aldetik, asmakuntza eta sorkuntze lana da, fikzioa azken finean (gezurren egia, inork erran zuenez) eta ez egunkari pertsonala edo barneko aitormena.

Eskaintza bat paratzekotan, «irakurleari» jarri nukeen lehenengo orrialdean. Nik behinik behin, irakurle bezala, liburu bat zabaltzean, hori da gustukoa dudan eskaintza bakarra. Zer egiten ahal da amodio poema baten aitzinean, lehenengo lerroak Edurneri, Ainhoari edo ez-dakit-nori erraten baldin badu? Ezinegon punttu bat sentitzen dut, bikote baten gauzetan baimenik gabe sartu izan banintz bezala. Aunitzetan lirikaren irakurleok «voyeur» lana egiten dugu, edo egitera behartzen gaituzte. Olerkiaren irakurketan jakin behar dut literatur lana leitzen ari naizela egoeran sartu ahal izateko, aipaturiko bizipenak edo burutazioak nireak egiteko, hau da, testuan sar nadin. Horretarako, tarteko izen bereziak oztopo baino ez dira.

Hirukote horiek (idazlea, irakurlea, maitale edo maitatu ankerra) olerkian (behintzat) ez dira oso mesedegarriak, nire ustez. Irakurleak ez du hirugarren gonbidatua izan behar. Poesia idaztean sortzen da, baina irakurtzearekin batera bizi eta osatzen da. Musika bezala, poesia hotsez eta isilunez egiten da. Topikoa, beharbada, baina egia. Egileak partiturak prestatzen ditu; irakurle bakoitzak isiluneak betetzen ditu, notak nahi duen edo ahal duen moduan joz. Komunikazioa sortuz gero, abestia berea egiten du. Bertze hitzekin, olerkiaren irakurlea bertze olerkari bat da, eta irakurketaren prozesuan poema propioa eraikitzen du. Hainbertze aldiz agertzen den «ni» aren lekuan, irakurleak haren izena, haren «ni» jarriko du.

Hau da poesiaren zailtasun ospetsua. Irakurlearen parte-hartzeak inoiz baino aktiboagoa izan behar du. Baina, horrekin batera, horretan datza irakurketaren gozamena.

Beraz, beti, irakurleari.

MIKEL ZARATE SAIO SARIA 2004

Bilbo, egoitza, 2004-VI-18

Antton Aranburu,
epaimahaikidea

Lan sarituaren laudorioa:

Egungo demokrazia oinarri sendo baten gainean eraiki behar-eta, XXko pentsamendu politikoa hezurmamitu duten hiru gai nagusiri buruzko gogoetak jasoko du, aurten, 2004ko *Mikel Zarate* Saria.

Zertan dira askatasuna eta berdintasuna gaur egun? izenburupean, bi gai hauei buruzko hurbilpen bat egiten du egileak hainbat pentsalariren (John Rawls eta Norberto Bobbio...) ekarpen teorikoak bilduz. Askatasuna eta berdintasuna kontzeptu filosofiko gisa aztertu ondoren, gaurko pentsamendu politikoaren kezka eta erronka nagusi den pluralismoaren kudeaketa da liburuko aztergai berezietako bat.

Bi horien ondoren, giza eskubideak dira hirugarren kontzeptu nagusia. Hauen oinarritze filosofikoan agertzen diren ahuleziak hartzen dira batik bat kontuan, berauen aplikaziorako zailtasunen berri emanez. Esan bezala, demokraziaren oinarri teoriko baterako hurbilpen bat genuke liburua; halaber hurbilpen teorikoa, egile beraren ondorengo lanen batean aipatu kontzeptu guztiok egungo errealitatean nola aplika daitezkeen ikusteko zain.

Argi dezagun: Zertan dira *askatasuna* eta *berdintasuna* gaur egun? izeneko saiakera hauxe izan dela *Mikel Zarate* sarira aurkeztu den lan bakarra, alabaina, denoi ere askeak eta berdinak nola izan gintezkeen lagun diezagukeen heinean, epaimahai honek gogoz saritu nahi izan duena.

BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA LITERATURA SARIAK:

Mikel Zarate saria

Bilbo, egoitza, 2004-VI-18

Patxiku Perurena

Egunon, jaun-andre bihotzekoak.

Eskerrik asko Euskaltzaindiari eta BBK-ri.
Eskerrik asko eta asko epaimahaikoei.
Eskerrak baita hemen bildu zareten guzioi.

Kanta puska batekin azalduko dizuet gaurko nire poza:

> Mundu honetan dena sortzen aldatzeko
> ni ere aldatzea ez da harritzeko.
>
> Erabat aldatu naiz hamaika urteotan...
> Baina ez da aldatzen zerbait ene baitan.

Horra hor Joseba eta Imanol elkar edertzen!... Ez al duzue sumatzen *pozezko oinaze zahar* hori?... Bai, arrazoi zuen Arestik: «Harrizkoak gara oraindik».

Horregatik nire liburu zakar honen izena ere: *Harrizko Pareta Erdiurratuak*. Eta honelatsu bukatzen da liburua:

> Nahigabean, eta maiz oharkabean ere, *aurreneko harritze* hartara bihurtzen da taigabe gure oroimena. Ez du beste sontengurik, ez beste poesiarik, gure munduko izateak. Hauxe du bere ondasun bakarra: *lehen harritze* guzien gainean, harririk harri, eraikitako pareta erdiurratu eta sekretu hauxe.
>
> Eta *lehen harritze* hauetan joka, *aurreneko inpresio* hauetan behin eta berriz ate joka, zailtzen da gutako bakoitzaren nortasuna. Horregatik maite ditut nik horrenbeste, poeta inpresionista guziak, *lehen harritze* horiek bihotzera ezin garraiatuz, pozezko neke alferretan galduak.
>
> Denbora guziak urtzen baitira hemen, *lehen harritze* honetan: denbora poetikoan. Arrazoi haundia zuen Hölderlinek: *gizakiari buruzko jakinduria ororen hasiera eta amaiera, poesia da*.

AMA, HOR AL ZAUDE?

Toribio Altzaga Saria. 2004

Bilbo, Euskaltzaindiaren
egoitza, 2004-VI-18

Pablo Barrio

Aurkezpena

Ama, hor al zaude? antzezlan hau Afrikan kokatzen da, Saharaz beherako Afrikan, eta albistegietan noiz edo noiz agertu ohi den gertaera batean oinarritzen da: bertako jende multzo bat bildu, pikatxoiak eta palak hartu, eta oliobide batera joaten da beraien lurretan ekoiztu eta kanpora esportatzen den petrolioa lapurtzeko asmoz («lapurtzeko», hala agertzen ohi da hemengo komunikabideetan bertakoek bertako petrolioa hartu nahi dutenean). Oliobidea zulatu eta, halako batean, txinpartaren bat dela medio edo, leherketa bat gertatzen da, hildako eta zauritu zerrenda luze bat sortuz.

Antzezlana horrelako leherketa batean zauritutako emakume bat bere etxolara bueltatzen denean hasten da. Erredura bat izan du izter batean, baina, ez da dena zorigaitza izan behar, petrolioz betetako bidoi bat lortu du, gutxienez. Etxolan zain dauka bere alaba, 7-8 urteko neska bat da, eta bertan bizi dira biak bakarrik. Ohean dago umea, gaixorik, sukarrak eta hotzikarek hartuta. Baita beldurrak hartuta ere, hiltzeko beldurrak hartuta.

Hortik aurrera, emakume eta neskatxa hauen gorabeherak ezagutuko ditugu. Umea loarazteko, zaharrengandik jasotako ipuin bat kontatuko dio amak; aspaldi-aspaldian sabanaraino iparraldetik iritsitako matxinsalto-izurrite batetaz hitz egiten zuena, aurrerantzean toki beretik iritsiko ziren beste izurrite mota batzuen aurrekari bezala edo. Alaba loak hartuta azkenean, edo sukarametsak hartuta, batek daki, jasandako zauriaren arrastoak nolabait ezkutatu eta kalera ausartuko da emakumea, petrolioz betetako bidoia saldu eta lortutako diruarekin bere alabarentzako botikak erosteko asmoz. Arriskutsua da kalea, petrolio enpresako guardiak lapurren atzetik baitabiltza. Arriskuak arrisku, trapitxeoan aritzen den merkatari batengana joko du. Ikasi gabea izan arren, Adam Smith behintzat ezagutu ez arren, ekonomia-irakasle bikaina suertatuko zaio merkataria, eta merkatuaren eta haren «esku ikusezina»-ren nondik norakoak erakutsiko dizkio ez bakarrik modu grafikoan baita praktikoan ere. Etxera bueltatu beharko du emakumeak, petrolioa saldu gabe.

Joan etorri hauen guztien bidez pertsonaia konkretu hauen berri izateaz aparte, inguruan tokatu zaien munduarena ere ezagutzeko aukera izango dugu. Jakingo dugu, adibidez, nola emakumearen aitak meategi batean egiten zuen lan, han, sabanan, kobre-minerala ateratzen zuen meategi batean; eta nola, greba baten testuinguruan, hilik gertatu zen. Honen ondorioz, eta bertan bestelako aurrerabiderik ez zegoela ikusita, emakumeak Europara joatea erabaki zuen orduan. Alaba amonarekin herrixkan utzi eta halaxe egin zuen, patera batean sartu eta bidaia gogor baten ondoren gurera iritsi zen. Hemen gertatutako pasadizo batzuk ezagutuko ditugu, *Guggenheim* museoaren itzalpean bizitakoak, adibidez, Europatik kanporatua izan baino lehen. Beste aldetik, alabak amonarekin bizitzen egondako denboraldian gertatutako pasarte batzuk ezagutzeko aukera izango dugu: *rally* batean parte hartzen zuen motorista euskaldun batekin izandako enkontrua adibidez, edo amonaren heriotza, *Expal* markako mina baten eztandaren ondorioz.

Halako batean, kazetari batzuk agertuko dira oliobidean gertatutako eztandaren berri emateko asmoz; hauen bidez, telemaratoi horietako batean agertzeko parada izango dute amak eta alabak... eta hortik aurrera... Hortik aurrera amaiera aldera jotzen du antzezlanak, txalorik bilatzen ez duen amaiera baten aldera.

* * *

Osagaiak ikusita, inmigrazioaren arazoa tratatzen duen lan baten aurrean gaudela pentsa daiteke. Ez da horrela. Bai, egia da paterak eta emakumeak emigrante moduan bizitako pasadizo batzuk agertzen direla, baina ez dira horiek antzezlanaren ardatzak. Azken batean, sukarrarekin gertatzen den moduan, sukarra gaixotasunak bidaltzen duen seinalea baino ez dela, bada, gauza bera gertatzen da inmigrazioarekin, oinarrizko egoera baten adierazlea baino ez da. Oinarrizko egoera horren gainean egindako hausnarketa dago obra honen atzean.

Azken batean, gaur egungo errealitatean kokatzen da antzezlan hau, eta bai hemen eta bai mundu mailan planteatzen diren errealitate batzuk dira hemen agertzen direnak. Askotan, ez ikusiarena egiten dugun arren, ingurukoak ditugu horietako asko. Inperioena da errealitate horietako bat. Guk ez ikusi arren, inperioak existitzen dira. Gu geu, euskaldunok, inperio baten partaideak gara, europar inperioaren partaideak. Ez da inperio nagusia, egia da, menpeko inperio bat baino ez da; baina, inperio baten partaideak gara azken finean.

Noski, definizioz, inperioak harrapariak dira, konkistatzaileak, zertarako eraiki inperio bat bestela. Eta, jakina, konkistatzaileak, lapurrak dira, beti, zertarako konkistatzailea izan bestela. Fama txarra dauka lapurra izateak, hala ere; horregatik seguru asko ez zaigu gustatzen konkistez eta inperioez hitz egitea. Eufemismoak nahiago ditugu: lehen eta hirugarren munduaz hitz egitea nahiago dugu horrela, edo iparra eta hegoaz, edo herrialde garatu eta ez garatuez, edo herri demokratiko eta ez demokratikoez, edo... hierarkia bat mantenduz

beti, noski, ordenarekin ez baita jokatu behar. Eufemismoekin pozik, inoiz ez dugu kolonizatzaile eta kolonizatuez hitz egiten, inoiz ez menperatzaile eta menperatuez. Nolabaiteko «nagusitasun etiko» baten jabe omen garenez, hitz desegokiak ditugu hauek, tabu modukoak eta ez ditugu erabili behar.

Bada, gauza «desegoki» hauetaz hitz egiten da antzezlan honetan. Horretan dago agian, ikuspegian, obra honen berezitasuna: inperioaren edo metropoliaren logika horri alde egitean; lehen aipatu den hierarkia bertikal hori (lehen-hirugarren mundua) alde batera utzi eta beste ikuspegi horizontalago bat planteatuz.

BBK-EUSKALTZAINDIA LITERATUR SARIAK
2004ko oinarrien eta 2003ko liburu sarituen aurkezpena

Bilbo, egoitza, 04-VI-18

Joserra Bilbao,
BBK-Elebitasun Zerbitzubura

Eguerdi on jaun-andreok.

Eskerrik asko Bilbao Bizkaia Kutxaren izenean, igazko lehiaketan irabazi dozuen idazleoi, zeuon lanak aurkeztera etortzeagaitik, eta zelan ez, honen barri emoten etorri zarien kazetarioi. Eskerrik asko baita be Euskaltzaindiari, urte guzti honeetan literatur sariketok kudeatzeagaitik.

Igazko edizinoa, ez-ohikoa izan gendun, lau irabazleetatik hiru, barriak edo ez hain ezagunak ziralako. Orduan, Euskaltzaindiak eratutako epaimahaiaren oneritxia hartu eben eta orain, liburuak kalean dirala, irakurleak emon behar deutsie oneritxi hori. Ez dogu zalantzarik halan izango dana, baina itxaron egin behar. Horretarako, gaur aurkeztutako lau liburuok, ondo zabaltzeko eta irakurle interesatuen esketan jartzeko ardurea dogu orain Euskaltzaindiak eta BBK-k eta ahaleginduko gara halan egiten.

Aurtengo sariketen oinarrietan, ez dago aldaketa handirik igazkoakaz alderatuta.

Sariak eta lanen luzerak, igazko berberak dira:

- Eleberria, *Txomin Agirre* saria: 125 orri gitxienez eta 8.000 €.
- Antzerkia, *Toribio Altzaga* saria: gura dan neurria eta 5.000 €.
- Olerkia, *Felipe Arrese* saria: 750 bertso-lerro gitxienez eta 5.000 €.
- Saioa, *Mikel Zarate* saria: 125 orri gitxienez eta 6.000 €.

Kazetariontzat interesgarria dan datua, lanak aurkezteko epea urriaren 16an amaituko dala, eta beharrak, BBK-ko Kultur Gelara bialdu behar dirala, Bilboko *Elkano* kaleko 20ra. Epaia, abenduaren 31 baino lehenago emongo da jakitera.

Epaimahaiak, Euskaltzaindiak izendatuko dauz eta sarietako dirutzak, zatiezinak dira.

Hori dana eta beste zehaztasun batzuk be, hortxe dozuez, oinarrietan. Gaurtik aurrera geratzen dan gauza bakarra, idazleak animatzea da. Beste barik, abenduan sariak banatzeko barriro alkarregaz egongo garalakoan, agur eta eskerrik asko danori.

2 0 0 3

Literatur Sariak

"R. Mª Azkue"
saria

Idazle gazteak

R. M. AZKUE LITERATUR SARIAK 2003
Prentsa agiria

- 11 eta 18 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduriko deialdia da
- Orotara, 385 1an aurkeztu dira

Gaur, martxoaren 12an, Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan 2003ko Resurreccion Maria Azkue Literatur sariak banatu dira. Euskaltzaindiak berak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak antolatzen dituzten sari hauek idazle gazteak literatura mundura erakartzeko asmoz; sortuak dira.

Jakina denez, sariek bi lan mota onartzen dituzte euren baitan, narrazioa eta olerkia, alegia. Adinari begira, bi maila, dira: A maila, 11 eta 14 urte bitarteko gazteentzat; eta B maila, 15 eta 18 urte bitartekoentzat.

Hauxe dugu aurtengo edizioan izan den partaidetza kopurua:

A mailan, narrazioan: 206 lan.
A maila, olerkian: 15 lan.
B maila, narrazioan: 113 lan.
B maila, olerkian: 51 lan.

Orotara, beraz, 385 lan aurkeztu dituzte Euskal Herri osoko gaztetxoek.

EPAIMAHAIKOAK

Urtero bezala, aurten ere literatura eremuko pertsona adituek osatu dituzte epaimahaiak, beti ere Euskaltzaindiak izendatuta. Aurtengo epaimahaikoak hauek izan dira:

A mailan: Igone Etxebarria Zarnalloa, Manu Lopez Gaseni eta Amagoia Lopez de Larruzea Zarate.

B mailan: Joseba Butron, Jabier Kaltzakorta eta Kirmen Uribe.

SARIDUNAK

*A maila*ko epaimahaikoek honako sariak emateko erabakia hartu dute:

Narrazio alorrean:

Lehen Saria: «Tikot Ortxatarren historia». Egilea: **Enma Arestegi** (Hazparne - Lapurdi). Kanboko Xalbador Kolegioko ikaslea da. Laguntzailea: Pruden Sudupe Azkune.

Bigarren Saria: «Bizitza bat bidean aurrera». Egilea: **Maite Agirre Mujika** (Beasain - Gipuzkoa). Beasaingo Loinazpe Institutuko ikaslea. Laguntzailea: Maria Jesus Iñarra.

Hirugarren saria: «Laguntza eske». Egilea: **Alaitz San Vicente Martin** (Gasteiz - Araba). Tokieder Ikastolako ikaslea. Laguntzailea: Miguel Ruiz.

Olerki alorrean:

Lehen Saria: «Denbora». Egilea: **Hodei Balanzategi Sustaeta** (Arrasate - Gipuzkoa). Arrasateko Arizmendi Ikastolako ikaslea. Laguntzailea: Mariasun Garai.

Bigarren saria: «Ahizpa ttipia». Egilea: **Enma Arestegi** (Hazparne - Lapurdi). Kanboko Xalbador Kolegioko ikaslea da. Laguntzailea: Pruden Sudupe Azkune.

Hirugarren saria: «Zure, besoetako babesa». Egilea: **Maialen Linazasoro Elorza** (Arrasate - Gipuzkoa). Arrasateko Arizmendi Ikastolako ikaslea. Laguntzailea: Mariasun Garai.

B mailako epaimahaikoek, berriz, honako erabakiak hartu dituzte:

Narrazio alorrean:

Lehen Saria: «Amildegiaren amaieran». Egilea: **Ane Arbillaga Etxarri** (Pasai Donibane - Gipuzkoa). Pasai Lezo Lizeoko ikaslea. Laguntzailea: Julen Ezkurdia.

Bigarren Saria: «Whiskyarekin dantzan». Egilea: **Ihintza Erremundeguy Beloki** (Baiona - Lapurdi). Etxepare Lizeoko ikaslea. Laguntzailea: Irune Beloki.

Hirugarren Saria: «Bizitzaz haratagorako gutuna». Egilea: **Arantzazu Ugarte Zubia** (Oñati - Gipuzkoa). Oñatiko Elkar Hezi zentroko ikaslea. Laguntzailea: Larraitz Madinabeitia.

Maila honetan, epaimahaikoak ondoko lanak argitaratzeko gomendioa eman du:

- «Mespretxuaren samina». Egilea: **Bidatz Badiola Imaz** (Ataun - Gipuzkoa). Txindoki Alkartasuna Institutoko ikaslea. Laguntzailea: Joxean Otaegi.
- «Elezahar apokrifo bat». Egilea: **Antton Alberdi Estibariz** (Elgoibar - Gipuzkoa). Elgoibarko Bigarren Hezkuntzako Institutoko (BHIko) ikaslea. Laguntzailea: Andres Alberdi.
- «Saint Georgeko ikasleen misterioa». Egilea: **Jabi Rodriguez Mariano** (Segura - Gipuzkoa). Beasaingo Loinazpe Institutoko ikaslea. Laguntzailea: Josune Iñarra.

Olerki alorrean:

Lehen Saria: «Teilatuan kontatzen nizkizun ipuinak». Egilea: **Amets Zuazo Garmendia** (Irun - Gipuzkoa). Pio Baroja ikastetxeko ikaslea.

Bigarren Saria: «Egunen baten». Egilea: **Ekiñe Aristizabal Tolosa (Oiartzun** - Gipuzkoa). Usandizaga Amara-Peñaflorida Institutoko ikaslea. Laguntzailea: Ainitze Aristizabal Tolosa.

Hirugarren Saria: «Ametsen bidaide». Egilea: **Olatz Mitxelena** (Oiartzun - Gipuzkoa). Haurtzaro Ikastolako ikaslea. Laguntzailea: Kontxi Begiristain.

Epaimahaiko kideek ondoko lanak argitaratuak izatea eskatzen dute:

- «Aldaketaren zain». Egilea: **Lorena Orozko Andonegi** (Donostia - Gipuzkoa). Axular Lizeoko ikaslea. Laguntzailea: Esteban Mitxelena.
- «Inguma». Egilea: **Jon Samaniego Arrieta** (Pasai San Pedro - Gipuzkoa). Pasai Lezo Lizeoko ikaslea. Laguntzailea: Julen Ezkurdia.

PREMIOS LITERARIOS R. M. AZKUE 2003
Nota de prensa

- El certamen está dirigido a jóvenes de entre 11 y 18 años
- Presentados 385 trabajos

Hoy, 12 de marzo, en la sede de Euskaltzaindia de Bilbao, se ha procedido a la proclamación pública y entrega de premios del Concurso Literario Resurrección María Azkue correspondiente al año 2003. Estos premios fueron creados por la propia Academia de la Lengua Vasca y por la Fundación Bilbao Bizkaia Kutxa para fomentar la creación literaria entre los más jóvenes.

Los premios Azkue están divididos en dos categorías: categoría A, para los chavales de edades comprendidas entre los 11 y los 14 años; y categoría B, para los que tienen entre 15 y 18 años. En cada categoría se admiten dos géneros literarios, narración y poesía.

Éstas son las cifras de participación correspondientes a esta edición:

Categoría A, narración: 206 trabajos.
Categoría A, poesía: 15 trabajos.

Categoría B, narración: 113 trabajos.
Categoría B, poesía: 51 trabajos.

En total, pues, se han presentado un total de 385 trabajos.

Jurados

La composición de los Jurados ha sido la siguiente:

Categoría A: Igone Etxebarria Zamalloa, Manu Lopez Gaseni y Amagoia Lopez de Larruzea Zarate.

Categoría B: Joseba Butron, Jabier Kaltzakorta y Kirmen Uribe.

Ganadores

El Jurado de la ***Categoría A*** ha acordado otorgar los siguientes premios:

Narración:

Primer premio: «Tikot Ortxatarren historia». Autora: **Enma Arestegi** (Hazparne - Lapurdi). Alumna del colegio Xalbador de Kanbo. Ayudante: Pruden Sudupe Azkune.

Segundo premio: «Bizitza bat bidean aurrera». Autora: **Maite Agirre Mujika** (Beasain - Gipuzkoa). Instituto Loinazpe de Beasain. Ayudante: María Jesús Iñarra.

Tercer premio: «Laguntza eske». Autora: **Alaitz San Vicente Martin** (Gasteiz - Araba). Ikastola Tokieder. Ayudante: Miguel Ruiz.

Poesía:

Primer premio: «Denbora». Autor: **Hodei Balanzategi Sustaeta** (Arrasate - Gipuzkoa). Ikastola Arizmendi de Arrasate. Ayudante: Mariasun Garai.

Segundo premio: «Ahizpa ttipia». Autora: **Enma Arestegi** (Hazparne - Lapurdi). Colegio Xalbador de Kanbo. Ayudante: Pruden Sudupe Azkune.

Tercer premio: «Zure besoetako babesa». Autora: **Maialen Linazasoro Elorza** (Arrasate - Gipuzkoa). Ikastola Arizmendi de Arrasate. Ayudante: Mariasun Garai.

El Jurado de la ***Categoría B*** ha acordado los siguientes premios:

Narración:

Primer premio: «Amildegiaren amaieran». Autora: **Ane Arbillaga Etxarri** (Pasai Donibane - Gipuzkoa). Lizeo Pasai Lezo. Ayudante: Julen Ezkurdia.

Segundo premio: «Whiskyarekin dantzan». Autora: **Ihintza Erremundeguy Beloki** (Baiona - Lapurdi). Lizeo Etxepare Lizeoko. Ayudante: Irune Beloki.

Tercer premio: «Bizitzaz haratagorako gutuna». Autora: **Arantzazu Ugarte Zubia** (Oñati - Gipuzkoa). Centro Elkar Hezi de Oñati. Ayudante: Larraitz Madinabeitia.

Asimismo, el Jurado recomienda publicar los siguientes trabajos:

- «Mespretxuaren samina». Autora: **Bidatz Badiola Imaz** (Ataun - Gipuzkoa). Instituto Txindoki Alkartasuna. Ayudante: Joxean Otaegi.

- «Elezahar apokrifo bat». Autor: **Antton Alberdi Estibariz** (Elgoibar - Gipuzkoa). Instituto de Educación Secundaria de Elgoibar. Ayudante: Andres Alberdi.
- «Saint Georgeko ikasleen misterioa». Autor: **Jabi Rodriguez Mariano** (Segura - Gipuzkoa). Instituto Loinazpe de Beasain. Ayudante: Josune Iñarra.

Poesía:

Primer premio: «Teilatuan kontatzen nizkizun ipuinak». Autor: **Amets Zuazo Garmendia** (Irun - Gipuzkoa). Centro Pío Baroja.

Segundo premio: «Egunen baten». Autora: **Ekiñe Aristizabal Tolosa** (Oiartzun - Gipuzkoa). Instituto Usandizaga Amara-Peñaflorida. Ayudante: Ainitze Aristizabal Tolosa.

Tercer premio: «Ametsen bidaide». Autora: **Olatz Mitxelena** (Oiartzun - Gipuzkoa). Ikastola Haurtzaro. Ayudante: Kontxi Begiristain.

El Jurado recomienda la publicación de los siguientes trabajos:

- «Aldaketaren zain». Autora: **Lorena Orozko Andonegi** (Donostia - Gipuzkoa). Liceo Axular. Ayudante: Esteban Mitxelena.
- «Inguma». Autor: **Jon Samaniego Arrieta** (Pasai San Pedro - Gipuzkoa). Liceo Pasai Lezo. Ayudante: Julen Ezkurdia.

AZKUE SARIAK

Egoitzan, 2004-X-22

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Egun denoi eta prentsari bereziki, egun on.

Nik uste dut autore bakotxak edo idazle bakotxak baduela holako lilura bat eta da ikustea bere prosa edo poesia ezarria liburu batean. Hor sortzen baita, horrekin zabaltzen baita, bestengana joaiten baita orohar eta mezulari gisa baita. Beraz, uste dut gaztei horiek ere holako zerbait merezi dutela eta hain zuzen, 2003an agertu ziren narrazio eta olerkiak edo orduan sariztatuak izan zirenak, hemen agertzen dira eta denetarik bazen orduan, bai Iparraldekoak baziren eta bai Hegoaldekoak ere eta, beraz, nik uste dut hor gure goresmenak merezi dituztela, jadanik emanak direnak. Baina, ez nituzke ahantzi nahi edo ahaztu nahi, epaimahaikoek egin duten lanarengatik, A mailan: Igone Etxebarria Zamalloa, Manu Lopez Gaseni, Amagoia Lopez de Larruzea Zarate eta B mailan: Joseba Butron, Xabier Kaltzakorta –hemen daukaguna– eta Kirmen Uribe.

Xabier Kaltzakortak egin du liburu honen prestatzea eta nahi dizkiot nire eskerrik beroenak eman egin duen lanarengatik eta pentsatzen dut orain bertan hortaz mintzatuko dela eta emaiten diot hitza.

* * *

Eskerrik asko zuri, nik uste dut hemen BBKkoa badela, beraz, horrek esan nahi du berriz segituko dugula eta Joserra Bilbao jaunari emanen diot hitza orain.

* * *

Eskerrik asko. Aipatu dituzu haur horiek eta arrazoiekin merezi baitute, nik ez nituzke ahantzi nahi ere aita-amak. Heiek trasmizioa egin baitute euskara pasatuz belaunaldi batetik bestera eta animatu baitituzte haurrak lehenik irakurtzen eta gero, uste dut, hor direla ere maisuak eta irakasleak heiek bultzatzeko eta horiek dira gure geroa, dudarik gabe.

Eta bukatzeko, norbaitek badu zerbait galde egiteko? Kazetari horiengandik, ez baldin bada erranen dugu eta goizeko ekitaldi hau bukatutzat emaiten dudala.

* * *

Eskerrik asko zuei hona etorririk.

AZKUE SARIAK

Euskaltzaindiaren egoitzan,
Bilbo, 2004-X-22

Jabier Kaltzakorta,
euskaltzain urgazlea

Egun on eta berri on guztioi.

Egun on Euskaltzainburuari.

Egun on gainerako euskaltzainkideei.

Egun on kazetarioi.

Eta egun on: lagun guztioi.

Nire gaurko egitekoa izan ohi da liburuaren prestakuntza zer izan den azalteza. Eta *Azkue sariketa* honetan, haur eta gazte sariketa honetan, zelan jardun dugun azaltzea. Nire lana oraingoan bikoitza izan da, epaimahaikoa izatea alde batetik, eta horretarako irakurri behar izan ditugu ehun lanetik gora, eta hor, gure ustez betiere, hautatu onentsuenak eta bikainenak; eta bestetik, liburuaren prestakuntzarako puntuazioa eta sintasiaren ardura hartzea.

Eta behin honetaraz gero, holako lanetan nabilela, etortzen zait burura garai batean irakurri nuen liburu eder bat: *Un Voyage en Espagne.*

Teofilo Gautier idazleak Parisetik, oker ez banago, Portugalera egin zuen bidaia bat Euskal Herrian barrena. Eta kontatzen du hemendik, Astigarragatik, pasatu zenean, bere karroza aurrera ateratzen zitzaizkiola eskekoak edo eskaleak, eta eskaintzen zizkietela Parisko jaun handi haiei, burutik behatzera ondo jantzitakoei, zirietan, belar fin edo elbitzetan, sartzen zituzten basamarrubi gozoak. Hori omen zen eskekoek egiten zuten eskaintza bat. Eta hori berori da neurri batean, guk hemen 'sariketan' egiten duguna. Guk ere eskaini nahi ditugu Euskal Herri osoko gazteek idatzitako testurik zaporetsuenak, testurik gozoenak, basotik harakoenak, gazteen mundua islatzen dutenak...

Eta gure zirian, sarituez gainera *akzesitak* ere sartzen dira. Modu honetara liburua ederragoa da. Ederragoa da azalez eta mamiz. Liburuaren bene-

tako azala saritu baten sariarekin loturik dagoen irudi bat izan ohi da. Liburu honen azalean Arbillaga Etxarri neskatoak idatzi duen gaiarekin lotuta dagoen irudiat azaltzen da.

Liburu hau argitaratzeko ehun lanetik gora irakurri behar izan ditugu, lehenago esan dudanez. Eta lan sarituak berak ere ondo inprimaturik geldi daiezen, puntuazioa ondo joan dadin, eta hitzak eta egiturak gure hiztegi eta sintasi arauetan ondo txerta daitezen, atzekoz aurrera eta aurrekoz atzera irakurri behar izan ditut.

Eta honetan amaituko dut neure jardun txiki hau.

R.M. AZKUE LITERATUR SARIAK:
2003ko liburua eta
2004ko oinarriak

Bilbo, egoitza, 2004-X-22

Joserra Bilbao,
BBK - Elebitasun Zerbitzuko burua

Egun on, mahaikide zarien Jean Haritschelhar euskaltzainburuari eta Xabier Kaltzakorta, sariketa honetako epaimahaikide eta liburuaren prestatzaileari.

Egunon baita be, euskaltzain, saritu, familiako eta kazetarioi.

Gaurkoan ekitaldi bikotxa egingo dogula esan geinke. Batetik, igazko sariketan irabazle izan eta aitamena egitea merezi izan eben lanakaz egindako liburua aurkeztu dogulako. Bestetik, aurtengo sariketaren oinarrien barri emongo dogulako.

Beste ezer egin orduko, eskerrak gura deutsodaz emon Euskaltzaindiari, emoten deuskun babesagaitik, eta lanok epaitzen eta argitaratzen egiten dauan beharragaitik.

Aurtongo sariketei jagokonez, esan, R.M. Azkue literatur sarietan azpimarratzekoak dirala, partehartzaileen adina, literatur arloak, diru-sariak eta epeak.

Adinean maila bi dagoz, 10-13 urte bitartekoena bata eta 14-17 urte bitartekoena bestea eta bi dira literatur arloak be, narrazinoa eta olerkia. Sarietan, 3.600 euro banatzen dira.

Idazlanak aurkezteko epea, abenduaren 16an amaitzen da, gaurtik ia hilabete bira. Hagaitik, badago astia idazle gazteak enteratu daitezan komunikabideen bitartez. Ganera, urtero legez, ikastetxeetara be informazinoa bialduko dogu. Epaimahaien erabakia, datorren urteko zezeila edo otsailaren 28rako jakinaraziko da, beranduenez.

Idazle gazteei ohar bi: bata, lanak makinaz edo inprimagailuz idatzirik etorri behar dirala, eta bigarrena, saritu bako lanak desegin ala apurtu egingo dirala. Hagaitik, lanaren jatorrizkoa gordetzea komeni da, norberaren gobernurako.

Azkenik, idazle gazteei zorionak eta animoak gurako neuskiez emon eta hausnarketatxu bat egin. Honetarako, gogoratu gura dodaz aste honetan euskal idazle handi batek *Deia* egunkarian botatako eritxi gogorrak:

> «Literatura negozio bat da. Gaur egun saltzen dena ez da liburua baizik eta idazlea. Idazle bakarreko literatura ez da literatura; porrota da. Euskal literaturak behar du idazle asko eta irakurle asko».

Ba nik neure aldetik hauxe dinotsuet gazteoi: esandakotik azken zatiari baino ez egiteko kasu, hau da, irakurri eta idatzi, horixe behar daualako euskal literaturak.

Beraz badakizue, segi idazten eta irakurtzen, idazleak eta irakurleak behar doguz-eta.

Beste barik, eskerrik asko etorri zarien guztioi.

EUSKALTZAINDIA

NAFARROA OINEZ 2004

EUSKALTZAINDIAK LIZARRAN ANTOLATU DITUEN EKITALDIAK

irailak 17 septiembre
ortzirala viernes
2004

ACTIVIDADES QUE ORGANIZA LA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA EN ESTELLA

EUSKALTZAINDIA

EGITARAUA - PROGRAMA

10:00

Udaletxeko batzar aretoa
Salón de plenos del Ayuntamiento

Euskaltzaindiaren hileko batzarra
Reunión mensual de la Real Academia de la Lengua Vasca

16:50

Lizarra Ikastolara bisita
Visita de los académicos a Lizarra Ikastola

17:50

Agerkio bilkura – Acto público

Lizarrako Kultura Etxea – Casa de Cultura de Estella

Agurra / Saludo:

Mª José Fernández
Lizarrako Alkate andrea / Alcaldesa de Estella

Aurkezpena / Presentación:

Jean Haritschelhar
Euskaltzainburua / Presidente de Euskaltzaindia

Hitzaldiak – Ponencias

- **Euskara Estellerrian** / El euskera en Tierra Estella
  Andres Iñigo: Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkaria / Delegado de Euskaltzaindia en Navarra
- **Toponimia Estellerriko euskararen argigarri** / El euskera de Tierra Estella a la luz de la toponimia
  Patxi Salaberri Zaratiegi: Euskaltzain urgazlea / Académico correspondiente de Euskaltzaindia.
- **Estellerriko euskara Arabako eta Nafarroa Garaiko hizkeren bidegurutzean** / El euskera de Tierra Estella en la encrucijada de las hablas alavesas y altonavarras
  Iñaki Camino: Euskaltzain urgazlea / Académico correspondiente de Euskaltzaindia

Azken hitzak / Cierre del Acto:

Iñaki Astarriaga
Lizarra Ikastolako Presidentea / Presidente de Lizarra Ikastola

NAFARROA OINEZ 2004 DELA ETA, EUSKALTZAINDIAK LIZARRAN ANTOLATUTAKO EKITALDIAK

Prentsaurrekoa Euskaltzaindiaren Iruñeko ordezkaritzan, 2004ko irailaren 14an

Partaideak: – Josu Reparaz, Lizarra Ikastolako zuzendaria.
– Andrés Iñigo, Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkaria.

Andres Iñigo

Ezaguna da Euskaltzaindiak, euskararen akademia den aldetik, urtean buruan Euskal Herriko herrialde bakoitzean osoko bilkura bat gutxienez egiteko duen ohitura.

Lizarra Ikastolak, *Nafarroa Oinez* 2004ko antolatzaileak, Euskaltzaindia gonbidatu zuen ospakizun horren inguruko ekitaldietan parte hartzera eta Akademiak hagitz gogotsu onartu zuen gonbit hori.

Euskaltzaindiari, eratu eta onartu zenetik, bi eginbehar orokor egokitu zitzaizkion, batetik, euskara ikertzea eta arautzea eta, bertzetik, gure hizkuntza jagotea, hots, euskararen erabilera sustatzea, hizkuntza eskubideak zaintzea eta euskara gizarte maila guztietan gai bihurtzeko lan egitea. Ildo honetatik, Akademia honek itxaropentsu eta, aldi berean, esker onez begiratzen du Estellerrira eta, batik bat, Lizarrara, lizartarrek euskal kontzientzia historikoa biziberritu baitute eta, ondorioz, bertako hizkuntza historikoa bizia bihurtu, bereziki orain dela 34 urte *Lizarra* Ikastola proiektua abian jarri zutenetik.

Euskaltzaindia hil honen 17an, ortziralean, Lizarran izanen da eta esku programan zehazten diren ekitaldiak garatuko ditu; laburbilduz honako hauek:

– 10:00etan: Euskaltzaindiaren iraileko osoko bilkura, Udaletxeko batzar aretoan.

– 16:30etan: Lizarra Ikastolara bisita.

– 17:30etan: ekitaldi publikoa Lizarrako *Fray Diego* Kultura Etxean. Mahaiburua Lizarrako alkate andreak, euskaltzainburuak eta Lizarra

Ikastolako presidenteak osatuko dute eta hizlariek hiru gai hauek garatuko dituzte:

- Euskara Estellerrian.
- Toponimia Estellerriko euskararen argigarri.
- Estellerriko euskara Arabako eta Nafarroa Garaiko hizkeren bidegurutzean.

ACTOS ORGANIZADOS POR LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA – EUSKALTZAINDIA EN ESTELLA CON MOTIVO DEL NAFARROA OINEZ 2004

Rueda de prensa en la Delegación de Euskaltzaindia en Pamplona, el día 14-09-2004

Participantes: – Josu Reparaz, director de Lizarra Ikastola.
– Andrés Iñigo, delegado de Euskaltzaindia en Navarra.

Andres Iñigo

Es sabido que Euskaltzaindia tiene por costumbre realizar, al menos, una de sus reuniones plenarias anuales en cada uno de los territorios de Euskal Herria, que es el ámbito geográfico de su actuación como Academia de la Lengua Vasca.

Lizarra Ikastola, organizadora del *Nafarroa Oinez* 2004, invitó a Euskaltzaindia a participar en los actos organizados en torno a dicho evento, invitación que Euskaltzaindia acogió con máximo agrado.

Euskaltzaindia a la que, además del estudio e investigación del euskera para la consiguiente elaboración de las normativas lingüísticas, se le encomienda expresamente la tutela del euskera, con cometidos específicos, como son, promover el uso de la lengua, velar por los derechos lingüísticos y trabajar en la capacitación de la lengua a fin de que ésta pueda ser medio de expresión de la comunidad a todos los niveles, mira hacia Estella con ilusión, esperanza y agradecimiento, puesto que Estella ha recuperado, en lo que al euskera se refiere, la conciencia de su pasado histórico y va haciendo realidad el uso de la lengua viva, especialmente desde la puesta en marcha, hace 34 años, de *Lizarra Ikastola*, cuyos frutos son evidentes.

Por lo tanto, la Academia de la Lengua Vasca estará presente en Estella el próximo día 17, viernes. El programa a desarrollar será el siguiente:

– A las 10:00 horas: sesión plenaria de la Academia correspondiente al mes de septiembre, en el salón de plenos del Ayuntamiento.

– A las 16:30 horas: visita a *Lizarra Ikastola*.

– A las 17:30 horas: acto público, en la Casa de Cultura *Fray Diego* de Estella, presidido por la alcaldesa de Estella, el presidente de Euskaltzaindia y el presidente de *Lizarra Ikastola*. Se desarrollarán tres ponencias (ver programa adjunto):

• «El euskera en Tierra Estella».

• «El euskera de Tierra Estella a la luz de la toponimia».

• «El euskera de Tierra Estella en la encrucijada de las hablas alavesas y altonavarras».

EUSKALTZAINDIKO EKITALDIETARAKO
Aurkezpena

Estella / Lizarra, 2004-IX-14

Josu Reparaz Leiza,
***Lizarra** Ikastolako zuzendaria*

Agur t'erdi:

Aurten, 2004ean, Lizarra Ikastolak *Nafarroa Oinez* antolatuko du, beste behin ere ikastetxe honen heziketaren lanean erronka garrantzitsua izanik.

Pozgarria da ikastolarentzat *Oinez*eko ekintza bakoitza diseinatu eta antolatzea. Guzti honen emaitza geure kulturan eta hizkuntzan, aurreiritzi eta beldurrik gabe, hezitzea izanen da.

Mestizajea dugu etorkizuneko errealitatea, baina gero eta errespetutsuagoak, sentsibleagoak eta arduratsuagoak izan behar dugu gure ingurunean ditugun kultura desberdinekin. Horrela, gure geure arteko erlazioan elkarbizitza aberastu eta askatasunez aukeratu behar dugu heziketa eredu desberdinen artean.

Lizarra Ikastolak apostu handia egin du heziketaren kalitatean, elementu berritzaileak txertatuz, metodologia gaurkotuz, jakitunen ideiak jasoz eta pixkanaka-pixkanaka instalazioak hobetuz.

Heziketaren munduak berorekatu behar du eta bere erronka zailenen eta garrantzitsuenen artean, gizarte toleranteagoa eta irekiagoa, lehiakortasunetik at eta, batez ere hezituagoa izan behar du.

Berritze iraunkorreko bilakaera honetan, gure geure ikastetxeak *Oinez*aren edizio berri bat antolatuko du, handizalea, ez hala-holakoa, Nafarroa eta orokorrean Euskal Herria bere kulturarekin uztartuko direla.

*Nafarroa Oinez*eko ekintzen artean, gaur Euskaltzaindiak antolatu dituen ekitaldiak aurkeztera goaz. Erakunde honen presentziak, eta hitzaldietan euskaltzain desberdinek garatuko dituzten gaiak garrantzi berezikoak dira guretzat, bertan euskara Lizarrako eta Lizarrerriko hizkuntza dela oroitaraziko baitigute. Bestalde, euskararen berreskurapenean ari garenontzat arnas berria izanen dira.

Zuzena da, aurkezpen ekitaldi honetaz baliatzea Jose Maria Satrustegi jauna omentzeko eta 1995ean idatzitako artikulu batean zioena:

> Nafarroa bien arteko zubi sendoa izan zen bere egunean Lizarrako Ikastola, eta muga gabeko zelai zabaletara luzatutako ortzadarra da. Eraztun garrantzitsua Nafarroa biak elkartzen dituen hizkuntzaren katean.

Hitz eder horiei erantsiz, Lizarra Ikastolak oraindik *Ega* ibaiaren ondoan altxaturik jarraitzen duela esanez, eta bere adibidea jarraituz, *Oinez 04*ko ekarpenei esker, eskualdean hezkuntza aztarna sortzen ari delarik. Sarri ematen dugu bere meandro oparo eta hostotsuen berri, belaunaldi berriak bere ur sortzaileaz berritu eta freskatuz, geroaldirako oparotasunaren zantzu direlarik.

Lizarra Ikastolaren izenean, eskerrik beroena zabaldu nahi diogu Euskaltzaindiari aukera eder hau eskaintzeagatik.

PRESENTACIÓN PARA LOS ACTOS DE EUSKALTZAINDIA

Estella / Lizarra 14-IX-04

Josu Reparaz,
Director de ***Lizarra*** *Ikastola*

Agur térdi:

El presente año 2004 *Lizarra Ikastola* va a ser la encargada de dar forma a una nueva edición del *Nafarroa Oinez*, que, una vez más, representa un revulsivo en la tarea educativa de este Centro.

Es motivo de especial satisfacción para la *Ikastola* poder diseñar y albergar cada uno de los eventos que lo van componiendo. Su resultado será la financiación y reivindicación de la cultura y la educación social en lengua vernácula, sin prejuicios ni miedos, ya que el lenguaje es una realidad, no una abstracción.

La realidad actual tendente al mestizaje, pero cada vez más respetuosa, sensible y responsable con las variadas culturas que conviven en el rico mosaico de nuestra tierra, debe enriquecerse cada vez más con realizaciones que fijen marcos y aporten lienzos de convivencia amplios y seguros a la paleta de colores que se ha de manejar de forma inteligente, sin favoritismos, en una variada oferta, con miras a poder elegir con libertad entre las diversas opciones educativas.

Lizarra Ikastola lleva a cabo una interpretación contemporánea de la educación, en evolución constante, comprometida con la introducción de elementos novedosos, actualizando métodos, aportando ideas de expertos y mejorando paso a paso sus instalaciones.

El mundo de la educación ha de reequilibrarse y debe comprender que entre sus retos más difíciles y valiosos, está el de tratar de conseguir una sociedad más tolerante, más abierta, menos entregada a la vorágine competitiva y, sobre todo, mejor educada.

Esa necesidad de evolución, impele a nuestro Centro para organizar una singular edición de la ronda *Oinez*, un evento ambicioso, sin cortapisas ni adocenamientos, en el que Navarra, y no sólo este pueblo, se reencuentren con su cultura autóctona.

Hoy, y dentro del programa anual, queremos presentar las actividades que organiza La Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia, con motivo del *Nafarroa Oinez*. La presencia de esta entidad, y los temas que abordarán distintos académicos en el acto público, son para nosotros de una importancia decisiva puesto que nos recuerdan científicamente que el euskara no es algo extraño en Estella y su merindad y su apoyo es un soplo de energía para quienes hemos hecho de la recuperación de esta lengua nuestro empeño.

Es de justicia, aprovechar este acto de presentación para rendir un sentido homenaje a Don José Maria Satrustegi, quien dijera en un artículo del año 1995:

> *Lizarra Ikastola* fue el puente firme entre las dos Navarras, el eslabón de la cadena del idioma que las unió.

Añadiendo a su hermoso verbo que *Lizarra Ikastola* sigue erguida a orillas del río *Ega*, y que siguiendo su ejemplo, gracias al caudal de aportaciones como las del *Oinez 04*, va creando un sedimento de educación en el seno de la comarca. De sus meandros, ricos y frondosos, venimos dando noticia con frecuencia, renovando y refrescando con aguas creadoras a las nuevas generaciones, promesa de riqueza para el futuro.

En nombre de *Lizarra Ikastola*, queremos dar el más sincero agradecimiento a Euskaltzaindia por ofrecernos esta excelente oportunidad.

ESTELLA / LIZARRA - EUSKALTZAINDIA

Lizarra/Estella, 2004-IX-17

María José Fernández,
alcaldesa de Estella/Lizarra (1).

En primer lugar quiero disculpar mi ausencia, hubiera sido mi deseo y así lo confirmé en su día, estar hoy aquí. Obligaciones de última hora me impiden compartir con todos Uds. esta conferencia que nos acerca a nuestros orígenes y de la que estoy segura van a disfrutar.

Quiero agradecer a Euskaltzaindia que hayan celebrado en nuestra ciudad su reunión mensual así como este acto sobre el euskera en Tierra Estella, en el que se va a exponer los orígenes del euskera en nuestra querida tierra.

Nuestra ciudad siempre ha sido una encrucijada de culturas. Aquí los judíos y los francos se asentaron y convivieron con los primitivos pobladores durante siglos y aquí han sido siempre bien recibidos todos aquellos que nos han visitado y bien acogidos quienes se han instalado entre nosotros.

Probablemente fueron los primeros pobladores de nuestra ciudad, aquellos que estaban instalados en el barrio de Lizarra quienes dieron nombre a nuestros términos, quienes nos transmitieron la lengua euskérica y a los que debemos esa parte de nuestro patrimonio inmaterial, pudiendo presumir en la actualidad de poseer una de las lenguas más antiguas de Europa.

Las lenguas son vehículos de transmisión, de entendimiento y de comunicación, es por ello que debemos respetarlas y conservarlas y no utilizarlas para ningún otro fin.

Personalmente aspiro y sé que es un sentimiento compartido por muchos de nuestros convecinos a vivir tiempos en los que el euskera sea sentido como un patrimonio de todos independientemente de las diferentes sensibilidades políticas de cada cual y deje de utilizarse como arma arrojadiza por quienes no tienen otros argumentos políticos.

Espero y deseo que disfruten de este acto y reitero mi agradecimiento a la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia por su presencia en nuestra ciudad.

---

(1) Jaime Garin, Concejal de Cultura de la Casa Consistorial de Estella/Lizarra ha leído el siguiente documento.

EUSKARA ESTELLERRIAN

Estella/Lizarra, 2004-IX-17

Andres Iñigo,
Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkaria

Txosten honen helburua euskarak historian zehar Estellerrian izan duen eta gaur den egunean duen presentzia laburki eta orokorki azaltzea da. Zalantzarik ez dago Estellerriko eremurik handiena euskalduna izan dela. Hori baieztatzeko, nire ondotik ariko diren hizlariek sakonago aztertuko dituzten bi iturri nagusi ditugu: toponimia eta agiri zaharrak.

Toponimiari dagokionez, gauza jakina da hiriburuaren izen zaharra euskalduna zela, Lizarra alegia, beranduago sortutako Estella izen erromantzeak pixkanaka baztertu zuena. Aldi berean, ugari dira Estellerrian euskal izen gardenak dituzten ibarrak, hala nola, Berrotza, Goñerri, Gesalatz,... eta herriak: Aramendia, Aritzala, Artazu, Bidaurre, Elizagorria, Etxabarri, Iguzkitza, Iturgoien, Labeaga, Mendiliberri, Murieta, Oteitza, Urbiola, etab. Oraindik aberatsagoa da txosten labur honetan inola ere azaltzerik ez den toponimia xehea, hots, herrietako mendi, erreka, zelai, bide, soro, alor eta abarren izenak.

Agiriei dagokienez, berriz, aipagarria da benetan 1561ean Lizarran inprimatu eta Nafarroan argitara eman zen euskarazko lehendabiziko liburua, Santxo Eltsoren dotrina alegia, eta kontuan izatekoak ere bai Muzkiko Frantzisko Elizaldek 1735ean Nafarroako eremu horretako hizkeran idatzi zuen *Apezendaco dotrina christina uscaras* eta berriki aurkitu diren Ameskoako Artatzan idatzitako XVIII. mendeko mandamenduen testutxoa eta Deikazteluko XIX. mendearen hasierako sermoia.

Baditugu, bertzalde, XVI. mendetik hasi eta XIX.a arte Estellerriko euskalduntasuna adierazten duten dokumentu interesgarriak. Agiri horiek, aldi berean, argi adierazten digute euskararen galeraren bilakaera kronologikoa, XIX. mendean erabat galdu zen arte, Bonaparte printzeak egindako euskalkien mapan egiaztatzen den bezala.

Hizkuntza bizia galdu bazen ere, lizartarren euskal kontzientzia historikoa eta euskaltzaletasunaren hazia ez zegoen galdua nonbait, azkeneko 34 urte hauetan –Lizarra Ikastola proiektua abian jarri zenetik– egiaztatzen ahal den

bezala. Kontzientzia biziberritu horren ondorioz, gaur den egunean euskara karrikako hizkuntza ere bada Lizarran.

La presente comunicación trata de ofrecer, a grandes rasgos, un recorrido histórico de la presencia del euskera en Estellerria.

Estella / Lizarra, cabecera de la Merindad histórica que lleva su nombre es, a su vez, enclave histórico del Camino de Santiago y centro cultural, social, económico y comercial de un entorno geográfico de marcada personalidad llamado Tierra Estella, cuyo equivalente eusquérico es Estellerria.

El ámbito geográfico que abarca Estellerria ha sido en su mayoría euskaldún, tal como lo avalan los datos históricos. Su cabecera comarcal, de marcada tradición cultural vasca, es en la actualidad núcleo de resurgimiento y expansión de su lengua ancestral.

El testimonio de la toponimia

La toponimia es fiel reflejo del pasado euskaldún de Tierra Estella, especialmente la toponimia menor (nombres de montes, regatas, barrancos, caminos, llanuras, campos, piezas, etc.), que por razones obvias de tiempo es imposible incluir en esta exposición. Ciñéndonos al campo de la toponimia mayor, por ser más conocida, nos hallamos ante una serie de nombres de pueblos claramente euskaldunes. Empezando por la propia capitalidad, nos encontramos con el antiguo nombre euskérico de Lizarra, que fue desplazado por Estella, nombre románico implantado más tarde. El mencionado nombre histórico se documenta bajo las variantes *Lizarrara, Lizarra, Lizarraga*. El testimonio inicial *Lizarrara* derivó, al parecer, en la forma contraída *Lizarra*, variante que se impuso de forma definitiva desde finales del siglo XII.

Son muchos los documentos que lo demuestran. Citaremos, a modo de ejemplo, uno de los testimonios que nos parecen más claros al respecto. El obispo Prudencio Sandoval en su obra titulada *Catálogo de los Obispos que ha tenido la Santa Iglesia de Pamplona desde el año ochenta*, publicada en 1641, transcribe un texto latino de 1187, de cuando el rey Sancho VI el Sabio optó por ampliar el núcleo urbano con la creación de un nuevo barrio –la población de San Juan–, cuya iglesia fue adjudicada al monasterio de Iratxe. Dicho texto dice así: «Illam Ecclesiam Sancti Joanis, quam facio fieri à praedictis monachis in populatione de Stella, quam ego populavi ultra pontem Sancti Martini iuxta villam de Liçarra: et juxta Rupem Sancti Michaelis in Parrale meo proprio», es decir, «la iglesia de San Juan que ordeno construir para los susodichos monjes en el núcleo de Estella, que yo poblé, más allá del puente de San Martín, junto a la villa de Lizarra y junto a las rocas de San Miguel en mi propio parral».

Igualmente, muchos nombres, tanto de los valles que componen Estellerria como de los pueblos que se incluyen en ellos, son netamente vascos. Podemos citar, entre otros, a Ameskoa, Berrotza, Goñerri, Gesalatz, etc. entre los primeros, y los de Aramendia, Aranaratxe, Aritzala, Aritzaleta, Artazu, Arteaga, Azkoa, Bidaurre, Elizagorria, Etxabarri, Eulate, Eultz, Iguzkitza, Iturgoien, Labeaga, Lakar, Larragoa, Leartza, Mendiliberri, Murieta, Murugarren, Oteitza, Urbiola, Zurukuain, etc. entre los segundos.

El testimonio de los documentos

En documentación escrita, la constancia del euskera queda patente desde los textos más antiguos. Si importante es la inscripción en euskera *Garen garean legez* 'Seamos como somos', incluida en el escudo de armas de la familia de Fray Diego de Estella (1524-1578), aún reviste mayor interés el hecho de que fuera un impresor estellés, Adrián de Amberes, quien lanzara al mercado la primera obra vasca impresa en Navarra, de la que se tiene noticia, titulada *Doctrina christiana y pasto espiritual para todos los que tienen cargo de almas y para todos los estados, en castellano y en vascuence*, atribuida al bachiller y teatino Sancho de Elso, editada en 1561, solamente 16 años después de la edición del primer libro en euskera en Burdeos, es decir, de la *Linguae Vasconum Primitiae* de Bernart Etxepare.

A partir de la segunda mitad del siglo XVI empiezan a prodigarse en el amplio ámbito de Estellerria documentos que reflejan a las claras que el euskera era la lengua de uso entre la población. Así lo corroboran, entre otros, los testimonios que relatan las promesas matrimoniales de Baquedano en 1550 y de Zufia en 1552, la invitación de boda de Eraul en 1564, la frase pronunciada por la madre que atribuye la muerte de su hija a maleficios brujeriles en Barbarin en 1576, varios litigios para nombrar sacerdotes que no conocían el euskera, como, por ejemplo, los de Arandigoien en 1581 y 1600, y la constatación en 1600 de la realización de ceremonias litúrgicas en euskera en Villatuerta. Tampoco faltan testimonios de la propia Estella, como los que relatan que en la parroquia de San Juan en 1607 «de tres partes la una es bascongada», y que en la de San Miguel «muchas de las personas bascongadas no entienden el romance». Este fenómeno también se repite en Guirgillano, donde el comisionado diocesano, en la demanda de una separación matrimonial, se vio en la necesidad de traducir las palabras de la esposa declarante «dándole a entender en su lengua de bascuenze lo que contenia la dicha probisión».

En el siglo XVIII, el euskera aún perduraba en parte de esta zona, como lo demuestran los testimonios de los notarios. Éstos, cuando comunicaban las sentencias, indicaban expresamente que las daban a entender a los interesados «en su lengua vulgar vascongada», y en varios pueblos se siguieron rechazando nombramientos de sacerdotes que no sabían euskera. Otra prueba más fehaciente son

los escritos de sacerdotes del pequeño pueblo de Muzki (Gesalatz). Por una parte, Francisco Martínez de Elizalde –que ejerció su ministerio y docencia lejos de su tierra y que falleció en Madrid–, en el año 1735 escribió, en dialecto navarro meridional, el catecismo titulado *Apezendaco dotrina christiana uscaras*, publicado y analizado por Patxi Salaberri hace ahora diez años. Isidoro Ursúa, muzkiarra y archivero diocesano actual, califica el mencionado catecismo como fruto del amor que Elizalde siguió profesando a su tierra y del afecto al idioma que habló los primeros años de su vida. Por otra parte, está el legado de cuatro sermones en euskera escritos en 33 cuartillas y predicados en el último tercio del siglo XVIII por los Martínez de Morentin, sacerdotes que ejercieron en el propio Muzki. El sermón hallado en Dicastillo, publicado hace cinco años por Pello Etxaniz, corresponde a 1805, lo que induce a pensar que, al menos a primeros del siglo XIX había euskaldunes en dicha localidad o alrededores.

Sin embargo, es en el siglo XVIII cuando se plasma el retroceso más vertiginoso de nuestra lengua en Estellerria. Entre las causas pueden citarse la influencia comercial de Estella sobre los pueblos de su Tierra y la actuación administrativa, tanto eclesiástica como civil. Es la época en la que empezaron a prodigarse nombramientos de sacerdotes y maestros que no sabían euskera. Ello provocó vivas protestas, especialmente por parte de los feligreses que no eran entendidos por sus sacerdotes. Estas protestas, que ya tuvieron lugar a primeros del XVII en la propia Estella donde –como hemos mencionado anteriormente–, en el año 1607 los de la parroquia de San Juan presentaron demanda por haber nombrado a un cura desconocedor del vascuence porque «mas de la tercera parte eran meramente vascongados y no saben romanz», en el siglo XVIII se extienden, poco a poco, hasta los pequeños pueblos situados más al norte, como es el caso que tuvo lugar en Eraúl el año 1722. No es necesario insistir en que, con el correr de los años, la imposición del castellano iba arrinconando la muga del euskera cada vez más al norte. Prueba de ello es que en el siglo XIX el límite sur de la pervivencia del euskera en Estellerria lo marcan los valles de Goñi y Gesalatz, tal como quedó plasmado en el mapa dialectal de 1863 realizado por el príncipe Luis Luciano Bonaparte.

El progresivo retroceso del euskera hasta llegar a su desaparición como lengua de comunicación no ha evitado, sin embargo, la perduración del léxico vasco en el habla popular castellana de Tierra Estella, tanto en el vocabulario común como en el específico (nombres de plantas, animales, herramientas, etc.), tal como lo viene a demostrar Pello Etxaniz en el «Vocabulario estellés» publicado en *Fontes* el año 2000. Este hecho representa el poso histórico multisecular, imborrable en el habla popular a pesar de las imposiciones más brutales por hacer desaparecer todo vestigio euskaldún, como el protagonizado por el comandante militar de Estella, quien el 25 de septiembre de 1936 publicó un bando por el que, entre otras cosas, «se prohíbe la palabra *agur* importada por los separatistas en lugar del *adiós* genuinamente español».

Resurgimiento y recuperación

Afortunadamente, pocos años después, debido al renacimiento del euskera en Estella, la realidad comenzó a cambiar. La implantación de Lizarra Ikastola el año 1970 fue clave en la labor de recuperación de la lengua. Los datos son elocuentes. La enseñanza del citado centro escolar a lo largo de 34 años de actividad creciente, más la implantación posterior de la línea D en el colegio público *Remontival*, han tenido como efecto la escolarización en la línea lingüística D de una cifra que ronda los 2000 alumnos. A ellos hay que añadir los estudiantes de la línea A en el propio colegio público y en los colegios concertados *Santa Ana*, *Mater Dei* y *Nuestra Señora del Puy*. Las actuales cifras de matriculación arrojan datos esperanzadores en el camino de la recuperación de la lengua, dado que aproximadamente un 40% opta por la línea D y la gran mayoría restante por la línea A.

Estella cuenta, además, con el euskaltegi *B. Etxepare* de AEK para la enseñanza de adultos. Por otra parte, son una realidad el Servicio Municipal de Euskera que viene funcionando desde 1989, y diversas sociedades impulsoras del euskera, entre las que cabe señalar *Gure Hizkuntza Elkartea*, así como *Lizarrako Euskararen Aldeko Batzordea*, comisión aglutinadora del movimiento euskaltzale y encaminada a la promoción de la lengua a través de la realización de diversas actividades. Mencionaremos finalmente *Irujo Etxea Elkartea*, de creación relativamente reciente, que otorga los premios que llevan el nombre *Manuel Irujo Saria* a personas que se han distinguido por su labor en favor de la lengua y cultura vasca y que, precisamente, otorgó los dos primeros premios a Jose Maria Jimeno Jurío el año 2001 y a Jose Maria Satrustegi en el 2002, académicos de honor y de número respectivamente de Euskaltzaindia.

* * *

Amaitu baino lehen, gogora ekarri nahi ditugu, hain zuzen ere, gaurko ekitaldi honekin zerikusi zuzena duten eta berriki joan zaizkigun bi euskaltzain hauek:

Batetik, Jose Mari Satrustegi. 1990ean Lizarrako Foruen IX. mendeurrena zela eta, Euskaltzaindiak antolatu zuen ageriko ekitaldian bera izan zen hizlarietako bat. Estellerriko euskararen historiaz aritu zen eta 1990eko Lizarrako euskararen egoeraren aitzinean itxaropen hitzak izan ziren bereak.

Bertzetik, Jose Mari Jimeno Jurio, ikertzaile nekaezina. Berari zor dizkiogu Lizarrako toponimiari buruzko lan sakonak eta Estellerriko euskararen historiaren lekuko interesgarriak, horien artean, *Navarra. Historia del euskera* liburuan bildu zituenak.

Eta azkenik, aipatu nahi dugu, gure artean dugun Pello Etxaniz, Lizarra Ikastolako irakaslea, bertzeak bertze, idatzi berri duen *Lizarrako euskara. His-*

toria de la lengua vasca en Tierra Estella liburuagatik, Lizarra Ikastolak aurtengo udan, *Oinez* honen atean, argitaratu diona. Zorionak berari eta ikastolari, oso modu didaktikoan eman dutelako ezagutzera Estellerriko euskararen galeraren bilakaera eta gaur den eguneko egoera itxaropentsua.

Bibliografía:

CAMINO, I., 2003, «Hego-nafarreraren egituraz», *FLV* 94, 427-468.

—— 2004, *Hego-Nafarrera*, Nafarroako Gobernua.

CIÉRBIDE, R., 2002, «Los francos de Estella (Navarra): consideraciones onomásticas» *Hommage à Jacques Allières I. Domaines basque et pyrénéen*, Edit. Atlántica, Bayonne.

ETXANIZ, P., 1999, «Dikazteluko sermoia» *FLV* 82, 483-499.

—— 2000, «Vocabulario estellés», *FLV* 84, 301-308.

—— 2004, *Lizarrako euskara. Historia de la lengua vasca en Tierra Estella*. Altaffaylla Kultur Taldea. Lizarra.

GOÑI GAZTAMBIDE, J., 1985, *Historia de los obispos de Pamplona*, III, 452-453. Gobierno de Navarra – EUNSA, Pamplona.

JIMENO JURÍO, J. M., 1997, *Navarra, Historia del Euskera.* Edit. Txalaparta, Tafalla.

—— 1998, «Estella/Lizarra. Toponimia», *FLV* 77, 133-162.

—— 2004, *Retroceso histórico del euskera en Navarra*. Pamiela. Pamplona.

LEKUONA M., 1973, «Textos Vascos del siglo XVIII, en Tierra de Estella», *FLV* 15, 369-390.

ONDARRA, F., 1980, «Las vascongadas de Barbarin y Corres, Navarra y Alava», *FLV* 35-36, 371-382.

SÁINZ ALBERO, M. I. & SÁINZ PEZONAGA, J., 2002, *Toponomástica histórica en Tierra Estella y Valdizarbe.* Euskara Kultur Elkargoa. Pamplona.

SALABERRI ZARATIEGI, P., 1994, «Elizalderen Apezendaco dotrina christiana uscaras», *FLV* 65, 7-39.

SANDOVAL, P., 1614, *Catálogo de los Obispos que ha tenido la Santa Iglesia de Pamplona desde el año ochenta.* Pamplona.

SATRUSTEGI ZUBELDIA, J. M., 1991, «El Euskera en Tierra Estella», *Euskera* 36, 1991-1, 93-124.

URSÚA IRIGOYEN, I., 1994, «El padre Francisco Martínez de Elizalde», *FLV* 65, 67-75.

TOPONIMIA, ESTELLERRIKO EUSKARAREN ARGIGARRI

Lizarra, 2004-IX-17

Patxi Salaberri,
euskatzain urgazlea

Orain irakurri behar dudan txostentxo honen izena, egitarauan ageri dena, sobera arranditsua dela erran nahi dut lehenik, hamabost-hogei minututan konpreni dezakezuenez horrelako lan gaitzik ezin baitaiteke egin. Bestalde, Estellerria zabala da eta bertako toponimia bildurik badago ere (*NTEM*), oraino bide luzea gelditzen zaigu leku izenei atera dakiekeen zuku guztia erabat ateratzea erdietsi arte. Gainera, eta jakina denez, toponimoek arraiza, zantzu batzuk besterik ez dizkigute ematen, hutsa egia erran, testu batek, are labur batek, ematen dizkigun argitasunen aldean. Nolanahi ere, testuak alderdi honetan ez ditugu sobran eta, gainera, daudenetako batzuk edo finkatutako formulak dira (Bakedaoko eta Zufiko ezkontza aginduak ez daude bertako hizkeran idatzirik, hagitz oker ez bagabiltza; ikus Satrustegi, *ETZ-I*, 25-26. orr.) edo, kasuren batean, testua ez dagokioke segur aski kausitua izan den herriko euskarari (Deikaztelun agertu zen predikuaz ari naiz; ikus Etxaniz, 1999 eta 2004).

Zorionez gero eta testu gehiago ateratzen ari dira gure Nafarroa honetan eta gero eta ikertzaile gehiago daude lana aurreratzeko prest, honek, egia erran, arriskuak ere izan arren, zenbaiten ausardia neurriz gainekoa delako, inoiz gertatzen baita euskaraz ez dakienak, edo horrelako lanak egiteko oinarrizko prestakuntzarik ez duenak, hango edo hemengo euskararen gaineko azterketa egiten duela. Estellerriari doakionez, badugu Ameskoako testu ttipi bat, duela urte pare bat edo agertu zena; orain Balvino Garzia de Albizuri esker badakigu egilea zudairiarra zela eta Artatzan urte luzetan apez egon zela.

Bestalde, Mitxelenak *TAV*-en (1964: 121) Martin Portalen 1610eko olerkitxoa aztertzean bertan ageri den hizkera Sakanakoa, Burundakoa, Ameskoetakoa nahiz Lanakoa izan zitekeela zioen, hots, aski eremu zabala hartzen zuen hizkeraren jatorritzat. Beranduagoko beste lan batean (Goikoetxea, 1982, hitzaurrea), ordea, erraten du olerkia Iruñean saritua izan bazen ere ezin izan daitekeela ez Iruñekoa, ez Iruñerrikoa ez eta, segur aski, Nafarroako beste inongoa ere. Irudi duenez honi jarraikiz, Knörrek eta Zuazok (1998) Arabako testuak biltzen dituen obran herrialde horretako euskaraz idatzitzat hartzen dute.

Hala ere orain, eta berriz ere Garzia de Albizuren lanari esker, ia segurutzat eman dezakegu Martin Portal jauna ameskoarra zela, ez arabarra, eta, beraz, olerkitxoa –eta bertan erabiltzen den euskara– Nafarroara ekar dezakegu.

Martin Portalen olerkia XVII. mendearen hasierakoa da eta Artatzako testua XVIII. mendekoa eta, hortaz, ez da harritzeko bien artean alde nabarmena egotea, hizkuntzari dagokionez. Honelakoak, egia erran, ez dira batere arraroak; adibidez Muzkiko Frantzisko Elizalderen dotrinaren eta herri eta mende bereko Martinez de Morentindarren testuen artean (ikus Lekuona, 1973 eta Salaberri, 1994) ezberdintasun handiak daude, eta gauza bera erran daiteke Lizarraga Elkanokoaren lanen eta herri berean, mende berean, Bonapartek bildutako datuen artean daudenez.

Zernahi gisaz, eta Artatzako testuetan ageri den hizkuntza iruzkintzera igaroaz, erran dezakegu, ikus dezakegunarengatik, mendebaldeko hizkera zela, *dau* 'du' aditzak (*eitedau* 'egiten du', *ecartedauenac* 'ekartzen duenak') eta *baga* postposizioak argitzen dutenez. Bigarren honek bertan *–a + a > -ea* egiten zela salatzen du; inguru honetako leku izenen azterketak ere ondorio berera edo bertsura garamatza (*errekea, perrea*…; ikus Salaberri, 1998: 52-53). Mendebaldera, Lazarragaren eta besteren hizkerarantz hurbiltzen gaituen beste ezaugarri bat *–gi* aditz atzizkia da, alegia, testuan opatzen dugun *eregui* aditzean dagoena (*falso testimoño eregui* esaldian), beste autore batzuek *eraiki* erraten duten bera. Honekin batean, ordea, ekialderagoko hizkeretan aurkitzen dugun *iduqui* dago, ez erraterako Lazarragak darabilen *edugui* edo *eugui*, ez eta ere Burundan eta Sakanan (Erdialdekoan segurik) honetatik atera diren aldaera ugarietako bat (ikus Erdozia, 2004).

Burunda aipatu dugularik oroitarazi nahi dugu bertan *–gi* ohikoa dela aditzetan eta XVII. mendearen hastapeneko datuetan ere ageri dela (*ebagi*, 1606ko eta 1697ko *Ebaguierreca, Ebaguierrecaldea* toponimoetan; Izagirrek *ebaiyak* 'las cortaduras' dakar, 1967: 58) eta *dau*-ren modukoak ere usaiakoak direla, edo ezagunak behintzat (*iten dau jendík* 'jendeak egiten du', Izagirre, 1967: 59). Hortaz, eta guk sumatzen eta susmatzen genuenez, irudi du badela lotura mendiez bi alderdietako hizkeren artean, eta, orobat, Ameskoabarreneko euskara igaratzako hizkera zatekeen Allin ibarrekora eta ustez nafarrera zen Deierrikora hurbiltzen zela hein batean bederen, hots, eta ondorioz, Caminok orain guti (2004) ateratako liburuan *hego-nafarrera* deitu duen horretara.

Beraz, ikusi dugu Ameskoabarreneko euskarak mendebaldeko itxura zuela, baina ez erabat, ekialderagoko hizkeren ezaugarriren bat ere bazuelako; Burundako euskararen eitea ere bazuen: *-gi*-ren erabilera partziala, *-a + -a > -ea* pausoa –nahiz honen nahitaezkotasuna arrunt garbi ez den ageri– eta *eu > (> au) > ou* bilakaera, besteak beste.

Ameskoagoieneko euskara ere haren iruditsua zatekeen, baina, toponimia ikusirik, erranen genuke hau pixka bat mendebaldekoagoa zela hura baino, geografikoki dagokionez. Lana ibarreko hizkera ere, *-a + -a > -ea* aldakun-

tzak eta *barri* edo *baltza* aurkitzeak salatzen dutenez (*Johan Balça* XIV. mendean, *Maria Landa alias maribalza*, 1696an, segur aski *Juan de Landa alias Moreno*-ren anaia zatekeena; cf. Villatuertako *Moreno* deitura. Bada, halaz ere, kontradibideren bat, ez dakigu dimorfismoa zegoelako edo bestela) aski mendebaldekoa ageri zaigu; hiru ibarrotako toponimo despalatalizatuak ere zentzu berean mintzo dira (ikus Salaberri, 1998). Bestalde, nabarmentzekoa da bokal arteko *–b-* > *-f-* bilakaera, gehienbat bi Ameskoetan eta Kontrastan kausitzen duguna, eta zenbait aldiz Burundan ere bai. Honen erakusgarri seinalatuena apika *–f*-dun *Zufia* izatea da, *-b-* duen *Zubielki* mugakidearen aldakan; kasu honetan, gainera, aldakunza arrunt zaharra da: *Cubielqui* genuen XI. menderako eta *Çufia* 1240. urterako (*NHI*, 206).

Notatzekoa den beste ezaugarri bat Artatzako 1706ko *Soroisia*-n aurkitzen dugun *isi* hori da, egungo *Soroitxi* ikusirik *Soroitsi* irakurtzera gakartzana. Gogoratu beharra dago *DLC*-n «*çegajear dellos* hisi yrigui» eta «*çerrar* ysçi» dugula, orain garbiro *itsi* idatziko genukeena (ikus Agud & Mitxelena, 1958: 20); egungo *itxi* «echi, uzzi» zen hiztegi horretan. Lazarragak ere ederki bereizten ditu *itsi* 'itxi' eta *itxi* 'utzi', nahiz eta autore ezagun batek berriki paratutako argitalpenean biok ia beti *itxi* transkribatzen diren, oker, bistan denez. *Torre* ere Nafarroako mendebaldeko toponimian ohikoa da, baina ez Burundan (ikus Erdozia, 2004). Arabako mugako ibarrek dituzten beste ezaugarri batzuk ikusteko Salaberri (1998)-ra jo daiteke.

Iñaki Caminok dio, argitara eman berri duen *Hego-Nafarrera* laneko ondorioetan (150. or.), zenbait ibarretako euskara ez dugula ezagutzen, eta horien artean Deierri aipatzen du, orain ukitu nahi genukeen ibarra hain zuzen ere. Hemendik aurrerako datuak toponimiatik atera ditugu, ez baita Deierriko euskal testurik, dakigunez, Satrustegik 1991n argitaratu zuen ondokoaz landara (1991:102): *Señora maria de Vruizaldea / ezconcenzagu ezteietara mersede / eguiguzu etori zerau lenbizicoa / Micolau bigarena. J. Fransisca andrea Iru / babola laugarerena mariayna alabazaldeco.*

Leku izenetarik ateraiak direnez gero, kontuz ibiltzekoak dira datuok, jakina den bezala toki izendegian usu bestetan eta bestetarik lekutu direnak agertzen baitira. Errate baterako, Elizalderen dotrinan *ifernu* eta *infernu* agertzen dira eta Muzkiko testuetan *infernu*, baina Gesalazko toponimian *ybernuçuloaldea* toponimoa zegoen, non, bistan denez, aldaera zaharragoa den *ibernu* aurkitzen baitugu. Gainera, hemen aipatuko ditugunak ez dira denak garai bereko datuak, bost edo sei mendetakoak baizik, eta ezaguna da hizkuntza denborarekin aldatu egiten dela, bestelakotu egiten dela.

Leku izenetarik atera ditzakegun Deierriko hizkeraren zantzuak honako hauek dira:

1. Bokalen hersketa; *ea-* > *-ia-*: *Legarcia* (Lezaun, 1834), *Urtiaga* (1771, 1826) *Urtjága* (orain), *Zubialdia* (Eraul, 1797, DH, 107. or.). Ikusten denez, datuak aski berandukoak dira.

2. Inoiz bokal bategitea opatzen dugu toponimoren batean: *Ligasorota* (Aritzaleta, 1781).

3. Goiko bokalek eragindako hersketa: *Elicepea* (Ugar, 1789), *Icaçeyturride* (sic) (1589), *Ycasiturria* (1703), *Ycasiturri* (1830), *Ikestúrri* (orain; Lezaun), *Lauzadia* (1703), *La ozédia* (Lezaun, orain, < *Lauzedia), *Yzelvea* (Hiriberri, 1814), *Arizerte-* (Hiriberri, 1814, baina *Arizartea*, ibid.), *Elicechuri* (Hiriberri, 1796), *Auzesoropea* (Hiriberri, 1780), *Mendichurchurre* (Ziritza – Aritzaleta, 1797), *Oriaçu* (1246, Irantzu), *Oriaçu* (1586), *Oriazo* (1595), *Oliazu* (1723), *Oliezu* (1827), *Oliézu* (orain, Hiriberri). Hersketarik izan ez duten toponimoak, halarik ere, anitzez gehiago dira.

4. Diptongoaren osagai bokalikoaren irekitzea: *Ameingoauncea* (Hiriberri, 1807), *Amangoauncea* (ib., 1814), *Auncea* (ib.), *Auncechiquia* (Aritzaleta, 1820). *Auntze* hauek *euntze* 'belatsoroa, belagaia, pentzea'-tik atera dira, bistan denez.

5. Diptongoaren hersketa. Egungo lekuko bakarra dago: *Argéin* (Hiriberri; *Argaña* 1527an, *Argain* 1796an); dokumentazioan *Larreinondoa* ere badugu (Aizkoa, 1755).

6. Hitz hasierako herskariei doakienez, zenbait aldiz ahostuna aurkitzen dugu: *Bagoándias* (Lezaun), *Borrudia* (1759, 1800), *Burrúdia* (orain, Aizkoa; Altsasun *porru* dugu, Izagirre, 1967: 80), *Onceborudia* (Arandigoien, 1801), *Dorregibela*, *Dorrondoa* (Aritzaleta, 1825, Aizkoa, 1826), *Dorra guibela* (Lezaun, 1605), *Dorondoa* (Aizkoa, 1688), *Dorrondoa* (Metauten, 1689), *Dorrosondoa* (Aritzaleta, 1612), *Dorronsóndua* (egun), *Goberariinsaurraldea* (Eraul, 1571), *Mochologanto* (Murelu, 1770), *Vicuchuria* (Eraul, 1797). Beste anitzetan, berriz, ahoskabea dago, batez ere *kapana*, *kisu*, *korrale*, *korte* eta *tipula*-ren eratorrietan.

7. *-r- / -d-* nahasketa ere kausitzen dugu, zenbait aldiz: *Iduzpégi* (Lezaun, < **Iruzpegi* < **Iguzpegi*), *Irunbiria* (Zabal, 1832), *Irumbidea* (1895), *Irumbídias* (orain), *Lauzaria*, *Lozadividia* (Eraul, 1830), *Telleriburua* (1581), *Telleria* (1757), *Telledi* (1823), *Zumaria* (Aritzala, 1792).

8. Palatalizazioa *i* bokalerdia + *nV* testuinguruan bistakoa da, hots, *inv* > *ñV* gertatzen zela garbi dago: *Argiñagáña* (Aritzaleta), *Arluziagáña* (Abartzuza), *Ascargaña*, *Azcargaña* (1705, Arandigoien), *Escargaña* (1827), *Eskargáña* (orain), *Azpirigáña* (Abartzuza, segur aski aurreko *Ezpeldigaña* batetik), *Gañondoa*, *Gainondoa* (1703), *Gañóndua* (Lezaun)… Ameskoa aldean eta Lanan, berriz, despalatalizazioa nabarmena da egun: *Izurigáina*, *Izurugáina* (*Arzurigaina*, 1735, *Aizurigaina*, 1751n; Aranaratxe / Eulate), *Oiuagáina*, *Iyugáina* (Aranaratxe), *Arzagáina*, *Kainuéta* (Larragoa), *Mendigáina* (Bakedao)…, eta Burundan ere bada (Salaberri, 1989: 56 eta hurr.).

9. Palatalizazioarekin jarraikiz, garbi dago, baita ere, *itV* ibiltzen zela, busti gabeko aldaera alegia: *Iturkáiza*, *Iturzéta*, *Kanalitúrrias*, *Lazitúrria* (Abartzuza), *Ikestúrri*, *Las itúrrias*, *Olitúrri* (Lezaun), *Txikitúrri*, *Intxikitúrri* (Hiriberri), *Iturróz* (Zabal). Bestela, *itxurri*-ren modukoak opatuko genituzke, Iruñerrian-eta bezala.

10. Hasperenketaren aztarnatzat, hego-nafarreraz idatzitako testuetan gertatzen den gisan, *g* aurkitzen dugu inoiz: *Ygueravidea* (Hiriberri, 1796), *Ligasorota* (Aritzaleta, 1781).

11. Aipatu testuetan maiz gertatzen den moduan, horzkari aitzinean *z / s* zalantza azaltzen da zenbait aldiz: *Anoztarrenekoa*, *Aoztegizuria*, *Artadi gaztea* (Errezu, 1595), *Arraztia*, *Arraztia* (1597), *Arrastiguibela* (1678), *Arrasti Zulua* (1778), *Aistondoa* (Iruñela, 1818, DH, 163. org.), *Aiztondoa* (1830), *Ualeztatua* (1371, Aritzala), *Valeztatua* (1549), *Valestatua* (1700), *Berastátua* (egun), *Belaztoquia*, *Belastoqui* (Lezaun, 1500), *Belastoqui* (1830), *Belastóki* (orain), *Bustínzia* (Zurukuain)… Ikusten denez, lekuko zaharrek hobeki atxikitzen dute bizkarkaria geroagokoek baino; zentzu berean mintzo da aipatu dugun Eraulgo 1564ko gonbit mezuko *ezteietara*. Belare aitzinean ere egoera antzekoa bide zen, baina irudi luke *–z-* hobeki gorde dela: *Azkarrándia* (Lezaun), *Vizcargaña* (Aritzala, 1828), *Bizkardáña* (gaur egun)… Cf. eztei gonbiteko *ezconcenzagu* ‘ezkontzen zaigu’.

12. Txistukari atzean herskari ahostuna zenbait aldiz ahoskabetzen da, baina beste zenbaitetan ez, eta inoizka txandakatzea dago: *Muezgaratea* (Hiriberri, 1563) > *Muezkarate* (1757, 1771) > *Mozkarate* (1791), *Mozkaráte* (egun), *Arizdia* (Aritzaleta, 1833), *Aizcorria* (1701) / *Aizgorria* (1729, 1832), *Izcorrieta* / *Ezgorrieta*, *Izgorrieta* (1895), *Igorriéta* (orain, Allotz), *Muezpidea* (Hiriberri, 1581) / *Muezbidea* (1823, 1830).

13. Sudurkari atzean txistukari neutralizazioa dugu kasuren batean: *Ospintxagár* (Lezaun, egun; 1612an *Ozpin sagarra* dokumentatzen da. Etimologiarako cf. Artatzako XVI. mendeko *Sagarrozpin*, *Sagar ozpina*, *Sagarrozpina*), *Benchoroa* (Eraul, 1787; elkartuaren bigarren osagaia *soroa* ‘alorra’ bada behintzat).

14. Behin edo beste, eta toponimoaren desitxuraketarekin erlazionaturik dagoela, *[x] > [k]* aldakuntza aurkitzen dugu: *Osapasaque* (Allotz, 1829), *Osopasaquia* (1898), *Sopasájes*, *Sopasájias* (orain), *Muculuberriondoa* (Eraul, 1830), *Mukulubérri*, *Monjalibérri* (Abartzuza), *Mujolibérri* (Zabal), *Mukulubérri* (Zurukuain).

15. Morfologiari dagokionez, deklinabideaz ezin dugu gauza handirik erran; badakigu leku genitiboan, izen arruntetan edo arruntzat hartutakoetan, *-ko* agertzen dela bokal ondoan (*Arrastia / Arrasticogaña*, Aizkoa, 1829, *Quisudicosoroa*, *Udalondoco soroa*, Aritzaleta, 1612) eta *–s* ondoan (*Aurcascoa*, 1609, 1631, 1708, 1778, 1830, *Aurcascua*, 1830, *Oskáskuas*, egun Lezaunen),

nahiz azken testuinguru honetan behin edo beste *–eko* ere kausitzen dugun: *Aurcasecoa* (1689). Hitza diptongoz akitzen delarik ere agertzen da hondarreko aldaera hau: *Celayecosoroa* (Aritzaleta, 1612), eta berdin sudurkariz bukatzen denean: *Araneco soroa* (Iturgoien, 1576). Hemen nabarmentzekoa da Abartzuzako 1819ko *Erditacobidea*, zein *DCL*-ko «*dedo de medio* erditaco asça»-rekin eta Lazarragaren laneko *erditan*-ekin (*«…çeynçuen erditan etoçen Sirena ta Silvia soca bategaz escu delicaduac loturic lepora»*, 13. org.) bat baitator.

16. Tarteka adlatiboa ere opatzen dugu, baina gutxitan baizik ez: *Usurabidea* (Murugarren, 1832; ez dakigu seguru hemen adlatiboa dagoen), *Çubirabidea* (Zurukuain, 1601).

17. Atzizkien sailean, erran dezakegu Deierrin beti *–di* dugula, ez Ameskoagoieneko *–dui* (*Artadúia*, *Azpildúia*, *Sagastúia*), Ameskoabarreneko *–dui* (*Aranzadúia*, *Otadúia*, *Txapardúia*), *-doi* (*Izardóia*, *Lizardoya* 1914an) edo Lanako *–doi* (*Txipidóia*, *Zumadóia*): *Aranzádias* (Abartzuza), *Arrádia* (Allotz), *Artaibéla* (Aritzaleta, < *Artadigibela*), *Artaibúru* (Lezaun, < *Artadiburu*), *Lizárdia* (Aritzaleta), *Truskadia*, *Zumádia* (Abartzuza), *Txipudi* (Hiriberri)…

18. Era berean, *-tze* izan bide da ibar honetako aldaera, honen eta *–tza*ren arteko harremanak, hemendik kanpo ere, zeharo argi ez egonagatik, gure irudiko: *Chindelacia* (Abartzuza, 1830), *Legárze* (Lezaun), *Bustínzia* (Zurucuain), *Tipulazea* (Ugar, 1830). Hauetaz landa, eta besteak beste, nonahi agertzen den *ardantze* eta *euntze* dugu (Aritzalan pare bat aldiz *eutze* azaltzen da: *Euçeberrja*, *Euçeburua*; orain Aritzaletan *Unzándia* dago [< *Euntzeandia*], eta Zabalen *Antxaluzéa*, *Euncheluzea* 1729an), bai eta ere *baratze* zabaldua.

Azken honi dagokionez, franko garbi dago *baratze* aldaera Deierrikoa zela eta *baratza* Allinera orduko azaltzen zela, Aramendiko 1697ko *Andico barazac* argiak erakusten duenez. Cf., gainera, ondoko hauek: *Baraza andia* (Ekala, c. 1800), *Barazabitartea* (Artatza, 1700), *Baraza erbina* (Eultz, 1726), *Barazandia* (Ekala, 1703), *Barazaburueta* (Artatza, 1705), *Barazaondoa* (Gollao, 1600)… Alabaina, gure usteari kontra egiten dioten datuak ere badira: *Baraze bitartea* (Artatza, 1694), *Baraçeguibela*, *Barace guibela* (Biloria, 1678, 1689). Hemen gogoan hartu beharra da Ameskoa-Lanetan gutxienez, egungo mendebaldeko hizkera batzuetan agitzen den moduan, *-a + -a > -ea* disimilazioak berez *–e*-z bukatu hitzak *–a*-z bukatutakoekin nahastera eraman zituela hiztunak; cf. Gastiaingo *Ynchaur landara* (ikus Salaberri, 1998: 52-53). Gesalatzen *baratze* zegoela erakusten du Muezko *Beango barazea* toponimoak.

19. Atzizkien sailetik atera gabe, *-zai* dugu Hiriberriko 1783ko *Errotazaienecoa* oikonimoan, euskara galdu den Nafarroako Erdialde zabalaren puska handi batean bezala. Atzizki hori bera dugu oraintsu arte bizirik egon den Eraulgo *txerrizai* hitzean (Satrustegi, 1991: 121-122).

20. Leku izenek salatzen duten hiztegiaz den bezainbatean, Aizkoako 1548ko *Vengo barridea* toponimo polita azpimarratu eta nabarmendu nahi dugu. 1998ko lanean genioen bezala, *barride* Aizkoan ez ezik Ziraukin ere (*Yturgaizvarridea*, 1573) aurkitzen dugu toponimian eta Elkanon ere ibiltzen zen, Joakin Lizarragaren izkribuak lekuko; Aezkoan oraino bizirik dago adiera horrekin. Altsasun K. Izagirrek *barride* bildu zuen, baina Erdoziak oraintsuko lanean (2004: 51, 62) *auzo* eta *barriyo* baizik ez ditu jasotzen. Ondarrak (1965: 22) Bakaikuko *Anbea* (cf. Nafarroan barna franko errepikatzen den *Anbera*) eta *Angoia* aipatzen ditu, *herri* duen *Elbarrena* eta *hiri* duten *Idabarren* edo *Iriabarren*, *Irondo* eta *Irimendikogaina*-rekin batean. Barbarinen *Aldagoiena* eta *Aldabarrena* dokumentatu ditugu 1571n eta 1584an (Salaberri, 1998: 77; cf. Uxueko *Aldabea*).

Lezaungo 1608ko *Dinda*-k hego-nafarrera mintzo zen alderdi zabal bateko toponimiarekin lotzen du herri hori; cf. Iruñeko *Dindatxikia*, *Urradinda*, *Zakudinda*. Auzoez jardukitzean, eta kontzeptu hau dokumentazioan aski labainkorra izanik ere, Abartzuza bezalako herri batek zuen ugaritasuna nabarmendu nahi dugu. Ondoko hauek kausitu ditugu: *Irigoien* (*Barrio de arriba* erdaraz), *Legartzea*, *Mendia*, *Moratzea*, *Zugarrondoa*. Hauek, argi eta garbi, herriaren garai bateko euskalduntasuna frogatzen dute. Izan ere badakigu XIX. mendearen erdialdean bizirik zegoela gure hizkuntza Abartzuzan eta Eraulen (Satrustegi, 1991: 121). Lezaunen *Bazterra* (edo *Basterra*), *Dinda* eta *Irigoien* zeuden (Sainz & Sainz, 96, 114, 179), besteak beste segur aski. Cf., gainera, Eraulgo 1832ko *Arrebala* (Deierriko Hipotekak, 115. or.).

21. 1998ko lanean Ameskoa-Lanetan *baso* genuela genioen, Burundan eta Ergoienean eta Arañatz aldean bezala, eta lehen *oihana* Arruazun opatzen genuela, *baso*-rekin batean, Erdoziak (2004), Sakanan, azken honetaz besterik jasotzen ez badu ere. Orain sei urteko artikulu hartan erraten genuen *oihan*, mendiez hegoaldean, Deierrin hasten zela azaltzen, eta izan ere horrela da, nahiz eta Aizkoan *Basabea* ere badugun, 1571z geroztik (*Basábia* erraten zaio gaur egun). Gainerakoan, bai dokumentazioan eta bai oraingo toponimia bizian, *oihan* besterik ez dago, aipatu Aizkoako leku izenaz landara: *Oianandia*, *Oianberria* (Lakar), *Oianbidea* (Aizkoa, Zurukuain), *Oianondoa* (Aizkoa, Aritzala, Errezu, Lezaun, Ugar), *Oianzabal* (Iruñela), *Oiantxipia* (Ibiriku), *Oianzabala*, *Oiartzun* (Aizkoa)… Bizirik daudenak Abartzuzako *Oianandia*, *Oianberria* (*Oinándia*, *Anberría* orain) eta Lezaungo *Oiantxíki* dira. Bonapartek *oyan* bildu zuen Elkano, Gares, Oltza eta Goñin (Ondarra, 1982: 138).

22. Ondarrak Bakaikurako *Beko-* dakar (1965: 21-22): *Bekobaso*, *Bekoiturri* (cf. *Goikobaso*, *Goikogain*, *Goikolanga*, *Goikolarraineta*). *Bea(t)*, 1998ko lanean genioenez, Errezun agertzen da: *Beasoroeta* (1557, 1568), *Veat soroeta* (1589), *Billasóta* (orain), baina ez, dakigunez, hemendik kanpo inon. *Beitiko*, ditugun datuen arabera, mendebaldekoenik Iguzkitza Doneztebeko Barbarinen kausitzen dugu: *Beitico yturria* (Salaberri, 1998: 69). Iguzkitzako Oteitzan, berriz, *Beiti* hutsa dago: *Beytilacar* (1657), *Beitilacarra* (1791) *Be-*

tilakárra (orain). Eraulen *Sarasagabeyticoa* (Deierriko Hipotekak, 109. or., eta *Sarasaga goticoa*) zegoen 1797an eta Aizkoan *Beitticosoroa* 1780an.

Itzarbeibarko Legardan ere agertzen da *beiti*, *El prado debajo* itzulirik aurkitzen dugun *Beytico euncea* toponimoan, eta ohikoa da hortik ekialderako datuetan. *Bengo* toponimian, aitzinean nahiz gibelean paratua, gehienbat Ameskoan eta Lanan opatzen dugu (ikus Salaberri, 1998: 68-69; cf., gainera, Sainzek & Sainzek, 2002: 185, biltzen duten Bakedaoko 1600eko *Iturribengoa*); Gamizek honela dio bere sorterriaz: «*Sabando con sus Ayares / con Arboro, y bengo baso / Yguiriaga y goico baso / y otros montes singulares*» (Goikoetxea, 2002: 39).

Hemendik kanpo eta betiere toponimiaz mintzo garela, aipatu dugun Aizkoako *Vengo barridea* dago, Estenozko 1521eko *Bengolarrayna* eta Urdozko 1518ko *Eliça vengoa aurrea*. Egia da, bestalde, oikonimian franko agertzen dela *bengo*, *Bengoetxea*, *Bengotxea*-ren modukoetan, Arakil, Larraun, Basaburu Nagusi, Ultzama eta Gulibarraino, gutxieneko kontuan. Ez dakigu zein heinetan azaltzen den *Beitikoetxea* erabili den lekuetan; hau, ezbairik gabe, hobeki aztertu beharreko gaia da. Gesalazko toponimian, bestalde, *Bengo* horren ahaide hurbila den *Beango* dago Muezko 1568ko *Beango laeçeta*-n (*Beangoliatzeta*, alegia) eta 1586ko *Beango barazea*-n, eta Arzozko 1577 eta 1589ko *Beango nobeleta*-n. Nolanahi ere Muzkiko testuetan *goitico aldean*, *veitico aldean* dago.

23. Bestalde, Deierrin beti *ariz* ‘haritz’ dugu, behin ere ez Lana-Ameskoetako *araiz* (*areiz* inoiz). Era berean, *lizar* dago gure ibarreko leku izenetan (cf. Abartzuzako *Lizarráte*), ez Lanako eta Ameskoagoieneko *elizar*. Bide beretik, *itxaur* ‘intxaurra’ aurkitzen dugu Deierrin, Eraulen 1571n *Goberarj Jnssaurraldea* eta Hiriberrin 1567an *Ysaustia* badago ere. Arabako mugako ibarretan usu, baina salbuespenekin, *intsaur* irakur daitekeena dugu eta artetan *untsaur* ere bai. Sakanan (Erdozia, 2004: 147) *intxor* dago. Bonapartek *intxaur* bildu zuen Elkano, Gares, Oltza eta Goñin (Ondarra, 1982: 149).

24. Deierrin beti *muno* dago, behin ere ez Ameskoan artetan kausitzen dugun *mulo* (ikus Salaberri, 1998: 71).

25. Azentua. Hemen azpimarratzekoak dira egungo zenbait hizkeratan oraino ohikoak diren *Arraldia* [arráldja], *Arrondua* [arróndwa], *Berangua* [berángwa], *Lizardia* [lizárdja], *Urtiaga* [urtjága], *Zaldwa* [záldwa]-ren moduko ebakerak (Aritzaleta, *NTEM-XXVI*, 96-97, 99, 102). Badira, halarik ere, *Errotaldéa*-ren tankerakoak (Zurukuain, *NTEM*-XXVI, 206).

26. Deierrin badaude mendebalderagoko haranetan ere ibiltzen ziren hitz edo aldaerak, hala nola *leze* (ez *leize*), *sakan*, *soro* (ez *alorra*), *ugalde*…

27. Bukatzeko, erran nahi dugu Deierriren eta Arabako mugako ibarren arteko alderaketa egitean opatzen ditugun gauzetan ez ezik agertzen ez dire-

netan ere oinarri gaitezkeela, edo, hobeki erran, oinarritu behar dugula. Ikusi dugu *–ki* atzizkia inoiz azaltzen dela Deierrin, baina arrunt urria da, bi lekuko besterik ez dugu: *Idoiqui*, Lezaun, 1657, *Munoquia*, Abartzuza, 1555, 1799, *Monókia* edo *Monokía* orain. Ameskoa-Lanetan, berriz, ugaria da hagitz. Interesgarria litzateke, are beharrezkoa, Arabako ekialdeko toponimian *–ki* ageri denez aztertzea, bakarrik Ameskoa-Lanetako espezifikotasuna den edo, susmatzen dugun bezala, ibar hauek Arabako ondokoekin lotzen dituen ezaugarria den garbi jakiteko.

Beste ezaugarri bat, Ameskoa-Lanetan ugaria izanagatik Deierrin aurkitzen ez duguna, *satznamenak* dira, zehazkiago erran, erlatiboetan oinarritutako toponimoak. Egia da Abartzuzan *Donde salta el agua* bizirik dagoela (*NTEM-XXVI*, 37), Uharte Arakilgo *Ura sortzen dena*-ren baliokidea edo dena, baina horretaz landara ez dugu besterik kausitzen, ez egungo toponimia bizian ez eta ere dokumentazioko lekukotasun ugarietan. Ameskoa-Lanetan, aldiz, Kontrastan eta Sakanan bezala, erlatibo-toponimo mordoxka opatzen dugu (ikus Salaberri, 1998: 77-78).

Bibliografia

Agud, M. & Mitxelena, K. (1958): *Dictionarium Linguae Cantabricae (1562)* (*DLC*), Julio Urkixo Mintegia, Gipuzkoako Aldundia, Donostia.

Camino, I. (2004): *Hego-Nafarrera*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

Erdozia, J. L. (2004): *Sakanako Hiztegi Dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua, Euskaltzaindia, Villatuerta.

Etxaniz, P. (1999): «Dikazteluko sermoia», *FLV* 82, 483-499.

—— (2004): *Lizarrako euskara. Historia de la lengua vasca en Tierra de Estella*, Altaffaylla, Udalbiltza & Nafarroa Oinez ’04 & Lizarrako Udala, Tafalla.

Euskaltzaindia (1990): *Nafarroako Herri Izendegia* (*NHI*), Nafarroako Gobernua, Iruñea.

Goikoetxea, I. (1982): *Juan Bautista Gámiz Ruiz de Oteo. Poeta Bilingüe Alavés del Siglo XVIII*, Arabako Foru Aldundia & Euskaltzaindia, Gasteiz.

Izagirre, K. (1967): «Altsasuko euskeraren gai batzuk», *ASJU* 1, 45-97.

Jimeno Jurio, J. M. (zuz.) (1991tik aitzina): *Nafarroa. Toponimia eta Mapagintza / Navarra. Toponimia y Cartografía* (*NTEM*), Nafarroako Gobernua, Iruñea.

Knörr, H. & Zuazo, K. (1998): *Arabako Euskararen lekukoak. Ikerketak eta Testuak / El Euskara Alavés. Estudios y Textos*, Euskal Azterlan Bilduma-7, Eusko Legebiltzarra, Gasteiz.

Lekuona, M. (1973): «Textos Vascos del siglo XVIII en Tierra de Estella», *FLV* 15, 369-390.

Mitxelena, K. (1964): *Textos Arcaicos Vascos* (*TAV*), Minotauro, Madril.

Ondarra, F. (arg.) (1982): «Materiales para un estudio comparativo del vascuence de Elcano, Puente la Reina, Olza y Goñi», *FLV* 39, 133-228.

Perez de Lazarraga, J. (2004 [c. 1567]): *Juan Perez de Lazarraga Larrea Dorretxeko jaunaren eskuizkribua [1564-1567]*; Gipuzkoako Foru Aldundiak sarean ezarri du lan hau, http://www.gipuzkoakultura.net/lazarraga helbidean. Bada, orobat, P. Urkizuren argitalpen ez oso fidagarria (*Dianea & Koplak*, Erein, Donostia, 2004).

Sainz, Mª I. & Sainz, J. (2002): *Toponomástica Histórica en Tierra Estella y Valdizarbe*, Euskara Kultur Elkargoa, Iruñea.

Salaberri, P. (1994): «Elizalderen *Apezendaco dotrina christiana uscaras*», *FLV* 65, 7-39.

—— (1998): «Arabako mugako nafar hizkeren inguruan», in *Nafarroako Hizkerak*, I. Camino arg., UEU, Bilbo, 49-87.

Satrustegi, J. M. (1987): *Euskal Testu Zaharrak-I*, Euskaltzaindia, Iruñea.

—— (1991): «El euskera en Tierra Estella. Evolución histórica», *Euskera* XXXVI, 93-124.

Zuazo, K. (1994): «Burundako hizkera», in R. Gómez & J. A. Lakarra (arg.), *Euskal Dialektologiako Kongresua*, *ASJU*-ren gehigarriak, 28. zkia., Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 297-364.

ESTELLERRIKO EUSKARA ARABAKO ETA NAFARROA GARAIKO HIZKEREN BIDEGURUTZEAN

Lizarra, 2004-IX-17

Iñaki Camino

1. Con ocasión del *Nafarroa Oinez* 2004 de Estella, se nos brinda la oportunidad de tomar parte en esta conferencia, lo que agradecemos sinceramente; intentaremos esbozar brevemente en castellano, las líneas básicas de los temas que vamos a tratar en esta comunicación. Volveremos a recordar aspectos sobre el euskara de Tierra Estella que hemos ofrecido en anteriores publicaciones y nos limitaremos a comentar cuál es la situación actual en lo referente a su conocimiento. Lógicamente, son textos escritos hace ya más de un siglo los testigos de las modalidades dialectales o habla popular vasca de la zona, y ellos son los que nos transmiten sus características. Puesto que son los más extensos y los que mejor muestran la peculiaridad del habla de Tierra Estella, citaremos sobre todo textos de los siglos XVIII y XIX.

2. En principio, deberíamos justificar el título de la alocución: es lógico que particularidades dialectales del occidente del país, características del euskara de Álava y de Vizcaya, lleguen a Tierra Estella, pues esta zona linda con el este de Álava: nadie se extraña de que tales características lleguen al Goyerri o al valle del Urola en Guipúzcoa o a la Burunda en Navarra. ¿Por qué debiéramos de extrañarnos por encontrar fenómenos que creíamos típicamente vizcaínos y alaveses en las Améscoas o en Lana en Tierra Estella? Con su afinada visión Koldo Mitxelena ya nos puso sobre aviso (Agud & Mitxelena 1958: 39):

> ...*domeka* 'domingo' está en uso en cinco puntos del extremo SO del área de habla vasca de Navarra, lindante con Alava (Alsasua, Iturmendi, Bacaicoa, Urdiain, Olazagutia), y *zapatu* 'sábado' en Navaz (Juslapeña, al NO de Pamplona). Es verdad que para los cuatro días de la semana no se conocen otros nombres, con más o menos variantes, que *astelen, astearte, asteazken* y *or(t)z-* u *ostegun*, pero ¿quién se aventurará a asegurar que ocurría esto mismo en el siglo XVI en la zona meridional hoy castellanizada?

Cuatro años después insistía en parecidos términos: «Cada vez tengo más motivos para pensar que, en materia de léxico vasco, son ciertas zonas del

oeste de Navarra, mal estudiadas, las que nos pueden deparar mayores sorpresas» (1962: 58). Veinticinco años más tarde, comentando los textos que José María Satrustegi publicó en 1987, mantenía su deseo de que los textos navarros fueran analizados desde una perspectiva novedosa: «ya que nos es dado conocer estos textos antiguos, tendremos que empezar a estudiar el euskara de Navarra desde cero» (Satrustegi 1987: 206).

En el recientemente descubierto decálogo de Artaza, pueblo de Améscoa Baja, encontramos características de la mitad occidental de la extensión que ocupa la lengua vasca, y nos recuerdan las formas de las poesías de Joan Pérez de Lazarraga, alavés de la llanada de mitades del siglo XVI, tales como *dau* 'du', *baga* 'gabe', *diranak* 'direnak' o *ekarte[n]* 'ekartzen'; este último sufijo *-ten* es el mismo que hallamos en las zonas más orientales del país, tales como Mixe o Amikuze en la Baja Navarra, país de la Soule o Zuberoa y valles de Salazar y Roncal en la Alta Navarra. Al otro lado, podemos escucharlo en boca de euskaldunes vizcaínos de hoy en día, pero su distribución geográfica y su aparición en textos antiguos, nos revela que estamos ante una característica arcaica.

Tal como ya nos advertía Patxi Salaberri Zaratiegi (1998: 51), una vez que nos alejamos de Estella hacia el oeste, se observa que los nombres de lugar cambian sus formas y que, lo que en el valle de Yerri se llama *Iriberri*, se convierte en *Iribarri* (nombre oficial *Ulibarri*) y que lo que cerca de Estella es *Zubielki*, se convierte en *Zufia* si nos acercamos a Álava. Dentro de Navarra, pero en los confines de Álava, hallamos formas con un color francamente occidental, tales como *errekea* (Eulate, 1687), *Araiztubalza* (Eulate, 1688), *Lanbarri* (Eulate, 1687), *Arimazufi* (Zudaire), *Buarra* (en topónimos de Améscoa Alta y Lana, cf. común *bular*), *gereiza & kereiza* (Améscoas y Lana), todas ellas formas halladas y analizadas por Salaberri.

3. Personalmente, creemos que ha sido Patxi Salaberri Zaratiegi quien mejor ha identificado el euskara de esta zona en su trabajo sobre toponimia de 1998, al caracterizar las hablas de las Améscoas y de Lana junto a la de la Burunda y las del este de Álava, como transicionales con respecto al euskara occidental; entre estas y el habla del dialecto navarro del valle de Yerri, situó las de Allín y valle del Ega. Tales afirmaciones están hechas con datos fragmentarios, pero una vez más, Salaberri ha sabido utilizar los datos proporcionados por la toponimia adecuadamente y ha conseguido frutos importantes, que nos han posibilitado conocer mejor la modalidad vasca de Tierra Estella.

Muy al contrario, y a pesar de contar con las posibilidades que permite la utilización de textos más extensos, se ha pretendido relacionar las modalidades más o menos conocidas del euskara de Valdegoñi y del valle de Guesáláz, con las hablas alavesas; también el vasco de Valdizarbe, habla de la cual sabemos bastante poco, tal como ocurre en el caso de Puente la Reina, ha sido citado como susceptible de ser adjuntado al antiguo euskara de Álava. Tales

afirmaciones han sido hechas sin conocer la realidad de los datos, pero no hay que extrañarse demasiado con estas cosas. En cuestiones de dialectología vasca, es muy común que una simple intuición nos sea presentada como algo que parece probado, por muy injustificada que sea, o que una hipótesis ascienda a la categoría de teoría a juicio de quien la mantiene; uno tiene a veces la sensación de que alguien le anda vendiendo ideas, que por atrevidas y audaces que parezcan, no dejan por ello de estar alejadas de la realidad de los hechos.

4. Por supuesto, todos estos trabajos de dialectología sobre zonas con el euskara en recesión, o donde el vasco folk, ese que nos sirve a los dialectólogos para poder trabajar, se ha extinguido, se realizan porque alguien dejó textos escritos en lengua vasca los siglos XVIII y XIX: en concreto, podemos citar la doctrina cristiana de Francisco Elizalde, natural de Muzqui, publicada en 1735, la predicación de los Martínez de Morentin, también de Muzqui, del último tercio del XVIII, el sermón aparecido en Dicastillo, el decálogo de Artaza que comentábamos al principio y los múltiples sermones del siglo XVIII escritos por Juan Martín de Ibero, natural de Munárriz, Valdegoñi: este escritor anterior a Joaquín Lizarraga de Elcano y que ha sido descubierto por el académico de Bacaicoa Frantzisko Ondarra, ejerció de párroco en el pueblo de Izu, en la cendea de Olza.

No debemos olvidar que Martín Portal, escritor de unos versos con ocasión de las fiestas del Corpus el año de 1610 para un certamen de Pamplona, era probablemente amescoano: el habla que aparece en los versos nos muestra características occidentales y algunas centrales, susceptibles de aparecer en Álava o en el occidente de Navarra; algunas de estas características han sido tildadas hasta tiempos no muy lejanos de vizcaínas o de guipuzcoanas occidentales: *aitea* ‘aita’, *profeteak* ‘profetak’, *pobrezea* ‘pobreza’ en fonología, *gison* ‘gizon’ en cuanto a la pronunciación, *birjinaen* ‘birjinaren’, *aen* ‘haren’ en morfología nominal, *daroela* ‘daramatela’, *digus* ‘dizkigu’, *egizu* ‘ezazu’, *deu* ‘du’, *deue* ‘dute’, *neuan* ‘nuen’, *dezu* ‘duzu’, *zan* ‘zen’, *ziran* ‘ziren’, *iregi* ‘ireki’, *egondu* ‘egon’ en morfología verbal, y algunas variantes léxicas del tipo de *orain* (pero también aparece *orai*, muy difundida en Navarra) o *irten*; salvo este último *irten* o el pleonástico *egondu*, todas estas formas podrían pertenecer al habla del alavés Pérez de Lazarraga.

No cabe duda de que el análisis pormenorizado de estos textos, permite que posteriormente los filólogos formulen hipótesis y redacten trabajos de diversa índole sobre la clasificación de las hablas y de los dialectos vascos. En el caso de las Améscoas, es notorio que sus textos deberían ser analizados teniendo en cuenta la posición absolutamente central que estos valles ocupan con respecto al conjunto de Euskal Herria: este de Álava (ahora deberíamos incluir las poesías de Joan Pérez de Lazarraga y las formas de García de Albeniz de Araya), occidente y sur de Guipúzcoa y occidente de Navarra son enclaves a tener en cuenta a nivel lingüístico, para quien pretenda analizar el

habla que nos muestra la poesía de Portal, que probablemente es el euskara de la Améscoa.

5. Uno de los mayores hándicaps del dialectólogo, es el de enfrentarse a datos fragmentarios, pues de ahí pueden derivarse visiones metonímicas y a la postre erróneas. Si mantenemos que el vasco del valle de Guesálaz forma parte del navarro meridional, debemos precisar que su situación geográfica es marginal con respecto al núcleo de este subdialecto; también hay que aducir que la falta de textos de distintas épocas ofrece dificultades de interpretación, sin olvidar que los datos que poseemos del siglo XVIII no son todo lo completos que desearíamos. Desconocemos si en el siglo XVIII en Guesálaz el morfema ético masculino era *t*, como en navarro meridional, o era *k*, forma más común; no sabemos si las formas potenciales de pretérito eran del tipo de *zukea* 'podía' o del tipo **ezan*, pues faltan indicios que apunten en una u otra dirección.

Ocurre además, que en los únicos documentos que nos muestran el vasco genuino de Guesálaz, que parecen ser los de Muzqui, en los sermones tercero y cuarto de Francisco Antonio Martínez de Morentin aparecen características propias de tendencias lingüísticas más centrales, que encontramos en Guipúzcoa, junto a otras más propias del navarro-meridional. No es fácil saber a ciencia cierta si en Muzqui a finales del XVIII, las formas *esan, gutxi, arkitu, topatu, zenduela* o *genduke* eran empleadas, eran mayoritarias o minoritarias, o si se deben al influjo literario central procedente de Guipúzcoa; lo cierto es que en los textos de Guesálaz las formas *erran, guti, opatu, zindue, zinduke* o *gindue* son mayoritarias. A falta de más documentos las dudas persisten y estas consideraciones, no dejan de ser fundamentales para dilucidar a qué grupo dialectal pertenece el habla vasca del siglo XVIII del valle de Guesálaz.

6. Hari beretik, hain zuzen ere, inguruko testu bat baino gehiago dagoelako eta Estellerriko euskararen erakusgarri jatorrak direlako, harriturik utzi gaitu berriki atera den zabalkunde lan bateko hainbat pasartek: *Lizarrako euskara. Historia de la lengua vasca en Tierra Estella* liburuan, Estellerriko euskara hegoaldeko goi-nafarrera dialektoaren barrenean kokatzen da. Alde batetik, Lanan eta Ameskoetan mendebalekotzat eta erdialdekotzat jo ditzakegun hainbat ezaugarri ageri direla ahazten da; bestalde, ohitura makurren ildotik, ez da aintzat hartzen ikerketek ekarri ohi duten berrikuntza: Estellerriko euskara aztertzeko, Zuazo 1994 eta Salaberri Zaratiegi 1998 ezin saihestuzko ekarriak dira, guk uste.

Berebat, zabalkunde lan honetan Estellerriko euskara, hego-nafarrera dialektoari zegokiola adierazten zaigu. Dialektotzat jo ahal izateko hizkera batek bete behar dituen baldintzez ez da deus aipatzen eta hego-nafarrerari atxikitzen zaizkion ezaugarrietan, ez dugu uste asmatu denik: guk ez dugu ulertzen, erlatibozko perpausen hurrenkera «desegokia» dela esatean, dialektologiaren

alderditik zehazki zer adierazi nahi den; aditz nagusia eta laguntzailea batetik, eta izena eta *bat* zenbatzailea bestetik, dialekto horretan elkarturik ageri direla adierazten zaigu, baina apezek euskaraz idaztean hitzak grafikoki horrela eman izanak ez dio eremu honetako mintzoari inolako berezitasunik eransten, ez dugu ulertzen horrek dialektologian zer garrantzi izan dezakeen. Berebat, soziatiboko *-ki* eta instrumentaleko *-s* atzizkiak ez dira hizkera hau aurkezteko ezaugarri egokienak: *-s* aldaerari gertatzen zaion bezala, hego-nafarreraz landako eremuetan ere *-ki* ageri zaigu.

Euskal Dialektologia egitean teoriaren eta metodologiaren alderditik erabiltzen diren oinarrietan aitzinera joateko, badira guk uste, etorkizunean aintzat hartu beharreko ezaugarriak; honakoak izan daitezke horietarik batzuk:

a) Isoglosak finkatzean ezaugarriaren esklusibotasunaren berri zehatza ematea.

b) Dialektotzat jotzen den mintzo edo mintzoen talde horrek hartzen duen geografia-eremu guztiko ezaugarriak baliatzea, ez eremu batzuetakoak bakarrik.

c) Ezaugarriak sistematikoak izatea, gramatikan aski sakontasun maila izatea, fonologiak eta morfosintaxiak dutena, esaterako.

d) Baldintza kronologikoen berri zehatza ematea.

e) Ezaugarriak ahalaz eremu zabalekoak eta berrikuntzak izatea.

f) Idazkietako datuak bahe filologiko hertsitik iragatea.

7. Estellerrian dialektologiako lanak egiteko eremu emankorra da Goñerria-Gesalatz alderdi hori. Goñerriko euskara hobekixeago ezagutzen dugu Gesalazkoa baino, baina ez da hutsaren hurrengoa Muzki herriko Francisco eta Francisco Antonio Martinez de Morentin apezek beren lau predikuetan utzi zigutena. Gesalazko idazleon lana zertxobait aztertuz gero, berehala ikusten da Elizaldek baino hobeki islatzen dutela Gesalazko hizkera jatorra Martinez de Morentintarrek: ez dugu uste pentsa daitekeenik, XVIII. mendeko berrogeita hamar urtean, Gesalazko euskara horrenbeste dialektalizatu zenik. Elizalderen irakurleen unibertsoa zabalagoa zen: liburu bat argitara eman zuen eta erabili zituen hizkuntza-ezaugarri batzuetan, literatura-joera sumatzen dugu guk.

Ipar Euskal Herriko eta ekialdeko hizkuntza-ezaugarri batzuk Nafarroa Garaiko XVIII. mendeko idazki batzuetara hedatu ote ziren susma lezake batek, Elizalde *versus* Martinez de Morentin eta Eguesibarko Elkano herriko Joakin Lizarraga *versus* Bonaparteren Elkanoko datuak alderatzen baldin badira. Ez da hipotesi bat baizik, sakon aztertzea merezi duena: mugaz eskuinaldeko euskal liburu bat baino gehiago agertu da sasoi hartako Nafarroa Garaiko apezen liburutegien artean: Joakin Lizarragak, esate batera, Axularren *Gero*-ren edizio bat izan zuela badakigu.

Eman ditzagun adibide batzuk. Muzkiko Franzisko Elizalderena da ezkerreko aldaera eta Martinez de Morentintarrena eskuinekoa: *ailtzin / aurre, barur / baru, emaste / emakume, eraman / eramo & eraman, erran / erran & esan, eskui / eskubi, igan / igo, imini / paratu, sandu / sandu & santu, sinestatu / siñistatu.* Adibide gehiago eman daitezke, erdiguneko Euskal Herriko hitz eta aldaera lexikoak Gesalatzen ezezagunak ez zirela erakusten digutenak, Martinez de Morentintarren predikuetan ageri den euskarak, Gesalazko mintzo jatorra islatzen badu bederen: *abek & auek* 'hauek', *arkitu, beste* (baina badarabilte *bertze* ere), *bezela* (baina *bekala* eta *bezala* ere badira), *-etatik* ablatibo pluraleko atzizkia, *gutxi* (baina *guti* ere bada), *ill* 'hilabetea' (baina bada *illabete* ere), *iriki* 'ireki' (bada *idegi* ere), *topatu* (baina Nafarroako erdialdeko *opatu*-rekin batean). Adizkietan *zenduela* 'zenuela' edo *genduke* 'genuke' adibideak aipa ditzakegu, Gesalazko laugarren predikukoak direnak, baina Gesalazko idazkietan nagusi dira *zindue, zinduke, gindue, zindute, zinduzke, zinduzkete* saileko adizkiak; ezagun du hirugarren eta laugarren predikuetan ageri direla erdialdeko ezaugarri gehien Gesalazko idazkietan, Francisco Antonio Martinez de Morentinenetan, hain zuzen ere.

Hurrengo adibideotan, ezkerreko aldaerak Elkano herriko XVIII-XIX. mendeetako Joakin Lizarraga idazlearenak ditugu eta ondokoak, berriz, Bonapartek Elkanon XIX. mendeko bigarren erdian bildu emaitzak dira: *irur / iru, kristio / kristau, laur / lau, nigar / negar, zilatu / zulatu.*

Goñerriko euskaran Bonaparteren garaian ergatiboko kasuan numeroa ez da bereizten *-ak / -ek* morfemen bidez, *-ak* dira guztiak, baina 1783an hil zen Juan Martin de Ibero apezaren eskuizkribuetan, bereizten da; eragin literarioa izan daiteke arrazoia. Hala ez balitz, XVIII. mendean plurala eta singularra bereizten zirela eta mende erdi geroago bereizketa hori galdu zela eta arrastorik utzi gabe galdu zela onartzea beste biderik ez litzaiguke geldituko; XVIII. mendeko Gesalazko Morentintarren idazkietan ere, ergatibo singularra eta plurala ez dira bereizten, baina Elizaldek bereizten ditu.

8. Gehienbat Martinez de Morentintarren idazkiei esker Estellerrian zertxobait ezagutzen dugun Gesalazko hizkerari dagokionez, zertzelada batzuk eman daitezke:

a) Hego-nafarreraren barreneko hizkera da, baina bertan Euskal Herriko erdiguneko ezaugarri batzuk ageri dira.

b) Hizkera gordetzailea da Gesalazkoa: Goñerrian gauzatutako hainbat eta hainbat berrikuntza ez dira bertara iritsi: *didazu > dirazu, zinduke > ziñuke, zoaz > z(o)aza, dizkio > ditio*...; ezaugarriok ez dira Gesalazko idazkietan ageri. Bestalde, *dere* 'dira' edo *dirade* 'dira' berrikuntzak ez dira ez Gesalatzen ez Garesen ageri.

c) Ditugun datuak XVIII. mendekoak dira eta horrek ere kutsu gordetzailea ematen die bertako ezaugarriei.

d) Berrikuntza batzuk ditu Itzarbeibarko hizkerarekin batean, berenak bakarrik direnak: *zaitez* > *zait* ‘zaitez’ eta *zue* > *zu* ‘zuen’ apokopeak adizkietan, esate batera. Bi hizkerok dira euskararen barreneko hegoaldekoenak.

Hain zuzen ere, soilik Itzarbeibarren eta Gesalatzen ageri diren laburdura batzuei esker jakin dezakegu Deikazteluko predikuan ageri den euskara ere, aski hegoaldekoa dela: *zu* ‘zuen’ ezaugarri hau ez da hego-nafarreran iparreko edo ekialderagoko beste hizkeretan ageri. Deikazteluko predikuko euskara ez dakigu zehazki Deikaztelukoa den, baina badakigu arras hegoaldeko testua dela, predikuaren argitaratzaileak idazkiak inorako argibiderik ematen ez duela irizten baldin badio ere.

Gesalazko XVIII. mendeko euskaran hego-nafarreraren ezaugarri ugari ageri zaigu: lehen graduko *ebek* ‘hauek’ erakusle plurala, *gauren* ‘geure’ izenordain hanpatua, iraganeko adizkietan *-n* morfemarik eza, diptongoetako *eu* > *au* aldaketa, *arrazio* ‘arrazoia’ bezalako hitzetako *-oi* > *-io* metatesia, eta **ezan*-en adizki pluraletan morfema *-it-* izatetik *-zki-* izatera analogiaz iragan izana aipa daitezke; gehiago ere izan litezke, baina ez dugu Gesalazko mintzoa nahi bezainbat ezagutzen. Esaterako, Deikazteluko predikuko *zukea* ‘zezakeen’ ahaleko adizkia Muzkiko idazkietan ez agertzeak, ez du adierazten bertan erabiltzen ez zenik; ageri dena *ezaquela* ‘ez zezakeela’ da (Lekuona 1973: 390), gauzak areago nahasten dituena.

Bestalde, hego-nafarrera guztikoak ez diren, baina Gesalatzen eta ondoko ibar zenbaitetan ageri diren ezaugarri batzuk ere aipa daitezke, hizkerei eskualdeko kolore berezia ematen baitiete: *ei* diptongoaren *ai*-ranzko bilakabidea (zeina Arabako mendebaleko Araiako 1778ko idazki batean *edozain* aldaeran ageri den), Nor aditz saileko adizkietako *zara, gara* > *zada, gada* aldaketa, singularreko *-agi* eta pluraleko *-egi* atzizkietako *-gi* datiboko morfema, *prisakan* bezalako adibideetan *-ka* eratorpen atzizkia ordezkatu duen *-kan* aldaera berria, *eiek* ‘haiek’ erakuslea, *idegi & edegi* ‘ireki’ edo <*isai*> ‘izeki’ adibideetan aditz nagusian *-gi* morfema izatea, adizkietan bigarren pertsona pluraleko Nork morfema *-ze* izatea...

Ikusi dugu Euskal Herriko erdialdeko hizkuntza-ezaugarri ugari iritsi zirela ibar honetaraino, baina Martinez de Morentintarren idazkietan ageri diren hitz eta aldaera lexikoak adibide egokiak dira Gesalazko mintzoa Nafarroako euskaran ongi txertaturik dagoela jabetzeko:

ainbertze, aldiero ‘aldioro, bakoitzean’, *alikeko* ‘ahalik’, *alke, anaia, anitz, apez, arteo* ‘arte’, *aski, atari* ‘atea’, *atra* ‘atera’, *baitan* ‘*-gan* atzizkiaren adieran’, *bapera* ‘bakoitza’, *baratze, barrede* ‘auzoa’, *batio* ‘batera’, *beiti* ‘behera’, *beldur, bertze, bertzela, bezala, egotzi, egun* erdal ‘hodie’, *eriotze* (ikus orain Perez Lazarraga), *erran, erroi* ‘belea’, *ertxi* ‘estua’, *esperatu, galdein, goiti* ‘gora’, *goratu, guartu* ‘ohartu’, *guatze, igorri & egorri, iguzki* (Landuchiok ere badakar eta Koldo Zuazok Arratian eta Zeberion bildu du; Perez Lazarragaren lana ezaguturik, badakigu Arabako lautadan ere erabiltzen zela),

irur, karrika, kontent, kristio ‘kristaua’, *laster egin, manatu, mintzatu, mutil* ‘morroia’, *obeki, onbertze, ongi, orai, oraidanik, orduko* (*ill orduko* bezalako esaeretan), *oreitu* ‘oroitu’, *oreño* ‘oraindik’, *paratu* ‘jarri’, *sobra* ‘gehiegi’, *solo* ‘baizik’, *sortu* ‘jaio’, *ugalde* ‘ibaia’, *urbil, yago* ‘gehiago’.

Eremu murritzagoko beste hitz batzuetan, Gesalazko hizkera Nafarroa Garaiko erdialdeko hizkerei lotua dela, Sakana aldeko edo Iruñerri inguruko mintzoen eitea duela dakusagu: *baru* ‘baraua’, *bekala* ‘bezala’, *butzu* ‘putzua’, *daus* ‘deus’, *ekendu* ‘kendu’, *eraiki* ‘erein’, *eramo* ‘eraman’, *erre[n]* ‘arantza’, *gaste* ‘gaztea’, *geiltzen* ‘gelditzen’, *inior* ‘inor’, *opatu* ‘aurkitu’. Mendebalera jotzen duten bakan batzuk ere baziren Gesalatzen: *edegi* ‘ireki’, <*isagi*> ‘izeki, biztu’ eta *botadu* edo *mogidu*. Mendebalean erabiltzen den *petriñe* ‘gerrikoa’ mailegua ere, Leintz ibarrean nahiz Burundan eta Sakana erdialdean bildu dena, badakarte Martinez de Morentintarren idazkiek. Gesalatz bakarturik ez zegoela hainbat ezaugarrik erakusten digu: *zaizte & zaiste* ‘zaitezte’ aldaera, esaterako, Gesalatzen, Goñerrian, Oltzan eta Itzarbeibarren erabiltzen zen, baina baita Sakana erdialdean eta bestaldera Gipuzkoako Goierrin ere; Gamiz arabarrak ere badarabil, bestalde (Altuna Otegi 1995: 110-111). Azkenik, Gesalazkoak diruditen hitz edo aldaerak dira *aungi* ‘ongi’, *aurtegi* ‘aurpegia’, *bakatu* ‘bekatua’, *gizi* ‘guztia’, *lagrima* mailegua, eta agian *xildu* ‘isildu’.

9. Goñerria Estellerria den ala ez den auzitan dago eta eragile objektiboak eta subjektiboak nahasten dira gaiari aurre egiterakoan; Gesalatzen onddo-onddoan baitago, bi hitz esanen ditugu Goñerriko euskararen gainean. Prediku ugari ageri da mintzo honetan idatzirik eta gure ustez, Gesalazkoaren zaku berean sartzekoa bada ere, ezin ahantzi da Goñerrian badirela ezaugarri batzuk, Gesalazko euskarak falta dituenak: bereizgarri horiek berrikuntzak dira eta Euskal Herriko erdigunetik, Andimendia gainditurik Olloibarren eta Iruñerrian barrena, Goñerrira iritsi dira. Horretan Gesalazkoa eta Goñerrikoa, zein bere bidetik ageri zaizkigu: gordetzaileagoa dirudi Gesalazkoak. Besterik da ziurtatu ahal izatea, XIX. mendeko Gesalazko euskaran berrikuntza horiek falta zirela; ez dugu mende horretako Gesalazko daturik, soilik Goñerrikoak ditugu. Gesalazko idazkiak XVIII. mende bukaerakoak dira.

Goñerriko mintzoaren alderdi lexikoa azterturik, lau multzo bederen egin daitezkeela ohartu gara; lehenean, Euskal Herriko erdialde zabalean ezker-eskuin hedadura handia duten hitz edo aldaerak sar daitezke: *alegiñ, amurrei* ‘amuarraina’, *atze, aurre, azaro, azkonar, baña* ‘baina’, *bare* erdal ‘limaco’, *berandu, bi* zenbatzailea, *elorri, emakume, estarri, gaur* ‘egun, ez **gaur gauean’, *gerezi, gorosti, intxaur, iru* zenbatzailea, *ister* ‘izterra’, *izerditu, jostatu, katillu, kristau, lapur, lar* ‘sasia’, *lau* zenbatzailea, *maiz* ‘usu’, *mozkor, negar, sega, soin & sorbalda* erdal ‘hombro’, *tanta, txal* ‘aretxea, txahala’, *zartzaro*.

Bigarren taldean Euskal Herriko erdialdean ageri diren hitz edo aldaerak sar ditzakegu, baina arestikoek baino hedadura murritzagoa dutenak: *aldemen*

‘ondoa’, *arkakuso, arrai* ‘arraina’, *beatz* ‘eria’, *ergiñude* ‘erbinudea, andderedderra’, *eskubi, igo* ‘igan’, *ikutu* ‘ukitu’, *iltze* ‘mailuaz iltzatzen dena’, *illeztor* ‘iratzea’, *illoba* ‘sobrino, -a’ eta ‘nieto, -a’, *itz, kabi, kattagorri, lore, maki* ‘maingua’, *martinsalto, mixto* ‘miztoa, eztena’, *urruti, zikirio* ‘zekalea’.

Hirugarren taldean mendebalerat Sakana alderdian edo Araban hedadura dutenak sar ditzakegu: *barga* ‘haitza’, *bekos(k)i* ‘kopeta’, *eskutur* ‘eskumuturra’, *idugi & irugi* ‘eduki’, *iregi* ‘ireki’, *kunkun* ‘apoa’, *martso* ‘martxoa’, *okarin & aran* erdal ‘ciruela’, *zil* ‘zilborra’.

Azkenik, Nafarroa Garaian erdialdetik ekialderat hedadura duten hitz edo aldaerak aipa daitezke: *aitetamak* ‘gurasoak’, *aitzin, alke, argiaste* ‘egunsentia’, *beiti, biarri* ‘belarria’, *buluxi* ‘biluzi’, *buruke* ‘galburua’, *butzu* ‘putzua’, *egun* ‘gaur’, *gibel* ‘atzea’, *goiti, guti* ‘gutxi’ (Araban ere badena), *igen* ‘igo’, *igorri, izotzill* ‘urtarrila’, *kaskil* ‘oskola’, *landara (-s)* ‘-z gainera, -z aparte’, *manatu, matel, mintzetu* ‘hitz egin’, *nasi* ‘nahasi’, *oker* ‘begia falta duena’, *orrastatu* ‘orraztu’, *oyan* ‘mendia’, *sagarroi, sandu, txintxurri* ‘eztarria’, *ukitu, unide, urgune* ‘azalean ur ugari duen lur eremua’, *xardoki* ‘mintzatu’, *zamari* ‘zaldi irendua’, *zenbeit* ‘zenbait’, *zetako* ‘zergatik’.

10. Estellerria ez den, baina bertatik urrun ez dagoen Itzarbeibarko euskara ere, aski gaizki ezagutzen dugu eta hutsunez eta arazoz beterik dago: ez dago guztizko koherentziarik Utergakotzat jotzen dugun katiximaren eta Garesen Bonapartek bildu zituen datu batzuen artean. Printzeak, dena den, ibar honetako euskararen nortasuna nabarmendu zuen, baina datu zehatz ugari eskaini gabe.

Nafarroa Garaiko erdigunean kokaturik, aski erdialdekotzat har dezakegu Itzarbeibarko euskara eta guztiz koherentea da inguruan dituen Gesalazko, Goñerriko, Oltzako, Elortzibarko eta Eguesibarko hizkerekiko. Ez dago batetik bestera funtsezko jauzi edo etenik; bateko eta besteko predikuak edo kristau ikasbideak irakurtzean, ez da sumatzen mailaka doan aldea baizik: hitzak errepikatzen dira, adizkiak oro har eite beretsukoak dira eta izenaren morfologian ere, urriak dira desberdintasunak; ekialdera jo behar da, Eguesibar aldera, jauzi nabarmenak aurkitzekotan.

Itzarbeibarko ezaugarrietan fonologian *gizona* > *gizone* edo *ardoak* > *ardoik* erako palatalizazioak aipa daitezke. Kontsonanteetan, euskal **j-* zaharra Garesen bederen [x] hots belarearen bidez ematen zutela ohartu zen Bonaparte eta Ukarko dotrinan ere, baliteke hots hori agertzea. Izenaren morfologian inguruko ibarretako *ore* ‘hura’ falta da Itzarbeibarren (Landuchioren *oa* Perez de Lazarragaren lanean berragertu zaigu berriki) eta ez dago *-ka* > *-kan* berrikuntzaren arrastorik. Ondoko ibarretan ez bezala, motibatiboko atzizkian analogiaz *-gatik* > *-rgatik* gertatu da. Aditzaren morfologian *-tu* atzizki analogiko pleonastikoa ez da Itzarbeibarren ageri eta badira berrikuntza batzuk, iparreragoko ibarretan gertatuak, baina Garesko Bonaparteren datuetan ageri ez direnak: *(di)tuzte* > *tute, dira* > *dirade, balu* > *baluke, gara* > *gada, gindue* > *giñue, dire* > *dere* dira Garesko euskarak Bonaparteren garaian falta zi-

tuen berrikuntzok. Badira, bestalde, Garesko berrikuntza batzuk, inguruko mintzoetan sumatzen ez ditugunak: *diaguk & diagun* 'diagu & dinagu' adizkietan alokutiboko morfemak duen kokagunea, *niza & iza* 'nintzen & hintzen' adizkietako txistukari frikaria, edo *zinda & ginda* 'zinen & ginen' adizkietako *-nd-* kontsonante taldea, azken hau berrikuntza ote den horren argi ez badago ere. Bestalde, *gare & zare* 'gara & zara' adizkietako azken *-e* aipa daiteke, Elortzibarko Zabalegiko predikuan ere ageri dena; Itzarbeibarren *dira* > *dirade* bezalakorik gertatu ez bada, *gare & zare* aldaera berranalizatuak direla pentsatu beharko dugu.

Lexikoaren alorrean badira hitz edo aldaera batzuk, ondoko ibarretan sumatzen ez ditugunak; hona hauetarik batzuk: *antija* 'urtzintza', *aretxo* 'iratzea', *bejain* 'bezain', *bejala* 'bezala', *bortzetan ogei* 'ehun', *gureaso* 'gurasoa', *gurixa* 'guraizeak', *ijan* 'izan', *intze* 'iltzea', *iritxi* 'irentsi', *juina* 'lepazuria, fuina', *martzuza* 'masusta', *orraxi* 'orrazea', *txujen* 'xuxen', *xil(a)* 'zilborra'.

Itzarbeibarrek eta inguruko ibarrek osatzen duten eskualdeko mintzoan ageri diren hitzak ditugu honakoak: *agirtu* 'agertu' (Perez Lazarraga arabarrak ere badakarrena), *gailtu* 'gelditu', *igor* 'inor', *mereji* 'merezi', *oraitu* 'oroitu', *txongolo* 'orkatila'; guztiak Itzarbeibarkoak dira. Nafarroa Garaian erdiguneko eremu zabalxea harrapatzen duten hitzak ere baziren Itzarbeibarren: *altzur* 'aitzurra', *amiru* 'hamahiru', *eraiki* 'erein' edo *erte* 'bitartea'. Honakoak, berriz, ekialdeko joera duten hitz edo aldaerak dira, Itzarbeibarren ageri zaizkigunak: *aingiru* 'aingerua', *arratio* 'arratoia', *arrazio* 'arrazoia', *egotzi, entendatu, eri* 'gaisoa', *gatu, iago* 'gehiago', *guti, igan, kristio, manatu, orraztatu, oian* 'mendia', *saldo* 'abere taldea', *zalui* 'arin, fite', *zamari* 'zaldi irendua'.

Halaz guztiz ere, Utergako eta Ukarko kristau ikasbideetako eta Bonaparteren garaiko Garesko datuen artean, inkoherentzia zenbait ageri da: honek zailtasun handia dakar Itzarbeibarko euskararen batasunaz edo eskualdearen barreneko hizkuntza-jauziez ziurtasunez mintzatu ahal izateko. Ordea, arestian aipatu ditugun arazoak eta bestelako batzuk, eguneroko ogia dira dialektoak eta testu zaharrak baliaturik lan egin nahi dugunontzat.

BIBLIOGRAFIA

Agud, M. & K. Mitxelena, 1958, «Introducción», in *N. Landuchio. Dictionarium linguae cantabricae (1562)*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 7-48.

Altuna Otegi, F., 1995, «*Acto contriciocoa eriotzaco orduracò:* Garcia de Albeniz araiarraren araberazko eskuizkribua (1778)», *ASJU* 29/1, 83-132.

Arana, A., 2002, *Izarbeibarko hiztegia,* Nafarroako Gobernua & Hiria, Iruñea.

Bidador, J., 2001, «El decálogo de Baríndano», *Diario de Noticias,* 2001/XI/18. 40-41 or.

Camino, I., 2003, «Hego-nafarreraren egituraz», *FLV* 94, 427-468.

____, 2004, *Hego-nafarrera,* Nafarroako Gobernua, Iruñea.

Elizalde, F., 1735, *Apezendaco dotrina christiana uscaras,* Alfonso Burguete alargunaren echean, Iruñea. Ikus orain *FLV* 65, 41-65, 1994 eta R. M. Pagolaren arg., *Enseiukarrean* 10, 17-63, 1994.

Erdozia, J. L., 2001, *Sakana erdialdeko euskara,* Nafarroako Gobernua, Iruñea.

____, 2004, *Sakanako hiztegi dialektologikoa,* Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia, Iruñea.

Etxaniz, P., 1999, «Dikazteluko sermoia», *FLV* 82, 483-499.

____, 2004, *Lizarrako euskara. Historia de la lengua vasca en Tierra Estella,* Altaffaylla, Tafalla.

Knörr, H. & K. Zuazo (arg.), 1998, *Arabako euskararen lekukoak. Ikerketak eta testuak,* Eusko Legebiltzarra, Gasteiz.

Lekuona, M., 1973, «Textos vascos del siglo XVIII, en Tierra de Estella», *FLV* 15, 369-390.

Mitxelena, K., 1962, «Apostillas de un renteriano», *Euskera* 7, 54-58.

Ondarra, F., 1980, «Catecismo del siglo XVIII en vascuence de Uterga (Valdizarbe)», *FLV* 35-36, 173-221.

____, 1982, «Materiales para un estudio comparativo del vascuence de Elcano, Puente la Reina, Olza y Goñi», *FLV* 39, 133-228.

____, 1996a, «Juan Martin de Ibero (1729-1783). Izuko parrokua (1754-1783)», *FLV* 72, 235-267.

____, 1996b, «Juan Martin de Ibero (1729-1783). Izuko parrokuaren testuak (I)», *ASJU* 30/2, 645-702.

____, 1998, «Juan Martin de Ibero (1729-1783). Izuko parrokuaren testuak (II)», *ASJU* 32/1, 231-309.

Perez de Lazarraga, J., 2004 [1567], *Dianea & koplak,* P. Urkizuren edizioa, Erein, Donostia.

Portal, M., 1991 [1610], *Romance del santissimo Sacramento, en bascuence*, M. J. Kerejetaren edizioa, in J. A. Lakarra (arg.), *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, I, 175-176.

Salaberri Zaratiegi, P., 1994, «Elizalderen *Apezendaco dotrina christiana uscaras*», *FLV* 65, 7-39.

____, 1998, «Arabako mugako nafar hizkeren inguruan», in I. Camino (arg.), *Nafarroako hizkerak. Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak*, UEU, Bilbo, 49-87.

Satrustegi, J. M., 1987, «Post scriptum», *Egan* 40, 3/6, 199-206.

____, 2002, «Ukar Itzarbeibarko dotrina (1865)», *FLV* 89, 149-167.

Zuazo, K., 1994, «Burundako hizkera», in R. Gómez & J. A. Lakarra (arg.), *Euskal Dialektologiako Kongresua (Donostia, 1991ko irailak 2-6)*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 297-364.

____, 1998, «Arabako euskara», in H. Knörr & K. Zuazo (arg.), *Arabako euskararen lekukoak. Ikerketak eta testuak*, Eusko Legebiltzarra, Gasteiz, 125-189.

____, 1999, «Arabako euskararen kokagunea», *FLV* 80, 165-184.

LIZARRAN ARGITARATU ZEN ELTSOKO SANTXOREN *DOTRINA*

Lizarran 2004ko irailaren 17an

Patxi Zabaleta,
euskaltzain osoa

Hego Euskal Herrian euskaraz argitaratutako lehen liburua Lizarran argitaratu zen 1561an. Eltsoko Santxoren *Doctrina Christiana* deitutakoa da. Oro har, eta jakina den bezala Etxepareren *Primitiae linguae vasconum* da lehendabiziko argitaratutako euskal liburua, 1545an; eta Lizarran egindako Eltsoko Santxorena da beraz, euskaraz argitaraturiko bigarren euskal liburua eta Hegoaldeko lehena.

Liburu honen alerik ez da ezagutzen. Egia da asko eta askotan egin direla saioak haren bila, baina oraindik ez da ale osorik bilatzea lortu.

Aingeru Irigaraik, euskaltzain zenak, *Príncipe de Viana* aldizkarian egindako azterketa batean aipatzen du agian liburu honen puska batzuk –Eltsoko Santxoren liburuaren zatiak, alegia– izan litezkeela beste liburu baten azalak egiteko erabilitako paperak. Baitaere hipotesis bat jorratzen du, zera, Eltsoko Santxoren *dotrina* hugonotezalea izan zitekeela. Izan ere, garai hartan, 1561an Nafarroako erregeak Iparraldean eta Biarnoan zeuden eta hugonoteen sinismenak bultzatzen zituzten.

Eltsoko Santxoren *dotrina* aipaturik dago Euskal Literaturaren Historia eta bilduma gehienetan. Halere aitortu behar da, Arturo Kanpionen garaietarako galdutzat ematen zela.

Agian Eltsoko Santxoren liburua elebiduna zen, espainolez eta euskaraz idatzitakoa, alegia. Hori horrela balitz, oraindik onura gehiagokoa bilaka liteke hainbeste azterketarako inoiz bilatuko balitz.

Eltsoko Santxoren liburua egindako inprimategia Anberesko Adriano delakoarena zen. Adrián de Anberes zelakoak Lizarran 39 liburu argitaratu zituen eta horietatik 19garrena da Eltsoko Santxorena. José Antonio Moskera Armendaritz eta Fr. Cándido Zubizarretak ematen dute inprimatzaile honek egindako lanen zerrenda osoa.

Lizarrak betiere aipamen berezia merezi du inprentaren aurrerapena Nafarroan eta Euskal Herri osoan hedatzeari dagokionez.

Izan ere, *XV.* mendean Nafarroa erresuma independentea zelarik, inprimatzaile bat ekarri zuten Iruñera Albretko Juan eta Foixeko Katalinak. *Arnaldo Guillen Bokarkoa*. Badirudi Biarnoko Brok edo Le Brocar herrian jaioa izan zitekeela, baina agian jatorriz judioa izan zitekeela ere esan izan da, hainbestetan. Iruñean 1501-arte bizitu zen eta hogeiren bat liburu egin zituen, haietatik 19 inkunableak; lehena 1489an: *Manuale secundum consuetudinem Ecclesiae pampilonensis.*

Baina haren izena eta fama hainbeste zen hedatu Gaztelatik ere deitu egin zutela. Eta Logroño-n, Alcalá de Henares-en, Valladolid-en, Toledo-n eta Burgos-en inprimategiak ipintzera iritsi zen. Soilik aipatzearekin Cisneros Kardinalaren *Biblia Poliglota* eta Nebrijaren *Gramatika* eta beste hainbat libururen inprimatzailea izan zela adierazia dago bere maila izugarria garai haietarako.

Arnaldo Guilen Brocar Maria Zozaia nafarrarekin ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituzten. Haren alaba Maria Lizarrako Miguel de Eguiarekin ezkondu zen eta lizarratar hau, Bocarren suhia alegia, tipografo eginez ibili zen bere aitaginarrebaren inprimategi guztietan.

Brocar 1523an hil zenean Luis de Eguia Lizarrakoa da inprimategi guzti haien buru jarraitzen duena eta lehen urteetan izugarrizko arrakasta lortzen du Erasmus-en liburuak eta idazkiak argitaratuz; baina horrexegatik, ondoren 1531an, Inkisizioak atxilotu egiten du eta giltzapean eduki urte pare batean edo.

Askatu zutenean jaioterrira itzuli zen, Lizarrara. Eguia Lizarrako familia ezagun eta ospetsu bateko kidea izaki ordea, eta 1535tik aurrera, berehala ikus daiteke hiri honetako karguak eta zeregin ospetsuak betetzen: Alkate izan omen zen eta baita ere errejidore eta Errejimentuko juratu.

1545an ordea, berriro ere berak hain ongi ezagutzen zuen lanbidera itzultzen da eta Nafarroako Erret Kontseiluari baimena eskatu eta inprimategia ipintzen du Lizarran. Gogoan izan behar da XVI.mendean inprimatzea zela aurrerapenik handiena. Eta Nafarroari dagokionez inprimategirik gabe gelditua zela, 150lan Arnaldo Guillen Brocar Gaztelara joan zenetik.

Miguel de Eguiak Lizarran hiru liburu egin zuen. Baina izan zuen ikasle eta jarraitzaile bat bere moldiztegian segitu zuena: *Anberesko Adriano*, lehen esan bezala, Eltsoko Santxoren liburua argitaratu zuena.

Adriano edo Adrián Anberesko honek ere izan zuen ondoren beste ikasle eta jarraitzaile bat, Borgoñako Piarres, gero Gipuzkoako lehen inprimatzailea bilakatu zena.

Anberesko Adrianok 1568.arte eduki zuen inprimategia Lizarran. Izan zituen berak ere, arazo erlijioso eta politikoak eta azkenean Nafarroako

Erret Kontsiluak urteko 50 dukateko soldata bikaina ipini eta Iruñera eraman zuen. Beraz Lizarrako lehen inprimategiak 1545tik 1568ra arte iraun zuen, Miguel de Eguiaren gidaritzapean lehenik, eta Anberesko Adrianoren gidaritzapean, azkenik.

Moskera eta Zubizarretaren liburuak bere 29.orrialdean dio Eltsoko Santxoren liburu bat liburutegi partikular batean egon zitekeela. Zertaz ari ziren galdetu, eta erantzun zuen Gendulaingo Kontesaren artxibategian egon zitekeela. 1991.urtea edo zen orduan eta Nafarroako Gobernuko burua zen Juan Cruz Alli jaunak ofizialki eta zuzenki eskatu egin zien guzti horren berri gutun baten bitartez, baina ez da, dirudienez erantzunik egon.

Ondoren, fraide batek esan izan dit bere ordenako Erromako liburutegian bazegoela hiztegia edo dikzionario deitzen zuten liburu bat Eltso batena. Baina aztarna hori oraindik behar bezala aztertu gabe dago.

Eltsoko Santxo bera fraide omen zen, teatinoa. Baina teatinoek Nafarroan, nahiz eta orain Irantzuko Monastegia deramaten ez dute jarraipenik izan XVI.mendetik hona, XX.mendean Nafarroako Gobernuari emana.

Azken finean bila jarraitzen dugu, baina Lizarrako herriari aitortu egin behar zaio Euskal Herri osoan argitaratutako bigarren liburuaren eta Hegoaldean argitaratutako lehen liburuaren seaska izanaren ohorea.

EUSKALTZAINDIA

2004-IX-17

Iñaki Astarriaga,
***Lizarra** Ikastolako presidentea*

Ohore handia da Lizarra Ikastolarentzat eta *Nafarroa Oinez*aren antolaketan gabiltzan guztiontzat Euskaltzaindia, gaur, gure artean izatea.

* * *

Es un honor para *Lizarra Ikastola*, centro educativo al que represento, y para la organización del *Nafarroa Oinez*, contar hoy aquí con la aportación que nos ha ofrecido Euskaltzaindia.

Sin duda que el trabajo serio y riguroso que se ha desarrollado aquí en Lizarra servirá para que nuestra lengua, el Euskara, sea reforzada, y todos, absolutamente todos, lo podamos utilizar, más pronto que tarde, y en las mejores condiciones para un desarrollo social y lingüístico en nuestra sociedad.

Lizarra Ikastola lleva a cabo una interpretación contemporánea de la educación, en evolución constante aportando ideas de expertos y mejorando sus instalaciones.

La presencia en Lizarra de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia, con motivo del *Nafarroa Oinez*, y el tratamiento de los temas abordados por los distintos académicos son para nosotros de una importancia decisiva, puesto que nos recuerdan irrefutablemente que el Euskara no es algo extraño en *Lizarra* y *Lizarerria*, y que su apoyo es fundamental para quienes hemos hecho de la recuperación de esta lengua nuestro empeño.

* * *

Es de justicia, aprovechar este acto de clausura para rendir un sentido homenaje a D. Jose Mª Satrustegi, quien dijera en un artículo del año 1995: «*Lizarra Ikastola* fue el puente firme entre las dos Navarras, el eslabón de la cadena del idioma que las unió».

Y añadiendo a su hermoso verbo, *Lizarra Ikastola* sigue erguida a orillas del *Ega*, y siguiendo su ejemplo, gracias al caudal de aportaciones como las del *Oinez 2004*, va creciendo un sedimento de educación en el seno de toda la merindad.

En nombre de *Lizarra Ikastola* quiero dar el más sincero agradecimiento a Euskaltzaindia por ofrecernos esta reunión de trabajo, que sin duda supondrá un auténtico revulsivo para y por el mejor conocimiento de nuestra lengua.

* * *

*Lizarra Ikastola*ren izenean eskerrik beroena zabaldu nahi diogu Euskaltzaindiari aukera eder hau eskaintzeagatik.

Eskerrik asko.

LIBER 2004 Azoka

Liburuaren Nazioarteko 22. Azoka
22ª Feria Internacional del Libro
22ª Fira Internacional de Llibre.

Bartzelona (Montjuic Palau), *2004-IX 28* eta *2004-X-01, 02.*

Estandak jarri, liburuak, CDak eta Webgunea erakusgai jarri irailaren 28an.
Azoka eguna: irailaren 29 eta urriak 2.
Erakusketa ordutegia: 10 - 19,30

Euskaltzaindiak azoka honetan, *Institut d'Estudis Catalans* eta *Consello da Cultura Galega*-rekin batera material ugari aurkeztu du. *Institut d' Estudis Catalansek* eraman du koordinazio lana eta antolaketaren ardura nagusia. Eta bertan, aipatzekoa dugu, bereziki, Manuel Pascual i Rodriguez *(Distribució de Publicacions)* jaunak buruturiko lana: koordinazioa, antolaketa, publizitatea eta abar.

Instituzioaren ordezkariak: Juan Jose Zearreta, kudeatzailea; Jon Artza, Argitalpen zerbitzuko salmenta-ardurana eta Ricardo Badiola, Argitalpen eragilea izan dira irailaren 29an eta 30ean.

Liber 2004 Azokak honako babesleak izan ditu: Madrileko Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa: liburu, artxibo eta biblioteka Zuzendaritza; Ajuntament de Barcelona (Institut de Cultura); Generalitat de Catalunya (Departament de Cultura); ICEX (Instituto Español de Comercio Exterior); CEDRO (Centro Español de Derechos Reprográficos); Gremi D'Editores de Catalunya; Iberia...

Nazioarteko erakusketan honetan, 800 bat erakusle izan dira:

Administrazioak: Madrileko Ministerioa de Cultura eta *Boletin Oficial del Estado*, Andaluzia, Kanariar Irlak, Katalunya, Castilla-León, Nafarroa, Euskal Autonomia Erkidegoa, Galizia, Extremadura.

Editore ekarteak: Katalunya, Madril, Euskadi, Extremadura, Kanariak, Galiziako Xunta, Aragoia, Zaragoza, Lleida, Castellon, Tarraona, Valentzia, Santandere, Asturias...

Beste zenbait Estatu: Israel, Grezia, Txipre, Mexico, Uruguay, Argentina, Costa Rica, El Salvador, Guatemala, Honduras, Nicaragua, Panama...

Editorialak: Anaya, SM, Desclée de Brouver, Edelvives, EDEBE, ECU, Giltza, ...

* * *

Euskaltzaindiak honako erakusgaiok izan ditu: *Euskera* agerkaria, Arauak. *Iker* bildumatik: azken bi edo hiru liburuki; Hiztegietatik: R.M. Azkuerena, *Hitz elkarketa*, *Voces alavesas*, *Orotariko Euskal Hiztegia*, Gramatikak, *Hizkuntza Atlasaren Antologia*, Izendegiak, Onomasticon Vasconiae bildumatik laupabost, Literatura bildumatik: B. Etxepare, Axular, Andrés De Poza, Ubillos, Ioannes Leizarrga, R.M.Azkue: *Cancionero Popular Vasco*; J.B. Gamiz Ruiz de Oteo, Antoine d'Abbadie; Literatura sariketakoak: Bilbao Bizkaia Kutxa–Euskaltzaindiaren artekoak; Euskararen Lekukoak bildumako azken-azkenak, *Jagon* bildumakoak, Katalogoak: *Argitalpenen katalogoa*. Argitalpen solteak: *Euskararen Liburu Zuria*, *Hitz egin* metodoaren irakurgai zenbaitzuk, Pedro de Yrizarren *Morfología del verbo auxiliar* (hauetatik azken bi edo hiru), Madrileko Ministerioak argitaraturiko *Euskaltzaindia* liburukia eta beste zenbaitzuk. Hauez gain, Standearen inguruan Erakundeak kaleraturiko argitalpenen harpidetza--orriak, *Katalogoa* eta abar.

Jakina denez LIBERen ez da zuzeneko salmentarik egiten. Dena den argitalpen katalogo ugari banatu dira eta bisitarien arreta ikusirik, fruituak gerora espero dira.

Antolaketak eskainitako telefono-linea erabiliz eta ordenagailuaren laguntzaz, Institut d'Estudis Catalans eta Euskaltzaindiaren Web-guneak erakusgai izan dira denbora osoz.

Horrez gain, Euskaltzaindiaren sorrera, bilakaera eta egungo egoera azaltzen dituen proiekzio digitala aurkeztu eta eskaini da Azokan. Aurkezpena *Powerpoint* programan egina dago eta testuak euskaraz eta katalanez idatziak.

Euskaltzaindiko estandera hainbat jendek jo du argibideen bila: Arauak, Izenak, toponimia, euskara ikasteko metodoak, euskal aditza, hiztegigintza... sariketei buruz..., euskal entziklopediak, euskararen jatorria, bibliografia... Eta hurbildurikoen artean aipatzekoak dira: Israelgo Enbaxadore-ordezkoa eta hebraieratik gaztelania eta ingelesera testu itzultzaile burua, Poloniako estandekoak, Estoniakoak, Asturiaskoak, Andaluziakoak, Aragoikoak, *El Correo Español, El Mundo, El País*... egunkarietakoak.

Bestalde, bai aurreinpresio edo fotokonposizio saileko eta bai inprimategietako eskaintzak egitera hainbat merkatal etxek jo dute Euskaltzaindiko estandera.

GEMA INSAUSTI ETA ITZIAR REKALDE-RI ZILARREZKO DOMINA EMATEA

Gasteiz 2004-XI-26

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Euskaltzaindiak, 25 urte lanean arizan diren bere langileei zilarrezko domina emateko ohidura du. Hain zuen ikusten delarik haien zerrenda neurt daiteke denbora berean Euskaltzaindiaren garapena. Alabainan lehenik eskaini zitzaien Jose Luis Lizundia eta Maria Pilar Lasarte-ri, beraz egoitzako bat eta Donostiako ordezkaritza orduan sortu zela salatzen du Maria Pilar omendua izan delarik. Gero sendotzen da egoitza, eskainia izan baitzaie domina Juan Jose Zearreta, Rikardo Badiola eta Nere Altuna-ri eta iaz Begoña Amundarain, Resu Orbe eta Lutxi Alberdi-ri. Aurten Gema Insausti eta Itziar Rekalde-ri ematen zaie domina, erran nahi baita duela 25 urte sortu zirela Iruñeko eta Gasteizko ordezkaritzak. Hegoaldeko lau probintziak hornituak dira, Bizkaia egoitzarekin eta beste hiruak bakoitzak bere ordezkaritzarekin probintziako hiri nagusian. Gero sortuko da Iparraldekoa Baionan.

Ordezkaritzetako langileek erakusten dute Euskaltzaindiaren aurpegia, herritarrak hartuz eta haiei emanez behar duten informazioa, dela herri edo leku izenez, ponte izenez edo deiturez edo ere ziurtagirien eskatzera datozenean. Nola, beraz, ez dute merezi Euskaltzaindiaren ezagutza eta omena!

* * *

Gema Insausti: Arbizun sortua eta orain Iruñean bizi da. Sakana eskualdeko hiru lagunekin lotura izan du Euskaltzaindian. Hain zuzen duela 26 urte Nafarroako ikastolen idazkari Juan Luis Larraza-ren eskutik Euskaltzaindiak antolatu zuen *Bai Euskara*ri kanpaina hasi zen lanean arduradunekin. Hurrengo urtean Jose Mari Satrustegi, Nafarroako ordezkariak hartu zuen lanean behin betikotz.

Denen zerbitzuko izan zara lan ixila eginez, astean bi aratsaldetan joaiten zinela Urdiaingo apezetxera Satrustegi-ren laguntzera Euskal Testu Zaharren bilduma prestatzen zuelarik eta beste lan asko. Ez dut ahantziko ere 1984eko X. Biltzarrean, Arturo Kanpion-en omenezko *Gramatika*renean azpiegiturako langile izan zinela eta ere Nafarroan egin diren jardunaldi, ospakizun eta ekitaldi guzietan. Badakit ere lagundu duzula Sakanako hirugarren bat, Aita Ondarra, bakaikuar euskaltzaina, apailatzen zituelarik Aita Iraizoz-en lanekin agertu dituen hiru liburuak.

Damu dut bere ezin etorria jakinarazi baitu oraiko ordezkaria Andres Iñigo-k, harekin batean eskainiko bainizun domina hau dioena:

Gema Insausti
1979-2004
Langintzaren oroigarri.
Euskaltzaindia

* * *

Itziar Rekalde: Gernikarra dugu sortzez hango klinika batean mundura etorria, baina Bermeo itsas hiriko alaba, nahiz lehortarra izan, hango hizkeran «terrestrie». Imanol Berriatua-ren laguntzaile hasi zen lanean Bilbon, *Bai Euskarari* kanpainaren ondotik.

Gasteizera bizitzera jin zinelarik eta sortu zelarik ordezkaritza Henrike Knörr ordezkariaren agindupean hasi zinen lanean. Henrike Knörr Argentinan dago egun hauetan Euskaltzaindiaren izenean, baina hor daude ezagutu dituzun beste bi ordezkariak, Manu Ruiz Urrestarazu eta Patxi Goenaga euskaltzaina eta Hizkuntza Politikarako sailburu-ordea.

Ordezkaritzetan egiten diren lanak, jadanik aipatu ditudanetan, murgildu da Itziar bere ahal eta dohain guziekin, azpiegituretan sartu kongresu, biltzar eta jardunaldi guzietan beti prest laguntzaren eskaintzeko, bai Biltzarretako prentsa bulegoetan Martin Ugalde zena, Xabier Aranburu eta Joseba Intxausti-rekin. Zenbait urtez langileen izenean Batzorde Parekidean bete du bere eginbidea zintzoki, ez ahantziz sekulan lagunen izenean mintzo zela.

Gema Insausti-ri bezala Euskaltzaindiaren izenean esker-onaren adierazpen gisa zilarrezko domina ematen dizut, hauxe dioena:

Itziar Rekalde
1979-2004
Langintzaren oroigarri.
Euskaltzaindia

Bai, zuri eta Gema-ri zorionak bihotz-bihotzetik.

HIZKUNTZA GAITASUNA IPARRALDEAN

EGA IPARRALDEAN

Euskal Gaitasun Agiria (EGA) hasieran Euskaltzaindiak berak 7 Euskal Herrietan eskaintzen zuen. Gero Gasteizko Jaurlaritzak eta Nafarroako Foru Diputazioak hartu zuten bere gain bakoitzak bere euskaldean.

Iparraldean ordea Euskaltzaindiak ez dio uko egin bere eginkizunari eta urtero bi aldiz Baionako bulegoan antolatzen da udan eta udazkenean ohiko azterketa, hemen doazen emaitzekin.

Azterketa horretaz bi ohar egin genitzake:

1) «Irakasle titulua» marka izan bazuen ere EGAk lehen gaurregun ez darama berak horrelako aipamenik. «Irakasle titulua»-k gaurregun bestalde antolatzen direlakotz Iparraldean ere.

2) Iparraldeko herritarrentzat da antolatzen Euskaltzaindiaren azterketa.

Salbuespenak onartu ditugu bakarrik, Nafarroako edo beste hiru euskal probintzietako seme-alabentzat, Iparraldean jaioak, edo ikasle, langile etxekotuak, edo espetxeratuak direlarik aurkezten direnak.

Piarres Xarritton

D MAILAKO HIZKUNTZA GAITASUN AGIRIA

Emate eguna: Bilbo, 2004-IX-17

6.773.– Ainhoa ADIN JAUREGI
6.774.– Laida AGERRETXE COLINA
6.775.– Lore AGUINAGA
6.776.– Joana ANCHORDOQUI ERVITI
6.777.– Amande ANIN HARGUINDEGUY
6.778.– Nazara ARREGUI OLANO
6.779.– Joana ARREGUY
6.780.– Gorka ARTETXE SARASOLA
6.781.– Joana ASURMENDI NESTAR
6.782.– Luixa AYCAGUER AGUER
6.783.– Elixabet AZARETE
6.784.– Maider BEDAXAGAR BERROGAIN
6.785.– Patxi BERGARA LABATUT
6.786.– Frédérique BERNADET
6.787.– Joana BIMBOIRE ETCHEVERRY
6.788.– Ainara BORDA
6.789.– Eva CABALLERO DOMINGUEZ
6.790.– Mikel CABODEVILLA LUSARRETA
6.791.– Arantxa CAMUS ETCHECOPAR
6.792.– Hubert CATALOGNE
6.793.– Battitt CHAUDIÈRE
6.794.– Aize DUHALDE AMILIBIA
6.795.– Maitena DUHALDE DE SERRA
6.796.– Christelle ELGOYHEN
6.797.– Gorka ELICECHE
6.798.– Iñaki ELIZONDO YANCI
6.799.– Antton ERROTABEHERE

6.800.– Maika ETCHECOPAR
6.801.– Maylis GAILLARD GARAT
6.802.– Lurdes GARAI AGIRRE
6.803.– Patxiku GUIMON
6.804.– Maialen HEGUY LUCU
6.805.– Ihitz IRIART CASENAVE
6.806.– Andde IROSBEHERE
6.807.– Jokin IRUNGARAY
6.808.– Marie LAGAN
6.809.– Amets LAHETJUZAN DERMITTE
6.810.– Maialen LANDART HERRERO
6.811.– Arantxa LANNES DUHALDE
6.812.– Peio LARRONDE
6.813.– Lea LORENTE BILBAO
6.814.– Cecilia LOUESSARD
6.815.– Margaita LURO IRATZOQUY
6.816.– Maria Elena MATEO ETCHEPARE
6.817.– Hegoa MENDIBOURE GRENIÉ
6.818.– Amaia MUJICA
6.819.– Sara NAVARRO MOLINA
6.820.– Ramuntxo NAVEIRO
6.821.– Olivia OLAIZOLA
6.822.– Josetxo OTEGI ARRUGAETA
6.823.– Argitxu OURTHIAGUE SABALCAGARAY
6.824.– Jokin PERRET
6.825.– Irati SALABERRIA GOÑI
6.826.– Olatz SAN JOSÉ
6.827.– Lorena SOMOZA CHAMIZO
6.828.– Olatz TALAVERA ETXEBERRIA
6.829.– Jon UNHASSOBISCAY
6.830.– Oihana URREIZTIETA TAUZIN
6.831.– Anaiz VIVANCO DUHALDE
6.832.– Aitziber ZAPIRAIN ELIZALDE
6.833.– Eider ZAPIRAIN SIERRA
6.834.– Manex ZUBIAGA

D MAILAKO HIZKUNTZA GAITASUN AGIRIA

Emate eguna: Bilbo, 2004-12-17

6.835.– Ilazki AMOREBIETA
6.836.– Oxel AZKARATE ITURBE
6.837.– Txomin BORNAETXEA ESTELA
6.838.– Battitt CASTILLON
6.839.– Mayalen DUFUR DE YNCHAUSTI
6.840.– Lander FERNANDEZ ARRINDA
6.841.– Aiora GARATE DE YNCHAUSTI
6.842.– Philippe JAUREGUIBERRY
6.843.– Emili MARTIN
6.844.– Oihana MINTEGI GABRIEL

* * *

Labur bildurik:

URTEA	Izen ematea	Gainditu dutenak	Gainditu ez dutenak
1. 1997	56	43	13
2. 1998	60	48	12
3. 1999	79	53	26
4. 2000	106	65	41
5. 2001	91	59	32
6. 2002	97	64	33
7. 2003	91	65	26
8. 2004	114	72	42

TXILE, ARGENTINA ETA URUGUAIKO BIDAIAREN BERRI

Henrike Knörr

2004ko abenduaren 14an,

1. Azaroaren 9tik abenduaren 2ra Txilen, Argentinan eta Uruguain izan naiz. Helburu nagusia Rosario hirian (Argentinan) egin zen *III Congreso Internacional de la Lengua Española* delakoan Euskaltzaindiaren izenean parte hartzea zen, Akademiak horrela erabakirik. Biltzar hori, Gaztelaniaren Erret Akademiak eta Cervantes Institutuak antolatua, azaroaren 17an hasi zen eta 20an bukatu. Hilaren 18an aurkeztu nuen nire txostena: «El vascuence o euskara: perspectiva histórica y panorama actual» zeritzana. Mahaikideak izan nituen honako jaun-andre hauek: José Rodríguez y Rodríguez, Gaztelaniaren Filipinetako Akademiaren zuzendaria; Guillermo Rojo, Gaztelaniaren Erret Akademiaren idazkaria; Xosé Ramón Barreiro, Galiziako Akademiaren presidentea; Joan Martí i Castell, Institut d'Estudis Catalans-eko Secció Filològica-ren presidentea; Josep Palomero, Valentziako Akademiaren presidenteordea; Víctor Freixanes, galiziar idazlea; Anjel Lertxundi, euskal idazlea, eta Carme Riera, katalan idazlea. Mintzaldien ondoren, orduerdiko elkarrizketa izan zen.

2. Biltzarrean zehar, bai eta hara joan baino lehen ere, anitz kazetalarirekin hitz egin nuen, euskarari buruz eta Euskaltzaindiaren lanaz gehienbat. Biltzarkide eta bestelako lagun askorekin ere mintzatzeko aukera izan nuen. Azpimarratzekoa da, bereziki, Instituto Cervantes-eko zuzendaria den César Antonio Molina jaunarekin izandako afaria, azaroaren 19an, zeinetara goian aipatu jaun-andre gehienak eta erakunde horretako beste bi buruzagitzakide joan baitziren. Molina jaunak esan zuen Espainiako hizkuntza guztiei irekia dagoela Institutua, eta gaztelania ez diren hizkuntzek beren tokia izan behar dutela Institutuak munduan barrena dituen etxeetan, bai eskolak emateko (horretarako ikasleak badira), bai bestelako ekintzak antolatzeko, eta bai hizkuntza eta literatura horiei buruzko bibliografia ugaria izateko. Institutuak 60.000.000 eurotako aurrekontua du urtean, eta hiru Ministerioren azpian dago. Hiru Ministerio horiek dira Kanpo Harreman, Hezkuntza eta Kultura. Nik esan nuen horren guztiaren berri emango nuela Euskaltzaindia, hitzarmen bati begira. Orobat esan nuen prest geundekeela Euskaltzaindiaren web-gunearen esteka eskaintzeko, munduan euskararekiko interesa duen orok sarbide eta argibide erraza aurki dezan.

3. Esan behar dut, eta atseginez esan, lau egun hauetan arras ongi tratadu gintuztela. Biltzarraren antolatzaile izan ziren bi erakundeen buruzagiei eskerrak eman dizkiet egun hauetan.

4. Bestealde, zenbait hitzaldi eman nituen euskararen inguruan, hiri eta leku hauetan:

a) Azaroaren 11an, Santiagon, Universidad Católican.

b) Azaroaren 12an, Valparaíson Universidad Públican.

c) Azaroaren 16an, Paranán (Argentina), Consejo Profesional de Ciencias Económicas delakoan.

d) Azaroaren 22an, Buenos Airesen, Universidad de Buenos Airesko Soziologia Fakultatean.

e) Azaroaren 30an, Montevideon, Espainiako enbaxadaren Centro Culturalean.

f) Abenduaren 1ean, Buenos Airesen, Universidad de Buenos Airesko Filosofia Fakultatean (Instituto de Lingüística delakoan, hizkuntzalarien aurrean).

g) Egun berean, Buenos Airesko *Gure Etxea* izenekoan.

5. Aipatu hirietan Unibertsitateetako eta Euskal Etxeetako zenbait buruzagirekin hitz egin nuen, hitzaldien karietara edota espresuki bisitak eginez. Esan direnez gain, Buenos Airesko Juan de Garay Fundazioa aipatuko nuke. Idazkaria den Mauricio Goyenechea jauna ikusi nuen. Hiri horretan *Laurak-bat* elkarte urtetsua ere bisitatu nuen, eta Juan Pedro Erkiaga presidentearekin eta Zuzendaritzako beste kide batzuekin mintzatu nintzen.

6. Gainerakoan, Eusko Ikaskuntzaren Argentinako ordezkaria den Gonzalo Auza jauna izan nuen lagun eta laguntzaile ona. EuskoSare delakoa, Euskal Herriari buruzko argibide-biltegi handia, berak kudeatzen du Argentinan, bizpahiru kiderekin batera. Honezkero harremanak badira Eusko Sareren eta Euskaltzaindiaren Onomastika batzordearen artean, eta oso komenigarria da, ene aburuz, harreman hauek sustatzea eta zabaltzea; hitzarmen zirriborro bat bidean dugu. Hori dagokiola, gogoratu behar da duela hiru hilabete Juan J. Zearreta eta biok Jose M. Velez de Mendizabal Eusko Ikaskuntzaren kudeatzailearekin gai horren gainean Donostian izandako bilkura.

7. Txosten honetan garbi azaldu nahi nuke ene ustez ahalegin berezia egin beharko lukeela Euskaltzaindiak Hego Ameriketako erakunde eta elkarte batzuekin harremanak sortzeko edota indartzeko. Jakina, bibliografiaren alorra garrantzi handikoa da, eta puntu honetan orain emaile izatea dagokigu, hartzaile baino, hango egoera kontuan izaki. Ildo honetatik, Euskaltzaindiaren argitalpen batzuekin joateko asmoa nuen. Eraman nahi nituen kutxengatik (8 ziren), ordea, diru asko zen ordaindu beharra, eta, bi gutxa izan ezik, liburu horiek ontziz joatea pentsatu dugu. Interes bizi-bizia aurkitu dut han gure argitalpen horiek hartzeko. Zuzendaritza jakitun edukiko dut, egingo diren urrats guztiez.

8. Azkue Biblioteka aberastea zen, jakina, nire asmoetariko bat. Horri datxekola, esan behar dut material batzuk ekarri ditudala. Agian bereziki aipatzekoa da *Galeuzca* aldizkaria (Buenos Aires, 1945eko uztaila-1946ko abuztua); 12 aleetarik 11 eskuratu dizkit Martin Ospitaletche Montevideoko adiskideak.

9. Ez nuke txosten labur hau bukatu nahi azken egunean, Gure Etxeko hitzaldiaren ondoren, entzule batek (euskara irakasle batek) galdetu zidana papereratu gabe.

Hego Ameriketako euskaldunen fabore Euskaltzaindiak zer egiten duen zen galdera. Nik erantzun nuen 6. puntuko harremanak aipatuz, bai eta Ameriketarako gure argitalpenak ere. Gaineratu nuen zoritxarrez gure indarrak urriak direla, baina, besteak beste, Akademiaren web-gunean hango euskaldunen bisita anitz izaten ditugula. Zer pentsa eman zidan galderak, egia esan, eta eskatuko nuke Zuzendaritzak honen gainean zerbait proposatzea, gerora begira. Ez da ahantzi behar Eusko Jaurlaritzak baduela Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Batzordea, zeinetan Euskaltzaindiak baitu kide bat, teorian aholkulari, baina Batzorde horretan ez dugu deus ere egiten; bideak hetsiak dira, eta nekez aholka genezake ezer ere (batzordea urtean behin ere ez da biltzen, bestalde...).

10. Beste zerbait ere esan nahi nuke. Luza gabe edo erdiko epean, nik uste, komeniko litzateke hango urgazle batzuk izendatzea. Badira pertsona egokiak, jakina, lizentziadunak, euskara irakasleak, e.a. Urrutitik nekez egin daitekeen lana, gure Erakundearen mesedetan eta euskararen onetan, horiek oso ongi buru lezakete.

HIL BERRIAK

MANEX GOYHENETCHE ZENAREN OROITZAPENA (*) (1942-2004)

1. Manex Goyhenetche zena, Garaziko Ezterenzubi udalerrian sortu zen, Intzagaraia etxean, 1942ko irailaren 22an. Bost haurridetatik laugarrena zen, azken semea. Aita etxe horretakoa, ama Ezterenzubi Mendiburuko alaba, Etchamendy familiakoa, Eñaut idazle-kantari ezagunaren izeba. Laborari etxea da Intzagaraia, mendikoa, sei ehun metro gorako muno baten gainean kokatua, Orreaga eta Zuberoako gailurren artean, Errozate hegitik eta Iratiko basotik hurbil. Menditarra zen beraz gure Manex.

2. Lehen maila bete zuen Ezterenzubiko eskola publikoan, bigarrena hasi Donibane Garaziko Mayorga kolegio katolikoan, eta bukatu Donibane Lohizuneko Béthanie lizeo katolikoan, Ploermeleko fraide irakasleen gomendioan. Baxoa deitzen dugun bigarren mailako diploma hori ardietsi zuen 1961ean.

3. Fraide izateko lehen botoak egin zituen 1962an, eta osoak 1967an. Fraide egonen da 1972raino, baina bitartean ez du denborarik galdu. Occitaniako Tolosan soldadu zerbitzua egin zuen erizain karguan. Historiako lizentzia hiri horretako Unibertsitate publikoan ardietsiko du.

4. Bigarren mailako irakasle izanen da Ploermeleko fraideen ikastetxeetan sei urtez, 1966tik 1972ra, lehenik Lurden hiru urtez (1966-69), gero Donibane Lohizunen biez (1969-71), azkenik Bretainiako Chateaulin hirian ikasturte batez (1971-72). Euskal Herritik urrundu zuten bere buruzagiek, apantziala honi zion atxikimendu «handiegia» gatik. Handik ultimatuma bota zien gure Manexek, Euskal Herrira igor zezaten berriz, bestela fraidegoa utziko zuela. Haiek ezetz ihardetsi, eta Manex joan zitzaien 1972an, hitzeman bezala.

5. Hor euskal politikan sartu zen Enbata mugimenduarekin, honen azken bi urteetan (1972 eta 1973), Frantziako gobernuak debeka zezan arte 1974ko urtarril ondarrean. Jarraian EHAS alderdiaren sortzaileetarik izan zen Manex, baita buruzagi eta sustatzaile hoberenetarik 1981eko udaberriraino, hor bere nahiz ezabatu baitzen EHAS. Langile porrokatua zen Manex, etenik gabekoa, euskal militantziako sail eta maila guzietan sartua, lan xumeenetarik hautagai eta kazetari karguetaraino.

6. Kulturaren alorrean ez zuen gutiago egin. IKAS elkarteko idazkaria izan zen 12 urtez, 1971tik 1983ra. Ikas-ek eta Euskaltzaindiak elkarrekin sorturiko U.E.U., Udako Euskal Unibertsitateko lanak antolatu zituen kargu horretan lau aldiz, Haritschelhar jaunaren ardurapean, Ikas-eko lehendakaria baitzen hau, eta Euskaltzainburu ordea: 1973an eta 1974an, Donibane Lohizunen bildu zen U.E.U., Maurice Ravel lizeo pu-

(*) Mintzaldi hau egin dut Larresoron, 2004ko ekainaren 24 arratsaldean, Euskaltzaindiaren biltzar idekian, publikoaren aitzinean.

blikoan; 1975ean eta 1976an Uztaritzeko Landagoien bil-etxean. Gero hiru urtez U.E.U.-ko zuzendaria izan zen Manex Goyhenetche (1977, 78, 79).

7. Beti Euskaltzaindiaren eta Ikas elkartearen ardurapean, Jean Haritschelhar jaunarekin, Baionako erakustetxean antolatu zituen, 1981ek udazkenean, «Euskararen eta euskal kulturaren jarraldiak» (Assises de la langue eta de la culture basque). Idazkaria eta kudeatzailea zen hor ere Manex Goyhenetche. Hortik atera zen «Pour un statut de la langue eta de la culture basque» liburua, geroztiko lan eta eskari guzien oinarri eta iturria.

8. Seaska elkarteko lehen langile «permanentea» izan zen Manex Goyhenetche lau urtez (1977-81).

9. Gero Seaskako ikastoletan bigarren mailako irakasle izan zen 22 urtez (1981-2003), erretiroa hartu arte:

— Baionan bi urtez (1981-83).

— Kanboko lizeoan 18 urtez (1983-2001).

— Baionakoan ikasturte batez (2001-02).

— Ziburuko Piarres Larzabal kolegioan azken urtea (2002-03).

10. Beti Seaskako ikastolen sarean, lizeo zuzendari izan zen Manex Goyhenetche lau ikasturtez:

— Lehenik bi urtez Kanboko *Xalbador* ikastetxean (1992-94).

— Gero beste biez Baionako *Bernat Etxepare* ikastetxean (2001-03).

11. Baionako Fakultatean ere historia irakatsi du doktore titulua lortu zuenetik (1984).

12. Bi tesi egin ditu, epaileen oniritzia merezituz Paueko Unibertsitatean:

— Lehenik III. Zikloko tesia: «Analyse critique du For moderne de Basse-Navarre» (1984).

— Gero formula berriko tesia: «Analyse critique de l'historiographie basque du XVIe au XIXe siècle» (1992).

* * *

13. HISTORIALARIA:

Euskal Herriko historiaz hogei bat liburu idatzi du Manex Goyhenetchek. Frantsesez daude gehienak *(L'oppression culturelle française au Pays Basque, For et coutumes de Basse-Navarre, Les Basques et leur histoire, mythes et réalités…)*; baina baditu euskarazko lanak ere, hala nola *Lapurdi Historian*.

Euskal Herriko historia orokorraren idazteari loturik, «Histoire générale du Pays Basque» delako sail horretan lau liburu agertu ditu, 5.a eta saileko azkena laster agertzekoa omen da.

Zerrenda horretarik bazter, *Ikas* elkarteak plazaratu beharra dio haurrentzat *Erdi Aroa Nafarroan* liburua, irakaslearen gida-liburuarekin.

Bestalde 20. batean parte hartua du Manex Goyhenetchek, hau baita *Euskal Herria XI. Mendean, Antso III.a Nagusiaren erregealdia (1004-1035)*, Nabarralde-ren ardurapean, Pamiela etxean. Manexek hor aipatzen duen gaia da «Ipar Euskal Herria Antso Nagusiaren garaian»: liburuaren herena betetzen dute Manexek ikerturiko dokumentuen laburpenek eta horiez egin dituen oharrek.

Panfletoak idatziz hasi zen, Frantziak aspalditik hemen daraman politika kolonialista salatuz. Haatik ongi dokumentatuak ziren liburu sutsu horiek. Eta bidenabar, burdina beroa zanpatuz, historialari sakona bilakatu zen gure Manex, artxiboetara joanez bistan dena, eta oroz gainetik historiagintza libratuz bai mito zaharretarik, bai gaurko anakronismo, nazionalismo, marko eta ideologia prokustotiarretarik. Horrena baino askoz ere nazionalistagoa, eta beraz anakronikoagoa da inposatu nahi zaigun historia ofiziala, *nos ancêtres les Gaulois*, Clovis Frantziako lehen erregea, Charlemagne frantses enperadorea, arabiarrak Orreagako gudukan, *La France éternelle* eta abar…

Ez, historiak ez du nazionalista izan behar: ez besteenak, ez gureak ere naski! Haatik nazionala izan daiteke, eta hori zen Manex Goyhenetcheren xede nagusia: euskaldunen historia nazionalaren idaztea. Ordurarte Euskal Herriko lurralde diferenteen iragana ikertu zen, eta hortik hasi behar zen duda gabe, horretan ez gelditzekotan ordea. Gure historia orokorrari lotu zaio Manex, gure lurralde guziak urreztatu dituzten isuri zabal eta luzeak ikusiz beren jario iraunkorretan, Fernand Braudel baten modura, funtsean Oihenart handia bere denboran saiatu zen bezala, baina gaurko ahalak eta ikuspegiak jokoan sartuz.

Zoritxarrez hain maite zuen mendiak beretu du, eta betiereko bortura joan zaigu Manex iragan maiatzaren hiruan alegia, 2004-V-03.

Jean-Louis Davant

MARTIN UGALDEREN BIZITZAN ZEHAR (1921-2004)

Bidaia bat egitea proposatzen dizuet, 83 urtetan Martin Ugalde Orradrek egin zuen bera.

Bide luzea da eta presaka ibili beharko dugu, baina noizbehinka geldialdiak egingo ditugu atsedena hartzeko eta bidearen nondik norakoak begiratzeko.

Bide honek hiru etapa eta hiru paisaia desberdin ditu:

1. Lehena, 1921etik 1947 bitartekoa, Andoainen abiatu eta bertan bukatzen dena.
2. Bigarrena, 1947tik 1969 bitartekoa, Caracas eta Venezuelan barrena egingo duguna.
3. Eta hirugarrena, 1969tik 2004 bitartekoa, berriz Euskal Herrian zehar, Hondarribian hasi eta Donibane Lohizunetik barrena ibili ondoren Hondarribian amaitzen dena.

* * *

Lehen etapa

Abia gaitezen.

Andoainen abiatzen gara, 1921ean. Abiatzeko unean baditugu arazotxo batzuk: *sub conditione* bataiatu behar baitute Martin etxean aurretik, erretoreak Andoni euskal izena ez duelako onartu nahi.

Martin mutikoaren bizitza 15 urterekin goitik behera aldatzen da, F. Francoren altxamenduarekin. Gure bidaiak hemendik aurrera bihurgune bihurri eta ugari izango ditu. Familiarekin batera Andoaindik ihesi doa 1936ko abuztuan: 2 hilabete Mundakan, 8-9 Bilbon, amarekin Frantziara, Nièvre-ko Château Chinon-era. (Aita frontean da, anaia Soviet Batasunean, gero ama aitarengana Catalunyara, eta Martin bakarrik). Handik Donibane Garazira Eusko Jaurlaritzaren koloniara urtebete, segidan Donibane Lohizuneko koloniara lau hilabete, Gurs-eko kontzentrazio-zelaira hilabete t'erdi. Eta lau urte eta bi hilabeteko esilioaren ostean, salbokondukto batekin, berriz Andoaina, eta bi urte ondoren atzera kanpora: soldaduskara hiru urterako, Marokkora («bigarren esilioa» dio Martinek), bi urte gehiago Andoainen egin eta 1947ko urrian Caracasera, 25 urterekin.

Familia osatzera joan ziren Martin eta ama Caracasera, aita han esiliatua baitzen eta Joseba anaia bakarra ere Soviet Batasunatik hara eraman berria baitzuten.

Egin dezagun geldiune bat puntu honetan.

Martinek Ameriketan garatuko dituen ofizio eta afizioen aurrekari askorik ez dugu lehen paisaia honetan, baina bai bat edo beste: mutiko zela bi literatur sari irabazi zituen, *Larramendi* saria Andoainen eta Bilbon zegoela *Pulgarcito* saria. Soldaduskatik bueltan, 1945ean, *Diario Vasco*-rako Andoaingo berriemaile gisa kronikak idazten ditu, erdaraz noski, eta erdal grafiaz. Euskal deiturak *tx*-ekin idaztea debekatua zuen.

Hauexek dira, izango den literaturgile eta kazetari handiaren hasiera xumeak.

Bigarren etapa

2. Bidaiaren bigarren aldi honetan 22 urteko bidea egingo dugu. Paisaia guztiz aldatu da, Caracasen gaude, F. Francoren diktaduratik urruti. Askatasuna zer den hemen konturatzen da Martin: autozentsurarik gabe idaz dezake, euskal gaietan bezala bestelakoetan. Eta halaxe egiten du.

Martinen bideak Euskal Etxera garamatza aurrena: han aurkitu zuen babeslekua, bertan murgildu zen iritsi orduko: «Eusko Gaztedi» talde mistoa sortu zuen, *Eusko Gaztedi* eta *Euzkadi* aldizkarien zuzendari izan zen, EAJn eta ELAn afiliatu zen, Euskal Etxeko lehendakari ere izan zen.

Baina gure bidaiak bihurgune bat hartu behar du gutxi barru 50eko hamarkadan: Euskal Etxeak Martinentzat «ghetto» itxura gehiegi du, ez du hor itxi nahi bere burua. Norabide aldaketa iraultzaile bat egingo du. Venezuelan integratzea erabaki du. 1952an Espainiako naziotasunari uko egin eta Venezuelako naziotasun txartela hartzen du. Ordurako beste urrats bat ere emana du: Caracasera iritsi bezain laster burdinkiak eta elektragailuak saltzen hasia zen herriz herri, gero General Motors-en jarraitu zuen lanean 8 hilabetez, baina 1949an lan segurua utzi eta *Elite* Caracaseko astekari bakarrean *free lance* gisa hasten da lanean.

Bidaia honek bi urte irauten du, arrakasta handiz. 1950ean sekulako arrakasta lortu baitzuen bere erreportaia batek, Carlos Delgado Chalbaud politikaria hil zutenean egin zuenak. Aldizkariaren zuzendaritzakoa da berehala Martin, erredaktore buru, *de facto*-ko zuzendaria.

1952an Caracasetik New York-erako bidea egin behar dugu, Michiganeko Unibertsitatera baitoa Martin ingelesa ikastera eta literatur ikastaroak egitera, *Elite*-ren baimenarekin.

Handik itzulita, 1954an *Elite* utzi eta *Creole* petrolio konpainiara egiten du jauzia, bertako *El Farol* aldizkariaren buru izateko.

Bidaia honek joan-etorri azkar bat egin behar du puntu honetan: 1955ean Euskal Etxean ezagutu duen neska santzurtziar batekin ezkontzera Zurich-era baitator. Ezkondu eta buelta. Hiru seme-alaba izango ditu Anamarirekin Caracasen.

Venezuelan zehar herriz-herri jarraitu behar diogu Martini, erreportaiaz erreportaia. Hirurehun lan periodistiko baino gehiago idatzi du 50eko hamarkada honetan.

Sariz-sari ere jarraitu behar diogu. Venezuelako literatur sari preziatuenak bereganatu ditu, nola erreportaietan hala ipuinetan, *El Nacional* eta *El Universal* egunkarietakoak edo *Estampas* aldizkariko sariak, besteak beste.

60ko hamarkadaren hasieran, biraketa berri bat egiten du Martinen bideak: kazetaritza praktikoan etenaldi bat egin eta Standard Oil Konpainiaren beka batekin Ipar Ameriketako Evanston-era doa kazetaritzako ikasketak egitera. Familia eta guzti doa, bi urterako. Kazetaritzako «Bachelor» eta «Master» tituluak atera eta berriro dator Caracasera, Creole-era atzera, baina orain maila bat gorago: *El Farol* zuzentzeaz gainera *Nosotros* aldizkariaren ardura ere berari ematen diote.

Aurreko hamarkadaren amaiera aldera bi ipuin liburu ezagun argitaratu zituen: *Un real de sueño sobre un andamio* (1957); *La semilla vieja* (1958) eta orain *Cuando los peces mueren de sed* (1963) erreportai-bilduma eta ipuinekin *Las manos grandes de la niebla* (1964) ezagunenen artean. Venezuelako gizarteko gaiak dira, bertakoentzat idatziak.

Caracaseko literatur munduan Martinen izenak sona handia du urte hauetan.

Bidaia honek, 60 hamarkada honetan, beste paraje batzuetara ere bagaramatza, venezolarrentzako kazetetatik urrun. Martinen ekoizpen idatzian aldaketa nabarmena ageri da. *Zeruko Argia*-n idazten hasten da eta euskal esilioko hainbat aldizkaritan: *Alderdi*, *Euzko Gaztedi*, *Eusko Deya*, *Tierra Vasca*, eta beste.

Euskaraz idatzi eta argitaratu ere egiten du: 1950ean Euskal Etxeko saria irabazi zuen *Iltzalleak* aparte, 60ko hamarkadakoak dira (eta besteak gaiez ere bestelakoak) gainerako liburuak: euskara dute gai, kezka edo sorburu, hala nola, *Ama gaxo dago* antzerkiak (1964), *Gurpegin aspaldi gertatua* antzerkiak (1965), *Sorgiñaren urrea: Umeentzako kontuak* (1966), *Panpiñak* (1968). Haurrak, bere haurrak, euskaraz hezitzeko idatzi ditu hauetako batzuk. Hizkuntzaren kezka du *Unamuno y el vascuence* liburuak (1966), noski.

Bidaiako etapa honen azken partean gaude, itzuleraren bezperan. 1967an itzuli nahi du Euskal Herrira Martinek, baina ezin du Espainia frankistan sartu. Emaztea eta hiru haurrak datoz aurrena, 1967an, eta handik bi urtera Martin bera.

Baina itzulerako bidaia egin aurretik gelditu egin behar dugu piska bat, eta egindako bideari begiratu bat eman.

Talaia honetatik atzera begira jarrita paisaia tropikala ikusten dugu: Martinen bizitza, gurean udaberrian natura bezala, han lehertu eta loretu da, 22 urte horietan: pertsona bezala, kazetari bezala, idazle bezala, abertzale bezala, euskaltzale bezala. Hiruzpalau puntu azpimarra ditzakegu:

a. Euskaldun unibertsala

Caracaseko gizarteak ongi ulertu zuen Martin: euskaldun eta venezolar gisa ezagutzen zuten, biak batean, batabesteari kontrajarri gabe. Bi aberriko gizona izan da. Venezuela, Martinentzat, ez da bigarren aberria izan, «beste» aberria baizik. Ez da ñabardura nimiñoa baizik eta jarrera sendoa. Bi aberriei, biei, eman zizkien bere maitasunaren frogak. Venezolako gaztelanian idatzi zuenean, osoki zen hangoa: hizkuntzaz gainera hizkeran, hiztegian, gaietan, pertsonaietan. Gizarte hartako gaiak eta gizarte harentzat idatzi zuen. Venezolarra zen, legez eta gizalegez. «Paradigma de la inmigración buena» izan zela Martin aldarrikatu zuen euskal jatorriko Odriozola kaze-

tari venezolarrak. Niretzat euskaldun unibertsalaren eredu bikaina da Martin eta jarrera horixe saritu zion 2003ko irailaren 10ean Eusko Jaurlaritzak Euskal Herritar Unibertsal izendatu zuenean.

b. Itzulera

Martinek Caracasen maila sozioekonomiko oso ona zuen, idazle eta kazetari gisa prestigio handia, bertan sorturiko familia, jatorrizko familia ere bertan. Dena han utzi, emaztea eta hiru haur txikiak hartu eta jatorrizko aberrira etortzea erabakitzen du.

Zergatik eta zertarako?

Hiruzpalau arrazoi ematen ditu berak. Laburbilduta: 1) seme-alabak euskaldun osoak izatea nahi du; 2) euskaraz bere herrian idatzi nahi du; 3) Agirre lehendakariaren heriotzak utzi zuen hutsunea askoren artean bete behar dela uste du.

c. Euskararen defentsa sutsua eta burutsua

60ko hamarkadan zehar oso kezkatua ageri da Martin diasporako euskal herritarren artean somatzen duen euskararekiko axolagabekeria eta utzikeria dela eta. Utzikeria pertsonala, eta politikoa.

Honen aurrean bi norabidetan lantzen ditu artikuluak: batetik, Unamunoren ideien eraginaren aurka euskararen gaitasunaren alde; eta bestetik, euskararen lehentasuna burruka politikoaren baitan.

Artikulu batzuen izenburuak ongi salatzen dute kezka: «El conformista y el euskera» (1965), «El euskera (*no*) se muere, irremediablemente» (1965), «La importancia del euskera» (1965), «¿Qué importancia tiene el euskera para el nacionalismo vasco?» (1965), «La limitación de los euskeranómanos» (1965).

* * *

1. Euskararen balio komunikatiboa eta kulturala defendatzen du alde batetik, polemika giroan eta kontrasaio gisa.

Polemikaren sua Antonio Aparicio olerkari espainiar erbesteratuak piztu zuen. 1958an Caracaseko *El Nacional* egunkarian «Ruralidad, nacionalismo» idazlana eman zuen argitara, euskararen balio eza eta eginkizun literarioetarako gaitasunik eza erakutsi nahian Unamuno aipatuz. Martinek derrefente erantzun zion: «Unamuno también dijo esto…».

Martinen tesia ongi laburbiltzen da artikuluko esaldi honetan:

> ¿Que el vasco resulta pobre, inhábil para su función literaria? Las lenguas son como las madres, se las quiere igual si son mujeres de grandes encantos como si son unas tímidas mujeres de pueblo, eso importa poco para que se las quiera conservar. Pero la lengua vasca no desmerece en nada a las de gran difusión, si no es para los que la ignoran.

Bero-bero eginda ibili zen Martin, eta beroan idatzi zituen bi liburu gai beraren inguruan: *Ama gaxo dago* euskaldunentzat eta *Unamuno y el vascuence* Hego Amerikako talde abertzale eta espainiarrentzat.

* * *

2. Urte beretan dabil, baita ere, euskarak herrigintzan duen garrantziaren kontzientzia piztu nahian.

Hemen aurrean zuena, ez zen Aparicio espainolista, baizik eta bere alderdiko abertzaleak. Horregatik eraman zituen bere tesiak *Alderdi* aldizkarira, «Euzkadi, ¿a dónde va?» izenburupean (1964).

* * *

Haren tesia zehazte aldera: bi ekintza mota bereizten ditu Martinek, ekintza politikoa eta ekintza kulturala. Galdera da, bietatik zein den premiazkoena eta garrantziz-

koena euskal herrigintza edo aberrigintzan. Burruka kulturala lehenesten du Martinek (1964an!). Urak aldegin eta gero urpresa alferrik dela dio Martinek.

Martinen tesiaren aurka altxatu zen Manuel Irujo *Alderdi*-ko hurrengo artikulu batean burruka politikoa lehenetsiz:

> El enemigo número uno de la nación vasca, de su lengua, de su cultura, es el régimen franquista.

Erantzunean Martinek lehengo lepotik du burua:

> En mi opinión, esta de la 'cultura' es una carrera contra el reloj. No se trata sólo de llegar a la solución política, o de Estado, que yo estoy seguro que llegaremos; sino que se trata de llegar al Estado a tiempo aún de seguir siendo la nación que hemos sido, de seguir siendo nosotros mismos.

Martinek bere herriari eta abertzaletasunari 1965ean kritikatzen diona da hizkuntzari lehentasunik ez eman izana sekula. Esaldi oso gordinak ditu, hala nola:

– «los vascos no hemos hecho realmente nada importante aún, como pueblo, para salvar el euskera, sino lamentarnos, sino dolernos; o, (…) resignarnos.

– No hemos hecho nada importante, porque nuestro pueblo nunca ha puesto su lengua (…) a vivir plenamente en la escuela, en la Universidad, para saber si es capaz o no de mayor vida, de mayor vitalidad.

Euskarak abertzaletasunaren barruan duen garrantzia atzera azpimarratzen du beste artikulu baten ere:

> ¿Qué importancia tiene el euskera para el nacionalismo vasco?: Somos nacionalistas por esto, porque queremos encontrar una manera de ser nosotros mismos *y ser nosotros mismos implica sobre todo ser euskaldunes, poseer la lengua.*

Hirugarren etapa

3. Bidaiako hirugarren etapa 1969an hasten da eta 35 urteko iraupena du. Hondarribian dugu kokaleku nagusia.

Etapa honen hasieran bidaia batzuk hara eta hona egingo ditugu, bidaia motxak: Euskaltzaindira, *Zeruko Argia*ra. Martinek euskaraz lan eginez bizi nahiko luke, baina ezin du. Euskaltzaindiak eta *Zeruko Argiak* lana badute, baina dirurik ez Martin eta bere familia mantentzeko. Martinen euskal lanak 10 urte itxaron beharko du.

* * *

Bidaia bidegurutze batera iritsi da: herrigintza jartzen duen norabidea hartu behar dugu. Martin politikaren bidetik abiatu zen eta alderdiko lanetan sartu nahiko etorriberritan, zein eta bera, Estatuan sartu ahal izateko politika ez zuela usaitu ere egingo agindu behar izan zuena: EAJn Ajuriagerraren taldekoa da, eta barruko Batzorde eraginkorreko kidea 1970ean hasita; hurrengo urtean Leizaola lehendakariarekin Eusko Jaurlaritzako Kontseilaria; Alderdi izeneko EAJren organo ofizial eta klandestinoko zuzendaria. Eta halako batean, 1973an, Espainiako poliziak Estatutik

kanpo bidaltzen du. Donibane Lohizunen hartzen du egoitza. 1976arte ezingo da itzuli Hondarribira.

Klandestinitateko bidearekin batean beste bat ere hartu du Martinek. Handik abiatzen bagara gure bidaian historia lanetan ikusiko dugu Martin. Martin ez da historiagilea berez, kazetaria da, eta kazetari gisa arituko da historia lanetan ere. Zergatik abiatu den bide honetatik behin eta berriz esplikatu du berak: Euskal Herrira itzuli zenean informazio falta izugarria ikusi zuen bazterretan. Borondate politikoa, burruka, saltzeko moduan omen zegoen, baina horren kontzientzia informaturik ez, Francok ezabaketa osoa egina baitzuen. Desinformazioari aurre egiteko, memoria historikoa elikatzeko materialak biltzeari ekin zion. Arnasaldi berekoak eta helburu bera dutenak dira bai *Hablando con los vascos* saila (luzeagoa izan nahi zuena) eta baita ere historiaz idatzi zituen *Síntesis*, *Nueva Síntesis* eta sei liburukitako *Historia de Euskadi*. Helburu berekin jarraituko zuen geroago ere hainbat abertzaleren biografiak idatzi zituenean.

Bidaia honetan beste bihurgune nabarmen batekin topo egingo dugu, baina adi egon behar da, sarri ustekabean pasatzen baita: Donibane Lohizunetik itzuli zenean, 1976an, politika lanak utzi eta kultura lanak lantzera jo zuen Martinek. Eta ia inork erreparatu gabe handik urte batzuetara bide berri bat hartu zuen: 90eko hamarkadan euskaraz bakarrik idatzi du Martinek. Bihurgune horretan ez dugu jende askorik ikusiko. Ez dakit bakarra ez ote den Martin: merkatu zabaleko erdaratik euskararen mundu txikira lerratu den asko Martinek ez zituen inguruan ezagutu.

Euskararen hautu honetan aldapa ugari igo behar izan ditu Martinek. Jada Caracasen, *Umeentzako ipuinak* liburua argitaratu zuenean, Baionako erabakiak txalotu eta bete zituen. Euskal Herrira etorritakoan, Euskaltzaindiaren bidea hartu zuen: makina bat alderdikide hasarretu zitzaizkion bere inguruan horregatixe, h-a dela eta ez dela. *Deia*-ko egitasmoan *Euskarazko Deia*-ren ardura hartu zuen Martinek 1977an baina handik urtebetera utzi egin zuen, euskarari eta euskal kulturari ez zitzaiolako berak nahi adinako garrantzia ematen.

Euskaldunon Egunkaria-n bera izan dugu hasieratik lehendakari eta maisu, gustura egon da euskarazko egunkariaren ametsa egia bihurtu baizitzaion, baina inputatugai dela hil da. Sasoiko (eta bizirik) balego, besteok bezala prozesatua zegokeen, noiz epaituko. Ez dago eskubiderik!

Martinen bideak bide-seinale garbi bat izan du beti euskaltzaletasunera daraman norabidean: koherentzia. Koherentziak ekarri du Caracasetik Euskal Herrira. Koherentziak ekarri du politikatik kulturara. Koherentziak ekarri du erdaratik euskarara.

Martin eta Euskaltzaindia

Bidaia honetan Martin eta Euskaltzaindiaren arteko harremana ezin dugu bide bazterrean utzi.

Ameriketatik bueltan, Euskaltzaindiaren babesa bilatu zuen. Berehala hasi zen Euskaltzaindiarekin kolaboratzen, euskara batuaren inguruan-eta. 1973an euskaltzain laguntzaile izendatu zuen Euskaltzaindiak eta handik 20urtera Ohorezko euskal-

tzaina, 1993an. (1973an euskaltzain konfirmatu egin zuela dio Berak, Ameriketan zegoela izendatu ondoren?)

Lankidetzarik sakon eta emankorrena 1977koa izan zen: *Euskararen liburu zuria* eta gero *Hizkuntza borroka* Martinek berridatzi zituen. Lan zaila, bikain burutua. Martinek asko ikasi zuen *Liburu Zuria*rekin. Euskararen aldeko ikuspegia, jada 60ko hamarkadan landu zuena, aberastu, heldu eta indartu egin zitzaion orain. Garbi antzematen da hori *El problema vasco y su profunda raíz político-cultural* saioan (1980).

1980an «Euskalarien Jardunaldiak» Euskaltzaindiak antolatu zituenean Martinek kazetari-lana egin zuen.

Urte batzuek beranduago, 1984an Jose Antonio Aranarekin batera *Euskaltzaindiaren historiatxoa* idatzi zuen.

Martinek errespetu handia zion Euskaltzaindiari, gure Herriko instituzio gisa. 1973an euskaltzain laguntzaile edo urgazle egin zutenean honela adierazi zuen bere ikuspegia:

> Ara, gure Herriari egiazko instituzio gutxi geratzen zaio, eta gutxi horietako bat Euskaltzaindia da. Gaurko Euskaltzaindiak izango ditu ahuleriak, eta egingo ditu hutsak; hala ere, hauxe da hizkuntza arloan euskaldunok dugun instituzio bakarra, eta errespetatzea, zaintzea eta berritzea izan bedi gure eginkizun nagusiena.

Amaiera

Amaitu dugu ibilaldia. Azkar, azkarregi ibili gara. Martinek irekitako bide gutxi batzuk soilki korritu ditugu. Pasadizioan ikusi duguna asko da izan, baina Martinek egin duenaren ondoan deus gutxi. Martinen lanetan ezagutzen dena hemen ikusabartu duguna baino askoz gehiago da, noski, baina ezagutzeko dagoena are eta gehiago. Gaur egun erreferentzia bibliografiko bezala ezagutzen diren idazlanak 700 eskas dira, baina denetara 2.000tik gora lan dira seguru.

Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle eta ohorezko izendatu zuen gizonaren lanaren bolumena izugarri handia da, tamainaz noski, baina kalitatez ez gutxiago. Izendapenean Martinekin ez zuen huts egin Euskaltzaindiak.

Joan Mari Torrealdai

AUGUSTIN ZUBIKARAI BEDIALAUNETA (1914–2004)

Hasita zegoen lehen gerra handia (1914), Augustin Zubikarai Bedialauneta Ondarroan munduratu zenean (1914-XI-3). Aita-amak arrantzale izan ez arren, gazte-gazterik erakutsi zituen hark itsas- eta arrantza-kontuetarako miresmena eta joera.

Garramura bera azaldu zuen, kontizu, ikasketarako, eta arin lortu Saturrarango abade-mintegian sartzea. Urte batzuetan ikasle bertan ibili ondoren, gaixoak bateko eta abade izateko gogoa hozteak besteko, eguneroko bizimodura ekarri zuten Augustin Zubikarai.

Egunerokotasun horrek, nolanahi ere, ez zuen azaleratu euskararentzako galbiderik edo alferkeriarik, egonezina eta kezka baino. Izan ere, Augustin Zubikarairen euskal ibilbidea orduantxe hasi, eta ia-ia gizaldi osoa hartu zuen, artean garrantzi handiko gertaerak ikusi eta bizi behar izan zituela.

Espainiako gerra zibila lehen; gero erbestea; hurrengoan lan behartuen urteak; berriz ere etxera itzuli, familia osatu eta soldata eskuratu beharra... Horiek guztiak egin behar izan zituen Augustinek urte gutxi batzuren barruan, betiere euskara eta Euskal Herria alboratu gabe.

Horretara jarrita, Augustinen ekina ardatz ezagunekoa da, batez ere emaitzetan. Euskara herritarra darabil, eta, herritarra diodanean, Ondarroako eta itsasaldeko euskara bizia esan nahi dut, hortxe baitago haren oinarri eta erro trinkoa. Badaki, berriz, Zubikaraik besterik ere egiten. Begien bistakoa da, herrian herrikoa edo tokian tokikoa aintzat hartu, eta, aldi berean ere, euskaldun guztiei heltzeko modukoak egiten dituela, idaztankera malgu, zoli eta arin batez.

Bitasun horretan ibili zaigu beti Augustin Zubikarai. Konturatu da, alabaina, bitasun horrek, aldiak aldi, egokitzapenak behar dituela, bolada eta garai bakoitzaren zertzeladak eta ezaugarriak barruratuz.

Aldikada gogorrak izan zituen berak bizitzan zehar, lehen esan dudan legez. Gogorrak, latzak eta mingotsak, idazle eta gizabanako moduan. Horiek baliatuko ditut gaur zuen aurrean, Augustin Zubikarairen nondik norakoak gogoratzeko:

1. **Gerra aurreko idazle gaztea (1914-1937)**
2. **Gerra osteko euskal suspertzailea (1937-1978)**
3. **Hogeita bost urte emankorrak (1979-2004)**

Bistan da Augustinen biografian hiru tarte horiek berebiziko esanahia dutela, besteak beste, horiek erakusten dizkigutelako, lehen-lehenik, gazte bipil baten ekintza eta loratzen zetorren belaunaldi baten fruituak; hurren, kimu berriak erro-errotik moztu eta

halabeharrezko geldiera eta berriro hasteko premia, nekez eta arazoz, bide malkartsuan gora oztopoak desagertu arte. Aurreko neke-min horiek ekarri zuten, zalantzarik gabe, azken hogeita bost urteko heldutasun-puntu zoragarria, idazlea eta kultur eragilea betebetean dabilenean, molde egokia hartuta, hainbat arlo eta sailetan.

1. Gerra aurreko idazle gaztea (1914-1937)

Oso gazte ekin zion Zubikaraik idazteari. Bazituen horretarako abagune egokia, dohaina, eta, zergatik ez esan, argitaratzeko tokia eta lekua ere bai. *Jaungoiko zale* eta *Ekin* izan ziren haren lehen idazkiak hartu zituzten agerkariak, bitzuok, *Jaungoiko zale* abade-aldra eta bazkun bizkaitarrak bultzatu eta argitaratuak.

Abade-mintegitik irten berri, Zubikaraik ugari dihardu horrelakoetan, ezizen askorekin. Laster etorri zitzaion besterako bidea ere, Ondarroatik bertatik hasi zelako herriko kronikak igortzen *Euzkadi* egunkarira eta *Euzko* astekarira. Gaztelaniazko testuak ere bai, lantzean behin. Bazen orduan Ondarroan, beste herri askotan legez, halako kazetari-multzotxoa, herriko albisteak zehatz--mehatz eta euskaraz asterik aste ematen zituena. Augustin Zubikarairekin batera, hor dira Jose Maria Etxaburu *Kamiñazpi*, Juan Badiola *Biar*, Segundo Bedialauneta, eta, noizean behin, gutxitan bada ere, andrazkoa, Badiolatar Agurtzane izenekoa.

Gurutz, Iturri-ondo, Arteta, Likona, Amesti, Itxasertz, Ondarzubi, Zubegi... dira Zubikarairen ezizenak, ordukoari men eginez, idazlearena baino, euskararenari aitortzen zitzaizkiolako pisua eta esangura.

Aldaketak, hala ere, azkar etorri ziren. Bigarren Errepublikaren urteak aurrera joan ahala, gerraren mehatxua gain-gainean zetorren. 1936. urteko uztailean gertatu zen hori, eta Ondarroa, urte bereko urriaren lauan, Francoren eskuetan zegoen, Bizkaia osoan herri bakarra. Artean, irailaren azkenetan, Augustin Zubikaraik eta beste ondarrutar askok, itsasoz euren herritik ihes egin behar. Norabidea Euskal Herriko Iparraldera hartu bazuten ere, gerraren ezinbestekoak Bilbora eraman zituen.

Beste behin ere, kazetaritza-lanak hartu behar *Euzkadi* egunkarian. 1937. urteko urtarrilean, aldiz, ordu arte euskararentzat ezezaguna zena, gauzatu eta kaleratu ahal izan zen, alegia, *Eguna* euskarazko egunerokoa. Hara deitu zuten Augustin Zubikarai, *Abeletxe*ren zuzendaritzapean, Eusebio Erkiaga, Jose Maria Arizmendiarrieta, Alex Mendizabal eta beste batzuekin batera, aurrera ateratzeko ahalegin hori. Hala egin zuten, Bilbo Francoren eskuetan jausi arte.

Egin-eginean ere, urte bitarte horretan mamitu zuen Augustin Zubikaraik bere idazletza. Berba lauan zein antzerkian, haren zutabe nagusiak finkaturik geratu ziren: euskararen defentsa eta babesa, euskara herritarra (indartsu zebiltzan berba berriei neurri batean bakarrik men eginez), euskal abertzaletasuna, eta fedea eta erlijioaren aldekotasuna.

Aurreko horiek, nire ustez, klasikotasun batera eramaten gaituztela ezin uka. Berehala sortzen da Txomin Agirrerekikoa. Batak zein besteak, hurrean ere, bateratsu jokatu zenbait kontutan, bestetzuetan, sarri-sarri, desberdinak izan arren.

2. Gerra osteko euskal suspertzailea (1937–1978)

Hiruzpalau bide nagusi daude oraingo honetan joko bizian haren biografian. Hurrenkera batean jarriz gero, honetara letozke: lehen-lehenik, gerraren ondorioak; biga-

rren, ezkondu eta familia osatzea; hurrengoa, lana eta soldata; eta, laugarrena; euskalgintza. Zerrenda horretako lehentasunak, etxekoek ondotxo dakitenez, eguneroko bizimoduak jarriko zituen.

Biografiaren zantzurik nabarienak honela datoz: Bilbo jausi, Zubikaraik alde egin, atxilo hartu, trukaketa baten bidez berriro ere aske eta Iparraldera (*Eskualduna* agerkarian ere zerbait idatzi zuen); itzulian, langile behartuen sailean sartu eta 1941. urtean berriro etxeratu. Halaxe kontatzen du berak urte horietako liburu autobiografikoan *Makillen egunak* (1983). Gero ezkontza, Ieko Maria Jesus Erkiagarekin, sei seme-alaba izan zituztela (Jose Augustin, Joan Andres, Alejandro, Beatriz, Maria Jesus eta Jabier). Egun, damuz, horietako bi gure artetik falta badira ere, eskerrak besteei hona etortearren. Arrain--fabrika batean kudeaketa-lanetan hasi, arrantza-eskolaren zuzendaritza eskuko, etxeko janari-denda... badira hor zereginak.

Eta, horrekin guztiarekin ere, euskalgintzan etengabe jardun eta jardun, ekinean oztopo ugari izan arren. Euskara bera debekatuta eta gutxietsita, beheratuta. Ondarroa herri euskalduna, eta, bertan, kultura- eta erlijio-taldeak izango dira gerraondoko hits horretan babesa nahiz sorospidea emango diotenak, euskararena aurrera ateratzeko.

Idatz-generoak ere oparo. Azpimarra ditzadan prosa, olerkia, kantuen letrak, antzerkia, kazetaritza. Zubikarai, zernahi gisaz, ez da idazte hutsean geratuko. Antolatzailea eta suspertzailea ere bada, aurreko urteetako tradizioaren harian. Bide beretik, aldizkariak (*Boga boga)* nahiz antzerki-taldeak (*Kresala*) bultzatzen ditu.

Hauek dira ospe eta sona gehien lortuko dutenak, herrian bertan eta herritik kanpo ere. Hor daude, garai haietako zentsuraren gainean, euskalgintzaren mezua zabalduko dutenak.

Sariak ere, zenbaezinak. Horra hor erresistentziaren sasoiko ezaugarria. Sariak (berbalauaz, olerkiaz, antzerkiaz) bide egokiak izan ziren, euskal idazleen belaunaldi oso bat agerrarazi eta plazaratzeko. Aipa dezadan oraintsuko adibidea. Berrikitan agertu du Euskaltzaindiak *Premios literarios Bilbao Bizkaia Kutxa-Euskaltzaindia Literatura Sariak: 1958-2003*, liburu dotore batez. Hortxe dago, beste inora joan gabe, esandako frogarik agerikoena. Zubikaraik 1963, 1967 eta 1969. urteetan (hau da, ez behin edo birritan, ezpada hiru aldiz ere) irabazi zuen *Toribio Altzaga* antzerki-saria, bi urterik behin ematen zena, hori ere aintzat hartu gabe epaimahaikide izan zenekoak.

Antzerki hori, zinez, herriaren barruan ikuskizun apartekoa izaten zen (telebistarik ez). Herrian ez ezik, bestelako herrietara ere zabaltzen zen horrien oihartzuna, herririk herri ibili baitziren halako antzerki-lanak, antzezle ondarrutarren eta Augustin Zubikarairen maisu-lana hedatzen.

Augustinen euskara, bestalde, bide beretik etorri arren, aldatzen doa denboraren poderioz. Idaztankeran ez dira hain nabariak gerra aurreko berba berriak. Herriarengana doa oso-osorik, eta herriarengandik jasotzen ditu esamoldeak eta espresabideak. Antzerkigintzan ondu duen teknikak eramaten du, gero eta gehiago, pertsonaien arteko bizitasuna eta jatortasuna lantzera. Arrantzaren mundu sinbolikoan badabil ere, azpimarratzekoak dira bestelako kezkak, hurrengo urteetan zabal landuko dituenak.

Euskaltzaindiak 1961.urtean eman zion euskaltzain urgazlearen agiria. Gogoz hartzen du parte Akademiaren lanetan, eta behin baino gehiagotan dator Akademia

Ondarroara, sariketa, Txomin Agirreren ehungarrena eta abarrekoak ospatzera. Urte batzuk geroago gertatzen da euskara batuaren auzia. Ondarrutarrak ez du batuaren moldea jarraitzen. Lehengoari eusten badio ere, emaitzetan sendo dabil, laster etorriko denaren seinale. Hamar urte beranduago, egoera arras desberdina da. Franco hil da, Konstituzioa indarrean dago, euskal prentsa abian... eta Augustin berriro ere, *abantin*. Agerikoak ditu *Deia* egunkarian zutabe esanguratsuak, euskaldunen artean harrera beroa izan dutenak. Eleberriak eta antzerkiak ere, bide beretik. Ondarroako Kultur Etxearen ardura hartu du. Bertako eta Ieko udalen testu administratiboak euskaratzen ditu... Hortxe daude Zubikarairen ibilbide luzearen urterik umotuenak.

3. Hogeita bost urte emankorrak (1979–2004)

Une horretan ezagutu neban nik Augustin Zubikarai, itzal haundiko idazle eta Ondarroako Kultur Etxearen arduraduna zala. 1981. urtean, hain zuzen be, Ondarroara notario etorribarri. Bitartekari Eusebio Erkiaga izan genduan, Augustinen idazle belaunaldikide eta emaztearen partetik senide. Laster izango zan Zubikarai, politikaren erantzukizunei muzin egin barik, Bizkaiko Batzar Nagusietako ahaldun, EAJ/PNV alderditik.

Orduantxe be, lehenengo deia, Ondarroako Kultur Etxean hitzaldia emoteko, antxinako foruak zirala ta. Gero, *Ondarroa* aldizkaria sortu ebanean, (1982) hara batu ginduazan gazte batzuk, zuzenbidearen munduan bizi eta euskeragazko inkesa genduanok: Erkoreka, Gatzagaetxebarria... Bien bitartean, Augustin, betiko moduan, ezin geldirik egon.

Arrapaladan etozkion ideiak, eta, ideiekin batera, ideiok aurrera eroateko erabagia be. Ikustekoa zan haren irudia, bere etxeko bulegoan jarrita, idazmakina soil baten aurrean, idatzi eta idatzi, berak esaten eban moduan, hasi eta amaitu arte. Harek eukan trebetasuna, punturik xumeena be hartzeko eta egundoko artikulu gozoa egiteko, irakurterrez eta erakargarria.

Irratizale diranentzat, haren kronika mamitsuak, eguneko esakerak, ospakizunak, feriak, usadioak, ohiturak, ekanduak eta abar jasota. Bide beretik Kultur Etxean antolatzen ebazanak, ez beti gai astunetan kokatuak. Euskal umoreari edo arrain-sukaldaritzari berebizikoak oparitu eutsazan urte batzuetan zehar. Egun idazle aitortuak diran batzuek hor hasi eben euren ekina euskal letretan.

Saiorik saio, liburuak be ugari. Esku oneko idazlearen berbaroak jarraitzen deutsa Augustin Zubikarairi. Sasoi horretan esku-eskura emon eustazan liburuen artean, nik neuk, behinik behin, hiru azpimarratuko neukez: *Bale denborak* (1978), *Anton Guzurretxe* (1979) eta *Itxastarrak* (1985). Hirurotan, zein baino zeinago, Zubikarairen narraziogintza igarri-igarrian dago: batetik, herritarrentzat idatzi; bestetik be, herri-berbeta oinarri hartu eta literatura-bideak hortik jorratu, itsasoko hiztegi aberatsaren bidez, zein alkarrizketa motz eta esanguratsuen bidez, beti be bertsolaritzatik eta herriaren jakintzatik garraiatzen eta bertaratzen dituen osagaiak bazter itzi barik.

Ezin argiago diño berak be, halako batean:

> *Zein dan euskeraren Ipar-Izar ori? Erria. Bere akats, illunpe, laiño, gurma eta guzti. Baiña egun sentiak be goiz giroan, bere terraltxoa eukiten dau errekonduan, begietako makarrak garbitu eragiteko eta euskerak be ori ezagutzen dau bere idazle, bertsolari, kontulari eta esaleen aldetik.*

Olerkigintzan be, eginahal bizietan. Olerkari moduan lar ezaguna ez bada be, baditu bere lanak eta bertsoak, sarritan elebarri-testuetan txertatuta datozenak, teknika hori oso gustoko jakolako. Olerki saridunak be oparo, eta hainbat eta hainbat argitaratuta, aldizkari askotan. Olerkariaren sena be berez dario Zubikarairi. Beharbada, hunkigarriena izan daiteke, gerraoste baltz-baltzean, atxilo egoala, herritik kanpo, Gaztelako lautadan lurperatu behar izan eban lagun hilari zuzendua. Ez eukan besterik otazko gurutzea baino, haren oroigarri:

Otazko Kurutzea,
maitasun indarrez
arantzen miñetan
Nire odolez betea!
Eztakit noiz arte
Zaindu zendun
Lagunaren bakea.
Nik zuregan
Laga neban
Bene-benetan
Nire fedearen
iraupena
Ta lagun illaren
Itxaropena.

Esana da, lehendik be, Augustin Zubikarai kazetaria izan zala, gogoz eta guraz, eta horren probak aurkitzeko aitamen laburra egin behar, artikulu-bildumak dirala-ta. Azkena ekarriko dot hona, *333 Oroipen eta ikuspegi* (1994), bertara dagozalako batuta 1977. urtetik hona erruz eta erraz argitaratu zituan artikuluetatik hainbat, *Deia*n zein *Diario Vasco*n. Arina eta gozoa da horreen idaztankera, euskaldunentzat erakargarria eta tiramena daukana.

Euskara gose horri erantzuna emon nahi izan eutsan Zubikaraik. Ez, ostera, horri bakarrik. Etnografia eta historia landu egin zituan, luze eta sakon, Lea-Artibai eta inguruko herrien zertzeladak liburuz liburu emonez. Harakoetan euki dabe herri horreek euren benetako jakinduria, berbeta, baserriak, ohiturak eta abarrekoak txukun jasota eta euskara irakurgarrian jarrita. Horretan be, inoizko baten aurkezpen-laguntzailea izan nintzan partetik, ezin ahaztuko gomutak.

Hizkuntzalaritza be, aparte ez. Horretara eta egun puri-purian dabilzan herriko berba eta esate-moduen bilketa baino askoz lehenago, Augustinek hori egiten jakin eban. Tokian tokiko berbak eta esamoldeak bildu beharra, berak landu eban aspalditik. Zerbait esatekotan, hiru gogoratuko ditut hemen: bata, *Itxas-aize, esaldi eta iztegi antzerakoa* (1989); bestea, *Ondarroa´ko euskerari buruz* (1992), Euskerazaintzan sartzeko egin eban hitzaldia; hirugarrena be, agertu bakoa, Zubikaraik bere bizitza osoan zehar batu eta ondu eban kresal- eta itsas-usaineko hiztegi joria.

Danez be, kontu berezia gorde eban beti Ondarrurako. Herriaren argazkiak artez gorde zituan, eta gero liburuetan be eskaini. Zerbait gehiago nahi eban, edozelan be, Augustinek herriarentzat. Kazetari-artegari jagokonez, laster asmatu eban asmatzekoa, *Arranondo* (1992) hilabetekaria, ondarrutarren eskuetan jartzeko herriko albiste eta nonzebarri ugariak, herrialde eta eskualdeetako prentsari sendo oratuta.

Beste horrenbeste, sariak. Aldera dagidazan hona, beste askoren artean, Euskaltzaindiaren ingurukoak: Euskaltzaindiaren aldetik, 1978. urtean Azkue Saria (*Esan eta esango*), eta 1979. urtean Txomin Agirre Saria (*Anton Gezurretxe*).

Omenaldiak be, jatorri desbardinekoak: Bizkaiko Foru Aldundia (1986); Labayru Ikastegia (1986); Euskadiko Euskal Antzerki Topaketak (1991), Ondarroako herria (1992). *Andres Eliseo Mañarikua* Saria jaso eban 1999. urtean. Euskerazaintzaren kide izateko hitzaldia Ondarroan egin eban, eta erakunde horren buruordea izatera be heldu zan.

1993. urtean egin eban Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain, gaur beste hilbarritxostenaren gaia dan Martin Ugalde idazle andoaindarragaz batera. Bi--biok alkar ezagutzen eben aspalditik. Zubikaraik 78 urte bete ebazala be, Ugaldek, orduko *Egunkarian* (1992. urteko urriaren 27an) Augustinen goresmenak egin ebazan. Euretako bat be ez dago gaur gure artean: gizabanako biak bizitzaren legez desagertuak; albisteemoilea, aldiz, halabeharrez.

1998. urteko urriaren 3an alditxartu zan Augustin. Harrezkero, ezin idatzi izan badau be, aukera izan dogu askok adiskidea ikustera joan eta ordu batzuk beragaz emoteko, bera jarrita eta Artibai errekari begira, beragaz batera jardunean gengozanok esandakoari baiezko edo ezezkorik adierazgarrienak azaltzeko.

* * *

Augustinen moduko bultzatzaile baten bizitza laburtzeak askoz gehiago eskatuko leuke. Amaiturren nagoala, ezin ahaztu Augustinen lana zorrotzen eta egokien aztertu daben ikertzaileak. Betoz nire hitzetara Julen Urkiza eta Luis Baraiazarra karmeldarrak, eta jarraian zuen aurrean jarri dagidan Gorka Aulestia ondarrutarra be. Hiruroi eta Augustinen etxekoei be zor deutsedaz testu hau prestatzeko informazioa eta xehetasunak. Besarkada handia Zubikaraitarrentzat, urteen joan-etorriak, lagunak ez ezik, adiskide eta irizkide be –esango neuke nik– egin gaituelako.

Ondarrun badakigu bereizten itsaso zabala, atako banda eta itsaso babestua, barruko kala. Badakigu be Augustin, honezkero, atako banda zabalean ibiliko dala. Gu geu, ostera, barruko kalan geratu gara, bera barik, umezurtz. Gure artean dagoz, edozein modutan be, haren lana eta gomuta. Horreek, hain zuzen be, belaunaldi gazteagoen eskuetan ipini behar doguz, baliagarri izan daitezan egun eta bihar-etziko ondarrutar eta euskaldun guztientzat.

Eskerrik asko.

Andres Urrutia

AURKIBIDEA / ÍNDICE / INDEX
2004

AURKIBIDEA / ÍNDICE / INDEX

2004

ALDEKOA-OTALORA, Antton Mari:
— Gerediagako Salbadoren 643

ALONSO, Nekane:
— Harrera 605

ALTUNA, Patxi:
— Aita Agustin Kardaberaz, *Eusqueraren Berri Onac* (1761), edizio kritikoaren aurkezpena 545

ANDIAZABAL, P.:
— Maurice Arrieten liburutegia 661
— Pierre Lafitten Gutundegia 957
P. Lafitte - A. Irigaray (1955-1970) 959

ARANBURU, Pedro:
— Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa eta Euskaltzaindiaren arteko *Hitzarmena* 1063

ARANBURU, Antton:
— *Mikel Zarate* saio saria 2004 1083

ARTZA, Jon:
— *Liber 2004* 1155

ASTARRIAGA, Iñaki:
— Euskaltzaindia 1153

AURREKOETXEA, Gotzon:
— Nafarroa hizkuntza kartografian 201

BADIOLA, Ricardo:
— *Liber 2004* 1155

BAÑALES, Goio:
— Edward Spencer Dodgson (1857-1922): Recopilación de sus publicaciones en prensa diaria. Homenaje a las puertas de su 150. aniversario 265

BARRIO, Pablo:
— *Toribio Altzaga* saria 1087

BILBAO, Jose Ramon:
— BBK - Euskaltzaindia sari banaketea 533
— BBK - Euskaltzaindia literatur sariak 1091
— *R.M. Azkue* literatur sariak 1107

CABRERA, Mercedes:
— *La España Metafísica* 567

CAMINO, Iñaki:
— Irizpide metodologikoak egungo euskal dialektologian 67
— Estellerriko euskara Arabako eta Nafarroa Garaiko hizkeren bidegurutzean 1137

CHARRITTON, Piarres:
— Pierre Broussain-en gutundegia 369
— Bernard Maurice Harriet (1814-1904) apezaren mendeurrenean 679
— Pierre Lafitten Gutundegia 957
P. Lafitte - A. Irigaray (1955-1970) 959

DAVANT, Jean-Louis:
— Jose Luis Lizundia euskaltzain berriari erantzuna 631
— Manex Goyhenetche zenaren oroitzapena 1173

DOBARAN, Miren:
— EUDEL-Euskaltzaindia 501

EPELDE, Iranzu:
— Larresoroko gaur egungo euskara 663

ETXEZARRETA, J. Iñaki:
— Euskaltzaindia 1067

EUSKALTZAINDIA / Real Academia de la Lengua Vasca:
— *Kanpezu* 235
— Informe sobre la denominación del barrio de *La Quadra/Lakabex* 237
— *Etxebarri* 241
— *Aretxga* 243
— Dictamen de la Comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia sobre *Deierri*, nombre del valle de Yerri en lengua vasca 245
— *Euskal Autonomia Erkidegoko eskualdeak izendatzeaz* 249
— *Errenteria* 251
— Batzar-Agiriak: 2003, XII – 2004, I, II, III, IV, V 395
— Euskaltzaindiaren ARAUAK:
• 135. Hiztegi Batua (*aurpegiera-azalkeria*) 415
• 136. Hiztegi Batua (*azalkizun-azuzena*) 421
• 137. Adierazpena, *euskalkien erabileraz* 426
• 138. Hiztegi Batua (*b – berriz*) 430
• 139. *Euskal Herria* izena 466

— Euskaltzaindiak *Euskal Herria* izenari buruz egindako txostena ... 473
— 'Garapen iraunkorra' euskaraz 485
— 'Desarrollo sostenible' en euskera 486
— Adierazpena, *euskalkien erabileraz*: Irakaskuntzan, Komunikabideetan eta Administrazioan 487
— EUDEL eta Euskaltzaindiaren arteko *Hitzarmena*, toki erakundeei laguntza teknikoa emateko izen toponimikoen arloan 495
— Euskaltzaindiaren 2004ko batzar-egutegia 507
— Agustin Kardaberazen *Eusqueraren Berri Onac* liburuaren edizio kritikoa 539
— Edición crítica del libro de Agustin Kardaberaz *Eusqueraren Berri Onac* 541
— Euskaltzaindiaren Batzar-Agiriak: 2004- VI, VII, IX,X,XI 989
— Euskaltzaindiaren ARAUAK:
• 140. *Gipuzkoako herri izendegia* 1011
• 141. *Herri-izenak: hurrenkera eta zeinu grafikoen erabilera* . 1021
• 142. *Antzinateko eskualdeen euskarazko izenak* 1029
— Batetik, Eusko Jaurlaritza, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien, eta, bestetik, Euskaltzaindiaren arteko 2004.urterako *Hitzarmen* erantsia 1037
— Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) eta Euskaltzaindiaren arteko *Hitzarmenaren* garapena 2004rako 1041
— *Lankidetza-Hitzarmena*, Iruñeko Udalaren eta Euskaltzaindia/Euskararen Erret Akademiaren artean 1043
— Tolosako Udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko *Lankidetza-Hitzarmena* 1047
Tolosako Udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko *Hitzarmena*, «Tolosako leku izenak» deituriko lana sistematizatzeko eta maketatzeko 1049
— Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren eta Euskaltzaindiaren arteko *Lankidetza-Hitzarmena* 1053

FERNÁNDEZ, María Jose:
— Estella/Lizarra - Euskaltzaindia 1119

GALÉ GARCÍA, Patxi:
— *Lezamako Toponimia:* ekarpen kritikoa 709
— *Eibarko Toponimia* 725

GARDE, Luis Miguel:
— BBB-Euskaltzaindia: Literatura sariak: Poesia 1081

GARTZIA, Pruden:
— *La España Metafísica* (Iker 16) liburuaren aurkezpena 571

GAZTELURRUTIA, Beñat:
— Gerediagako Salbadoren 643

GONZALEZ DE TXABARRI, Joxe Joan:
— Agustin Kardaberaz 555

GOIKOETXEA, Juan Luis:
— Nafarroako euskara irakaskuntzan 103

GORROTXATEGI, Mikel:
— Edward Spencer Dodgson (1857-1922): Recopilación de sus publicaciones en prensa diaria. Homenaje a las puertas de su 150. aniversario 265
— Irizpenak 701
— *Laudio* 705
— *Eibarko Toponimia* 725
— Actitud de los habitantes de Villaverde de Trucíos hacia el euskera: 1986-2002 903

HARITSCHELHAR, Jean:
— Mikel Zarateren omenaldia 17
— EUDEL-Euskaltzaindia. *Hitzarmena* 493
— BBK- Euskaltzaindia 525
— Azken hitzak 535
— *Eusqueraren Berri Onac* liburuaren aurkezpena 543
— Jose Luis Lizundia-ren sarrera mintzaldian 641
— Euskara eta Euskaltzaindia Europako hizkuntzen mosaikoan 919
— El euskera y su Academia en el mosaico lingüístico europeo ... 923
— Euskaltzaindia - Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioarekin *Hitzarmena*ren sinatzea 1061
— BBK literatura sariak 1077
— *Azkue* sariak 1103
— Gema Insausti eta Itziar Rekalde-ri zilarrezko domina ematea .. 1157

HUALDE, Jose Ignacio:
— Larri Trask 589

IBAÑEZ, Andrés:
— Gasteizko apaiztegia eta euskara gerra aurretik: Mateo Múgica Urrestarazu, 1870-1968; Joxe Migel Barandiaran, 1889-1991 ... 875

INTXAUSTI, Joseba:
— Eliza katoliko erromatarra eta euskara 811

IÑIGO, Andrés:
— EUDEL-Euskaltzaindiaren arteko *Hitzarmen* berria 503
— *Olatzagutia* 703
— *Laudio* 705
— Euskaltzaindiaren agerraldia Nafarroako Parlamentuak 927

— Comparecencia de Euskaltzaindia ante la Ponencia 939
— *Nafarroa Oinez* 2004 dela eta 1111
— Actos organizados por la Real Academia de la Lengua Vasca.... 1113
— Euskara Estellerrian 1121

IÑIGO ARIZTEGI, Patxi:
— Euskara Batua eta euskalkiak Nafarroako Administrazioan 115

IRIGARAY, J.A.:
— Pierre Lafitten Gutundegia 957
P. Lafitte - A. Irigaray (1955-1970) 959

IRIGOYEN, Arantxa:
— Maurice Harrieten euskara-frantsesa hiztegiaren berezitasunak 653

IRIONDO, Jose Mari:
— Akademiaren ekitaldi amaieran 647

KALTZAKORTA, Jabier:
— *R. M. Azkue* literatura sariak 1095
— *Azkue* sariak 1105

KINTANA, Xabier:
— Euskaltzaindiaren barne-historiaz 355
— Pruden Gartziaren, *La España Metafísica*, liburua aurkeztuz .. 561
— Andolin Eguzkitzaz (1953-2004) 579
— Euskaltzaindiaren barne-historiaz 955

KNÖRR, Henrike:
— Dialektoak interesgune 61
— Interés en los dialectos 64
— *Gasteizko kale-izendegiaz* 255
— Respuesta a la consulta elevada 259
— En la presentación de *La España Metafísica* 563
— Pedro Yrizar, langile, jakintsu, gizon 586
— Txile, Argentina eta Uruguaiko bidaiaren berri 1167
— Idazle eta ikertzaile bat liburu artean beti. Jose Antonio Arana jaunaren goraipamenez 1071

LIZUNDIA, Jose Luis:
— Mikel Zarate, bizkaieraren eta euskara batuaren arteko zubigintzaren estrategia 19
— *San Tomas* izenaz lekukotasunak 247
— Euskal kulturgintza 60ko hamarkadan 609
— Gasteizko Elizaren sortzea eta euskara 807

MEES, Ludger:
— *La España Metafísica* liburukiaren aurkezpenean 565

MUJIKA, Alazne:
— Kardaberazen prentsaurrekoa, Gipuzkoako Foru Aldundia 551

OLABARRIETA, Fernando:
— Mikel Zarateri omenaldia 29

OURET, J.P:
— Pierre Broussain-en gutundegia 369

OYHARÇABAL, Beñat:
— Euskaltzaindiaren corpusez 43

PEILLEN, Txomin:
— *Txomin Agirre* eleberri saria 531

PEREZ, Emilio:
— Euskararen egungo egoera Gasteizko elizbarrutiko pastoral jardueran 885

PERURENA, Patxiku:
— *Mikel Zarate* saria 1085

PRUDENCIO, Lourdes
— Zorrizketan, Lezamako euskera alkartea 15
— Mikel Zarateri omenaldia..... 29

REKALDE, Paskual:
— Euskara Batua eta euskalkiak Nafarroako 115

REKONDO, Jose Antonio:
— *Eusqueraren Berri Onac*, liburukiaren aurkezpena 551

REPARAZ, Josu:
— Euskaltzaindiko ekitaldietarako aurkezpena 1115
— Presentación para los actos de Euskaltzaindia 1117

SÁINZ DE LA MAZA, Karmelo:
— EUDEL- Euskaltzaindia 491

SALABERRI, Patxi:
— Toponia, Estellerriko euskararen argigarri 1127

TELLERIA, Pello:
— Ageriko bilkura 13

TORREALDAI, Joan Mari:
— Martin Ugalderen bizitzan zehar 1177

URIARTE; Javier:
— Ongi etorri Abadiñora!..... 607

URKIZU, Patrizio:
— *Toribio Altzaga* saria 529

URRUTIA, Andres:
— Mikel Zarateren irakasbidea 25
— VIII. *Jagon* Jardunaldiak: Eliza eta euskara Gasteizko elizbarrutian 803
— Eliza eta euskara Gasteizko elizbarrutian 805
— Ikastolen Konfederazioa eta Euskaltzaindia 1065
— Augustin Zubikarai Bedialauneta 1185

XARRITTON, Piarres:
— Estanislao Arantzadiren bost gutun Piarres Broussaini 357
— *EGA* Iparraldean. 1161

ZABALETA, Patxi:
— Lizarran argitaratu zen Eltsoko Santxoren *Dotrina* 1149

ZEARRETA, Juan Jose:
— *Liber 2004* 1155

ZUBELDIA, Mikel:
— *Txomin Agirre* saria 1079

ZUBIMENDI, Jose Ramón:
— JAGONET 951

ZULAIKA, Esther:
— Aita Agustin Kardaberaz, *Eusqueraren Berri Onac* (1761), edizio kritikoaren aurkezpena 545